

**I**zaten dira ale apur batzuk beti gogoa gelditzen direnak. Jarritako titulu ustez aproposarengatik, sailburuak bikarrean emandako zorion kolpetxoengatik, testuaren biribiltasunagatik edo idatzitakoak eta une hartan bizitakoak izan zuten harreman estuarengatik.

Atenas (2004). Gimnastika artiskoa eta buruz buruko finala. Carly Patterson estatubatuarren indar erakustaldia eta urrea. Idazten ari den honen kronika eta loreak harentzat. Soslaia, ordea, Svetlana Khorkinarentzat. Titulua: «Ihia haizetan bezala».

## Ihia haizetan bezala



'Citius, altius, fortius'  
Enekoitz Telleria

Joan direlako Carly Patterson eta Shawn Johnsonen garaiak, Joan Nastia Liukinenak, Joan Catalina Ponorrenak —Londresen aritu den arren—, eta etorri Gabrielle Douglas eta Jordyn Wieberrenak. Baina iherik ezin ikusi haizetan.

Gai librean aritzeko aukera ematen didan leiho honetatik egin nahi nizuke omenaldia, Svetlana. Ezin ahaztuta nabilelako zure mugimenduen soiltasunarekin, muskulu gogor eta indar bortizik gabeko gorputz horren arintasuna-

rekin, lehiakortasuna bizibide eta handinahia arau hartuta besteak baino tenteago ibili nahi horrekin, eta zergatik ez esan, zure diva jarrerarekin, tratu zakar harekin, izarren apeta ernegagarri horiekin.

Jakin badakit erretiroa hartu berritan izan zinela ama, eta Svyatoslav izena duela semeak. Izan zinela Errusiako Gimnastika Federazioko presidenteordea, eta izan dituzula zenbait kargu politiko Vladimir Putinen gobernuan. Baina nik esan nahi nizuna zen beti oroituko zaitudala ihia haizetan bezala.

02

**Pistako txirrindularitza** → Mazkiaran

03

ezinean aritu da. Olaberria, bihartik lehian.

04

**Triatloia** → Muruak lan bikaina egin du,

eta olinpiar diploma eskuratu. Rodriguez, pattal.

05

**Tenisa** → Serena Williams ez dio aukerarik eman

Xarapovari finalean. Gaur, Federer eta Murray.



London  
www.berria.info/londres12

berria  
2012ko abuztuaren 5a

## Agur handienari

Michael Phelpsek beste urte bat irabazita  
esan du agur. 22 olinpiar dominarekin doa,  
horietatik hemezortzi urrezkoak.

Arrastoa utziko du, arrasto ezabaezina. → 06-07



# Leire Olaberria

Pistako txirrindularia

**Gutxitan egon da Leire Olaberria hain ziur bere buruarekin. Hainbat arazo fisikoren ondoren, buruak eta gorputzak berriro elkar ulertu dutela aitortu du, eta oso gora begira ekingo dio lehiari, bihar, omniumean (17:08). Domina lortzea zail dagoen arren, borrokan sartu nahi du.**

GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

## « Fisikoak pisu handia dauka, baina buruak eta estrategiak ere bai »

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemalle berezia

Gozatu zuen orain lau urte Pekingo Olinpiar Jokoetan, puntuazio probako brontzezko dominarekin. Baina emaitza hura parekatu edo hobetu beharra eskatzen dio orain bere buruak eta inguruak Leire Olaberriari (Ikaztegieta, Gipuzkoa, 1977). Omniumean ariko da, bihar eta etzi, indar fisikoaz gain burua ezinbestekoa den proba gogor batean. Helburua zaila dela jakinda ere, dominegi begira ekingo dio lehiari.

**Iritsi dira Olinpiar Jokoak. Behingoz?** Ez dakit luze egin zaidan, baina egia da azken hiruzpalau urteotan helburu honekin aritu naizela lanean. Pekinen ondoren, bazi-rudien urruti zegoela, baina poliki-poliki gerturatuz joan da. Astekako neurrian aritu da lanean burua, eta horri esker egin ahal izan diot aurre prestaketari. **Bigarren ez ariko zara Olinpiar Jokotan. Pekin eta Londres. Zertan pareka daitezke biak eta zertan dira ezberdinak?**

Nire bidean azken uanean topatuen Pekin. Munduko Txapelketa martxoan izan zen, Manchesterren, eta bertan lortu nuen txartela. Martxotik uztailela arte bizi izan nuen ametsa izan zen hura. Oraingoa, berriz, lau urteko prozesua izan da. Esperientzia handiagoa daukat, hazi egin naiz txirrindulari gisa, eta eskarmentu handiagoa daukat. Aspalditik nago momentu honen zain.

**Ezagutzen duzu Londresko belodromoa, besteak beste bertan jokatu zelako, otsailean, Munduko Kopako laugarren eta azken proba. Zein ezaguarri dauzka, eta zer moduzkoak dira zuretzat?**

Oso belodromo egokia da. Ziurrenik britainiarrek egin dute gehien pistako txirrindularitzaren alde. Angeluak, egurraren kalitatea bera... dena da oso-oso egokia munduko markak etanorbere denborak hobetzeko. Ni otsailean ez nintzen gustura geratu egindako lanarekin, baina oraingoa ez dauka zerikusirik ordukoarekin. Belodromoa eta lekua bera ezagutzeak beti ematen du lasaitasun pixka bat gehiago.

**Sarritan esan izan duzu omniuma dela dagoen diziplinarik gogorrenetakoa. Dominen borrokan sartzeko, zein dira eginda daukazun kalkulak?**

Momentu honetan buruan ez daukat dominarik. Oso berezia da omniumaren izaera. Fisikoak pisu handia dauka, baina buruak eta estrategiak ere bai. Horregatik, nahiago izan dut proba guztiak banaka ahalik eta ondoen prestatzea. Orain arte egin ditudan akats txiki horiek zuzentzea eta erlojuaren aurkakoetan nire maila pixka bat igotzea izango da gakoa, ahalmena badaukadako. Azken bi urteotako emaitzak aintzat hartuta, estatistikek diote proba guztietan lehen bost-seien artean sailkatuz gero, podiuma ziurtatuta dagoela. Begiratu batera ez da hain zaila emaitza horiek lortzea, baina oso erraza da sei probetako batean hanka sartzeko; orain arte gertatu izan zait, gainera. Horregatik nahi dut sendotasuna omniumeko proba guztietan. Seiko multzo batek ez, banakako sei probek osatzen dute omniuma.

**Zer esaten du buruak omnium proba lehiatzen ari zarenean?**

Psikologikoki neke handia sortzen du belodromoan bi egun oso igaro behar dituzula pentsatzeak, edo lehen proba amaitutakoan artean beste bost falta direla pentsatzeak. Horregatik, asko laguntzen du probak banaka aztertzea eta igarotakoa igaro dela azkar barnertzeak.

**Zer ez da egin behar omniumean arrakasta lortzeko?**

Galdera ona da, eta erantzuna ere ez da zaila: omniumean zerbait lortu duzula pentsatzen duzunean, hurrengo proban dena galtzeko arriskua daukazu. Lasai-lasai barnertatu beharreko proba da, 500 metroko probarekin amaitzen direlako lanak. Bien bitartean, denbora onak lortzeagatik edo proba jakin bat irabazteagatik neurritz kanpo pozten bazara, ziurrenik garesti ordainduko duzu gero.

**Brontzezko domina eskuratu zenuen Pekinen, puntuazio proban, eta orduan berehala aitortu zenuen Londresen emaitza hori berdintzea edo hobetzea zela helburua. Hori bakarrik litzateke arrakastatsua?**

Tira... Erlojuaren aurkako hiru probetan nire denborak hobetzeko gai izan banaiz, eta beste hiruretako batean nahi nuen emaitza ez lortzeagatik laugarren-bosgarren amaitzen badut, ikasi dut onartzen nire onena emanda ere ez dela nahikoa izan. Baina nire lanarekin gustura geratzeko, podiumera igo nahi dut.

**Melbournen, Munduko Txapelketan, zortzigarren amaitu zenuen jokoa eta diziplina berean.**

### Aipatzekoak.

■ **Atletismoa.** Pistako eta errepideko txirrindulari handia da orain Leire Olaberria, baina atletismoan aritu zen umetan. Kadete mailan, esaterako, Espainiako Txapelketa irabazi zuen, 100 metrokoan.

■ **Pekinen, domina.** Orain lau urte brontzea eskuratu zuen Pekinen, puntuazio proban.



Zailtasun aldetik Londresekoaren berdina izan zen Melbourneko lehia, bai probei dagokienez, eta baita arerioei dagokienez ere. Aldaketa bakarra dago: Munduko Txapelketan 24 txirrindulari aritu ginen lehiaren finalean, eta Londresen 18 ariko gara. Fisikoki orduan baino hobeto egongo naizela uste dut, eta kanporaketa saio txar-txar baten eraginez amaitu nuen Melbourne zortzigarren postuan. Present daukat zortzigarren egin nuela, hori da errealitatea, baina badakit postu hori hobetu dezakedala eta nire esku dagoela.

**Azken urteotan nabarmen egin duzue gora, baina nabari duzue dominen borrorak arerioei aintzat hartzen zaituztela?**

Iazko denboraldia kontuan hartuta, gehien zerrrendetan egon beharko nuke agian, baina aurre egindako lanarekin, oso jende gutxiaren apustuaren agertzen da nire izena. Ez nau batere arduratzen horrek, eta, are gehiago, mesede egin diezadakedala uste dut. Munduko Txapelketaren ondoren, lau izen daukat nik fabrikatzen zerrrendan, eta oso sendo dau-

**«Oso belodromo egokia da munduko markak eta norbere denborak hobetzeko»**

**«Neurea egiten badut, badakit ez naizela ibiliko dominetatik urruti»**

de laurak. Diziplina honetan gotik ordain daiteke faborito izateak sortzen duen antsietatea eta galtzeko beldurra. Faboritoen esku utziko ditut karga horiek. Eurengandik ahalik eta gertuen egon nahi dut, eurentakoren batek huts eginez gero, tartean sartzeko.

**Lau izen aipatu dituzue, zein diren esaterik bai?**

Tara Whitten da lehenengoa. Iaz munduko txapelkun izan zen; oso txirrindulari indartsua eta ausarta da, eta asko miresten dut aurkari gisa. Sarah Hammerrek talentu ikaragarria dauka, baina talentu horrek berak galtzen du sarritan; baita antsietateak eta galtzeko beldurra ere. Eta bi txirrindulari gazte-gazte daude bi horien ondoan: Laura Trott da horietako bat. Etxean ariko da, eta Munduko Txapelketan erakutsi zuen zertarako gai den, oso fin aritu zelako lanean. Eta Annette Edmonson australiarra da laugarrena; izugarriko maila eman du gazte mailatik igotzerik.

**Lesioek eta gaixotasunek eraginda, oso gorabeheratsua izan zen lehenengo urteko uda. Azken urtebeteko prestaketak izan al du gorabeherarik, edo nahi zenuen bezala zaude?**

Urtea gogorra izan da, momentu bakar batean ere ez naizelako sentitu erabat gustura neure buruarekin. Melbourneko Munduko Txapelketan eduki nuen inflexio puntua, bertan hasi nintzelako berriz ere sentsazio onak edukitzen eta lehiaketaren gurpilean sartzen.

**2012ko abuztuaren 6a eta 7a. Azken lau urteotan bi egun horiek egon dira Leire Olaberriaren buruan. Nola lan egiten da egunerokoan bi egun horiek soilik buruan edukita? Ez da aste bat, hilabete bat edo urte bat. Bigun jakin dira...**

[Barrez] Hala da, bai. Eta bi egun jakin horietan egiten duzunaren arabera epaituko zaituzte gehienek. Bizitzan zehar ikasi dut aukera paregabea izan dela txirrindulari izateko, nire mugak non dauden ikusten lagundu didalako. Arrakastatsua litzateke Londresen domina bat lortzea, baina arrakastatsua izaten ari da iritsi naizen lekuraino iristeko egin dudana bidea bera ere. Nahi nuen jendearekin ari naiz lanean, eta eguneroko-eguneroko gozatu ahal izan dut nire lanbidearekin. Beraz, joekoetan emaitza nahi dudana ez bada ere, badakit lasai geldituko naizela.

**Momentu on asko igaro dituzue Londresera bidean, baina zail asko ere egongo ziren tartean. Zein izan da zuretzat momenturik gogorrena?**

Fisikoki eta psikologikoki, Europako Txapelketan sufritu nuen gehien; inolako zalantzarik gabe, gainera. Lehen egunean erori eta sakroa hautsi nuen. Momentuan ez geneukan oso argi zen baterainokoa zen lesioa. Bigarren egunean lidergoa defendatu nahi nuen, eta nire bizitzan inoiz ez dut hainbeste negar egin; inoiz ez dut igarero hain momentu garrantzirik. Egun hark aldatu egin ninduen, eta kirola batzuetan horrelakoa dela ikasi nuen.

**Itxi begiak eta hasi ametsetan. Azken bi, hiru, lau urteotan zer irudikatu duzue abuztuaren 7rako Londreseko belodromo dotorean?**

Egun hobeak eta okerragoak izan ditut, eta baita amesgaiztoren bat edo beste ere. Lehiaketa egunean, lehen proban, irteerara berandu iritsi naizela edo oinetakoak falta zaizkidala, horrelakoak agertzen dira beti nire amesgaiztoetan. Baina azken aldi oso gustura ari naiz sentitzen, eta neure buruarekin berriz ere lagun egiten ari naizela uste dut. Neurea egiten badut, badakit ez naizela urruti ibiliko.



Hodei Mazkian, ahalegin betean, atzo, abidura probako kanporaketa batean. IAN LANGSDON / EFE

## Zailegia zen erronka

**Hodei Mazkianek ez du lortu hamabi onenen artean sartzea, abiadura proban, baina txukun aritu da, sailkapenean eserlekua erori eta urduri jarri ondoren.**

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Ez zegoen azterketa lan zorrotzegirik egin beharrik Hodei Mazkianen Londreseko lanak hastera-ko amaitu zitezkeela ondorioztatzeke. Eta halaxe gertatu zen. Tamalez. Sailkapen fasean bertan kalera joateko zorian egon zen altsasuara, egurrean ari zela eserlekuko torloju bat askatu, eserlekua bera lurrera erori, eta indarrak gabe geratu ostein. «Min pixka bat hartu dut, gainera, hankan». Bigarren aukera eman zioten epaileek, eta 16. denborarik onenarekin egin zuen aurrera, larri. «Bigarren saio horretan urduriago jarri naiz, eta hankak nekata neuzkala nabari nuen».

Goizean, buruz burukoan, Shane Perkins australiararen aurka galdu zuen Mazkianek, argi. «Txirrindulari handia da, eta erraz irabazi dit. Baina hor, jada, hobeto sentitu naiz». Arratsaldean, berriz, bigarren aukeran, Miao Zhang txinatarraren eta Bernard Esterhuizen hegoafrikarraren aurka. Hiruretatik bakarrik egin zuen aurrera, eta bigarren geratu zen nafarra, Esterhuizeni aurrea hartu ezinik.

### Aipatzekoak.

■ **Epaileen abisua.** Dena atera zitzaion aldrebes Hodei Mazkianari. Eserlekua bere lekutik ateratzeaz gain, epaileek abisua eman zioten, azken 200 metroetan bide zuzenari ez eusteagatik.  
■ **Beste hiru egun.** Hilaren 8ra arte egongo da altsasuara Londresen, taldekideekin.

Taktikatik asko dauka abiadura probak, eta buruan jartzea zen hegoafrikarraren eta euskaldunaren helburua. Irteeran saiatu zen lehenengo Mazkian; bigarren itzulian gero, zuzengunean; eta amaieran azkenik. Baina dotore neurtu zituen indarrak Esterhuizenek. Bigarren postuarekin, akabo Londreseko lanak. «Uste nuen lehertuko zela momentu batean, eta irabazteko aukera ikusi dut. Baina ezinezkoa izan da; oso indartsu bukatu du berak». Proba amaitu eta 40 minuturako hoteleko dutxan zegoen nafarra. «17:00etan geratu naiz familiarekin, eta burua askatzera noa orain».

### «Esperientzia bikaina»

Azken orduan keirinetik abiadura probara aldatuta, «lehen hamarren artean sartzea» zen nafararen helburua. «Baina ezinezkoa izan da», aitortu zion gero BERRIARI. «Gaizki hasi da eguna, eserlekuan izan dudana arazoarekin, eta gaizki amaitu da gero, bigarren aukeran ezin izan dudalako ezer egin. Hala gertatzen da gehienetan; gaizki hasten dena...». Hamabi onenetatik kanpo geratuta, «ikasteko behintzat» balio izan diola ondorioztatu zuen nafarrak.

Olinpiar Hirian bizitzen ari den esperientziarekin dago harrিতuta Mazkian. «Lehengoa Usain Bolt bera ikusi genuen, adibidez. Gauza handia da hau». Gizonen abiadura probari dagokionez, 5. postutik 8.era artekoak zehazteko lehiak izango dira gaur, eta bihar jokatu dira finalerdiak eta finala.

Amaitu da arrun lehiaketa. Londresen, eta etxeko selezioa nagusitu da dominen sailkapenean. Bederatzi domina irabazi ditu: urrezko lau, zilarrezko bi eta brontzezko hiru. Pekinen ere Britainia Handiak eskuratu zuen domina gehien.





Ainhoa Murua, Zarauztik Londresera bera animatzera joandako jarraitzaileekin, triatloiko proba amaitu ondoren. IMANOL MAGRO



## Zorionean diplomaduna

**Ainhoa Muruak lasterketa bikaina egin du, baina korrika ez dio aurrekoen erritmoari eutsi, eta zazpigarren amaitu du. Zuriñe Rodriguez, berriz, arazo fisikoekin, 44. izan da.**

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

«Lanak merezi izan du; Ainhoak bere balioa eta maila erakutsi ahal izan du». Jon Unanue Muruaren mutil-lagun, entrenamendukide, babes, konplize, motibatzaile... hori guztia den horrek hunkituta laburbildu zuen zarauztarraren balentria. Murua zazpigarren izan zen triatloian, eta olimpiar diploma lortu zuen. Helburutzat hartua zuen, kapaz zela bazekielako, eta bere hirugarren jokoetan maisuki lehiatuz lortu zuen. Zorionak irentsi zuen bukaeran, eta zoriona barreiatu zuen Zarauztik Londresera bera babestera joandako 50 pertsonako multzo zaratatsuan. Bakarra ezin izan zuen alaitu, Zuriñe Rodriguez. Barakaldokoak, arazo fisikoekin, 44. amaitu baitzuen, espero baino atzerago.

Lasterketak hasiera bitxia izan zuen, igerian seikote batek egin baitzuen aurrera. Bertan ez zen izen handirik ageri, baina urduritasuna sortu zuen. Behin bizikleta hartuta, faboritok erritmoa estutu zuten iheslariak harrapatzeko. Muruak lan handia egin

zuen ehiza eraginkorra izan zedin. Tropela bi multzotan hautsi zen. 22 indartsuenak aurrekoan sartu ziren, eta besteak, atzekoan, tartean Rodriguez.

Korrika hasi eta berehala, Nicola Spiringek, Erin Denshamek eta enparauek erritmoa igo zuten. Hor egin zen lehen galbahea, multzoa zortzira murriztu baitzen. Muruak tinko iraun zuen; diploma multzo horretan zegoen. Andrea Hewitt australiarrek eman zuen amore lehenengo, eta Muruak gero. Azken bi itzuli eta erdietan postua ondo defendatu zuen zazpigarren bukatzeko. Irabazleari dagokionez, helmugako argazkia behar izan zen Spiring Lisa Nordenen aurretik helmugaratu zela argitzeko.

### Rodriguez, minez

Korrika saioa sufrikarioa izan zen Rodriguezentzat. Izterreko giharreko minez, ez zuen maila eman. Bera babestera Barakaldo, Madril eta Sevillatik [Espainia] gerturaturiko uniforme gorridun 40 zaleengatik amaitu zuen. «Lasterketa txarra izan da. Ez nago pozik. Etorri direngatik bukatu dut. Arantza sartua dut. Rio de Janeiron atera nahi dut».

## Ainhoa Murua

Triatleta

### «Bidea zaila izan da, baina merezi izan du»

**I.M.** Londres  
→ Berriemaile berezia

Zarauztik etorririko zale eta gertuko mila besarkada, zorion eta muxu jaso ondoren hitz egin du Ainhoa Muruak (Zarauzt, Gipuzkoa, 1978): «Egun hau ez dut inoiz ahaztuko». Ziur ezetz.

#### Ederra izan behar du lanak bukatu eta halako babes jasotzea.

Hunkigarria da hau guztia. Zarauztik etorri diren lagunei esker eman nahi dizkiet, eta pozik nago lasterketa ona irten denez haiek ere pozik egongo direlako. Egia esan, pila bat eskertzen diet babesa; jende asko etorri da. Garai hauetan honaino etortzea keinu oso polita da.

#### Zirkuituan ikusi al dituzu?

Gaur jendea toki guztietan ikusten zen; Hyde Park lepoan, baina nik ikusi dut ikurrinak non ziren, eta indar handia eman dieneto.

#### Diploma izan zitekeela zaidate.

Banekien eskura nuela, baina denak oso ondo irten behar zuten: ni indartsu egon, dena ondo joan... Korrika ere sentsazio onekin iritsi naiz, baina barea nabaritu dut, eta hirugarren itzulitik aurrera nire erritmoa jarri dut, eta diploma hori mantendu.

#### Helmugan zer pasa zaizu burutik?

Poz handia, izugarria. Lasterketa oso polita izan da, eta ahaztuko ez dudana egun bat da.

#### Sufrimenduak merezi izan du.

Dudarik gabe, bidea zaila izan da. Entrenamendu gogor asko, egun txarrak, batzuetan ez da sumatzen... baina hor izan dira etxekoa. Eta nire mutil-laguna bereziki, beti aurreraka tiratzen, eta entrenatzailea eta familia. Baina batez ere bikotekidea; entrenatzen ikaragarri laguntzen dit, eta une txarretan beti animoak ematen dizkit eta burua altxarazten dit.

#### Lasterketaren bilakaera zuk uste bezalakoa izan da.

Hasiara pixka bat arraroa izan da, ingelesak ez direlako aurrera irten. Igeriketan multzotxo osatu da, eta haiek harrapatzeko indartsu samar joan gara. Gero erorketak egon dira, eta urduritasuna egon da, baina behin harrapatu ditugunean lasaitu egin da erritmoa. Ni une oro ondo kokatuta joan naiz, eta ikusten nuen korrika erabakiko zela dena.

#### Korrika saioa indartsuenekin hasi duzu, baina ezin izan diozu eutsi.

Eurekin ondo nindoan, pixka bat gordeta. Baina barea nabaritu dudanean, hanka altxatu behar izan dut. Hamar kilometro asko dira niretzat, eta hor nire erritmoa ezarri behar izan dut. Gustura nago postu horri eutsi diodalako.

#### Ospakizunik bai?

Ospatu beharko da. Denboraldia oraindik ez da amaitu, baina zerbait egin beharko dugu honaino etorri diren hauekin guztiekin.

### Sailkapena

- Nicola Spiring** (Suitza) 1.55,48
- Lida Norden** (Suedia) d.b.
- Erin Densham** (Australia) 2ra
- Sarah Groff** (AEB) 12ra
- Helen Jenkins** (B. Handia) 31ra
- Andrea Hewitt** (Z. Berria) 48ra
- Ainhoa Murua** (Espainia) 1.06ra
- Zuriñe Rodriguez** (Euskal H.) 7.56ra



## → Laburrak

### Perkovic, Rutherford, Ennis eta Mofarah, txapeldun

**ATLETISMOA** ▶ Atletismoko bigarren jardunaldian, lau final jokatu ziren. Disko jaurtiketan Sandra Perkovic kroaziarra nagusitu zen. Emakumezkoen heptatlolean aurreikuspenak bete eta Jessica Ennis britainiarra irabazi zuen urrea. Luzera jauzian, aldiz, Greg Rutherford britainiarra izan zen onena, eta 10.000 metrokoan, Mo Mofarah britainiarra.



FELIPE TRUEBA / EFE

### Pablo Carrerak 50 metroko pistola proba du 10:00etan

**TIROA** ▶ Pablo Carrera bilbotarrrak dominaren bat lortzeko bigarren aukera izango du gaur, pistola probako 50 metrokoan ariko da. Saillkapen proba jokatuko da aurrena, 10:00etatik aurrera, eta finala, saillkatzen bada, 13:30ean. Carrerak olinpiar diploma bat lortu zuen 10 metroko aire konprimituko pistola proban, joan den larunbatean.

### Espainiak Norvegiaren aurka jokatuko du gaur

**ESKUBALOIA** ▶ Espainiako eskubalo selekzioak lehen faseko azken partida jokatuko du gaur (20:30). Espainia sailkatuta dago dagoeneko final-laurdenak jokatzeke, baina garaipena lortzen saiatuko da lehen kanporaketan aurkari samurragoa izateko. Norvegia, ordea, Europako, Munduko eta Olinpiar txapelduna da, eta Londresen urrea irabazteko hautagai da. Selekzioak lau euskal jokalaririk jokatzeke prest daude.



Serena Williams, sake bat egiten, atzoko finalean. Hankapean ibili zuen Xarapova. ANDY RAIN / EFE

# Beste egun bat bulegoan

Serena Williamsek Maria Xarapova txikitu du ordubete eskasean, eta olinpiar urrea irabazi. Joko bakarra galdu du finalean, eta set bakar bat galdu gabe nagusitu da.

#### A. Urbistondo

Egurrean eta ziztu batean. Modu horretan irabazi zuen Olinpiar Jokoetako finala Serena Williamsek. Estatubatuarrek txapelketa hasieratik erakutsitako nagusitasun berarekin jokatu zuen finala, eta Maria Xarapova aurkaria jabetu zenerako, finala erabakita zegoen. Ordubete eskaseko lana hartu zuen Williams ahizpa gazte-ena joko bakarra eman eta emaitza adierazgarriarekin aurkaria belaunikarazteko: 6-0 eta 6-1.

Apustuek Serena Williamsen alde egiten zuten nabarmen, eta hala gertatzen denean, ez da ezustekorako tarterik egoten. Estatu-batuarrak jokoa izan diren set guztiak irabazi ditu, bakar bat galdu gabe, eta partida gehientzuenak ordubeteko tartean erabaki ditu. Wozniackiri 6-0 eta 6-3 irabazi zion. Jankovici 6-3 eta 6-1, Azarenkari 6-1 eta 6-2, Zvonareva-

ri 6-1 eta 6-0, eta Radwanskari 6-2 eta 6-3. Erakustaldiz erakustaldi, finala barne. Xarapovak astindu han di samarrak jaso izan ditu Serena Williamsen aurka aritu izan denetan, baina inoiz ez zuen atzokoaren tamainako kolperik hartu. Finala jokatzen hasi aurretik, ordea, bazekien jai zuela, elkarren aurka jokatu duten 10 partidetatik zortzi irabazi baititu estatubatuarrek.

Williamsek markak ondu eta ondu jarraitzen du. Tenis zirkuituan irabaz daitekeen gutziera irabazi du dagoeneko, baina urrezko domina falta zitzaion Olinpiar Jokoetan. Akaso Londreskoak izango dira azkenak, Williams gazteak 30 urte dituelako, dagoeneko, eta ondo baliatu du aukera hori. Serena Williams da, Steffi Grafekin batera, lau Grand Slam-ak eta Olinpiar Jokoak irabaztea lortu duen tenislari bakarra. Alemaniarrak, ordea, urte berean gauzatu zuen erronka hori, 1988an,

eta Serena Williamsek beste lau urte barru lortu beharko du, aurren, dagoeneko, ezinezkoa delako.

Serena Williams munduko laugarren tenislari onena zela iritsi zen Londresera, 2011 ia osoa jokatuta gabe egin ostean, biriketako enbolia bategatik. Pasa den urtean itzuli zen, Flushing Meadows-en, eta finala jokatu. Wimbledon irabazi du aurren bosgarrenez, Australiako Irekiak adina. AEBetako Irekia hirutan irabazi du, eta Roland Garros behin. Williamsek 43 torneo irabazi ditu 1995az geroztik, 14 Grand Slam.

#### Federer-Murray gaur

Emakumezkoen txapelketa bukatuta, gizonezkoena jokatuko da gaur, bazkalorduan (14:00). Roger Federer eta Andy Murray elkarren aurka ariko dira, urrearen bila. Federer suitzarra da favorito, Murray baino askoz garaipen zerrenda potoloagoa duelako, eta finala Federerrek hain kuttun duen Wimbledongo belazean jokatuko delako. Murrayk, dena den, lanak eman diezazkioke favoritoari. Finalerdietan Novak Djokovic menderatu zuen ezustean, eta eskoziarra den neurrian, motibazio handiarekin ariko da.

#### Banakakoa (E)

1. **Serena Williams** (AEB)
2. **Maria Xarapova** (Errusia)
3. **Victoria Azarenka** (Bielorrusia)

#### Binakakoa (G)

1. **Bryant-Bryant** (AEB)
2. **Llodra-Tsonga** (Frantzia)
3. **Benneteau-Gasquet** (Frantzia)

Guatemalark bere historiako lehen domina lortu zuen atzo. Erick Barrondo biltzarrik bigarrenbikatu zuen 20 kilometroko proba. 13. aldiz ari da parte hartzen jokoetan Guatemalan.



# Gure kirolariekkin bat




# Oro ez baita urre

**Amaitu da igerilarien jarduna, eta amaitu betiko Phelpsena. Haren itzalean egin du aurrera lehiaketak oraingoan ere, baina lekukoa jasotzeko hautagaiak eta izarrek emakumezkoen txapelketak eman ditu.**

## Enekoitz Telleria

**G**ertatzen da bakarraren jardunak beste guztienak estaltzea. Gertatu zen Atenasen, gertatu zen Pekinen eta gertatu da Londresen ere. Michael Phelps-en inguruan zera zen zalantza: beste guztien lana bere lan onak utziko ote zuen itzalpean, edo bere lan kaskarrak, gainbeherak. Lehenengotik izan du bigarrenetik baino askoz gehiago, nahiz eta ez duen azken urteotako nagusitasun hori erakutsi. Lekukoa, hori bai, emakumezkoek hartu dute.

## Bikain



**Michael Phelps:** Gaizki ohitu ditu guztiak, eta ez zen ohi bezala hasi: kontrarioak hankapean

## Errekorrak

Munduko bederatzigarren errekor apurtu dira igeriketan Londresko Olinpiar Jokoetan:

- **Missy Franklin.** Bizkar estiloko 200 metrokoan (2.04.06).
- **Rebecca Soni.** Bular estiloko 200 metrokoan (2.19.59). Finalerdietan ere apurtu zuen (2.20.00).
- **Dana Vollmer.** Tximeleta estiloko 100 metrokoan (55.98).
- **Ye Shiwen.** Estiloko 400 metrokoan (4.28.43).
- **Daniel Gyurta.** Bular estiloko 200 metrokoan (2.07.28).
- **Cameron Van der Burgh.** Bular estiloko 100 metrokoan (58.46).
- **Sun Yang.** 1.500 metrokoan (14.31.02).
- **AEB.** 4x100 estilokoak (3.52.05)

hartuta. Are gehiago, dominarik lortu ezinda ekin zion lehiaketari, eta laugarren bukatu zuen estiloetako 400 metrokoa. Haren sasoiari buruzko lehen zalantzak, gainbeheraren lehen zantzuak zirela esanez lehen adierazpenak... 4x100ekoan eta tximeleta estiloko 200 metrokoan, bere betiko proban, zilarrek *bakarrik* lortzeak ez zituen zalantzak gutiz argitu, baina 4x200 estiloetan lortutako urrearekin hasi zen goraka. Olinpiar Jokoen domina gehien lortutako kirolaria zen orduko, eta urrea lortu zuen 200 metro estiloetan, urrea tximeleta estiloko 100 metrokoan eta urrea atzo 4x100 estiloetan. Bikaina.



**Missy Franklin:** Horren gaztea izanda horrebesterainoko zama ganean jarri izanak ematen zien beldurra haren alde tamainako apustua egin zutenei. Zazpi probatan aritu da Missy Franklin Londresko Olinpiar Jokoen. Zazpitan nahi zuen dominaren bat lortu, eta jakina zen erronka handia zela hori. Ez lortzeak, hala ere, ez du bikain aritu diren zerrendatik at utzi.

Urrezko lau domina irabazi ditu eta brontzezko bat. Bizkar estiloan parekorik ez duela erakutsi du, eta munduko errekorra hobetuta irabazi zuen 200 metroko jarduna. Berretsi du gaia ba-

duela, heldutasuna duela, eta haren alde egindako apustua balekoa zela, apustu handiegia izan zen arren.



**Ye Shiwen:** Londresko Jokoen ikusi eta bizitako saiorik bikainena harena izan da. Estiloetako 400 metrokoan egin zuen, igeriketarako duen probarik gogor eta bikainenean, eta munduko errekorra apurtuta lortu zuen, guztien harridurarako. 16 urte besterik ez dauzkalako, eta azken luzea proba berean irabazi zuen gizonetako baino azkarrago osatu zuelako.

Tamainako marka egin izanaki sortu du haren inguruan zalantza eta zurrumurrua, baina 200 metrokoan ere urrea lortuta isilarazi zituen gehienak. Eta haren itzalean egin du bidea Sun Yang herrikideak, baina merezi du aipamena, hiru domina lortu dituztenen zerrendan sartu baita (urre, zilar eta brontze bana).



**Allison Schmitt:** Eta haren pare aritu diren beste hainbat ere bai azken zaku honetan sartzeko

modukoak. Allison Scmitt bost domina lortu ditu: urrezkoak hiru, zilarrezkoa bat eta brontzezkoa beste bat. Horregatik jarri dugu besteen aurretik. Ezusteko handiena 200 metro estiloak irabazita eman zuen.

Eta harekin batera, beste bi estatubatuar: Dana Vollmer eta Rebecca Soni. Vollmerrek tximeleta estiloko 100 metrokoan munduko errekorra apurtuta lortu zuen urrezko domina, eta 56 segundoko langatik jaisten lehena izan da (55,98). Erreleboetan lortu zituen gero beste bi urre. Rebecca Sonik bular estiloko 200 metrokoan munduko errekorra apurtuta lortu zuen urrea. Barea zen lehengo marka ere, baina aurreneko aldiz 2.20ko langatik jaista lortu zuen (2.19.59).

Lasai ederrean sartu ditzakegu bikaintasunaren zakuan beste bi igerilari: Ruta Meilutyte lituaniarra eta Katie Ledecky estatubatuarra. 15 eta 16 urterekin irabazi dituzte urrezko dominak.



**Sun Yang:** Distantzia luzean adina egiten du igerian distantzia ertainean. 1.500 metrokoan da espezialista, munduko txapeladuna, munduko markaren jabea, eta olinpiar txapeladuna ere bai atzodanik. 1.500ekoan espero zen haren urrea, nagusitasun aparta erakutsi duelako distan-



tzia horretan azken urteetan, eta ez zuen atzokoan hutsik egin. Espero ez zena zen bere marka hiru segundotan hobetzea. Kontua da, gainera, ez zela atzoko hori izan txinatarrak Londrestik golkoan daraman domina bakarra: 400 metrokoan ere bera izan zen azkarrena eta 200 metrokoan brontzezko domina lortu zuen.

Sekulakoa da haren meritua, eta gutxi dira hark adina erraztasun dutenak. Ez delako ohikoa izaten distantzia luzean espezialista direnak distantzia erdainean dominak irabaztea.



## Ongi

**Ryan Lochte:** Behingogatik Michael Phelpsen itzaletik irten eta argitara urratsa egin behar zuenak ez du urratsik egin azkenean, baina ezin jarriko dugu horregatik erdipurdi aritu direnen zerrendan, bost domina lortuta joango baita Londrestik: urrezkoak bi, zilarrezkoak beste bi eta brontzezkoa bat. Kaleak eta baleak tartekatuz egin du aurrera Londresen, ez du belaualdi aldaketa gauzatu, baina berak izango du aurrerantzean aldaketa hori gauzatzearan ardura.



**Yannick Agnel:** Guztiak Phelpsen eta Lochteren jardunari begira zeuden garaian agertu zen igerilari frantziarra ezerezetik. Bi egunetan urrezko bi domina irabazi zituen. 4x100 metroko-

an lehenengoa eta 200 metrokoan bigarren. Txandakakoan lortutakoa lehen abisua izan zen AEBentzat. Agnel bera izan zen azken txanda egin zuena eta Lochteren pare ez, hura baino hobeto aritu zen. Horregatik izan zen ezusteko txikiagoa hurrengo egunean gertatu zena. Agnelek irabazi zuen urrea 200 metrokoan, eta Lochte ez zen lehen hiruren artean ere sartu. Horrez gain, erreleboka zilarra lortu zuenez, hiru dominarekin joan da Agnel Londrestik.



## Erdipurdi

**James Magnussen:** Ez zuen inork 100 metrokoan haren urrezko domina zalantzan jartzen. Zalantza bakarra munduko marka apurtuta lortuko ote zuen zen. Baina kale egin zuten iragarpen guztiek eta Nathan Adrian estatubatuarrek hartu zion aurrea finalean, ehuneneko bakarrarengatik. Zilarra lortu zuen Magnussenek eta ezin da esan horregatik porrot egin zuenik, baina horren ziurtzat jotzen zen haren urrea... Aspaldian ez du australiar batek urrerik lortu 100 metrokoan (Mexiko 1968tik) eta Londresen joera hori apurtuko zutelakoan zeuden. Kolpea izan zen Australiarentzat.



**Federica Pellegrini:** Izarra da Italian. Kirol horrek herrialde horretan sekula eman duen igeri-

laririk onena, inondik ere. Igerilekuetan da ezaguna eta igerilekuetatik kanpora da ezaguna. Eta ez da edonor: 200 eta 400 metroetan munduko markarik onenak harenak dira, eta urrea lortu zuen bietan azkena jokatutako munduko txapelketan. Atenasen zilarra irabazitakoa zen, Pekinen urrezko domina irabazitakoa, eta faboritoen zerrendan zegoen Londresen.

Ez du, ordea, ezertxo ere egin. Estiloiako 200 metroetako finalean sartu zen. Espezialista da italiarra horretan, baina bosgarren sailkatu zen finalean. Ez du, inolaz ere, bererik eman. Italian, haren aroa bukatu dela esan dute emaitza horiek ikusita.



**Kosuke Kitayima:** Erronka handi samarra zeukan igerilari japoniarrak Londresen: proba berean urrezko hiru domina irabaztea hiru joko ezberdinetan jarraian. Aurretik beste inork sekula egin gabekoa zen, eta bi hautagai zeuden ekitaldi honetan bialentria hori egiteko: Michael Phelps eta Kosuke Kitayima. Egun berean izan zuten biek lehen erroka eta egun berean egin zuten biek kale. Kitayima bular estiloan da espezialista, 100 eta 200 metrokoan, jokatu zuen 200 metroko finala, baina laugarren sailkatu zen. Kale. Phelpsek bai, gaudituz zuen marka hori ere, 200 metro estiloetan eta tximeleta estiloan 100 metrokoan.

30 urte dauzka Kitayimak eta dominarik gabe utzi du Londres. Belaunaldi berriek tokia uzteko garaia da. 100 metrokoan Van der Burghek munduko marka eginda irabazi zuen, eta 200 metrokoan Gyurtak apurtu zuen.

## Phelpsek beste urre bat irabazita esan du agur



Michael Phelps, taldekideekin, bere agurrekoan. HANNIBAL / EFE

### E. Telleria

Agurren eguna zen atzokoa. Igeriketaren agurra Londresko Olinpiar Jokoetatik eta inoiz izan duten kirolari onenaren agurra ere bai Olinpiar Joko horietatik. Jardunaren agurrak ez zuen hutsik egin: lau final eta bi munduko errekor. Michael Phelpsen agurrak ere ez: urrea 4x100 estiloetan, AEBetako selekzioarekin. Gailurretik esan nahi zuen agur eta gailurretik esan du agur. Joan da kirol horrek inoiz eman duen igerilaririk onena.

### Sun Yangen erakustaldia

Ez zen besterik espero 1.500 metrokoen finalean, baina Sun Yang txinatarrak sekulakoa egin zuen atzo. Urrezko domina irabazteaz gain, aurretik berak zeukan marka 3,12 segundotan hobetu zuen, eta bigarrenari, Cochraneri, 8,61 segundoko tartea atera.

Eta eguneko beste munduko errekorra AEBetako emakumezkoek lortu zuen 4x100 estiloetan. Tardean ziren jokoetako igerilari bikainenak. AEBek 30 domina lortu dituzte igeriketan.

### Phelpsen datuak

■ **Atenas (2004).** Urrezko sei domina eta brontzezko bi. Urreak: 200 metro estiloak, 4x200 libreak, 4x100 estiloak, 100 eta 200 tximeleta. Brontzeak: 200 metro libreak eta 4x100 libreak.  
■ **Pekin (2008).** Urrezko zortzi domina: 400 estiloak, 4x100 libreak, 200 libreak, 100 eta 200 tximeleta, 4x200 libreak, 200 estiloak, 4x100 estiloak  
■ **Londres (2012).** Urrezko lau domina, eta zilarrezko 2. Urreak: 4x200 libreak, 4x100 estiloak, 200 estiloak eta 100 tximeleta. Zilarrak: 4x100 libreak eta 200 tximeleta.  
■ **Guztira.** 22 domina; 18 urrezkoak.

**H**orixe bakarrik falta zitzaion, aukia haustea. Esertzen ere ez diote uzten gaixoari. Ez du urrezko dominarik irabazi Londresen, ez du diplomarik ere lortu, ez du telebista eta irrati saioetako minutu bakar bat ere bete; egunkari gehienetan ere azken lerroetan agertuko da haren izena. Baina duintasuna merezi du, gutxienez. Eta hori ere lapurtu egin nahi izan diote. «Azken unean froga bat egin ziguten, eta, hark irabazi zuenez [Juan Peralta nafarrak], hura ariko da keirinean Londresen, eta ni abiaduran».

## Duintasuna galduta



'Off the record'  
Unai Zubeldia

Lotsatuta bezala egin zidan aitorten hori Hodei Mazkiaraneke, Londresera abiatu baino egun gutxi lehenago. Lau urteko lana nahikoa ez, eta bost egun lehenago «froga bat» egin behar. «Biok nahi genuen keirinean lehiatu eta...». Tonbola edo zer da hau? Milaka euro kobratzen dituztenak erabakia hartzeko gai ez zirenez, Palmara Joan (Herrialde Katalanak), 500 metroko eremuan froga egin, eta eskuak garbitu. Aurpegira barre egitea da hori. Bi kirolari handi murtututa jartzea. «Giroa ona da, normala...». Mazkiaraneke berak ere ez zuen si-

nesten esaten ari zena. Lotsatuta egon nintzen atzo haren lanari begira. Baina lotsatuta egon beharko luketenak Londresko belodromotik urrun egongo ziren, ziurrenik.

Ez nuen askoz gehiago espero, hala ere, domina nahikoa eskura zeukan txirindulari bat kalean utzi dutenengandik. Unai Elorriaga bizkaitarrak Munduko Kopako proba irabazi zuen abenduan, Calin, Kolonbian, baina Palmako errendimendu altuko zentroan ez dagoenez... Kirolak (ere) gehiegi dauka politikatik. Zoritzarrez.

08

## Seigarren uztaila



berria  
2012ko abuztuaren 5a



## Scott Sunderland

Australiako pistako selekzioko txirindularia

Lehen aldiz ari da parte hartzen jokoetan Scott Sunderland australiarra, aurten taldekako abiadura munduko txapeldun izandakoa; triste antzean dago.

# «Dominen borrokan sartu nahi nuen lehen jokoetan, baina...»

Unai Zubeldia Londres  
→ Berriemaitte berezia

Ostegunean jokatu zen gizonen taldekako abiadura proba, eta orduko amorrua baretu ezinik dabil oraindik Scott Sunderland (Busselton, Australia, 1988). Apirilaren 4an, Melbournen, Munduko Txapelketa irabazita,

### Aipatzekoa.

■ **Izaba, jokoetan.** Scott Sunderland ez da bere familian jokoetan aritu den kirolari bakarra. Izan ere, izaba, Jenny Sunderland, 1972ko Muni-cheko Jokoetan aritu zen, gimnastikan.

jokoetan dominaren bat kolkoratzeke faboritoetako bat zen Australia. Baina laugarren amaitu zuten Sunderlandek berak, Matthew Glaetzerrek eta Shane Perkinsek —Hodei Mazkiaran kanporatu zuen atzo azken horrek—, Britainia Handia, Frantzia eta Alemaniaren atzetik. Erabat etsita, abiadura proban ez parte hartzea erabaki zuen Sunderlandek.

### Lehenik eta behin, zer moduzko esperientzia ari da izaten Olinpiar Jokoetako?

Lehen aldiz ari naiz parte hartzen jokoetan, eta harrigarria ari da izaten dena. Hemen ikusmin handia sortzen du edozein ekitaldik eta zaleak garrasika hasten dira berehala. Ederra da giroa. Leku guztietan dago giro bikaina, eta olinpiar hirian ere izar handiak ikusteko aukera daukagu: Kobe Bryant NBAko jokalaria, Usain Bolt [Glaetzer taldekideari galdutu behar izan dio jamaikararen izena botatzeko]... Munduko kirolaririk onenak inguruan dauzkagu, eta, zalantzarik gabe, zoragarria da bizitzan behin gutxienez halakoak bizitzea. Umetan telebistari begira egoten nintzen Olinpiar Joko guztietan, eta Australiaren koloreak defendatzeko aukera eman didate orain.

### 24 urte besterik ez dauzkazu, eta Australiako talde handian zaudete. Zer sentitzen da entrenatzaileen aldetik halako konfiantza jasotakoan?

Sinestezina da talde honen parte izatea. Hori bai, pena handia daukagu, lehengoan laugarren izan ginelako taldekako abiadura proban. Munduko Txapelketa irabazi genuen apirilean, etxean, eta oso triste gaude Londresko emaitza honekin. Dominen borrokan sartu nahi nuen lehen Olinpiar Jokoetan, baina oso selekzio indartsuak daude hemen. Beste batean izan beharko du.

### Olinpiar Jokoena, hala ere, ez da kirol lehia bakarrik. Zerbait gehiago ere bada. Nola ari zara bizitzen jokoan beste alde hori?

Oraingoz ez dugu aukera askorik izan Londres erdialdera joan eta lasai ibiltzeko, lehiaketan sartuta ibili garelako. Baina egunotan joango gara taldekide guztiak, ar-

gazki batzuk ateraz eta zerbait erosiz. Olinpiar hirikoa, berriz, esperientzia desberdina da, oso berezia. Kirolari asko oso gertukoak ari dira izaten, eurretako batzuekin lasai hitz egiteko aukera ere eduki dugu, eta, onerako, nahiko harrututa geratzen ari naiz horretan.

### «Ikusmin handia dago, eta zaleak garrasika hasten dira berehala. Ederra da»

### «Jokoen gauzarik onena? Chris Hoyrekin egon ahal izatea, adibidez»

### Zer azpimarratuko zenuke Olinpiar Jokoetatik, onetik eta txarretik?

Txarretik oso zaila da zerbait esatea. Onena, berriz, eguneroko momentu berezi horiek bertatik bertara bizi izatea. Hain talde eta kirolari handien ondoan egotea, Chris Hoyrekin egon ahal izatea... Handia da Olinpiar Jokoen sentitzen dena, eta, harrigarria bada ere, aukera hori izaten ari naiz ni ere.

### Nola hasi zinen pistako txirindularitza? Errepidekoan aritu zinen aurretik edo pistak erakarri zintuen hasieratik?

11 urterekin hasi nintzen pistako txirindularitza, Busseltonen bertan, nire jaioterrian, Australiaren. Aita ere txirindularia izan zen bere garaian, eta osaba bat, aitona eta anaia zaharrena ere bai. Egun batean bere proba bat ikusterat joan nintzen, eta ordutik ez naiz geratu. Gure familian indar handia dauka txirindularitzak, eta nik ere gozatu egiten dut kirol honekin.

Bilbon kirol guztietarako lekua dago

en Bilbao hay sitio para todos los deportes

Bilbao Kirolak  
www.bilbaokirolak.com



**E**zer baino lehen, zorrak kitatu, eta atsegin handiz gainera. Zarauzko triatloi talde-familiaren berri izan eta Ainhoa Muruaren olinpiar balentriaren argazki, bideo eta testigantza gehiago nahi dituenak: *poyetechannel* taldea bi-latu behar du Facebook edo Twitter sare sozialetan. Txiste errazak egin zale-entzat, poyete tranpolin mota bat da.

Kazetariari inplikazio emozionala albo batera utzi behar duela erakusten diote falkultatean. Distantzia jarri behar duela. Askotan, baina, zaila da, are gehiago, nire kasuan bezala, kirol ekital-

## Murua's bridge



'Betweenland'  
Imanol Magro

dia zaleen artean kamuflatuta ikusten denean. Triatloi proba Zarauztik joanda-ko zaleen berotasun eta tratu goxoan ikusi nuen, Hyde Parkeko zubiaren alboan. Serpentine Bridge Murua's Bridge bilakatzeko mozioa aurkeztetikotan nago Londresko udaletxean.

Toki bikaina. Publikoki zoriondu nahi dut mapa ikertu eta txokoa aukeratu zuten kartografoari. Hamazazpi aldiz ikusi genituen muturren parean lehiakide guztiak. Onena, baina, konpainia. Eskainitako jan-edanak; gordetako tokia; parte hartzaile guztiei emandako ani-

moak... Euren kutuna Murua izan arren, gogoangarria Zuriñe Rodriguez jota ikusi zutenean eman zioten babesa. Oharrak hartzeko koaderno munduarengandik babesteko ezkutua da kronistenta, baina ez du hunkitzea ahalmena oztopatzen.

Eta are hobea bukaera Muruarekin topo egin, eta ospakizunak gertutik jarraitu, filmatu eta argazkiak ateratzeko erraztasunak. Hitz txarrak ez, dena borrontate ona. Eskerrik asko, eta besarkada bat. Hala gustua ematen du kronikak idatzi eta barrutik bizitzeak.

berria  
2012ko abuztuaren 5a



Kronika

09

# Auzo bat alokagai

**Olinpiar Jokoek bultzaturiko eraldaketak Stratford eta inguruko auzoetako alokairuen prezioa igo du, eta, bide batez, aldaketa demografikoa eragin.**

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

**S**tratford auzoko argazkia da. Olinpiar gunea atzean utzi eta ezkerrean kilometro erdi ibiltzea asko da hamabost bat bulego eraikin ikusteko. Kolorre, itxura eta tratamendu desberdina. Askotan, bezero jakin batzuei, etorkinak kasu, zuzenduak. Etxeetan ere ugariak dira logelak eta pisu osoa alokatzeko afixak. «Stratford modan dago. Aurretik, adibidez, Hackneyn gertatu den bezala. Etxebizitzari dagokionez, Londresko puntu bero bat da, eta etxeen jabeek badakite». Azalpena Lee Lingardena da, inguru horretan bizitzen hamahiru urte dararamatzen higiezin bulego bateko langilea.

Olinpiar Jokoak iraun bitartean alokairua hogeitaz igo duen jaberik egon da, enpresaren batek amua irentsiko zain. Interneten ere aurki daitezke egun bate-rako 200 euro eskatzen duen jabe-

rik. Askok negozioa ikusi dute jokoetan, eta euren pisuetan bizi zirenak kaleratu egin dituzte. Londresko Udalak onartua da Stratford inguruan 21.000 izan zirela babes sozialeko etxea kolpetik eskatu zuten familiak. Interneteko solasguneetan sartzea aski da alokairua kolpetik igo dioten bizilagunen testigantzak jasotzeko. «Lehen 400 euro balio zuen logela bategatik 600 eskatzen dizkit orain jabeak. Jokoengatik dena igo dela esan dit». Londresen bizi den espainiar baten hitzak dira.

Olinpiar Jokoetako egoera, baina, ezin da eredu modura hartu. Interpretazio zabalagoa egin behar da benetako eragina sumatzeko, eta Lingardek egin du. «Azken bost urteetan asko aldatu da ingurua, berpiztu egin da. Victoria Station ez dago hain urrun, eta jende berria iristen ari da. Adibide bat, lehen, hilabetean 950 libra (1.200 euro) balio zuen etxeak, eta orain, jokoek eragindako berpizkudearen eraginez, 1.200tik gora (1.500 euro)». Bere bulegotik ez

### Alokairuak

■ **Igoera.** «Lehen 950 libra (1.200 euro) balio zuen etxeak, jokoek eragindako berpizkudearen eraginez, 1.200tik gora (1.500 euro)», analisia Lee Lingardena da, Stratfordeko higiezin bulego batean hamahiru urte dararaman langile batena.



Stratfordetik gertu alokatzeko dagoen bulego eraikin bat. IMANOL MAGRO

oso urrun aldi baterako lanak eskaintzen dituen bulego bat dago, eta eskaintza gehienetan soldata zortzi eta hamabi liberakoa da orduko. Batez bestekoa hamar liberara dira, bider 40 ordu astean laurahun, hilabetean 1.200.

Ingalaterran alokairu kontratua bukatzean jabeak nahi beste igotzeko eskubidea du, eta Lingardek azaltzen duenez, jabeek normalean etxe asko dituzte. Sal-

menta, berriz, ez dago puri-puritan. «Hor bai nabaritzen dela krisia, hurrengo urteetako bilakaera ikusi behar da». Alokairuen garestitzeak, era berean, auzoko jendea aldatu du. «1990eko hamarkadan oso jende txiroa zegoen Stratforden, eta, apurka, maila ekonomiko ertaineko jendea iristen ari da, langile kualifikatuak. Aurretik Islington edo Hackneyn gertaturikoa gertatuko da hemen».



**Aupa Mikel eta Ainhoa!**

ZARAUZKO UDALA  
**euskal kirolariekina bat**



## Finalak

- 12:00. Atletismoa.** Maratoia (E).  
**13:00. Tenisa.** Binakakoa (E), binakako mistoa eta banakakoa (G).  
**13:30. Olinpiar tiroa.** Pistola 50 metrokoan (G).  
**14:00. Badmintona.** Banakakoa (G).  
**14:00. Bela.** Star (G).  
**15:00. Bela.** Finn (G).  
**15:00. Gimnastika artistikoa.** Zorua (G).  
**15:15. Badmintona.** Binakakoa (G).  
**15:50. Gimnastika artistikoa.** Jauzia (E).  
**16:30. Halterofilia.** 75 kilotik gorakoa (E).

- 16:41. Gimnastika artistikoa.** Zaldi arkoduna (G).  
**19:16. Pista.** Kilometrokoa (G).  
**20:03. Borroka greko-erromatarra.** 55 kilokoak (G).  
**20:00. Jauziak.** 3 m. plataforma (E).  
**20:15. Esgrima.** Taldekako floreteak (G).  
**20:35. Atletismoa.** Luzera jauzia (E).  
**20:48. Borroka greko-erromatarra.** 74 kilokoak (G).  
**21:20. Atletismoa.** Mailu jaurtiketa (G).  
**22:10. Atletismoa.** 400 metrokoa (E).  
**22:25. Atletismoa.** 3.000 metro hesidunak (G).

- 22:50. Atletismoa.** 100 metrokoa (G).

## Euskal herritarrak

- 10:00. Pablo Carrera.** Olinpiar tiroa. 50 metro pistolarekin.  
**13:00. Iker Martinez eta Xabi Fernandez.** Bela. 49er mailako 12. eta 13. estropadak.  
**20:30. Eskubaloia (emakumezkoak).** Norvegia-Espainia (20:30).  
**13:00 (bihar).** Iker Martinez eta Xabi Fernandez. Bela. 49er mailako 14. eta 15. estropadak.  
**17:08 (bihar).** Leire Olaberria. Pista. Omniuneko lehen hiru probak.

- 20:30 (bihar).** Eskubaloia (gizonezkoak). Espainia-Kroazia (20:30).

## Telebistak

- La1. 09:30.** 14:30ak arte, eta gero 15:00etatik 23:45ak arte. Jarraian laburpena.  
**Teledorte. 10:00.** 02:00 arte zuzenean. Ondoren, laburpena.  
**France2. 11:45.** 13:00 arte zuzenean. Gero, 14:45etik 20:00etara, eta 20:40etik 01:00etara.  
**France3. 09:00.** 12:00 arte zuzenean. Gero, 12:55etik 14:45era, eta 19:55etik 20:35era.

## Igeriketa

- **50 METROKOA (E)**  
 → **Dominak**  
 1. Ramoni Kromowidjojo (Herb.)  
 2. Aliaksandra Herasimenia (Bie.)  
 3. Marteen Veldhuis (Herb.)

- **1.500 METROKOA (G)**  
 → **Dominak**  
 1. Sun Yang (Txina)  
 2. Ryan Cochrane (Kanada)  
 3. Oussama Mellouli (Tunisia)

- **4X100 ESTILOAK (E)**  
 → **Dominak**  
 1. AEB  
 2. Australia  
 3. Japonia

- **4X100 ESTILOAK (G)**  
 → **Dominak**  
 1. AEB  
 2. Japonia  
 3. Australia

- **Atletismoa**  
 ■ **20 KM BILKETAN (G)**  
 → **Dominak**  
 1. Chen Ding (Txina)  
 2. Erick Barrondo (Guatemala)  
 3. Wang Zhen (Txina)

- **DISKO JAURTIKETA (E)**  
 → **Dominak**  
 1. Sandra Perkovic (Kroazia)  
 2. Daria Pityalnikova (Errusia)  
 3. Li Yangfeng (Txina)

- **LUZERA JAUZIA (G)**  
 → **Dominak**  
 1. Greg Rutherford (B. Handia)  
 2. Mitchell Watt (Australia)  
 3. Will Claye (AEB)

- **HEPTATLOIA**  
 → **Dominak**  
 1. Jessica Ennis (Britainia Handia)  
 2. Tatiana Leshchikova (Errusia)  
 3. Liudmila Yosipenko (Ukraina)

- **Esgrima**  
 ■ **EZPATA TALDEKA (E)**  
 → **Dominak**  
 1. Txina  
 2. Hego Korea  
 3. AEB

- **Pista**  
 ■ **TALDEKAKO JAZARPENA (E)**

- **Dominak**  
 1. Britainia Handia  
 2. AEB  
 3. Kanada

## Halterofilia

- **94 KILOKOA (G)**  
 → **Dominak**  
 1. Iliia Ilin (Kazakhstan)  
 2. Aleksandr Ivanov (Errusia)  
 3. Anatoli Ciricu (Moldavia)

- **Olinpiar tiroa**  
 ■ **ERRIFLEA. HIRU POSIZIO (E)**  
 → **Dominak**  
 1. Jamie Lynn Gray (AEB)  
 2. Ivana Maksimovic (Serbia)  
 3. Adela Sikorova (Txekia)

- **TRAP-A (E)**  
 → **Dominak**  
 1. Jessica Rossi (Italia)  
 2. Zuzana Stefecekova (Eslovak.)  
 3. Delphine Reau (Frantzia)

- **Badmintona**  
 ■ **BANAKAKOA (E)**  
 → **Dominak**  
 1. Li Xuerui (Txina)  
 2. Wang Yihan (Txina)  
 3. Saina Nehwal (India)

- **BINAKAKOA (E)**  
 → **Dominak**  
 1. Tin-Zhao (Txina)  
 2. Fuji-Kakiwa (Japonia)  
 3. Sorokina-Vislova (Errusia)

- **Tranpolina**  
 ■ **EMAKUMEZKOAK**  
 → **Dominak**  
 1. Rosannagh MacClennan (Kan.)  
 2. Huang Shanshan (Txina)  
 3. He Wenna (Txina)

- **Arauna**  
 ■ **SCULL BANAKA (E)**  
 → **Dominak**  
 1. Miroslava Knapkova (Txekia)  
 2. Fie Udby Erichsen (Danimarka)  
 3. Kim Crow (Australia)

- **SCULL BIKOITZA ARINA (G)**  
 → **Dominak**  
 1. Rasmussen-Quist (Danimark.)  
 2. Purchase-Hunter (B. Handia)  
 3. Uru-Taylor (Zeelanda Berria)

- **SCULL BIKOITZA ARINA (G)**  
 → **Dominak**  
 1. Copeland-Hosking (B. Handia)  
 2. Xu-Huang (Txina)  
 3. Giazitidu-Tsiavu (Grezia)

- **SCULL LAUKOITZA (G)**  
 → **Dominak**  
 1. Britainia Handia  
 2. Australia  
 3. AEB

## ← Emaitzak

## ← Dominak

Herrialdea	Urr.	Zil.	Bro.	G.
1. AEB	26	11	15	52
2. Txina	25	16	12	53
3. Britainia Handia	13	7	8	28
4. Hego Korea	9	3	5	17
5. Frantzia	8	6	8	22
6. Alemania	5	9	6	20
7. Italia	5	5	3	13
8. Kazakhstan	5	0	0	5
9. Ipar Korea	4	0	1	5
10. Errusia	3	16	9	28
11. Herbehereak	3	1	4	8
12. Hegoafrika	3	1	0	4
13. Zeelanda Berria	3	0	4	7
14. Japonia	2	10	12	24
15. Kuba	2	2	1	5
16. Hungaria	2	1	2	5
17. Polonia	2	1	1	4
18. Ukraina	2	0	5	7
19. Australia	1	12	7	20
20. Errumania	1	4	2	7
21. Kanada	1	3	6	10
22. Bielorrusia	1	2	2	4
23. Danimarka	1	2	2	5
24. Txekia	1	2	1	4
25. Brasil	1	1	4	6
26. Kroazia	1	1	0	1
27. Eslovenia	1	0	2	3
28. Etiopia	1	0	0	1
28. Georgia	1	0	0	1

Herrialdea	Urr.	Zil.	Bro.	G.
28. Lituania	1	0	0	1
28. Suitza	1	0	0	1
28. Venezuela	1	0	0	1
33. Mexiko	0	3	1	4
34. Suedia	0	3	0	3
35. Kolonia	0	2	1	3
35. Espainia	0	2	1	3
37. Eslovakia	0	1	3	4
38. India	0	1	2	3
39. Belgika	0	1	1	2
39. Indonesia	0	1	1	2
39. Kenya	0	1	1	2
39. Mongolia	0	1	1	2
39. Norvegia	0	1	1	2
39. Serbia	0	0	1	1
45. Egipto	0	1	0	1
45. Guatemala	0	1	0	1
45. Thailandia	0	1	0	1
45. Taipei	0	1	0	1
49. Grezia	0	0	2	2
49. Moldavia	0	0	2	1
51. Azerbaijan	0	0	1	1
51. Hong Kong	0	0	1	1
51. Iran	0	0	1	1
51. Qatar	0	0	1	1
51. Singapur	0	0	1	1
51. Tunisia	0	0	1	1
51. Uzbekistan	0	0	1	1



**U**rrea eta zilarra. Moskuko 1980ko Olinpiar Jokoetan irabazitako dominek letra larriz idatzi zuten Sebastian Coeren izena atletismoaren historian. Urrea eskuratu zuen 1.500 metrokoan, eta zilarra 800 metrokoan. Londresen sortu zen Coe, 1956. urtean. Hamabi urterekin hasi zen atletismoan, eta Moskun egindako lanak kirol horretako izar bilakatu zuen, betiko.

1.500 metroko lasterketako urrea, neurri batean, ezustea izan zen Coerentzat. Steve Ovett herrikidea zen irabazteko faborito. Coe, berriz, 800 metroko-

## Atzera begira

# → 1980

## Sebastian Coe

Urrea eta zilarra irabazi zituen Sebastian Coek Moskuko jokoetan, bai eta Los Angeleskoetan ere.

**BERRIA**



an jotzen zuten denek irabazletzat, lasterketa hasi aurretik. Baina alderantziz gertatu zen. 1.500ekoan nagusitu, eta zilarra lortu zuen 800 metrokoan.

1984ko Los Angelesko jokoek errebantzarako aukera eman zieten bi atletei. Baina Ovett ez zen aurkari izan Coerentzat. 800ekoan, ezustean, Joaquim Cruz brasildarra nagusitu zen, eta 1.500 metrokoan, berriz, bere nagusitasuna berretsi zuen Coek. 1990ean utzi zuen kirola, eta politikan aritu zen gero. Londresko Jokoetako Antoketa Batzordeko presidentea da egun. → **Edume Elizondo**

berria  
2012ko abuztuaren 5a



Olinpiar oroitzapenak → Maite Zuñiga

11

# Eta Maite, Maite zen oraindik

**Diploma bat lortu zuen Seulen, eta beste batartzelonan, eta maitasunez deskribatu ditu jokoak. Maite Zuñiga da ziurrenik Euskal Herriko inoizko emakumezko atletarik onena.**

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

**K**ostako da Olinpiar Jokoez hain sutsuki hitz egin-go duen norbait aurkitzea. Apologeta hutsa da. «Kirolaren *summum*-a direlako. Kirol guztiak nahastuta, mundu guzti-ko jendea, nazio txikiena eta handiena elkarrekin... Nire esperientziagatik diot. Esaterako, bela edo zaldiketako kirolariak –normalean, aberatsak– eta halterak eta boxeolariak –normalean txiroagoak– elkarri laguntzen eta elkar animatzen ikustea gauza handia da». Maite Zuñigak (Eibar, 1964), gainera, badaki zeri buruz ari den, hiru Olinpiar Jokoe-tan hartu baitzuen parte: Seulen, Bartzelonan eta Atlantan.

Ziur asko, Zuñigada olinpiar ibilbide oparoena egin duen emakumezko euskal atleta. Seulen lehiatu zenean, 40 urte ziren ez zela euskal emakumezko aritu jokoetan. Blanca Lakanbra eta Amaia Garbaio ziren bolada hautsi zuten beste biak. Seulen, gainera, arrakastaren ez-tia dastatu zuen, zazpigarren izan baitzen 800 metrokoan. «Antolakuntzan ez ziren onak izan. Olinpiar Hiria ez zegoen garbia, janarekin ere kontuz ibili behar genuen, bidaia oso gogorra izan zen... Baina emaitza ona bada, dena aldatzen da, baita pertzepzioa ere. Oso oroitzapen polita dut».

Seuldik, desfilea du gogoan, eta egun hartako beroa. «Oroitzen naiz Espainiako printzesetako batek zeramala bandera. A zernolako beroa! Denak belarretan botata, elastikoan... eta, aizu, printzesak sei ordu egin zituen han zutik, eguzkitan, jaka eta kapela kendu gabe, eta txintik esan gabe. Ez naiz monarkiaren inguruko eztabaidan sartuko, baina zuzentasun hura ez dut inoiz ahaztuko».

Oroitzapen gozoenak, baina, Bartzelonakoak dira. «Arlo guztietan langa oso goian jarri zuen, bereziak izan ziren». Eta, Zuñigarentzat, sendagarriak ere bai. «Oso une txarrean iritsi nintzen. Kirol arloan zein arlo pertsonalean urte gogorak izan ziren. Heda-bideek ez ninduten kontuan hartzen. Baina ni agertu nintzen, 'Maite, Maite da oraindik' esan nuen. Eta hark nire ibilbidea bete zuen». Zuñiga seigarren izan zen 1.500 metrokoan, bigarren diploma. «Bultzada handia izan zen. Dena gozatzeko duzu. Emaitza ona denean gauza txarrak ahaztu egiten dira. Hori dute Olinpiar Jokoe-... hango espiritua ezin da beste inon bizi». Atlantan ere egon zen, 1996an, «baina ez zen gauza bera». Kirol emaitzak ez ziren onak izan, eta ez du oroitzapen onik. «Olinpiar Hiria urrun zegoen».

Korrika gozatu zuen Zuñigak, baita ikusle modura ere. «Denak ikusi nituen, Florence Griffith, Dwayne Johnson, Carl Lewis...



Maite Zuñiga, ahalegin betean, 1988ko Olinpiar Jokoetako finalean. **BERRIA**

### Laburrean

■ **Bi proba ezberdin.** Seulen zazpigarren izan zen 800 metrokoan eta Bartzelonan seigarren 1.500 metrokoan.  
■ **Orain, teknikari.** Zuñigan atletismo munduan lanean jarraitzen du. Espainiako Federazio-ko teknikaria da, eta gazte mailako atletekin egiten du lan Madrilan.



Jokoetan emaitza ona bada, une txar guztiak ahaztu egiten dituzu... Hori dute berezia»

**MAITE ZUÑIGA**  
Atleta izandakoa

Seul harrigarria izan zen. Beti sor-tu didate ikusmina atleta beltzek. Horiek gorputzak horiek, mugit-zeko modu propioa, beti eskand-alua sortzen... Edozeini konple-xuak sortzeko modukoa [barrez]. Jokoen beste gauza on bat da hala-koekin bizi ahal izatea». Hamar urte geroago tartanetik gertu ja-rraitzen du, Espainiako Atletis-mo Federazioko teknikaria baita. Bokazio falta sumatu du, baina ale onak egon badaudela uste du. Askok eta azkar hitz egiten du, eta adeitsu. Egunotan telebistari «tsatsita» dago, kirol guztietako probak jarraitzen.

**E**txeko helbidea esan diodanean, hasperen luze bat egin du. Ez dut ulertu zergatik. Egund txarra izango zuela pentsatu dut.

-Nola egon da trafikoa egunotan? Zenbat denbora pasatuko dugu gutxi gorabehera Londresko zentrorira iristen? -galdetu diot taxi gidariari-.

Haserre tonuz tindaturiko bakarriketa bati eman dio nire galderak hasiera.

-Irakeko gerra garaitik ez dut hain bezero gutxi izan. Gobernuak jende guztia ikaratu du. Jendeak alde egin du Londrestik. Lau ordu eman ditut zain hemen zu hartu aurretik. Hurrengo egunean gauzak hobetuko zirela pentsatuz pasa-

## Taxian



'London calling'  
Garazi Goia

tu dut ia astebet. Baina honek ez dauka itxura onik. Nire lankide batzuek taxia garajejan sartu dute, ez du merezi aireportuan zain eman behar baditugu hainbeste ordu.

Zein fikzio ari zitzaidan kontatzen? Munduko aireporturik jendetsuena da Heathrow. Olinpiar Jokoen erdian gaude.

Hizketan jarraitzen zuen, nik ezer esaten ez banion ere.

-Itxaropen handia genuen, gure negoziaroko inoiz baino garai hobea izatea espero genuen. Eta begira zer gertatu den. Normalean, Londres a etortzen den turista, hiria ikusi, erosketak egin edo museoetan interesatuta dagoen hori,

oraingoan ez da etorri, hotelak eta hegaldiak askozaz garestiago zeudelako. Eta gainerako denak Stratford inguruan daude. Han ez dago taxilari guztiontzat lekurik, ordea. Entzuten al duzu siltasuna hemen inguruan? Non dago klaxonen hotsa?

Taxilariak kontatzen ari zitzaidan hitz aspertua sinestea zaila egiten zitzaidan.

Ettera iristean, normalean taxiak erreserbatzen ditudan enpresara deitu dut. Dirudienez, lehenengo astean beste edozein asteburutan baino kotxe gutxiago atera omen dituzte. Taxi gidariaren errealitatea, akaso, ez zegoen hain distortsionatua.



berria  
2012ko abuztuaren 5a

## Azkena →



↑ **Ikusle pribilegiatuak.** Hyde Parkeko inguruetan jokatu zen emakumezkoen triatloia, atzo. Igeriketako proba parkeko aintziran egin zen, eta igerilariak lanean hasita, han agertu zen ahate sendi hori, bere eguneroko osteratxoa egitera. Ikusle pribilegiatuak, edo beren ohikotasuna hautsi duten bisitari desatseginak? Antolatzaileek ahaleginak eta bi egin dituzte zirkuitua ixteko, baina ahateak ez zituzten aintzat hartu, nonbait. **CHRISTIAN CHARISIUS / EFE**

## → Laburrak



### Ezustekoa

**SASKIBALOIA** ▶ Errusiak Espainiari eman zion. 77-74 irabazi zuen, eta ataka zailan utzi Espainia: gauzak ondo, azken laurdenetan Argentina, eta finalerdietan AEBak izanen dituelako aurkari.

### Savelievak eta Hye Soonek jokatu dute lehen dema

**BOXEOA** ▶ Gaur jokatu da Olinpiar Jokoen lehen boxeoko dema. Euli pisuen mailan lehiatuko dira Elea Savelieva errusiarra eta Kim Hye Soon iparkorearra. Londresko Arena Excel pabilioian jokatu da borrokak. Savelieva errusiarra munduko txapelduna izan zen 2010. urtean, eta bera da faboritoetako bat. Iparkorearra kanporatu zuen txapelketa hartan, hain zuzen ere, eta mendeku gosez arituko da gaur hura. Euli pisu eta pisu arin eta ertainean jokatuko dira borrokak Londresen.

### Lau kirolari kanporatu dituzte, dopinagatik

**ZIGORRA** ▶ Lau kirolari kanporatu dituzte Olinpiar Jokoen lehen dema. Ostiral iluntzean Victoria Baranova txirindulari errusiarra kanporatu zuten, testosterona hartu zuela aitortu ostean. Atzo, berriz, beste hiru. Kyssia Da Costa arraunlari brasildarra, lehiatu aurretik, haren federazioak. Diego Palomeque kolonbiarrak, 400 metroko korrikalariak, positibo eman du testosteronarekin. Amine Laulu marokoarrak ere positibo eman du, furosemidarekin, eta ez du 1.500 metrokoan parte hartzeko aukerarik izango.

### Aparatuetako lehen finalak jokoan gaur

**GIMNASTIKA ARTISTIKOA** ▶ Bi eguneko atsedenen ostean, gaur bueltatuko dira lehiaketara gimnastika artistikokoak. Gizonezkoetan, zoruko eta zaldi uztaiduneko finalak jokatu dira, eta, emakumezkoetan, jauzia. Zou Kai txinatarrak da oraingo txapelduna zoruan, eta lanak izango ditu ohore hori mantentzen, Kohei Uchimura japoniarra izanen baitu aurkari. Zaldi uztaiduneari Louis Smith britainiarra da urrea lortzeko faboritoa, eta emakumezkoen jauzian, McKayla Maroney estatubatuarra.

02

**Pista** → Leire Olaberriak hamabigarren bukatu du omniuneko lehen saioa.

04

**Bela** → Martinez eta Fernandez finaletik kanpora gelditu dira.

06


**Atletismoa** → Jamaikarrek ez dute kontrariorik abiadura probetan.

07



# london

www.berria.info/londres12



**berria**

2012ko abuztuaren 7a



## Hirugarrenik ez

Erronka handi samarra zeukan Jelena Isinbaievak: hirugarrenez jarraian olinpiar urrea irabaztea. Ezin izan du lortu. Hirugarren gelditu da, Suhr estatubatuararen eta Silva kubatarraren atzetik. → 07

Jelena Isinbaieva errusiarra, atzo, pertika jauziko finalean. ROBERT GHEMENT / EFE

## Ryan Lochte Aranburu



**'Citius, altius, fortius'**  
Enekoitz Telleria

**M**o Farrah Britainia Handiko atletarik laudatuene-takoa da orain, eta somaliarra da izatez. He Zi Wen Espainiako mahai teniseko jokalaririk onena da, eta txinatarra da izatez (Juanito deitzen diote espainiarrek). Bernat Lagat atleta estatubatuarra keniatarra da izatez, Rashid Rmazi atleta bahraindarra marokoarra da izatez, Saif Saaeed Shaheen Qatarrekin ari da, baina keniatarra da izatez eta Stephen Cherono du izena, Zenebech Tola atleta ere Qatarrekin aritzen da, baina etiopiarra da izatez, eta Maryan Jusuf Jamal du izena.

Orain arte Espainiari dominak eman dizkioten bi kirolari bakarrak, Mireia Belmonte eta Maialen Chourraut, kataluniarra eta euskal herritarra dira izatez. Britainia Handiko futbol selekzio-ko kapitainak, Ryan Giggs, ez du *God save de Queen* ereserkerik abesten taldekideekin batera, eta eskoziarra da izatez.

Ryan Lochte igerilari estatubatuarrek Aranburu du bigarren abizena, kubatarra delako haren ama, eta euskal jatorrikoa. AEBen gimnastika selekzioan bada bat gimnasta bat Orozco abizena duena, eta Guatemalari historiako lehen domina eman dion atletak Barrondo du izen ondokoa.

Banderez eta nazio sentimenduaz nahi nuen jardun, baina hari-mutur guztiak mataza berean bildu ezinda nabili. Eskerrak Urtzi Urrutikoetxeak argitu zidan bidea herenegun, berripaper honetan bertan, bere *Leku-lekutan*-etik: «Estatua badaukazu eta bandera astintzen baduzu, kirola bultzatzen ari zara, baina estaturik ez baduzu, politika egiten zabilta. Beraz, politika ez egiteko, estatua behar duzu». Izatea, jatorria, bandera eta estatua. Matazarik ezin bilduta jarraitzen dut oraindik. Barka.



Leire Olaberria, ahalegin betean, atzo, abiadako irteeran. CHRISTOPHE KARABA / EFE

## «Nik huts egin dut»

**Dominen borrokatik oso urrun geratu da Leire Olaberria omniumeko lehen hiru probak jokatu, 12. postuan, eta gutxienez diploma lortzen saiatuko da gaur.**

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaiile berezia

Erregularitasuna saritzen du omnium probak, eta ezertan izar harriak izan gabe, bide horretatik dominen borrokan sartzeko helburuarekin ekin zion atzo Olinpiar Jokoetako lanari Leire Olaberriak. Baina ez zuen gehiegi

### Sailkapena

- |  |        |
|--|--------|
| 1. <b>Lara Trott</b><br>(B. Handia)      | 12 pt. |
| 2. <b>Sarah Hammer</b><br>(AEB)          | 12 pt. |
| 3. <b>A. Edmondson</b><br>(Australia)    | 17 pt. |
| 12. <b>Leire Olaberria</b><br>(Espainia) | 31 pt. |

asmatu. Seigarren abiadako irteeran, 13. puntuazioan, eta 12. kanporaketan. Egunaren amaieran, 12. postuan. Faboritoekiko urrutiegi, gaur dominen borroka gerturatzeko. «Galdu dut jada borroka hori», aitortu zion lanak amaitu berrikan BERRIARI.

Hasi, ez zen gaizki hasi ikaztegiarra. Abiadako irteera da Olaberriaren probarik gustukoenetakoa, kanpoko ezaugarriek ez dutelako eraginik izaten proba horretan. Erlojuaren aurkako proba da, azken batean. Eta denborarik onenen artean seigarrena lortu zuen gipuzkoarrak. Sei puntu. Hasiera txukuna. «Nire denborarik onena egin dut, eta horixe espero nuen». Laura Trott britainiarrak irabazi zuen lehen proba

hori, etxeko zaleen gozamenarera, Clara Sanchez frantziarraren eta Annette Edmondson australiarraren aurretik.

Abiadako irteeran txukun aritu ondoren, ordea, puntuazio proban okertu zen dena. «Esku-eskura eduki dut lasterketa». Buruan ekin zion probari. «Eta lehen bi esprintetan sartu naiz. Ez ziruditen oso zailak, baina bete egin naiz pixka bat». Esprintatu berrikan gorpuztu zen itzulia irabazteko saioa, bost txirrindularikoa. «Eta garaipena hor zegoela ikusten nuen». Jo zuen aurrera. «Eta sartzeko zorian egon naiz». Baina bete egin zen. 20 puntuko saria esan nahi du itzulia irabazteak.

Gorputza bere onera ekarri ezinik, tropelera itzuli behar izan

zuen. «Bat egitera nindoala, puntuak banatu dituzte itzuli batean, abiadura bizkortu dute aurrekoek, eta ezinean geratu naiz. Psikologikoki oso gogorra izan da momentu hori». Malgorzata Wojtyra poloniarra izan zen onena puntuazioan, Tatsiana Xarukova bielorrusiarraren eta Tara Whitten kanadarraren aurretik. Bigarren proba horren ondoren, Sarah Hammer estatubatuarra zegoen buruan, Whittenekin berarekin berdinduta (10 puntu), eta zortzigarren postuan zen Olaberria, 19 punturekin.

### «Adi nengoen, baina...»

«Nik huts egin dut, eta nik ordainduko dut». Etsita eta burumakur amaitu zuen puntuazio proba ikaztegiarrak, eta kanporaketa proban ere ez zen oso abil ibili. «Dena ahaztu beharra neukala ikusi dut, eta oso ondo sentitu naiz, oso-oso adi nengoen. Baina huts egite txiki bat eduki dut, eta jokoz kanpo utzi nau». Lasterketan sartuta zegoela aitortu zuen Olaberriak. «Baina, oharretarako, kalera». 12. postua kanporaketan, eta 12. egunaren amaieran ere, 31 punturekin. «Ez dut uste nire postua hori denik, baina gaurko lanaren ondorioa da. Beraz, onartu beste erremediorik ez dago. Bete esan izan dut omniuma horrela koda dela».

Bi eguneko lehia izaten da omniuma. Jazarpena, *Scratch*-a eta 500 metroko proba izango dituzte gaur. «Badakit podiuma jada ez dela nire helburua. Aurretik ere ez zegoen erraza, baina saiatuko naiz ahalik eta posturik onena lortzen. Ea diploma lortzeko gai garen». Puntuazio probaren ondoren hasi zen lanean ikaztegiarraren burua, eta ikusi egin behar harko da gaur zer maila emateko gai den. Goiz-goizetik hasi behar du emaitza onak pilatzen diploma lortzeko borrokan sartzeko. Ez zen nahi zuena, baina helburu polita da hori ere.

## Buruan diploma duela egingo du debuta gaur Juan Peraltak, keirinean

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaiile berezia

Ez da prestaketarik onenarekin iritsi Juan Peralta (Zarrakaztelu, Nafarroa, 1990) Olinpiar Jokoetara, azken unean esan ziotelako keirinean ariko zela; abiadura proban zen lehietzekoa hasieran. «Baina zentzuz jokatu dutela uste dut, eta, azkenean, nahi nuen proban parte hartuko dut». Gaur goizean egingo du debuta nafarrak Olinpiar Jokoetan, Euskal Herriaren 11:00ak direnean. Sailkapen probak izango dira lehenengo horiek, eta kalean geratzen direnek bigarren aukera ere izango dute, 12:19an. Lehen bi sailkapen proba

horietatik hamabik egingo dute aurrera. 17:34an jokatuko da gero bigarren sailkapen proba, eta sei onenek jokatu dute finala, 18:57an. Gainerakoek 7. postutik 12.era artekoak zehaztuko dituzte beste txanda batean.

Zalaparta handi samarra dago Espainiako Txirrindularitza Federazioaren barruan, eta, giro horretan, ez da erraza emaitza onak lortzea. Arazoaren muinera jo du Peraltak berehala. «Jokoe-tako proba bakoitza gehiegi pentsatu gabe izendatu zioten txirrindulari bakoitzari, eta azalpenak eskatu nizkien nik». Abiaduran jarri zuten Zarrakazteluko. «Baina nik ere keirinean lehiatu nahi nuela esan nien».

### Aipatzekoak.

#### ■ Munduko Kopa.

Juan Peraltak badauka itxaropenerako datu bat: aurten, Munduko Kopako proban, Pekinen, keirinean lortutako laugarren postua. Abiaduran lehiatu da gehiago, baina keirineko Espainiako txandaduna ere hura da.

Hodei Mazkianaren eta bien artean test bat egingo zutela erabaki zuten azkenean. «Keirinak abiadura baino joko gehiago ematen du. Litekeena da emaitza txarra lortzea, hasterako kalera joatea, baina arrakastarako aukera ere handiagoa da». Mazkianaren larunbatean amaitu zituen abiadura probako lanak, eta Peraltaren txanda izango da gaur.

### Pixka bat asmatuta...

«Tentsio handiarekin» bizi izan zuen nafarrak Mallorcako frogan. Baina ahaztu du, eta «dena emateko asmoz» iritsi da Londresera. «Azken emaitzak kontuan hartuta, argi dago oso zaila izango dela emaitza ona lortzea. Baina proba honetan oso gutxi behar da finalerdietan sartzeko». Diploma lortu «erabat gustura» egingo luke etxerako bidea. «Baina pauso pauso joango gara».

Faboritoen izenak aipatzen hasi, eta berehala agertu da Chris Hoyren izena. «Britainia Handian hura da joko hauetako ikurra; keirina irabazteko faborito argia da, Maximilian Levy alemaniarrekin batera». «Umetako ametsa» beteko du gaur Peraltak. «Gurearen gisako kirol gutxituetan, jokoetara joatea da lor daitekeen gauzarik handiena».

Horregatik ari da gozatzen hainbeste olinpiar hirian ere. «Rafa Nadal ezagutzeko gogoa neukan, izugarri gustatzen zaidalako kirolari gisa. Baina azkenean ezin izan da etorri. Baina Gasol bera, eskubaloikoak... Harrigarria da dena». Esperientzia bikain hori diploma eskuratuta biribildu nahiko luke Peraltak. «Edo, zergatik ez, finalean sartuta». Irabazi zion final txiki bat Mazkianari. Orain, benetako eman nahi du maila.



Espainiako selekzioko Andrea Barno jokalaria nafarra, Norvegiaren aurkako partidari. JAVIER LIZON / EFE



# Kale egin ezin den eguna

**Final-laurdenetako kanporaketa jokatuko du gaur Espainiako selekzioak Kroaziaren aurka, azken hilabeteetan aurrean maiz izan duen kontrario gogorraren aurka.**

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

Olinpiar Jokoetan ari diren eskubaloi jokalariek partida bat dute gorritz markatuta egutegian. Hutsik ezin egin den eguna da, dominen lehiaren muga, gerora podiumera igotzeko bi aukera ematen dituen norgehiagoka. Final-laurdenetako kanporaketa da, eta Espainiako selekzioak, eta bide batez bertan ari diren jokalaria eta hautatzaileak, gaur pasako dute azterketa hori, Kroaziaren aurka, Copper Box-ean (14:30). Kontrarioak neurria hartua dio Espainiari, baina irabazteko posible da. Lortuz gero, Espainiak inoizko emaitzarik onena lortuko luke Olinpiar Joko batzuetan.

Jorge Dueñasek zuzentzen dituen jokalariek konfiantzaz lepo iritsi dira kanporaketetara. Lehen partida galdu eta bigarrena berdindu ondoren, lehen fase bukaera bikaina egin dute, hiru partida jarraian irabaziz, Azkenekoan Norvegia garaitu zuten (25-20), Munduko, Europako eta Olinpiar txapeladuna. Kroazia, gainera, bikain ezagutzen duten talde bat da, azken bi hilabeteetan hiru partida jokatuz baitituzte elkarren aurka. Bat, ofiziala, Olinpiar Jokoen atarikoan; eta beste bi lagunartekoak, prestaketan.

## Datua.

■ **Gaurko partidak.**  
11:00ean jokatuko da lehen final-laurdena: Brasil-Norvegia. Bazkalorduan izango da Espainiaren txanda, Kroaziaren aurka (14:30), eta arratsaldean jokatuko dira beste bi final-laurdenak: Erusia-Korea (18:00) eta Frantzia-Montenegro (21:30).

Hiru partida horietatik bi Kroaziak irabazi zituen, 23-22 ofiziala, eta 30-26 lehen lagunartekoak. Espainiak, berriz, hiruetan azkena irabazi zuen, 27-29. Aurkariak bigarren bukatu du bere multzoan, baina postu engainagarria da, Brasilekin berdinduta izan baita. Sendotasun irudi handia eman du. Gol gehien sartu dituen taldea izan da (145), baina zifra hori aztertzean kontuan hartu behar da euren multzoa bigunagoa zela, Britainia Handia edo Angola bezalako selekzioekin. Hori bai, gutxi zaindu beharreko jokalaria zein den argi dago: Andrea Penzeic. Ezker albokoa Jokoetako goleatzaile nagusia da.

## Euskal herritarrek, ondo

Bost dira Espainiako selekzioan ari diren euskal jokalariek, eta haien garrantzia ezberdina izaten ari dira. Aulkiari, Jorge Dueñas lan ona egiten ari da, eta azken partidari jokalarien esfortzua dosifikatzen jakin zuen, nekea arintzeko. Jokalariei dagokionez, Nely Carla, Eli Pinedo eta Andrea Barno rol garrantzitsua jokatzen ari dira; Patricia Elorzak minutu gutxiago jokatuz baina partida guztietan kantzaratuta da.

Carla taldeko bigarren goleatzaile nagusia da, 20 gol sartuta. Pinedok, berriz, hamar sartu ditu eta lan handia egin du defentsan. Barnok sei sartu ditu, eta bere minutuetan intentsitate handiz kantzaratuta da, batez ere defentsan lanean estutzeko. Elorzak, azkenik, ez du golik sartu. Beste jokalariei dagokionez, nabarmentzekoa da Silvia Navarro Itxakoko atezain ohiaren lana, jokoetako bigarren geldiketa batez bestekorik onena duelako: %39.

## Andrea Barno

Eskubaloi jokalaria

# «Gaur irabaziz gero, dena da ona»

**I.M.** Londres  
→ Berriemaile berezia

Zirraraz bizi ditu jokoak, kantxa barruan zein kanpoan. Emaiztak lagun ditu gainera, baina Barnok (Lizarra, Nafarroa, 1980), argi du mundu bat dagoela gaur irabazi eta galdu artean.

## Zer moduz daramazu tratua? Bost partida, bederatzigunetan.

Ondo, ez pentsa. Ez dakit jokotik egotearen ilusioarengatik den, baina nekeari ere hobeto egiten zaio aurre.

## Errekupeperazio lan berezirik egiten al duzue?

Goizero fisioa dugu, nahi duenarentzat, eta gero Olinpiar hirian ur hotz putzu handi batzuk dauka, oso onak dira hankentzako.

## Gaur da egun garrantzitsuen, domainen langa.

Bai, hala da. Final-laurdenak pasaz gero etor daitekeen guztia ona da. Aurreko guztiak ezertarako balio ez duenik ez dut esango, baina gaur galtzea oso gogorra litzaiteke, beti izango dugulako buruan gertu gelditu ginel.

## Nolako da Kroazia?

Oso ondo elkar ezagutzen dugu. Gurearen antzeko jokoak egiten du, oso borrokalaria dira eta ez dute izar handirik. Sasoi onean daudela nabarmenduko nuke. Dena den, irabazi dezakegun par-

tida bat da, eta argi dut oso estua izango dela.

## Lehen fase ona egin duzue.

Korearen aurka oso gaizki jokatuta galdu genuen, eta porrot horrek esnarazi egin gintuen. Gora egin behar zela esan genuen aldagelan. Frantziaren aurkako berdinketa pena izan zen, baina gero jarraian irabazi diogu Suedia, Danimarka eta Norvegiari, eta horrek konfiantza ematen du.

## Jokoetan joko desberdina al da?

Giroa da desberdina, lehen egunetik pabilioia goraino egon delako, eta gustua ematen du 7.000 ikusleren aurrean jokatzeak. Pista barnekoari dagokionez, ez dut aldaketarik sumatu Munduko edo Europako txapelketetako.

## Zure lanarekin konforme?

Bai, gustura nago. Badakit nire rola zein den, defentsan estutzea, eta erasoan ditudan aukera txikiak baliatzen saiatzen naiz. Atzean nire nafar izaera hori atzeratzen saiatzen naiz [barrez].

## Nola ari zara bizitzeko jokoak?

Izugarriak dira, beste mundu bat da. Jantokia, hiria... harrigarria da Gasol edo Bolt bezalakoak alboko mahaian jaten ikustea. Dena da harrigarria: zenbat jende desberdin, zenbat kirol... Hain da zirraragarria burua gal dezakezula, eta batzuetan zaila egiten da lehiaketak eskatzen duen konzentrazio maila mantentzea.

Erusian egindako inkestak batek dioenez, hango herritarren %21ek diote beren selekzioak orain arte lortutako domina kopurua «porrot handia» dela. %48arentzat, txarra da. Bost urre soilik lortu dituzte orain arte.



webgune berezia  
[www.berria.info/londres12](http://www.berria.info/londres12)

edizio jarraitua



Xabi Fernandez eta Iker Martinez estropadalariak, atzoko proban. JORGE ZAPATA / EFE

# Iraganarekin ez da nahiko

**Iker Martinezek eta Xabi Fernandezek garesti ordaindu dute prestaketa falta, eta 12. bukatu dute 49er mailan, finaleko estropadatik kanpo.**

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

**E**uskal parte hartzaileen artean domina lortzeko aukera gehien zuten kideak bezala iritsi ziren Londresera, eta inork uste baino goizago hartu behar izan dute etxerako bidea. Iker Martinezek eta Xabi Fernandezek 12. postuan amaitu dute dute 49er mailako lehiaketa, eta biharko *urrezko estropada*-tik kanpo gelditu dira. Lehen hamarrekin zuten ohore hori, baina urrun samar gelditu dira. Azken egunera sailkatzeko aukerarekin iritsi ziren, baina atzo ere ez zuten behar adinako emaitzarik lortu. 15. eta 12. izan ziren eta aurkariek, gainera, ez zuten kale egin. Azken eguna txapelketa osoaren lagina izan zitekeen: nahi eta ezin.

Hedabideek eta inguruak faboritoen multzoan sartu zituen Martinezek eta Fernandezek. Aurretik irabazitako bi dominez gain, Olinpiar Jokoen atariko torneoa

itxaropentsu izateko arrazoiak eman zituelako, txapeldunorde izan baitziren. Sasoiko iritsiz gero, hirugarren dominaren borrokan egoteko lehian beharko lukete, baina hor egon da arazoa. «Ez gara bizkor ibili. Gure burua ontzi askoren artean artean ikusi dugunean mugitzea kosta izan zaigu», aztertu du Iker Martinezek. Abilezia hori entrenatzen hartzen da, eta hor izan dute zuloa. Fernandezek bizkarreko arazoak ere oztopo izan dira. Eskarmentua nahikoa zela zirudien, baina marinela ez ziren iritzi bereko, eta euren susmo txarrak erregularitasun falta handi batean islatu da. Lau aldiz bakarrik sartu dira lehen zortzien artean.

Gauzak horrela, hamabigarren postuan iritsi ziren azken egunera, *urrezko estropada*-rako sailkatzeko bi puntura. Bada, atzoko bi estropaden ondoren postua mantendu arren, tarte handitu egin zen. Finaletik 11 puntura bukatu zuten sailkapen nagusian, diplometatik 26ra, eta dominetatik

38ra. 49er mailan puntuak lorturiko postuaren arabera pilotzen dira, eta gutxien lortzen dituenak da sailkapeneko buru. Lehen fasean hamabost estropada jokatu dituzte. Tarte, beraz, oso handia da.

Lehen unetik hasi zen gaizki atzoko eguna, eta gerora okertu egin zen erabat, lehen estropada batean euskal marinelen ontzia irauli egin zelako. Beste bietan aurretik atzera egin zuten. Aurrenekoan hamargarren joan ziren, eta bigarrenean bosgarren. Orain hausnarketarako garaia iristen zaie, Martinezek 35 urte dituelako eta Fernandezek 36 egiteko. Hartu beharreko erabakia olinpiar mailan lehiatzen jarraituko duten ala ez da.

## Urrea, erabakita

Urrezko estropada falta bada ere (balio bikoitza du), dagoeneko erabakita dago Australiako Nathan Outteridgek eta Iain Jensenek irabazitako dutela urrezko domina (48 puntu). Jaun eta jabe izan dira, eta matematikoki ezinezkoa da, bigarren diren Zeelanda Berriko Peter Burling eta Blair Tukek alde hori jatea (76). Hirugarren postuan Allan Norregaard eta Peter Lang danimarkarrak daude 108 punturekin.

## Sailkapena

1. **Outteridge/Jensen** (Australia)
2. **Burling/Tuke** (Australia)
3. **Norregaard/Lang** (Suedia)
4. **Lehtinen/Bask** (Suomi)
5. **Morrison/Rhodes** (Bretainia Handia)
6. **Fernandez/Martinez** (Espainia)

**Carrera:**  
**«Diploma bat lortuta ezin naiz triste joan»**

Pistola tiratzailea 22. izan zen herenegungo 50 metroko proban, eta prestaketa faltari egotzi dio emaitza

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

Pablo Carrera irribarre batekin itzuliko da gaur Euskal Herrira bere lehen Olinpiar Jokotatik. Herenegun 50 metroko pistola libre lehiaketan 22. izan arren, 10 metroko diplomak (seigarren zian zen) egonaldia gozatu dio. «Parte hartzea ona izan da, gustura nago. 50 metrokoa hobetu zitekeen, baina diploma bat lortuta ezin naiz triste joan. Kirol honean esperientzia oso garrantzitsua da, eta nik asko ikasi dut».

Carrerak 10 metroko proban jarri zuen arreta azken hilabeteetan, eta hori ordaindu egin zuen herenegun. 554 puntu lortu zituen, bere marka onenetik (561) urrun geldituz. «Aurten hamar metrokoan zentratu naiz, eta prestaketa falta sumatu nuen. 50 metrokoarekin otsailean hasi nintzen, eta hori izan da dena». Hurrengo urtea lasaixeago hartuko du, «gainezka ez egiteko», eta Olinpiar sailkapena da helburua. «Rion egon naitekeela uste dut, tiratzaileen ibilbidea oso luzea da, eta 26 urte baino ez ditut».

Olinpiar esperientzia gozamen hutsa izan da, eta olinpiar hiriko giroa nabarmendu du. Eskubaloian jokaturikoa, argazkilaririk hitz egiteko aukera izatea. Diploma ez du jaso oraindik, baina dagoeneko badaki non eskegi-ko duen. «Amaren etxeko egongela, han, Bilbon. Ni Madrilen bizi naiz eta hala, behintzat, nire beste oroigarri bat izan du».

Kanada eta AEBak izan ezik, Amerikako beste herrialdeek olinpiar historian lortu duten dominakopurua. Kuba da nagusi sailkapenean, Brasil eta Argentinaren aurretik.



# Gure kirolariek bat







## Japonia, aurkari zain finalean

A. U.

Japoniak Kanada edo AEBen aurka jokatuko du emakumezkoen finala datorren ostegunean. Lehen finalerdian Japoniak 1-2 menderatu zuen Frantzia. Bigarrenean, luzapena jokatu zuten Kanadak eta AEBek, eta edizioa ixterakoan, zehaztu gabe zegoen ze talde sailkatu zen finalerako.

Lehen finalerdian, Japoniak lortu zuen garaipena, Frantzia 1-2 menderatuta. Japonia askoz ere eraginkorragoa izan zen erasoan, sei jaurtiketa egin eta bi gol sartu zituelako. Frantziak, aldiz, gol bakarra sartu zuen, baina 26 jaurtiketa egin. 0-2 aurreratu zen Japonia. Ogimik sartu zuen lehen gola, lehen zatiko 32. minutuan, eta Sakaguchik bigarrena, alda-geletatik bueltatu eta berehala (49. minutua). Frantziak erasora jo zuen finalerdia galduta ikusita, eta 76. minutuan jaso zuen saria, Le Sommerren golarekin.

Saiatu ziren, azken 20 minutuetan, eta penalti bat ere izan zuten alde. Frantziako Bussaglia kapitainak, ordea, ez zuen asmatu, eta Japoniako Fukumoto atezainak ere geldiketa onak egin zituen, Frantziaren ahalegin oro zapuztuz.

Bigarren finalerdian Kanadak eta AEBak Olinpiar Jokoetako norgehiagoka politenetakoa jokatuko zuten. Hiruna gol sartu zituzten bi taldeek, baina Kanada izan zen hirutan aurreratu zena. 1-0, 2-1 eta 3-2. Christine Sinclair izan zen, gainera, goleztaile bakarra, hiru gol sartuta. AEBetako Megan Rapinoek, ordea, bi berdinketa behartu zituen, eta 80. minutuan penaltia gauzatu zuen estatubatuarren Wambachek.

**Mutilen finalerdiak gaur**  
Emakumeen finalerdiak atzo, eta mutilenak gaur. Mexikok eta Japoniak neurtuko dituzte indarrak lehen finalerdian (17:00), eta Hego Koreak eta Brasilek bigarrenengoan (19:45). Wembley estadio mitikoan jokatuko da lehen finalerdia. Japonia partidarik galdu gabe iritsi da azken aurreko langara, eta golik jaso gabe. Mexikok jaso ditu, baina Giovanni Dos Santos izarrak sasoi puntu ona lortu du, eta estu zaindu beharko dute japoniarrek. Manchesterko Old Traffordeko finalerdian Brasil da faboritoa, baina hegoamerikarrek ez dute haiengan hain ohikoa den joko azkar eta alairik egin. 12 gol sartu badituzte ere (beste inork baino gehiago), gorriak ikusi zituzten azken laurdenetan Honduras borrokalaria kaleratzeko, eta Hego Korea ere moztean lotu beharreko selekzio arrisksua da.



Andy Murray eskoziarra, herenegungo finala irabazi ostean, pozarren. Federer menderatu zuen hiru setetan. JEAN-CHRISTOPHE BOTT / EFE

# Eta bosgarren egunean... atsedena hartu zuen

**Andy Murray eskoziarrak txapelketa handi bat lortu du behingoz, eta atzean utzi urtetako galtzaile zama; Federer ahaltzua gaudituz finalean.**

A. Urbistondo

**I**kur asko sortzen ari dira Erresuma Batuetako selekzioan, baina batzuk besteek baino meritu handiagoa dute. Andy Murray tenislariaren balentria izango da gogoratuenetarengoa, tenisa oso errotuta dagoela Ingalaterran, eta Murray bera hango kirolari kuttunenetakoa delako. Arrazoi bitxi bategatik: Murray galtzaile petoa izan da orain arte, eta jendartea ulerkorrakoa izaten da hala direnekin. Zama astun hori Wimbledongo zelaiko belazean utzi du Murrayk betirako. Ikusteko dago aurrerantzean ze bilakaera izango duen bere arrakastak, baina Olinpiar Jokoetako urreak halako halako eten bat egin du Murrayren bizitzan: Londres baino lehen, Londres ondoren.

Olinpiar Jokoak hasi aurreko Murray ezinarekin du zerikusia. Behin eta berriz horma beraren aurka kolpeak hartu dituen jokalari ona. Onenen aurkako finalak oparitzen zituena, jokatzen hasi aurretik garaipenean federik ez zeukalako. Munduko tenislari onenen zerrandan laugarren postuan kateatuta zegoen eskoziar kementsua. Djokovic, Nadal eta Federer maisuei behetik gora begiratzen zien Murray, haien aurka jokatze hutsa nahikoa uzta zela onartuz.

Lau Grand Slam galdu behar izan ditu tenisean indarra eta talentuaz gain burua ere garrantzitsua dela onartzeko. Ivan Lendl tenislari ohi eta Murrayren entrenatzaileak erakutsi dio bidea. Askotan esan dio: «Ahaztu presioa eta gozatu egiten duzunarekin». Erraza bailitzan. Gozatu, gutxi gozatu baitu Murrayk, eta sufritu asko. Bigarren mailako 22 titulu irabazi arren. Buruari bueltak eman eta eman. Zergatik final bat irabazteko hainbeste komeri?

Jainkoak zazpigarren egunean hartu zuen atsedena, Bibliak dioenez, aurreko sei egunak munda sortzeko lanak ontzat eman

ondoren. Murrayk bi egun gutxiago behar izan ditu atsedena hartzeko. Bosgarrenean hartu du, aurreko lau egunetan, lau finaletan lana beltz egin eta fruiturik jaso gabe. Bosgarrenean lan handia egin zuen berriro, baina uzta oparora jaso. Bere kirol ibilbideko oparoena: urrezko domina, non eta bere etxean.

### Federer hankapean

Ikustekoa izan zen Murrayren final hasiera. Federerrek Murrayren jokoa hausteko bi aukera izan zituen, baina balliatu ez, eta Eskoziako haizetara etorri zitzaion gainera: pista bukaerako angeluetara botatako kolpe zehatzak, sake indartsuak, eta erretoan ere dotore, Federerri pentsatzeko astirik eman gabe. Bere onetik atera zuen Murrayk Federer. Dena egiten ari zen ondo, eta ia dena gaizki suitzarra, deserroso.

6-2 irabazi zuen lehen seta eskoziarrak, eta hazi egin zen. Zer esanik ez bigarrena lortu zuenean, lehenengo baino errazago: 6-1. Miraria behar zuen Federerrek, baina ez zen halakorik gertatu, azken seta lehiatuagoa izan bazen ere: 6-4. AEBetako Irekia dator laster. Han erakutsi beharko du behingoz atsedena hartu duen.

### Sailkapena

1. **Andy Murray**  
(Erresuma Batua)
2. **Roger Federer**  
(Suitza)
3. **Juan M. Del Potro**  
(Argentina)

@King James (LeBron James, AEBetako saskibaloi selekzio jokalaria)  
Ez gara Dream Team "-a. Londresko Olinpiar Jokoetara etorri den AEBetako saskibaloi selekzio gara. Ez gehiago. Eta kito.

# Jamaika ikusteko jaioak

Usain Boltek eta Shelly-Ann Fraser-Prycek 100 metrokoan egindakoa nahikoa izan da berriz ere agerian geratzeko ezer gutxi aldatu dela abiadura probetan, eta Jamaikako atletek ez dutela parekorik.

## Julen Etxeberria

**O**hikoa da jada. Jamaikako atleta bat irabazle abiadura proba batean. Usain Bolt izan da azkena, herenegun, 100 metrokoan. Baina gauza bera egin zuen Shelly-Ann Fraser-Pryce haren herrikideak proba berean egun bat lehenago. Londresko jokoetakoa da irudia, baina izan zitekeen ere Pekingo jokoetakoa, edo Berlingo edo Daeguko munduko txapelketetakoa.

Izan ere, azken hamarkadan jamaikarrek 33 domina irabazi dituzte bi lehiaketa horietako abiadura probetan —100, 200 eta 400 metro—, horietatik hamahiru urrezkoak. Eta hori txandakako etakoak kontuan hartu gabe.

Azkar datoz galderak. Zergatik nagusitasun ia iraingarri hori? Zaila da asmatzen Jamaikako atleten abiadura probetan duten nagusitasunaren sekretua. Teoriak egon badaude, eta askotarikoak. Bat, Jamaikako biztanleen arbasoekin du zerikusia. Horren arabera, jamaikarrek XVII. eta XVIII. mendeetan beltz-tratulariek Afrika mendebaldetik Karibera esklabuontzietan eramandako ondo-ongoak dira. Beltz-tratulariek dohain fisiko onenen jabe zirenak aukeratzen zituzten, eta itsasontzietan sartu, Karibera eramateko. Horietatik asko,

## Datua

■ **33 domina.** Jamaikako atletek 33 domina irabazi dituzte azken hamarkadan jokatu diren olimpiar joko eta munduko txapelketetako abiadura probetan, horietatik hamahiru urrezkoak. Horiei, gainera, txandakakoetan eskuratutakoak gehitu behar zaizkie.

hala ere, ez ziren bizirik iristen. Hiru hilabete inguruko itsas-bidaia beldurgarriak egiten zuen galbahea. Indartsuenak bakarrik iristen ziren bizirik, eta horien artean indartsuenek bakarrik irauten zuten bizirik azukre kanaberako sailletako lan nekezeari aritu ondoren. Eta horiek aske izatera iritsi zirenean jada arraza indartsua ziren. Hamabost milioi inguru afrikar eraman zituzten Jamaikara esklabotasunaren garaian. Horietatik asko iritsi eta gutxira hil ziren. Batzuk, ordea, Jamaikan bota zituzten erroak, eta horien ondorengoak dira egungo Jamaikako biztanleak.

Bigarren teoria genetikari dagokiona da. Glasgowerko (Eskozia) eta Mendebaldeko Indietako unibertsitateek ikerketa bat egin zuten elkarlanean 2008an, Pekingo Jokoen harira. Jamaikako biztanleek abiadura probetan zituzten dohainak genetikarekin zerikusia zutela ondorioztatu zuten. Ikerketak zienez, aztertutako Jamaikako atleten %70ak ACTN3 genearen bariazio indartsu bat zuten, eta horrek ahalmen handiagoa ematen zien batbateko eta suzko errendimendu-



Usain Bolt, Jamaikako bande lepoan duela, herenegun, 100 metroko finala irabazi berritan. ALBERTO ESTEVEZ / EFE

ko esfortzuetan, alegia, abiadura probetan. Jamaikako atleten artean zuten inon baino gehiago bariazio hori. AEBetako artean, adibidez, %60ak zuten, eta Alemaniako, Britainia Handiko edo Australiakoen artean bakarrik %30ak.

Bada ere beste teoria bat, guztietan bitxierna. Usain Bolten aitarena da. Haren ustez, Trelawnyko yam-a, Jamaikan hazten den barazki mota bat dago guztietan atzean. Barazki horrek ezaugarri bikainak ditu, eta oso erabilia da jamaikarren elikaduran.

Jamaikarrek asko dute berez-kotik, baina hori ez da berme nahikoa arrakasta lortzeko. Berezkoa landu egin behar da, eta hori ere ezin hobeto egiten dute



Jamaikan. «Gure indarra herrietan sortzen da, baina eskoletan bideratzen da». Horixe zioen Howard Aris Jamaikako Atletismo Federazioko presidente izandakoak. Herriak aipatzen zituenen, Warsop, Cockpit edo Clarks Townen gisako herriak zituen buruan. Herri horietan umeak kalean dabilta egun osoan, batera eta bestera korrika. Eskolara bidea ere hala egiten dute, korrika. «Berandu iritsiz gero, zuzendariak jo egiten ninduen», gogoratu du Veronica Campbell-Brownnek, azken bi Jokoetan 200 metrokoan urrea irabazi duenak.

### Eskolen garrantzia

Haurrek hanka azkarrak jartzen dituzte, eta eskolek baliabideak, hanka horiek azkarrago korrika egin dezaten. Eskolek lehiaketak antolatzen dituzte, nabarmen diren ale onenak euren gaitasunaz. Behin hautaketa eginda, trebatu egiten dituzte, helburu zehatzarekin: eskolaren izenean irabaz dezatela, Kingstongo Estadio Nazionalan, Jamaikako eskolen arteko txapelketan. Urteko kirol ekitaldi nagusia da uhartean. 30.000 ikusle baino gehiago biltzen dira harmailetan, eta pistetan 3.000 bat gazte. Atletismoaren, Jamaikako kirol nazionalaren festa erraldoia da.

Aspaldikoa da eskolen arteko txapelketa. Lehen ere egiten zen, eta emaitzak ez ziren inondik inora orain bezain bikainak. Zer aldatu da azken urteetan? Baliabideak handitu eta hobetu dituzte. Unibertsitateak gero eta espezialista gehiago ari dira formatzen, eta horri esker, sistema oso bat lortuko dute, talentu onenak atzerrira joan ez daitezela. Egungo arrakastaren arrazoietakoa bat da atletak Jamaikan geratzen direla, etxean nahikoa diru irabaz dezaketelako bizitzeko. Jada ez dute AEBetako unibertsitateetara joan beharrik, lehen egiten zuten bezala. Han, sakabanatu egiten ziren, eta bidean galdu.

Azkenik, prestaketak ere badu zerikusirik. Abiadurako atletak etxeko pista batean entrenatzen ikusi nahi dituenak ez dadila joan Jamaikara. Nekez ikusiko du Bolt edo Blake. Lehiaketa ofizialetan bakarrik aritzen dira pistetan. Zelaia dute kirol bizileku. Zergatik? Pista eta iltzedun oinetakoen arteko nahasketa arriskutsua baita. Bizkarrak sufritzen du gehien, hain zuzen, Bolten buruhauste nagusia azkenaldian. Baina aitzitik, pistan lesio iturri izan daitezkeen iltzedun oinetak horiek lagun bikainak bilaka daitezke belarreen entrenatuz saasoiko jarri den atletarentzat. Haren giharrek, giharretakoak zein bikietakoak, eta zangosagarri indartzen ditu. Herenegun ikusi zen horren emaitza. Boltek egindako erakustaldiarekin. Egun ziu ez dela azkena izango.



Jelena Isinbaieva, atzo, pertika jauziko finalean. KERIM OKTEN / EFE

## Errusiar mendi baten pare

**Jelena Isinbaieva errusiarrak brontzeko dominarekin konformatu behar izan du pertika jauziko finalean, eta ondorioz, ezin izan du hirugarren aldiz jarraian olimpiar urrea eskuratu.**

### J. Etxeberria

Gora eta behera, errusiar mendi bat bezala dabil Jelena Isinbaieva azken lau urteetan, Pekinen bigarrenez jarraian pertika jauzian urrea irabazi eta bere kirol ibilbideko 26. munduko marka ondu zuenetik (5,05 metro). Egun bateko lehiaketetan ondo aritu

da, eta bere munduko marka kopurua handitzen jarraitu du (28 daramatza dagoeneko), baina Pekinik hona jokatu diren txapelketa garrantzitsu guztietan egin du kale: 2009an, azkena izan zen Berlingo Munduko Txapelketako finalean, jauzi baliagarri bakar bat ere egin ezinik; 2010ean, laugarren izan zen Dohako pista estaliko Munduko Txapelketan;

iaz, seigarren sailkatu zen Dae-guko Munduko Txapelketan; eta atzo, Londresen, brontzearekin konformatu behar izan zuen. Askorentzat sari ona, baina Isinbaievaren gisako atleta batentzat ezer gutxi. Are gehiago kontuan hartuta, atzo irabazi izan balu historia egingo zuela, lehen emakumezkoa izango baitzen hiru Olinpiar Jokoetan jarraian bana-kako proba batean urrea irabazten. Baina ez. Argi dago Isinbaieva ez dela lehengoa.

Gertatuko zenaren aurrerape-na izan zen errusiarrak finalean egindako lehen jauzia. 4,55 metroko altueran hasi zen lehian, eta lehen jauzia ez zen balekoa izan. Lehen ahalegina izan zen, eta azkena, errusiarrak uko egin baitzion altuera horretan beste bi jauzi egiteari. 4,65 metroko altuerarako gorde zituen. Bakarria behar izan zuen, lehen jauzian gaintu zuelako. Beste horrenbeste egin zuen hurrengo altuerarekin, 4,70 metrokoarekin. Ordurako hiru lehiakide bakarrik ari ziren jauzi egiten: Jennifer Suhr estatubatuarra, Yarisley Silva kubatarra eta Silke Spiegelburg alemaniarra.

Isinbaieva eroso zirudien, seguru. Baina 4,75 metroko altuerarekin egin zuen topo. Lehen ahaleginean kale egin zuen, eta bigarrenean ere bai. Ez zuen hirugarren bat egin nahi izan. Hurrengo altuerarako gorde nahi izan zuen. Horrela, zain geratu zen, aurkariak huts egin zain. Baina gaizki atera zitzaion jokaldia, Spiegelburg bakarrik geratu baitzen bidean. Suhrrek eta Silvak baleko jauziak egin zituzten, eta Isinbaievarekin aurrea hartu. Eta horrela, atzetik eta 4,80 metroko altueran jauzi bakarra egiteko aukerarekin, errusiarra ez zen gai izan presioari eusteko, eta kale egin zuen. Ez Suhr ez Silva ez ziren ere gai izan altuera hori gaintzeko, baina Isinbaievak baino lan hobea egin zuten, haren aurretik sailkatu ziren. Azkenean estatubatuarrentzat izan zen urrezko domina, eta kubatarrentzat zilarrezkoa.

### James 400 metrokoan

Eguneko beste finalean, Kirani James granadarrak urrezko domina irabazi zuen 400 metrokoan. Granadak Olinpiar Jokoetan lortzen duen lehen urrea da. 400 metro hesidunetan, berriz, Felix Sanchez dominikarrak lortu zuen urrezko domina; pisu jaurtiketan, Nadzeya Ostaptxuk bielorrusiarrak; eta 3.000 metro hesidunetan Julia Zaripova errusiarrak.

Gaur lau probatan banatuko dira dominak: gizezkoen mailan, gorako jauzian, disko jaurtiketan eta 1.500 metrokoan; eta emakumezkoen mailan, 100 metro hesidunetan.

### Datua

■ Lautan kale. Pekinik hona jokatu diren lau txapelketa garrantzitsuetan ez da gai izan Jelena Isinbaieva podiumera igozteko. 2009ko Berlingo Munduko Txapelketan azkena izan zen finalean, 2010eko Dohako pista estaliko Munduko Txapelketan laugarren, iazko Dae-guko Munduko Txapelketan seigarren eta atzo Londresen hirugarren.

**P**auso bat ematea nahikoa da zerbaitekin harrituta geratzeko. Bi emanez gero, bikoitza da harridura. Ba, hiru ere eman ditut gaur. Pentsa nola nagoen. Londresen jaio eta Parisen bizi den kazetari bati ez naiz ba hasi euskarako klaseak ematen! Bera hasi zait galdezka, ez pentsa. Gimnastika artistikoa bertatik bertara ikustera etorri, eta euskaltegitik barrena ibili naiz, klariona hartuta. «Antzekorik ez daukan hizkuntza hori da euskara, ezta?». «Athletic edo Reala?», galderaren ondoren egin dit beste hori. Antzekorik berak ez dau-

## Besterik ez nuen behar



'Off the record'  
Unai Zubeldia

kala erantzungo nion gustura, baina bostekoa emanda etsi dut. Harro sentiarazi nau, aizue, ez dizuet gezurrik esango.

«Zer esan nahi du horrek?». Nire ordenagailuko pantailari begira dago. «Eta nola esaten da *good morning* euskaraz?». «Egun on» erantzun, eta barrez hasi da. Irrika handia dauka Euskal Herriaren berri izateko. «Ezagutzen duzu norbait Euskal Herriatik kanpo euskaraz hitz egiten duenik?». Baietz, baietz, Finlandian, esaterako, pare bat ezagutzen ditudala erantzun diot. Cas-

tron edo Bordelen geratu gabe, harritu egin nahi nuen hor ere.

Eta lortu dut. Lagun bati deitu dio telefonoz, eta etortzeko esan dio. Hogei minutu geroago, baina etorri da. Aurkeztu nau. Eta hortxe bota dizkio, zapla-zapla, erakutsi dizkiodan lauzpabost hitzak, zoragarri ahoskatuta, gainera! Bostekoa eman diot berri, eta nahi duenean Euskal Herriko atek irekita dauzkala esan diot. Kirolarientzat kirol lehiak baino askoz gehiago dira Olinpiar Jokoak, eta kazetariarentzat ere kirola da, azken finean, gutxienekoa.

08

Seigarren uztaila



berria  
2012ko abuztuaren 7a



## Lloyd Cowan

Britainia Handiko selekzioko atletismoko entrenatzailea

Britainia Handiko selekzioko hemezortzi atletaren entrenatzailea da Lloyd Cowan, Christine Ohuruogu 400 metrokoan zilarra eskuratu duenarena, tartean.

# «Talentua daukanak emaitza onak lortzen ditu denborarekin»

Unai Zubeldia Londres  
→ Berriemaitze berezia

Errespetua sortzen du. Begirada zorrotza dauka. Baina umil-umil eta segurtasun neurri guztiei aurre eginda erantzun ditu BERRIAREN galderak, poliziek kazetariari emandako ezezkoari aurre egingo da. Lloyd Cowan da haren izena

### Aipatzekoa.

■ **Atleta izandakoa.** Entrenatzaile lanean dabil orain Lloyd Cowan, baina atleta handia ere izan zen, 39 urterekin erretiroa hartu zuen arte. 60, 110 eta 400 metro hesidunetan lehiatzen zen.

(Essex, Londres, Erresuma Batua, 1962), eta Britainia Handiko atletismo selekzioko hemezortzi atletaren entrenatzailea da egun. Tartean, Christine Ohuruoguren emakumezkoen 400 metroko finalean zilarrezko domina lortu duen atletarena. «Oraindik ez dut lortu harekin egoterik», aitortu dio kazetariari gizonzkoen 100 metroko finala amaitu eta minu-

tu gutxira. *Bolt* izena aipatu du hark ere hasterako, eta lehen galdera, derrigorrezkoa.

### Harrigarria izan da, beste behin, Usain Boltekin egin duena. Nola bizi izan duzu finala?

Larrituta nongoen Bolten sasoi puntuarekin, azken lau-sei asteetan esan eta esan ari zelako ez zegoela bete-bete. Txapelaldun handiak zeuzkan ondoan, baina beste behin erakutsi du zer egiteko gai den. Harrigarria izan da, sinestezina.

### Entrenatzailea zara zu. Posible al da 100 metrokoan lortzen ari diren markak are gehiago hobetzea? Olinpiar Jokoetako marka egin du Boltek, 9,63 segundorekin...

Ez da erraza izango marka horiek hobetzea, baina nik itsu-itsuan sinesten dut atleta hauen talentuan. Talentuak balio du kirol honetan. Eduki dezakezu egun txar bat edo emaitza txar bat, baina talentua daukanak emaitza onak lortzen ditu denborarekin. Uste dut lor dezakeela oraindik munduko marka pixka bat gehiago hobetzea (9,58). Dena den, Olinpiar Jokoetan munduko marka hobetu ez duen arren, zoragarria izan da gaurkoa. Ederra da Bolt korrika ikustea.

### 100 metroko finala showhandi bat da, azken finean. Hamar segundo irauten du probak, baina telebistari keinuak, jendeari, banderak...

Boltek maite du *show*-a, eta jendeak ere horregatik maite du hura hainbeste. Hura da munduko atletarik azkarrena, eta ikuskizuna ematen ere bikaina da.

### Christine Ohuruoguren lana aztertze eskatuz gero? Zer moduz dago hura?

Oraindik ez dut eduki aukerarik harekin hitz egiteko, baina ona da zilarrezko domina. Pekinen urrea eskuratu zuen, baina gogorrak

izan dira azken bi urteak. Emaitza aldetik ez da txarra izan azken urtea, baina gogor lan egin behar izan dugu etxeko proba nagusira sasoi onean irits zedin. Horregatik, oso pozik nago egin duenarekin. Ez da erraza lau urtez Olinpiar Jokoetako urrezko domina defendatzea. Arazo fisikoak izan

### «Larrituta nongoen Bolten sasoiarekin, baina harrigarria izan da, sinestezina»

### «Boltek maite du 'show'-a, eta jendeak ere horregatik maite du hura hainbeste»

zitzen Berlinen, Itotaluekin; Europako Txapelketan eta Commonwealth Jokoetan ere ezin irabazi... Baina gogor lan egin du, eta emaitza ona da goi mailara itzultzea eta finalean 49,70 segundo egitea. Denboraldiko markarik onena egin du. Zorionak Sanya Richards-Rossi, baina oso pozik nago Chrisekin ere, itzuli delako eta domina irabazi duelako. Zoragarria izan da.

### Denbora asko daramazu entrenatzaile lanetan. Zein da entrenatzeko zure filosofia?

Erraza da nire filosofia. Jendeak emaitzak nahi izaten ditu azkar, baina luzera begirako emaitzak lortzen dira eguneroko lanarekin. Denboraldian, urritik abendura egiten den lanean dago sekretua. Abuztuan emaitzak lortzeko, askoz lehenago hasi behar da lanean, sufritu egin behar da, eta gazte asko ez daude horretarako prest. Lana da nire filosofia bakarra; ondo lan egiten baduzu, emaitzak ere onak izango dira.

Bilbon kirol guztietarako lekua dago

en Bilbao hay sitio para todos los deportes

Bilbao Kirolak  
www.bilbaokirolak.com

**A**tletismo teknikari pare batekin hitz egindakoa naiz gaiari buruz, eta biek arrazoia eman zidaten. Tartanean, proba kutun bat dut nik, betidanik, gogorra bainoago, agonikoa iruditu zaidalako eta helmugara iristean atletek duten herio aurpegia ikustekoa delako. 400 metro hesidunak dira.

Bart jokatu zen finala, eta aurreko jokoetan gertatu bezala, txapeldunaren izena ez da zaleen oroitzapenean iltzatuko. Ez du 100, 200 eta 400 metroko proben plastikotasunik, ezta 110 metro hesidunen indarririk ere. Hibri-

## Torturarik ederrena



'Betweenland'  
Imanol Magro

do bat dela dirudi, inork nahi ez duen zerbait, baina niretzat probarik ederrena da.

Hasteko, hesiak 110 metroko proban baino altuagoak dira, eta atleta onenei 47 segundo inguruan bukatzen zaie sufrimendua. Tortura eder horretan izen handi asko zizelkatu ziren: Glenn Davis, 50 segundotik jaitsi zen lehena, Edwin Moses, Angelo Taylor eta Nawal El Moutawakel, urrezko domina bat irabazi zuen lehen emakume afrikarra. Kirolzale arruntari ez zaizkio oso ezagunak egingo.

Nire miresmena, baina, probaren azken metroetan dago sustraitua. Beste abiadura probetan, atletek azken metroetan begiak itxi, hortzak estutu eta itsu-itsuan bukatzeko eskubidea dute. 400 metro hesidunetan ez, 35 segundo itotzen daramatzan atletak begiak ireki egin behar ditu beste hesi bat igarotzeko. Hamasei pauso eta beste bat, hamasei eta beste bat... Askapenaren plazera oso berandu iristen da, eta gehienak pausoen helmugaratzen dira. Gizakiak sortu duen tortura modu ederrenetarikoa da.

berria  
2012ko abuztuaren 7a



Kronika

09



Blanca Urgell sailburua eta Patxi Mutiloa Jaurilaritzako kirol burua, Basque Team-eko hainbat kirolarirekin. UNAI ZUBELDIA

## Ikusi eta ikasi

**BAT Basque Team-en jarraipena ziurtzat jo du Patxi Mutiloa Jaurilaritzako kirol zuzendariak, baina funtzionamendua «aztertuko» dutela dio.**

Imanol Magro Londres  
→ Berriemaile berezia

**A**gintarien eguna izan zen atzokoa Olinpiar Jokoetan. Blanca Urgell Jaurilaritzako Kultura sailburua eta Patxi Mutiloa kirol zuzendaria BAT Basque Team programaren babesean dauden hainbat olinpiar ordezkariarekin elkartu ziren iritziak banatzeko. Bi ordezkariak ziurtzat jo zuten egitasmoaren jarraipena, eta ontzat eman ziztuzten euskal kirolariek lorturiko emaitzak. Dena den, Mutilo-

ak aurreratu zuenez, jokoetan lorturiko emaitzak «aztertu» egingo dituzte hurrengo urteetako plangintza diseinatzeko.

Basque Team egitasmoa Pekingo Olinpiar Jokotara begira sortu zen, eliteko atletei babesa emateko, eta Londresen ondoren hasiko du hirugarren zikloa. Kultura sailburuak egitasmo sendotzat jo zuen, eta kirolariek jasotako babesa estimatzen dutela nabarmendu. «Nik uste dut BATEk aurrera jarraituko duela. Egia esan, ez da hainbesteko dirua, ez behintzat beste egitasmo batzuekin alderatuta. Hor, era berean, babes-

**Basque Team**  
■ 1.800.000 euro.  
BAT Basque Team Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan federaturiko eliteko kirolariei laguntzeko sorturiko elkarte da. 42 kirolari babesten ditu eta 1,8 milioi euroko aurrekontua du. 1,25 milioi Jaurilaritzak jartzen ditu eta beste 550.000 babesle pribatuek.

leek jartzen duten kopurua nabarmendu behar da».

Patxi Mutiloa kirol zuzendariak ere ziurtzat jo zuen egitasmoaren jarraipena: «Babesleak oso pozik daude, baina jakina da ez dela unerik onena diru eske joateko». Gai berean euskal kirolariren emaitza onak goratu zituen. «Domina bat irabazi dugu oraingoz, baina diploma asko: Elosegi, Carrera, Uriarte, Murua... Jokoetarako saikatzera lorpen handia da, eta diploma bat ez da sari txikia». Jokoen ondoren emaitzak aztertuko dituztela aurreratu zuen, egitasmoaren nondik norakoak bideratzeko.

Kirol zuzendariak aditzera eman zuenez, kirol jakin batzuetan zentratuko dituzte indarrak, «beste estrategia» bat martxan jartzeko. «Piraguismoan ahalegin handia egin dugu, eta emai-

tzak ikusten ari dira. Pistako txirrindularitzan ere bai. Gero, Rion, golfa eta zazpikako errugbia olinpiar kirolak izango dira, eta hor euskal kirolariak badaude». Zuzendariak Britainia Handiko eta Koreako eredu hartu zuen mintzagai, kirol jakin batzuk bultzatuz dominen zerrendako goiko postuetara igo baitira.

### Ikurrina eraman daiteke

Olinpiar Jokoetan ikurrina eraman eta erakutsi daiteke, hala argitu dio Londresko antolatzaile batzordeak (LOCOG) Asier Odriozola Londresen bizi den di-seinatzaile bilbotarrari. Maialen Chorraut lehiatu zen egunean zale bati kendu egin ziotela ikusita LOCOGekin harremanetan jarri, eta mezu elektronikoko bat jaso zuen, ikurrina eramatea espresuki baimenduz. «Jendeak beldurrik eduki ez zezan egin nuen. Hona etorri eta norbaitek zerbait esanez gero ezkutetzea normala da, sarrera galtzearen beldurra izan dezakezu... baina ez dago zertan. Euskal Herria nazio bat da, eta ikurrina, legezko ikurra. Ziur nago zaleari ikurrina kendu zion boluntarioa norbaitek xaxatu zuela». Odriozolak [www.zorrirra.com](http://www.zorrirra.com) webgunean jarri du jasotako mezua, edozein euskal zalek inprima dezan.

Londresen gertaturikoa Jaurilaritzako ordezkariak ere izan zuten hizpide. Urgellek «zorionez» hartu zuen ausia argitu izana, eta harriduraz mintzatu zen. «Ezin nuen ulertu nola ezin zitekeen erakutsi; ikurrina legezko ikurra da, eta harritu egin nintzen». Mutiloak, berriz, antzeko hausnarketa egin zuen. «Olinpiar Jokotara norberak nahi duen bandera eramateko eskubidea izan beharko luke. Ulertezina da».

«Kezkatuta nago. Ez dut baztertzeko Pekingoa berriro gertatzea»

→ Sun Heiping ■ LIU XIAN ATLETA TXINARRAREN ENTRENATZAILEA

**e**saldia



Aupa Mikel eta Ainhoa!

ZARAUZKO UDALA  
euskal kirolariek bat



**Finalak**

- 11:00. Zaldiketa.** Taldekakoa.
- 12:30. Triatloia.** (G).
- 14:00. Bela.** RS:X modalitatea (G).
- 15:00. Bela.** RS:X modalitatea (E).
- 15:00. Gimnastika artistikoa.**  
Paraleloak (G).
- 15:47. Gimnastika artistikoa.**  
Oreka-barra (E).
- 16:00. Igeriketa sinkronizatua.**  
Binakakoa.
- 16:30. Mahai-tenisa.**  
Taldekakoa (E).
- 16:37. Gimnastika artistikoa.**  
Barra (G).

- 17:23. Gimnastika artistikoa.**  
Zorua (E).
- 17:53. Pistako txirrindularitza.**  
Omnium modalitatea (E).
- 18:26. Pistako txirrindularitza.**  
Abiadura modalitatea (E).
- 19:00. Pistako txirrindularitza.**  
Keirin modalitatea (G).
- 19:25. Borroka.** Grekoerronatarra.  
-66 eta -96 kiloak (G).
- 20:00. Jauziak.** Hiru metroko  
trapolina (G).
- 20:00. Halterofilia.** +105 maila (G).
- 20:00. Atletismoa.** Altuera jauzia (G).
- 20:45. Atletismoa.** Disko

- jaurtiketa (G).
- 22:00. Atletismoa.** 100 metro  
hesidunak (E).
- 22:15. Atletismoa.** 1.500 metroko  
(G).

**Euskal herritarrak**

- 11:00. Juan Peralta.** Pistako txirrindularitza. Keirina.
- 11:15. Leire Olaberria.** Pistako txirrindularitza. Omniuma. Azken hiru probak: 11:15, 17:10 eta 17:50.
- 14:30. Eskubaloia (emakumezkoak).** Kroazia-Espainia.

**Telebistak**

- La1. 09:30.** 15:30ak arte, eta gero 16:00etatik 23:45ak arte. Jarraian laburpena.
- Teledorte. 09:30.** 01:45 arte zuzenean. Ondoren, laburpena.
- France2. 11:45.** 13:00 arte zuzenean. Gero, 14:45etik 20:00etara, eta 20:40etik 01:00etara.
- France3. 09:00.** 12:00 arte zuzenean. Gero, 12:55etik 14:45era, eta 19:55etik 20:35era.

**Atletismoa**

■ 3.000 M. HESIDUNAK (E)

- **Dominak**
- 1. J. Zaripova (Errusia)
- 2. H. Ghribi (Tunisia)
- 3. S. Aseffa (Etiopia)

■ 400 METRO HESIDUNAK (G)

- **Dominak**
- 1. Felix Sanchez (D. Errepublika)
- 2. Michael Tinsley (AEB)
- 3. Javier Culson (Puerto Rico)

■ PISU JAURTIKETA (E)

- **Dominak**
- 1. N. Ostaptxuk (Bielorrusia)
- 2. V. Adams (Zeelanda Berria)
- 3. E. Kolodko (Errusia)

**Pista**

■ ABIADURA (G)

- **Dominak**
- 1. Jason Kenny (B. Handia)
- 2. Gregory Bauge (Frantzia)
- 3. Shane Perkins (Australia)

**Gimnastika Artistikoa**

■ UZTIAK (G)

- **Dominak**
- 1. Arthur Nabarrete (Brasil)
- 2. Chen Yibing (Txina)
- 3. Matteo Morandi (Italia)

■ BARRA ASIMETRIKOAK (E)

- **Dominak**
- 1. Alia Mustafina (Errusia)
- 2. He Kexin (Txina)
- 3. Elizabeth Tweddle (B. Handia)

■ JAUZIA (G)

- **Dominak**
- 1. Yang Hak Seon (Hego Korea)
- 2. D. Albazin (Errusia)
- 3. Igor Radivil (Ukraina)

**Zaldiketa**

■ JAUZIAK TALDEKA

- **Dominak**
- 1. Britainia Handia
- 2. Herbehereak
- 3. Saudi Arabia

**Halterofilia**

■ -105 MAILA (E)

→ **Dominak**

- 1. O. Torokti (Ukraina)
- 2. N. Nasirshelal (Iran)
- 3. B. Bonk (Polonia)

**Borroka**

■ -60 MAILA (G)

- **Dominak**
- 1. Revaz Laski (Georgia)
- 2. Omid Haji Noroozi (Iran)
- 3. M. Kuramago (Errusia)
- 3. R. Matsumoto (Japonia)

■ -84 MAILA (G)

- **Dominak**
- 1. A. Kugaev (Errusia)
- 2. K. Ebrahim (Egipto)
- 3. D. Gajiyev (Kazakhstan)
- 3. K. Janikows (Polonia)

■ -120 MAILA (G)

- **Dominak**
- 1. M. Lopez Nuñez (Kuba)
- 2. Heiki Nabi (Estonia)
- 3. I. Tugosvili (Bielorrusia)
- 3. J. Euren (Suedia)

**Olinpiar tiroa**

■ KARABINA 50 M. (G)

- **Dominak**
- 1. N. Campriani (Italia)
- 2. Kim Jonghyun (Hego Korea)
- 3. Mathew Emmons (AEB)

■ TRAP (G)

- **Dominak**
- 1. G. Cernogoraz (Kroazia)
- 2. M. Fabrizi (Italia)
- 3. F. Aldeehani (Kuwait)

**Bela**

■ LASER RADIAL (E)

- **Dominak**
- 1. Xu Lijia (Txina)
- 2. M. Bouwmeester (Herbehere.)
- 3. Evi Van Acker (Belgika)

■ LASER (G)

- **Dominak**
- 1. S. Groteluschen (Alemania)
- 2. Alejandro Foglia (Uruguay)
- 3. Paul Goodison (B. Handia)

← **Emaitzak**

← **Dominak**

Herraldea	Urr.	Zil.	Bro.	G.	Herraldea	Urr.	Zil.	Bro.	G.
1. Txina	31	19	14	64	35. Lituania	1	0	1	2
2. AEB	28	15	19	62	36. Dominikar Errep.	1	0	0	1
3. Britainia Handia	18	11	11	40	36. Venezuela	1	0	0	1
4. Hego Korea	11	5	6	22	38. Mexiko	0	3	2	5
5. Frantzia	8	9	9	26	39. Kolonia	0	3	1	4
6. Errusia	7	17	17	40	40. Espainia	0	2	1	3
7. Italia	7	6	4	17	41. Egipto	0	2	0	2
8. Kazakhstan	6	0	1	7	42. Eslovakia	0	1	3	4
9. Alemania	5	10	7	22	43. Azerbaijan	0	1	2	3
10. Hungaria	4	1	3	8	43. Belgika	0	1	2	3
11. Ipar Korea	4	0	1	5	43. India	0	1	2	3
12. Herbehereak	3	3	4	10	46. Armenia	0	1	1	2
13. Bielorrusia	3	2	3	8	46. Indonesia	0	1	1	2
14. Zeelanda Berria	3	1	4	8	46. Mongolioa	0	1	1	2
15. Hegoafrika	3	1	0	4	46. Norvegia	0	1	1	2
16. Ukraina	3	0	6	9	46. Serbia	0	1	1	2
17. Japonia	2	12	14	28	46. Tunisia	0	1	1	2
18. Australia	2	12	8	22	51. Zipre	0	1	0	1
19. Danimarka	2	4	2	8	51. Estonia	0	1	0	1
19. Errumania	2	4	2	8	51. Guatemala	0	0	1	1
21. Kuba	2	2	1	5	51. Malaisia	0	1	0	1
22. Brasil	2	1	5	8	51. Tailandia	0	1	0	1
23. Polonia	2	1	3	6	51. Taipei	0	1	0	1
24. Iran	2	1	1	4	57. Grezia	0	0	2	2
24. Jamaika	2	1	1	4	57. Moldavia	0	0	2	2
26. Kroazia	2	1	0	3	59. Argentina	0	0	1	1
27. Etiopia	2	0	1	3	59. Hong Kong	0	0	1	1
28. Kanada	1	3	6	10	59. Saudi Arabia	0	0	1	1
29. Suedia	1	3	2	6	59. Kuwait	0	0	1	1
30. Txekiar Errepublika	1	3	1	5	59. Puerto Rico	0	0	1	1
31. Kenya	1	2	2	5	59. Qatar	0	0	1	1
32. Eslovenia	1	1	2	4	59. Singapur	0	0	1	1
33. Georgia	1	1	0	2	59. Turkia	0	0	1	1
33. Suitza	1	1	0	2	59. Uzbekistan	0	0	1	1

Kazakhstango selekzioak lortuak domina kopurua da. Zazpi lortu ditu eta sei dira urrezkoak eta bat brontzekoa. Atiantiko eta Sydenko marka gairiditu dute—hiru urrezko domina lortu zituzten bi joko horietan—, eta oraindik seigun gelditzen zaizkie. Kazhastango 115 kirolari ardira lehen Londresen.



**H**aizearen semea. Atletismoaren munduan egin zuen bideak goitzen hori eman zion Carl Lewisi (Kansas City, AEB, 1961). Eta halaxe ematen zuen, haizearen semea, 1984. urteko Los Angelesko Olinpiar Jokoetan urrezko lau domina irabazi zituen; halaxe ematen zuen 1991. urtean, lehendabiziko aldiz ehun metroko distantzian 9,90 segundotik behetik marka lortu zuenean: 9,86 segundoa ailegatu zen helmugara.

Lewis 15 urterekin hasi zen atletismoan lehiatzen. 1980an, olinpiar talderako

## Atzera begira

# → 1984

## Carl Lewis

Denera, hamar domina irabazi zituen Lewisek; 1984ko Olinpiar Jokoetan urrezko lau eskuratu zituen. **BERRIA**



saikatu zen, baina AEBak ez ziren joan Moskura, eta horrek kirolariaren debuta atzeratu zuen. 1984ko jokoak izan ziren Lewisen aurrenekoak, eta asmatu zuen bere arrastoa uzten.

1988ko eta 1992ko jokoetan ere aritu zen. Denera, hamar domina du Lewisek. 2003an, hala ere, dopinare itzalak ilundu zuen AEBetako kirolariaren ibilbidea. Orduan jakin zen 1988an behin-behineko zigorra jarri ziotela. Helegitea aurkeztu, eta hutsean gelditu zen. 1996an, kirola utzi eta aktore bilakatu zen. → **Edume Elizondo**

berria  
2012ko abuztuaren 7a



Olinpiar oroitzapenak → Mateo Garralda

11

# Bainuontzian, urrezko domina

**Lau olinpiar jokotan parte hartu zuen Mateo Garraldak: Bartzelonan (1992), Atlantian (1996), Sydneyen (2000) eta Atenasen (2004). Brontzezko bi dominarekin eta urrezko bizipenekin itzuli zen etxera, «gehiago» egin zezaketen sentipenarekin.**

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

**P**asioa, su hori, eta inguruan jende atsegina dagoenean, nekea ez da nabaritu ere egiten». Horrela soilik uler daiteke Mateo Garraldaren (Burlata, Nafarroa, 1969) 26 urte luzeko kirol ibilbidea. 26 urte, eta lau olinpiar joko: Bartzelona, Atlanta, Sydney eta Atenas. 1986tik, ez da geratu ere egin nafarra, eta gorputzak nahikoa sufritu duela iritzita —lesio larri samarra izan zuen joan den sasoiaren—, jokalarizateari utzi eta entrenatzaile karguari helduko dio datoren denboraldian, Guadalajararen.

Bartzelonako Jokoetara 22 urterekin joan zen, eta diplomarekin itzuli zen etxera. «Harrigarria izan zen, nahiz eta eskubaloian jokoetakoa ez den lehiaketarik garrantzitsuen, selekzio ahul dezentegotzen direlako tartean». Onartu du, kirol irizpideak soilik kontuan hartuta, huts egin zutela. «Domina eskuratzea zelako helburu argia». Atlantako eginbeharrak zailena, berriz, «atariko lana» izan zen, Garraldaren hitzetan. «Aurreko txapelketetan ez genuen lortu saiklatzea, eta Europako Txapelketako finalerdietan Yugoslaviari irabazita lortu genuen azkenean». Nekatuta iritsi ziren. «Egur handia jasota. Eta harrigarria izan zen brontzezko domina kolokoratzea».

Arrakasta lortzeak alde txar bat dauka: etorkizun hurbilean emaitza hori berdindu edo hobetu beharra. 2000. urtean Sydneyra presio horrekin joan zirela aitortu du. «Baina txapelketa bikaina egin genuen». Munduaren beste puntaraino joan arren, hiriak berak ez zuen harritu. «Europaren



Atlantian, jokalariek gela batean elkartzen ginen partida guztiak ikusteko. Giro berezia geneukan»

**MATEO GARRALDA**  
Eskubaloj jokalaririk ohia eta entrenatzailea

### Laburrean

■ **Izendapenak.** Nafarrak sari ugari jaso zuen nazioartean. 1993ko Suediako Munduko Txapelketan eta 2005eko Tuznezekoan, txapelketako eskuin alboorik onenaren saria eman zioten.

■ **Entrenatzaile.** 2011-2012ko sasoiak Guadalajararen jokalaririk gisa egin ostean, klub horretako entrenatzaile kargua hartu du orain.

eragin nabarmena dauka». Ordu-rako kirol ibilbidea ondo luzatuta, 34 urterekin parte hartu zuen Garraldak, azkenekoz, jokoetan, Atenasen. «Final-laurdenetan, penaltietan galdu genuen dominen borrokan sartzeko aukera, Alemaniaren aurka 30-30 berdinduta». Esperientziari heldu dio penak ahazteko. «Hori bai, dominaren bat irabazteko adinako taldea geneukala uste dut».

Hamasei urte dira lau joko. Esperientzia asko. Eta kosta zaio bat aukeratzeko. «Brontzezko dominak eskuratu genituen bi uneak aukeratu nituzke, agian; Atlantakoa eta Sydneykoa». Hala ere, kirol arloaren pare jarri du selekzio giroa. «Atlantakoa da adibiderik argiena. Jokalari guztiak, geure kabuz, gela batean elkartzen ginen partida guztiak ikusteko. Giro berezia geneukan». Kirolari onek bezala, Garraldak ere «porrotak» sartu ditu unerik tristenenetan. Orain dela urte batzuk, nafarrak lau haizeetara zabaldu zuen urrezko domina kolokoratu arte ez zuela hartuko erretirorik. «Eta nork daki! Hamar-

hamabost urte barru lortuko dut, agian... entrenatzaile karguan», bota du, barrez.

### Liu Xiangi begira-begira

Jokoak oso bereziak direla azaldu du Garraldak. «Izar asko elkartzen dira, baina jabetzen zara haiek ere normal-normalak direla». Atenasera jo du adibide bila. «Autobusera igo ginen batean, han zegoen Liu Xiang txinatarrak, hiruzpalau ordu lehenago 110 metroko hesidunetan urrea irabazi zuen atleta. Hantxe zegoen, bere dominarekin, lasai-lasai». Harrituta geratu zen: «Eskubaloj talde batean ezinezkoa litzatekeelako lasaitasun hori. Astakeria handien bat egingo genuen gulk».

Brontzezko bi domina irabazi zituen Garraldak lau jokotan, baina lorpen materialen gainetik, bizipenek bete zuten bereziki. «Atenasen, azken egunean, bainuontzia garagardo botilaz bete genueneko hark, adibidez. Txirrindulariak, atletak... Ez dakit zenbat jende elkartu ginen gela hartan. Ikaragarria izan zen. Han, bai; han urrea irabazi genuen!».



Mateo Garralda, eskuinetik hasita bigarrena, Sydneyko Olinpiar Jokoetan, podiumeko hirugarren koskan. ANDREU DALMAU / EFE

© **IL Sazur** (Jose Luis Saez Espainiako Saskibaloj Federazioko presidentea)  
Ordu txikietako kontuak: Brasilen kontra gaitzea ona litzateke, baina Brasilen kontra irabaztea, hobea.



**O**linpiar Jokoak amaitzean txosten bat egiteko betebeharra dauka antolakuntza lanetan ibili den hiriko batzordeak. Olinpiar Jokoen antolatzaile izateko bete behar duten kontratuaren arauetako bat da. Londresko 1948ko Olinpiar Jokoen ostean idatzitako topatu dut Interneten, eta zati batzuk irakurri ditut. Kirol emaitzez gain, antolakuntzari buruzko xehetasunak, eraikinen deskribapena, atletei buruzko kontakizunak eta hamaika bitxikeria gehiagorekin ia seiehun orri dituen dituen liburua da.

Atentzioa eman didaten gauzen artean bat edo beste aipatzearen, agida-

## Txostena



London calling  
Garazi Goia

nez inaugurazio ekitaldian 2.500 uso askatu zituzten, pasatu berri zen II. Mundu Gerraren osteko bakearen sinbolo gisa. Eta maratoiko atleta anglosaxoien eskaria izan zen, antza, uraz gain gozatutako tea hartu nahi zutela, eta *boy scout*-ak jarri zituzten karrerako zortzi puntutan, tea prestatzeko.

Aurtengo jokoen txostenean, Boyle zinemagileak antolatu zuen inaugurazio ekitaldiko James Bonden eszenaz hitz egingo ote da? Edo Londresko kale hutsez eta dendetako jabeen kexuez; edo Pistoriousek hantetako protesiez eta haren balentriaz; Phelps historiako

olinpiar kirolari onena bihurtu zen lasterketaz; Ye igerilari txinatarrak dopinarekin itzalean egindako errekorrez; krisi ekonomikoaz...

Zalantzarik gabe, mundu osoan ehunka milioi ikusle izan zituzten hamar segundoez eta Bolten erakustaldiari buruz egon beharko du aipurik. Aurkarien aurreko markak ikusita, proba irabazteko ia fisikaren legeei desafio egin beharko ziela uste zen. Baina han azaldu zen, berezko duen *showman* jarrera horrekin, munduko gizonik azkarrena dela berretsiz. Baina oraindik segundo hamarren bat urratu zezakeela uste duen bakararra al naiz?

**berria**  
2012ko abuztuaren 7a

## Azkena →



**↑ Enbataren erdian.** Horixe dirudi argazkikoak: enbataren erdian laguntza eske urpetik irteten den esku bat, baloia lortu nahian. Greziak eta Australiak waterpoloan jokotutako partidaren hartu zuten irudia, atzo. Gogorak eta estuak izaten dira norgehiagokak kirol horretan, uraren aitzakian eta ezkutuan ikusten ez diren falta asko egiten direlako. Galdetu, bestela, argazkian ur azpian gelditu denari. Australiak irabazi zuen (8-13). **PATRICK B. KRAEMER / EFE**

**berriaTB**

**12:00. Aurkezpena.**  
→ **Prentsaren begiratua.**  
→ **Londrestik zuzenean.**  
Unai Zubeldia eta Imanol Magro.  
→ **Thamezatala.** Danel Agirre, Berlindik.  
→ **Eguneko gonbidatua.** Orkatx Beitia atleta. Abiadura probetan espezialista.  
→ **Tertulia.** Andoni Urbistondo eta Enekoitz Esnaola.  
→ **Eguneko kantua.**

## → Laburrak



**← Estreinakoz**  
**BOXEOA** Emakumezkoen boxeoa olimpiarra da jada. Igandean izan zen lehen jardunaldia, eta atzo bigarrena. Argazkian, Hmangte indiarra eta Rahali tunisiarra.

### Txinak irabazi du urrea modalitate guztietan

**BADMINTONA** Pekinen lortu zuen Australiak irabazi zuen Londresen Txinako selekzioak: badmintoneko modalitate guztietan urrea irabaztea. Cai Yun eta Fu Hifengek irabazi zuten atzo gizonezkoen binakako lehiaketa, eta Lin Danek apur bat lehenago gizonezkoen buruz burukoa. Aurretik zituzten irabaziak emakumezkoen binakakoa —nahiz eta bikote bat kanporatu egin zieten nahita galtzeagatik—, eta binakako mistoa. Kirol horretan tamainako balentria lortzen duen lehen herrialdea da Txina.

### Brasil baten lehenengo domina, Nabarretentzat

**GIMNASTIKA** Handia egin zuen atzo Arthur Nabarretentzako lehenengo gimnasta da kirol horretan dominaren bat irabazten duena. Sekulako ezustekoa eman zuen finalean: Chen Yibin txinatarrari eta Matteo Morandi italiarrari aurrea hartu zien, eta urrea irabazi zuen. Eguneko beste finaletan, Yang Hak Seon hegokorearrak irabazi zuen urrea jautsian, eta Alia Mustafina errusiarrak urrea emakumezkoen lehiaketan, barra asimetrikoetan.



**U**rruti daudelako izango da, edo oso urrutikoak egiten zaizkigulako. Joan aurretik alboan eta joan ondoren ere aldamenean izateak erraztasun gehiago ematen du, seguru. Eta errazagoa da horregatik haien jardunari buruz balantze egokiagoak egin eta izenondo aproposagoak topatzea. Horretan abantaila dute Londrestik ari direnek. Bertatik bertara bizi dutelako hura bizi-tzen ari direnak nola ari diren hura bizi-tzen. Hemengoek arrisku handiagoak hartzen ditugu, eta jakin gabe aritzen gara askotan. Gainera, besteek eginda-

## Esperantzara kondenatuak



'Citius, altius, fortius'  
Enekoitz Telleria

ko galderen arabera daukagu ibili beharra, eta oso zaila da horrelakoetan ongi asmatzea. Erantzun askok, gainera, ez dute asko laguntzen: «Hau ezin da hitzez adierazi».

Eta hitzez adierazi ezin den horri hitzak jartzea da gure lana. Ez da aitzakia, baina bada aitzakia. Errazagoa da, dena dela, arrakasta lortu duenari buruz aritzea espero zuenik lortu ez duenari buruz aritzea baino. Azken horien lana neurtu eta balantzea egiterakoan laprast egiteko arrisku handiagoa dago, eta

baten bat mintzekoa ere bai, askotan. Hortik dator asmatu ezinaren beldurrez beste iturri batzuetara jo beharra. Norberaren pentsamendua beste norbaiten hitzetan jartzea helduleku gisa erabili beharra.

Izan liteke paperean idatzia, izan liteke airean entzuna. Musikak badu hori (ere). Formari eman ezinda zenbiltzari ematen diola forma. Espero zuenik lortu ez duenari buruz aritu nahi nuen nik, eta Gariren doinu hark eman zidan erantzuna: «Garaipenik ez da galtzekorik gabe. Esperantzara kondenatua».

02

**Pista** → Leire Olaberriak hamahirugarren bukatu du, eta Juan Peraltak, hamargarren.

03

**Bela** → Xabi Fernandez: «Eman eta eman aritu ostean, gorputzak nahikoa dela esan du».

04


**Eskubaloia** → Final-laurdenetan sartu da Espainia; Pinedok, zazpi gol.



London

[www.berria.info/londres12](http://www.berria.info/londres12)

berria  
2012ko abuztuaren 8a



# Kaixo eta agur

Orain lau urte egin bezala, Xiang Liu atleta txinatarrek huts egin du

110 metro hesidunetako lehen kanporaketan.

Aurreneko hesiarekin tupust egin du, lurrera erori da,

eta sailkatzeko aukerarik gabe geratu. → 06-07



Xiang Liu, etsita, 110 metro hesidunetako azken hesiari kosk egiten. JEAN-CHRISTOPHE BOTT / EFE



# Gorputz ezezaguna

**Leire Olaberriak lur jota amaitu du omnium proba, 13. postuan, eta buruz inoizko ondoen zegoela aitortzearekin batera, ezin izan du azaldu bi egunotan zergatik aritu den hain maila apalean.**

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

«Triste nago oso, lur jota ere bai [begiak karga-karga eginda, geratu egin da, arnasa hartzeko]. Mimo handiarekin prestatu dut lehiaketa hau, inoiz baino gogorago entrenatu dut, baina momentu bakar batean ere ez naiz ondo sentitu». Zer esan ez zekiela zegoen atzo Leire Olaberria omnium proba amaitu berri. «Oso gogorra da aurkari hauen aurrean egon beharra, eta zeure onena eman ezina. Buruz nahi nuen, baina gorputzak ez zidan erantzuten. Tortura bat izan da».

Etsita, eta «atseden hartzeko gogo» hitz egin zuen Olaberria BERRIAREKIN, Londresko belodromoan bertan. «Ezin honi ezin diot azalpenik aurkitu». Datuak argi garriak dira oso: abiadako irteeran, seigarren; puntuazioan, hamahirugarren; kanporaketan, hamabigarren; jazarpenean, hamalagarren; *scratch*-ean, hamaseigarren; eta 500 metrokoan zortzigarren. Hamahirugarren postua da lan horren emaitza. Dominen borrokan sartu nahi zuen txirrindulariarentzat lortzen apala. «Lan hobe egitea espero nuen, baina...».

Egin beharreko prestaketa, usitez, ondo eginda, lehen bosten artean sartzeko erabateko konfiantzarekin zegoen ikaztegiatarra omnium probari ekin aurretik. Baina herenegun ihes egin zion aukera orok, puntuazioan eta kanporaketan huts eginda. «Ez zen normala izan puntuazioan gertatutakoa. Proba txar bat izan zela sinetsarazi nion neure buruari, irauliko nuela egoera». Hura ahaztu, eta hutsetik borrokan hastea zeukan atzo helburutzat. «Baina jazarpen proban nahi nuen, pedalei azkar eragin nahi nien, baina ezin nuen. Eta horrela

zaudenean sufritu ere ezin duzu egin. Zigor psikologiko oso handia da hau».

Ikaztegiatarrek asko eskatzen dio beti bere buruari. «Eta askoz lan hobe egin nahi nuen hemen. Baina ezinezkoa izan da. Bezperakoaren jarraipena izan da jazarpen proba». 14. denborarik onena egin zuen gipuzkoarrak atzoko lehen proba horretan, bere mailatik oso urrun. Buruz buruko ederrean, Sarah Hammer estatubatuarrek lortu zuen denborarik onena, Laura Trott britainiarren aurretik.

## Irakurketak, «hotzean»

Beste bi proba geratzen ziren artean ordura arteko lana pixka bat txukuntzeko. Baina ezin askoz maila hobetik eman. *Scratch*-ean hamaseigarren denborarik onena lortu zuen, eta 500 metrokoan, zortzigarrena. «Ez daukat azalpenik, benetan, ez dakit zer esan. Hiru hilabete luze izan dira. Fa-



Leire Olaberria, atzo, ahalegin betean, jazarpen proban. CHRISTOPHE KARABA / EFE

## Sailkapena

1. **Laura Trott**  
(Britainia Handia)
2. **Sarah Hammer**  
(AEB)
3. **A. Edmondson**  
(Australia)
13. **Leire Olaberria**  
(Espainia)

miliarengandik urrun, lagunengandik urrun... Motibazioa lagun neukan, eta etxetik kanpo sufritzeko prest nengoan». Baina Olaberriarentzat ikaragarri gogorrak izan dira azken bi egunak. «Lasaitu egin nahi dut, irakurketa hotzean egiteko».

Askotan kolpea gogorragoa izaten da aurretik asko eman de-

nean. «Eta hausnarketa hori ere egin beharko dugu». Etorbizunari ez dio begiratu nahi. «Ez da horretarako egunik onena». Baina pena nahikoa argi utzi du. «Azken bi urteotan lehen aldiz, nahi nuen bezala nengoan psikologikoki, eta lastima izan da gorputzak ez ematea buruaren maila bera. Hau ez nuke horrela utzi nahi».

## Hamargarren postua Peraltak, keirinean

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Konfiantza handia zeukan Juan Peraltak bere buruarengan, eta emaitza bikaina lortu zuen bere lehen Olinpiar Jokoetan: hamargarren postua. «Baina pena izan da diploma ez lortzea». Ozta-ozta, bigarren fasetik kanpo geratu zen goizeko lehen proban. Seiko hiru multzotan zeuden banatuta hemezortzi txirrindulariak, eta, lehen txandan, hirugarren geratu zen nafarra, Chris Hoy britainiarren eta Simon Van Velthoven Zeelanda Berrikoaren atzetik. Bi-

garren aukeraren zain geratu behar, beraz.

Ordurako multzo bakoitzeko bi onenak bigarren txandan zirela (sei txirrindulari), seiko bi txandatan banatu zituzten beste sei txartelak. Txanda bakoitzeko lehen hirurak, aurrera; beste hirurak, etxera. Lehenengoan aritu zen hor ere Zarrakasteluko, eta hor bai, hasieratik buruan jarrita, lasterketa kontrolatuz, bigarren postua eta hamabi onenen artean tokia. Christos Volikakis greziarrak irabazi zuen Peraltaren txanda. Horixe zen lehen helburua, hamabi onenen artean sartzeko. Hortik aurrerako guztia ongietorria zen nafarrantzat.

Eta, lurretik bueltan ibili ondoren, sei onenen artean sartzeko zorian egon zen. «Pena izan da, diploma ziurtatuko nuelako. Ez dut

aitzakiarik jarri nahi, baina epaileak, irteeran, ez dio utzi bultzatzen nire entrenatzaileari. Denek egiten dute hori, eta, indarrik gabe, azken postuan geratu naiz irteera horretan». Txanda zaila zeukan, gainera: Hoy, Volikakis, Azizulhasni Awang malaysiarra, Teun Mulder herbeheretarra eta Njisane Nicholas Phillip Trinidad eta Tobagokoa. Lehen hiruretan zeukan sailkatu beharra, eta laugarren helmugaratu zen.

«Seigarren postua egokitu zait berriz ere B finalean, posturik txarrena. Bi postu irabazi ahal izan ditut behintzat, eta, tira, pozik noa etxera. Ederra izan da esperientzia». Kazetariarekin hizketan ari zela jokatu zen finala, eta harrituta geratu zen nafarra. «Ikaragarria da giroa». Chris Hoy nagusitu zen. «Bera da onena».

## Sailkapena

1. **Chris Hoy**  
(Britainia Handia)
2. **Maximilian Levy**  
(Alemania)
3. **S. Van Velthoven**  
(Herrialdea)
10. **Juan Peralta**  
(Espainia)

Chris Hoy pistako txirrindulari eskoziarrek bere zazpigarren domina irabazi zuen atzo Olinpiar Jokoen. Horietik sei, urrezkoak dira, eta bat, zilarrezkoa. Inork ez du hark baino garraipen zerrenda hobea jokoetan Britainia Handia ordezkatu duen kirolarien artean.





**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Nahikoa zela esan zion gorputzak. Eta buruak ezin lanik egin horrela. 12. postu mikatzarekin amaitu da Olinpiar Jokoetako «etengabeko sufrimendua». Etxerako bidean dira jada Xabi Fernandez (Ibarra, Gipuzkoa, 1976) eta Iker Martinez (Donostia, 1977). Volvo Ocean Race proba amaitu eta hamabost bat egunera hasi ziren jokoak. «Gehiegizkoa izan da». Hizketan ere nabaritzen zaio urte gogor-gogorraren arrastoa.

#### Balorazioa egiteko garaia da.

Oso zaila da orain balorazioak egitea, eta ez dakit garairik onena ote den ere. Jokoak amaitu berritan, urte guztian egindakoa ahazteko arriskua dagoela uste dut. Bage nekien oso zaila zela jokoetan beste domina bat lortzea, baina horretara etorri ginen, edo, gutxienez, azkenera arte borrokan aritzera. Baina hasieratik ibili gara pauso bat atzetik. Oso zaila izan da astea, ezinean ibili garelako. Lesio txiki bat ere izan nuen aurretik. Ez da aitzakia, baina prestatetan oso motz geratu ginen. Hamar egun galdu genituen hor. Penatuta gaude, hain urrutirez ez garelako ibili. Lehen bi sailkatuak izugarri ondo ibili dira. Baina estropada kaskarrak egin dituztenak ari dira brontzea lortzeko lehian. Prestaketa hobearrekin eskura edukiko genuen brontzezko domina hori.

#### Aipatu duzu lesio txiki hori. Fisikoki jota amaitu dituzu jokoak, hasierek hala hasizinelako.

Azken urte eroengatik izan ditut hainbeste arazo fisiko. Eman eta eman aritu gara, eta gorputzak nahikoa dela esan du. Gero eta gehiago kostatzen zaio gorputzari. Bizkarraren eskuinaldeko giharrean sei zentimetroko zuntz haustura izan dut, eta oraindik ez zait sendatu. Horregatik galdu nuen astebete baino gehiago. Lasagarriekin eta inguru hori ondo lotuta, hainbestean aritu naiz azkenean, baina infekzio bat ere izan nuen gero. Ezinezkoa da Volvo Ocean Raceko eta jokoetako erritmoari eustea. Bizkarreko arazoa ez bazen, beste nonbaitekoa izango zen. Pena da, dominen borrokan egoteko egunero laugarren postuaren jiran dagoelako egon beharra, baina zazpigarren-zortzigarren postuen batez bestearekin irabaziko du norbaitek brontzea.

#### Eta orain, zer? 2016 eta Rio de Janeiro daude buruan jada?

Ez dakit, ez dakit. Ez da erabakiak hartzeko garaia. Ez dakit 49er mailan jarraitu beharko genukeen edo beste maila bat aukeratu beharko genukeen; eta ez dakit, erabakia dena delako delako ere, zein estropadetara joan beharko genukeen. Azken urteak oso onak izan dira, eta horrek eman zigun indarra Londresera iristeko. Ezin da ahaztu Munduko Txapelketa irabazi genuela baldiz, 2004an eta

# Xabi Fernandez

Estropadalaria

**Domina bila joan ziren Londresko Olinpiar Jokoetara, eta 12. postuarekin itzuliko dira etxera, etsita, penatuta, eta fisikoki txikituta. «Urte eroaren ondoren, atsedean luzea» behar duela aitortu dio Xabi Fernandezek BERRIARI.**

## «Hasieratik ibili gara pauso bat atzetik»



Xabi Fernandez eta, haren atzean, Iker Martinez, herenegun, 49er mailako hamabosgarren estropadan. JORGE ZAPATA

2010ean. Hamalau urte dira jada ontzi honetan, eta atsedena behar dugu orain; atsedean luzea. Batean eta beste esan eta esan ari dira Amerika Kopan parte hartuko dugula; munduari itzulita emango diogula... Baina ikusiko dugu. Orain, atsedena.

**Sentsazioen gainetik, datuak aztertzen dituzte denek: 2004an, Atenasen, urrea; 2008an, Pekinen, zilarra; 2012an, Londresen, 12. postua.**

Bai... Baina Pekingo Jokoetatik hona bizpahiru itzuli eman dizkiogu munduari, eta neke handia pilatu dugu. Momentuan ez zara jabetzen, eta egurrean jarraitzen duzu. Baina azken urteotan gorputzari ez diogu eman beharrezkoa duen hilabete osoko atsedetik. Ez daukagu ondo nabigatu dugun sentipenik, baina askoz gehiago ere ezin genuen egin. Volvo Ocean Race hain berandu amaituta, zaila zen eronka; errealistak izan behar dugu.

**Marinelan atzean familia bat ere badagoela ahaztu egiten da gehienetan. Haien artean ere da eraza izango bizimodu hau, ezta?**

Gogorra da. Baina, zorionez,

familiaren babes handia daukat nik. Volvo Ocean Racen ari gine-la, etortzen ziren tarteka bisitan, eta eskertzekoa da. Bi ume ere badauzkat, eta zaila da haiengandik urrun egotea. Sakrifizio handia eskatzen du kirol honek. Emaitzak onak direnean, hainbestean onartzen dira sakrifizioak, baina emaitzarik lortzen ez denetan... Ezinezkoa da galduta-

**«Eman eta eman aritu gara, eta gorputzak nahikoa dela esan du»**

ko denbora berreskuratzea, baina saiatuko naiz orain familiaren ondoan ere gozaten, haien ondoan egoten.

**Hasiera ekitaldiarekin ere izan zen nahikoa zalaparta, Espainiako bandera zuek eramango zenutela, ez zenutela... Batzuek aipatu ere gin zuten zure lesioa gezurrezkoa zela.**

Denetik esaten du jendeak, eta denetik, kazetariak. Ezezkoa emanez gero, gaizki, bandera ez genuelako eraman; eta baiezkoa

emanez gero ere, gaizki, bandera eraman genuelako. Baina gu ez gaitu arduratu kontu horrek. Ni ez, behintzat, nahiz eta egia den Iker gehixeago mareatu dutela. Lesioa benetakoa dela sinesten ez duenari, berriz, zer esango diot, ba... Londrestik urrutituen geunden gu, eta egun batean haraino joan, gauzez ekitaldian parte hartu, hurrengo egunean bueltan hona... Gehiegizkoa zen.

**Kalkuluak egiten hasita, zenbat milia egiten dituzue, normalean, urterot, eta zenbat egin dituzue aurten?**

Auskalo! Nik ere ez dakit. Pentsa, Volvon bertan ia 40.000. Baina milia ez, egunka egiten dugu guk kontaketa. Ez dakit zenbat egun izan diren, baina asko, gehiegi! Eromen handia izan da azken hiru urteotako, eta horregatik behar dugu atsedean luzea, hurrengo erronkei gogotsu ekiteko. Hiru proiektutan sartuta egon gara: Bartzelonako bikotekako estropadan, Volvon, eta jokoetan. Kirol hau asko profesionalizatu da, eta ezinezkoa da burua hiru proiektutan sartuta edukitzea. Hori ikasi dugu, behintzat.

#### Aipatzekoa.

##### ■ Dominak, argi.

Gaur jokatuko da dominak lortzeko proba, baina urrea eta zilarra zehaztuta daude jada: Hensen eta Outteridge australiarrentzat izango da urrea, eta Burling eta Tuke Zeelanda Berrikoentzat, zilarra. Hamargarren postutik bederatzipuntura geratu dira euskal marinelak.



# Ondo gordetako altxorra

**Espainia Kroazia baino gehiago izan da, eta bost minutuko oldarraldi batean lorturiko hiru golen aldeari esker lehen aldiz jokatuko ditu bihar jokoetako finalerdiak.**

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

Espainiako selekzioak finalerdietako partida jokatu du bihar bere historian aurrenekoz. Jorge Dueñasek zuzentzen duen taldeak partida estua irabazi zion atzo Kroaziari, eta dominen lehian murgildu da. Bigarren zatia erdi aldera izandako oldarraldiak oreka hautsi zuen, bost minutuan 4-0eko partziala lortu zuen, Eli Pinedoren hiru golekin, eta azken hamar minutuetan oso ondo kudeatu zuen abantaila hori. Biharko aurkaria Frantziak eta Montenegrok bart gauean jokaturiko partidako irabazlea izango da. Beste finalerdia Norvegiak eta Errusiak jokatu dute.

Partida estua izango zela aurreratu zuen Andrea Barnok herenegun, eta ez zuen kale egin. Oso ondo elkar ezagutzen zuten bi aurkari ziren, eta bataila taktikoan Bilboko teknikariak irabazi egin zion Kroaziako hautatzaileari. Dena den, Kroazia hobeto hasi zen. Jelcic atezainak giltzarrapoa jarri zion ateari, eta Espainiaren hutsek Kroaziak korrika egin zezan ahalbidetu zuten (5-7, 15. min). Atzean lan txukuna egin zuen Espainiak, eta aurkaria fisikoki

ahaltsuagoa izan arren, ondo gelditu zuen geldikako jokaldietan. Goratzekoa Eli Pinedok eta Andrea Barnok defentsan eginiko lana. Arazoa, baina, erasoan zegoen. Dueñasek patxada agindu zuen, eta bi pibot kantaratu. Erabaki taktikoak sei metroko marran iltzatu zituen kroaziarrak, baloiak lapurtzeko arazoe-kin, eta Espainiak atsedenaldira aurretik iristea lortu zuen (13-12).

**Emaizta**  
**Espainia 25**  
**Kroazia 22**

**Kroaziarrak, izarra gabe** Aurrenekoan gertatu bezala, Kroaziak hobeto ekin zion bigarren zatia. Espainia erlaxatuta kantaratu zen, eta berehala ikusi zuen bere burua atzetik (14-15, 35. min). Aurkariak ez zeuden opariak egiteko, baina bizkarreko handia hartu zuten Andrea Pene-

zi taldeko izarrak min hartu zue-  
nean. Atzora arte jokoetako gole-  
atzaile nagusia zenak orkatila  
bihurritu zuen, eta haren taldeak  
erasoan nabaritu zuen.

Erasoko lehen aukera galduta, Kroaziari are gehiago kostatu zitzaion Espainiaren defentsa gotorra zulatzea. Atzeko lanaren fruitu, Dueñasen taldeak korrika egin ahal izan zuen, eta 4-0eko partzial bati esker tartetxo ireki zuen (19-16, 46. min). Lau gol horietatik hiru Pinedok sartu zituen. Amurrioko hegalekoak zappi sartu zituen guztira, eta oso eraginkor aritu zen erasoan.

Ordu laurden falta zen partida bukatzeko, eta hiru golen errenta altxor bilakatu zen. Ondo kudeatzen asmatuz gero finalerdietarako sailkatzea eskura zuen Espai-

niak. Aldeak jokariak urduritu zituen, eta Kroazia gol batera hurreratu zen (19-18), baina ez zuen berdintzerik lortu. Dueñasek Tataric erdikoa kate motzean lotzea agindu zuen, eta Espainiak berriz ireki zuen tartea. Hiru goleko errentarekin, azken minutuak nahiko lasaia izan ziren.

Euskal jokalariei dagokienez, Pinedok partida bikaina egin zuen, eta itxaropentsu agertu zen partidaren ondoren. «Inoiz ezin da mugarik jarri, edota hortik ezin gara pasatu esan. Ilusioa urrea da, baina beste bi dominak ere onak dira». Nely Carlak bi gol sartu zituen baina ez zuen jokatu bigarren zatian, Andrea Barno defentsa lanean nabarmendu zen, eta Patricia Elorzak, azkenik, ez zuen jokatu.

## Frantzia oztopo zaila da Espainiaren bidean

**I.M.** Londres  
→ Berriemaile berezia

Espainiako gizonen selekzioak eta bide batez han ari diren hiru euskal jokariak (Mikel Agirrezabalaga, Julen Aginagalde eta Eduardo Gurbindo) final-laurdenetako partida jokatu dute gaur, Frantziaren aurka (15:30). Orain artekoak ez bezala, saskibaloio pabiloian jokatu du gaur, eta irabaziz gero Kroazia izango du aurkari, ziurrenik, urrezko domina irabazteko faboritako Tunisi-

siarekin neurtuko baititu indarrak.

Ligaxkako azken partidari, eta aurkariak jokoan gutxi izan arren, Espainiak ezin izan zion irabazi Kroaziari herenegun (20-25), eta final-laurdenetarako partida oso zail batera kondenatu zuen bere burua. Frantziak ez dirudi duela urte batzuetako talde garaiezina, eta azkeneko Europako Txapelketa kaskarrak (11. izan zen) zalantzak barreiatu zituen. Olinpiar Jokoetan, baina, pixka bat suspertu da, eta bere multzoko bigarren izan da Islandiaren aurretik.

Frantziaren arriskuak ezagunak dira: Nikola Karabatic erdikoa, Daniel Narcisse hegalekoa, Jerome Fernandez beteranoa...

Lehen lerroan talentua du, eta bigarren fisikoki oso indartsuak diren pibot eta hegalekoak. Eskarmentua, gainera, alde du. Zerbaitegatik da egungo Olinpiar eta Munduko txapeliduna.

Espainiak, halere, irabaz dezake, eta bide horretan garrantzitsua izango da Julen Aginagaldere lana. Defentsaren arreta bereganatu eta jokari pare bat sei metroko lerroan egotera behar izango mugitu ahal izango dute baloia. Hori bai, gogotik egin behar du borroka, Dinart, Gille eta Sorhaindorekin. Beste bi euskal jokariaren jarduna, ez da hain erabakigarria izango. Mikel Arrizabalaga ez da minutu asko jokatzeko, ezta Eduardo Gurbindo ere.

**e**saldia

«Fergusonek deitzen badit, prest nago Unitedekin proba bat egiteko»

Usain Bolt • JAMAİKAKO ATLETA



Eli Pinedo eta Nely Carla Alberto euskal jokariak, lurrean elkar besarkatzen, atzo, Kroaziari final-laurdenetan irabazi ondoren. MARCELO SAYAO / EFE



## → Laburrak

### Alex Schwazerrek EPOa hartu zuela aitortu du

**IBILKETA** Alex Schwazer ibilketari italiarrak EPOa hartu zuela aitortu du Italiako *La Gazzetta dello Sport*-eko elkarrizketa batean. Schwazer 50 kilometroko olinpiar txapeldua izan zen Pekinen, eta joan den urteko Munduko Txapelketan errusiarrak zerbait hartzen zutelakoan, berak ere hartzea erabaki zuela esan du. Uztailean hartu zuen EPOa, «lehenago inoiz ez», eta bere aurreko titulu guztietan garbi zegoela adierazi du.



LINDSAY PARNABY / EFE

### Alistair Brownleerentzat urrea, korrika saioari esker

**TRIATLOIA** Alistair Brownlee britainiarrek irabazi zuen atzo triatloiko proba. Javier Gomez Noya galiziarra eta Alistairren Jonathan anaia izan ziren bigarren eta hirugarren. Hirurek elkarrekin bukatu zuten igeriketa eta txirindularitzako proba, eta 10 kilometroko korrika saioak erabaki zuen garailea. Jonathan Brownlee geratu zen aurrena, eta Gomez Noya ondoren. Alistair Brownlee 15 segundoren aldearekin helmugaratu zen.

### Mexiko eta Brasil ariko dira gizonen finalean

**FUTBOLA** Mexikok eta Brasilek jokatu dute gizonen final handia. Mexikok 3-1 menderatu zuen Japonia. Partida aldatu gora jarri zituzten mexikarrei, Japonia 0-1 aurreratu zelako. Ondoren, ordea, hiru sartu zituzten Mexikok, Marco Fabian, Peralta eta Cortesen bitartez. Brasilek aise garaitu zuen Hego Korea, 0-3. Romulok eta Damiaok sartu zituzten golak, azken horrek bi.

Brasilgo Raul Neto eta Espainiako Serge Ibaka, jarrera ikusgarrian. LARRY W. SMITH / EFE



# Zilarra ez da txarra

**Errusia-Lituania, AEB-Australia, Frantzia-Espainia eta Brasil-Argentina dira final-laurdenak; urreak jabea du, beste bi dominen borroka irekiago dago**

#### A. Urbistondo

**B**ukatu da lehen fasea, eta ate-joka datoz final-laurdenak. Espero bezala, AEBetako selekzioa izan da partidarik galdu ez duen bakarra, garaipen batzuetan komeria batzuk izan badituzte ere. Nabarmeneko moduko selekzioen artean, Errusia, Brasil eta Frantzia aipa-

tu behar dira. Multzoko buru bukatu du sailkapen fasea, eta Espainia eta Brasil indartsuak menderatu. Australiaren aurka galdu zuen azken partida, jokoan ezer ez zegoela. Brasil ere txukun aritu da. Bigarren postuan sailkatu da, azken partidari Espainia menderatuta. Frantziak ere bere multzoko bigarren postua eskuratu du, partida erabakigarrian Argentina menderatuta.

#### Datua

■ **Ordutegia.** Errusia-Lituania (15:00), Frantzia-Espainia (17:15), Brasil-Argentina (21:00) eta AEB-Australia (23:15).

Balantzaren bestaldean, Espainia, Argentina eta Lituania. Espainia, uste baino kaskarrago aritu delako. Errusiaren aurka galdu, eta Brasilen aurka nahita galdu, finalerdietan AEBekin ez gurutzatzeko. Emaitzarekin jokatu zuen apropos Scarioloren taldeak, eta hori gaizki ikusita dago Olinpiar Jokoetan. Harrokeria punturen bat ere erakuts dezake apropos gaitzeak, finala eta finalerdiak baitatzen final-laurdenak baino lehenago. Final-laurdenetan, gainera, Frantzia izango du aurkari Espainiak.

Argentinak ere bi partida galdu ditu. AEBen aurkakoa jakina zen, Frantziaren aurkakoa ez hainbeste. Multzoko hirugarren postura zigortu ditu horrek, eta finalerdietan estatubatuarren erronka irits ezina. Lituania kontrakarreen dabil aspaldi, baina gehien gorrotatzen duten aurkaria izango dute parez pare: Errusia. AEBetako selekzioa gehien xaxatu duen taldea da, baina gauzak ondo, etxera joango dira gaur.

#### Errusia edo Espainia

Kolorerik ez du AEBen lehen langak. Australiak muturreko handia jasotzeko proportzioa du, baina litekeena da, behin partida erabakita, estatubatuarrek galgari eragitea eta horrek porrota duin egitea. Brasil eta Argentinaren artekoa gogorra izango da. Hego Amerikako bi selekzio indartsuenak dira, eta mokoka dabilta azken urteetan. Argentinak irabazia du buruko borroka, nazioarteko azken hiru partidetan Brasil menderatu baitu kanporaketetan. Prigioniren zalantza garrantzitsua du Argentinak, baina Brasilek ez daukana du: Manu Ginobili izena duen izar distiratsua.

Frantzia eta Espainiaren artekoa ere gogorra izango da. Frantziak ez du Gasol anaien kemena itzaltzeko moduko jokalaririk, baina fisikoki oso sendoa dira Diaw, Seraphin eta beste. Calderonek neurria hartu dio Tony Parkerriri, baina Espainiak arazo serioa du bigarren joko antolatzailearekin, bermerik gabeko ordezkorik gabe, eta kanpoko lerroan. Izan ere, Juan Carlos Navarrok mina du oin zolan, eta haren puntua funtsezkoak dira Espainiako selekzioan, Rudy Fernandez ere gorabeheratsu dabilelako.

Erresuma Batuak orain arte lortu duen urrezko domina kopurua. Pekingo Olinpiar Jokoean 19 lortu zituzten, eta orduko marka gaildindu dute; jokoak bukatzeko bost egunen faltan.



# Gure kirolariek bat



Xiang Liu, 110 metro hesidunetako azken hesian pausatuta, gertatutakoa bereganatu ezinik. FRANCK ROBICHON / EFE

# Zergatik ni?

**Orain lau urte egin bezala, Xiang Liuk huts egin du 110 metro hesidunetako lehen kanporaketan. Pekinen ez zen lehen hesira iritsi. Londresen, berriz, lehen hesiarekin egin du tupust, eta lurrera erori.**

**Julen Etxeberria**

**O**inik gabeko kirolari bat armarik gabeko gudari bat bezalakoa da». Yang Jian Txinako CCTV-5 telebistako esatariarena da esaldia. Atzo bota zuen zuzenean, Xiang Liu atleta txinatarrek 110 metro hesidunetako azken kanporaketan lehen hesiaren aurka tupust egin, lurrera joan eta minutu batera. Haren ahotik atera ziren lehen hitzak izan ziren, minutu bat kostatu zitzaielako Londresko Olinpiar Estadioko pistan gertatu berri zena hitzekin azaltzea. Lehen erreakzioa barru-barrutik irten zitzaion, eta negar egitea izan zen. Ez ziren izan malako apur batzuk. Negar zotinka hasi zen. Hori guztiak zuzenean, haien kirol heroi kutunetako bat lehiatzen ikusten ari ziren milioika ikusle txinatarren aurrean.

Egoera ezaguna zen. Orain lau urte, Pekinen, antzeko egoera bera bizi izan zuen Txinak. Orduan ere Xiang Liu izan zen zoritxarreko protagonistak. Orduan ez zuen lehen hesiarekin tupust egin. Hori egitera ere ez zen iritsi. Lehen kanporaketan epailearen pistolaren danbada entzun, irten eta segituan gelditu zen, minez. Aurkariak ere gelditu egin ziren, baina irteera ustela izan zelako. Ko-

katu zituzten berriro oinak takotan, denek Xiangek ezik. Lurrean eseri zen minez, eta pegatinak hanketatik kendu ostean estadioko korridoreetara sartu zen, eta inor agurtu gabe desagertu. Gero jakin zen aspalditik zuela mina eskuin oinean, baina hala ere, saiatu zela lehiatzen. Ezin izan zion, ordea, minari eutsi, eta sartu zen bezala irten zen Olinpiar Estadiotik, errenka, burumakur eta etsipenak jota. Ez da posible. Horixe pentsatu zuten euren herroia, lau urte atzera Atenasen munduko marka eginda urrezko domina irabazi zuen atleta bera *Txoriaren Habi*-tik lehiatu ezinik nola joatan zen ikusi zuten 1.300 milioi txinatarrek. Eta horixe pentsatu zuten atzo berriz ere, lau urte geroago irudi bera errepikatzen zela ikusita. *Déjà vu* bat zen (aurretik ikusitakoa), *déjà vu* krudel bat.

Irudi bera eta lesio bera, berriz ere orpazurda madarikatua, berriz ere iraganeko mamuak bueltan, herenegun Xiangen entrenatzaileak berak gogora ekarritakoak. «Pekinen izan zuen lesio bera dirudi. Azken urteetan medikuek asko zaindu dute eremu hori, baina ia ezinezkoa da horrelako lesio batetik erabat osatzea. Egun bateko lasterketetan ondo aritu daiteke Xiang, baina Jokoe-tan hiru lasterketa jokatzen dira

## Datua

■ **Bost txapel-dun ezberdin.** Bost txapelketa garrantzitsu jokatu dira Pekindik Londresera, eta beste horrenbeste irabazle egon. Ladjí Doucoure frantziarra, Xiang Liu txinatarra, Ryan Brathwaite barbadostarra eta Jason Richardson estatubatuarra nagusitu dira hurrenez hurren Helsinkin, Osakan, Berlinen eta Daegun jokatutako munduko txapelketetan. Pekingo Olinpiar Jokoetan, berriz, Dayron Robles kubatararentzat izan zen urrea. Gaurko finalean, berriz, Aries Merritt estatubatuarra da faboritua. Berak du marka onena aurtan (12,93). Seigarren irabazle ezberdina litzateke.

bi egunetan, eta hori gehitxo da», esan zuen atzo Fenn Shuyong Txinako atletismoko taldeko buruak. Fennek azpimarratu zuen Xiangek «gogor» egin duela lan azken urteetan sasoiko egoteko, eta «jende guztiak» hura finalean ikustea espero zuela, baina goi mailako kirolean «horrelakoak» gerta daitezkeela. Horregatik, eskerrak eman zizkion egindako ahaleginagatik, eta elkartasuna adierazi. «Kolpe handia da berarentzat, baina hau da olinpiar izpiritua, garaipenak ez du horrenbesteko garrantzirik, parte hartzea da garrantzitsuena». Lesioak erretiroa hartzerakondena ezakeen galdetuta, berriz, zuhur mintzatu zen Fenn. «Kolpe handia da berarentzat eta Txinako atletismoarentzat, baina uste dugu itzuliko dela lehiara. Hori bai, zaila da esaten noiz».

## Lau urteko ezina

Ulertzekoa da Fennen zuhurtzia, Xiangek lau urte luze baitaramatza lesioei eta zoritxarrari iskin ezin ezinik. 2008an, Valentzian (Herrialde Katalanak), pista estaliko Munduko Txapelketa irabazi zuenetik ez da gai izan berriro txapelketa garrantzitsu batean podiumeko koska gorenera igotzeko. 2008an, Pekinen, lehiatu ezinik esan zuen agur. 2009ko Berlingo Munduko Txapelketari





## Pearson, oztoporik gabe

**Australiarrak irabazi du urrezko domina 100 metro hesidunetan. Ivan Ukhov, Robert Harting eta Taoufik Makhloufi izan dira jardunaldiko beste irabazleak.**

uko egin eta gero, 2010ean itzuli zen, Dohan, pista estaliko Munduko Txapelketan. Zazpigarren sailkatu zen 60 metro hesidunetan. Urtebete geroago, bigarren izan zen Daegun (Hego Korea), Munduko Txapelketan. Gutxigatik egin zion urreak, baina azken metroetan Dayron Robles kubatarrak traba egin zion apropos, eta aukerarik gabe utzi zuen. Hirugarren izan zen Xiang, baina epaileek Robles kanporatu zuten, eta zilarrezko domina eman zioten txinatarrari. Hain zuzen ere, metal horretako domina lortu zuen ere urte honen hasieran Xiangek, Istanbulen (Turkia), pista estaliko Munduko Txapelketan. Beti urrearen usainean, baina beti hura dastatu ezinik.

Londresen bazuen itxaropena behingoz bigarren koskatik lehenengora jauzi egiteko. Itxaropenak, baina, hiruzpalau segundo iraun zion. Orain lau urte bezala, telebistan ikusi beharko du gaur finala. Hura izango da ziurrenik finala ikusiko duen txinatar apurretako bat. Beste milioika txinatarrak lotan egongo dira, Txinan 04:15ak direnean jokatuko baita dominak erabakitzeko lasterketa. Lo ordurik ez dutela galduko, horra euren heroiaren kaleratzearen alde on bakarra Txinako biztanleentzat. Ziurrenik nahia-goko zutela gaubeilan egon.

### J. Etxeberria

Faborittoa zen, eta ez zuen kale egin. Sally Pearson australiarrrak urrezko domina irabazi zuen atzo 100 metro hesidunetan (12,35), Dawn Harper eta Kellie Wells estatubatuarren aurretik. Eguneko beste finaletan, Ivan Ukhov errusiarrarentzat izan zen urrea gorako jautzia (2,40 metro), Erik Kynard estatubatuarrentzat zilarra, eta Mutaz Essa Barshim qatartarrarentzat eta Derek Drouin kanadarrarentzat brontzea. Disko jaurtiketan, Robert Harting alemaniarra nagusitu zen (68,27 metro), Ehsan Adadi indiarraren eta Gerd Kanter estoniarraren aurretik. Azkenik, 1.500 metrokoan, Taoufik Makhloufi aljeriarra izan zen azkarrena (3.34,08), Leonel Manzano estatubatuarren eta Abda-

laati Iguider marokorren aurretik.

Gaur, berriz, lau final jokatuko dira: gizonezkoen 110 metro hesidunak (22:15), eta emakumezkoen luzera jautzia (21:05), 400 metro hesidunak (21:45) eta 200 metrokoa (22:00). Azken horretan Jamaikako eta AEBetako atleten arteko lehia ikusi ahal izango da berriro: batetik, Veronica Campbell-Brown eta Shelly-Ann Fraser-Pryce; eta bestetik, Carmelita Jeter, Allyson Felix eta Sanya Richards-Ross. 100 metrokoan Fraser-Pryce nagusitu zen, Jeter, Campbell-Brown eta Felixen aurretik. Lau atleta horiek eta Richards-Rossek, 400 metroko olinpiar txapelkunak, dute aukera gehien urrea irabazteko. Campbell-Brownek irabaziko balu, historia egingo luke, inork ez baitu hiru aldiz jarraian irabazi olinpiar urrea 200 metrokoan. Ema-

kumezkoetan, berriz, inork ez du lortu hiru aldiz jarraian urrezko domina banakako proba batean. Jelena Isinbaieva errusiarrak ere eskura zuen marka hori Londresen, baina brontzezko dominarekin konformatu behar izan zuen herenegun pertika jautzian.

### Dekatloiaeren hasiera

Gaur eredeatloia hasikoda. Proba horretan faborito argia dago: Ashton Eaton estatubatuarra. Eatonek munduko marka hobetu du orain bi hilabete eskas (9.039 puntu). Martxoan, berriz, beste horrenbeste egin zuen heptatloikoarekin (6.645 puntu). Dekatloikoaren ontzeko honako markak egin zituen: 100 metrokoan, 10,21; luzera jautzian, 8,23; pisu jaurtiketan, 14,20; gorako jautzian, 2,05; 400 metrokoan, 46,70; 110 metro hesidunetan, 13,70; disko jaurtiketan, 42,81; pertika jautzian, 5,30; xabalina jaurtiketan, 58,87; eta 1.500 metrokoan, 4.14,46. Konparazio bat egite aldera, Eatonek aurten Espainiako Txapelketan parte hartu izan balu, lau probetan izango zen txapelkun eta batean txapelkunorde.

### Marka

■ **Campbellenesku.** Veronica Campbell jamaikarrak hirugarrenez jarraian irabaz dezake gaur olinpiar urrea 200 metrokoan. Inork ez du horrelakorik egin bihurtu-nearen proban, ez gizonen proban, ez emakumezkoen proban. Emakumezkoen artean ere inork ez du lortu hiru aldiz jarraian banakako proba batean nagusitzea.

**B**ejondeizula, Leire, zu bezalako gehiago egongo balira... Batzuentzat txikieria izango da kontatzena, baina ez dakizue zeinen harro egin dudan lo. Herenegungoa da pasadizoa, baina izan zitekeen atzokoa edo biharkoa. Egunak berdin dio, keinuak dauka indarra. Dagoeneko jakingo duzue, baina ukondo lan handi samarra dago egin beharra kazetarien gunean proba bat amaitu eta kirolariari bizpahiru galdera egiteko. Berotan harrapatu nahi izaten ditugu denok, eta... gu berotzen gara azkenean.

## 'Marca' da gero, aizue



'Off the record'  
Unai Zubeldia

Labirinto txiki bat dago belodromoan kirolariengana gerturatzeko, eta hortxe egoten dira/gara denok zain, gurea noiz iritsiko. Omniumeko lehen hiru probak amaituta, jota zegoen Ola-berria, eta bazter batetik ihes egin zuen, erlaxazio lanak bere barruarekin hizketan egiteko. Amorratuta zegoen. Leire ez, *Marca*-ko kazetaria. Leirerena etsipena zen gehiago. Bere burua lasaitzen saiatu, familiarengana harmaila-tara oinez gerturatu, pare bat besarkada hunkigarri eman, eta... «Leire, Leire!». Badator.

«Euskal Herritik nator. Euskaraz egingo dizkiot galdera batzuk; ezagutzen nau, eta euskaraz egiten dugu beti gure artean...». *Gurea* zela azaldu nahi nion, funtsean, *Marca*-ko kazetariari. «Baina beharrezkoa da euskaraz egitea? Ezin dugu bion artean gaztelaniaz egin?». Leirek erantzun zion. «Egin zuk lehenengo euskaraz, eta gero kasu egingo diot berari». Latza. Hori da gozamina hori. Hunkituta zegoen bera, jota; eta hunkituta ni, hazita. Harro piztu nuen grabagailua. A, *Marca*-koak ez ninduen agurtu gero.

08

Seigarren uztaila



berria  
2012ko abuztuaren 8a

BERRIA



## Brittany Rogers

Kanadako selekzioko gimnasta

Taldekako finalean bosgarren postua eskuratuta, eta jauziko finalean zazpigarren amaituta, zoratzen dago Brittany Rogers kanadarra bere lehen jokoetan.

# «Profesionalki ezin diot eskatu beste ezer neure buruari»

Unai Zubeldia Londres  
→ Berriemaita berezia

Dominen borrokatik urruti samar geratu den arren, pozez zoratzen dago Brittany Rogers gimnasta (New Westminster, Kanada, 1993), bere lehen olinpiar jokoetan. Jauzien finala amaitu eta minutu gutxira hitz egin du

### Aipatzekoa.

Final ikusgarria. 14,766 eta 14,200 puntuko jauziak egin zituen Brittany Rogers-ek jauzien finalean. Irabazleak, Sandra Raluca Izbasak, 15,383 eta 15,000 puntuko jauziak egin zituen.

BERRIAREKIN, lasai ederrean, egunotan zer sentitzen ari den lasai azalduz. Izar guztien artean «Txiki samar» sentitzen dela aitortu du, eta «arrakastatsutza» jo du taldekakoan lortutako bosgarren postua, eta jauzia lortutako zazpigarrena. 19 urte bete berritan, «momentu bakoitzarekin gozaten» ari da kanadarra. «Ez dut sekula ahaztuko esperientzia hau».

**Lehenik eta behin, zorionak, finalean egindako lanagatik.**

Eskerrik asko.

**Zer moduz sentitu zara?**

Olinpiar Jokoetako bakarkako final batean egotea gauza handia izan da niretzat, eta ahal izan dudat mailarik bikainena eman dut. Profesionalki ezin diot beste ezer eskatu neure buruari, eta momentu handia izan da niretzat. Hemen egotea, finalean parte hartu ahal izatea, bi jauzi on egitea... Ikaragarria izan da.

**Lehen olinpiar jokoak dira zuretzat. Nola ari zara bizitzen Kanadako selekzioa egiten ari den lana?**

Kanadak oso ondo prestatu ditu olinpiar joko hauek, esperientzia handiko selekzioa delako. Baina niretzat lehen jokoak dira, eta test garrantzitsua izan da neure buruarentzat. Oso pozik nago egindako lanarekin.

**Kirol arloko lanak amaitu dituzu. Etxerako bidea hartu beharko duzue berehala, noski...**

Ez, ez. Beste astebez egongo gara hemen.

**Kirolariloaz kanpoko joko horiek ezagutzeko aukera izango duzu orduan...**

Bai, bai. Niretzat, pertsonalki, harriagarria da nire herrialdeko gainerako kirolariek egotea. Oso gertuko harremana izaten ari naiz haiekin. Idoloetako asko ari naiz ikusten olinpiar hirian, eta gertu-gertu eduki ditut horietako batzuk. Olinpiar hiritik gertu daude kirol guneetako asko, eta saiatuko naiz azken aste honetan ahal dudan leku guztietara joaten, gainerako kirolariak bertatik bertara ikusteko.

**Pentsatzekoa delako, hain gaztea izanda, idoloren batzuk izango dituzula...**

Taldekideak eta gainerako gimnastak dauzkat idolorik handien-

tzat, eta zoragarria da haiekin lehia aritzea, hemen egotea. Ikaragarria da.

**19 urte daukazazu. Zer nabarmenduko zenuke onetik joko hauetan?**

Ez da erraza erantzutea. Baina taldekako finala aipatuko nuke, ziurrenik. Bosgarren amaitu genuen, eta une oro goialdean egon

**«Lehen jokoak dira, eta test garrantzitsua izan da neure buruarentzat»**

**«Gimnastikak baino indar handiagoa dauka Kanadan izotz hockeyak»**

ginen, dominen borrokan sartuta. Sentipen harrigarriak bizi izan genituen final horretan (joan den astean, asteartean izan zen final hori).

**Eta txarretik?**

Txarretik? Nire taldekideak, Elisabeth Blackek, jauzien finalean parte hartu ezin izana (finalerako sailkatu arren, ezin izan zuen parte hartu, lesioa zela tarteko). Badakit zein gogor entrenatu den honaino iristeko. Oso-oso gaztea da oraindik, 16 urte dauzka, baina esperientzia gogorra izan da harentzat.

**Nola ekin zenion zuk bide honi? Hainbesteko indarra dauka Kanadan gimnastikak?**

Gimnastika ez da hain kirol garrantzitsua Kanadan. Gure herrialdean indar handiagoa dauka izotz hockeyak, adibidez. Ez da erraza gimnastikan aurrera egitea, baina gero eta babes handiagoa daukagu, eta gimnastika pixkanaka indar handiagoa hartzen ari da. Zorionez.

Bilbon kirol guztietarako lekua dago

en Bilbao hay sitio para todos los deportes

**Bilbao Kirolak**  
www.bilbaokirolak.com



Sentimendu abertzalea indartu egin dela diote Londresko berriraperekin. Olinpiar Jokoek, eta Team GB-aren arrakastak aspaldian ezagutu gabeko batasun sentimendua sortu dutela Britainia Handian. Eskoziaren erreferendumaren, edo ez-erreferendumaren gaia puri-purian dagoen honetan, eztabaida gai ona da. Ahots kritikoa ere agertu dira; ezagunena, Morrissey abeslariarena. Kirola betidanik izan da abertzalekeria indartzeko tresna, eta arrakastak ia beti eraman izan du bandera bat soinean.

## Nolakoa litzateke?



'Betweenland' Imanol Magro

Pasatu zen Frantziak Munduko futbol Kopa irabazi zuenean; Espainiak ere lortu zuenean; Hegoafrikak errugbi Munduko Kopa irabaztean; Ekialdeko Alemanian propagaganda aparatu izan zen kirola... Garaipen bakoitzaren ahalmen aglutinatzailearen ondorioak mesederako edo kalterako diren norberak epai dezala.

Garaipen instrumentalizazio horrek higuina sortzen dio jende askori, eta kirolek urruntzen du. *Merchandising* nazionalisten makineriak eliteko kirolarekin eginiko erabilerarekin oso

kritiko diren iritziz ugari ditut inguruan. Eta ondo ulertzen ditut.

Baina, hipotesietan sartuta, Euskal Herriko, hobeto esanda, *Betweenland*-eko selekzioak lorpen handia lortuko balu, Danimarkak 1992ko Eurokopian edo Lituaniako saskibalo selekzioaren antzera, erreakzioa hobe al litzateke? Euskal herri, nazio edo lurralde bateko talde batek garaipen handi bat lortuko balu, ez al litzateke antzeko instrumentalizaziorik sortuko? Pentsamendu kritikoa berdina sortuko al luke? Ez naiz ausartzen ezezko borobilarekin.

berria  
2012ko abuztuaren 8a



Kronika

09



Frantziako Olinpiar Batzordeak Londresen duen bulegoaren aurrean atzo goizeko zortzietan zegoen ilara. IMANOL MAGRO

# Azken itxaropena

**Ehunka kirolzalek orduak itxaroten dituzte gauero sarrerak lortzeko Frantziako Olinpiar Batzordeak Londresen duen egoitzaren aurrean jarrita.**

Imanol Magro Londres  
→ Berriemaile berezia

**I**lara luzeak arreta sortzen du, hiriaren finantza barrutian lan egiten duten traje eta soinekodun dotoreen artean. Frantziako Olinpiar Batzordeak Billingsgate merkatuko egoitza osoa hartu du, eta egunero sarre-  
ra kopuru jakin bat jartzen du salgai, Interneteko tramiterik gabe. Mundu guztiko jendea pilatzen da

han, eta ordu batzuk zain egin ez ezinezkoa da sarrerak lortzea. «Guk atletismokoak espero ditugu»; Thomas Morgan eta Luke Morris dira, Londreskoak, 22 eta 25 urtekoak.

Gau luzea izan da, eta hotza, azken asteetako hotzena. Gauerdian jarri ziren ilaran, inor ez zegoenean, eta goizeko bederatzietan irekitzen dute bulegoa. Eleberrri pare bat eta kafea lagun goxatu dute itxaronaldia. «Lehen orduak onak izan ziren, festa zegoen he-

### Interneten

■ **Etsigarria.** Internet bidez oraindik ere eros daitezke sarrerak. Gelditzen direnak garestiak dira, eta sistema etsigarria da. Sarrera bat aukeratu, prozesu osoa egin, ordu laurden itxaron, eta, gero, salgai ez dagoela agertzen da gehienetan.

men, eta irteten zirenekin hizketan ondo pastua dugu. Gogorrena lauak aldera izan da, baina merezi du», aztertu du Morgane.

Athletizalea dela esan du Morrisek, eta haserre dago txartelak saltzeko sistema ofizialarekin. «Askoz hobe izan zitekeen; Internet bidez saiatu gara, eta ezinezkoa da. Hau da bide bakarra». Dena den, are ernegatugo dago telebistan ikusiriko eserleku hutsekin. «Gu itxaroteko prest gaude, kirolzaleak garelako, baina sarrera horiek enpresen esku utzi dituzte. Ez dut ulertzen zergatik ez dituzte jendearen esku utzi».

Prezioarekin ere kexu dira. «Gu hemen gaude, ezin ditugulako ordaindu 200 liberako (260 euro) sarrerak», onartu du Morgane.

«Ikasketak bukatu berri ditugu, eta sarrera merkeenak lortu behar ditugu. Olinpiar Jokoak maite ditugu, eta behar adina ordu itxaroteko prest gaude».

Illaran bigarrenak Yanina Bakiri eta Alexandre Moureau daude. Frantziarrak dira, Bordele ingurukoak, eta Euskal Herria maite dutela diote. Ia bost ordu daramatzate zain. Bezperan, Moureauek beste bost ordu egin zituen 150 euroko hondartzako boleibol sarrera bat erosteko. «Nik 180 ordaindu nituen, hemen erosten badituzu 30 euroko gainkarga baitu». Sarrera garestiak direla diote, baina Moureauek bere burua justifikatu beharra ikusi du. «Bizitzan behin bakarrik izango dugu halako aukerarik, eta merezi du».

Orduak daramatzate han, baina umoreko daude. «Ingelesak ilarak maite dituzte, edozein tokitan eratan dute bat», esan du Bakirik. Ondo ezagutzen dute herrialdea; zientzialariak dira, eta bertan lan egiten dute. «Atletismoa maite dut», gehitu du. Hori da helburua, olinpiar estadioan sartzea. «Sarrera garestiak dira, eta bana-keta sistema ez da ona izan. Baina jendeak oso ondo erantzun du. Ikusleak izaten ari dira jokotako onena», ondorioztatu du Bakirik.

Haien atzetik ilara luze doa. Lehen lauak gazteak dira, baina ez da oso urrun joan behar adineko jendea ikusteko. Nazio guztietako jendea da, eta makina bat hizkuntza entzun daitezke. Mantak, termoak... Denetarik. Sarrerak lortzeko modu bakarra da, eta egunez egun jende gehiago dago. Azken itxaropena da. Ilararen bukeran dauden kideek desanimatu egiten dituzte gehitzen zaizkienak. «Ez dut uste guretzat guztiontzat egongo direnik». Bihar itzuli beharko.

@ToninLorente (Espainiako saskibalo jokatari izandakoa) Marka da, gero! Behin irabaziko dugu urrezko domina bat, eta kirol hori ez da olinpiar izango 2016ko jokotan.



**Aupa Mikel eta Ainhoa!**



**euskal kirolariek bat**



KERIM OKTEN / EFE

**Finalak**

- 10:30. Piraguismoa.** K1-1.000 metrokoa (G).
- 10:48. Piraguismoa.** C1-1.000 metrokoa (G).
- 11:16. Piraguismoa.** K2-1.000 metrokoa (G).
- 11:44. Piraguismoa.** K5-500 metrokoa (E).
- 14:00. Bela.** 49er modalitatea (G).
- 16:30. Mahai-tenisa.** Taldekakoa (G).
- 19:15. Borroka.** -48 eta -63 mailak (E).
- 21:05. Atletismoa.** Luzera jauzia (E).
- 21:45. Atletismoa.** 400 metro

hesidunak (E).

- 22:00. Atletismoa.** 200 metrokoa (E).
- 22:00. Hondartzako voleibola.** Emakumezkoak.
- 22:15. Atletismoa.** 110 metro hesidunak (G).
- 23:15. Taekwondo.** -49 maila (E).
- 23:30. Taekwondo.** -58 maila (G).

**Euskal herritarrik**

- 15:30. Eskubaloia (gizonezkoak).** Espainia-Frantzia. Final-laurdenak.

**Telebistak**

- La1. 09:30.** 15:30ak arte, eta gero 16:00etatik 23:45ak arte. Jarraian laburpena.
- Teledorte. 09:30.** 01:45 arte zuzenean. Ondoren, laburpena.
- France2. 11:45.** 13:00 arte zuzenean. Gero, 14:45etik 20:00etara, eta 20:40etik 01:00etara.
- France3. 09:00.** 12:00 arte zuzenean. Gero, 12:55etik 14:45era, eta 19:55etik 20:35era.

- Atletismoa**  
**■ 100 METRO HESIDUNA (E)**  
**→ Dominak**  
 1. S. Pearson (Australia)  
 2. D. Harper (AEB)  
 3. K. Welts (AEB)

- ALTUERA JAUZIA (G)**  
**→ Dominak**  
 1. I. Ukhov (Errusia)  
 2. E. Kynard (AEB)  
 3. Barshin (Qat) / Drowin (Kan)

- DISKO JAURTIKETA (G)**  
**→ Dominak**  
 1. R. Harting (Alemania)  
 2. E. Hadadi (Iran)  
 3. G. Kanter (Estonia)

- Pista**  
**■ OMNIUN (E)**  
**→ Dominak**  
 1. L. Trott (Britainia Handia)  
 2. S. Hammer (AEB)  
 3. A. Edmonson (Australia)

- ABIADURA (E)**  
**→ Dominak**  
 1. A. Raisman (AEB)  
 2. V. Pendleton (Britainia Handia)  
 3. Shuang Guo (Txina)

- KEIRIN (G)**  
**→ Dominak**  
 1. C. Hoy (Britainia Handia)  
 2. M. Lev (Alemania)  
 3. S. Van Veltthooven (Z. Berria)  
 3. T. Mulder (Herbehereak)

- Gimnastika art.**  
**■ BARRA (G)**  
**→ Dominak**  
 1. E. Zonderland (Herbehereak)  
 2. F. Hambüchen (Alemania)  
 3. Zou Kai (Txina)

- ZORUA (E)**  
**→ Dominak**  
 1. A. Raisman (AEB)  
 2. C. Ponor (Errumania)  
 3. A. Mustafina (Errusia)

- OREKA-BARRA (E)**  
**→ Dominak**  
 1. Deng Lilin (Txina)  
 2. Sui Lu (Txina)  
 3. A. Raisman (AEB)

- PARALELOAK (G)**  
**→ Dominak**  
 1. Feng Zhe (Txina)  
 2. M. Nguyen (Alemania)  
 3. H. Sabot (Frantzia)

- Zaldiketa**  
**■ TALDEKAKOA**  
**→ Dominak**  
 1. Britainia Handia  
 2. Alemania  
 3. Herbehereak

- Triatloia**  
**■ GIZONEZKOAK**  
**→ Dominak**  
 1. A. Brownlee (Britainia Handia)  
 2. I. Gomez Noya (Espainia)  
 3. J. Brownlee (Britainia Handia)

- Borroka**  
**■ -66 MAILA (G)**  
**→ Dominak**  
 1. H. Kim (Hego Korea)  
 2. I. Gomez Noya (Espainia)  
 3. A. Aleksanyan (Armenia)  
 3. S. Chenot (Frantzia)

- -96 MAILA (G)**  
**→ Dominak**  
 1. G. Rezaei (Iran)  
 2. R. Totrov (Errusia)  
 3. A. Aleksanyan (Armenia)  
 3. J. Lidberg (Suedia)

- Bela**  
**■ RS-X MODALITATEA (G)**  
**→ Dominak**  
 1. D. Van Rijsselberge (Herbehe.)  
 2. N. Dempsev (Britainia Handia)  
 3. P. Mairzinski (Polonia)

- RS-X MODALITATEA (G)**  
**→ Dominak**  
 1. M. Alabau (Espainia)  
 2. T. Petaja (Finlandia)  
 3. Z. Noceti-Klepacka (Polonia)

- Igeriketa sinkro.**  
**■ BINAKAKOA**  
**→ Dominak**  
 1. Istxenko-Romaxina (Errusia)  
 2. Carbonell-Fuentes (Espainia)  
 3. Huang-Li (Txina)

- Mahai-tenisa**  
**■ TALDEKAKOA (E)**  
**→ Dominak**  
 1. Txina  
 2. Japonia  
 3. Singapur

- Jauziak**  
**■ 3 METROKO TRANPOLINA (G)**  
**→ Dominak**  
 1. I. Zakarov (Errusia)  
 2. K. Qin (Txina)  
 3. C. He (Txina)

- Halterofilia**  
**■ +105 MAILA (G)**  
**→ Dominak**  
 1. B. Salimkhorastabi (Iran)  
 2. Anoushiravani (Iran)  
 3. R. Albegov (Errusia)

**Oharra:** Atletismoko azken finala kontuan hartu gabe.

Herraldea	Urr.	Zil.	Bro.	G.
1. Txina	34	21	18	73
2. AEB	30	19	20	69
3. Britainia Handia	22	13	13	48
4. Hego Korea	12	5	6	23
5. Errusia	10	18	20	48
6. Frantzia	8	9	11	28
7. Italia	7	6	4	17
8. Kazakhstan	6	0	1	7
9. Alemania	5	14	7	26
10. Herbeherea	5	3	6	14
11. Australia	4	1	4	9
12. Iran	4	2	1	7
13. Hungaria	4	2	3	9
14. Ipar Korea	4	0	1	4
15. Kuba	3	3	1	7
16. Bielorrusia	3	2	3	8
17. Zeelanda Berria	3	1	5	9
18. Hegoafrika	3	1	0	4
19. Ukraina	3	0	6	9
20. Japonia	2	13	14	29
21. Errumania	2	5	2	9
22. Danimarka	2	4	2	8
23. Brasil	2	1	5	8
23. Polonia	2	1	5	8
25. Jamaika	2	1	1	4
26. Kroazia	2	1	0	3
27. Etiopia	2	0	2	4
28. Espainia	1	4	1	6
29. Kanada	1	3	7	11
30. Suedia	1	3	3	7
31. Txekiar Errepublika	1	3	1	5
32. Kenya	1	2	2	5
33. Slovenia	1	1	2	4
33. Georgia	1	1	1	3
35. Dominikar Errep.	1	1	0	2
35. Suitza	1	1	0	2

← **Emaitzak**

← **Dominak**

Adin horrekin, 27 urterekin, hartu du erretrora Chen Yibing gimnasta txinatarrak. Uztaietan izan da beti espezialista. Lau aldiz munduko txapelketa irabazitakoak da. Pekinere urea irabazitakoan, balaziarra lortu du Londresen. «Badago Txinan bertan ni baino jende hobea eta gazteago, eta sortuko dira txapelidun berriak», esan zuen atzo, agurrarekin.



“Gipuzkoa gure kirolariekin”

**I**rabazi, eta gero galdu. Dopinarekin lotutako izenen artean nagusietako bat da Ben Johnson atleta oiharena. Ehun metroko finalean nagusitu, eta urrezko domina lepotik zintzilikatu zuen kirolariak 1988ko Seulgo Olinpiar Jokoetan. Baina hura gabe gelditu zen, analisiak dopina hartu zuela agerian utzi eta gero. Los Angelesen irabazitako brontzezko bi dominak kendu, eta hutsean utzi zizkioten ondutako markak ere.

Jamaikan jaio zen Johnson, 1961. urtean, baina 14 urterekin Kanadara joan zen familiarekin. Han murgildu zen atletis-

## Atzera begira

# → 1988

## Ben Johnson

Irabazitako dominak eta ondutako markak galdu zituen Ben Johnsonek, dopina hartzeagatik. **BERRIA**



moaren munduan, eta 1980an Moskuko Olinpiar Jokoetara joateko hautatu zuten. Kanadak ez joatea erabaki zuen azkenean.

Lehen dominak Los Angelesen irabazi zituen, 1984. urtean. 1987. urteko Munduko Txapelketan, berriz, bi aldiz ondu zuen 100 metroko marka. Seulen lortu urreak eman zion, hala ere, osperik handiena, 1988an. Eta kendu ziotenean, dopinak bilakatu zuen atleta kirolaren alderdirik ilunaren ordezkari. Lehiaketara itzuli zen, baina dopinaren itzalak ez zuen utzi. → **Edume Elizondo**

berria  
2012ko abuztuaren 8a



Olinpiar oroitzapenak → Maider Telleria

11

# Ametsa betetzearen zoritxarra

**Unai Zubeldia** Londres

→ Berriemaile berezia

**L**au urtetik behin, lau aldiz. Hamasei urte denera. Erraz esaten da. Bartzelona, Atlanta, Sydney eta Atenas. Bata bestearen atzetik. Maider Telleria hockey jokalarari ohiarena da balentria. «Momentuan ez nion garrantzi handirik eman, baina gerora jabetu naiz hain erraza ere ez dela, Londreseko, adibidez, Espainiako selekzioa ez delako sailkatu». Almodena Cid eta Mateo Garralda soilik dauzka parean Euskal Herrian. Kirol munduko izen potoloak dira biak.

Muturreko sufrimendua zer den ondo ikasi zuen donostiarrak kirol ibilbide luzean, baina bizitzaren beraren aurka ere hasi behar izan zuen borrokan, joan den urtean, garuneko herpesa diagnostikatu ziotenean. Gogorra zen eta da, ordea, Telleria, eta, gaixotasun hari ere partida irabazita, berrindartze lanetan murgilduta dabil, Asier eta Jon 3 eta 5 urteko bi semeek ematen dioten bizitasunari helduta. «Gorputza fisikoki bere onera ekartzea hain zaila ere ez da, baina buruak lan handiago ematen du».

Lau joko. Lau bizipen. Bizitzako lau momentu. Motzean laburbildu du bakoitza. «Bartzelonara 19 urterekin joan nintzen. Aukera bat emango zidala esan zidan entrenatzaileak; baliatu nahi banuen, baliatzeke». Eta horixe egin zuen. «Primeran atera zen dena». Inaugurazio ekitaldian, estadioan sartutakoan, «erromatarren garaiko oihu haien parekoekin txiki-txiki» sentitu zela argitu du. «Ai ene! Zer da hau!», pentsatu nuen». Urrezko domina kolkooan jarrita zebilen hamabost egun geroago. «Gogoan daukat prestatzaile fisikoak papertxo bat eman zidala: 'Ametsak betetzea da norbaiti gerta dakioken gauzarik okerrera'. Hala jartzen zuen. Nirekin aurrerantzean zer egin behar zuten galdetu zidan, nola motibatu behar ote nintzen».

Zelaian hizketan jarraitu zuen Telleriak. Hori bai, Atlantakoa «gogorra» izan zela aitortu du.

Silvia Manrique, Carmen Barea, Teresa Motos, Maider Telleria eta Nagore Gabellanes, Bartzelonako Olinpiar Jokoetan. **BERRIA**



## Bartzelona, Atlanta, Sydney eta Atenas. Lau olinpiar jokotan aritu zen Maider Telleria, belar hockeyan. Urrezko domina ere kendu zion 1992ko Jokoei, Bartzelonakoei.

«Erabat talde berria zen gurea. Urrea defendatzera joan, eta zortzigarren amaitu genuen. Hala ere, horrelakoetan ikasten da gehien; goian bezala, behean egon gintzekeela ikusi genuen». Goian, behean eta erdian, Sydney, 2000. urtean, laugarren amaitu baitzuen Espainiako selekzioak, «posturik garrantzinean». Donostiarraren hitzetan, dena izan zen «berezia» Australian. «Klima, zelaia, taldekideak... Posturik gogorrenarekin itzuli ginen etxera».

**Barruko lehia, «gogorra»**  
Gogortasun hark zalantzaren bat edo beste sortu zion Telleriari. «Eta oso nekatuta iritsi nintzen Atenasera, ia lehortuta. Ilusio ikaragarria neukan, lantokian urte-



19 urterekin urrea irabazita, nola motibatu behar ninduten galdetu zidan prestatzaileak»

**MAIDER TELLERIA**  
Hockey jokalarari izandakoa

### Laburrean

■ **Gaixotasuna.** Garuneko herpesa diagnostikatu zioten iaz Maider Telleriari, eta, gixotasunari aurre eginda, berrindartze lanetan murgilduta dabil azken hilabeteotan.

■ **Irakasle.** Donostiako Zurriola ikastolan hasi zen hockeyan, eta bertan dabil azken urteotan soinetako irakasle lanetan, berak ikasitakoa gazteei erakusten.

beteko eszedentzia hartuta joan nintzen, baina...». Bartzelonan urrearekin hasitakoa hamargarren postuarekin amaitu zen Atenasen. Baina emaitzez haratago analisia egin du Telleriak. «Profesionalak ez garenontzat joketan egotea da lorpenik handiena; horrek ematen zuen entrenatzen jarraitzeko indarra».

Gogorretik asko daukate, ordea, jokoeak. «Deialdia jokalarari askokoa izaten da hasieran, eta gerora 16-18ra mugatzen da. Taldekideekin zuzenean lehiatzea zen niretzat gogorrena, lehiaketa barruko lehiaketa». Zelaian gertatzen zen, ordea, lehia. «Horren erakusgarri, oraindik ere, tarteka, elkarrekin hizketan aritzen gara orduko jokalarietako batzuk: Teresa Motos, Begoña Larzabal, Nagore Gabellanes... asko ditut gertukoak; baita Santander, Madril eta Malagakoak ere». «Ametsak lau un» kendu zizkion kirolari, eta bizitzari begietara begira dabil orain. Irribarrea aurpegitik kendu gabe. Goi mailako kirola bai, baina Maider Telleria bera ere gogorra delako.

**B**ritainia Handiko taldeak urrezko sei domina eta zilarrezko domina bat irabazi zituen larunbatean, eta *Super Saturday* izena eman diote horregatik egun horri. Asteburuan kanpoan egon nintzen, eta igande gauean Londresera itzuli nintzenean nabari zen giroan euforiaren ajeta.

Etexera iritsi nintzenean, nire etxeko aurreko leihoan Jamaikako bandera bat zegoen zintzilik, Bolt eta Blaken erakustaldirako prestatzen ari ziren kuadrilla handi baten zaindari. Festak hurrengo goiza arte luzatu zen, 100 metroko garaipenez gain, Jamaikak Britainia

## Euforia



'London calling'  
Garazi Goia

Handiarekiko independentzia lortu zutenetik 50 urte bete ziren—eta astelehenean—aitzakia bikoitza zuten, beraz, festa egiteko—. Bolt, berriz, Suediako eskubaloi taldeko neskekin parrandan ibili omen zen, Twitterren goizeko ordu txikietan jarri zuten argazki batek horrela erakutsi zuen behintzat, astelehenean hemengo prentsa sentsazionalistari zer esana emanez.

Jendearen jarrera *buyoant* hori apustu etxeetara ere zabaltzen da. Lehen joan naiz auzoan dauden bi apustu etxeetara jabeek elkarriketatxo bat egiteko asmoz, eta esan didate Britainia

Handiko taldearen arrakastek jende gehiago bultzatu omen dutela dirua jokatzen. Antza, orain arteko beste olinpiar jokoetan baino diru gehiago jaso omen dute.

*Super Saturday* eta Bolt sendagai eraginkorrak direla frogatu da, beraz, ordu edo egun batzuetan bakarrik bada ere, jendea gezurrezko fikzio batera eraman eta albistegietako goiburua beste tonu batekin hasteko. Aprobetxa dezatela, euforia osteko une beltzagoek zain jarraituko dute eta, hortxe, izkinan, bistatik desagertu gabe, Siriaren, krisiaren eta abarren konpainian.

berria  
2012ko abuztuaren 8a

## Azkena →



**↑ Grabitatearen lanak.** Tranpolin jauzilariak uretara erori aurretik jartzen dituzten aurpegiekin egin daiteke argazki bilduma bat ederra. Argazkilaria talde bat, gainera, horretarako ari da propio Londresko jokoetan lanean, gero han lortutakoak erakusteko. Argazkikoa Kai Qin txinatarra da, eta hiru metroko tranpolinean aritu zen atzo lanean. Agerikoa da grabitateak jauzilariaren aurpegia desitxuratzen egindako lana. **PATRICK B. KRAEMER / EFE**

## berriaTB

- 12:00. Aurkezpena.**  
 → **Prentsaren begiratu.**  
 → **Londrestik zuzenean.**  
 Unai Zubeldia eta Imanol Magro.  
 → **'Thamez' atala.** Danel Agirre Berlindik.  
 → **Eguneko gonbidatua.** Ander Lasa saskibaloi jokalaria.  
 → **Tertulia.** Ainara Arratibel, Monika Juaristi eta Igor Su-saeta.  
 → **Eguneko kantua.**

## → Laburrak



**← Ererikoa**  
**GIMNASTIKA** › Douglas olinpiar txapelduna lurrera joan zen atzo oreka barran, eta Dengke irabazi zuen. Feng Zhek paraleloetan, Zonderlandek barran, eta Raismanek zoruan.

### Zazpi kirolari kamerundar falta dira olinpiar hirian

**KAMERUN** › Bost boxeolarik, igerilari batek eta futbol jokalaria batek olinpiar hiria inori ezer esan gabe utzi dutela jakinarazi du Kamerungo Gobernuo Kirol eta Hezkuntza Fisikoko Ministerioak, eta ez dagoela gerotik haien arrastorik. Hasiara batean zurrumurrua baino ez zen, baina Kamerungo Gobernuak berak baieztatu zuen atzo. Tartean «arrazoi ekonomikoak» daudela argudiatu dute, eta ez dute beste daturik eman. NOBeko bozeramaileek esan dute haiek ez dakitela ezer.

### Millak ez du jarraituko hautatzaile karguan

**FUTBOLA** › Espainiako Futbol Federazioak jakinarazi du Luis Milla orain arteko hautatzaileari ez diotela kontratua berrituko. Ez hari, ezta harekin batera aritzen den Juan Carlos Martinez prestatzaile fisikoari ere. 2008tik ari zen Milla 21 urtez azpiko Espainiako selekzioaren hautatzaile karguan, baina Londresen egindako lan kaskarren ondorioz —bi partida galdu eta bat berdinduta gelditu ziren kalean—, haren kontratua ez berritzea erabaki du orain federazioak.

**A**skotan, ez da erraza marra batekin banatzea haurtzarora, nerabezarora, gaztarora eta zahartzarora. Eta are zailagoa da heldutasuna zein arori lotzen zaion jakitea. Bakoitzaren araberakoa da, inondik ere. Ez da, bestela, oso erraz ulertzen 16 urte bete berriak dituzten kirolari entzutea Olinpiar Joko batzuetan urrezko domina irabaztea zela euren «txikitako» ametsa. Ruta Meilutite igerilari lituaniarrak urrea irabazi baitu 100 metrokoan, 15 urterekin; Kaitie Ledecky estatubatuarrek ere urrea 800 metrokoan, 15 urterekin; Ye Shiwen txinatarrek

## (Des) motibatuz



'Citius, altius, fortius'  
Enekoitz Telleria

beste horrenbeste egin du 400 metro estiloetan, 16 urterekin; eta Gabrielle Douglas estatubatuarrek urrezko bidomina irabazi ditu gimnastikan, 16 urterekin.

Kirol piskologoek motibazioaren gaia lantzen duten tratatu, teoria eta hausnarketei buruzko liburukotez beteta edukiko dituzte apalak. Euren «txikitako» ametsak horren «txikitako» bete dituztenak motibatzeari buruz. Izango dira horretan ere pentsamendu korranteak eta teoriak.

Maider Telleriaren prestatzaile fisikoa ez dakit zein pentsamendu korrontetako zen arlo horretan, baina sortu zuen teknikari lasai ederrean dei diezaiokegu 'desmotibazio motibatzailea'. 19 urterekin irabazi zuen hark urrea, Bartzelonan. Hura kolokan hartuta zeukala eman zion prestatzaileak papertxo bat eskura: «'Ametsak betetzea da norbaiti gerta dakioken gauzarik okerrrena'. Hala jar-tzen zuen. Nirekin aurrerantzean zer egin behar zuten galdetu zidan, nola motibatu behar ote ninduten». Beste hiru Olinpiar Jokotan aritu zen.

02

**Eskubaloia** → Espainiako gizonezkoak kanpora gelditu dira; gaur, emakumezkoen txanda.

03

**Borroka** → Maidar Undak gaur ekingo dio lehiari, eta dominen borrokan sartzea du helburu.

04

06


**Gimnastika erritmikoa** → Evgenia Kanaeva errusiarra da urrezko domina irabazteko hautagai nagusia.

07

london

www.berria.info/londres12

berria  
2012ko abuztuaren 9a



# Lasai, oso lasai

Usain Bolt oso erraz sailkatu da 200 metrokoen gaurko finalerako. Emakumezkoena Allyson Felix estatubatuarrek irabazi du, azkenean.

Zortzi urte zeramatzan domina horren atzetik, eta Londresen iritsi da saria. → 05



# Modurik krudelenean



Victor Tomas Espainiako selekzioko jokalaria lurren botata, lur jota, partida amaitu berrian. JUANJO MARTIN / EFE

**Julen Aginagalde, Mikel Agirrezabalaga eta Eduardo Gurbindo tartean zirela, Espainiak azken segunduan galdu du Frantziaren aurka, eta finalerdietatik at geratu da.**

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Lurrean etzanda. Negarrez. Segundo gutxi lehenago zer gertatu zen sinetsi ezinda. Jota zeuden atzo Espainiako eskubaloia selekzioko jokalaria Euskal Herrian 17:20 inguru zirenean. Julen Aginagalde, Mikel Agirrezabalaga eta Eduardo Gurbindo euskal jokalaria tartean. Aldageletara bidean, kazetarietara begiratu ere ez zien egin Aginagaldek; azalpenak emateko gai ez zen izan Agirrezabalaga; eta azaldu ere ez zen egin Gurbindo. Lasaitu zirenean hasi ziren hizketan denak. Baina amorratuta amaitu zuten partida. Modurik krudelenean galdu zutelako finalerdietara sartzeko aukera, William Accambay frantziar azken segunduan sartutako gol baten eraginez. Hiru euskal kirolari gehiago, etxera.

Domina borrokan sartzeko gai zirela sinetsita, defentsa indartsuarekin eta atezainaren lan harrigarriarekin ekin zion Espainiak partidari. 3-0, 6-1 eta 7-2. Frantziak hamalau jaurtiketa eginda zeukan ordurako, baina ezin asmatu. Harrigarri aritu zen

atepean Arpad Sterbik. Lehen hezortzi minutuak jokatuta, jaurtiketen %83 zeukan geratuta. Izugarria da hori eskubaloian.

Gozatzen ari zen Espainia defentsan, baina erasoan ez zen ari askorik asmatzen. Abiadura eta prezpitazioa nahastu egin zituzten espainiarrek, eta jaurtiketa zail gehiegi egiten hasi ziren bederatzimetrotik. Hortxe galdu zuen partida erabat hausteko aukera. Eta Espainiaren prezpitazio hori

**Emaitza**

**Espainia 22**

**Frantzia 23**

## «Nire bizitzako porrotik mingarriena da»

**U. Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Julen Aginagalde sutan sartu zen aldagelan, hitz egiteko gogorik gabe, eta Mikel Agirrezabalagaren aurpegia ere esanguratsua zen. Amorratuta zeuden Espainiako selekzioko jokalariek guztiak —Eduardo Gurbindo min hartuta dago—, berriketarako gogo guztirekin. Entrenatzaileari utzi ziz-

**Aipatzekoa.**

■ **Azken jaurtiketa.** Amaiera beroa izan zuen partidak, eta Canellas Espainiako jokariaren azken jaurtiketan falta egon zitekeela azpimarratu zuen Riverak. «Beste arean falta adieraziko zuten. Baina, tira, ez dugu asmatu».

baliatu zuen Frantziak hasiera kaskarra orekatzeko. 0-3ko partzialarekin, 7-5 gerturatu zen minutu gutxian, eta, lehen zati txar txarra eginda, hainbestean amaitu zuen lehen erdia: 12-9. %61eko batez bestekoarekin amaitu zituen Sterbik lehen 30 minutuetako lanak, harrigarri. Aginagalde ere hiru gol sartuta zegoen ordurako —bost sartu zituen denera, sei jaurtiketa eginda—.

Itxuraz, Espainiak kontrolpean zeukan partida. Baina Frantziak igo egin zuen erritmoa bigarren zatian; defentsan estutzen eta kontraerasoan min egiten hasi zen. Accambay egin zuen bigarren zati horretan lehenengoan Sterbik egin zuena. Bederatzi

jaurtiketa egin zituen frantziarrek bigarren zatiguztitan, eta zapi gol sartu; horietako bat, penaltiz. 17-14 galduz joan ondoren, 47. minutuan jarri zen Frantzia lehen aldiz aurretik, 17-18. Eta beste bi gol ere sartu zituen jarraian; 0-6ko partziala denera.

Beste behin ere Sterbiki helduta, 22-22 berdintzeko gai izan zen Espainia, eta, azken minutuan sartuta, 23-22koa lortzeko aukera ere izan zuen. Baina azken aurkerako erasoan asmatu ez, eta gola jaso zuen azkenekoan. Nikola Karabaticek jaurti, Sterbik gelditu, eta errebotea, Accambay barrera (22-23). Partidak bi zatien ispilua izan zen azken jokaldi hori.

kioten lan horiek. Valero Riverak lasaixeago hitz egin zuen kazetariaren aurrean, eta ez zuen zalantzarik izan: «Nire bizitzako porrotik mingarriena da; uneagatik eta moduagatik». Kataluniararen hitzetan, «krudela» izan zen atzoko porrota. «Ezinezkoa da gehiagorematea eta gutxiago jasotzea».

Talde guztiak «eta, bereziki, Sterbik» lehen zatian bereziki egin zuen lana goraiatu zuen Espainiako selekzioko entrenatzaileak. «Gaur taldeak beste behin ere erakutsi du zer egiteko gai den izarrez jositako talde baten aurka». Riveraren ustez, horregatik da atzoko porrota «are mingarria-

goa». «Ez dut uste taldeak etxera joatea merezi duenik».

Horrelakoetan gehienetan gertatzen den moduan, «zorte falta» ere aipatu zuen entrenatzaileak. «Inoiz ez dugu izaten beharrezkoa den zorte apur hori. Hirugarren geratu eta Frantzia egokitu zitzaigun lehenengo, inork nahi ez zuen aurkaria. Eta inoiz jokatzen ez duenak irabazten digu partida gero». William Accambay buruz ari zen kataluniarra. «Lehen aldiz ari zen jokatzen, eta min handia egin digu. Guk lehen zati zoragarria egin ondoren, hari esker lortu du Frantziak partida irabaztea».

«Uaraban, haurrek saltoka egiten dituzte mandatuak»

→ Catherine Ibarbuen ■ KOLONBIAKO JAUZILARIA. ZILARRA JAUZI HIRUKITZEAN





## Historiaren atea jo nahi du Espainiak

Finalerdietako partida jokatuko du gaur, espero ez zuen aurkari baten aurka: Montenegro (21:30)

Imanol Magro Londres  
→ Berriemaile berezia

Loriaren atarian dago Espainiako selekzioa, eta inoizko Olinpiar Jokorik gozoenak izaten ari da. Final-laurdenak irabazita, aldaba eskuan du, eta orain, atea jotzea falta zaio, eta ahal bada, behera botatzea. Jorge Dueñasek zuzentzen duen taldeak hirurogei minutu eta munduko eraso ahaltsuenetako bat ditu aurretik finalerako bidean (21:30). Hori bai, Montenegro ustekabeko aurkaria da, jokalariek beraiek ere onartu baitute Frantzia espero zutela finalerdietan. Beste finalerdia Norvegiak eta Koreak jokatuko dute (18:00).

Espainiako selekzioak lau urte daramatza Jokoetara eramane duen taldea fintzen. Pekindik kanpo gelditu ondoren, hirugarren izan da Munduko Txapelketan eta bigarren Europakoan. «Domina bakarra falta zaigu bilduman, urrezkoa, eta hori hemen lortu nahi dugu», onartu zuen herenegun baikor Eli Pinedok. Eta izan daiteke, bai behintzat finale iriste, azken urteetako ibilbidea aztertuz gero Montenegro ez baita Espainia baino hobea. Gaurko aurkaria bere multzoko laugarren postuan bukatu zuen, eta iaiz jokaturiko Munduko Txapelketan Dueñasek zuzendurikoek 23-19 irabazi zioten.

Balkanetako selekzioak joko ikusgarria egiten du, oso irekia. Gol gehien sartzen hirugarren selekzioa da, eta gehien jaso dutenatariko bat. Deialdiko hamahiru kideetatik hamarrek Buducnosten jokatzen dute, eta urte osoa egin dute elkarrekin lanean. Eraso joko ia itsu hori bi jokalarik baliatzen dute hobekien, Bojana Popovic eta Katarina Bulatovic alboek, hurrenez hurren txapelketako hirugarren eta laugarren goleatzaile nagusiak direnak.

Espainiak, baina, ezin du bere estiloa aldatu. Bere defentsa lanean fedea izan behar du, eta aurkariari larrutik ordainarazi erasoan egin dezakeen huts bakoitza. Euskal jokalarien aldetik, Nely Carlak eta Andrea Barnok lanak izango dituzte lehen lerro horrekin talka egitean. Eli Pinedok, berriz, fin ibili beharko du berriz, hegaleko postuetan egon daitekeelako aurkariaren itogina. Azkenik, Patricia Elorzak jokatzeako aukerarik duen ikusteko dago.

# Nely Carla Alberto

Espainiako selekzioko euskal jokalaria

Garrantzitsua izaten ari da taldean, eta pozik dagoela sumatzen zaio alboko donostiarrari. Selekzioa itxura ona ematen ari da, eta finala eskura dagoela uste du, baina nabarmendu du Montenegrok arrisku handia duela.

## «Gauzak ondo egiten ari garela sentitzen dugu»

I. Magro Londres  
→ Berriemaile berezia

Bezperako partidako aho zapore gozoarekin esnatu da Nely Carla Alberto (Donostia, 1983), eta goiz elkartu da BERRIAREKIN. «Ederki egin dut lo, batere tentsiorik sumatu gabe». Barrea ez zaio espainetarik erortzen eta gaurko partida has dadin irrikan dago.

### Zer moduz auzadete?

Oso hunkituta gaude, lortu duguna oso handia delako, eta pixka bat urduri ere bai, pixka bat pozik, pixka bat arduratuta eta pixka bat euforian murgilduta.

**Jokoen urduritasuna al da?**  
Urduritasuna bainoago, gauzak ondo egiten ari garela sentitzen dugu, eta emaitza onak direla ikusteak sortzen duen ezinegona da.

**Zer moduz duzu gorputza? Putzu magiko horietako ura dioten bezain hotza al dago?**

Bai, batzuetan sartzeak ez dakit zer ematen digun [jizu keinua egin du], baina bai, gero asko nabaritzen da. Oso tratamendu ona da suspertzeko, eta jendeak ondo eusten dio tratuari.

**Final-laurdenetako partida ia garrantzitsuena zen.**

Konfiantza eman digu. Korearen aurkako lehen partidaren gaizki hasi ginen, gero Frantziaren aurka berdindu, eta apurka gora egin dugu. Bagenekien egun garrantzitsua final-laurdenetako zela eta gure onena eman genuen.

**Andrea Barnok zioen Hego Korearen aurka galdu ondoren talde osoa bildu egin zela.**

Lehen Olinpiar Jokoak dira, dena ondo egin nahi duzu hasieratik. Eurak oso fresko zeuden. Gainera, ezagutzen ez genuen ezker alboko on-on bat agertu zen... Denak bat egin zuen, eta guk iparra galdu genuen. 'Zer gertatu da?', galdetu genion geure buruari, baina partidak pasatu ahala, hobera egin dugu, asko, eta, bereziki, defentsan.

**Sekretu edo gakorik ba al da?**

Une txarretan egoerari buelta ematen saiatzen gara. Irabazteagatik ez dugu uste munduko onenak garenik, eta ezta txarrenak ere galtzeagatik.

**Gaurko aurkaria Montenegro izatea ezustekoa izan al da zuentzat?**

IMANOL MAGRO



Guk Frantzia pasatuko zela uste genuen, are gehiago sailkapen fasea ikusita. Baina hemen edozer gauza gerta daiteke, eta tira.

**Nolakoa da Montenegroko taldea?**

Jokalari askok elkarrekin jokatzen dute, eta horrek laguntzen

«Montenegroren lehen lerroa zaindu behar dugu, eta pibota bakartu»

«Pau Gasolekin, tenislariekin eta eskubaloi jokalariekin atera ditut argazkiak»

die. Lehen lerroa izugarria du, oso jaurtitzaila onekin, eta pibota ere oso ona da. Gure lana lehen lerroa oso ondo zaintzea izango da, eta pibota bakartzea. Gero, atepena, ez dira hain onak.

**Oso talde erasokorra da, gol asko sartu eta asko jasotzen dituena.**  
Betidanik, haren estiloa da. Gol

asko sartzen dituen talde bat da, eta atzean ahul samarra. Baina gola sartuz gero, errazago egiten da atzerako bidea. Gure lana eurak gelditzea da eta kontraerasoak atzera ditzatela eragozte. Hegalekoak ere ondo zaindu behar dira, jaurtitzailak defentsaren arreta euren gaitasunaren ondo baliatzen dituztelako sortzen diren desorekak.

**Nola ikusten duzu zeure burua?**

Ondo. Taldeari laguntzen ari naizela uste dut, eta hori da garrantzitsua.

**Olinpiar esperientzia?**

Ametsa da telebistaz ikusten dituzun kirolariekin egon ahal izatea: Usain Bolt, Pau Gasol... 'Hara urliaren alboan nago eta!' esaten beti. Zoragarria da.

**Onartu ezazu, autograforik eskatu al duzu?**

Argazkiak atera ditut: tenislariekin, Pau Gasolekin, eskubaloi jokalariei askorekin... 'Benga, atera argazki bat nirekin' esan, eta aurrera. Hori bai, eurak nazkatuta egongo dira.





→ **Laburrak****AEBek eta Japoniak finala jokatu dute gaur**

**FUTBOLA** AEBetako eta Japoniako emakumezkoen selekzioek finala jokatu dute gaur (20:45). Estatu Batuek egungo olinpiar txapelketa dira, eta japoniarrek, munduko txapelketa. Hain zuzen ere, bi selekzio horiek elkarren aurka aritu ziren iaz Alemanian, Munduko Kopako finalean, eta Japoniarentzat izan zen garai-pena penalti jaurtiketetan. Kanadak eta Frantziak jokatu dute brontzerako lehia (14:00).



LARRY W. SMITH / EFE

**Errusiak eta Espainiak jokatu dute finalerdi bat**

**SASKIBALOI** Errusiak eta Espainiak jokatu dute saskibaloitxo txapelketako lehen finalerdi. Errusiak 83-74 menderatu zuen Lituania. 14 puntuko alde ere izan zuen hirugarren laurdenean, baina Lituaniak ez zuen etsi, eta gaina hartu zuen berriro. Espainiak 66-59 irabazi zion frantziar, partida itsusian. Frantzia aurretik joan zen 32 minututan, baina asmatu ezinik ibili zen azken laurdenean. Finalerdi 18:00an hasiko da, bihar.

**Txinak irabazi ditu urrezko domina guztiak**

**MAHAITENISA** Espero zen bezala, Txinak eskuratu ditu urrezko domina guztiak mahaitenisean: lautik lau. Gizonezkoen eta emakumezkoen banakakoetan urrea eta zilarra irabazi ditu, eta binakakoan urrea — ez zuen zilarra ere irabazteko aukerarik—. Hain da handia Txinaren nagusitasuna, araudia aldatu dute. Bi jokalarik soilik ahal dituzte aukeratu, eta bikote bakarra. Lehen hiru eta bi ziren.

# Usain ona hartzen dio

**Usain Boltek historia egin dezake gaur 200 metrokoa irabazita. Lehen atleta litzateke bi Jokoetan jarraian abiadurako bi proba nagusietan urrea lortzen. Ia oinez irabazi du finalerdi.**

**Julen Etxeberria**

**L**asterketa bat nahikoa izan du Usain Boltek Londresean iritsi aurretik haren inguruan zeuden zalantza guztiak kolpe batez desagerrarazteko. Eta ez da gutxiagorako. Itzela izan zen jamaikarrak joan zen igandean 100 metroko finalean eman zuen erakustaldia. Pekinen bezainbeste nagusitasunarekin irabazi zuen urrezko domina. Hura usaindu ere ez zuten egin aurkariek. Ez zen egon munduko markarik, horra ezberdintasun nagusia Pekingoarekin alderatuta. Onenetan bigarrenarekin markarekin *komfortu* behar izan zuen (9,63), haren munduko markatik bost ehuneko eskasera.

Eta orain zer? Nor ausartzen da esaten Boltek ez duenik irabaziko 200 metrokoa? Inortxo ere ez. Jada inor ez da gogoratzen Yohan Blakerekin. Argi geratu baita nor den nagusia, nor den azkarrena. Eta ez da Blake, Bolt baizik, eta egundoko ezustetik ezean, gaur berriro geratuko da agerian, 200 metroko finalean (21:55). Atzo, bere finalerdi irabazi zuen, oso erraz, azken 60 metroak footing erritmoan eginez, indarrak gordez. Gaur, ordea, barruan duen guztia emango du, historia egin dezakeelako. Irabaziz gero, lehen atletalitzateke bi Jokoetan jarraian 100 eta 200 metrokoan irabazten. Inork ez du lortu horrelakorik, ezta Carl Lewisek ere, *Haizearen seme*-ak. Estatu Batuek oso gertu izan zuen. 1984an, Los Angelesen (AEB), bietan irabazi zuen urrea. Lau urte geroago, Seulen, bera izan zen azkarrena 100 metrokoan — Ben Johnson nagusitu zen, baina deskalifikatu egin zuten gero kanadarra, positibo eman baitzuen —,


baina 200 metrokoan, Joe DeLoach haren herrikiadeak hartu zion aurre ezustean. Boltek Lewisek egin izan ez zuena lor dezake.

**Felixek urrea azkenean**

Bolten urrea, Jamaikaren hirugarrena litzateke Londresen abiadurako probetan, atzo ihes egin baitzion emakumezkoen 200 metrokoak. Allyson Felix estatubatuarra izan zen azkarrena (21,88), Shelly-Ann Fraser-Pryce jamaikarraren eta Carmelita Jeter estatubatuarren aurretik. Felixek zortzi urte zeramatzan 200 metrokoan urrea lortu nahian. Atenasen eta Pekinen zilarrekin konformatu behar izan zuen, beti Veronica Campbell-Brown jamaikarraren aurretik. Atzo, ordea, arantza atera zuen. Fraser-Pryce eta Jeterrek, berriz, bigarren domina dute joko hauetan. Jamaikarrak urrezkoa irabazi zuen 100 metrokoan, eta estatu batuek zilarrezkoa. Atzo dominarik lortu ez zuena Campbell-Brown da. Beraz, ez da izango lehen atleta hiru Jokoetan jarraian banakako proba bat irabazten.

110 metro hesidunetan ere AEBetako atleta batentzat izan zen urrea, Aries Merrittentzat (12,92). Jason Richardson haren herrikiadea eta Hansle Parchment sailkatu ziren haren atzetik. Bitxia da, baina Atenastik hona jokatu diren azken sei txapelketa garrantzitsuetan beste horrenbeste irabazle izan dira: Ladji Doucoure, Xiang Liu, Dayron Robles, Ryan Brathwaite, Richardson eta Merritt.

Hesietan ere, baina 400 metrokoan, Natalia Antikuch errusiarra nagusitu zen atzo (52,70). Azkenik, luzera jauzian Brittney Reese estatubatuararentzat izan zen garaipena (7,12).



Usain Bolt, 200 metroko finalerdi amaitsu berritan. A. ESTEVEZ / EFE

**Rudishak lehen olinpiar urrea nahi du**

Usain Boltek bereganatuko du arreta osoa gaur. Hala ere, 200 metrokoa ez da izango interes gune bakarra, nagusia bai, baina ez bakarra. Beste lau probatan banatuko dira dominak: gizonezkoetan, 800 metrokoan, jauzi hirukoitzean eta dekatloian; emakumezkoetan, berriz, xabalina jaurtiketan. Horien artean koska bat gorago dago 800 metrokoa. Ez da harrizkoa, bi itzulien proban egungo atleta bikainetako batek parte hartuko baitu, David Rudishak, hain zuzen. Kenyarrak ez du aurkaririk. Munduko txapelketa da — ez zen aritu Pekinen —, eta historia-ko zazpi marka onenen artean bost bereak dira — Wilson Kipketer handiarenak dira beste biak —. Tartean da haren munduko marka (1.41,01), orain bi urte lortutakoa. Ikusgarria, are gehiago 24 urte bete ez dituela kontuan hartuta. Londresen Mohammed Aman etiopiarra izango da bere arerio nagusia. Us-tekabe handia litzateke Rudishari urrea ihes egitea.

## Gure kirolariekin bat





# Tapiza eta bera, bera eta tapiza

**Kanaeva errusiarra da gimnastika erritmikoko azken urteotako izarra. 2008tik ez du buruz burukorik galdu. Hiru Munduko Txapelketa irabazi ditu eta Europako lau. Pekinen urrea lortu zuen, eta Londresen ere huraxe nahi du.**

## Enekoitz Telleria

**K**iroi guztietan da zaila, baina gimnastikan, zailagoa, eta gimnastika erritmikoan, are zailagoa. Bakarraren inguruko adostasuna lortzea, alegia, Epatleak eta puntuak daudenean tar tean eta epatleen sorberria eta gimnastarrena berberak izan litezkeenean... beti sortzen da errezeioa eta zalantza. Hori gertatu zen Alina Kanaevarenean eta Anna Bessonovarenean. Matiantan, hori Vera Sessinarenean. Mazonak erori, zinta korapilatu, uztaia piritrika eta pilota boteka jokoak ere berdin saritzen zitezela batzuk, besteen kaltetan. Horrela sortzen dira ezinikusiak eta hobirela bateren eta besteren inguruko gaizki esanak. Urte askoan izan du hori gimnastika erritmikoak, baina azken hauek ez. Evgenia Kanaeva agertu zenetik ez.

Dotorea, alai eta perfektioa. Hari buruz aritzen direnek gehien errepikatzen dituzten bi hitz batzuk dira: berrizok. Adostok

aintzat hartzeak dira: Pekingo Olinpiar Jokoean urrea irabazi zuenetik Kanaevak ez du buruz buruko lehiaketarik galdu. Irabazi ditu hiru Munduko Txapelketa —iaz azkena, Montpelierran (Frantzia), sei tik sei urte lortuta— eta irabazi ditu lau Europako Txapelketa. Gogoan du oraindik Kanaevak Pekinen gertatutakoa, hastera batean ez zegoelako Jokoean. Vero joateko hautagaien artean. Vera Sessina zen orduan taldeko izarra. Hark irabazi zuen Moskuko Sari Nagusia eta hura gelditu zen bigarren Munduko Txapelketan. Anna Bessonova ukrainarraren atzetik. Pekinerako, ordea, Kanaeva eta Kapranova aukeratu zituzten. «Osoriturinengoan. Nire taldekideak eta lehiakideak baino



Kirolari guztiok nahi dugu irabazi, baina ez da lehentasuna. Gozaraztea da nire helburu bakarra»

## Beste izen propioak



**Aleksandra Merkulova**  
(Errusia, 16 urte)

Kondakova azken urtean min hartuta eta ezinean gelditu denez, Merkulova da zilarra irabazteko hautagai nagusia. Londresen arliko diren gimnastak guztien artean gazteena da (16 urte). Joan den maiatzean Errusian jokatu tako Europako Txapelketan, bigarren gelditu zen, Kanaevarenean atzetik.



**Alia Garaieva**  
(Azerbaijan, 24 urte)

Garaievak hartu ditu estuena gimnasta errusiarrak azken urteetan, baina ez die sekula aurria hartu. Iaz Frantzian jokatu tako Munduko Txapelketan, brontzea lortu zuen, eta aurretan Errusian jokatu tako Europtzean. Londresen du aurrera egiteko aukera.



sin erabatekoa gimnastengan, entrenatzaileengan eta gimnastika erritmikoa pasioz bizi dutenengan. Onena da. Kito. Dotoreena, alaitena eta perfektuena. Kanaevari buruzko gaizki esanik ez, ezinikusirik ez. Epalleek haren mesedetan egin eta emandakoei buruz erreferentziarik ez, haren handiuste, diva jarrera eta zakar-kierari buruzkorik ere ez. Alderantziz. Goxoa eta hur-bilekoa dela traturako. Eta ahaztu gabe, garrantzitsua, oso garrantzitsua: langilea, oso langilea.

«Urduri jartzen naiz ariketa egitea dagokidanean, baina entrenatzen naizenean, tapiza eta ni ez dago besterik. Ez dago beste-rik gimnasiaon. Tapiza eta ni. Buroa hotz izan, bilhotza bero, eta entrenatzailearen gomendioak entzan», esan du elkarrikiketa batean Kanaevak berak. Eta nabaritzen zailo umiltasun hori. «Gimnastika egitea da nire helburu bakarra, eta egiten dudana erabakitzen dut. Ez dut aurreratu nahi eta domina, garaipen eta puntazioetan pentsatzen hasi. Erritmikoa erakutsinahi dut, jendeari eta nire entrenatzaileari gozarazi; lehiaketa bakoitzean eta entrenamendu bakoitzean». Eta joan da urrutirago ere: «Kirolari guztiok nahi dugu irabazi, baina ez da lehentasuna. Garrantzitsua da bizitzan plazera ematen dizun egitea da. Nik jendearen gogoa gelditu nahi dut, baina nire arriketengatik. Niretzat ez da horren garrantzitsua nire izenarekin akordatzeara. Ikusleek ni ikustean gozatzea nahi dut, hori da garrantzitsuenak».

Aipatzen du bere jarduna, aipatzen ditu ikusleak, baina aipatzen du askotan bere entrenatzailea: Vera Efremovna. Sei urtekin ezagutu zuen (22 ditu orain), eta geroztik ez dira banandu elkarrengandik. Egiten duen guztia hari esker dela eta egiten duen guztia harentzat ere badala errepikatzen du behin eta berriz Kanaevak. Txapelketa bakoitzean izaten du alboan, atzean edo aurrean. Emakume heldua jada, ile urdinekoa eta betaurrerokoduna. Londronean ere ez du urritu ibiliko. Bikote bikaina osatutute, eta emaitzak

«Jendearen gogoan gelditu nahi dut, baina nire ariketengatik, ez nire izenarengatik»

**EVGENIA KANAeva**  
Gimnasta

gazteagoa nintzen, eta tapizera iraten aurrerik zera esan zidan entrenatzaileak: 'zengatik zaude urduri? Dena perfektu dago'. Badakit bera ere oso urduri zegoela, baina izugarri lagundu zidan horrek, eta izugarri ordututik hona niregatik egin duen guztiak». Londresen ere balentria lortzen duen lehen gimnasta litzateke Kanaeva. Eta Olimpiar Jokoenetako bi podiumetara igotzea lortu duten gimnastak ere esku bakarrez kontatzen dira: Aleksandra Timoxenko (brontzea Seulen eta urrea Bartzelonan), Alina Kabaeva (brontzea Sydneyn eta urrea Atenasen), eta Anna Bessonova (brontzeak Atenasen eta Pekinen).

**Kontrario gutxi**

Haren urrea ziurtat ematea ez da tor bat bere izaerarekin, baina urrea lortzea ez den beste edozer gauza sekulako ezustekoa litzateke. Izatekotan, etxean zuen kontrarioa, selekzioan bertan, Daria Kondakova, baina niri hartu zuen Londresera, joan bezperan eta ez du parte hartzen izango. Hura izan du hurbilenazken txapelketetan. Mundukoan, Montpellierran, sei urte lortu zituen Kanaevak; Kondakovak, berriz, bost zilar lortu zituen. Esperozen lehiarik ez da ikusiko, beraz, Londresen.

Errusia du sorteri gimnastika erritmikoak, eta han du oraindik ere harrobia. Han, edo handik banandu ziren beste herrialdeetan. Merkulova eta Dmitrieva errusiarak dira zilarra lortzeko hautagai nagusiak, eta hakekin batera Alia Garaieba azerbajandarra, Silvia Miteva bulgariarra, Liubu Txarkaxina eta Melitina Staniuta bielorrusiarak, eta atzerago ukrainarrak. Taldeakoaan ere Errusia da hautagai nagusia, noski — azken hiru Jokoen irabazi dituen — eta Bielorrusia, Italia, Bulgaria eta Espainia ditu atzetik.



**Datuak**

- **Noiztik.** Gimnastika erritmikoa olinpiar kirola da 1984. urteko 130 federazio ditu gaur egun.
- **Egoitza.** Wembley Arena (Londres).
- **Egutegia.** Gaur hasiko da lehiaketa (13:00). Uztaiarekin eta pilotarekin ariko dira gaur, eta mazoeekin eta zintarekin bihar. Buruz buruko finala larunbatean da (14:30), eta taldeakoa, igandean (14:30).
- **Lehiaketa sistema.** 96 gimnasta ariko dira Londresen, eta buruz burukorako 24-entzatz dago tokia — herrialde bakoitzetik, gehienak jokoak, bi gimnastak —. Lau ariketetan aritu ondoren, hamar onenak finalera sartzen dira eta ariketa berbera egiten dute.
- **Puntuazioa.** Aurretik lehen aldiz, epaileak *neutralak* izango dira. Ez da parte hartuko duten gimnasten herrialde berreko epailek egongo. Orain arte ez zen horrela izaten, eta polemika handi samarrak sortu izan dira. Gimnastika erritmikoaren gurutzebidetik handienekoak horri izan da, hain zuzen ere.


**Silvia Miteva**  
(Bulgaria, 26 urte)

Londresen, buruz buruko eta taldeakako jarduna bakarrik izango dute gimnastek, eta Miteva ariketa jakin batzuetan da espezialista. Mazoetan eta zintan brontzea lortu zueniaz Munduko Txapelketan, Kanaeva eta Kondakovaren atzetik. Baina, Kondakova ariko ez denez, aukera gehiago dauzka.



**Liubu Txarkaxina**  
(Bielorrusia, 25 urte)

Gimnasta talde indartsua dauka Bielorusiako Jokoen taldeak aritzeko bai, eta buruz buru aritzeko ere bai. Bi hautagai ditu dominen lehiaren sar-tzeko, baina azken urteotako emaitzak ikusita, Liubu Txarkaxina da bietan indartsuena. Pilotarekin moldatzen da ongi.



**Melitina Staniuta**  
(Bielorrusia, 18 urte)

Bielorusiako eskolako beste hautagaia. Ez du agian Txarkaxina taldekidearen emaitzarik lortu orain arte, baina Londresen du horretarako aukera. Honen multzo berean eta aukera bertsuekin daude, dena dela, Maksimenko eta Rizatdinova gimnasta ukrainarrak ere.

Egunak pilatzen ari dira, aizue, eta horrelakoetan komeni izaten da burua pixka bat askatzea. Esnatu, dutxa azkar bat, barruari zuku pixka bat eta hiruzpalau gaileta eskaini, tren, autobusa, elkarrizketa, sandwicha, analisia, kronika, prentsaurrekoa, autobusa, tren, afaria, ondoloinesan, eta artean ia ia zutik nagoela, ziplo lo. Ohiko egun bat da hori Londresko Jokoetan. Bider hamasei egin, eta hortxe nire aurpegiaren irudia. Tira, bai, sartu pare bat garagardo ere bi egunez behin. Handia egin nuen horrekin ere.

## Atsedena behar nuen



'Off the record'  
Unai Zubeldia

Ez nizuen kontatu nahi, baina galdeza hasi zaretenez... Inguruko azkarrena izan nahi, eta kolore bereziena zeukan garagardo eskatu nuen. Garagardo, bai. Hala esan nion nik, behintzat. Nazioarteko hizkuntzan: *This one, please*. Hatzarekin markatuz. Garrantzitsua da hori. Ukitu berezia eman nahi nion iluntzeari, baina sagardotegira bidali ninduen zerbitzariak. Interneten *garagardo* haren izena begiratu, eta *cyder*. Hau ere egin dugu! Londresen, garagardoaren paradisuetako batean, sagardo edaten.

Baina, noan neke kontuetara. Beharrrak eraginda, burua askatzea erabaki nuen orain dela bi egun. Judoa, piraguis-moa, hondartza boleibola, saskibaloia, eskubaloia, tenisa, atletismoa, gimnastika, txirrin-dularitza... Zer ez dut ikusi jada! Gozamen horrek nekatu ere egiten du tarteka, eta barrua lasaitzen saiatu nintzen etxera iritsita. Ordenagailua piztu, garagardo txiki bat ireki, musika jarri, eseri... eta, bai, Kaikutik pixka bat ba-daukadanez, arraunari begira egon nintzen. Gustura. Gozatu. Atsedena pixka bat behar nuen, aizue.

08

Seigarren uztaila



berria  
2012ko abuztuaren 9a



## Paloma del Rio

Espainiako TVE telebista kateko gimnastika esataria

Edozein unetan jauzi bikoitza egiten hasiko dela ematen du, gimnastikari lotuta baitago Paloma del Rio kazetariaren ahotsa. Hamabigarrenez ari da jokoetan.

## «Nik ikusleari azaldu behar diot gimnastika, ez gimnasta ohiei»

Unai Zubeldia Londres  
→ Berriemaitte berezia

Aurpegiarik gabeko ahotsa da Paloma del Riorena (Madril, 1960). Barra finkoa, zaldi uztaiduna, pilota, mazoak... Edozein zalantza izanez gero, deitu lasai hari. Uda-koak eta negukoak batuta, hamabigarren olinpiar jokoak ditu Lon-

### Aipatzekoa.

■ **Aholkua.** «Kirol kazetaritzan ez da bizi futbolekit bakarrik. Mundu guztiak daki asko futbolaz, baina judoa, esgrima edo taekwondo egiteko esaten dizutenean... Hor daude benetako dominak».

dreskoak. Esatari lanetan. Espainiako TVE telebista kateko kazetaria baita. Gimnastikak bizi du, eta gimnastika biziarazten du. **Erizain-kazetaria, kazetari-erizaina... Zer zara zu, zehazki?** Eskolan B.B.B. ikasketak amaitu ondoren, ez neukan batere gogorik ikasten jarraitzeko. Urtebete igaro nuen ezer egin gabe, ikastarot bat egin nuen gero sendagileen

laguntzaile izateko, praktikak ere egin nituen, eta kontratua egin zidaten azkenik Zainketa Berezien Unitatean. Urtebete neramanean, ikusi nuen denbora libre asko neukala, eta orduntxe heldu nien, berriz ere, ikasketei. U.B.I. amaitu eta gero egin nuen kazetaritza. Klinikako zazpi urte haiek balio izan zidaten jakiteko benetan zer egin nahi nuen. Bosgarren mailan nengoenean, kasualitatez ikusi nuen TVE-n praktikak egin zitezkeela, eta hantxe joan nintzen 1986ko udan; udazkenean, kontratua egin zidaten.

**1986tik 2012ra gauzak dezente aldatuko ziren, noski; teknologia alde-tik, batez ere.**

Dena aldatu da. Pentsa, ni telebistara iritsi nintzenean, teletipoak egoten ziren artean mahai gainean. Teletipoen gelara joan beharra zegoen hamar minutuan behin, zer zegoen ikustera. Orain, berriz, sakelakora bertara iristen da informazioa. Abiadura harrigarrian lan egiten da orain. Eskura dago informazio guztia, eta kalitatea lor daiteke informazio horrekin, nahiz eta ez den beti lortzen. Azkartasunarekin batera, formatua bera aldatu da. Lehen orgatxo batekin joaten ginen, hazbete bateko zintekin. Orain, berriz, disko gogorrean grabatzen da dena. Madrildik, Bartzelonatik edo Londrestik landu daiteke grabatutakoa. Harrigarria da aldekata.

**Hamabigarren jokoak dituzu jada, baina nola iritsi zen lehen aukera?** 1987an hasi nintzen emankizunekin, eta nagusiak esan zidan gimnastika artiskoko eta erritmoko emanaldietarako prestatzen hasteko. Logikoki, 1988a iritsi zenean, niri eman zidaten aukera, Esperanza Solano eta Olga Vizarekin batera. Naturalki iritsi zen

Seulera joateko aukera, eta ikaragarria iruditu zitzaidan dena. Galdu egiten nintzen leku guztietan, oso urduri ibiltzen nintzen, lehen bidaia luzea zen... Liburuxka bat ematen dizute jokoetan, eta horrekin egin behar duzu arrera. Esperientzia bikaina izan zen Seulgoa, 1988koa.

«Esperientzia bikaina izan zen Seulgoa, eta oso berezia Bartzelonakoa»

«Informazioa jaso, hizkera erakargarrian jarri, eta transmititu egin behar dut nik»

**Beste asko iritsi dira atzetik. Zein joko markatu zaitu bereziki?**

Bartzelonakoak, gertu dagoelako; hunkigarria izan zen oso, eta denoi eragin zigun ilusio handia. Desastre hutsa Atlantakoa izan zen. Informatikak eta garraioak funtzionatzen badute, jokoak onak izaten dira, kazetariak ere lasaiago egoten direlako. Sydney-koak oso onak izan ziren, Atenaskoak ere bai, eta Pekingoak, harrigarriak. Londreskoak ere onak ari dira izaten, baina telefono konexioekin huts egin dute. Sarea txikiegi geratu zaie.

**Especializatu egin nahi izan zenuen zuk, gimnastikako epaile ikasketak batzuek eginda. Zenbateko garrantzia dauka kazetariaren jakintzak?** Nik ikusleari azaldu behar diot gimnastika, arrastorik ez daukan horri, eta ez gimnasta izan direnei. %98 horrentzat aritzen naiz ni esatari lanetan. Ondo prestatu, informazioa jaso, hizkera erakargarri batean jarri, eta transmititu egin behar dut nik.



ZARAUZKO UDALA  
euskar kirolariekkin bat

Arimen arrantza olinpiar kirol bilakatzear dago. Hala dirudi, behintzat, Stratfordeko olinpiar eremuaren harreran dauden erlijioetako profetak ikusita. Gehienak kristau fundamentalistak dira, AEBetako asko, eta islamiar gutxi batzuk. Asko dira, hamabost bai gutxienez egunero. Antzeko mezua dute: Jesu Kristo badatorrela, damua... Poliziek gertutik zaintzen dituzte, eremura sar ez daitezten.

Denek papertxoak banatzen dituzte, Bibliako txatalez josiak. Katastrofistak dira gehienak, itxaropentsuagoak gutxi

## Paradisurako 'flyer'-ak



'Betweenland'  
Imanol Magro

batzuk... Nik denak hartzen ditut, bada- ezpada ere. Baten batek asmatzen badu, eta Josafateko zelaira edo Mahomaren altzora deitzen nautenean, eskuraz izan nahi ditut. San Pedro edo dena delakoari kostata sartuko diot ziria, baina flyer-arekin beti da errazagoa festara sartzea.

Kristauak gehiago dira, baina joera askotakoak. Bat egingo balute sikiera... Iru-di aldetik, islamiarrak hobeto dabilta. Team Islam jartzen duen elastiko urdinak daramatzate, eta gazteak eta adituak dira. Hala bai egin daitekeela pre-

dikua. Islamismoa hain estigmatizatua ez balego, eurak lirateke txapeldun Stratforden.

Nire gustukoena, halere, kristau bat da. Irlandarra dela esango nuke, gizona, 50 urtekoa, argala, betaurrekoduna, txapelduna eta alkandora berde eta gona laranjakoa. Alkandoran, Daviden Izarra dauka marraztuta, eta bozgorailuan musika zelta jarria du, ozen. Kartel bat darma eskuetan: «Jesus laster etorriko da, eta boteretik kenduko ditu politikariak». Egunak daramatza eta nekatua dirudi. Norbait berandutzen ari da.

berria  
2012ko abuztuaren 9a



Kronika

09

# Bizikleta beltzen estraperloa

Aste barruan Londresen lapurturiko bizikletak eros daitezke igande goizetan Bricklango merkatuan. Bangladeshtarren auzoak hainbat gauza interesgarri ditu.



Bi lagun, erosi berri duten bizikleta beltza aztertzen. Atzean, merkaturia ageri da. IMANOL MAGRO

Imanol Magro Londres  
→ Berriemaile berezia

I kusi gabe zaila da sinestea. Igande goizean, merkatu bizi eta bikaina izaten da Bricklango auzoan. Bangladeshko jatorriko jende gehien duen Londresko auzoa da. Bueltaxka bat eginda, mundu guztiko jakiak proba daitezke, eta garbi ikus daiteke oso estua dela zaborren eta bitxien artean dagoen tartea. Paretetan hiri guztiko mural politenak daude, eta txoko batzuk asfaltotzko Sixtoren Kapera bat dirudite. Eta erdian, sekretu bat du: bizikleta beltzak.

«Nireak denak legezkoak dira, baina horiek... Nik ez diot beldurrik Poliziarri», esan du bizikletak plastikozko aterpe txiki batean saltzen dituen dendarik batek. Ka-

lean saltzen ditu, eta konpondu ere bai, eta beste saltzaile batzuen negozioekin alderatuta, harenak itxura finkoagoa da. Bizikleta beltzen merkatu beltza hesi metaliko bat duen lursail batean dago.

Estraperlo hutsa da, lotsagabea. Bizikleta lapurtuak dira, eta gehienak beltzez margotuak daude. Gutxi batzuk, zilar kolorez. Beste saltzaile batzuek ez dute esfortzu hori ere egiten. «60 libran saltzen dizut [76 euro inguru]; mendiko bizikleta on bat eskaini diote kazetariari. Negoziatzeko gogoia ematen du. Argazkiak atezartzen hasi, eta ez dute gogoko. Saiatzeak ere beldurra ematen du.

Negozioa kalean bertan egiten da. Saltzaileek postu txikiak izan ditzakete, edota eskuan daramatzate bizikletak. Erosleek zehatz-mehatz aztertzen dituzte, eta prezioaren inguruko eztabaida has-

### Nola iritsi

■ **Overground.** Garraio publikoaren joanez gero, Overgroundeko Shoreditch High Streeteko geltokia da onena. Merkaturia igande goizetan izaten da, baina arratsalde hasieran artean zabalik egoten da.

ten da. Poliziarik ez da ageri, baina bai, ordea, bizikletan dabilen jende asko, bizikletak bezala ordezkotatzen dituzte. Negoziatzeko gogoia ematen du. Argazkiak atezartzen hasi, eta ez dute gogoko. Saiatzeak ere beldurra ematen du.

ke, eta saltzaile askok lurtean dituzte produktuak. Produktuak etxean gordetako traste zaharrak izan daitezke: erraketak, komunak, jostailuak edo arropa. Eta eurria egiten badu, blai egiten uzten dituzte.

Denek dagokienez, *vintage*-a gustuko dutenen tokia da. Nostalgia estetikoaren biktimek bertan dute erromesaldirako lekua. Dena da nostalgia erakustokietan: arropa, musika... Baita tresna elektrikoak ere. Deigarria da *Speedie*'s denda; DVDaren garaian, telebista, musika kate eta bideo zaharrak saltzen ditu.

Bricklanek, halere, legez kanpoko merkatuak baino askoz gehiago du. Londresera doan turistak igande goizean Candem Townera jotzen du, baina Bricklanek beste xarma bat du. Tankera guztietako barazkiak eros daitez-

ke, eta saltzaile askok lurtean dituzte produktuak. Produktuak etxean gordetako traste zaharrak izan daitezke: erraketak, komunak, jostailuak edo arropa. Eta eurria egiten badu, blai egiten uzten dituzte.

Denek dagokienez, *vintage*-a gustuko dutenen tokia da. Nostalgia estetikoaren biktimek bertan dute erromesaldirako lekua. Dena da nostalgia erakustokietan: arropa, musika... Baita tresna elektrikoak ere. Deigarria da *Speedie*'s denda; DVDaren garaian, telebista, musika kate eta bideo zaharrak saltzen ditu.

Bilbon kirol guztietarako lekua dago

en Bilbao hay sitio para todos los deportes

Bilbao Kirolak  
www.bilbaokirolak.com



## Finalak

- 10:30. Piraguismoa.** C-2. 1.000 metrokoa (G).  
**10:48. Piraguismoa.** K-4. 1.000 metrokoa (G).  
**11:08. Piraguismoa.** K-1. 500 metrokoa (E).  
**11:35. Piraguismoa.** K-2. 500 metrokoa (E).  
**13:30. Zaldiketa.** Banakako estilo librean.  
**14:00. Bela.** 470 (G).  
**17:30. Boxeo.** Euli pisua (E).  
**17:45. Boxeo.** Pisu arina (E).  
**18:15. Boxeo.** Pisu ertaina (E).

- 20:00. Jauziak.** 10 metroko plataforma (E).  
**20:03. Borroka.** 55 kiloz azpikoa (E).  
**20:20. Atletismoa.** Jauzi hirikoitza (G).  
**20:45. Futbola.** AEB-Japonia (E).  
**21:00. Waterpolo.** AEB-Espainia (E).  
**21:00. Atletismoa.** 800 metrokoa (G).  
**21:55. Atletismoa.** 200 metrokoa (G).  
**22:00. Hondartza boleibola.** Cerutti-Rego / Brink-Reckermann (G).  
**22:00. Atletismoa.** Xabalina (E).

- 22:20. Atletismoa.** Dekatloaren azken proba, 1.500 metrokoa.  
**23:15. Taekwondo.** 57 kiloz azpikoa (E).  
**23:30. Taekwondo.** 68 kiloz azpikoa (G).

## Euskal herritarak

- 10:00. Igeriketa.** Ophelie Aspod. Hamar kilometro ur irekietan.  
**14:00-20:48. Borroka librea.** Marder Unda. 72 kiloz azpikoa.  
**21:30. Eskubaloia (emakumezkoak).** Espainia-Montenegro. Finalerdia.

## Telebistak

- La1. 09:30.** 15:00ak arte, eta gero 16:00etatik 23:45ak arte. Jarraian eguneko laburpena.  
**Teledorte.** 10:00. 00:00ak arte zuzenean. Ondoren, eguneko laburpena.  
**France2.** 11:45. 13:00 arte zuzenean. Gero, 14:45etik 20:00etara, eta 20:40etik 01:00etara.  
**France3.** 09:00. 12:00 arte zuzenean. Gero, 12:55etik 14:45era, eta 19:55etik 20:35era.

## Atletismoa

## ■ 400 METRO HESIDUNAK (E)

## → Dominak

- N. Antikh (Errusia)
- L. Demus (AEB)
- Z. Hejnova (Txekiar Errepub.)

## ■ LUZERA JAUIA (E)

## → Dominak

- B. Reese (AEB)
- E. Sokolova (Errusia)
- J. Deloach (AEB)

## ■ 200 METROKOAK (E)

## → Dominak

- A. Felix (AEB)
- S. Fraser-Pryce (Jamaika)
- C. Jeter (AEB)

## ■ 110 METRO HESIDUNAK (G)

## → Dominak

- A. Merritt (AEB)
- J. Richardson (AEB)
- H. Parchment (Jamaika)

## Bela

## ■ 49ER MAILA

## → Dominak

- Outteridge-Jensen (Australia)
- Burling-Tuke (Zeelanda Berria)
- Norregaard-Lang (Danimarka)

## Borroka

## ■ -48 MAILA (E)

## → Dominak

- H. Obara (Japonia)
- M. Stadnik (Azerbaijan)
- C. Huyenh (Kanada)
- C. Chun (AEB)

## ■ -63 MAILA (E)

## → Dominak

- K. Icho (Japonia)
- R. Jing (Txina)
- B. Soronzon (Mongolia)
- L. Volosova (Errusia)

## Mahai tenisa

## ■ TALDEKAKOA

## → Dominak

- Txina
- Hego Korea
- Alemania

## Zaldiketa

## ■ JAUIZIA (G)

## → Dominak

- S. Guerdat (Suitza)
- G. Schroder (Herbehereak)
- C. O'Connor (Irlanda)

## Piraguismoa

## ■ K-1. 1.000 METRO (G)

## → Dominak

- E. Larsen (Norvegia)
- A. Van Koeverden (Kanada)
- M. Hoff (Alemania)

## ■ C-1. 1.000 METRO (G)

## → Dominak

- S. Brendel (Alemania)
- D. Cal (Espainia)
- M. Oldershaw (Kanada)

## ■ K-2. 1.000 METRO (G)

## → Dominak

- Dombi-Kokeny (Hungaria)
- Pimenta-Silva (Portugal)
- Hollstein-Ihle (Alemania)

## ■ K-4. 500 METRO (E)

## → Dominak

- Hungaria
- Alemania
- Bielorusia

Oharra: Taekwondoko eta hondartza voleiboleko finalak kontuan hartu gabe.

Herraldea	Urr.	Zil.	Bro.	G.	Herraldea	Urr.	Zil.	Bro.	G.
1. Txina	35	22	19	76	39. Algeria	1	0	0	1
2. AEB	33	21	25	79	39. Granada	1	0	0	1
3. Britainia Handia	22	13	13	48	39. Venezuela	1	0	0	1
4. Hego Korea	12	6	6	24	42. Mexiko	0	3	2	5
5. Errusia	11	19	21	51	43. Kolonia	0	3	1	4
6. Frantzia	8	9	11	28	44. Azerbaijan	0	2	2	4
7. Alemania	7	15	10	32	45. Egipto	0	2	0	2
8. Italia	7	6	4	17	46. India	0	1	3	4
9. Hungaria	6	2	3	11	46. Eslovakia	0	1	3	4
10. Kazakistan	6	0	2	0	48. Armenia	0	1	2	3
11. Australia	5	12	9	26	48. Belgika	0	1	2	3
12. Herbehereak	5	4	6	15	48. Mongolia	0	1	2	3
13. Japonia	4	13	14	31	51. Estonia	0	1	1	2
14. Iran	4	3	1	8	51. Indonesia	0	1	1	2
15. Ipar Korea	4	0	1	5	51. Serbia	0	1	1	2
16. Kuba	3	3	1	7	51. Tunisia	0	1	2	2
17. Zeelanda Berria	3	2	5	10	55. Zipre	0	1	0	1
18. Bielorusia	3	2	4	9	55. Finlandia	0	1	0	1
19. Hegoafrika	3	1	0	4	55. Guatemala	0	1	0	1
20. Ukraina	3	0	6	9	55. Malaysia	0	1	0	1
21. Errumania	2	5	2	9	55. Portugal	0	1	0	1
22. Danimarka	2	4	3	9	55. Tailandia	0	1	0	1
23. Jamaika	2	2	2	6	55. Taipei	0	1	0	1
24. Brasil	2	1	7	10	62. Grezia	0	0	2	2
25. Polonia	2	1	5	8	62. Moldavia	0	0	2	2
26. Kroazia	2	1	0	3	62. Qatar	0	0	2	2
26. Suitza	2	1	0	3	62. Singapur	0	0	2	2
28. Etiopia	2	0	2	4	66. Argentina	0	0	1	1
29. Espainia	1	5	1	7	66. Hong Kong	0	0	1	1
30. Kanada	1	4	9	14	66. Irlanda	0	0	1	1
31. Suedia	1	3	3	7	66. Saudi Arabia	0	0	1	1
32. Txekiar Errepublika	1	3	2	6	66. Kuwait	0	0	1	1
33. Kenia	1	2	2	5	66. Maroko	0	0	1	1
34. Eslovenia	1	1	2	4	66. Puerto Rico	0	0	1	1
35. Gergia	1	1	1	3	66. Saudi Arabia	0	0	1	1
35. Norvegia	1	1	1	3	66. Kuwait	0	0	1	1
37. Dominikar Errep.	1	1	0	2	66. Maroko	0	0	1	1
38. Lituania	1	0	1	2	66. Puerto Rico	0	0	1	1

← Emaitzak

← Dominak

Nazioarteko Olinpiar Batzordearen 40. arauak zeresana ematen jarraitzen du. Yohan Blake jamaikarrek 100 metrokoen final lehen zeraman orduliak arau hori apurtu ote zuen arritira irkerizen, publizitatearen zuzenaren, eta itikeena da zigoren bat jarzea.



“Gipuzkoa gure kirolariekin”

**A** metsak egia bilakatu zituen taldea. Halakoxea izan zen 1992ko Bartzelonako Jokoetako AEBetako saskibalo selekzioa. Onenen taldea. Ametsetan baino egia izan ez zitekeena. *Dream Team*-a. Ametsezko taldea.

1992. urte hartan, lehendabiziko aldiz, arautegi berriak bidea eman zien saskibaloijokalariei Olinpiar Jokoetan parte hartzeko. NBAko izarrek bete zuten AEBetako saskibalo taldea. Haien nagusitasuna erabatekoa izan zen txapelketa osoan. Zortzi partida jokatu, eta zortziak irabazi zituzten Micha-

## Atzera begira

# → 1992

## 'Dream Team'-a

AEBetako saskibalo selekzioaren nagusitasuna erabatekoa izan zen Bartzelonako Olinpiar Jokoetan. **BERRIA**



el Jordaneke, *Magic* Johnsonek, Larry Bird, Karl Malone eta enparauak

Lehen faseko aurreneko partidari, 116-48 irabazi zuten AEBek Angolaren kontra. Lituaniaren aurka jokatu zuten finalerdietako partida, eta 127-76 nagusitu ziren. Finalean Kroazia izan zuten aurkari. Aukerarik ez zuten izan. 117-85 irabazi zuten *Dream Team*-ak partida, eta, ondorioz, urrezko domina eskuratu. Egundua hauetan Londresen ari den AEBetako selekzioa ere erraz hartuko luke mendearen 1992ko taldeak. Horixe uste du, behintzat, *Magic*-ek. → **Eduze Elizondo**

berria  
2012ko abuztuaren 9a



Olinpiar oroitzapenak → Maria Eizmendi

11



Bartzelonako Jokoetan parte hartu zuen Espainiako eslamon piraguismo selekzioa, desfilearen aurretik. Maria Eizmendi aurrenekoa da ezkerretik. **MARIA EIZMENDI**

# Bartzelonako desfile hura...

**Hiru Olinpiar Jokoetan erabilitako dortsalak ondo gordeak ditu Maria Eizmendi piraguita ohiak. Haren memorian toki handiagoa du Bartzelonako desfileak eragindako zirrarak Sydney dominetatik nahi baino urrunago gelditu izanak baino.**

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

**Z**irrara hitza datorkio burura Maria Eizmendiri (Donostia, 1972) Olinpiar Jokoez hitz egitean. Eslalom piraguita hirutan egon zen: Bartzelonan, Atlantian eta Sydneyen. Oso harro dago olinpiar iraganaz. «Olinpiar jokoetan aritzea berezia da, emozio berezia. Lehen semea eduki arte ez nuen tamainako zirrarik sentitu. Noski, emozio desberdinak dira, baina nolabait aldera daitezke». Eta zirrara zirrimola horren erdian une bat du: Bartzelonako irekiera desfilea.



Lehen semea eduki arte ez nuen sentitu jokoetan parte hartzearen tamainako zirrarak»

**MARIA EIZMENDI**  
Eslalomeko piraguita ohi

## Laburrean

■ **Sydneyn, presioa.** Munduko sailkapeneko bigarren sailkatu joan zen, domina helburu hartuta, baina 14. izan zen. «Presioa» nabaritu zuen.

■ **Euskal kanala.** Bat egin du euskal piraguismoaren eskaera historikoarekin. «Zahartzen naizenean agian ikusiko dut kanala bat Euskal Herrian. 1987an egitasmoa bideratuta zegoela zioten...»

«Bartzelona dut gogoan, beste bien gainetik», onartu du. «Atlantakoak zozoak izan ziren, dena, desfilea, antolakuntza... Gu gainera urrun geunden. Sydney hobe izan zen; baina, agian, proban nire maila eman ez izanak ilundu egin ditu oroimenean». 20 urte zituen Eizmendik, eta desfileko traje «bitxia» gordeta du oraindik. «Estadioan sartu ginenean behe-erorriko zela uste genuen, hura zarata, hura jendetza... Beste desfileekin ez zuten zer ikusirik. Horrekin oroitzen naiz hamar munduko txapelketatan parte hartu ondoren lehiaketak beti antzekoak direlako, baina desfilea ez».

Jantzia du etxean, baita erabilitako hiru dortsalak ere. Bartzelonan, jaitsieraren erdi aldera ate bat ukitu zuela ez du ahaztu, eta Atlantian hobera egin zuen. Kolpea, halere, Sydney hartu zuen. 1997az geroztik domina lortzeko prestatu zen, eta helburu horrekin abiatu zuen. «Nire maila 20 urte nituen baino askoz hobea zen, baina azken urtea ez zen ona

izan». Munduko sailkapeneko bigarren gisa iritsi zen, eta, azkenean, hamalaugarren izan zen. «Ardurak ere eragina izango zuen. Presioa nabaritu nuen».

Hurrengo urtean erretiroa hartu eta Italiara bizitzera joan zen arren, jokoak gertu ditu. Harreman estua du Xabier Etxaniz eta Maialen Chourrautekin, eta gertutik kasu egiten dio haren jardurari. Urrunetik bat egiten du Euskal piraguismoaren eskaera historikoarekin: kanala baten beharra Euskal Herrian. «Agian, zahardunen naizenean ikusiko dut. 1987an egitasmoa bideratuta zegoela zioten, eta, begira, gertukoena Pauen dago oraindik».

Donostiako Atletikoko fitxa indarrean du oraindik. Ezkonduta dago, eta bi seme ditu. Fisioterapeuta da ogibidez; ez du ezkutatzen erretiroa hartu eta hamar urte oraindik sufritu egiten zuela beste piraguita batzuk lehiatzen ikustean. «Orain, ez. Ohitu egin naiz, baina egiten dudana edozein gauzatan oso lehiakorra naiz».

**F**lorence Griffith-Joynerren atzazalek atentzioa ematen zidatela gogoratzten dut. Seulgo Jokoetako memoriak dira akordura etortzen zaizkidan lehengoetakoak, 100 eta 200 metroko lasterketetan erakustaldia eman zueneko hura. Bera bakarrik zen makillaje deigarriarekin prentsaren aipu guztiak harripatzen zituena. Bera bakarrik zen beste atleta guztiengandik ezberdina, eta denek berari buruz hitz egiten zuten.

Bestelakoa da egun ikusten duguna. DeeDee Trotter 400 metrotan bronzeko domina irabazi zuen atleta esta-

## Koloretako atzazalak



'London calling'  
Garazi Goia

tubatuarrak Swarovski kristalak erantsiak zituen begiaren alde batean. 200 metroko finala irabazi zuen Sanya-Richard Rossek erabat deserosoa zirudien orrazkera eta media antzeko batzuk zituena besoetan jarriak. Jessica Ennis heptatloieko irabazleak esan du konfiantza gehiago ematen diola makillajeak eta eririmela eta begietako arrastoa egin gabe ez dela estadiora aterako. Hamaika kirolarik dituzte atzazalak beraien lurraldeko banderarekin margotuak.

Lehen, Florence Griffith zen ezberdina; orain, makillajerik edo orrazkera be-

rezirik ez duenak ematen du atentzio gehiago. «Bi ilekorda luze alde batetik bestera zituena irabazi du» esan, eta lagunak ulertu egin dit hori buruz hitz egiten ari naizen.

Beraien bizitza profesionaleko unerik garrantzitsuenen, 100 metroko munduko emakumerik azkarrena bihurtzeko unean, itxura zaintzea normalea dela diote batzuek. Baina zergatik dira emakumeak itxuraren presio hori sentitu behar duten bakarrik? Kiroleko genero desberdintasunaren beste adibide bat iruditzen zait.



berria  
2012ko abuztuaren 9a

## Azkena →

## → Laburrak



### → Liu Xiang Ingalaterran geratuko da, osatzeko

**ATLETISMOA** ▶ Liu Xiang 110 metro hesidunetako atleta txinatarra Londresen geratuko da proba horretako sailkapenekoan mina hartu ostean. Shangaiko kiroleko berri agentzia baten arabera, baliteke Xiangek orpazurda hautsita edukitzea berriro, Pekingo Olinpiar Jokoetako lesio bera, eta litekeena da Ingalaterran bertan egitea ebakuntza. Osatzeko prozesuak luze jo dezake, eta inor ez da ausartzen Xiang atletismo pistara itzuliko den edo ez ziurtatzera. Osatzeko prozesua urtebetekoa izan liteke, gutxienez.

### ↑ Euria egiteko %40ko arriskua iragarri dute amaiera ekitaldirako, datorren iganderako

**EGURALDIA** ▶ Erresuma Batuko meteorologia zerbitzuak hurrengo igande iluntzeko eguraldi iragarpena jakinarazi du, eta iragarpen hori ez da oso ona. Londresen arratsaldeko seiak direnerako %40ko prezipitazio aukera iragarri dute. Igandea eguzkitsua izango omen da, baina, orduak aurrera egin ahala, trumoi giroa nagusituko dela diote iragarleek. Prezipitazio arriskua txikitu egingo da gauerako, eta 21:00etan %20koa bakarrik izango da. Haizeak ere indarrez jo dezake, orduko 14 eta 17 kilometro, batez beste, eta tenperatura goxoa izango da: 19 eta 21 gradu artean.



### ↑ Deskuidu larria GORAKO JAUZIA

Ivan Ukhov errusiarra, kamiseta ahaztu, eta kide batek utzitakoa erabili zuen. Epailerek jantzi ofizialak ez dituzten kirolariak kanporatzeko agindua dute.



↑ **Txalo zaparrada goxoa.** Sarah Attar atletismoko proba bat korritu duen Saudi Arabiako historiako lehen atleta da. 800 metroko sailkapen proban aritu zen, eta azkena sailkatuta ere, zaleen berotasuna jaso zuen uneoro. Attarrek 2.44.95 denbora egin zuen. **DIEGO AZUBEL / EFE**

## berriaTB

**12:00. Aurkezpena.**  
**12:05. Prentsa errepresso.**  
**12:10. Londrestik zuzenean.** Unai Zubeldia eta Imanol Magro berriemaileekin konexio-

ak, euskal kirolarien gertuko jarraipena egiteko.  
**16:00. Tertulia.** Julen Etxeberria eta Monika Juaristi.  
**16:00. 'Thames' atala.** Danel Agirre Berlindik.  
**16:00. Eguneko kantua.**

«Misió bat betetzera etorri gara Londresera, gure soldadua bezala»

→ LeBron James • AEB-ETAKO SASKIBALOI SELEKZIOKO JOKALARIA

**e**saldia



03

**Igeriketa** → Ophelie Aspordek seigarren bukatu du ur irekietako 10 kilometrokoa; olinpiar diploma.

04

**Eskubaloia** → Julen Aginagalde: «Beste sari bat merezi genuen, zerbait gehiago».

06


**Atletismoa** → Usain Bolt da, atzodanik, bi jokoetan jarraian 100 eta 200 metrokoa irabazi dituen lehena.

07



# london

www.berria.info/londres12



**berria**

2012ko abuztuaren 10a



## Burdinazko brontzea

Maidar Undak atera du Pekingo arantza.

Brontzezko domina lortu du borrokan,

72 kiloz apikoetan, bigarren aukeran Marzaliuk

bielorrusiarra mendean hartuta → 02-03

Maidar Unda arabarra, atzo, borroka amaitu berritan, garrasika. JESUS DIGES / EFE

## Korrikalari koldarrez



**'Citius, altius, fortius'**  
Enekoitz Telleria

**K** irol kazetaritzaren ajea da aurrez sortutakotik lapurreta egin eta egoera zehatzetara egokitzea. Eta topatzen dira horregatik ibilbide arraroa egindako tituluak eta ideiak. Gaztelazko prentsan oso ohikoa da *Corred malditos*, *corred* lerroburua erabiltzea atleten jardunari buruz aritzeko. Jakinda (edo gabe) haren sorburua *Danzad malditos*, *danzad dela*, Sydney Pollack zuzendari estatubatuarren filme ezagun hura, eta jatorriz *They Shoot Horses, Don't They?* izenburua duela. Alegia, funtsean, ez daukala inolako zerikusirik kirolarekin eta kirolariekin.

Erabiltzen dira horrelakoak korrikalari buruz hitz egiteko, eta erabiltzen da oso hedatuta dagoen beste esaldi bat ere: «Korrika egitea koldarren kontua da». Saiatu arren ez dut topatu esaldi horren jatorriarik. «*Correr es de cobardes*», gaztelera herrikoia berrunbeetatik sortutako beste perla horietako bat da nonbait.

Jamaikak bi milioi eta erdi biztanle dauzka eta Nazioarteko Diru Funtzak (FMI) Barne Produktu Gordina aintzat hartuta azkena egindako zerrendan 93. postuan dago. Keniak 39 milioi biztanle dauzka eta 150. postuan dago, Etiopiak 90 milioi eta 177. dago. Eta kuriosoa da oso. Herrialde horietako korrikalarien geneei, berezko dohainei eta elikadurari (!) buruz egiten dira erreportajeak eta hitz-aspertuak, baina oso gutxi aipatzen dute korrika egitea dutela han beren eta beren familiaren egoera makurra zuzentzeko bide bakarra, korrikalari izatea «bizibidea» eta askorentzat «beharra» dela han, beste inon baino gehiago.

Pollacki egindako lapurreta arraro hark ez dakit balio duen haientzat, baina korrika egitea koldarren kontua dela esateak seguru ezetz.



# ‘Iron Maider’, hasi eta bukatu

**Pekingo arantza atera, eta brontzeko domina eskuratu du Maider Undak 72 kiloz azpiko mailan. Finalerdietan galdu ondoren, bigarren aukera baliatu du Marzaliuk bielorrusiarra menderatuta.**

## Dominak

1. **Natalia Vorobieva** (Errusia)
2. **Stanka Hristova** (Bulgaria)
3. **Maider Unda** (Espainia)
3. **Jiao Wang** (Txina)

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

«Ez dakit sinesten dudan edo ez, baina nirea da, nirea da. Iritsi da». Brontzeko domina eskuetan zuela, zer esan ez zekiela zegoen Maider Unda balentria egin berrian. «Gozatzea tokatzen da orain. Oso gogorra da kirol hau, eta bosgarren postua zer den jakinda Olinpiar Jokoetako brontzea eskuratzeara...». Lau borroka, lau aurkari, hiru garaipen, eta brontzea. «Pekingo arantza ateratzeko». Dotorre hasi zen arabarra, sendo iritsi finalerdietaraino, langa horretan

amore eman «munduko borrokaririk onenaren aurka», eta indarberritu egin zen brontzeko domina eskuratzeko lehiazariko. Bosgarren postu mikatzarekin joan zen Pekindik, eta domina preziatuarekin joango da Londrestik etxera. Bejondeiola.

«Ez naiz inor baino gutxiago. Urrezko domina da helburua». Pentsamendu horrekin iritsi zen Unda Londresera, eta, lehiatu bezperan ere hala aitortu zion BERRIARI. Konfiantza harrigarria dauka arabarrak bere buruarengan, eta lehiari erabat sartuta ekin zion lehen borrokari. Ana Talia Betancur kolonbiarra zeu-



Maider Unda arabarra, Londresera joandako zaleekin, ikurrin eta guzti, pozarren. JESUS DIGES / EFE

## «Txinan egon ginenean baino merkeago atera zaigu, behintzat»

**U. Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

**M**aider Undak babes handia izan du harmailetan, bertan izan direlako mutil-laguna, familia eta lagunak, ikurrin, pankarta eta elastiko berdeekin. Garrasika bizi izan dute borroka bakoitza.

«Pekinen ere bizi izan genuen antzeko zerbait, eta ea Londresen dena ondo amaitzen den». Beldur pixka batekin, baina konfiantza handiarekin dago Aitor Rementeria, Maider Undaren mutil-laguna, arabarrak Stanka Zlateva



Maider Undaren lagun eta senitartekoak, atzo. UNAI ZUBELDIA

Hristova bulgariarraren aurka finalerdietako borroka galdu berrian. «Ea-ea gai den brontzeko domina irabazteko». 30 bat lagun etorri dira Euskal Herriatik Londresera, Undari babesa ematera. Elastiko berdea jantzi, ikurrinak eta pankartak hartu, eta garrasika aritu dira final-zortzirenetan, final-laurdenetan eta finalerdie-

tan. «Brontzeko domina lortzeko borrokan, are indar handiagoarekin egingo dugu garrasi», bota du lagunetako batek atzetik.

Kirolariak ingurua mugitzen du normalean Jokoetan, gehien kasuan horixe delako kirol ibilbideko momentu gorena. Kostata lortu zuen arabarrak Londreserako txartela. «Hiru aukera

eduki zituen, eta azkenekoan lortu zuen, larri-larri; gogorra izan zen», argitu du Rementeriak. Hainbeste sufrututa, azkar mugitu zireneko. Sailkapena lortu eta biharamunean hasi ziren bidaia guztia antolatzen. «Ez dugu erraztasun handirik izan sarrearak lortzeko, baina garaiz hasi ginen mugitzen. Gure kabuz antolatu dugu bidaia, ostatua ere guk hartu dugu, eta sarrearak ere bai». Merke-merkea ere ez da izan Unda bertatik bertara ikustea. «Baina, tira, orain lau urte Txinan egon ginenean baino merkeago atera zaigu, behintzat. Hauek izango dira gure oporrak».

«Betidanik ibili izan gara elkarrekin Euskal Herriko Selektzioran, eta gure kontura etorri gara gu ere, bere familiarekin eta lagunekin egoteko baliatuz». Euskal Herriko Borroka Federazioko kidea da Roberto Hojas. Herenegun iritsi ziren gehienak Londresera. «Eta oraindik ez dugu aukera as-



kan aurrean; ustez, aurkari samurra. Eta ez zuen hutsik egin. Aparteko erakustaldirik eman gabe, baina 0-2 eta 0-3, eta, askorik nekatu gabe, final-laurdenetara.

Hortxe agertu zen lehen aurkari serioa: Burma Ochirbat mongoliarra, Unda inoiz irabazi gabe zegoen aurkaria. Gogorra joan zen lehia. «Baina gogorrago espero nuen», aitortu zuen arabarrek behin borroka hori amaituta. «Asko defendatzen du berak, baina gehiago erasoko zidala uste nuen». Oso larri irabazi zuen lehen txanda, 1-0 atzetik zela azken erasoan asmatu eta puntua eskuratuta.



Ez dakit sinesten dudan edo ez, baina nirea da, nirea da. Iritsi da. Gozatzea tokatzen da»

«Psikologikoki irabazi diot borroka; nekatuago iritsi da bera, eta hasieratik behartu dut»

MAIDER UNDA  
Borrokalaria

Bigarren txandan, dena eskura zeukanean, eraso batean huts egin eta bi puntu lortu zituen mongoliarrak; markagailua iraulita. Hirugarren eta azken txanpa behar, beraz, finalerdietarako txartela norentzat izango zen zehazteko. Eta hor azaldu zen sendotasuna. Aurkaria une oro ondo aztertuta, lasai jokatu zuen, eta arauzko bi minutuak amaitzeko 18 segundo eskas falta zirela lortu zuen puntua. 1-2 orotara, eta arabarra finalerdietara.

Ospatzeko moduan nabarmen geratu zen pisu handia kendu zuela gainetik. Behin finalerdietan sartuta, bi aukera egoten dira borrokan domina lortzeko. Eta la-

korik izan ezer ikusteko». Gehienek ezagutzen zuten Londres lehendik ere. «Aspaldi samar etorri nintzen ni, oporretan», zehaztu du Rementeriak. «Baina asteburua arte bertan egoteko asmoa daukagu, eta saiatuko gara dagoen giroarekin pixka bat gozatzeko», Hojasek.

Kirol arloa aztertuta, eta azken borrokaren zain, lehen hiru borroketan «lor zitekeen guztia lortuta», erabat gustura dago Hojas. «Munduko txapeladuna da bulgariarra, oso gogorra, eta ia ezinezkoa zen hori irabaztea. Baina aurretik irabazi egin dio mongoliarrari, oso zaila zen hori ere, eta

saitasun horixe zegoen arabararen ospakizunen atzean. Hori bai, finalerdietako aurkariari begiratu, eta sarritan munduko txapeladun izan dena: Stanka Zlateva Hristova bulgariarra. Saiatu zen esku-jokoan eusten, taktikoki hutsik ez egiten. Baina, ondoren aitortu zuen moduan, ezinean aritu zen une oro. «Makurtuta mantendu nau etengabe, eta ezin nuen ezer egin». 0-2 eta 0-2. Finaletik kanpo. Bitxikeria gisa, orain lau urte ere, Pekinen, bulgariarrak berak baztertu zuen Unda urrezko dominaren bidetik.

### Aurkariaren zain

Atsedean hartzea eta zain egotea besterik ez zitzaion geratzen arabarri, Hristovak aurretik bazterrean utzitako hiru aurkarietako bat izango zuelako parean brontzeko domina kolokortzeko borrokan. Vasilisa Marzaliuk bielorrusiarrak irabazi egin zien Jenny Fransson suediarri lehenengo (2-1), eta Annabel Laure Ali kamerundarrari gero (2-0). Eta hortxe zegoen brontzeko domina, beraz, Unda-Marzaliuk.

Tentsio handiarekin, kontzentratuta ekin zion lehiari aramaiorrek, eta brontzeko ikuskizuna eskaini zuen. «Psikologikoki irabazi diot. Nekatua iritsi da, eta hasiera-hasieratik behartu dut. Horixe zen helburua, are gehiago nekatzea». 0-1 lehenengo txandan; 0-1 bigarrenean. Garaipena eta brontzea. «Denen ustez Kamerungoan egin behar zuen aurrera, edo Suediakoan bestela, baina gehien nahi nuena iritsi da azken lehiara, borrokarako bere estiloa egokiagoa delako niretzat». Gogorra joan zen eguna, bidea ez zen samurra izan, baina bere buruarekin bakeak egin zituen *Iron Maiden*-ek. Burdinazko kirolaria delako. Hasi eta bukatu, bere buruarengan konfiantza handia erakutsi zuelako.

hauxe da Maidarren momentua». Zerbait jan, atsedean hartu, lasaitu, eta harmailetara buelta. Hori da asmoa. «Brontzerako borroka fresko iritsiko da, behintzat, Maider», argitu du Hojasek. «Gainerakoek borroka gehiago izango dituzte, eta aukera polita dauka». Sufrimenduaren izenean hitz egin du Rementeriak. «Saikatzeko oso gogorra izan zen, Bulgaria, Txina eta Finlandiara bidaiatu behar izan zuelako jarraian. Ea ba oraingoan lortzen duen». Brontzeko domina eskura daitekeela sinetsita joan dira denak barrua betetzera. Ikurriekin. Pan-kartekin. Ilusio batekin.



Eva Ristov hungariarra, 10 kilometroko proba irabaztear, atzo, Hyde Parken. PATRICK B. KRAEMER / EFE

## Etorkizunez blai

**Ophelie Aspord izan da bizkorrena bigarren tropeleko esprintean, eta seigarren postuan bukatu du ur irekietako hamar kilometroko proba, bere lehen jokoetan.**

Imanol Magro Londres  
→ Berriemaile berezia

Lehen zortzien artean sartzea zuen helburu, eta irribarre batekin irten zen atzo Ophelie Aspord Hyde Parkeko bihotzean dagoen Serpentine lakuko ur ilun eta lokaztuetatik. Seigarren bukatu berri zuen igeriketa maratoinan (ur irekietako hamar kilometroko proba), eta diploma lehorra zain zuen kanpoan. 1.58.43ko marka ona lortu zuen gainera. Dena den, lorturikoa bainoago, itxaropentsuagoa da etortzeke dagoena. Baionan hazitako igerilariak 21 urte baino ez dituelako, eta parte hartzaileen artean gazteenetako zen. Urrezko dominari dago-kionez, Eva Ristov hungariarrak irabazi zuen, Haley Anderson estatubatuarrekiko lau hamarreneko alde oso txikia aterata.

Atzeko atletik sailkatu zen Aspord jokoetarako. Shangaiko Munduko Txapelketetan sailkatu ez zirentzako antolaturiko bigarren aukeran. Zazpigarren izan zen, eta hilabete lehenago jarri zuen jokoetara joango zela. Beraz, presiorik gabe aritu zen

atzo, eta ikasgai bezala hartzen zuen proba. Bada, ikasle izatetik maisu pasa zen kolpetik.

Hirugarren itzulitik aurrera, sei ziren guztira, lehiakide multzoa bitan hautsi zen. Aurrean gelditu ziren lehen bostak, eta atzetik Asporden zazpikotea, minutu batera azkenean. Denak bat ezik bera baino zaharragoak, eta elkarrekin egin zituzten azken hiru itzuliak. Lehia azken metroetan erabaki zen, eta esprintean Aspord izan zen bizkorrena. Igerilekuan asko jardundakoa, testuinguru egokia zen: esprinta eta ur oso geldoetan. Bada hirtzak estutu eta bera izan zen bizkorrena, Olga Beresnieva ukrainarrekiko segundo bateko aldearekin.

### Atzetik aurrera

Hamar kilometroko proba galbaha handi bat izan zen, eta baionarrek atzetik aurrera egin zuen. Lehen itzulia hemeretzigarren postuan egin zuen (19.28); bigarrena hamalaugarrenean (39.15), hirugarrena hamargarrenean (59.16), laugarrena zazpigarrenean (1.19.04), bosgarrena hamabigarrenean (1.38.52), eta azkenean seigarren (1.58.43). Emaitza onak igerilariaren konfiantza indartuko du, eta etorriko den horretan pentsatzen has daiteke. Frantziako Txapelketetan ez du parekorik, eta ikustekoa izango da Rio de Janeiroan eman ahal izango duen maila. Aurretik, baina, Munduko Txapelketa du, eta goiko postuetan egon daitekeela erakutsi du.

«Urruti ikusten dut Rio de Janeiro, 10.000 kilometrotara edo»

→ David Cal • ESPAINAKO SELEKZIOKO PIRAGUISTA



webgune berezia  
[www.berria.info/londres12](http://www.berria.info/londres12)

edizio jarraitua



IMANOL MAGRO



## Julen Aginagalde

Espainiako selekzioko euskal jokalaria

**Gorputzeko ubelduek baino min handiagoa ematen diote herenegungo partidako oroitzapenek. Frantziaren aurka final-laurdenekoan modu krudelean galdu izanak erabat mikaztu dio berak eginiko txapelketa ona.**

## «Zerbait gehiago lortzea merezi genuen»

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

Gaizki egin du lo. «Irabazten dudanean ere kostatzen zait, ez pentsa». Ordu batzuk pasatu dira, baina Aginagaldek (Irun, Gipuzkoa, 1982) oraindik ez du ahaztu Frantziaren aurka, herenegun, azken segunduan galdutako final-laurdenetako partida.

**Ubelduak ba al dituzu? Herenegun egurasko jaso zenuen.**

Ohituta nago, zailduta hobe esanda. Txapelketak beti kolpez josita bukatzen ditugu. Gurea talde teknikoa da nolabait, ez gara fisikoki bereziki indartsuak, eta epaileek

egurra banatzea onartzen dutenean jai dugu.

**Animoan markarik bai?**

Oso minduta nago. Ilusioarekin etorri ginen, lehenbizi partida batzuk gutxiatik galdu, gero Frantziaren aurka azken segunduan... Kanporatuak izateko modu krudela izan zen. Lur jota, baina tira, altxatuko dugu burua.

**Partidako zein irudi duzu buruan?**

Azken gola. Ni aulkian eserita nengoan, eta, gero, denak saltoka eta gu lur jota. Partida ona egin genuen, baina Frantzia Frantzia da, zerbaitetik dira olinpiar txapeldunak. Haiei irabazteko partida perfektua egin behar da, eta gu ez ginen urrun ibili...

**Aipatzekoa**

■ **Lehen jokoak.** Peken azken uanean gelditu zen deialditik kanpo, eta Londresean atera du arantza. 30 urterekin, eta selekzioa sailkatzen bada, Rion jokatzeko aukera izan beharko luke, ondo bidean. Egun Asobal Ligako Atletico Madril taldeko kide da.

**Haien eskarmentua sumatu zen. Partida gogortu, epaileak baldintzatu...**

Zerbaitetik irabazi dute dena, eta ikusten da haiekiko tratua zein den. Jokalari oso onak dira, eta, gainera, duten eskarmentuari esker eta aurretik irabazi dutenarekin errazago dute bidea.

**Zer esan dizue entrenatzaileak?**

Oso harro dagoela. Gure onena eman dugula.

**Nola ikusi duzu taldea?**

Ondo, balorazio ona egiten dut. Danimarkaren aurka batetik bakarrik galdu, Frantziaren aurka irabaziz joan... Agian, beste sari bat merezi genuen, zerbait gehiago, baina kirola halakoa da. Txa-

peldun izatea zaila zen, baina, gutxienez, dominen lehia egotea, finalerdietan.

**Arlo pertsonalean, zer moduz?**

Egia esan, kontent, baina hemen taldearen emaitzak balio iz, eta nahiko jota.

«Epaile kontua desberdina izango zela uste nuen, baina ez, oker nengibilen»

«Olinpiar izpiritua delakoa jangelan nabaritu dut; han, denak gara berdinak»

**Pista barnekoa desberdina al da jokoetan?**

Egia esan, ez, berdina da. Inguruko da desberdina. Are gehiago, sinetsita nengoan jokoak izanda epaileen kontua zerbait aldatuko zela, itxurak zainduko zituztela; baina ez, oker nengibilen, eskubaloian denak berdin jarraitzen du.

**Zer moduzkoa olinpiar esperientzia? Hiria, beste kirolariak...?**

Oso polita. Ezin izan dugu kirolik ikusi, baina hirian egotea oso polita da. Guk gure errutina jarraitu dugu, baina delegazioko beste jendearekin elkartu gara. Gero, azpiegitura ere oso ona da.

**Zerbaitek harritu al zaitu?**

Hor barruan jende guztia berdina dela ikustea. Bazkaltzen Bolt alboan izatea, bihar beste bat. Nik olinpiar izpiritua delakoa jangelan sumatu dut, denak berdinak gara, gauza berak jaten...

**Argazkirik eskatu al dizute? Edo eskatu al duzu?**

Tira, ez naiz oso zalea, bazeuden beste batzuk taldean argazkiaren ehizan zabiltzanak. Nik Djokovicekin atera dut bat, Gasolekin... Niri kanpoan eskatu dizkirate, hiritik irtetean, eta askok nor nintzen arrastorik ere ez zuten.

**Rio de Janeiroarako inbidia sortu al dizue esperientziak?**

Oso-oso urruti ikusten dut. Politia litzateke, baina urrun dago. Selekzioko multzoaren zati handi batek eutsiko diola uste dut, eta sailkatzea lor dezakegu.

**Eta orain, zer?**

Pare bat egun hemen familiarekin, eta buelta. Sarrerak zituzten finalerdietarako, baina ezin poz hori eman. Eta gero, astelehena, denboraldi-aurrea hasi.

@Nicolas88Batium (Nicolas Batum, Frantziako saskibaloia selekzioko jokalaria)  
Juan Carlos Navarroti emian diodan kolpeagatik bakarrena eskatu nahi dut. Olinpiar izpirituak gutxi du jatorria horrek, baina nahita gaitzen uztea ere ez da olinpiar izpiritua.

**Exioak**

# Gure kirolariekkin bat





## → Laburrak

### Gaur arratsean jokatuko dira gizonen bi finalerdiak

**ESKUBALOIA** Arratsaldeko seietan hasiko da gizonen lehen finalerdiak. Hungariak eta Suediak jokatuko dute, eta ez dago faborito argirik. Bi selekzio horiek finalerdietan egotea ezustekotzat jo daiteke aditu askorentzat. Bestea 21:30ean hasiko da, eta Frantziak eta Kroaziak jokatuko dute. Ziur aski finala izan zitekeen partida. Gauzak normal, bigarren finalerdiko garaileak irabaziko du urrezko domina.



NIC BOTHMA / EFE

### Zortzigarren olinpiar domina lortu du Kovacssek

**ARRAUNA** Katalin Kovacs arraunlari hungariarrak bere kirol ibilbideko zortzigarren olinpiar domina lortu zuen atzo. K-2 diziplinan lortu zuen, Natasa Doutxev-Janics taldekidea lagun zuela. 36 urte ditu Kovacssek, eta Sydney hartu zuen parte joko batzuetan lehen aldiz, eta orduz geroztik urrezko hiru domina eta zilarrezko bost irabazi ditu.

### Argentina-Herbehereak, emakumezkoen finala

**BELAR HOCKEYA** Argentinak eta Herbehereetako selekzioek jokatu dute gaur emakumezkoen belar hockeyko finala (21:00). Diziplina horretako klasisikoa izan den finala, bi talde horiek nagusitu baitira nazioarteko txapelketetan azken urteetan. Herbehereak dira jarduneko olinpiar txapelidunak, eta Argentinari urrea lortzeko bidea itxi zion selekzioa Atenasko eta Pekingo jokoetan. Zeelanda Berria eta Erresuma Batua brontzea lortzeko lehiatuko dira.

### Kanadak brontzea lortu du, Frantziari irabazita

**FUTBOLA** Emakumezkoen futboleko brontzezkoa Kanadak eramango du. Frantziaren aurka jokatu zuen atzo Kanadak, 3. eta 4. postuko neurketa, eta, Kanadako Diana Mathesonek luzapenean sartutako gol bati esker, 1-0 nagusitu dira Ipar Amerikakoak. 92. minutuan sartu zuen gola Mathesonek, Frantziako Sara Bouhadi atezainaren alderatze motz bat baliatuz.



# Baloi guztiak ez dira biribilak

Argentinako Luis Scola eta Manu Ginobili, elkarri bostekoa ematen, Brasilen aurkako partidari. LARRY W. SMITH / EFE

## Mundu guztiak aurreikusten zuen finala zertu daiteke gaur: AEB-Espainia; baina Argentinak eta Errusiak ere zeresana eman nahi dute, eta aurreikuspenak hautsi.

### A. Urbistondo

Logikoa ez dena azaltzeko erabiltzen den esaldia izan ohi da bi gehi bi lau ez direla. Ez beti behintzat. Saskibaloian baloia saskian sartzea da kontua, eta hemen ere logikak agintzen du gehiengo baten begietara. Finala Olinpiar Jokoa hasi aurretik faboritoak ziren bi talde horiek jokatu dute: AEBek, alde batetik, eta Espainiak, bestetik. Pekingo Jokoa protagonisten, nazioarteko saskibaloiko azken urteetako nagusiek. Baloi guztiak, ordea, ez dira biribilak, eta hala erakusten saiatuko dira Argentina eta Errusia. Lan zailagoa dute hegoaldeko merikarrek, AEBetako taldea oso nagusi baita. Kontuz Errusiarekin, lehen fasean ere Espainia menderatu baitzuen, 77-74.

Bero erreka egiten du Espainian, eta berotuta dabilta selekzio jokalariek. Brasilen aurka galdu izanak hamaika kritika eragin ditu jokalarien aurka, eta

minduta agertu dira haiek. Ia denon begietara agerian geratu zen Espainiak ez zuela nahi izan Brasilen menderatu, finalerdietan AEBak saihesteko, baina Pau Gasolek kontrapuntu ona jarri zuen herenegun, Espainiak Frantzia garaitu ostean: «Brasilek aulkian utzi zuen Nene Hilario, eta ez zegoen lesionatuta. Gurean denok jokatu genuen. Galdu egin genuela? Ados, baina aulkian inor utzi gabe. Jendeak ez du horri buruz ezer esan, eta haserre samar gauden».

Kontuak batzuei bakarrik eskatzeari dagokionez, arrazoia du Gasol anai zaharrenak, baina garaipenik ez zutela nahi ukatzea ere ez dago ondo. Dominen borrokan batere sufritu gabe sartuko zela pentsatzen zuen Espainiak, baina bi partida galdu ditu jadanik, eta final-laurdenetako ere justu-justu atera zuen aurrera, Frantziaren aurka. Errusiak talde handia du, osagai askokoa, eta Espainia ez dago iraganean bezain gogor. Finalerdiak askok este

baino irekiagoa dago, eta sufritu egingo du Espainiak.

### Urrezko belaualdia

Bigarren finalerdian AEBak dira faborito, argi eta garbi. Australiaren aurka partida kaskarra jokatu zuten, bakoitza bere kasara eta trakets hiruokotan. Behar izan zutenean, ordea, estutu egin zuten, eta 20 punturen alde erabakigarria lortu hiruzpalau minutuan. Errebotean indartsuak dira, eta trantsizio joko azkarrean, maisuak. Buruz buru, eraso estatikoan, kontua parekatu egiten da, eta Argentinak badaki hori.

Besteak beste. Manu Ginobili eta Luis Scola dituelako, NBA urteak egin dituen bikotea. «Jokalarik aparta», Mike Krzyzewsky Coach K AEBetako hautatzailearen hitzetan; «nazioarteko jokalaririk onenetakoa». Argentinak erretiroa hartzeaz dagoen urrezko belaualdiaren azken ahalgina du alde. Urrea lortu zuten Atenasen, finalerdian AEBak garaituta, eta brontzea Pekinen. Badakite AEBek nola irabazi, eta ez dira urrun ibiliko. Ligatxoan bi laurdenetan eutsi zioten, eta gaur 40 minutuko lan ona egitea da haien asmoa. Azken trena da Prigioni, Scola, Ginobili eta Nocionirentzat, urrezko belaualdiarentzat.

### Datua.

■ **Ordutegia.** Arratsaldeko seietan hasiko da lehen finalerdiak: Errusia-Espainia, eta lau ordu geroago, 22:00an, bigarrena: AEB-Argentina.

Errusiako Poliziak presari talde baten 250 milioi dolarreko iruzurra galarazi du. 2014an Sobin jokatu dute Neguko Olinpiar Jokoa, eta hangolanen kostua puztu nahi omen zuten.



# Bakarra da jada

**Usain Boltek nagusitasunez irabazi du 200 metroko finala, eta bera da bi Olinpiar Jokoetan jarraian abiadurako bi proba nagusietan urrea lortu duen lehen atleta.**

## Julen Etxeberria

200 metrokoen urrezko dominak jabea zuen finala hasi aurretik. Usain Boltena izango zen. Horretan ez zegoen zalantza izpirik ere. Haren garaipena munduko markarekin apainduko zuen edo ez, horixe zen zalantza bakarra. Eta hori bi faktorek baldintzatuko zuten hein handi batean. Bata, aurkariak, eta bereziki, Blakek noraino estutuko zuten Bolt. Garaipena arriskuan ikusiz gero, barruan zuen guzti-guztia emango zuen Boltek. Ez zen hasiko Pekingo 100 metroko finalean egin bezala, helmugara iritsi baino lehen eskuarekin bularrari kolpeak ematen eta harmailara begira oihuka —halere, munduko marka ondu zuen—. Bere burua larri ikusiz gero, ere ez zituen egingo azken 60 metroak *footing* erritmoan, herenegun 200 metroko finalerdietan egin bezala. Hortzak estutuko zituen, gogor, eta ahal zuen azkarren korrika egin.

Baina ez zen izango arerioen presioa haren

akuilu bakarra.

Ikusteko zegoen ere Boltek bere burua noraino estutuko zuen, alegia, urrezko domina irabazte hutsarekin konformatuko zen, edo horrekin nahikoa ez eta munduko marka ontzen ere saiaturiko zen. Hori ere kontuan hartzeko faktorea zen.

Bada, horrek huts egin zuen final historikoa izan zedin. Blakek estu hartu zuen Bolt bihurtzeko irtenda, baina Bolt ez zen urduri jarri, eta azkar lortu zuen alde erabakigarria. Behin hori lortuta, lasaitu egin zen. Horrek zapuztu zuen munduko marka egoitea. 19,32 izan zen haren marka helmugan, marka bikaina, baina

bere munduko markatik urruti (19,19). Dena eman ez zuenaren adierazle, proba amaitu berritan flexioak egiten hasi zela. Blake sailkatu zen bigarren (19,44), 100 metroko lehen bi postuak errepi-katuta. Hori gutxi balitz bezala, Warren Weir jamaikarrentzat izan zen brontzea (19,84). Hiru jamaikar podiumean. Historikoa, eta historikoa ere Bolten marka. Bera da bi Jokoeetan jarraian 100 eta 200 metrokoan urrea lortu duen lehen atleta. Jamaikarrak, gainera, are handiagoa egin dezake bihar 4x100 metro txandakakoan ere podiumeko koska gorenera igotzen bada. Hiru urre irabaziko lituzke bi aldiz jarraian. Seigarren urrea luke Jokoeetan. Eta 26 urte bakarrik ditu...

koan ere podiumeko koska gorenera igotzen bada. Hiru urre irabaziko lituzke bi aldiz jarraian. Seigarren urrea luke Jokoeetan. Eta 26 urte bakarrik ditu...

## Rudisharen marka

Boltek egindakoak itzalean utzi zuen eguneko beste protagonista nagusia, David Rudisha. Kenyarrak pronostikoak bete zituen 800 metrokoan eta urrea irabazi zuen, hark zuen munduko marka onduta (1.40,91). Erakustaldia eman zuen Rudishak, bigarren itzulian eraso ikusgarria jo eta aurkari guztiak atzean utzita. Munduko txapeldun izan ondoren, olinpiar urrea soilik falta zitzaion jakina zena berresteko: 23

urterekin, parekorik ez duela 800 metrokoan.

Jauzi hirukoitzean eta dekatioian, berriz, AEBak nagusitu ziren, Christian Taylor eta Ashton Eatonen eskutik.

Gaur beste sei final jokatu dira: emakumezkoen 5.000 eta 1.500 metrokoak, 4x100 metro txandakakoa eta mailu jaurtikitak; eta gizonezkoen pertika jauzia eta 4x400 metro txandakakoa. Tirunesh Dibaba etiopiarrek historia egin dezake 5.000 metrokoan. Irabaziz gero, bigarrenen jarraian lortuko luke urrea 5.000 eta 10.000 metrokoetan. 4x100 metro txandakakoetan, berriz, Jamaikaren eta AEBen arteko lehia izango da berriz.

## Datua.

■ **Bost urre.** Usain Boltek urrezko bost domina irabazi ditu jada Olinpiar Jokoeetan. Pekinen 100 eta 200 metrokoetan eta 4x100 metro txandakakoan nagusitu zuen, eta Londresen jada bi urre kolokatu ditu, abiadurako bi proba nagusietan. Bihar lor dezake Londresko hirugarrena, 4x100 txandakakoan (22:00).

# Karibear erritmoa? Bai zera!

Karibeko gizonezko atletak ari dira bereganatzen domin gehienak Londresen abiadura probetan. Banatu diren hamabost dominetatik 11 joan dira haien kolkora.

J. Etxeberria

**K**aribe hitza entzun, eta saihestezina da hondartza ikusgarriak, ur ezin gardenagoak eta koktel tropikalak etortzea burura. Bizitza lasaiaren paradisua da. Hala da, behintzat, hara doazen turistentzat. Karibetarrek, ordea, ez dute pasatzen eguna etzaulkian eguzkia hartzen. Ez darabilte ere askok uste duten bizitza lasai eta axolarik gabekoa. Beste batera esanda, denak ez dabilta karibear erritmoan, ez behintzat bertako biztanleek hitz egiterakoan maiz aipatzen den erritmo lasai eta motel horretan.

Bada beste erritmo bat karibear bat, eta ez da inondik inora motela. Aititik, azkarrak da oso, eta Londresen berriro geratu da agerian.

## 100 metrokoa

- **Urrea.** Usain Bolt (Jamaika).
- **Zilarra.** Yohan Blake (Jamaika).

## 200 metrokoa

- **Urrea.** Usain Bolt (Jamaika).
- **Zilarra.** Yohan Blake (Jamaika).
- **Brontzea.** Warren Weir (Jamaika).

## 400 metrokoa

- **Urrea.** Kirani James (Grenada).
- **Zilarra.** Luguelin Santos (Dominikar Errepublika).
- **Brontzea.** Lalonde Gordon (Trinidad eta Tobago).

## 110 metro hesidunak

- **Brontzea.** Hansle Parchment (Jamaika).

## 400 metro hesidunak

- **Urrea.** Felix Sanchez (Dominikar Errepublika).
- **Brontzea.** Javier Culson (Puerto Rico).



Kirani James grenadarra, 400 metrokoan txapeldun. DIEGO AZUBEL / EFE

Gizonezkoen mailako abiadura probetako podiumei erreparatu besterik ez dago. Jokoa egon diren hamabost dominetatik 11 irabazi dituzte. 100 eta 200 metroko probetan, Usain Bolt eta Yohan Blake jamaikarrek bina urre eta bina zilar eskuratu dituzte, eta Warren Weir haien herrikideak brontzea 200 metrokoan; 400 metrokoan, Kirani James grenadarrarentzat izan da urrea, Luguelin Santos dominikarrarentzat zilarra eta Lalonde Gordon trinitatearrarentzat brontzea; 400 metro hesidunetan, Felix Sanchez dominikarra nagusitu da, eta Javier Culson puertoricarra hirugarren sailkatu; azkenik, 110 metro hesidunetan, Hansle

Parchment jamaikarrak brontzea kolporatu du.

Ez dira azkenak izango. Gehiago egongo dira, ziur. Banakako probetan irabazitako dominei txandakakoetan lortuko dituztenak gehituko zaizkie. Erreferentzia gisa, orain lau urte, Pekinen, gizonezkoen txandakakoetan jokoa zeuden sei dominetatik erdiak irabazi zituzten: Jamaika eta Trinidad eta Tobago lehen eta bigarren izan ziren 4x100 metrokoan, eta Bahamak bigarren 4x400 metrokoan. Zazpi domina irabazi zituzten Karibeko gizonezko atletek Txinako hiriburuari abiadura probetan. Londresen jada erraz gainditu dute kopolu hori.

**A**rige, arige, manpaaaa, matema-keeee, ya yaaaa». Ulertzen ari naitzen da hori. Japoniera da aurreko guztia; edo izan nahi du, behintzat. Zaplaaaaa. Euskaraz dago hori. Zaplaztekoa, eta denak txaloka. Ez dut ondo pasatu gaur. Ez nekien oso ondo zerekin topo egingo nuen, eta oso gogorra iruditu zait borroka. Irudikatze aldera. Denok ikusiko zenuten noizbait katu bihurri bat harizko pila batekin jolasean. Aurreko bi hankekin eman eta eman, hari piloak atea jotzen duen arte. Bere buruarekin hasten da gero

## Ez dut ondo pasatu gaur



'Off the record'  
Unai Zubeldia

amorratuta, tak-tak-tak-tak, haria, bere burua, lurra... Jolasa da hori. Bihurrikeria.

Ba, irudikatu 1.75 metroko bi katu, zutik, bi eskuekin, tak-tak-tak-tak, parekoari heldu nahian, eta bidean zaplaztekoak eta kolpeak eman eta eman. Esku bat buruan, bultzatu beharaka, hankatik helduta gero, beso azpitik hurrena... Puntuen zergatia ulertzeko ere lanak izan ditut, baina sasi-aditu bihurtu naiz azkenerako. Eta, ez; ez zait gustatu. Gogorregia da hau niretzat.

Bezperan, Paloma del Rio gimnastikako adituak esandakoa etorri zait gogora: «Denok dakigu asko futbolaz, baina kirol txikietan dago plazera». Kirol txikiago horietan jaingo usteko gutxi dagoela argitu zidan gero. Eta ez zaio arrazoirik falta. Muniain, Javi eta Iñigo Martinez, Herrera eta Azpilikueta. Bost euskal futbolarietako hitz egiten saiatu gara Londresen, telefonoz. Hamar bat dei bai, gutxienez. Baina ez zuten gurekin hitz egin nahi gaixok. Lur jota zeuden, antza. Jainkoak. Eskerrik asko, Maider, lanak errazteagatik.



## Shara Proctor

Britainia Handiko selekzioko atleta

**Finalerdietan markarik onena egin ondoren (6.83), diploma lortzeko zorian egon zen Shara Proctor herenegun, lehen Olinpiar Jokoetan, luzera jauzian.**

# «Amets egiteko, horixe esango nieke gaztetxoei»

Unai Zubeldia Londres  
→ Berriemaitte berezia

Britainia Handiko luzera jauziko marka onduta sailkatu zen Shara Proctor Olinpiar Jokoetarako (The Valley, Anguilla, 1988), 6.95 metroko jauziarekin. Iaztik ari da Britainia Handiarekin lehian. As-teartean, finalerdietan, markarik

### Aipatzekoa.

■ **Iragana.** Proctorrek AEBetan dauka oinarrria, Christiansteden, baina The Valleyn jaioa da, Anguillan, Karibe itsasoko Britainia Handiaren koloniar. Iaztik ari da Britainia Handiarekin.

onenarekin egin zuen aurrera (6.83), baina bederatzigarren postuarekin etsi behar izan zuen finalean (6.55). Finala hasi aurretik hitz egin zuen BERRIAK harekin, estadiora abiatzear zela. 23 urte besterik ez edukitzeko, ezohikoa den hitz-jarioarekin eta sendotasunarekin aritu zen hizketan. «Konfiantza handia daukat, markarik onenarekin noalako».

**Etxeko Jokoetan, etxekoan babesean, berezia izango da, noski, zuentzat ere Londresen lehiatu ahal izateak.**

Zalantzarik gabe. Ederra da etxetik hain gertu lehian aritzea. Azken batean, etxean nagoela sentitzen dut, eta asko laguntzen du horrek. Askatasuna sentitzen da horrelakoetan, babes handia. Bart lehiatu nintzen [astearte iluntzean], luzera jauziko finalerdietan, eta harrigarria izan zen jendeak eman zidan babesa. Zarata handia zegoen estadiotan, eta bikaina izan zen. Gozatu egin nuen.

**Baina etxean aritzeak beste aldebat ere badauka, presioarena.**

Bai... Baina nire lana egin behar dut nik, besterik ez. Nik badakit zer egin dezakedan, eta inguruak ere badakiela uste dut. Hala espero dut, behintzat. Zaleak nire alde daudelako ez dut sentitzen presio handiagoa; lagungarria da hori helburuak lortzeko.

**Zer esan nahi dute Olinpiar Jokoei zure kirol ibilbidean? Oso gaztea zara oraindik...**

Bai, 23 urte daukat oraindik, eta gauza handia da hau. Lehen aldiz ari naiz jokoetan parte hartzen, etxeko jokoetan, gertukoan babesean, eta ez dut uste hau baino askoz gauza handiagorik dagoenik. Tira, bai, bikaina litzateke gaur iluntzeko finalean dominen borrokan sartzea. Saikapean goian egon naitekeela uste dut. Prestaketa ona egin dut, eta finalerdietan erakutsi nuen marka ona egin dezakedala.

**Olinpiar Hiriko ohiko egun bat nolako den azaltzerik bai?**

Egun bakoitza da desberdina, eta oso polita. Ederra da gainerako herrialdeetako kirolarietako egotea, bazkaltzea, hitz egitea... Olinpiar familia gisa ibiltzen gara ki-

rolari guztiak elkarrekin, sentitu egiten dugu denok berdinak garela. Polita da sentimendu hori, oso berezia.

**Pentsatzekoa da zure kirol ibilbideko momenturik onenean zaudela.**

Bai, bai. Zalantzarik gabe. Noizbait Olinpiar Jokoetan egotea da kirolari guztiak daukaten helburua, eta nik nire herrialdekoetan parte hartzeko aukera izan dut. 23 urterekin ezin dut gehiago eskatu, eta eskertu beharrean nago.

**«Ederra da etxetik hain gertu lehian aritzea; asko laguntzen du horrek»**

**«Noizbait Olinpiar Jokoetan egotea da kirolari guztiak daukaten helburua»**

**Zu izaten ari zaren esperientzia kontuan hartuta, zer esango zenieke kirola gustatzen zaien gaztetxoei?**

Amets egiteko, horixe esango nieke gaztetxoei, eta amets horiek bete daitezkeela sinesteko. Edonork egin dezake amets, nik ere egiten nuen umetan, eta begira noraino iritsi naizen, horri esker. Amets eginda errazagoa da entrenatzea, lehiatzea eta helburuak lortzea.

**Nolatan hasizinen atletismoan? Familiatik dator kizue atletismoarekiko lotura?**

Gazteagoa nintzenen denetik egiten nuen eskolan, kirol gutzietan aritzen nintzen ondo, baina atletismoak askatasuna ematen zidan. Betidanik izan naiz neska arina, ez nintzen geldirik egoten, eta horregatik hasi nintzen luzera jauzian. Emaitzak ikusita, asmatu nuela esan daiteke.

Bilbon kirol guztietarako lekua dago

en Bilbao hay sitio para todos los deportes

Bilbao Kirolak  
www.bilbaokirolak.com



**K** irolarientzat abentura txiki bat da olinpiar hiritik irtetea. Inguruko zailek erotu egiten dituzte, batez ere argazkiekin. Sakelako telefonoek kamera edukitzeak autografoa eskatzeko mende luzeko ohitura lurperatu du. Asko kale jantzia joaten dira hiri alboko merkataritza zentrora, eta normala da, paseotxo bat ematean, exajeratu gabe, hogeitaz argazki eskaera inguru izan ditza-ketelako. Inkognitoea da aukerarik onena, edo desatsegina izatea.

Argazkiak eskatzeko ohitura hori ez zait inoiz gustatu, eta ez naiz zalea. Kiro-

## Trofeo txikiak



'Betweenland'  
Imanol Magro

lariren bat bat ikusiz gero, horrekin aski dut, ninietan erretako argazki negati-boa. Dotorezia kontua da: ni ez naiz kirolarien eremu pertsonala modu traktesean asaldatzen duten horietakoa. Naiz esan dut? Tira, nintzen.

Jokoek hori ere azaleraiz didate; kimeratxoa eskura, miretsi eta jarraitutako kirolaria hor... Eta ezin eutsi. Nik hiru atera ditut: bat, Vlade Divac saskibaloijokalaria ohi serbiar bikainarekin. Hura zen hura joko ulertzeko ahalmena, eta faltetan bere burua lurrera botatzeko abilezia. Beste bat, Dayron Roblesekin,

herenegun 110 metroko hesiduneko finalean min hartu zuen atleta kubatarra-ekin. 2008an hark irabazi zuen, eta munduko marka izan zuen.

Eta hirugarrena, domina bat lepoan zintzilikatuta. Brontzezkoa, astuna, Andrija Zlaticek olinpiar tiroko 10 metrokoan irabazitakoa. Ilusio galanta egin zidan, eta inguratu zaidan ia edozeini erakutsi diot. Nolakoan den gizakia, edo naizen, gure mixeri pertsonal eta lorpen txikien gozotasunean plisti-plasta. Argazki bat, altxortxia. Hobeto ulertzen ditut argazki ehiztariak.

berria  
2012ko abuztuaren 10a



Kronika

09



# Motz gelditu dira

Chungneijang Mery Kom Hmangte indiarra eta Nicola Adams britaniarra, euli pisuko finalerdietan. EFE

**Emakumezkoen boxeoa aurreneko aldiz izaten ari da olinpiar kirol, baina hiru pisu mailatan bakarrik lehiatzen dira; gizonezkoetan, berriz, hamar dira.**

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

**P** abiloia lepo dago. Lehen kanporaketak dira, baina ikusmina izugarria da. Londresko Jokoetako berrietasun handia da, eta ikusleek erantzun egin dute. Emakumezkoen boxeoa da, boxeoa oso gerturik bizi den herrialde batean gainera, eta badu bozeramaile ofiziala: Nicola Adams, 51 kiloz azpiko mailan fi-

nalera iritsitako 30 urteko britaniarra. «Goizago iritsi behar zuela uste nuen. Gizonezkoetan boxeoa olinpiar kirola bada, zergatik emakumezkoena ez?».

Boxeoa olinpiar kirol klasikoe-tako bat da, eta 1904ean emakumezkoena erakusketa kirola izan zen. Hartaz geroztik, baina, desagertu egin zen olinpiar programatik, duela hiru urte berriz ere onartu zuten arte. Dena den, Londresko saioak asko du esperimintutik, gizonezkoenarekin aldera-

### Desoreka

■ **36 partaide.** Londresen parte hartzen ari diren 286 boxeolarietatik 36 baino ez dira emakumezkoak. Hainbatek asko argaldu edo loditu behar izan dute jokoe-tako pisu mailaketa sartzeko.

tuta lehia oso murrizta delako. Nazioarteko Federazioak hamar kategoria aletzen ditu emakumezkoetan, eta jokoetan hiru bakarrik daude: euli pisua —51 kiloz azpitik—, pisu arina —60 kiloz azpitik— eta pisu ertaina —75 kiloz azpitik—.

Boxeolarien eskaera argia da: lehia beste pisuetara ere hedatu dadila. Izan ere, Londresen lehiatu diren 286 boxeolarietatik 36 bakarrik dira emakumezkoak. «Emakumezkoen boxeoren benetako irudia ezagutzeko, maila gehiagotako lehiakideak behar dira, borrokaldiak justuagoak izateko», salatu du aste honetan teknikari britaniar batek.

Zergatik dio *justuagoa*? Emakume asko eurena ez den pisu ba-

tean lehiatzen ari direlako. Kasurik argiena Mangte Chungneijang Mary Kom boxeolari indiarrena da. Brontzea irabazi du euli pisuan. Libraz libra munduko boxeolaririk onenetarikoa da, baina jokoetan lehiatzeko bi maila igo behar izan du, 45 kiloz azpitik 51ra, eta bera baino altu eta indartsuagoak ziren aurkariekin indarrak neurtu. Siona Fernandez zeelandaberritararen kasua kontrakoa da, zortzi kilo galdu behar izan zituelako pisu ertainean lehiatu ahal izateko.

### Christy Halberten lana

Emakumezkoen boxeoa olinpiar kirola bada, hein handi batean Cristy Halbert abokatua eta boxeolari ohi estatubatuarren lana-rengatik da, hark egin baitzuen eskaera NOBren aurrean. «Onarpenaren albistea garaipen bat izan zen, baina ez jokoez bakarrik, baizik eta emakumeentzat, eta boxeoren kirolarentzat ere bai».

Zergatik, orduan, 108 urteko itxaronaldia? Halbertek bere teoria du. «Jende askok uste du boxeoa jokoe-tako kirolik maskulinoena dela, eta nire ustez hori da arrazoi-etako bat. Horregatik ezarri nahi zuten gona erabiltzea». Boxeolariak, baina, ez dute gona erabili. Lehen egunean borrokatu ziren 24etatik bik baino ez zuten gona jantzi.

Halbertek argi du oraindik bide luzea urratzeko dagoela, boxeoa delako gizonezko eta emakumezko parte hartzaileen artean desorekarik handiena duen olinpiar kirola. Dena den, era berean, sinetsita dago erakusleio ona izan daitekeela. «Mitoak deuseztatze-ko. Jende askok uste du emakumearen gorputza hauskorregia dela boxeorako, eta agerikoa da ez dela egia».

Londresko metroko garbitzaileek 48 orduko greba bati ekin zioten atzo. Olinpiar Jokoek irauten duten bitartean ez ditek-lako diru usari berezirik eman. «Denak ari dira jokoei begira, milioika lagun halekin gozaten, eta bitartean, Londresko ga-rraioetako garbitzaileak lanik zikinenak egiten eta soldatarik miseria bleenak jasotzen», esan dute langileen ordezkariak.



**Aupa Mikel eta Ainhoa!**



**euskal kirolariek bat**



Finalak



13:00. Igeriketa. Hamar kilometro ur irekietan (G).
13:00. Bela. 470 modalitateko finala emakumezkoetan eta gizonezkoetan.
16:00. Igeriketa sinkronizatua. Taldekako finala.
17:30. Txirringularitza. BMX modalitate (E).
17:40. Txirringularitza. BMX modalitate (G).
20:00. Atletismoa. Pertika jauzia (G).
20:03. Borroka. Estilo librean, -55 eta -74 kilokoak (G).
20:35. Atletismoa. Mailu jaurtiketa (E).

21:00. Belar-hockeya. Emakumezkoen finala: Herbehereak eta Argentina.
21:05. Atletismoa. 5.000 metrokoa (E).
21:40. Atletismoa. 4x100 metrokoa (E).
21:55. Atletismoa. 1.500 metrokoa (E).
22:20. Atletismoa. 4x400 metrokoa (G).
23:15. Taekwondoo. -67 kilokoak (E).
23:30. Taekwondoo. -80 kilokoak (G).

Telebistak

La1. 09:30. 15:00ak arte, eta gero 16:00etatik 23:45ak arte. Jarraian eguneko laburpena.
Teledeporte. 10:00. 00:00ak arte zuzenean. Ondoren, eguneko laburpena.
France2. 11:45. 13:00 arte zuzenean. Gero, 14:45etik 20:00etara, eta 20:40etik 01:00etara.
France3. 09:00. 12:00 arte zuzenean. Gero, 12:55etik 14:45era, eta 19:55etik 20:35era.

Irlandako selekzioak lortu duen urrezko lehen domina. Emakumezkoen boxeoa lortu du Katie Taylorrek, pisu arine-tan. Atlantian (1996) lortu zuen Irlandak urrezko bere azken domina. Taylor laugarikoa izan da Munduko Txapeladuna, eta jokoa emakumezkoen boxeoa saritu bezain pronto birhurtu zen haren hautagai nagusia urrea lortzeko.

Atletismoa

- 200 METROKOA (G)
Dominak
1. Usain Bolt (Jamaika)
2. Johan Blake (Jamaika)
3. W. Wey (Jamaika)
800 METROKOA (G)
Dominak
1. D. Rudisha (Kenia)
2. N. Aмос (Botswana)
3. T. Kitum (Kenia)

- JAUZI HIRUKOITZA (G)
Dominak
1. C. Taylor (AEB)
2. W. Clave (AEB)
3. F. Donato (Italia)
K-4. 1000 METRO (G)
Dominak
1. Australia
2. Hungaria
3. Txekiar Errepublikar

- PIRAGISMOA
C-2. 1000 METRO (G)
Dominak
1. Kretschme-Kuschela (Alemania)
2. Badanov anaiak (Bielorrusia)
3. Korovaxkov-Pervukin (Errusia)

- K-1. 500 METRO (E)
Dominak
1. D. Kozak (Hungaria)
2. I. Osipenko (Ukraina)
3. B. Hartley (Hegoafrika)
K-2. 500 METRO (E)
Dominak
1. Weber-Dietze (Alemania)
2. Kovacs-Doutxev (Hungaria)
3. Najia-Mikolaizik (Polonia)

- BOXEOA
EULIPISUA (E)
Dominak
1. N. Adams (Britainia Handia)
2. C. Ren (Txina)
3. M. K. Hmangte (India)
3. M. Esparza (AEB)
PISU ARINA (E)
Dominak

- PISU ERTAINA (E)
Dominak
1. C. Shields (AEB)
2. N. Torlopova (Errusia)
3. M. Volnova (Kazakhstan)
3. J. Li (Txina)

Borroka

- 55 KILOKOA (E)
Dominak
1. S. Yoshida (Japonia)
2. T. Verbeek (Kanada)
3. J. Renteria (Kolombia)
3. H. Ratkevix (Azerbaijan)

-72 KILOKOA (E)

- Dominak
1. N. Vorobleva (Errusia)
2. S. Hristova (Bulgaria)
3. A. Manyurov (Kazakhstan)
3. M. Maider Unda (Espainia)

Jauziak

- 10 METROKOPLATAFORMA
Dominak
1. R. Chen (Txina)
2. B. Broben (Australia)
3. P. Pamg (Malaisia)

Igeriketa

- 10 KILOMETRO
Dominak
1. E. Rizstov (Hungaria)
2. H. Anderson (AEB)
3. M. Grimaldi (Italia)

Zaldiketa

- BANAKAKO ESTILO LIBREAN
Dominak
1. C. Du Jardin (Britainia Handia)
2. A. Cornelissen (Herbehereak)
3. L. Bechtolsheimer (B. Handia)

Emaitzak

Dominak

Oharra: Atzo 22:15etatik aurrera jokatu ziren finalak kontuan hartu gabe.

Table with 5 columns: Herraldea, Urr., Zil., Bro., G. and 5 columns: Herraldea, Urr., Zil., Bro., G. listing countries and their medal counts.



"Gipuzkoa gure kirolariekin"

**E**uskal txirindularitzaren urtea izan zen 1996koa. Atlantant ospatu ziren Olinpiar Jokoak, eta han, Ameriketako Estatu Batuetan, Miguel Indurain nafarra eta Abraham Olano gipuzkoarra igo ziren podiumera. Indurainek urrea irabazi zuen erlojuaren kontrakoan, eta Olano, berriz, zilarra.

Tourreko porrotaren arantza kentzeko balio izan zion urreak Induraini. 1991tik 1995era jarraian bost aldiz irabazi zuen Frantziako itzulia Atarrabiako kirolariak, baina 1996an huts egin zuen. Atlantant, hala ere, oraindik zer erran bazuela era-

## Atzera begira

# → 1996

## Indurain-Olano

Indurainek urrea irabazi zuen Atlantako Olinpiar Jokoetan, 1996an, eta Olano, berriz, zilarra. **BERRIA**



kutsi zuen txirindulari nafarrak. Erlojuaren kontrakoan hiria zeharkatzen zuen ibilbide batean egin zuten. 13 kilometro luze zen, eta lau itzuli eman behar izan zioten txirindulariek, helmugara ailegatu baino lehen. Ordu bete, lau minutu eta bost segundoko denborarekin, onena izan zen Indurain Atlantako karriketan. Haren atzetik sailkatu zen Olano; hamahiru segundo gehiago behar izan zioten amaitzeko. Urte biribila izan zen 1996koa gipuzkoarrentzat, urte hartan hirugarren sailkatu baitzen Italiako Giroan. → **Edume Elizondo**

berria  
2012ko abuztuaren 10a



## Olinpiar oroitzapenak → Tania Lamarca

11



Tania Lamarca, ezkerretik hasita bigarrena, Atlantant, domina erakusten, taldekideekin batera. **BERRIA**

# Urrea, pisuzko arazoa

**Tania Lamarca 16 urterekin joan zen Atlantako Olinpiar Jokoetara, 1996an, eta urrearekin itzuli zen etxera. Mundua jan beharrean hasi, eta munduak jan zuen gero hura.**

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

**E**gun batean pisatu eta muga jakin batetik gora banangoen kalera bidaliko nindutela esan zidan Maria Fernandez Espainiako selekziozko hautatzaileak. 41 kilo eskatzen zizkidaten, eta 43 kilo pisatu nuen». Etxera zuzenean. Tania Lamarca (Gasteiz, 1980) gimnasta ohiaren kolore guztietako istorioaren amaiera da hori. Amaiera garratza. Sufrimenduaren hitzak gordin-gordin irakur daitezke *Lagrimas por una medalla* liburuan. Barrua askatu zuen gasteizta-



16 urterekin, jabetzen nintzen egiten ari nintzenaz, baina lortzen ari nintzenaz, ez»

**TANIA LAMARCA**  
Gimnasta ohi

### Laburrean

■ **Almudena Cid.** 9 urte zituenetik, Euskal Herriko gimnastarik onenarekin batera aritu zen Tania Lamarca. «Baina bakarkako saioetan aritzen zen hura, eta taldekakoetan ni». Harreman estua daukate orain ere.  
■ **Pirinioak.** Escarri-llan bizi da egun, Pirinioetako herri txiki batean, senarrarekin eta hiru urte eta erdi-ko alabarekin.

rrak. «Guztia gertatu eta hamar urtera; lehenago ezingo nuen».

Aurretik urreak zipritindutako, ordea, neskatila haren bizitza sufritua. «Hamasei urte igaro dira 16 urterekin Atlantara joan nintzenetik». Pentsakor geratu da. «Jabetzen nintzen egiten ari nintzenaz, baina lortzen ari nintzenaz, ez». Denetik bizi izan zutela onartu du. «Baina gauza onak bakarrik dauzkate buruan. Kirolari guztiek amesten dutena lortu genuen: jokoetako urrezko domina». Taldekako proban aritu zen gasteiztarra.

Atlantara joan aurretik, eskolako taldea utzi behar izan zuen. «Urtebeteko entrenamendu sistema gogorra zehaztu zigutelako». Argitu zieten urtebete horretan eskolara ezingo zirela joan. «Eta 16 urterekin, sari baten parekoa zen hura guretzat, nahiz eta orain ez dudana hala pentsatzen». Akordio bat egin zuten etxean. «Urtebeteko entrenamendua egingo genuen, Atlantara joango ginen, baina itzultzean galdutako urtea

berreskuratu beharko genuen». Etxekoan babes osoa izan zuen Lamarcak. «Halakoak bizitzan behin bakarrik gertatzen zirela esan zidaten, eta aukera ez galtzeko». Une huraxe izan omen zen gogorra: «Etxekoengandik urrundu eta taldekideekin pisu batera bizitzera joan nintzen eguna». Zortzi orduko entrenamenduak egiten zituzten egunero. «Lagunak urrun zeuden; ezin ginen egin 16 urteko neskatoek egin ohi dituzten gauza gehienak... Gogorra izan zen».

Iragan guztia gogoan, Atlantako podiumera igo eta negar malkotan urtu zen. «Zalantzarik gabe, huraxe izan zen unerik onena». Hori bai: inaugurazio ekitaldia ere txokorik kutunenean gordeta dauka. «Orduan pentsatzen nuen huraxe zela lor nezakeen gauzarik handiena, kirolari guztien artean egote hutsa». Eguneroak are gehiago harritu zuen, ordea. «Kirolari asko ezagutzen nituen nik, eta haiek ni ez, noski. Idolo asko neuzkan inguruan, baina bat gehiago nintzen haien zati. Horrek harritu ninduen gehien; denok berdinak ginen han». Hori bai: adingabeak ziren Lamarca eta beste asko. «Eta, beraz, ezin ginen sartu leku askotan».

### Pirinioetan, lasaitasunez

Baina gogorretik ere izan zuen esperientzia hark. «Entrenamenduak, esaterako, oso gogorrak izan ziren. Komeria dezente izan genuen ordu aldatetarekin; zailtzak sortzen hasi ziren entrenamenduetan...». Zorionez, uste okerra izan zen hura.

Pirinioetan bizi da azken hamar urteotan, herri txiki batean. «Senarrarekin eta hiru urte eta erdi alabatxoarekin, erlaxatuta, oso lasa». Elur denboraldiari helduta. Gimnastikak eman eta kendu zion dena, artean neskatoa zela, baina bizitzari nola aurre egin behar zaien erakutsi zion esperientzia hark. Bitxia bada ere, urrezko dominak aldatu zion bizimodua, okerrerako. «Urre haren, pentsatu nuen lor nezakeen guztia lortu nuela eta handik aurrera dena ondo aterako zitzaidala. Baina kontrako gertatu zen». Erretiroa hartuta, denbora askoan lur jota egon zen Lamarca. Baina altxatu du burua. 43 kilo, zenbaki hotz bat baino askoz gehiago delako gasteiztarra.

**P**artidu laboristak duela gutxi egindako ikerketa batek azaldu du egungo Britainia Handiko gobernuak krisi ekonomikoaren testuinguruan eskola publikoetan kirol jarduerak eta kiroldegiak sustatzeko aurrekontuak mozten ari dela. Aldi berean, *kasualitatez*, berriro ere argitaratu dira Peking Olinpiar Jokoetako datu batzuk; agidanez, urrezko domina irabazi zuten Britainia Handiko kirolarien %50ek eskola pribatuko hezkuntza jaso zuten. Britainia Handian haurren %7 joaten dira eskola pribatuetara. Beraz, dominen %50 populazioaren %7etik datozela nabar-

## Arrakastaren bi aurpegiak



'London calling'  
Garazi Goia

mendu dute eta berriro ere hautsak harrotu.

Laboristek Cameronen koalizio gobernuari eraso egiteko erabili dituzte ikerketako datuak, eta diruarekin kudeaketa eskasa egiten ari direla aurpegiaratu diete. «Olinpiar Jokoei gehiengoari ez badizkiote aukera berdinak ematen, zertarako balio dute herriaren jokoak direla dioten mezu faltsu horiek?» esan dute. Eskola publiko eta pribatuen eztabaida hauen erdian, Ruper Murdoch hedabideetako magnateak giroa oraindik gehiago berotu du, twitterren bidalitako mezu batean esanez ulergarria dela Txi-

na zergatik dagoen lehengo postuan dominen zerrendan eta Britainia Handia ez dela kirol lehiatsuen markoan eredugarria.

Bitartean, Britainia Handiko taldea aurreikusiak zituzten emaitza guztiak gainditzen ari da, 48 domina dagoeneko irabazita eta oraindik beste batzuk lortzeko aukerarekin. Cameronen azkar erreakzionatu du eta esan du kirola gizarteko komunitate orotan sustatzeko hurrengo bost urteetako aurrekontuaren zati handi bat erabiliko duela. Jokoen arrakasta ez da datorren igandean amaituko. Ikusi egin behar zer egiten duten...

berria  
2012ko abuztuaren 10a

## Azkena →



**Burua galtzeraino.** Pasioz bizi dute gimnastika erritmikoa askok, burua galtzeraino. Hori dirudi, behintzat, Carolina Rodriguez espainiarren argazkia ikusita. Atzo hasi zen gimnastika erritmikoa Londresko Olinpiar Jokoetan. Uztaiarekin eta baloiarekin egin zituzten saioak, eta Dmitrieva errusiarrek amaitu zuen lehenengo, ezustean, Kanaeva taldekide eta faboritoaren aurretik. Gaur, mazoekin eta zintarekin ariko dira. **SERGEI ILNITSKI / EFE**

## berriaTB

- 12:00. Aurkezpena.**  
→ **Prentsaren begiratu.**  
→ **Londrestik zuzenean.**  
Unai Zubeldia eta Imanol Magro.  
→ **'Thamez' atala.** Danel Agirre Berlindik.  
→ **Eguneko gonbidatua.** Oiana Blanco judoka oriotarra, Londresko Jokoe-tatatik bueltan.  
→ **Tertulia.** Julen Etxeberria eta Enekoitz Telleria.  
→ **Eguneko kantua.**

## → Laburrak



**Haizearen zain BELA** Bertan behera gelditu ziren atzo belan Match Race modalitatean jokatu beharreko estropadak, eta bertan behera 470 modalitateko finala ere, haize faltagatik.

### Jiao txinatarra, Asanblea Nazionaleko kide

**IGERIKETA** Tximeleta estiloko 200 metrokoan urrezko domina irabazi zuen joan den astean Jiao Liuyang igerilari txinatarrek. 2.04.06ko marka egin zuen, eta olinpiar errekorra ezarri. Harrera beroa egin diote bere herrialdean, eta Asanblea Nazionaleko kide izendatu dute —Txinako organo legegile nagusia da Asanblea Nazionala—. Igerilari izateaz gain, militarra ere bada Jiao Liuyang, eta militarren ordezkari gisa arituko da aipatutako erakunde horretan. 2013ko martxoan du bilera.

### Oscar Pistorius 4x400eko finalean ariko da azkenean

**ATLETISMOA** Hegoafrikako selekzioa 4x400eko finalean sartzeko aukerarik gabe gelditu zen atzo, hasiera batean. Bigarren txandan parte hartu zuen atleta erori egin zen, atleta kenyatar batekin tupust egin ondoren, eta taldekideek ezin izan zuten haren lasterketarekin jarraitu. Helegitea jarri zuen, ordea, Hegoafrikak, eta arrazoi eman zioten epaileek. Gaurko 4x400eko finalean bederatzigarren kaletik parte hartzeko aukera izango dute Oscar Pistoriusek eta haren taldekideek.

**E**z da dena marka, zenbaki, datu, entrenamendu, domina eta estatistika izango. Ez behintzat dena kirolari lotutako marka, zenbaki, datu, entrenamendu, domina eta estatistika. Behar dutelako haiek ere garaipenak norekin ospatu eta penak norekin goxatu.

Durex etxeak 150.000 kondoi banatu zituen Londresen jokoak hasi aurretik. Orotara 16.000 kirolari aritu direla kontuan hartuta, ia hamar tokatzen zitzaizkion bakoitzari. Ez dakidana da NOBren 40. arau famatuak hartu ote duen hori ere kontuan. Durex, berez, ez baita joko-

## Olinpiar Hiri «basatia»



'Citius, altius, fortius'  
Enekoitz Telleria

etarako dirua jarri duten babesleen artean agertzen, baina 'babesle' horrekin adina propaganda gutxi egingo zutelako Olinpiar Hirian eta handik kanpo.

Jakina omen delako Olinpiar Hiria zerbait «basatia» izaten dela, sexuaren «supermerkatu» handiena. Ryan Lochte (Aranburuk) dio kirolarien %75ak izaten dituela harreman sexualak Olinpiar Hirian, Hope Solo AEBetako emakumezkoen selekziozko atezainak ikusi ditu kirolariak «belazean txortan», eta Tony Azevedo waterpolo jo-

kalariak esan du hura «unibertsitatea joatea» bezalako dela —hark ez zuen nonbait Leioan ikasi—.

Eta asaldatu egin dira (apur) batzuk, eta abiatu dute beste batzuk sexuaren onurei edo kalteei buruzko eztabaida. Gutxiago mintzatu dira, ordea, eliteko kirolariaren bakardadeaz eta presioaz. Norberarena horren ongi ulertzen duena parean topatzeaz, eta kamera, foku eta mikroetatik isolatuta bizitzeko aukera paregabe eta bakar horretaz. Olinpiar burbuila horretan bakartuta bizitzaren plazeraz.

02

**Ibilketa** → Mikel Odriozolak gaur hartuko du parte 50 kilometrokoan.

03

**Eskubaloia** → Espainia eta Hego Korea brontzezko domina lortzen saiatuko dira gaur.

04

**Borroka** → Mainer Unda: «Egunerokoa nire ondoan aritu direnentzat da domina hau».




london

www.berria.info/londres12

berria

2012ko abuztuaren 11



# Ez urre, eta ez marka



Tirunesh Dibabak ez du lortu 5.000 metrokoan ere urrea irabaztea. Meseret Defar herrikideak zapuztu du haren erronka. Jardunaldi berean, AEBetako emakumezkoen taldeak munduko marka lortu du 4x100 metrokoan. → 06-07

Defar etiopiarra lehen postuan, Cheruiyot kenyarra eta Dibaba herrikidea atzetik dituela, atzo, 5.000 metrokoaren finalean. JOHN G. MABANGLO / EFE



# «Badakigu kolpeen ondoren altxatzen»



Jorge Dueñas Espainiako selekzioko hautatzailea, aginduak ematen, Kroaziaren aurkako finalerdian. MARCELO SAYAO / EFE

«Carl Lewisek ez du ezer egin atletismoagatik, berarengatik baizik»

Usain Bolt • JAMAİKAKO ATLETA

**e**saldia

## Espainiak eta Hego Koreak brontzezko domina erabakitzeko partida jokatuko dute gaur. Jorge Dueñas hautatzaile bilbotarrak norgehiagokako gakoak azaldu dizkio BERRIARI.

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

**P**sikologo bihurtu behar izan du kolpetik. «Lan psikologikoa da orain garrantzitsua, susperraldi emozionala lortzea; jokalariek bizkarrekoari buelta eman diezaiotela eta argi izan dezatela hau ez dela bukatu. Finala ez da bestea, gure finala hau da». Jorge Dueñasen mezua argia da, eta ziur gaurko partidaren aurretik jokalariei aldagelan emango dien hitzalditxoan agertuko dela. Espainiak brontzezko domina izango du jokoan Hego Korearen aurka (18:00), Basketball Arenan.

Herenegun Montenegroren aurka finalerdietan galdu ondoren aldagelako irudia oso gogorra izan zela aitortu du hautatzaileak. Ordu gutxi lo a egin eta ohean buelta asko eman ondoren, baina, goizez, Dueñasek beste modu batera ikusten du egoera. «Orain ez zaio horri bueltarik eman behar, ez du merezi. Kolpe gogorra? Are gogorragoa hartu zuten final-laurdenetan eta lehen fasean etxera joan zirenek. Guk oraindik

### Finala

■ **21:30**ean. Montenegrok eta Norvegiak gaur jokatuko dute finala, Saskibaloian. Norvegia da faborito, egungo Olinpiar, Munduko eta Europako txapelduna delako. Montenegro, aldiz, jokoetako ezusteko handia izan da. Lehen fasean bi finalistak euren multzoetako laugarren sailkatuak izan ziren.

saria lortzeko aukera dugu». Berriz ere diskurtsoa entseatzeko ari dela dirudi, baina hark ere badaki jokalaria askorentzat azken olinpiar aukera izango dela.

Gizon lasaia da, eta geldo hitz egiten du. Jenio biziko multzo bat zuzentzen du, imintzio asko egin eta emozioak muturrera ematen dituena. Hark, aldiz, aurkakoa dirudi, geldi aulki aurrean, askotan makurtuta eta samurai trazarekin. Ondo ezagutzen du esku artean duen taldea, eta, urteetan pilaturiko orbainen eraginez, argi du buelta emango diola kolpeari. «Badakigu kolpeen ondoren altxatzen. Munduko Txapelketan finalerdietan galdu eta hirugarren izan ginen. Jokoetako lehen partida Korearen aurka galdu, eta buelta eman genion. Jokalari zailduak ditut, eta ziur nago gaur ondo egongo direla».

Ordu batzuk baino ez ziren pasa Montenegroren aurka galdu zutenetik, baina atzoko gosaria hartu aurretik Hego Korearen bideoak ikusten hasia zen. «Lan psikologikoa gain, taktikoa ere egin behar da. Gauza batzuk doitzeko ditugu oraindik, batez ere joan den astean ikusitakoan oinarrituta». Esperientzian oinarrituta mintzo da, jokoetako lehen partidan bere taldeak 31-27 galdu zuelako gaurko aurkariaren aurka. Partida txarra izan zen, eta jokalariek aitortu dutenez, gau hartan elkartu, eta gauzak zuzentzeko konpromisoa hartu zuten.

Korea tradizio handiko taldea da; bi aldiz izan da olinpiar txapel-dun eta jokalaririk apartak ditu. Bada, nola irabazten zaio? «Erritmoa» da gakoak, Dueñasentzat.

«Mentalitatea garrantzitsua da, noski, baina pista gainean, arlo taktikoan, gure erritmoa inposatu behar dugu. Koreak oso bizi jokatzen du, pista guztia estaliz. Guk hori saihestu behar dugu, guk nahi dugun moduan jokatzea behartu behar dugu». Zaindu beharreko jokalaria Eun Hee Ryu da, Espainiako selekzioari hainbeste min egiten dien jaurtitzaile horietako bat. Aurreko partidaren, albokoak gol zakua sartu zuen, bederatzi hain zuzen ere, eta, egun, jokoetako hirugarren goleatzaile nagusia da.



Kolpe gogorragoa hartu zuten aurretik etxera joan zirenek; guk zerbait dugu jokoan oraindik»

«Hego Korearen aurka, erritmoa da gakoak; ezin diegu utzi euren joko bizia inposatzeko»

**JORGE DUEÑAS**  
Espainiako selekzioko hautatzailea

Dueñas oso gustura dago taldea ematen ari den itxurarekin, baina, hala ere, «apurtxo» bat gehiago eman dezakeela sinetsita dago, eta pixka bat zuketuko du gaur maila hori eman dezan. Defentsa lanarekin dago harroen, baina erasoan erabaki hobek har ditzaketela uste du. Montenegroren aurka hori pasa zen ere erabakigarrian; «bigarren zatian dago eta jokalaririk apartak ditu; eta Korearen aurka berdin gerta dadin eragotzi nahi du. Formula

defentsa ona da, eta patxada pixka bat aurrean, «jokalarien motorrak bueltak behar baino azkarrago eman ez ditzan».

### Euskal jokalariek, banaka

Euskal herritarren jarduna ona ari da izaten, eta hautatzaileak banaka aletu du haien lana. Eli Pinedo «bikain» jokatzen ari dela uste du: «Defentsan zein erasoan. Atzean oldarkor dabil, eta erasoan oso eraginkor. Txapelketako jokalarietako bat da». Nely Carla «asentatuago» ikusi du Londresen, eta jokari gehitzen dion «indarra» goratu du. Andrea Barnorekin oso gustura dago: «Defentsak bere izaera nabaritzen du, estu hartzen ditu aurkariak eta kontraerasoan atera behar izan duenean zentzu handia ematen dio jokoari». Patricia Elorzak gutxi jokatu du, baina hitz onak ditu harentzat ere: «Bere rola ulertu du. Gutxi jokatu du, baina jokatu duenean atsedean minutu onak eman dizkigu».

Bat falta zaio azterketan. Aulkian esertzen dena. «Tira, ondo ari naizela uste dut, baliabide taktiko asko erabiltzen, eta gehienetan asmatu dudala uste dut, baina ez beti». Lo gutxi eta eskubaloi asko, ezin izan ditu jokoak nahiko lukeen bezala jarraitu. «Familia bisitan etorri eta egun bateko arnasa hartu nuen, baina justu-justu jarraitzen ditut albisteak». Irabazi edo galdu, Espainiak inoiz olinpiar joko batzuetan lorturiko emaitzarik onena izango da, baina alde handia dago hirugarrenetik laugarrenera. Domina edo ezer ez da. Historia liburuetan agertzea dago jokoan.



**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Hirugarrenez ariko da Mikel Odriozola (Errenteria, Gipuzkoa, 1973) Olinpiar Jokoetan. Prestaketa ez da erraza izan, baina egindako lanaren ordaina jaso nahi du, behingoz, gaur, 10:00etatik aurrera, ibilketako 50 kilometroko proban. Badaki herritarrek adidi begira egongo direla, Kabia gunean jarriko duten pantaila erraldioaren bidez. Lehen pausok ematen hasierako, eskerrak eman nahi dizkie guztiei. «Momentu txarretan bereziki, oso present edukitzen dut herritarren babes hori».

**Kostatu zitzaizen baieztatzea, baina, azkenean, bai, hirugarrenez ariko zara Olinpiar Jokoetan.**

Gogorra izan da Jokoetarako sailkapen fasea, arazo fisiko dezente izan dudalako. Atzeratu egin zitzaigun prestaketa, baina, tira, ona ere izan daiteke hori, Jokoe-tan egon beharko nukeelako sa-soirik onenean. Konfiantza handia daukat, ikusi dudalako arazok arazo gorputza bere onera ekartzeko gai izan naizela. Infekzio larri samar bat izan nuen orain dela hiruzpalau hilabete, eta zalantzak sortu zizkidan. Azken urteotako zailenetakoa izan da prestaketa, baina bide zailxegotik bada ere, sufriruz, iritsi gara nahi genuen lekura.

**Atzera begirata, zer izan ziren zuretzat 2000ko Sydneyko Jokoak? 24. postuan sailkatu zinen, 3.59.05 orduko denborarekin.**

Umetatik amesten nuena lortu nuen Sydneyra joanda. 1996an, Bartzelonako Jokoen atarian, atletismotik bizitzea zen nire helburua. Horregatik, betetako amets baten gisa bizi izan nien Sydneyko Jokoak.

**Pekinen, 2008an, beste pauso bat eman zenuen; 13. postua eta denborra hobe: 3.51.30.**

Bai... 2004an, ez nintzen sailkatu Jokoetarako, eta min handia eman zidan horrek. 2008an halakorik ezin zela gertatu esan nion neure buruari, eta lan handia egin nuen Pekinera bidean. Emaitza aintzat hartuta, pena pixka bat eman zidan, zortzi onenen artean sartzeko gai nintzela uste dudalako.

**Bi esperientzia horien ondoren, nola biziko dituzu Londresko Jokoak?**

Aurreko biak hobetzeko helburu argiarekin noa. Lehen zortzien artean sailkatu nahi dut, eta ea gai garen dominen borrokan sartzeko. Nire markarik onenera gerturatu nahiko nuke. 3.45etik jais-teko gai baldin bagara, 3.41 horretara gerturatzeko bagara, ziur

GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS



## Mikel Odriozola

Ibiltaria

**Oso fin dago Mikel Odriozola; nabari da gorputz horrek egurra hartu duela. Prestaketa zaila izan dela aitortu du, baina gaztetuta dago buruz. Sydney eta Pekinen egindakoa hobetu nahiko luke Londresen.**

## «Neure burua da aurkaririk handiena»

nago oso postu ona lortuko dugula. Maila handia dago, zaila da, baina helburu horrekin goaz. Ondo lehiatu nahi dut; egindakoa aztertu, eta emaitza dena delakoa ere, neure buruarekin lasai amaitu nahiko nuke proba.

**Aurkariak ere ondo zainduko zenuen azken hilabeteotan...**

Hala da, bai. Aurkari asko daude: errusiarrak, txinatarrak, australiarrak... Baina neure burua da aurkaririk handiena. Neurea egitea noa ni.

**Atzetik aurrerako lasterketak egin ohi dituzu normalean. Taktika horri eusteko asmoa daukazu Londresen ere?**

30. kilometrorra arte nahiko lasai joan beharra dago, ahalegina kontrolatuz, eta Londresen ere antzekoa egingo dugu. Baina, ezere okerrik ez dela, azkarxeago abiatzeko asmoa daukagu. Uste dut azkarra izango dela lasterketa, eta hasieran ezingo dugu denbora askorik galdu.

**Ibilbidea bera ezagutzen duzu. Bi kilometro eskas dauka, eta igogerra txiki bat tartean, The Mall-en. Zer moduzkoa da zuretzat?**

Ez da txarra; gustuko dut ibilbidea. Abenduan aztertu genuen, eta egia da aldapatxo bat badagoela tartean. Oso laua da gainerakoan, eta horrek eragina izango du. Baina ibilbideak adina garrantzi izango du eguraldiak, azken lau urteotan beroa eta hezetasun handia izan dugulako lasterketa guztietan, baita Errusian ere. Gehiago edaten da horrelakotan, eta gorputzak ez du berdin erantzuten. Ea fresko samar egiten duen [eguzkia eta 18-23 gradu daude iragarria gaur goizerako].

**Bi kilometroko ibilbideari 25 itzuli. 25 aldiz igaro behar helmugatik, 25 aldiz aldapatik... Buruarentzat oso gogorra da hori.**

Bai, oso gogorra da, eta horregatik lantzen dugu hainbeste bisualizazioa. Horrez gain, erlaxazio ariketak ere egiten ditugu, urduri

ez jartzeko. Txapelketetan, beharrezkoa da urduritasun pixka bat edukitzea, lasterketan sartuta zaudela esan nahi duelako. Baina urduritasun hori kontrolatzen jakin beharra dago.

**2008an hasi zinen esaten Pekinen ondoren agian 2009a urte egokia zela erretiroa hartzeko, baina nekazina dirudizu. Londresen ondoren, kito, edo indarrean zaude oraindik?**

Londresen ez naiz erretiratu. Hori argi daukat. Urtebete gehiago jarraituko dut, ziur. Hurrengo olimpiar zikloan iritsiko da erretiroa hartzeko garaia, baina ez dakit bi urte barru izango den, hiru barru edo lau barru. Gehienez ere Brasilgo Jokoetara arte luzatuko nuke kirol ibilbidea, oso polita litzatekeelako han bukatzea. Baina askalo. Urtez urte aztertuiko dut egoera.

**Harrigarri samarra da Espainiako selekzioaren ibilketako taldea. Zuk 39 urte dituzu, eta Jesus Angel Garcia Bragadok, 43 —Benjamin Sanchez da hirugarrena, 28 urtekoa—. Oso onak zarete? Edo gazteak falta dira?**

Bietatik dago pixka bat. Egia hori, gure markak onak dira; nire marka (3.41 ordu) historian lau atletak bakarrik berdindu dute Espainian. Onak garena esan nahi du horrek, baina atzetik ez dator atleta indartsu-indartsurik. Azken zapu urteotan, 3.50etik Bragado eta biok bakarrik jaitzi gara. Datu argigarria da hori ere. Proba zaila da gurea, oso luzea, gogorra, entrenamendu asko eskatzen duena, diru laguntza handirik ez daukana... Ni berandu samar hasi nintzen atletismoan, 25-26 urterekin joan nintzelako Bartzelonara, eta, alde horretatik, lesio-rik ez badut, bospasei urte daukat nire alde.

Robert Korzenjowski izan da inoizko ibiltari onena Olinpiar Jokoetan. Poloniarrak urrezko laudomina irabazituen. Horietatik hirugarrena, 50 kilometrokoan, Atiantan, Sydney eta Atenasen. Sydneyn, 20 kilometrokoan ere urrea eraman zuen.



webgune berezia  
[www.berria.info/londres12](http://www.berria.info/londres12)

edizio  
jarraitua



UNAI ZUBELDIA



## Maidier Unda

Borrokalaria

**Burua, burua eta burua. Besterik ez zuen esaten lehiatu bezperan, eta brontzea «buruarekin» irabazi duela aitortu du biharamunean ere. Zoratzen dago arabarra.**

# «Bizitza guztian edukiko dut oroitzapen hau»

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Gorputza txikituta eta nekatu aurpegiarekin azaldu da Maidier Unda hitzordura (Aramaio, Araba, 1977). «Baina ez dut ospakizunik eduki, ez pentsa!», argitu du azkar. Oso kirol gogorra da borroka, eta, bezperako tentsioa askatu ondoren, kostata egiten ari da mugimendu bakoitza. Eserita erantzun die galderei. Hori bai, brontzezko domina ez du askatu ere egiten. «Badaezpada ere». Pekinen bosgarren geratu ondoren, gozatzen ari da bezperako lorpenarekin.

**Jabetzen al zara benetan zer eginduzun?**  
Bai, bai, jabetzen naiz. Bizitza guztian amestu duzuna lortzen duzunean... Gaua pasatu da, eta esku artean daukat oraindik do-

mina. Atzo, agian, ez, baina gaur goizean jada jabetu naiz eginda-koaz. Bizitza guztian edukiko dut oroitzapen hau.

**Maialen Chourrautek aitortu zuen pisu handia zeukala brontzezko dominak kolkotik zintzilik jarritakoan. Hainbesterako al da?**

Bai, bai. Pisu ikaragarria dauka. Baina gustuko pisua da hau. Ikaragarria da sentimendu hau. Orain lau urte, Pekinen, ezinezkoa ematen zuen, baina iritsi da domina. Gauza asko gertatu dira tartean, lesio larriak izan ditut, eta hori guztia ga indituzeko gai izan naiz. «Zergatik ez domina bat?» galdetzen nion neure buruari. Eta begira...

**Zurekin hizketaldi txiki bat edukitzea nahikoa da buruan zenbateko indarra daukazun ikusteko. Borrokan hortxe dago gako, ezta?**  
Borrokan burua da garrantzitsuena, zalantzarik gabe. Segur-

tasuna ematen du buruak, amorrua, gogo... Dena.

**Nola bizi izan zenuen eguna?**

Ez du ematen, baina luze egiten da. Ez dira hainbeste borroka, lau besterik ez, eta nahikoa tarte izan nuen, gainera, batetik bestera. Baina oso luze egiten da. 13:00etan hasi nintzen lehian [Euskal Herrian, 14:00ak], baina goiz guztia pasatu nuen buruari bueltaka, dena prestatzen. Finalerdia galdu ondoren, brontzea lortzeko borrokaren zain egotea izan zen, hala ere, benetan luzea. Hantxe egon nintzen zain, kirolariok izaten dugun gelatxoan. Baina zarata entzuten nuen kanpogan: ezin nintzen lasai egon, ezin nuen lorik egin...

**Gustatzen zaizu tarte horretan aurkari bideok aztertzea edo entrenatzailearen aholkuak entzutea?**

Ez, ez. Bakarrik egotea gustatzen zait borrokatik borrokarako tartean. Horrela hobe dela uste dut, gainera. Urduritasuna areagotu daiteke bestela, eta hobe da lasai egotea. Norberak badaki bere lana zein den aholkuak entzuten hasi gabe.

**Lehiaketan sartzea kosta egiten zai zula aitortu zenion BERRIARI Londresean joan aurretik, baina eguna primeran hasi zen, garaipen errazarekin.**

Bai... Kosta egiten zait normalean lehen borroka irabaztea, eta horregatik nahi nuen hasteko aurkari samurxeagoa. Zortea izan nuen, ondo irabazi niolako Ana Talia Betancur kolonbiarrari, eta hor askatu nuen jada burua.

**Bigarrena zailagoa zen: Burmaat Ochirbat mongoliarra, inoiz irabazi gabe zeudena. Gogorra izan zen final-laurdenetako borroka hori.**

Oso gogorra izan zen, bai. Berak

asko defendatzen du, eta hurbilek egin behar nion eraso, pista-teratik ateratzeko. Baina, helburu hori lortzeko, asko landu behar da borroka, asko, eta ez zen erraza izan. Bigarren txandan, gauzak ez ziren atera uste nuen bezala. Goizegi egin nuen eraso, agian, ondoren denbora asko eduki zue-

**«Azken borrokan, banekien haren neurria zein zen, eta nekatuta iritsi zen, gainera»**

**«Egunerokoan nire ondoan lanean aritu diren horientzat da domina hau»**

lako berak kontraerasorako. Baina, tira, larri samar, baina finalerdietara igaro nintzen.

**Hor ikusi zenuen jada domina eskura zegoela?**

Borroka hori irabazita, bosgarren postua ziurtatuta neukan gutxienez. Ez nuen nahi postu hori, baina konfiantza handia eman zidan.

**Finalak ihes egin zizun, ordea.**

Bai... Gauzak ez zitzaizkidan ondo atera Stanka Zlateva Hristova bulgariarraren aurka. Ezin nuen. Ez nekien nola eraso. Nire atzamarrei heltzen zien etengabe, eta blokeatu egiten ninduen. Pena izan zen, baina ondo irabazi zidan.

**Brontzezko domina lortzeko borroka aztertuta, Vasilisa Marzaliuk bielorrusiarrak aurretik lan zikina egin zuela aitortu zenuen gero.**

Hala da, bai. Katerina Burmistrova suediarri irabazi zion lehenengo; errespetu handia nion aurkari horri, beti irabazten didalako. Oso-oso aurkari zaila da niretzat. Ondoren, berriz, Annabel Laure Ali kamerundarra kalera- tu zuela ikusi nuen; zer gehiago eska nezakeen! Aspaldi hartu nion neurria bielorrusiarrari, eta lehiaketatik kanpo egon da, gainera, aspaldian. Europako Txapelketan ere aritu nintzen haren aurka, banekien haren neurria zein zen, eta nekatuta iritsi zen, gainera. Primeran.

**Norentzat da brontzezko domina hau?**

Lorpen honetan parte hartu duten guztientzat. Egunerokoan nire ondoan lanean aritu diren horientzat, batez ere; lesio larriei aurre egiten lagundu didatenentzat. Eta inguruko guztientzat, noski.

**Brontzezko domina zurea da jada. Hemendik aurrera, zer?**

Hemendik aurrera? Bizi. Etxera itzuli, atsedean hartu eta gero geroakoak. Beti esaten dut ez dudala aterik itxi nahi, nire bizitzako momenturik politenak borrokan bizi izan ditudalako. Oso luzea da lau urteko zikloa, eta ez dut uste Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoetara iritsiko naizenik. Ez, ez. Baina oraindik ez dut itxi nahi borroka- ren bidea.

Banakako proba batean olinpiar domina bat irabazi duen hirugarren euskal emakumezkoa da Maidier Unda. Leire Olaaberria eta Maialen Chourraut dira beste biak. Hirurek brontzea lortu zuten.





→ **Laburrak****Errusia, Txina eta Espainia, sinkronizatuko podiuma**

**IGERIKETA** Errusia, Txina eta Espainiako selekzioek lortu dituzte dominak igeriketa sinkronizatuan. Errusiak 98,930 puntu lortu zituen, Txinak baino puntu bat gehiago. Espainia 97 puntutik igo gabe geratu zen bere ariketa egin ostean, eta bezperan Txinak lortutako zortzi hamarren aldean murriztu ezinik geratu zen. Errusiak, bere aldetik, iragarpenek ziotena bete zuen urrea lortuta.



SERGEI ILLNITSKI / EFE

**Evgenia Kanaeva onena finalisten artean****GIMNASTIKA ERRITMIKOA**

Evgenia Kanaeva gimnasta errusiarrak lortu zuen atzo finalerako sailkatze probako lidergoa. Daria Dimitrieva herrikidea izan zen bigarren, eta Azerbaijanango Alia Garaieva hirugarren. Hauek izan ziren beste zazpi sailkatuak: Silvia Miteva, Liubou Txarkaxina, Yeon Jae Son, Alina Maksimenko, Ganna Rizatdinova, Joanna Mitrosz eta Neta Rivkin. Taldekakoan, Errusia izan zen onena.

**Urrea eskatu dute Lisa Nordenentzat**

**TRIATLOIA** Suediako Olinpiar Batzordeak Kirol Arbitratze Epaitegira (TAS) jo du, Lisa Norden triatletari eman zioten zilarrezko dominaren ordean urrezkoa eman diezaioten. Helmugako argazkiak Nicola Spirig eta Norden batera helmugara zirela erakusten duela diote. TASek gaur goizean emango du epaia. Suediak bi urre banatzeko eskatu du, Spirig garaileari urrea kentzeko eskatu gabe.

**Errepokerra nahi du**

Brasilgo Neymar aurrelaria, atzo, finalaren atariko entrenamenduan. MARCELO SAYAO / EFE

**Brasilek eta Mexikok jokatu dute futboleko finala, gaur. Jokoak irabaztea bakarrik falta zaio Brasili, txapelketa denak irabazteko, eta favorito bera da.****A. Urbistondo**

**T**xapel bakarria falta zaio. Irabazi beharreko guztia irabazi du, eta euren aberrian lau urte barru jokatu diren lehen Olinpiar Jokoetan jarduneko txapeldun izan nahi dute. Londresen olinpiar txapeldun izan direla esan nahiko du horrek. Antsietate pixka bat sumatzen da berde eta hori koloreko jantzia daramaten artean, *jogo bonito* delakoaren egileen artean. Ez dute beraien joko ikusgarria egin dezakeen kontrariorik ikusten inon, baina zelaian komeria franko dituzte nagusitasun hori aldeko emaitza bihurtzen. Hainbestera, non Mexikok ustezko nagusitasun hori baliatu nahi duen, ezustekoa emateko.

Inork ez du txakur txikirik ematen Mexikoren alde. Kanporaketara lehen fasea ondo jokatuta gabe iritsi ziren, baina finalerdian, txapelketako talde onenetako bat belaunikarazi zuten: Japonia. Garaipen horrek indartu egin ditu buruz, oso hutsune garrantzitsu bat edukiko

badute ere: Giovanni Dos Santos aurrelaria. Tottenham Hots-pur taldeko aurrelaria kili-kolo ibili da fisikoki txapelketa guztian, eta finalean ez du jokatu. Giharretako arazoak ditu, eta Luis Fernando Tena hautatzaileak baieztatu du ez dagoela jokatze moduan.

Dos Santos hutsunea, ordea, ondo bete zuen Mexikok finalerdietan, eta jokalarri garrantzitsua izanda ere, badakite Dos Santos gabe gai direla partidak aurrera ateratzeko. Mexikok ere urteak daramatza halako barne borrokarrekin, izan nahi eta lortu ez. Zilarrezko domina ziurra dute, dena den, eta urreak XX. mendeko txapelketetan egindako lan ona biribilduko luke: 17 urtez azpikoen bi munduko txapelketa irabazi zituzten, 2005. urtean eta ia.

**Neymar eta Damiao**

Brasilek irabaz litezkeen txapelketa guztiak irabazi ditu nazioartean. Bost aldiz izan da munduko txapeldun, eta olinpiar txapeldunorde beste bitan. Londres plaza egokia da errepokerra, jokaldi perfektua egiteko. Pokerra aspal-

di lortu zuten selekzio nagusiko kideek, eta gazteei dagokie orain karta jokoan oso gutxitan ikusten den jokaldia lortzea. Favorito eurak dira. Hasieran, hala ziren, eta finalean, gehiago, zalantza zalantza.

Brasilek jokatu du norgiegokoa guztiak irabazi ditu, baina kanporaketetan zalantza asko utzi ditu. Azken laurdenetan justu-justu menderatu zuen Honduras, eta Ipar Koreak ere zailtasun franko eman zizkion finalerdietan, azkenerako Brasilek gol putzua lortu bazuen ere. Ezusterik ezean, Mano Menezes entrenatzaileak partida horretan gertatutakoa aintzat hartuko du, Brasilek askoz hobeto jokatu zuelako Ipar Korearen aurka Alex Sandro erdilaria zelairatu zenetik.

Sandro hasierako hamaikakoa zelairatzea espero da gaur. Oscar, Neymar eta Leandro Damiao aurrelariekin lotura lanak egiteko. Hirukote horren imajinazioa, kalitatea eta gola sartzeko erraztasuna dira Brasilen altxor nagusia. Neymar munduko talde boteretsuen agendan dago jadanik, gazte-gaztea izanda ere, eta Leandro Damiao ere bikain ari da jokotetan. Lau gol sartu ditu Porto Alegre taldeko aurrelariak, eta gauza arraroren bat gertatzen ez bada, berak eramango du goleatzaile onenaren saria etxera. Tituluarekin batera, ziurrenik.

**Datua.**

■ **AEBak txapeldun.** Emakumezkoetan, AEBek lortu zuten urrea, finalean Japonia 2-1 menderatuta. Estatubatuarrek hirugarrenez irabazi dute jarraian olinpiar urrea, eta iaizko Munduko Kopako porrotaren mendekua hartu dute. Carli Lloydek sartu zituen AEBetako bi golak, Ogimik Japoniakoa.

«Urrea lortuta, ortodontzia ordainduko diot Odriozolari»

→ Jesus Angel Garcia Bragado ■ ESPAINIAKO 50 KILOMETROKO BILKETAKO ATLETA

**Gure kirolariekkin bat**



# Mendeku gozoa

Meseret Defar etiopiarrek irabazi du urrea 5.000 metrokoan. Tirunesh Dibaba brontzearekin konformatu behar izan du, eta ez du berdindu Lasse Virenen marka.

## Julen Etxeberria

Ez dago mendeku gozoagorik ariro gorrotatuena gehien desiratzeko duena gabe uztea baino. Eta horixe egin zuen atzo Meseret Defar etiopiarrek, Tirunesh Dibaba haren herrikidea, azken urteetan loriarik eta munduko markarik gabe utzi dion aurkaria gehien desiratzeko duena gabe utzi, alegia, urrea 5.000 metrokoan, Londren bere bigarrena izan zitekeena —10.000 metrokoa irabazi zuen astebate atzera—. Baina ez hori bakarrik, atletismoaren liburutetan Dibabaren izena letra larritz eta urre kolorez azaltzea eragotzi zuen ere Defarrek. Izan ere, Dibaba atzo nagusitu izan balitz, Lasse Viren Finlandiako atleta handiaren marka berdinduko zuen, bi Jokoetan jarraian bi lasterketa horietan garaipena lortuta. Baina ez, Virenek harro jarrai dezake esaten bera dela tamainako balentria lortu duen bakarra.

Virenek badu nori eskertu balentria hori inorekin partekatuko behar ez izatea, Defarri, hain zuzen ere. Hark zapuztu zuen Dibabaren ametsa. Min gehien egin dezakeen moduan egin zuen, gainera, azken zuzengunean Dibabari aurrea hartuta. Dibaba ezin izan zion eutsi azkeneko 80 metroetan lasterketako buruari. Garesti ordaindu zuen aurreko bi

## Datua

■ **Bat.** Atleta bakarra dago bi olinpiar jokotan jarraian 5.000 eta 10.000 metrokoan urrezko domina lortu duena. Lasse Viren finlandiarrek 1972an eta 1976an Munichen (Alemania) eta Montrealen (Kanada) jokaturako olinpiar jokotan egin zuen. Tirunesh Dibaba eskura zuen marka hori atzo, baina huts egin zuen.

itzulietan lasterketaren erritmoa eramanez xahututako indarrak. Agian horregatik ere hartu zuen erantzukizun hori, ez zuelako bere burua beste batzuekin bezain indartsu ikusten. Arriskatu egin zuen, arerioak atzean geratuko zirenean itxaropenaz. Eta bai, arerioak atzean geratu ziren, baina ez hark nahi zituenak. Defarrek eta Vivian Cheruiyot kenyarrak ondo eutsi zioten, eta azken zuzengunean aurrea hartu zioten. Azkenean, brontzeko dominarekin konformatu behar izan zuen Dibaba. Hura triste, eta Defar pozez zorutzen. Defarrek ondo daki azken unean urre gabe gera-

itzea zer den. Behin baino gehiagotan gertatu zaio, eta sarri Dibabaren mesedetan. Pekinen, adibidez, podiumeko hirugarren kostatik ikusi zuen Dibaba urrea jasotzen. Atzo, baina, kontrakoa gertatu zuen. Defarrek bigarren olinpiar urrea du. Orain zortzi urte lortu zuen lehena, Atenasen.

## AEBak txandakakoan

Eguneko beste finaletan, AEBak nagusitu ziren emakumezkoen 4x100 metrokoan. Carmelita Jeterrek, Allyson Felixek eta enparauk gainera, munduko marka ondu zuten (40,82). Jeterrek hirugarren domina du, bakoitza kolore batekoa. Felixek, berriz, bi ditu, biak urrezkoak. Hamasei urte ez zuela AEBetako laukoteak urrezko domina irabazten, Atlantatik. Gizonezkoen 4x400 metrokoan, ordea, huts egin zuten estatubatuarrek, eta Bahametako atletak izan ziren azkarrenak, AEBetako eta Trinidad eta Tobagoen aurretik. Emakumezkoen 1.500 metrokoan, berriz, Asli Cakir Alptekin turkiarra nagusitu zen; mailu jaurtiketan, Tatiana Lisenko errusiarra, eta gizonezkoen pertika jauzian, Renaud Lavillene frantziarra.

# Etxeko heroia eta Portlandeko 'afrikarra'

10.000 metrokoa irabazi ondoren, 5.000 metrokoa ere irabazi nahi du gaur Mohamed Farah britainiarra. Afrikako atletak izango ditu berriro aurkari, eta Galen Rupp, onenen artean muturra sartu duen atleta zuria.



Mohamed Farah eta Galen Rupp, 10.000 metrokoa amaitu berri. EFE

J. Etxeberria

**A**frikako atletak izango dira gehiengo gaur gizonen 5.000 metroko finalean. Hamabost parte-hartzaileetatik hamabi jaio ziren kontinente horretan. Lehen begi kolpean, hala ere, lau oharkabeen pasatzen dira. Ez da ageri Afrikako herrialderen baten banderarik euren izenen ondoan.

Mohamed Farah, Lopez Lomong, Bernard Lagat, eta Hayle Ibrahimov dira. Farah Somalian jaio zen, baina Britainia Handiaren banderapean lehiatzen da, 8 urterekin joan baitzen bizitzera Londresera. Herrialde hori ordezkatzu irabazi zuen joan zen larunbatean 10.000 metrokoan. Lomongek eta Lagatek, berriro, Sudan eta Kenya dute jaioterri, baina biek AEBetako herrialdeetara joan dira. Izena ere aldatu zuten horretarako: Lopepe Lomong zen Lopez Lomong, eta Bernard Kipchirchir Bernard Lagat. Beste horrenbeste egin zuen Hayle Ibrahimov sudandarrak Azerbaijanen lehiatu ahal izateko: Haile Desta Hagos zen bere izena.

## Boltek hirugarren urrea nahi du

Pekinen egindakoa berdindu dezake gaur Usain Bolt, 4x100 metro txandakoan Jamaikako laukoteak garaipena lortzen badu: urrezko hiru domina irabaziko lituzke Londresen. Bolt eta Yohan Blake talde berean aritzea berme nahikoa da ia ziurtzat emateko jamaikarrak irabazle izango direla. AEBak mendeku gosez dira, baina ez dirudite olinpiar eta munduko txapel dunei aurre egiteko moduan.

Eguneko beste final ikusgarriena 800 metrokoa izango da. Pamela Jelimo kenyarrak eta Caster Semenya hegoafrikarrak lehia ikusgarria izango dute. Arris-kuan dago munduko marka.

## Datuak

■ **Hogei.** Orain hogei urte irabazi zuen azken aldiz Afrikar jatorria ez zuen atleta batek 5.000 metrokoa. Dieter Baumann alemaniarra izan zen, 1991an, Bartzelonan.

■ **32.** Hogei hamabi urte egin behar dira atzera Afrikar jaiola ez duen atleta bat jokoen ekitaldi berean 5.000 eta 10.000 metroetan podiumera igo zen azken Afrikar berri izan zen. Kaarlo Maaninka finlandiarra izan zen, 1980an, Moskion. Hirugarren helmugaratu zen 5.000 metrokoan, eta bigarren 10.000 metrokoan. Galen Rupp estatubatuarra eskura du hori Londresen, bigarren izan baitzen 10.000 metrokoan.

Txapelketa garrantzitsu bateko iraupen proba batean Afrikako atletak nagusi izatea ez da nabarmeneko modukoa. Bai da, ordea, aipatzekoa atleta zuria bat domin bat irabazteko hautagaien artean egotea, eta are gehiago txapelketa berean hori lortzen duen bigarren aldia izatea.

Galen Rupp (Portland, AEB, 1986) egin dezake balentria. Estatubatuarra zilarrezko domina irabazi zuen 10.000 metrokoan joan zen igandean. Indar erakustaldia egin zuen, eta Farah-k, haren entrenamendukideak, baka-bakirik hartu zion aurre. Salvatore Antibo italiarra izan zen joko batzuetan 10.000 metrokoan podiumera igo zen azkeneko atleta ez afrikarra. Orain 24 urte izan zen, Seulen, eta zilarra jantzi zuen. Askoz gehiago egin behar da atzera, ia mende erdi bat, AEBetako atleta bat 10.000 metrokoan domina bat irabazten ikusteko. 1964an izan zen, Tokion, Billy Mills urrea irabazi zuenean.

## Bekelaren markaren bila

Gaurko lasterketari dagokionez, Dieter Baumann alemaniarra du podiumera igo zen azken atle-

ta ez afrikarra izatearen ohorea. Orain hogei urte lortu zuen, Bartzelonan. Baumann, gainera, koska gorenera igo zen. Zilarrekin edo brontzearekin ere konforme legoke gaur Rupp. Hori lortuta ere aspaldiko marka berdinduko luke. Izan ere, 32 urte egin behar dira atzera Afrikar jaiola ez duen atleta bat jokoen ekitaldi berean bi proba horietan podiumera igo zen azken aldiaren berri izateko. Kaarlo Maaninka finlandiarra egin zuen azken aldiz, 1980an, Moskion. Hirugarren helmugaratu zen 5.000 metrokoan, eta bigarren 10.000 metrokoan.

Moskuko bi lasterketa horiek irabazle bera izan zuten: Miruts Yifter etiopiarra. 28 urte geroago, haren herrikide Kenenisa Bekele beste horrenbeste egin zuen. Eta gaur, gauza bera egin dezake Mo Farah-k (Muqdisho, 1983). Ez du lan samurra izango, baina proba luzean erakutsi zuen sasoi dagoela. Gainera, azken urteetan iraupen probetan egon den aldatasunak mesede egiten dio. Gero eta gehiago dira azken itzulian hausten diren lasterketak. Eta hor, oso garrantzitsua da azkarra izatea. Eta Farah azkarra da oso.

Londreseraino etorri, eta txoko txiki honetatik barrua askatzen ari naiz egunero, eta beste sekretutxo bat kontatuko dizuet gaurkoan. Nik ere ezagutu nuen Tintin. Komikietako pertsonaia ez. Tira, hura ere bai. Baina hondartzetan egoten ziren eta diren igerileku txiki horiei buruz ari naiz hizketan. *Club Tintin* jartzen zuen. Igeri abil-abila ere ez nintzen orduan —orain ere ez—, eta hara eramane ninduten gurasoek. Ez daukat oroitzen oso onik. Negar malkoren batzuk joan zirela uste dut. Ez zitzaidan gustatzen.

## 'Club Tintin' eta Londres



'Off the record'  
Unai Zubeldia

Gogoan daukat irakaslearen makilari helduta eta luze bakoitzean hiruzpalau trago eginda iristen nintzela alde batetik bestera. Putz eta putz. Lehengusua beti aurretik. Haiek komeriak, haiek. Zergatik ari naizen hori guztia kontatzen? Garai haiek etorri zaizkidalako gaur gogora. Londresko igerilekura joan naiz, sirenaren baten bila. Eta txundituta ateratzen. Bat ez, 64 ikusi ditut. Zer zen hori! *Club Tintin*-eko igerilekua irudikatut sartu eta berehala, baina erdi-erdi sirenak dantzan hasi dira bat-batean.

Futbolarekin, saskibaloiarekin edo eskuibaloiarekin itsutzuten gara kirolzaleak, baina hauek bai daukatela benetako meritua. Baloiarri ostikoa ematen bada-ki; baloia saskian sartzen ere bai; eskuarekin ateratzen ere bai; asmatuko nuke. Baina ez nekien ur gainean dantza egin zitekeenik; ur gainean oinez ibil zitekeenik. Idolo txiki batzuk jaio zaizkit gaur. Burua behera, hankak gora, batera, bestera, jauziak, launaka, banaka, eskuak, keinuak... Harrigarria, benetan, *Club Tintin*-en ez zidaten horrelakorik egiten erakutsi.



## Bob de Voogd

Herbehereetako belar hockeyko selekzioko jokalaria

Herbehereek Alemaniaren aurka jokatuko dute gaur hockeyko finala, eta bertan izango da Bob de Voogd, lehen olinpiar jokoetan urrea irabazteko ametsarekin.

# «Beste lehiaketekin alderatuta, oso desberdina da hau»

Unai Zubeldia Londres  
→ Berriemaitte berezia

Britainia Handiko selekzioari finalerdietan 9-2 irabazi, eta familiarri eta lagunei besarkada hunkigarriak eman ondoren kasu egin dio Bob de Voogdek (Helmond, Herbehereak, 1988) BERRIARI. Kabitu ezinik dago, normala den be-

### Aipatzekoa

■ **Finalerako bidea.** Herbehereek txapelketa harrigarria egin dute orain arte: India-ri 3-2 irabazi zioten, Belgikari 1-3, Zeelandari 5-1, Alemaniari 3-1, Hego Koreari 2-4 eta Britainia Handiari 9-2.

zala. Hockeyan indar handia dauka Herbehereetako selekzioak, eta Londresen nagusitasunez iritsi dira finaleraino. Alemania izango dute gaur parean (21:00). Multzoen fasean 3-1 irabazi zieten Herbehereek alemaniarrei. «Saiatuko gara antzeko emaitzaren bat lortzen». Handia litzateke De Voogdentzat lehen olinpiar jokoetan urrea irabaztea.

### Finalean zaudete jada, partida handia jokatuta, gainera.

Sinestezina da hau. Egia esan, zer esan ere ez dakit. Oso giro berezia sortu da partidaren, etxeko selekzioaren aurka jokatutako dugulako, Britainia Handiaren aurka. Asko animatu dute zaleek, baina hasi aurretik bagenekien irabazteko aukera polita geneukala. Oso partida ona egin dugu, gol asko sartu ditugu, eta ederra izan da. Sei partidak irabazita iritsi gara finalera, eta azkena falta da oraindik.

### Aipatu dituzue etxeko zaleak. Harrigarria da bultzatzeko daukaten indarra.

Bai, bai. Zale asko etortzen da partidak ikustera, zarata ikaragarria ateratzen dute, gozatu egiten dute, eta ez da erraza horrela jokatzea. Baina zaleak Britainia Handiaren alde zeuden arren, gurea egin dugu guk, eta lortu dugu helburua.

### Herbehereetako emakumezkoen hockey taldea finalean sartu zen atzo [herenegun], eta gizonezkoena ere finalean da. Oso berezia izango da zuzentzat, ezta?

Zalantzarik gabe. Gure kasuan, sei partidak izan dira oso onak, eta emakumezkoak ere bikain ari dira [atzo iluntzean jokatutako zuten finala, Argentinaren aurka]. Momentuan zaila da egiten ari garena jabetzea, baina hemendik egun batzuetara konturatuko gara.

### Alemaniaren aurka ariko zarete finalean. Oso ondo ezagutzen duzue selekzio hori.

Partida asko jokatutako dugu euren aurka, eta gora egin dute lehiaketak aurrera egin ahala. Beti lortzen dute helburu hori. Finalerdietan oso partida ona jokatutako dute Australiaren aurka (2-4), oso selekzio indartsua da, eta ez da erraza izango finala irabaztea.

Beste partida bat da; orain arte egindakoak ez du balio. Hori bai, konfiantza handiarekin ekingo diogu finalari.

### Lehen olinpiar jokoak dituzu. Finale-raino iritsita, nola ari zara bizitzeko esperientzia hau?

Bikaina ari da izaten. Zer esango dizut, ba! Antolatzaileek zoragarri prestatu dute dena, eta beste lehiaketekin alderatuta, oso desberdina da hau. Hemen jende

### «Sei partidak irabazita iritsi gara finalera, baina azkena falta da oraindik»

### «Finalean urrezko domina irabaztea litzateke esperientzia guztietan onena»

asko dago kirol bakoitzeko emaitza bakoitzaren zain. Edozein emaitza lortuta ere, eragina daukala nabaritzen da. Ederra da sententzia.

### Pentsatzekoa da zuk ere edukiko dituzula idoloak. Eduki al duzu aukerarik baten batekin egoteko?

Badauzkat, bai. Kobe Bryant, adibidez. Baina domina eskuratu duen edozein kirolari aipatuko nuke. Zoragarria da euren ondoregon ahal izatea. Denak daude prest hitz egiteko, eta harrigarria da giroa. Horiek dira benetako Olinpiar Jokoak.

### Zein da Olinpiar Joko hauetako esperientziarik onena eta txarrena, txarrik izatekotan?

Finalean urrezko domina irabaztea litzateke esperientzia guztietan onena, eta hasiera ekitaldia ere polita izan zen. Olinpiar hiriko giroa ere bai... Guztia. Txarrik, berriz, ez nuke aipatuko.

Bilbon kirol guztietarako lekua dago

en Bilbao hay sitio para todos los deportes

Bilbao Kirolak  
www.bilbaokirolak.com

Carl Lewis eta Usain Bolt mokoka hasi dira. Ziurrenik historiako bi abiada atletarik onenak izandakoak eztabaidan hasi dira dopinaren harira. Lewisek —beganoa eta bizitza molde nahiko uzurrekoa da— ulertzeraren eman du egungo atletek ez dutela garbi jokatzen. Sua are gehiago bizitu dute BALCO laborategietako buru izandakoaren hitzek, «atleten %60k» dopin sustantziak hartzen dituztela esan baitu, eta-Londresko Olinpiar Jokoetako kontrolak berederatzi hilabete berandu iritsi direla eraginkorrak izateko.

## Agertu da mamua



'Betweenland'  
Imanol Magro

Boltek dena ukatu du, eta Jamaikako hanka zuztarrak garbi daudela aldarrikatu. Egia esan, Bolt ahalegin betean ikusita, askok uste dugu ustezko dopinarekin edo gabe berdin-berdin irabaziko lukeela. Baina horrekin guztiarekin, eta eztabaidan parte hartu duten atleten sonaren eraginez, mamua agertu da. Dopinarena. BALCO kasua ezaguna izan zen, eta AEBek garbitu handia egin zuten, Marion Jones mitoa desmuntatzeraino. AEBetako kirol profesionalen, esteroiden eta antzeko sustantzien erabilera oso zabaldua dago, eta beti

egon da zalantza hori. Txinako igerilariak ere beti susmoetan daude. Txina beti urrun, ilun eta itxi hori.

Distira egiten du, berriz, Britainia Handiko selekzioak Londresen. 1996an, urte bakarra irabazi zuen, eta hamabate domina guztira. Porrotaren ondoren, Britainia Handiko kirola suspertzeko programa bat martxan jarri zuten, eta hamasei urte geroago, herenegunera arte, 25 urteko eta guztira 52 dominako uzta pilotatu zuen etxeko taldeak. Etxean emaitzak beti hobekatu dira, baina batzuetan normala da mamuen bisita.

berria  
2012ko abuztuaren 11



Kronika

09

# Peluxeeko negozioa

**Txapa batek 7,5 euro balio du, eta garagardo batek, lau baino gehiago; hala ere, olinpiar guneko oroigarri dendak eta tabernak jendez lepo daude ia egun osoan.**

Imanol Magro Londres  
→ Berriemaile berezia

Londresko Olinpiar Jokotako Antolaketa Batzordeak altxor bat aurkitu du oroigarrien salmantan, eta bere garaian ere aurkitu zuen, olinpiar gunean saltzeko esklusibotasunaren truke Coca-Cola, McDonalds eta Cadbury txokolate etxearekin sinaturiko 100 milioi dolarreko kontratu banarekin (81,5 milioi euro inguru). Atzean, negozioa dago, eta jokoak nola edo hala errentagarri bihurtzeko ahalmena. Hori nola egiten da? Bada, prezioak igoz.

Wenlock eta Mendeveille maskoten peluxeekin bakarrik 109 milioi euro lortzea espero dutela azaldu dute antolatzaileek. Peluxe horiek Txinan eginak dira, oroigarrien %60 bezala. Peluxerik txikienak 9,4 euro balio du; Britainia Handiko sindikatuek salatu dutenez, peluxe horiek egiten dituzten langileek

egun bateko lanarengatik irabazten dutena baino gehiago. Hiru taimainakoak daude, eta handienek 25 euro balio dute. Jokoengatik espresuki eginiko *Teddy* hartzak, berriz, 100 euro balio du.

Prezioak Stratfordeko John Lewis merkataritza guneko denda ofizialekoak dira, eta denetarik aurki daiteke. Txapa batek 7,5 euro balio du, eta 50 desberdin baino gehiago daude. Elastikoek 25 euro balio dute; katiluek, 8,75; gorputza estaltzeko bandera britainiarrek, 12,5; giltzakoeak, 7,5; eta bi boligrafok 12,5, ispilu txikiak berdina.

Produktu esklusiboagoak, garestiagoak ere saltzen dituzte dendan. Adibidez, urrezko txanponak 3.600 euro balio dute; oroitzapen plakek, 437; eta Sebastian Coenek edo Kelly Holmesek sinaturiko argazkiek, 100 euro. Sinadura ez da originala, hala ere.

Prezioak begiratzea beti da interesgarria, batez ere deigarriak direnean. Olinpiar guneko tabernetakoak hauek dira: litro erdiko

'Lympic Cafe'  
■ Absurdoa. Olinpiar Jokoa hitzak eta olinpiar uztaiak babesturiko merkataritza ikurrak dira. Londresko kafetegi bat *Olympic Cafe* izenarekin ireki, eta, salaketaren ondoren, Lympic Cafe da orain. Weymoutheko harakin batek saltxitxekin eginiko olinpiar uzta batzuk eskegi zituen erakuslehoan, eta kendu egin behar izan zituen. Antzekoa gertatu da okindegi batean eta mertzeria batean; mertzerian, bularretakoekin.



Zale belgikar bat, Stratfordeko denda bateko peluxeei begira. IMANOL MAGRO

botila bat ur bi euro da; kola freskagari ertaina, 2,9; eta zuku bat, 3,5. Edari beroei dagokienez, kafeak eta txokolatuek 3,5 balio dute, eta teak, 2,5. Alkohola ere saltzen dute, garagardo etxe bat babeslerik garrantzitsuenetako bat baita. Litro hereneko botilak 4,2 euro balio du, eta kopa handi bat ardoak, 6,45. Edariena garrantzitsua da, likidoak sartzea galarazita baitako, hegazkinetan bezala.

Jakiak sar daitezke gunean, eta hor prezio dantza askoz handiagoa da. *Fish & Chips* —arrai frijitu patata frijituekin— errazio batek 12 euro inguru balio du, eta pasta plater on batek, oilasko eta perretxikoekin, 7,8. Pizza txiki batek, bost; eta Ingalaterran hain ohikoak diren txokolate pinportadun madalena handi horietako batek, 3,5. Eta McDonalds erraldoiko Big Mac simpleenek, 4,6.



Aupa Mikel eta Ainhoa!

ZARAUZKO UDALA  
euskar kirolariek bat



**Finalak**

- 10:30. Piraguismoa.** K-1, 200 metrokoa (G).
- 10:47. Piraguismoa.** C-1, 200 metrokoa (G).
- 11:14. Piraguismoa.** K-1, 200 metrokoa (E).
- 11:41. Piraguismoa.** K2, 200 metrokoa (G).
- 13:30. Txirrindularitza.** Mendiko bizikleta (E).
- 14:05. Bela.** Elliott 6 metrokoa (E).
- 14:30. Gimnastika erritmikoa.** Banakakoa (E).
- 16:00. Futbola.** Brasil / Mexiko (G).

- 18:00. Atletismoa.** 20 kilometro ibilketan (E).
- 19:30. Boleibola.** Brasil / AEB (E).
- 19:45. Pentatloi modernoa.** Gizon-ekoak.
- 19:46. Borroka librea.** 60 kiloz azpikoa (G).
- 20:00. Atletismoa.** Gorako jauzia (E).
- 20:20. Atletismoa.** Xabalina jaurtibizikleta (G).
- 20:21. Borroka librea.** 84 kiloz azpikoa (G).
- 20:30. Atletismoa.** 5.000 metrokoa (G).

- 20:56. Borroka librea.** 120 kiloz azpikoa (G).
- 21:00. Belar hockeya.** Alemania / Herbehereak (G).
- 21:00. Atletismoa.** 800 m (E).
- 21:25. Atletismoa.** 4x400 (E).
- 21:30. Eskubaloia.** Norvegia / Montenegro (E).
- 21:30. Boxeo.** 49 kilokoa (G).
- 21:30. Jauziak.** 10 metroko plataforma (G).
- 21:45. Boxeo.** 56 kilokoa (G).
- 22:00. Atletismoa.** 4x100 (G).
- 22:00. Saskibaloia.** AEB / Frantzia (E).

- 22:15. Boxeo.** 64 kilokoa (G).
- 22:45. Boxeo.** 75 kilokoa (G).
- 23:15. Boxeo.** 91 kilokoa (G).
- 23:15. Taekwondo.** 67 kilotik gorakoa (E).
- 23:30. Taekwondo.** 80 kilotik gorakoa (G).

**Euskal kirolariak**

- 10:00. Atletismoa.** Mikel Odriozola. 50 kilometro ibilketan (G).
- 18:00. Eskubaloia (emakumezkoak).** Brontzezko domina irabazteko norgehiagoka.

**Atletismoa**

■ 5.000 METROKOA (E)

→ Dominak

1. M. Defar (Etiopia)
2. V. Cheruyot (Kenia)
3. T. Dibaba (Etiopia)

■ 4X400 METROKOA (G)

→ Dominak

1. Bahamak
2. AEB
3. Trinidad eta Tobago

■ 4X100 METROKOA (E)

→ Dominak

1. AEB
2. Jamaica
3. Ukraina

■ 1.500 METROKOA (E)

→ Dominak

1. A. Cakir (Turkia)
2. G. Bulut (Turkia)
3. M. Jamal (Bahrain)

■ MAILU JAURTIKETA (E)

→ Dominak

1. T. Lisenko (Errusia)
2. A. Wlodarczyk (Polonia)
3. B. Heidler (Alemania)

**Borroka**

■ -55 KILOKOA (G)

→ Dominak

1. D. Otarsultanov (Errusia)
2. V. Kintxegaxvili (Georgia)
3. K. Yang ( )
3. S. Yumoto (Japonia)

■ -74 KILOKOA (G)

→ Dominak

1. J. Burreghs (AEB)
2. S. Goudarzi (Iran)
3. S. Tigiev (Uzbekistan)
3. D. Tsargush (Errusia)

**Igeriketa**

■ 10 KILOMETROKOA (G).

→ Dominak

1. Oussama Mellouli (Tunisia)
2. Thomas Lurz (Alemania)
3. Richard Weinberger (Kanada)

**Txirrindularitza**

■ BMX (G)

→ Dominak

1. Maris Strombergs (Letonia)
2. Sam Willoughby (Australia)
3. Carlos Mario Oquendo (Kolon.)

■ BMX (E)

→ Dominak

1. Mariana Pajon (Kolonbia)
2. Sarah Walker (Australia)
3. Laura Smulders (Herbehereak)

**Igeriketa sinkronizatua**

■ TALDEKAKOA

→ Dominak

1. Errusia
2. Txina
3. Espainia

**Bela**

■ 470 (G)

→ Dominak

1. Belcher-Page (Australia)
2. Patience-Bithell (B. Handia)
3. Calabrese-De la Fuente (Arg.)

■ 470 (E)

→ Dominak

1. Aleh-Powrie (Australia)
2. Mills-Clark (B. Handia)
3. Westerhof-Berkhout (Herbeh.)

Oharra: Atzo 22:30etatik aurrera jokatu ziren finalak kontuan hartu gabe.

← **Emaitzak**

← **Dominak**

Herraldea	Urr.	Zil.	Bro.	G.	Herraldea	Urr.	Zil.	Bro.	G.
1. AEB	41	26	26	93	42. Letonia	1	0	1	2
2. Txina	37	25	19	81	42. Lituania	1	0	1	2
3. Britainia Handia	25	15	16	56	44. Bahamak	1	0	0	1
4. Errusia	15	21	25	61	44. Algeria	1	0	0	1
5. Hego Korea	12	7	6	25	44. Grenada	1	0	0	1
6. Alemania	10	17	12	39	44. Venezuela	1	0	0	1
7. Frantzia	8	9	12	29	47. Mexiko	0	3	2	5
8. Hungaria	8	4	3	15	48. Azerbaijan	0	2	4	6
9. Australia	7	14	10	31	49. Egipto	0	2	0	2
10. Italia	7	6	7	20	50. India	0	1	3	4
11. Kazakhstan	6	0	3	9	50. Mongolia	0	1	3	4
12. Japonia	5	14	16	35	50. Eslovakia	0	1	3	4
13. Herbehereak	5	5	8	18	53. Armenia	0	1	2	3
14. Iran	4	5	1	10	53. Belgika	0	1	2	3
15. Zeelanda Berria	4	3	5	12	55. Bulgaria	0	1	1	2
16. Ipar Korea	4	0	2	6	55. Estonia	0	1	1	2
17. Jamaika	3	4	3	10	55. Indonesia	0	1	1	2
18. Bielorrusia	3	3	4	10	55. Malaisia	0	1	1	2
19. Kuba	3	3	3	9	55. Serbia	0	1	1	2
20. Ukraina	3	1	7	11	55. Tailandia	0	1	1	2
21. Hegoafrika	3	1	1	5	55. Taipei	0	1	1	2
22. Etiopia	3	0	3	6	62. Botswana	0	1	0	1
23. Espainia	2	7	3	12	62. Zipre	0	1	0	1
24. Errumania	2	5	2	9	62. Finlandia	0	1	0	1
25. Danimarka	2	4	3	9	62. Guatemala	0	1	0	1
26. Txekiar Errepublika	2	3	3	8	62. Portugal	0	1	0	1
26. Kenia	2	3	3	8	67. Uzbekistan	0	0	3	3
28. Brasil	2	2	7	11	68. Trinidad eta Tobago	0	0	2	2
29. Polonia	2	2	6	10	68. Argentina	0	0	2	2
30. Kroazia	2	1	1	4	68. Grezia	0	0	2	2
30. Turkia	2	1	1	4	68. Moldavia	0	0	2	2
32. Suitza	2	1	0	3	68. Qatar	0	0	2	2
33. Kanada	1	5	11	17	68. Singapur	0	0	2	2
34. Kolonbia	1	3	4	8	73. Afganistan	0	0	1	1
35. Suedia	1	3	3	7	73. Hong Kong	0	0	1	1
36. Georgia	1	2	1	4	73. Saudi Arabia	0	0	1	1
37. Eslovenia	1	1	2	4	73. Kuwait	0	0	1	1
38. Norvegia	1	1	1	3	73. Maroko	0	0	1	1
38. Tunisia	1	1	1	3	73. Puerto Rico	0	0	1	1
40. Dominikar Errep.	1	1	0	2	73. Tajikistan	0	0	1	1
40. Irlanda	1	0	2	3	73. Bahrain	0	0	1	1

Amalera ekitaldia ikusteko sarreak badaude oraindik salgai. Olinpiar Jokoetako web orrian 995 libretan (1.265 euro) saltzen zuzutzen atzo eguerdian. Antolatzaileek jakinarazi dute, hala ere, bihar bertan, amalera ekitaldia ingongo egun berean, sarrera gehiago eta merkeagoak jarriko dituztela salgai.



**E**txeoen aurrean lortu zituen Cathy Freeman atleta australiarak bere garaipen nagusiak, 2000. urteko Sidneyko Olinpiar Jokoetako izar izan baitzen. Urrezko domina eskuratu zuen 400 metroko finalean. 1992. urteko jokoetan egin zuen debuta. Parte hartzen zuen lehen atleta aborigena izan zen Freeman, eta horrek ikur bilakatu zuen sorterriko aborigenen artean.

1973. urtean sortu, eta 16 urte zituenean aritu zen lehendabiziko aldiz Australiako selekzioarekin lehen. 1992koak izan ziren aurreneko jokoak Freemanen-

## Atzera begira

→ 2000

### Cathy Freeman

400 metrokoan urrea irabazi zuen Freemanek, 2000. urteko Sidneyko Olinpiar Jokoetan. **BERRIA**



tzat, baina 1996koek eman zioten ospea. 49,11 segundoko markarekin, urrezko domina zintzilikatu zuen 400 metrokoan. Lorraine Graham jamaikarra izan zen bigarren, eta Katherine Merry britainiarra hirugarren.

Sidney'n goia jo zuen Freemanen kirol ibilbideak. 2001ean, behin-behineko atletismoa uztea erabaki zuen. 2002an itzuli zen, baina ez zuen emaitza onik lortu, eta ondorioz, 2003. urtean iragarri zuen atletismoa behin betiko utziko zuela, hedabideen aurrean egindako ageraldi batean. → **Edume Elizondo**

berria  
2012ko abuztuaren 11



Olinpiar oroitzapenak → Mikel Lasa

11

# Kolpea barneratzeko, urrea

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

**E**gun gutxian, Real Madrilekin ligako titulu bat galdu eta Olinpiar Jokoa irabazi zituen Mikel Lasak (Legorreta, Gipuzkoa, 1971), 1992ko uda partean. Tenerifetik Bartzelonara. «Kolpe gogorra izan zen Tenerifekoa, eta hura ahazten laguntzeko balio izan zuen jokoetako urrezko dominak». Futbol jokalariek «bizitzan behin» izaten dute jokoetan aritzeko aukera. «Eta ezin genuen galdu». Esaldi bakarrean laburbildu du arrakastaren sekretua: «Oso giro ona geneukan selekzioan, eta, hasi eta bukatu, txapelketa bikaina egin genuen». Bikaina, finalera bidean ez zutelako gol bakar bat ere jaso.

20 urte besterik ez zeuzkan Lasak Bartzelonako Jokoa iritsi zirenean. Ondo pentsatuta, «eta negoziazio gogorren ondoren», inaugurazio ekitaldira joatea lortu zuten Espainiako futbol selekzio jokalariek. «Bezperan geneukan lehen partida, Kolonbiaren aurka, eta esan ziguten ez zela komeni biharamunean inaugurazio ekitaldira joatea. Valentzian geunden gu, eta inaugurazioa Bartzelonan zen». Zelaian hitz egitea erabaki zuten. «Oso partida zaila zen lehenengoa, selekzio ona zelako Asprillak eta gainerakoek osatzen zutena». Baina 4-0 irabazita, iritzia emateko aukera, behintzat, lortu zuten. «Partida amaítutakoan, arduradunengana joan ginen, Bartzelonara joan nahi genuela esateko». Ezetz, berri ere. «Nekatuta geundela, ordu asko zirela zutik... Ez ziguten utzi nahi, baina kaskagorria izate ona da batzuetan».

Legorretarrak oroitzapenen txokorik ederrenean dauka gordeta ekitaldi hura. «Ondo-ondoan eduki genituen Magic Johnson, Michael Jordan eta gainerakoak, eta gogoan daukat oso txiki sentitu ginela. 20 urterekin, munduko kirolaririk onenen ondoan geunden gu. Ikaragarria». Jordanekin geratu zen erabat txundituta. «Askotan jaikitzen nintzen ni



Mikel Lasa, beheko lerroaren erdi-erdian, Bartzelonako Olinpiar Jokoetan, taldekideekin batera. **BERRIA**

## 20 urte eskasekin joan zen Mikel Lasa Bartzelonako Olinpiar Jokoetara, 1992an, Real Madrilekin liga titulu bat galdu berrian. Esperientzia «ikaragarria» izan zela azaldu du.

04:00etan Chicago Bulls-en partidak ikusteko».

«Alfonso, Luis Enrique, David... Horiekin neukan harremanik onena, nahiz eta gutxitan elkartzen garen orain». Kartingean gorpuztutako harremana zen hura. «Aspergarri samarrak izaten dira beti kontzentrazioak, eta arratsalderen bat libre geneukanean, kartean ibiltzera joaten ginen. Hura ere, agian, ez zen komenigarriena izango, baina bi orduko tarte horretan asko lasaitzen zen burua».

**Mendi puntan garrasika**  
Lasaren hitzetan, oso erlaxagarria psikologaren lana izaten zen.



Ez ziguten utzi nahi inaugurazio ekitaldira joaten, baina kaskagorria izate ona da batzuetan»

**MIKEL LASA**  
Futbolari izandakoa

### Laburrean

■ **Reala eta Athletic.** Beasainen ekin zion kirol ibilbideari, eta Realeko gazteen taldean aritu zen gero. 1989ko martxoaren 5ean egin zuen debuta lehen taldean. Real Madrilke fitxatu zuen 1991ko udan, Athleticke 1997an, eta Murtzian eta Murtzia Hirian ere jokatu zuen gerora.

■ **Nou Camp.** Real Madrilkekin Nou Campen jokatu zuen gerora, baina 1992ko final hartan harrituta geratu omen zen zelaiaren handitasunarekin.

«Mendi batera eramán gintuen txapelketa hasi baino lehen. Urgull eta Igeldoren gisako leku batera». Harrituta geratu omen ziren. «Ezer ez zegoen han, eta, bat-batean, ahal genuen ozenen oihu egiteko ez zigun, ba, eskatu! Gauza berria zen hura guretzat». Hasiaren, lotsatuta geratu omen ziren denak. «Baina hura askatasuna sentitu genuena amaieran!». Erlaxazio ariketak ere egiten omen zituzten aldageletan.

Garrasi eta ariketa haietan egongo da, agian, arrakastaren gakoa, zoragarria izan zelako Espainiako selekzioaren ibilbidea. Hori bai, finalera bidean gol bakar bat ere jaso ez... «Eta finala hastearekin batera gola sartu ziguten. Kolpe handia jaso genuen, baina azken minutuetan aurretik jartzeko gai izan ginen, Kikoren golari esker. Bikaina izan zen handik aurrerako guztia. Nou Campen, harmailak beteta, familiako kideak eta lagunak begira... Inoiz ez zait ahaztuko».

**O**linpiar estadioan dauden kazetari batzuk kritikatu egin dituzte, espero bezain emaitza ona lortu ez duten atletei lasterketa bukatu bezain laster adoregabetzeko a proposak diren galderak egiteagatik. «Zer sentitzen da zeneukan azken aukera galtzean?» eta «lastima, izan ere, Riora joatea oso zaila izango da zuretzat, ezta?» izan dira, adibidez, galderetako batzuk. Eta, hitz horiek ilaran dagoen lehenengo kazetariaren ahotik datozela jakinda, ez zait harritzen haren atzetik zain dauden beste hamabosti ganora gutxiz erantzutea.

Azken aukera. Rio de Janeiroa joateko

## Erretiroa



'London calling'  
Garazi Goia

zailtasuna. Inplizituki iradokitzen dute erretiroaren alegiazko marra hori gertu dagoela. Azken finean, urte askotako neke fisiko eta psikologikoaren zamak gehiengo 30 urte azpitik erretiroa zuzentzen duela argi dago. Adibidez, asko hitz egin da Michael Phelps-en erretiroaz, karreraren gorenean dagoenean utziko duela esanez.

Baina aurten ere egon dira salbuespen eredugarriak: Felix Sanchez 34 urteko atleta dominikarra, 400 metro hesidunetako urrezko dominaren irabazlea; Chris Hoy txirrindulari eskoziarrak 36 urterekin Olinpiar Jokoetan sei-

garren domina irabazi du; Kobe Bryant 33 urteko saskibalo jokalari amerikarrak ez du nekatu itxurarik. Bitxikeria gisa, Hiroshi Hoketsu zaldi gidari japoniarra izan da, 71 urterekin, parte hartzaile zaharrena.

Bide batez, Felix Sanchez aipatu dut lehen eta, Jokoen amaieran gaudenez, balantzeak egiten hasteko aprobetxatuko dut. Niretzat, une hunkigarrien bildumako argazkietan lehenengo postuan, Sanchez dominak banatzeko emanaldian podiumean bihotz-ukituta negar batean egon zen unea, bere amonaren argazkiari eusten zion bitartean.



berria  
2012ko abuztuaren 11

# Azkena →

«Londresek ez du dirurik xahutu zorakerietan. Guk ere gauzak ahalik eta sinpleen egingo ditugu»  
→ Eduardo Paes ■ RIO DE JANEIROKO ALKATEA



**↑ Igeriketa sinkronizatua?** Bakoitza bere kirolean aritza izaten da onena horrelakoetan, eta zerbaitengatik izango da. Mathew Belcher eta Malcolm Page australiarrek urrezko domina irabazi zuten atzo, belan, gizonen 470 modalitatean. Eta era horretan ospatu zuen balentria Malcolm Pagek. Ez du igeriketa sinkronizatuko igerilarien sinkroniarik, baina merezi zuen tamainako ahaleginak tamainako argazkia. **GERRY PENNY / EFE**

## berriaTB

- 12:00. Aurkezpena.
- Pentsaren begiratua.
- Londrestik zuzenean.
- Unai Zubeldia eta Imanol Magro.
- 'Thamez' atala. Danel Agirre Berlindik.
- Konexioa.
- Mikel Astarloza Euskaltel Euskadiko txirrindulariarenkin.
- Tertulia. Ainara Arratibel eta Andoni Urbistondo.
- Eguneko kantua.

## → Laburrak



**Bigarren aldiz**  
**BMX** Pekinen sartu zen BMX modalitate Jokoetan, eta Londresen egin du bigarren urratsa. Strombergs lituaniarrek irabazi du gizonen jokoetan, eta Pajon kolonbiarrak emakumeen jokoetan.

### Txandakako txapelketa berezi bat sortu dute

**ATLETISMOA** Londresko Jokoetan eta aurrekoetan txandakako lasterketek duten arrakasta ikusita, txandakakoetan bakarrik oinarritutako txapelketa berezi bat antolatuko du Nazioarteko Atletismo Federazioak. Aurreneko aldiz bi urte barru jokatu da, Nassau (Bahamak), eta bi egunez atletarik onenak han biltzea da helburua. Txandakako ohiko lasterketak jokatu dira (4x100 eta 4x400), baina baita batera ohikoak ez diren beste hiru ere: 4x200, 4x800 eta 4x1.500.

### NOBek Atenasko domina kendu dio Hamiltoni

**TXIRRINDULARITZA** Atenasko Olinpiar Jokoetan erlojupeko proban irabazitako urrezko domina atzo kendu zion Nazioarteko Olinpiar Batzordeak Tyler Hamilton estatubatuarri. Urte hartan positibo eman zuen Hamiltonek, eta bi urteko zigorra jarri zioten. Bueltatu zen, berriro positibo eman zuen, eta 2009an hartu zuen erretiroa. NOBek Jokoetan hartutako laginak gorde egiten ditu eta zortzi urteko epea du haiek aztertzeko. Epea amaitzeko hilabete falta zela hartu du erabakia.





02

**Ibilketa** → Mikel Odriozola lehen postuetatik urruti gelditu da (42.).

03

**Eskubaloia** → Brontzea Espainiarekin Pinedo, Carla, Barno, Elorza eta Dueñasek.

04


**Futbola** → Mexikorentzat urrea, Brasil favoritoa mendean hartuta (2-1)



london

www.berria.info/londres12

berria  
2012ko abuztuaren 12a



## Heroi anonimoak



**'Citius, altius, fortius'**  
Enekoitz Telleria

**H**eroia: antzinako paganoen artean, jainko eta gizaki baten arteko seme-alaba, edo gizaki bikaina, bere ekintza edo bertuteengatik ospetsua, edo adore handiko ekintza egiten duena; bereziki, zenbait literatur lan edo filmetako pertsonaia nagusia.


Kondaira: kontakizuna; bereziki, historian baino gehiago fantasian eta ahozko tradizioan oinarritzen dena.

Legenda: tradizioz, belaunaldiz belaunaldi transmititutako herri kontakizuna, edo domina, txanpon eta abarretako inskripzioa.

Hiperbolea: ideia bat nabarmentzearen edo norbaitengan zirrara handiago sortzearen errealitatetik kanpo geratzen diren adierazpenak erabiltzea.

Azken egunotan gehien erabili diren hitzak hartu eta hiztegiara joatea bezalakorik ez dago, esan eta idatzi den guztia laburbiltzen saiatzeko. Heroi, legenda eta kondaira hitzak erabili dira Bolten jardunaz aritzeko, eta erraza da lasterbide hori hartzea protagonistak berak esan badu: «Orain bai, orain legenda naiz». Dohain asko baititu jamaikarrak, baina umiltasuna ez dago zerrenda horretan oso aurrera.

Atentzioa, ordea, behin eta berriz erabiltzen den beste formula batek ematen dit niri: heroia anonimoak. Elkarren alboan jarrita eta hiztegiari begira zentzurik ezin topatu. Gizaki bikain eta adore handiko alboan, kondaira eta legenda horien uztarri berean anonimo jartzearen zentzuaz. Anonimo: egilearen izenik ez duena. Hiperbole: norbaitengan zirrara handiago sortzearen errealitatetik kanpo geratzen diren adierazpenak erabiltzea. A! Orain bai.



## Mugarik gabe

Usain Boltek urrezko bere hirugarren domina irabazita esan die agur jokoei.

4x100ekoa irabazi du Jamaikako taldekideekin, eta munduko errekor historikoa

ezarri: lehen aldiz 37 segundoz azpitik osatu dute saioa (36,84) → 05

Usain Bolt, eskuak buruan dituela, helmuga gainditu berrian, atzo, 4x100 metro txandakako finalean. FRANCK ROBICHON / EFE



# Urrun, urrunegi

**Mikel Odriozola 42. izan da 50 kilometroko ibilketan, berak espero baino marka eta postu okerragoak lortuta. Ondo hasi arren, 15 kilometroz bakarrik etsi dio aurrekoen erritmoari.**

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

Goiza sufrikario bilakatu zen Mikel Odriozolarentzat. Haren hiru garren olinpiar jokoetan, Buckingham jauregiko inguruak gurutzebide izan ziren euskal ibilketariarentzat. Ondo hasi arren, gorputzari buelta eman ezinik egon zen azken 35 kilometrotan, eta azkenean 42. izan zen, 3.35.59 markarekin. Urrun gelditu ziren bere asmoak eta bere buruari jarritako helburua, lehen hamarren inguruan ibiltzekoa; baita Sydney eta Pekinen lorturiko postuak ere: 24. eta 13. izan zen han. Helmugan, lur jota zegoen, atsekabeak irentsia. Ondo baino hobeto zekien ez zuela bere maila eman. Dominei dagokienez, Sergei Kiridiapkin errusiarrak irabazi zuen urrezkoa, 3.35.59 markarekin.

Goiz beroa izan zen atzokoa Londresen. Proba hasi zenean, goizoko bederatzieta, hogeitatu zeuden. Eguraldia lagun, milaka ikusle bildu ziren ibilketa ikustera, eta sekulako giroa sortu zen ibilbidearen doakozatzen. Mundu guztiko banderak ikus zitezkeen, eta, tarteka-marteka, ikurrin bat baino gehiago. Odriozolaren zain zeuden, eta euskal zaleen animoak goitik behera egin zuten, Errenteriakoaren jardunak bezala.

Proba bizkorra izango zela iragarri zuen Odriozolak, eta bete-betean asmatu. Irabazleak olinpiar marka hobetu zuen, eta lehen hamabost sailkatuetatik hamarrek euren inoizko markarik onena egin zuten. Horren jakitun, euskal ibiltaria oso bizi irteko estrategiarekin hasi zen, aurrekoen erritmoari egokitu eta ahalik eta gehiena eusteko asmoz. Lehen hiru itzuliak —25 eman zituzten— nahiko itxaropentsuak izan ziren. Bosgarren kilometroan, zortzigarren zen Odriozola, hamahiru kideko multzobaten barruan.

Errusiarrak zeuden buruan, eta erritmo biziarekin jarraitu zuten. Eraso jo baino gehiago, erritmoak berez galbahea egin zezan itxaron zuten, eta erortzen aurrenekoa Odriozola izan zen;

baina ez oso atzera, 10. kilometroan 18. baitzen. Lehen hamarren-gandik hamabost segundora zihon seiko multzo batean. Haren lasterketa hor zegoela zirudien, bost kilometro geroago 18. baitzihon berriz, eta tropelkide berdinekin. Ordurako, ordubet zeraman lanean.

20. kilometrotarako, ezina sumatzen hasia zen, baina 21. zen, lagun zituenengandik segundopare batera. Baina ezin izan zien jarraitu. 25. kilometroan, 35. zen Odriozola, eta kilometro asko barka egin behar izan zituen. Buakaeran esan zuenez, une kritikoa izan zen, gorputzak berea ematen ez zuela ikusi zuelako.

Ez zen susperraldirik egon, eta, lasterketa luzatu ahala, atzeraka egin zuen: 30. kilometroan 42. zen; 35.enean, 44.; 40.enean, 48.... Aurpegi txarra zuen, baina azken txanpan pixka bat suspertu eta, are okerrago zihozanek pasatuta, sei postu aurreratu zuen. Lehen sailkatuek bi aldiz pasatu zuten, eta irabazlearengandik 35 minutura helmugaratu zuen. Bizkarrekoa hartuta eta bere buruarekin haserre bukatu zuen.

## Kirdiapiakentzat urrea

Irabazlea ez zen ezustekoa izan, Kirdiapkin bi aldiz izan baita munduko txapelidun. Bi erkideekin batera egin zuten probaren zatirik handiena, baina beste biek ez zuten saririk jaso, Jared Tallent australiarrak atzetik aurrera eginda bigarren postua lortu zuelako, 54 segundora. Hirugarren Si Tianfeng txinatar ausarta izan zen, 1.04ra. Sik errusiarrei eraso jo eta kilometro asko egin zituen ihesean.

Haien atzetik iritsi ziren beste guztiak, eta irudi danteskoak ikusi ziren helmugan: zorabioak, negarrak, botaka egiteak... Eta, tartean, irudi politen bat ere bai. Azken sailkatua —51.a— Dominic King izan zen, Britainia Handiak proban zuen ordezkarik bakarra. Azken itzuli osoa zaleei eskerrak ematen pasatu zuen. Etxean, nola edo hala bukatu nahi zuen. «Nire domina lortu dut; gaur gehien txalotu dutena izan naiz», zioen, proba bukatuta. Arrazoi du.

Mikel Odriozola bere buruari ura botatzen, atzo, 50 kilometroko ibilketakoan. J. LIZON / EFE



## Mikel Odriozola

Ibiltaria

# «Energiarik gabe geratu naiz»

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Oinez ibiltzeko ere lanak dauzka Mikel Odriozolak (Errenteria, Gipuzkoa, 1973), lau ordutik gorak ahaleginaren ondoren. Txikituta dago, erabat burumakur; hitz egiteko indarririk gabe. Emandako maila kaskarrari azalpenik aurkitu ezinik dabil.

## Erabat burumakur zaude. Zer gertatu da lasterketan?

Oso gaizki sentitu naiz. Gogotik lan egin dugu hona iristeko, baina hauxe izan da azkenean emaitza. Pena handia daukat. Ez genuen uste horrela geundenik, baina lasterketak bere lekuan jartzen du bakoitza, eta kito. Pozik nago Olinpiar Jokoetan egon naizelako, baina kirol arloa aztertuta, oso triste nago.

## Txukun abiatu zara.

Bai... Horixe zen asmoa, biziago abiatzea, baina oso gaizki sentitu naiz hamabosgarren kilometrotik aurrera. Gorputza bere onera ekartzeko gai izango nintzela uste nuen, baina ezinezkoa izan da, eta 42. postuarekin konformatu behar izan dut azkenean.

**Gerora, argi ikusi da oso denbora ona**

**zela aurrekoena, Olinpiar Jokoetako marka ondu duela Sergei Kiridiapkin errusiarrek.**

Bai... Bagenekien lasterketa azkarra izango zela, eta erritmo ona hartzea zen helburua hasiera-hasieratik. Nire erritmoa hartu nahi nuen, eta hortik aurrera zer egin genezakeen aztertu. Baina energiari gabe geratu naiz 15. kilometrotik aurrera; fisikoki baxualdi handia izan dut, eta hortik aurrera gero eta kaskarra gero izan da erritmoa.

## Helmugatik igarotzen zinen bakoitzean erlojuari begiratzen zenien etengabe. Zer bilatzen zenuen erreferentzia horiekin?

Pixkanaka-pixkanaka goraka joan nahi nuen; erritmoa berreskuratu nahi nuen. Baina ez dut lortu, denbora galduz joan naiz, eta txarra izan da azkenean denbora eta emaitza.

## Orain, zer? Ziklo bat amaituko da joko hauekin?

Ez dakit, ez dakit. Beste urtebete jarraituko dut; zikloa ez da hemen itxiko. Baina beroan ez dut ezer pentsatu nahi. Atsedean hartu nahi dut, entrenatzailearekin hitz egingo dut gero, eta erabakiko dugu erabaki beharrekoa.

## Sailkapena

1. <b>Sergei Kiridiapkin</b> (Errusia)	3.35.50
2. <b>Jared Tallen</b> (Australia)	54ra
3. <b>Si Tianfeng</b> (Txina)	1.04ra
4. <b>Robert Heffernan</b> (Irlanda)	1.55era
5. <b>Igor Erhokin</b> (Errusia)	d.b.
42. <b>Mikel Odriozola</b> (Espainia)	35.49ra



## «Presio handia geneukan»

Domina «ibilbide harrigarriaren amaiera bikaina» da, Jorge Dueñas bizkaitarraren ustez

U. Zubeldia Londres  
→ Berriemaile berezia

«Ilusio handia daukagu; oso hunkigarria da hau. Oso luzea izan da partida, eta izugarri kostatu zaigu». Ikurrina bizkarrean jarrita, irribarrea ezkutatu ezinik, pozez zoratzen zegoen Eli Pinedo aldageletara bidean. «Oso nekatuta geunden, eta ez genekien oso ondo zer egin. Pixka bat gehiago, eta bihar arte egongo ginen hemen domina eskuratzeko borrokan». Atezainen lana gorapatu zuen arabarrak. «Bikain aritu dira biak, eta azkenean lortu dugu domina. Inoiz lortu dudana da hau». Argazkia ateratzeko eskatu eta... «Ikurrinarekin, e!», bota zuen, barrez. Saltoka eta garrasika joan zen aldageletara, Andrea Barnoren atzetik.

Tentsio ikaragarria Nely Carlak bizi izan zuen atzo. Ez zuen oso partida onik jokatu, eta negar batean ospatu zuen brontzezko domina eskuratu izana. «Ikaragarria da hau, eta ospakizuna hasi besterik ez da egin. Presio handia geneukan; gogorrak izan dira egun hauek, eta brontzea lortuta barrua askatu dut azkenean», aitortu zuen, negar malkoei eutsi ezinik. «Euforiko gaude denok; ea azkar jartzen diguten brontzezko domina hori, eta Londres erretzeko asmoa daukagu». Ospakizunak goizeko ordu txikietan amaitzeko asmoa zeukaten Espainiako selekzio jokalariek. «Hau erantzuten badute».

### «Familiarentzat da hau»

Gehienetan bezala, Jorge Dueñas entrenatzailearena izan zen hausnarketarik osoena. «Pertsonalki, azken urteotako ibilbide harrigarriaren amaierabikaina da hau. Zalantzak zeuden talde honen ardura hartu nuenean, baina haziz joan da lehiaketaz lehiaketa». Dominaren eskaintza ere egin zuen bizkaitarrak. «Familiarentzat eta gertukoentzat da domina hau».



Jorge Dueñas entrenatzailea eta jokalariek, irabazi izana ospatzen, atzo. SRDJAN SUKI / EFE

## Gehiago ezin zen sufritu

Eli Pinedo, Nely Carla, Andrea Barno, Patricia Elorza eta Jorge Dueñas tartean zirela, luzapenean irabazi du brontzezko domina Espainiak, Hego Korea menderatuta.

Unai Zubeldia Londres  
→ Berriemaile berezia

Bi aukera zeukan Espainiak; bi aukera Eli Pinedok, Nely Carlak, Andrea Barnok, Patricia Elorzak eta Jorge Dueñasek. Eta bigarren aukeraren azken muturrari helduta iritsi ziren «inoizko garaipen handienera». Joan den ostegunean, finalerdietan, galdu egin zuten Montenegroren aurka, 26-27, bigarren zatian erasoan erabat blokeatuta. Eta atzo antzeko zerbait sufritzeko zorian egon ziren Hego Korearen aurka, Olinpiar Jokoetako brontzezko domina eskuratzeko borrokan. Hego Korearen aurka galduz ekin zion Espainiak Jokoetako ibilbideari, eta arantza hura aterata amaitu du, brontzea kolporatuta.

«Ezin diegu utzi haien erritmoan jokatzeko. Guk nagusitu behar dugu alor horretan». Jorge Dueñas Espainiako selekzio jokalariek

tzaileak partidaren bezperan BERRIARI esandakoa da hori, eta helburua lortu ezinik jokatu zituen Espainiak lehen hogei minutuak. Jokalari txikiak eta azkarrez josita dago Hego Koreako selekzioa, eta korrika eginda hasi zen nagusitzen. Manguiek eta Nely Carlak erasoko falta inozo batzuk egin zituzten, eta, kontraerasoa baliatuta, 1-3koa zena 6-4 bihurtu zuen Hego Koreak, minutu gutxian.

Aurreko partidetan gertatu bezala, Espainia blokeatu egin zen erasoan; ezin zuen aurkitu pibotaren jokorik, eta urrutiko jaurtiketetan ezinean arituzen. Une horixe baliatu zuen Hego Koreak 9-5 aurretik jartzeko. Nely Carla huts asko egiten, Eli Pinedo joko landuan asmatu ezinik, Andrea Barno defentsan nahi adina estutu gabe... Hausteko zorian egon zen partida, baina 11-7koaren ondoren, atzealdeko lana indartu, Hego Korearen hutsak behartu, eta, 0-6ko partziala lortu zuen Espai-

Markagailua  
Hego Korea 29  
Espainia 31

niak (13-11). Hui Ju atezainaren lan onak eta kontraeraso neur-tuek eman zioten aukera Hego Koreari atsendaldira 13-13 iristeko.

### Penaltietan, ezinean

Presak baretu, arlo taktikoa pixka bat aztertu, eta joko landuagoa egin zuten bi selekzioek bigarren zatian. Tentsio handiarekin, hori bai. Lehen zatiko hutsak ahaztuta, zazpi metrotik min egiten hasi ziren Mangu eta Carla, eta Espainiak gehiago asmatu zuen pibotekin jokatzeko. Hor aurkitu zuen zuloa. 14-17, 15-19, 17-20, 18-21. Kontrolpean zeukan partida, baina minutu gutxian hausten du oreka Hego Koreak. Gwonen gol uztari esker (zazpi sartu zituen), 23-23 berdindu zuen partida Hego Koreak. Hiri bai, eurek asmatu baino gehiago, Espainiak huts egin zuen asko. Brontzearen presiopean, bi penalti huts egin zituen jarrera. 24-24. Luzapena.

Eta luzapenean, ezina. Lau penalti huts egin zituen Hego Koreak (lan bikaina Ciobanurena), eta erasoko jokaldi asko Espainiak. 28-28 luzapenean lehen zatian, eta Carla, Pinedo eta Alonsoren golei esker, 29-31 bigarrean.



# Urrez hasi, eta bukatu



Moura brasildarra, jota, eta Mexikoko jokalaririk haren atzean, garaipena ospatzen, atzo. M. BECKER / EFE

**Mexikori patxadaz eta estutuz jokatzeko aukera eman dio 30. segunduan sarturiko golak, eta merezita irabazi du gizonezkoen futboleko finala, Brasilen kontra.**

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

Urrearekin hasi zuen gizonezkoen futbol finala Mexikok, eta, historian aurrenekoz, urrezko domina lepotik eskegita bukatu zuen. Partidako 30. segunduan Oribe Peraltak sarturiko golak estutuz eta lasai jokatzeko aukera eman zion, eta, aurkaria kate motzean

## Markagailua

Brasil **1**  
Mexiko **2**

lotuz, finala irabazi zuen. Brasil faborito handiak, aldiz, Olinpiar Jokoetako madarikazioa uxatu ezinik jarraitzen du, finala hiru aldiz jokatu arren inoiz ez baitu urrezko domina lortu.

Mexikok merezita irabazi zuen finala, jokalariek ahalagin fisiko aparta egin zutelako. Estu hartu zuten Brasil, gogor estutuz, eta ez zien pentsatzen utzi talentu izugarriko jokalariei. Partida, gainera, berehala alde jarri zitzaion. Hasi eta 30 segundora, Brasilgo atzeko lerroak huts egin eta Aquinok pase ona eman zion Peraltari. Aurrelariak, burua altza, eta baloia ezkerreko zutoinera itsatsiz bidali zuen sarera. Gol horrek urrea balio zuen, Luis Fernando Tena hautatzaileak nahi zuen tokian zuelako partida,

presiorako ahalmena eta defentsa ona baitira bere taldearen indarguneak.

Dena baldintzatu zuen golak, Mexikok Brasilen oinetan utzi zuelako baloia. Azteken arma lapurtzea eta ziztu bizian irtetea zen. Brasil zelai erdian jokatzen saiatu zen, baina ez zuen lortu jokaldirik josterik. Aukerak izan zituen, baina ez oso argiak. Bitartean, Mexiko bigarrena kontraerasoan sartzen saiatu zen. Gauzak okertzen ari zirela ikusita, Brasilgo hautatzaileak Hulk Oportoko izarra zelairatu zuen (33. min). Fisikoki oso indartsua da, eta berehala nabaritu zen haren eragina, areaz kanpotik eginiko jaurtiketa bortitz batean (39. min).

## Brasilen bukaera ona

Brasilek oldarkor ekin zion bigarren zatia, eta buruz buruko jokaldiei esker Neymarrek bi jaurtiketa on egin zituen, baina biak gora joan ziren. Aukera garbia izan zuena, halere, Marco Fabian Mexikokoa izan zen (64. min). Brasilek atzean eginiko huts baten ondorioz, baloia area barruan punpa egin zuen, eta Fabianen txilena langara joan zen.

Partida on bateko unerik politenak izan ziren bigarren zatian hasierako horiek. Jokalari gazteak izaki, ordena galdu eta finala ireki joan zen. Bi taldeek izan zituzten gol aukerak, baina berriz ere Peralta ibili zen finen (2-0, 74. min.). Mexikok albotik falta bat atera, eta aurrelariak, Brasilgo lau atzelarien artean, buruz bidali zuen baloia sarera.

Brasilgo hautatzaileak ordurako Pato zelairatu zuen, eta eraso itsua agindu zuen. Mexikok, azken txanpan bai, atzean sartuta itxaron zion. Ondo eutsi zion oldarraldiari, baina Brasilek gola sartzea lortu zuen azkenean (2-1, 91. min.). Hulkena izan zen, taldeko jokalaririk onenarena. Beranduegi zela zirudien, baina Brasilek bigarrena izan zuen Oscarren buruan (92. min). Hulkek, nola ez, eskuinetik erdiratu, eta Chelsea-ko erdilaria, lehen zutoinean bakarrik zegoela, gora bidali zuen.

## → Laburrak

### Frantzia eta Suedia aurrez aurre gaur, finalean

**ESKUBALOIA** ▶ Frantziak bigarren aldiz jarraian irabazi nahi du olinpiar urrea, gaur finalean Suedia mendean hartuta (16:00). Frantziarrak dira faborito argiak, suediarrek baino koska bat gorago baitaude. Hala ere, Eskandinaviako selekzioa ezustekoa ematen saiatuko da, eta, bidez batez, Suediari lehen urrezko domina ematen eskubaloian. Suediarrak hiru aldiz izan dira olinpiar txapeladunorde.



ROLAND SCHLAGER / EFE

### Bresset frantziarrarentzat izan da urrezko domina


**MENDIKO BIZIKLETA** ▶ Julie Bresset frantziarrak irabazi zuen urrezko domina atzo mendiko bizikletan. 23 urteko mendiko txirrindulariak 1.02ren alde atera zion helmugan Sabine Spitz alemaniarrari, eta 1.08rena Giorgia Gould estatubatuarri. Gaur gizonezkoen proba izango da, eta beste frantziar batek irabaz dezake: Julien Absalon da faboritoa, azken bi olinpiar jokoetako txapeladuna.

### Brasilen hirugarren finala gaur, Errusiaren kontra

**BOLEIBOLA** ▶ Brasil eta Errusia ariko dira gaur nor baino nor gehiago gizonezkoen finalean (14:00). Bi selekzio indartsuenak ziren hasi aurretik, eta bi selekzio indartsuenak izan dira txapelketan. Brasilek jarraian jokatzen duen hirugarren olinpiar finala da gaurkoa —urrea Atenasen eta zilarra Pekinen—, eta Errusia, berriz, Olinpiar Jokoetan domina gehien irabazi dituen herrialdea da (bederattzi).

# Gure kirolariekkin bat





SEGEI ILNITSKI / EFE

## Kanaevaren bigarren urrea jarraian

Errusiarrak marka ezarri du gimnastika erritmikoan. Bigarren Dmitrieva izan da, eta hirugarren Txarkaxina

Enekoitz Telleria

Ez du kale egin. Bete du bere erronka. Aurretik beste inork egin gabekoa egin du Evgenia Kanaevak: bi Olinpiar Jokotan irabazi du jarraian gimnastika erritmikoko buruz buruko urrea. Eta gaur, Errusiak taldekakoa irabazten badu —ez da besterik espero—, lau urte olinpiar izango ditu lortuta jarraian. Tamainako garaipen zerrendarik ez da egongo gimnastikan: 2008tik hona Munduko hiru txapelketa, Europako lau, eta Olinpiar Jokoak bi.

Lau saio egin eta batean ez beste guztietan 29 puntutik gorako nota ateratu zuen atzo. Uztaiekin hasi zen (29,350), pilotarekin jarraitu (29,200), mazoekin guztiak txunditu (29,450), eta zintarekin egin zuen behera (28,900)—sorbaldan jo zion une batean makil-txoak, eta belarrian trabatu zitzaion zinta beste batean—. Ordurako tartea handia zeukan aterata kontrarioekiko. Ordurako jakina zen lehenagotik ere jakina zena: Kanaevak egun ez daukala parekorik. Ez teknikan, ez plastikan, ez dotorezian. Errusiako eskola domina bihurtuta.

Eta Errusiako eskola horrek izango du jarraipena. Zilarra, izan ere, Dmitrieva gazteak lortu zuen (19 urte). Kondakova zen Kanaevaren lekukoa hartzeko hautagai nagusia, baina ez du Londren parte hartzerik izan, min hartu zuelako bezperan. Haren faltan, ordea, Dmitrieva agertu da. Saillkatzerakoan eman zituen bere kalitatearen lehen zantzuak, eta atzoko finalean berretsi.

Brontzea lortzeko lehian Txarkaxina ukrainiarra eta Garaieva azerbaijandarra aritu ziren azken unea arte. Zintarekin egindako saio eder bati esker hartu zuen aurrea Txarkaxinak.



Usain Bolt, helmugara iristear, atzo, 4x100 metro txandakako finalean. ALBERTO ESTEVEZ / EFE

# Kondaira, are handiagoa

## Jamaikak irabazi du 4x100 metrokoa, eta munduko marka ondu. Usain Boltek urrezko hiru domina kolkoratu ditu bigarren aldiz jarraian olinpiar jokoetan.

Julen Etxeberria

Jada legenda baldin bazen, zer izango da orain bada Usain Bolt? Berritoki egin baitu. Berritoki irabazi ditu urrezko hiru domina olinpiar jokoetan ekitaldi bakarrean. Orain lau urte egin zuen lehen aldiz, Pekinen, 100, 200 metrokoetan eta 4x100 metro txandakakoan garaipena lortuta. Eta lau urte geroago, Londren, berritoki egin du, azkarrena izan da berritoki hiru proba horietan. Atzo, gainera, ginga jarri zion bere lanari, azken txandakako ikusgarria egin, Jamaikari garaipena eman eta munduko marka onduta (36,84). Ikusgarria.

Bi ekitaldi, eta sei urre patrikara. Jokoetan garaipen zerrenda onena duten atleten artean laugarrena da jada. Hiru bakarrik ditu aurretik: Paavo Nurmi finlandiarra —urrezko bederatziko domina eta zilarrezko hiru lortu zituen— eta Carl Lewis eta Ray Ewry estatubatuarrek —Lewisek urrezko bederatziko eta zilarrezko bat irabazi zituen, eta Ewryk urrezko zortzi—. Baina Boltek 25 urte besterik ez ditu —bederatziko egun barru egingo ditu 26—, eta badu oraindik aukera haren legenda, dagoneko handia dena, handitzen jarraitzeko. Rio de Janeiron (Brasil) izango du aukera horretarako, lau urte barru. Bere eskuetan, eta be-

reziki, bere hanketan eta buruan dago hori egitea.

### Farah-ren erakustaldia

Ostegunean gertatu zen. Boltek 200 metrokoan egindakoak itzalean utzi zuen David Rudisha kenyarrak 800 metrokoan emandako erakustaldia —urrezko domina irabazi zuen, eta munduko marka hobetu (1.40,91)—. Eta atzo berriz gertatu zen. Jamaikarraren jardunak distira pixka bat kendu zion Mo Farah-k 5.000 metrokoan egindakoari. Balentria egin zuen britainiarrek, jokoan historian beste sei atletek bakarrik egin dutena berdindu baitzuen: ekitaldi berean 5.000 eta 10.000 metrokoak

irabaztea. Vladimir Kuts errusiarrak, Emil Zatopek eta Lasse Viren finlandiarrek —bitan egin zuen Virenek—, eta Miruts Yifter, Kenenisa Bekele eta Tirunesh Dibaba etiopiarrek egin zuten aurretik.


Somalian jaiotako britainiarrek indar erakustaldia eman zuen. 10.000 metrokoan egin bezala, adi egon zen beti, eta bi itzuli falta zirenean jarri zen buruan, eta erritmoa azkartu, lasterketa hausteraino. Bazirudien ez zuela eutsiko, baina eutsi zion. Dejen Gebremeskel etiopiarra eta Thomas Pkemei Longosiwa kenyarrak helmugaratu ziren haren atzetik.

Ja oharkabean pasatu zen ere Allison Felixek egindako marka. AEBek 4x400 metro txandakakoa irabazi zuten, hura tardean zela. Felixek hiru urre irabazi ditu Londren, Boltek adina: 200 metrokoan, eta bi txandakakoetan lortu ditu. Errusia eta Jamaika saillatu ziren estatubatuarren atzetik.

Errusiarrak atzo ihes egin zion domina apurretako bat izan zen txandakako luzekoa. 50 kilometroko ibilketan, Sergei Kiridiapkin nagusitu zen, eta 20 kilometrokoan, Jelena Laxmanova eta Olga Kaniskina lehen eta bigarren izan ziren —munduko marka ondu zuen Laxmanovak (1.25,02)—. Gorako jautsian, urrea eta brontzea irabazi zuten errusiarrak, Anna Txitxerova eta Svetlana Xkolinarekin, eta beste horrenbeste egin zuten 800 metrokoan, Maria Savinova eta Ekaterina Poistogovarekin —bigarren izan zen Caster Semenya eta laugarren Pamela Jelimo—. Azkenik, xabalina jaurtiketan, Keshorn Walcott 19 urteko trinitartarrek eman zuten ezustekoa garaipena lortuta.

### Datua

■ Bi. Bi dira Londren urrezko hiru domina irabazi dituzten atletak: Usain Bolt jamaikarra eta Allyson Felix estatubatuarra.



Mo Farah, atzo, garaipena ospatzen. J.G. MABANGLO / EFE

Belar hockeyko Herbeheretako emakumezkoen selektzioak urrea irabazi zuen herenegun, finalean Arsentina mendea hartuta (2-0). Azken bost jokoen artean dirira podiumean herbeheretarrak bi urre, zilar bat eta bi brontze eskuratu dituzte. Gizonen taldeak gaur jokatu du finala, Alemaniarren aurka.



# Nor duzu gogoan?

**'The only one': bat eta bakarra. Ez da inoiz hain talde onik egingo berriro. 'Dream Team'-ak inoiz egin zezakeen oparia egin zion munduko saskibaloizaleei.**

## A. Urbistondo

**N**ola azaldu? Aukeratu edozein kirol diziplina. Gustukoena. Hautatu selekzio bat egiteko beharrezkoak diren jokariak. Onenak. Gustukoena. Eta gozatu haiek ikusten, entzuten. Horixe egin zuten Ameriketako Estatu Batuetan, eta 'Dream Team'-a sortu: Ametsako taldea. *Sports Illustrated* aldizkariak Jack McCallum kazetariak sortu zuen hitz-jokoa, aldizkari horrek AEBetako saskibaloizaleei Bartzelonako Olinpiar Jokoetan kantzaratuko zuen hasierako bostekoaren argazkia argitaratuta. Ez gelditu. Arnasarik ez hartu bost izenak irakurri arte: Earvin *Magic* Johnson, Michael Jordan, Charles Barkley, Karl Malone eta Patrick Ewing.

Sekulakoa, ezta? Hartu arnasaldi bat, eta irakurri 'ordezkoak'. Kakotx artean, esateko modua baita: John Stockton, Scottie Pippen, Chris Mullin, Larry Bird, David Robinson eta Clyde Drexler. 12. jokalaria, unibertsitateko izarra: Christian Laettner. *Bekaduna* deitzen zioten taldeko beste kideek. Jokalari horien talentua, indar neurgailua, honatx: hamar jokalaria NBAko historiako 50 jokalariren zerrendan daude gaur egun. Denak, Chris Mullin eta Christian Laettner izan ezik.

Hanka batekin irabazi zuten urrea Bartzelonan. Nola ez? Zortzi partida jokatu, denak irabazi. 44, 9 punturen aldearekin, batez beste. Angola, Kroazia, Alemania, Brasil eta Espainia menderatu zituzten lehen fasean. Puerto Rico final-laurdenetan, Lituania finalerdietan, eta Kroazia final handian. Han zen Toni Kukoc, garaiko Europako jokalaria onena.

Pasatu dira 20 urte. NBAko profesionalen Olinpiar Joko batzuetan parte hartzen zuten le-

## Datua.

■ **23** eraztun. Dream Team-ean zeuden jokalariek euren kirol ibilbidean irabazi zituzten tituluak. Jordanek eta Pippenek seina irabazi zituzten, Magic Johnsonek bost, Larry Bird-ek hiru, David Robinsonek bi, eta Clyde Drexlerrek bat.



Dream Team'-eko 12 jokariak, Chuck Daly entrenatzailea zenaren inguruan. BERRIA

hen aldia izan zen 1992a. Ondorengo Jokoetan ere profesionalen jokatu dute, baina Dream Team-aren ondorengo etorri diren guztiak kopia kaskarrak izan dira. Zuri beltzeak. Ez da jaio oraindik talde ikusgarri hura menderatuko duen selekzioirik. Ez AEBetan, ezta munduko beste inon ere. Jaioko denik ere ikusteko dago.

Londresen dauden jokalariek estatubatuarrek uko egiten diote

eztabaidari. «Gu AEBetako selekzioa gara, ez Dream Team-a. Kito». LeBron Jamesek esana. 1992ko taldeko kide batzuek hitz egin dute. Batek, batez ere. Jokalari zenean ere ahoberoa zen, eta orain, gehiago: Charles Barkley. «LeBron gora eta LeBron behera. Karl Malonek eta David Robinsonek harrapatu izan balute, galtzetan kaka egingo luke. Bi horiek James baino indartsuagoak

ziren, eta oso azkarrak». Hasi, eta ezin bukatu: «Oraingo taldea ikusi, eta ez dut inor ikusten Michael Jordan gelditzeko gai. Gure garaian ez zegoen inor, orain ere ez. Zer esan Magic eta Stocktoni buruz. Gu denok elkarrekin jarri, eta bizkorragoa zen Stockton».

11 jokalariren erreferentzia txiki batek baieztatzen du Dream Team hark ez daukala parekorik, eta alderaketa planteatze hutsa

eztabaida antzua dela. Michael Jordanekin hastea, onena: historiako jokalaririk onena, sei eraztun eta dozenaka sari. Magic Johnson, magia egilea, saskibaloiraikidean bost posiziotan jokatze gaitasuna izan duen bakarretakoa. Zer esan Larry Bird ilehoriari buruz? Ziurrenik historiako jokalaririk zuri onena.

### Izar konstelazioa

Utah Jazzeko bikoa ere ezin atzean utzi. John Stockton da, oraindik ere, NBAko historian asistentzia gehien eman duen jokalaria: 12 baino gehiago partidako. Karl Malone da historiako saskiratzaille onenetan bigarrena, eta, hegal piboten artean, Tim Duncanek bakarrik jar dezake auzitan onena zein izan den. Zer esan Charles Barkleyri buruz? 1,95 eskas zela, burua ateratzen zioten aurkariak txikitzen zituen egunero.

Nahi adina lore bota litezke, behin hasita. David Robinsonek NBAko gailurrera eramanez San Antonio, eta Patrick Ewingek ere ahaleginak eta bi egin zituen New York Knicksen. Ertzean geratu zen. Scottie Pippen funtsezkoa izan zen Chicago Bullsenei eraztunetan, Clyde Drexler Houstonen lortu zuen eraztun bakarrenean bezala. Eratzunik lortu ezinik geratu zen Chris Mullin, baina bere kirol ibilbidea partidako 22,4 puntu saskiratuta bukatu zuen.

Historiarako geratuko dira, era berean, Chuck Daly entrenatzailea zena. Milaka euro irabazten zituzten izarren berekoikeria maisuki kudeatzen asmatzeagatik, eta irabazi beharreko guztia irabazi zuten jokalaririk tenteak motibatzen asmatzeagatik. Historiarako geratuko dira Bartzelonan egin zituzten barrabaske-riak. Barkley goizaldeko ordu txikitari hiriko klubetan, kasinotako festak, Ambassador hotelean eurentzat gorde zituzten bi solairu oso.

Bartzelonara iritsi aurretik ere bai. Rainiero printzea zenarekin, Monakon, afari ofizial batean protokolora moldatzeko erakutsi zuten borondate eskasa, dopinaren aurkako kontrolak ez egiteko pribilegioa, eta Stocktonen anekdota polita, Bartzelonako ranbletan. Saskibaloirik zale bat Dream Team-aren kamisetarekin ikusi, jokalaririk jakin bat eza gutzen ote zuen galdetu, zaleak ezezkoa erantzun, eta parean zekala esan zion joko antolatzaille mitikoak.

Kantxan, jolasean ibiltzen ziren. Korrika hara eta hona, txikitzeak hemen, asistentzia dotoreak han... festa eta kirola, kirola eta festa. Bartzelonan ikusi ahal izan zituenarentzat, bizitza oso bateko oroitzapena. 20 urte geroago. Nor duzu gogoan? Nor ez? Denak ez, baina ia denak. Onenak ziren, dira, eta izanen dira.

# Nor izango duzu?



Londresen lehiatzen ari den AEBetako selekzioa. Blake Griffin agertzen da, ez dago taldean. BERRIA

## Kobe Bryant, Kevin Durant eta LeBron James. Hoiraino 2012ko AEBetako selekzioa izarrak. Gaur jokatuko dute finala, Espainiaren aurka (16:00).

### A. U.

**B**arak Obamak ere esan zuen: «Nahiago dut 1992. urteko taldea. Adin bertsukoak gara, eta, oraingo taldea gutxietsi gabe, hura talde hobea zela uste dut». Kobe Bryantek eta LeBron Jamesek ez dute gauza bera pentsatzen: «Jakina, haiek menderatzeko gai gara. Partida bakarera? Dudarik ez. Sei-zazpi partidako final batean ez dakit, baina partida bakarera bai». James aspertu samar agertu zen: «Inoiz ez dugu galdera horri erantzuteko modurik edukiko. Zer nahi duzue, galdu egingo genukeela esatea? Ba, ez dut esango. Garai leke petoa naiz, eta inoiz ez dut esango jokatuko aurretik galdu egingo dugula».

Larry Bird-ek eman zion umore puntua, Twitter sarean: «Guk galduko genuen, ziur. 20 urte zaharragoak gara, eta ez daukagu zereginik gazte horien aurka». Kobe Bryant oso ona da, LeBron James eta Kevin Durant ere bai, baina hortik aurrera zer? Ezer ez. AEBetako Lautada Handia bezala. Hasi Tenessen, eta Coloradon Mendi Harritsuak tentetzen hasien diren arte. Nor da Deron Williams Magic Johnsonen aldean? Nor Russell Westbrook eta James

Harden Michael Jordan edo Scottie Pippenen ondoan? Eta Melo Anthony Charles Barkleyren ondoan? Konparatzerik ez dute mezezi Kevin Love, Andre Iguodala, erretiratzen direnean inor ez baita haiekin gogoratuko. Ez dira 50 jokalaririk onenen zerrendan sartuko, inondik inora, eta nekez irabaziko dute eraztunen bat euren kirol ibilbidean.

Dream Team-ak inoiz ez luke estatusunik pasatuko parean jartzen zitzaion talde oro txikitzeko. Londresen ari den AEBetako selekzioak komerikak izan ditu Lituania eta Argentinarekin. Ikusizuna eman, ematen dute egungo jokalariek, baina herenegun Australiaren aurkako partida ikusi zuenak esango zuten: 'Bai joko itsusi eta zatarra, dena buruz buruko jokaldietan oinarritutakoa'. 1992ko Dream Team-amito bat izan zen, eta atzetik datozen selekzioek mito haren balentria itsustu baino ez dute egingo.

Pertsona bakar batek erantzun ahal izango luke jakituriaz, ze talde den hobea: 1992koa, edo 2012koa. Mike Krzyzewsky, Gaur 20 urte Chuck Daly handiaren laguntzaile lanak egin zituen. Entrenatzaile nagusia da egun. Berari galdetu behar litzaiok iritzi, baina diplomatikoa da oso, eta ez luke erantzun garbirik emango. Arrastoren bat eman du, halere, *Coach K*-k. Bartzelonan, Dream Team-ak ez zuen hutsarte bakar bat eskatu Olinpiar Joko guztietan. Londresen doze-na pasa eskatu behar izan ditu. Xehetasun bat baino ez da. Xehetasun garrantzitsua.

### Datua.

#### ■ Falta direnak.

Daudenak adina oihartzun mediatiko eragin dute, arrazoi bategatik edo besteagatik, Olinpiar Jokotan ez daudenek: Derrick Rose, Chris Bosh, Dwight Howard, Dwayne Wade... Horietakoa batzuek nahiago izan dute oporrak hartu, bi hilabete euren herriko selekzioarekin aritu baino.

**E**zta norbait jo banu ere, *jeseeeus!* Lanean ari naiz ni, *txikito*. Bi hankadunak gara denok, baina batzuen hankak luzeagoak dira, nonbait. Argentina-AEB saskibaloi partidaren zain, bi kazetari estatubatuar eseri zaizkit ondoan. Ez ziren kabitzten euren eserlekuetan, eta nire mahaiaren zati bana hartu dute, ezker-eskuin. «Sorry» eta «thanks» esaten nazkatu naiz azken hemeretzi egunetan, baina hauek ez dute ikasi oraindik. Ez dute halakorik esan, behintzat. Euskalduna izatea zer den... nik eskatu diet azkenean barkatzeko. Oraindik

## Hanka-luze pare



'Off the record'  
Unai Zubeldia

ere ez dakit zergatik, baina errespetua sortu didate, aizue.

Barkatuko didazue, baina «Yes, I'm Spanish» esan diet giroa lasaitzeko. Hasi zaitetz tamainan ez, baina ustez al-tuagoak eta indartsuagoak diren hauei Abaltzisketa eta Lazkaoemendi non dauden azaltzen. Baina, lasai, ez da berriz halakorik gertatuko. Irudikatu nauzue, ezta? Bi hankak elkarri pega-pega egin da nago, eta bi besaburuak gorputz enborra estututa. Egin proba, ez da oso erosoa zutabea horrela idaztea. Baina lortu dut.

Aurkezpenen garaia izan da, hala ere, gogorrena. Hamabi izar euren herrialdeko ereserkia entzuten, eskua bihotzean jarrita, eta ni eserita! Handia egin dut. Horrekin geratu naiz harrituta joko hauetan. Horrekin ere bai. Edozein kirolletan, ereserkiak entzundakoan, kazetariak euren ere zutik jartzen dira, errespetuz. Baina zintzo demonio lanean ari nintzen ni une horretan, eta eserita geratu naiz, bada... Ondoko kazetariak zer esan duten? Esan, ezer ez, baina begiratu ederra bota didate. Altxatu egin naiz, noski.

08

Seigarren uztaila



berria  
2012ko abuztuaren 12a

LARRY W. SMITH / EFE



## Luis Scola

Argentinako selekzioko saskibaloi jokalaria

**Gasteiz aldean oso kutuna da Luis Scola, urte bikainak eskaini zituelako argentinarrak bertan. Pekingo emaitza berdintzen saiatuko da gaur Argentinarekin.**

# «Oso oroitzapen onak dauzkat Gasteizko garaitik, zoragarriak»

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Kopeta aldeari begiratzea nahikoa da Luis Scolak (Floresta, Argentina, 1980) hizketarako gogo askorik ez daukala ulertzeko. Harritzekoa ere ez da. AEBen aurka egurra jaso berritan hitz egin du BERRIarekin, partida

### Aipatzekoa.

■ **Finalerako bidea.** Multzo zaila egokitu zitzaion Argentinari, eta hirugarren izan zen, AEB eta Frantziaren atzetik. Final-laurdenetan, Brasil kanporatu zuen, eta finalerdietan, AEBen aurka galdtu.

horretaz, gaur Errusiaren aurka jokatuko dutenaz (12:00), eta, noski, Gasteizi eta Baskoniari buruz. Kobe Bryant pasatu da haren atzetik galderak erantzuten ari zela, eta ukitu goxoa eman dio estatubatuarrek bizkarrean. «Congratulations!» erantzun dio argentinarrak. Nahikoa lan badu Bryantek berak AEBetako kazetari guztien galderak erantzuten.

### Kolpe handi samarra hartu duzue azkenean: 83-109. Nola bizi izan duzue partida?

Gure lehenengo zatia ez da txarra izan. Multzoen fasean 60 puntu sartu zizkiguten lehen zatian, eta gehiegizkoa da hori. Baina gaur [herenegun] lan hobea egin dugu, eta hobeto sentitu gara. 25 minutu on egin ditugu, eta hamabost minutu falta zirela partidaren sartuta geunden oraindik. Baina oso zaila da AEBen aurka jokatzeko. Lehen zatiko joko hori eginda, hala ere, brontzeko domina irabazteko gai izango garela uste dut.

### Errusia edukiko duzue parean.

%50ean dago partida. Talde ona daukate haiek, txapelketa ona egin dute, baina guk ere bai. Kolpe hau barneratzen jakin behar dugu. Egun bat daukagu indarrak hartzeko, eta partida bakarrean egongo da dena jokoan. Ondoren berrindartzen denak abantaila izango du.

### Atenasen, urrea; Pekinen, brontzea; eta Londresen? Handia litzateke brontze hori errepikatzea...

Dominaren bila etorri ginen Londresera. Urrea eskuratzeko borrokan aritu gara, eta brontzeari begiratzen diogu orain. Ametsa litzateke guretzat bigarren brontzeko domina eskuratzeko. **Gasteiz aldean asko gogoratzen dira oraindik zurekin. Egunen batean itzuliko zarela pentsatuz, ametsetan jarraitzen utziko diegu?**

Ahal dudan urte guztietan NBA jokatzeko gustatuko litzaidake, baina inoiz ezin da jakin. Oso oroitzapen onak dauzkat Gasteizko garaitik, zoragarriak. Baina ikusiko dugu.

### Baskoniako zale guztiei mezu txiki bat bidaltzeko eskatuz gero?

Besarkada handi bat denentzat. Ahal dudan guztietan joaten naiz

hara, eta, une honetan, hantxe dago nire familia. Oso oroitzapen politak dauzkat, benetan. Leku zoragarria da bizitzeko.

### Nola bizitzen arizara NBAko taldealdaketa? Houston Rockets utzi eta Phoenix Suns enariko zara denboraldi honetan.

Burua Argentinako selekzioko edukitzen saiatu naiz egunotan, eta Olinpiar Jokoak amaituta, hurrengo astean hasiko naiz sar-

### «Ametsa litzateke guretzat bigarren brontzeko domina eskuratzeko»

### «Jokoak amaituta hasiko naiz sartzen, pixkanaka, talde berriaren egituran»

tzen, pixkanaka-pixkanaka, talde berriaren egitura eta egunerokoan.

### Esperientzia handia daukazu jada mundu honetan, baina zer dira Olinpiar Jokoak Luis Scolarentzat?

Kirolari batek lehiatu dezakeen punturik gorena da hau. Norberak bere lana egin dezakeen lekurik ederrena.

### Idoloek ere idoloak izango dituzte, noski.

[Barrez] Bai... Zoriontasun handiarekin ari naiz bizitzen Olinpiar Joko hauek. Ohore eta plazer handia da hemen egon ahal izatea.

### Espainia-AEB finalean. Aurreikuspenik egin daiteke?

Final batean edozer gauza gerta daiteke, baina AEBena da Olinpiar Joko hauetako selekziarik onena; Espainia baino hobea da. Bi aldiz galdtu dugu guk haien aurka, eta zer esango dizut, ba. AEB da favoritua.

Bilbon kirol guztietarako lekua dago

en Bilbao hay sitio para todos los deportes

Bilbao Kirolak  
www.bilbaokirolak.com



**K**iolaren historiako orrialde ilunetako batzuk idatzi ziren Alemaniako Errepublikan Demokratikoan (AED). Kiro-la propaganda objektu bilakatu eta estatu dopin-sistema sortu zuten emaitzak hobetzeko. Hormonak ziren gakoa, eta esteroide propioa sortu zuten: pilula urdinak. Emakumezko atleta batek, urtean, Ben Johnsonen Seulen positibo eman zuenean halako hiru testosterona har zezakeen. Gerora etorri ziren minbizi gaixo ugariak, mutaturiko ugalketa organoak eta, kasu batzuetan, sexu aldaketak.

## Bat gutxiago



'Betweenland'  
Imanol Magro

Hamazazpi milioi biztanleko herrialde hark 400 dominatit gora lortu zituen bost Olinpiar Jokotan, baita 1984koei boikota eginda ere. Bostetatik hirutan bigarren izan zen dominategian. Harri-garria baino gehiago, beldurgarria. Gero, esteroideen erabilera AEBetara eta Europako ekialdeko beste herrialde bezuetara hedatu zen. Garai haietatik gelditzen direnak izutzeko moduko testigantzak eta errekorak dira. Tira, bat gutxiago orain, herenegun AEBetako emakumezkoen 4x100eko taldeak 1985eko AEDekoari errekorra kendu ziolako.

Madison, Felix, Knight eta Jeter laukoak 40.82ko marka egin zuten, eta orain AEDetako atletek gizakiago dirudite. Hor diraute, baina, oraindik, disko jaurtiketako markek, Marita Kochen 400 metrokoak, eta Jamila Kratochvilova txekiarraren 800 metroko 1.53.28 beldurgarriak —1983an lortua—. Baita Florence Griffithen 100 metroko biak ere. Gizakiaren irabazteko grina zer-nolakoa izan daitekeen erakusten duten markak dira, eta orain bat gutxiago gelditzen da, ustez lege onean lorturikoa. Atzo bezala, mamuak berriz.

berria  
2012ko abuztuaren 12a



Kronika

09

# Loreak mundu hobe baterako

**'Guerrilla Gardening' da landareak edozein lursail publikotan landatzea. Londresen egin zen ezagun, eta legez kanpoko den arren, bultzatzaileak olinpiar suzia eraman du aurten.**



Richard Reynolds Guerrilla lorezaintza-ekintza batean. R. R.

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

**L**oreen iraultza da. *Guerrilla Gardening* esaten zaion mugimendua indarra hartzen ari da Britainia Handian eta munduko hainbat txokotan. Utzitako lursail publikoetan loreak landatzea da. Okupazio koloretua da, eta edozein sailek balio du: parkeak, errepide bazterreko sail txikiak, zuhaitzen bat egondako hirietako lur ataltxoak... «Ez dakit zenbat jendek egiten duen. Ziur Guerrilla lorezain asko daudela, baina adibidez, nire webgunean 60.000 sinaduratik gora jaso ditut, eta Facebooken talde asko daude». Richard Reynoldsen azalpena da, mugimendua «kanalizatu» duen londrestarrena.

Kasualitatez hasi zen bera, 2004an. «Lorezain frustratua nintzen, eta ez nuen lurrik. Hala, nire auzoko lorategietan landatzen hasi nintzen, eta blogean idatzi nuen. Hala, harremanetan jarri nintzen beste Guerrilla lorezain batzuekin». Hemezortzi hilabate pasatu ziren hedabideetan sona hartu zuen arte. Sei urte geroago, ezagun bilakatu da, liburu bat idatzi du, eta egun Hego Koreara joana da hitzaldi bat ematera.

Zergatik, baina? Zergatik loreak landatu? Protesta modu bat al da? Reynolds ek azaltzen duenez, motibazio ugari daude. «Ideia simplea da: mugarik gabeko lorezaintza, baimenik ez izan arren. Arrazoiak asko daude: ongizate nahia, jana lortzea, lorezaintzaren plazera, sozializatzea, gaiztakerian jardutea, probokatzea... Denetarik dago».

**Aipatzekoa**  
■ **Munduan.** Sei urtean munduan barrera zabaldu den fenomeno da. Ez ingalateran bakarrik; antolatutako taldeak herrialde askotan daude: Suedian, Espainian, Italian, Hego Korean... Ekitaldi ugari antolatzen dituzte. Reynolds-en bloga da haien ziberelkarketa gunea: [www.guerrillagardening.org](http://www.guerrillagardening.org).

Guerrillak, baina, arazo bat du; delitua da: «Horregatik da Guerrilla. Teknikoki delitua da, zuk sail bati kaltea eragiten omen diotzulako. Behin baino gehiagotan atxilotua izateko zorian egon naiz». Hala eta guztiz ere, aurten Olinpiar Jokotako suzia eman du. Antolatzaileek euren auzotan lan eredugarria eginiko jendea nahi zuten lekuko ematen, eta Reynolds aukeratu zuten, haren jarduerak legez kanpokoak izan arren. «Nire anaia bizkiak proposatu ninduen. Nire auzoko udalak —eurek antolatzen zuten ibilbidea— ni hautatu nindutela jakin zuenean antolatzaileek nire adierazpenekin eginiko bideoan Youtuben geroago jar zedin saiatu ziren. Southwarkeko Udalaren utzikariarengatik ez balitz, ni ez nintzateke inoiz gerrillari bilakatu izango!».

Azken hilabeteetan, bide bazterretako loregintzarekin dabil. Trafiko seinaleen azpian, biribilguneetan... «Arriskutsua da lorezaintzaileentzat, edozeinek pentsa dezakeelko zerbait txarra egiten ari direla. Hortan ari naiz buru-belarri. Gehiago jakin nahi duenak nire bloga bisita dezala, erraz aurkituko du Googlen».

Eta jokoei buruz? Ze iritzi duzu? «Olinpiar gunea eraikitzeke bota behar dituzten etxe batzuen aurkako protestei babesa eman diet. Baina tira, gauza positiboak ikusten saiatzen naiz: nazioan izan dezakeen eragina. Dena den, oraindik ez dut ulertzen zaldiketa eta halako kirolak nola jarrai dezaketen Olinpiar Jokotan. Nire ustez, parte hartzeke diru asko behar ez den ekintza gehiago sustatu beharko litzukete».



**Aupa Mikel eta Ainhoa!**





## Finalak

12:00. Atletismoa. Maratoia (G).

14:00. Boleibola. Errusia / Brasil (G).

14:00. Boxeo. 52 kiloz azpikoa (G).

14:30. Txirindularitza. Mendiko bizikleta (G).

14:45. Boxeo. 60 kiloz azpikoa (G).

15:03. Borroka. 66 kiloz azpikoa (G).

15:15. Boxeo. 69 kiloz azpikoa (G).

15:16. Gimnastika erritmikoa. Talde-kakoa (E).

15:45. Boxeo. 81 kiloz azpikoa (G).

15:48. Borroka. 96 kiloz azpikoa (G).

16:00. Eskubaloia. Suedia / Frantzia (G).

16:00. Saskibaloia. AEB / Espainia (G).

15:45. Boxeo. 91 kilotik gorakoa (G).

16:50. Waterpolo. Kroazia / Italia (G).

19:00. Pentatloi moderno. Emakumezkoa.

## Telebistak

11:45. TVE1. 15:00ak arte zuzene-

an, eta gero 16:00etatik 02:00etara.

06:00. Teledeporte. 10:25ak arte laborpenak, eta ondoren zuzenean, 21:00ak arte.

11:45. France2. 13:00ak arte zuzenean, eta gero 14:55etik 20:00etara.

09:00. France3. 12:00ak arte zuzenean, eta gero 12:55etik 14:55era.

## Atletismoa

■ 20 KILOMETRO IBILKETA (E)

→ Dominak

- E. Laxmanova (Errusia)
- O. Kaniskina (Errusia)
- S. Quieyang (Txina)

■ 5.000 METROKOA (G)

→ Dominak

- M. Farah (Britainia Handia)
- D. Gebremeskel (Etiopia)
- T. Longosiwa (Kenya)

■ 800 METROKOA (E)

→ Dominak

- M. Savinova (Errusia)
- C. Semanya (Hegoafrika)
- E. Poistogova (Errusia)

■ GORAKO JAUZIA (E)

→ Dominak

- A. Txixerova (Errusia)
- B. Barrett (AEB)
- S. Xkolina (Errusia)

■ 4X400 METROKOA (E)

→ Dominak

- AEB
- Errusia
- Jamaika

■ 4X100 METROKOA (G)

→ Dominak

- Jamaika
- AEB
- Trinidad eta Tobago

■ XABALINA JAURTIKETA (G)

→ Dominak

- K. Walcott (Trinidad-Tobago)
- O. Pitnitsia (Ukraina)
- A. Ruuskanen (Finlandia)

## Piraguisoa

■ K-1. 200 METROKOA (G)

→ Dominak

- Ed McKeever (Britainia Handia)
- Saul Cravotto (Espainia)
- Mark de Jonge (Kanada)

■ C-1. 200 METROKOA (G)

→ Dominak

- Juri Txeban (Ukraina)
- Jeugeni Xuklin (Lituania)
- Ivan Xtli (Errusia)

■ K-1. 200 METROKOA (E)

→ Dominak

- Lisa Carrington (Australia)
- Inna Osipenko-Radomska (Uk.)
- Natasa Doutxev-Janics (Hun.)

■ K-2. 200 METROKOA (G)

→ Dominak

- Postrigal-Dlatxenko (Errus.)
- Piatrxenka-Makhneu (Biel.)
- Heath-Schofield (B. Handia)

## Gimnastika errit.

■ BANAKAKOA (E)

→ Dominak

- Eugenia Kanaeva (Errusia)
- Daria Dmitrieva (Errusia)
- Liubov Txarkaxina (Bielorusia)

## Pentatloi moder.

■ BANAKAKOA

→ Dominak

- D. Svoboda (Txekiar Errep.)
- Z. Cao (Txina)
- A. Marosi (Italia)

## Boxeo

■ 49 KILOZ AZPIKOA (E)

→ Dominak

- S. Zou (Txina)
- K. Pongprayoon (Tailandia)
- P. Barnes (Irlanda)
- A. Airapeti (Errusia)

■ 56 KILOZ AZPIKOA (G)

→ Dominak

- L. Campbell (Britainia Handia)
- J. Nevin (Irlanda)
- S. Shmizu (Japonia)
- A. Alvarez (Kuba)

## Borroka librea

■ 60 KILOZ AZPIKOA (G)

→ Dominak

- T. Aşgarov (Azerbaijan)
- B. Kudukov (Errusia)
- C. Scott (AEB)
- Y. Dutt (India)

■ 84 KILOZ AZPIKOA (G)

→ Dominak

- S. Sharifov (Azerbaijan)
- J. Espinal (Puerto Rico)
- H. Marsagis (Georgia)
- E. Lashgari (Iran)

■ 120 KILOZ AZPIKOA (G)

→ Dominak

- A. Taimazov (Uzbekistan)
- D. Modzmanavili (Georgia)
- K. Ghasemi (Iran)
- B. Mahov (Errusia)

## Txirindularitza

■ MENDIKO BIZIKLETA (E)

→ Dominak

- Julie Bresset (Frantzia)
- Sabine Spitz (Alemania)
- Georgia Gould (AEB)

## Bela

■ ELLIOTT 6 METROKOA (E)

→ Dominak

- Espainia
- Australia
- Finlandia

## ← Emaitzak

## ← Dominak

Oharra: Atzo 22:30etatik aurrera jokatu ziren finalak kontuan hartu gabe.

Herraldea	Urr.	Zil.	Bro.	G.	Herraldea	Urr.	Zil.	Bro.	G.
1. AEB	42	29	29	100	40. Eslovenia	1	1	2	4
2. Txina	38	26	21	85	43. Norvegia	1	1	1	3
3. Britainia Handia	28	15	18	61	43. Tunisia	1	1	1	3
4. Errusia	21	25	31	77	45. Dominikar Errepub.	1	1	0	2
5. Hego Korea	13	7	7	27	46. Uzbekistan	1	0	3	4
6. Alemania	10	19	14	43	46. Trinidad eta Tobago	1	0	3	4
7. Frantzia	10	9	12	31	48. Letonia	1	0	1	2
8. Hungaria	8	4	5	17	49. Algeria	1	0	0	1
9. Australia	7	16	12	35	49. Bahamak	1	0	0	1
10. Italia	7	6	8	21	49. Grenada	1	0	0	1
11. Herbehereak	6	5	8	19	49. Venezuela	1	0	0	1
12. Kazakhstan	6	0	4	10	53. Tailandia	0	2	1	3
13. Japonia	5	14	17	36	54. Egipto	0	2	0	2
14. Zeelanda Berria	5	3	5	13	55. India	0	1	4	5
15. Iran	4	5	3	12	56. Mongolia	0	1	3	4
16. Jamaika	4	4	4	12	56. Eslovakia	0	1	3	4
17. Ukraina	4	3	9	16	58. Armenia	0	1	2	3
18. Ipar Korea	4	0	2	6	58. Belgika	0	1	2	3
19. Espainia	3	9	4	16	58. Finlandia	0	1	2	3
20. Bielorrusia	3	4	5	12	61. Bulgaria	0	1	1	2
21. Brasil	3	3	8	14	61. Estonia	0	1	1	2
22. Kuba	3	3	4	10	61. Indonesia	0	1	1	2
23. Txekiar Errepublika	3	3	3	9	61. Malaisi	0	1	1	2
24. Hegoafrika	3	2	1	6	61. Puerto Rico	0	1	1	2
25. Etiopia	3	1	3	7	61. Taipei	0	1	1	2
26. Errumania	2	5	2	9	68. Botswana	0	1	0	1
26. Danimarka	2	4	3	9	68. Zipe	0	1	0	1
28. Kenya	2	3	4	9	68. Guatemala	0	1	0	1
29. Polonia	2	2	6	10	68. Portugal	0	1	0	1
30. Azerbaijan	2	2	5	9	72. Grezia	0	0	2	2
31. Turkia	2	2	1	5	72. Moldavia	0	0	2	2
32. Kroazia	2	1	1	4	72. Qatar	0	0	2	2
33. Suitza	2	1	0	3	72. Singapur	0	0	2	2
34. Kanada	1	5	12	18	76. Afganistan	0	0	1	1
35. Kolonbia	1	3	4	8	76. Bahrain	0	0	1	1
36. Suedia	1	3	3	7	76. Hong Kong	0	0	1	1
37. Georgia	1	3	2	6	76. Saudi Arabia	0	0	1	1
37. Mexiko	1	3	2	6	76. Kuwait	0	0	1	1
39. Irlanda	1	1	3	5	76. Maroko	0	0	1	1
40. Argentina	1	1	2	4	76. Tajikistan	0	0	1	1
40. Lituania	1	1	2	4					



"Gipuzkoa gure kirolariekin"

Urrezko marinel bilakatu ziren Xabier Fernandez (Ibarra, Gipuzkoa, 1976) eta Iker Martinez (Donostia, 1977) 2004. urteko Atenasko Olinpiar Jokoetan. Garaile izan ziren belan, 49er klasean. Sekulako garaipena izan zen haientzat, are gehiago kontuan hartuta aurreko bi urteak bereziki gogorak izan zirela eskual kirolarientzat.

2002. urtean goia jo zuten bi marinelek, Munduko eta Europako txapelketak irabazi baitzituzten Martinezek eta Fernandezek. Atenaserainoko bidea, ordea, aldapan gora jarri zitzairen, lesioek gogor

## Atzera begira

→ 2004

### Iker Martinez, Xabi Fernandez

Xabier Fernandez eta Iker Martinez marinelek urrezko domina lortu zuten 2004ko Atenasko Jokoetan. **BERRIA**



jo zituztelako bi kirolariak. Lesio horien zama, hala ere, gainetik kendu zuten Olinpiar Jokoetan, eta urrezko domina lepotik zintzilikatzea lortu zuten, lan bikaina eginez.

Marinelen lan horrek izan zuen segida, eta Pekingo Olinpiar Jokoetan ere podiumean egon ziren Martinez eta Fernandez. 2008 hartan, zilarezko domina eskuratu zuten.

Aurten, Londresen, zortea ez dute alde izan bi kirolariek, eta ezin izan dira 49er klaseko dominak eskuratzeko lehian sartu. → **Edurne Elizondo**

berria  
2012ko abuztuaren 12a



Olinpiar oroitzapenak → Miren Leon

11

# Pozik, harro eta diplomarekin

Edurne Elizondo Iruñea

Olinpiar Jokoek irauten duten denbora telebistari so pasatzen duten horietakoa da Miren Leon (Iruñea, 1975). Atletismoa gustuko du, baina, batez ere, judo borrokei erreparatzen die. Ezin bertzela izan, bizitza osoa judoaren munduan murgilduta eman duela kontuan hartuta. Entrenatzaile da orain, baina tamaira lehiatzen igotzen zen garaia, oraindik ere, emozio biziz gogoratzen du nafarrak. Leonen oroitzapenen artean, noski, toki berezia dute Sydneyko 2000. urteko Olinpiar Jokoek. Orduko haietan, Leonen borrokekin gozatu ahal izan zuten Olinpiar Jokoek irauten duten denbora telebistari so pasatzen duten horiek. Olinpiar kirolari bilakatu zen judoka 2000. urte hartan, eta diplomarekin itzuli zen etxera, zazpigarren sailkatu baitzen bere kategorian (52 kiloz azpikoena).

Iruñeko Arrotxapea auzoko bere kiroldegian dauka diploma judoka ohiak, Leon kiroldegian, paretan zintzilikatuta. Olinpiar Jokoek eman zioten saririk garrantzitsuena, hala ere, ez da hori. «Nik argi nuen gozatzen joan nahi nuela; ongi pasatu nahi nuen, eta esperientzia polit bat bizi; hori lortu nuen, eta horixe izan zen saririk ederrena», nabarmendu du.

Malkoak ageri zaizkio begietan hasiera ekitaldiko desfilea gogoratzen duenean. «Besta handi bat zen hura; kirolari guztiak elkarrekin ginen, sekulako besta giroan, eta gero estadiora sartu, eta milaka eta milaka pertsonaren txalok jaso genituen. Biziki hunkigarria izan zen».

Une horrek garrantzi berezia izan zuen Leonentzat, Olinpiar Jokoetan aritu ahal izateko gogor egin zuelako borroka. «2000. urte hura hagitz gogorra izan zen». Zazpi lehiaketatan parte hartu behar izan zuen, munduko onenekin batera. «Europako bost onenen artean gelditu behar nuen Jokoetara joateko txartela eskuratzeko. Herbehereetan



Miren Leon, Kenji Uematsurekin entrenatzen, Sydneyko Olinpiar Jokoetan. **GORKA ZABALETA**

## Miren Leon judoka ohi nafarra zazpigarren sailkatu zen Sydneyko 2000. urteko Olinpiar Jokoetan. Esperientzia biziki gozatu zuela nabarmendu du, bereziki, kirolariak.

jokatu zen azkena. Banekien finalerako sailkatuz gero Sydneyn egon nintzela. Eta lortu nuen. Une hartan sentitu nuen emozioa sekulakoa izan zen. Ametsa bete nuen».

### Txapeldunaren aurka

Sydneyra ailegatu arte, hala ere, Leon ez zen erabat jabetu lortutakoaz. Han, tamaira igo zen lehen-dabiziko aldian, ametsa benetan eskuko hatzekin ukitzen ahal zuela sentitu zuen. «Jende pila zegoen; ez nintzen ohitua, judo ikustera normalean ez baita jende anitz etortzen. Hori ere zirrara-garria izan zen».

Legan Verdecia kubatarra izan zuen lehen aurkari. Gerora, urrezko domina lepotik zintzili-



Jende pila zegoen; ez nintzen ohitua, judo ikustera normalean ez da jende anitz etortzen eta»

**MIREN LEON**  
Judoka ohi

### Laburrean

■ **Agur lehiaketari.** Espainiako Txapelketan agur erran zion Miren Leonek lehiaketari, 2008. urtean. 2005ean, hanka hautsi zuen, baina lesioa gaintzea lortu zuen. Tatamian erran nahi zuen agur kirolariak. 2009an, alaba izan zuen

■ **Entrenatzaile.** Bere kiroldegian haurren entrenatzaile da orain Miren Leon. Nafarroako Judo Federazioarekin ere aritzen da. Harrobia ona dela nabarmendu du, judoak baduela zale-tasun handia Nafarroan.

katu zuen kirolaria, alegia. «Borroka hagitz ongi prestatu nuen, eta markagailuan aurretik jarri nintzen hasieran. Baina galdu egin nuen azkenean. Ezin nuen sinetsi Verdecia menperatzeko gai nintzenik».

Jokoetara joateko egindako lan psikologikoa nabarmendu du Leonek. «Lehian bakarrik ari zarenean, garaipenak zureak dira bakarrik, baina porrotak ere bai. Ez da erraza presioari aurre egitea».

Ongi moldatu zela uste du judoka ohiak, hala ere. Eta lortu zuela helburu nagusia: gozatzea. «Bigarren borrokan, Carolina Marianin argentinarra izan nuen aurkari. Hagitz ona zen, Munduko txapeldunordea, baina irabazi egin nion». Olinpiar Jokoetan borroka bat irabazteak duen garrantziaz gerora jabetu da gehiago Leon.

Herbehereetako Deborah Gravenstijnek utzi zuen brontzea irabazteko lehiatik at Leon. «Borroka gogorra izan zen. Baina harro bukatu nuen lehiaketa. Hagitz kontent. Ez dut sekula ahaztuko Jokoetan bizi izandakoa».

**B**rontzeko domina: Oscar Pistorius, Olinpiar Jokoen historian hanketan protesiak dituen lehenengo atletaren tzat. Gogor lan egin ezkeronahi duzun hori lor dezakezula frogatuz denoi eman digun erakustaldiarengatik, izen handien itzalean estadio guztia zutik jartzea lortu duelako. Eta, batez ere, domina hau ematen diot, berak hainbestetan aipatu duen leloarengatik: «batez da ezindua dauzkan ezintasunengatik, bai zik gai da dauzkan ahalmenengatik».

Zilarrezko domina: Sarah Attar, Olinpiar Jokoen historian lehenengo aldiz Saudi Arabia ordezkatu duen emaku-

## Nire podiuma



'London calling'  
Garazi Goia

mezkoa izateagatik. Ez dago beste atleten neurrian, baina sinbolo bat bihurtu da emakumezkoen eskubideen borrokan. Hala ere, oraindik egiteko asko dago: Saudi Arabiako prentsak eta hedabideek entzungor egin diote, irekiera ekitaldian gizezkoen atzetik joan behar izan zuten, «Olinpiar Jokotako emagalduek» kanpaina hasi dute Twitterren Saudi Arabian. Baina, lehenengoa izatean, pauso garrantzitsu bat eman du oraindik emakumei oinarriko eskubideak ukatzen zaizkien lurralde batean.

Urrezko domina: Usain Bolt, 100 eta 200 metrotako lasterketetan elkarren

segidako bi Olinpiar Jokotan urrea irabazteagatik. Ez dago zalantzarik, jokotako pertsonaia famatuena izan da. Denok geunden haren zain, erantzungo ote zuten zain. Eta, 200 metrotako finalean behatza ezpainetan bermatuz esan zien isiltzeko bera zalantza egin zuten guztiei. Eta, horrez gain, nire podium partikularren gorenean dago, momentu honetan menderaezina izateagatik, hark bere inguruan sortu duen pertsonaiarengatik, bere bromengatik, mundu osoan zehar futbolariak ez zuten biek atzo, eta Hego Koreataren aurrean biltzeagatik. Finean, Bolt izateagatik.

**berria**  
2012ko abuztuaren 12a

# Azkena →



**↑ Kolpearen indarra.** Eman zion ederra Hee-Jin Kim hegokorearrak baloiari, ileak tankera horretan gelditzeraino eman. Japoniaren kontra jokatu zuen atzo, brontzeko domina lortzeko partida. Grinaz eta indarrez saiatu ziren hegokorearrak, baina japoniarrentzat izan zen brontzea emakumezkoen boleibolean. Jokoen historian lortzen duten seigarren domina da hori. Urrezkoak dituzte bi, zilarrezkoak bi eta brontzekoak beste bi. **G. CADDICK / EFE**

## berriaTB

**Bihar (12:00). Aurkezpena.**  
→ **Prentsaren begiratua.**  
→ **Londrestik zuzenean.**  
Unai Zubeldia eta Imanol Magro.  
→ **'Thamez' atala.** Danel Agirre Berlindik.  
→ **Gonbidatuak.** Maialen Chourraut eta Ander Elosegue piraguistak. Brontzea lortu du bata; diploma, bestea.  
→ **Tertulia.** Julen Etxeberria eta Enekoitz Telleria.  
→ **Eguneko kantua.**

## → Laburrak



**← Istripua**  
**BELA** Elliott modalitytean Espainia eta Australia aritu ziren atzo lehian. Une batez, elkarjoro egin zuten, eta belarik gabe gelditu ziren australiarrak. Espainiak irabazi zuen urrea.

### TASek ez du aintzat hartu Suediaren helegitea

**TRIATLOIA** Kirol Arbitratze Epaitegiak (TAS) ez du aintzat hartu Suediako Olinpiar Batzordeak egindako eskaera, eta bere horretan geldituko dira emakumezkoen triatloiko dominak. Lisa Norden triatloilari eman zioten zilarrezko dominaren ordez urrezkoa emateko eskatu zuten Suediak, helmugan ateratako argazkiak Nicola Spirig suitzarrarekin batera iritsi zela erakusten duela argudiatuta. TASeko epaileak atzo ikusi zuten berrito argazkia, eta aldaketarik ez egitea ebatzi zuten.

### Park hegokorearrak Dokdoren alde egin du

**FUTBOLA** Tentsio diplomatiko handia sortu da azken orduetan Japoniaren eta Hego Korearen artean Hego Koreako presidente Le Myung-bak Dokdo uharteetan izan delako, haren jabetza aldarrikatuz. Jong-woo Park futbolariak ez zuen atzo aukera alferrik galdu eta Japoniaren kontra jokatuako partidaren ostean *Dokdo gure lurraldea da* zioen pankarta ateratu zuen. Hirugarren postua erabakitzeko partida jokatu zuten biek atzo, eta Hego Koreak irabazi zuen (2-0).

**A**maierari beste kutsu bat ematea zen asmoa. Poetikoagoa, koloretzuagoa. Edo horretan saiatzea, behintzat. Idaztea Copacabanan eta Ipaneman olatuek ez dutela kresal usainik sortzen airean; samba eta bossa nova doinuz lehertzen direla. Idaztea Copacabanan eta Ipaneman olatuek ez dutela bitsik sortzen hondarretan; cachaça eta caipirinha zukutan desegiten direla. Idaztea...

Baina alferrik da hangoari hemendik heltzea. Hangoari buruz hitz egin dezatela hangoek. Hitz egin dezala poetak. Hitz egin dezala Vinicius de Moraesek.

## Arratsalde pasa Itapoan



**'Citius, altius, fortius'**  
Enekoitz Telleria

Buenos Airesen grabatu zuten disko hura, 1970ean, La Fusa estudioetan. Vinicius de Moraes poeta eta musikariak, Toquinho haren lagun banezinak eta haren gitarrak, eta Maria Bethaniaren ahotsak. Har litezke handik Brasili buruzko erreferentziak nahi adina, hangoaz busti, blai egiteraino. Baina bada ale bat bereziki ongi islatzen duena hango pentsaera eta jarduna. *Tarde em Itapoadu* izena abestiak. Ederra da, baina are ederragoa Viniciusek egiten dio sarrera. Abestiaren jatorriari bu-

ruz hasten da, Itapoan egindako arratsalde pasa bati buruz, zer asma zeuden batean «*una tarde de total vagabundaje*» sortu zutela «*chupando una cachaca, a veces bebiendo un agua de coco*». Umorez ari da, baina pentsakor jartzen da hurrena: «*Y despues, con la mirada perdida en el encuentro de cielo y mar, bien despacito, parece que sentimos toda la tierra rodar...*».

*Citius, mais veloz* esaten da han; *altius, mais alto*; eta *fortius, mais forte*. Zutaberako izenburua badaukat. Kreditazioa falta.

02

**Euskal kirolariak** → Euskal kirolariak hiru brontze eta sei olimpiar diploma eskuratu dituzte.

03

**Jokoetako izarrak** → Bolt, Phelps, Felix, Kanaeva...

04

Londresen nabarmendu diren kirolarien argazki bilduma.

05

06

**Izenak eta ezinak** → Handiak izan dira batzuek egindako balentriak, baina baita egindako hanka sartzeak ere.

07



london



berria

2012ko abuztuaren 14a

# Besoak zabal-zabal

Amaitu dira Jokoak Londresen, eta Rio de Janeirok hartu du lekukoa, brasildarren erara, besoak-zabal-zabal, eta pasioz.

Lau urte baino gutxiago falta dira. Hasi da atzerako kontua.



2016ko Rio de Janeiroko Jokoan irudia, herenegun, Londresko Jokoan amaiera ekitaldian. MICHAEL KAPPELER / EFE



# Itzal gehiegirekin



Maidar Unda, amorrubiz oihuka, brontzea eskuratu ondoren. J. BRADY / EFE

## Euskal kirolariak brontzezko hiru domina eta sei olinpiar diploma eskuratu dituzte Londresko Olinpiar Jokoetan.

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

**F**utboleko Espainiako selekzioa —Iker Muniain, Javi Martinez, Ander Herrera, Cesar Azpilikueta eta Iñigo Martinez tartean zirela—, Xabi Fernandez eta Iker Martinez, eta Leire Olaberria. Hiru apustu horiek seguru samarrak zirela zirudien Londresko Olinpiar Jokoak hasi aurretik. Baina hirurek huts egin dute; eta nola, gainera! Hor geratu dira herren euskal kirolariak, ustez indar handiena zegoen diziplinetan. Baina izar berriak agertu dira indarrean: Maidar Unda, Maialen Chourraut eta eskubaloiko Espainiako selekzioa, emakumezkoena (Eli Pinedo, Andrea Barno, Nely Carla, Patricia Elorza eta Jorge Dueñas). Hortxe euskal kirolarien brontzezko hiru dominak.

Olinpiar diplomak, berriz, sei izan dira: Ander Elosegik, piraguismoan (laugarren); Sugo Uriarte, judoan (bosgarren); Pablo Carrerak, olinpiar tiroan (seigarren); Ophelie Aspordek, urirekietako hamar kilometrokoan (seigarren); Ainhoa Muruak, triatloman (zazpigarren); eta eskubaloiko Espainiako selekzioak, Julen Aginagalde, Mikel Arrizabalaga eta Eduardo Gurbindo tartean zirela (final-laurdeneren). Orain dela lau urte Pekinen lortutakoa kontuan hartuta —zilarrezko domina bat, brontzezko bi, eta zortzi diploma—, koska bat behera egin dute euskal kirolariak, itzalean geratu direlako ustez izar handienak zirenak. 31 euskal kirolarietatik hamabost itzuli dira dominaren batekin edo olinpiar diplomarekin, eta hamasei geratu dira esku-hutsik. Onetik eta txarretik, denetik izan da Londresen.

**Maidar Unda.** Harrigarria arabarrak eman zuten maila. Konfiantza handia eman zion Burmaa Ochirbat mongoliarrari lehen aldiz irabazteak, eta oso sendo iritsi zen finalerdietara. Stanka Zlateva Hristova bulgariarraren aurka galdu ondoren, erakustaldi polita eman zuten Vasilisa Marzaliuk bielorrusiarraren aurka. Brontzea, eta saria ibilbide luze bati.

**Xabi Fernandez eta Iker Martinez.** Volvo Ocean Race proba gogorra amaitu berritan iri-

tsi ziren Olinpiar Jokoetara, ia prestaketarik gabe, eta hasieratik ibili ziren ezinean. Bizkarreko lesioa izan zuen Fernandezek, eta horrek ere ez zuen lagundu. Atenasen eta Pekinen domina irabazi zuten, baina finaletik kanpo geratu ziren Londresen, oso apalarituta.

**Ainhoa Murua.** Zazpigarren postua eta diploma zarauztarrentzat. Probaguztarian ibili zen aurreko multzoan, eta korrikako azken zatian bakarrik galdu zituen metro batzuk. Denboraldi guztian erakutsi duen moduan, munduko onenengandik oso gertu dago gaur egun, dominen borrokatik minutu eskasera geratu zelako.

**Zuriñe Rodriguez.** Izugarri sufritu zuen triatloiko hiru diziplinetan, eta negar batean amaitu zuen proba, 44. postuan. Nicola Spirig suitzarrarengandik ia bederatzita minutura. Adibide gisa, harena izan zen denborarik txarreana korrikako saioan. Debut gogorra, baina esperientzia gisa, bikaina, ikasteko balioko diolako.

**Juanjo Aranburu.** Pekingo zortzigarren postuarekin iritsi zen Londresera, gutxienez finalean sartzeko helburu argiarekin. Baina 23. postuan amaitu zuen sailkatzeko. Ohiko mailatik oso behera, kontzentrazioari eutsi ezinik, ezin izan zen orekatu hasiera txarra. Hamar tiro huts egin zituen denera, eta asko da hori tiroan.

**Pablo Carrera.** Diplomaren bila joan zen, eta diplomarekin itzuli zen etxera. Pistolarekin, 10 metrokoan, markarik onenetan laugarrenarekin sartu zen finalean, dominaren bat lor zezakeela sinetsita, baina seigarren amaitu zuen azkenean. 50 metrokoan, berriz, ezinean ibili zen. 22. postuan amaitu zuen proba hori, onenengandik urrun.

**Ander Elosegik.** Domina zeukan buruan, eta horregatik geratu zen jota laugarren postuarekin. Estanguet, Tasiadis eta Martikan. Hiru erraldoi agertu ziren finalean, eta Pekingo sentipen berberarekin amaitu zuen irundarrak, laugarren postuan, erabat jaitziera ona egin gabe. Gogoi mailan dagoela berretsiz, hala ere.

**Maialen Chourraut.** Urrezko domina nahi zuen, eta gozamea ez zen erabatekoa izan brontzea kolokaruta —97 ehunenera geratu zitzaion urrea—. Sailkatzekoan, denborarik onena lortu zuen; finalerdietan, denbora onenetan bigarrena, eta finalean, aurrea hartu zioten Emilie Fex frantziarrak eta Jessica Fox australiarrek. Arrakasta aparta, hala ere, lasartearrena. Munduko onen pare dago gaur egun.

**Oiana Blanco.** Oso prestaketa onarekin eta burua inoiz baino hobeto landuta iritsi zen Londresera, baina Tomoko Fukumi japoniarra egokitu zitzaion lehen borrokan —lehen zerrendaburua—, nahi ez zuen aukaria. Irabazteko



Sugo Uriarte, negarrez, brontzerik gabe geratu ostean. MARCELO SAYAO / EFE



Maialen Chourraut, brontzezko domina irabazi berrian. ORESTIS PANAGIOTU / EFE



Eli Pinedo, brontzea lortzeko partidaren Hego Koreari sartutako gol bat ospatzen. MARCELO SAYAO / EFE

## Handitan? Kazetari



**'Off the record'**  
Unai Zubeldia

**H**asiera ekitaldiko hotzikarak betiko gogoan edukiko ditut. Zer izan zen hura? Zenbateko sentimendu saltsa munduaren erdi-erdian eserita; *Good morning, sir!* Inoiz ez nuen pentsatuko hainbeste militar hain aurpegi onarekin agurtuko nituenik, baina hori ere egin dugu... lanaren izenean. *Pi-pi-pi*. Hogei egun, bizpahiru kontrol eguneko, gerrikoa hirurogei bat aldiz kendu eta jarri, ordenagailua, giltzak, sakelakoa... *Where are you from?* Galdera sakona hori ere. Zer esan Djokovicen ondoan sentitu nuen zirrarez; maisua zinen lehen, Roger, eta zerbait gehiago zara orain, ezerekoa eman zenidan arren. Niretzat, Jelena, Isinbaieva gehienentzat, bi aldiz

hitz egin duzu nirekin, bietan ezetz, baina zeinen harro geratu naizen saiatuta. Kobe Bryant, LeBron James, Usain Bolt, Michael Phelps, Serena Williams, Bradley Wiggins... Zuen ondoan egon naizela esan ahal izango diet denei. Harro.

Eta gureak, noski. Oiana, Maialen, Ander, Sugoi, Leire, Jonathan, Eli, Mainer, Mikel, Jorge... Ohorea izan da zuei segika lan egitea. Handi sentiarazi nautze, eta gutxienekoa dominak eskuratzea dela irakatsi didazue. 18 urterekin ez neukan oso argi *handitan* zer izan nahi nuen, eta kazetaritzari heldu nion. 22rekin ere ez neukan hain argi zer egin nahi nuen, baina euskara eta kazetaritza uztartzea erabaki nuen. 30ekin askatu zait korapiloa. Azkenean. Sentimenduak elkarri kolpeka jarri dizkit Londresek, eta gozarena izan da handitasun hau bertatik bertara bizitza ahal izatea. Sentipen horiek zati txikiak Euskal Herriaraino iritsi direlakoan, besarkada handi bana denoi!

seigarren postuan amaituta. Oso gaztea da oraindik, eta zeresana eman dezake etorkizunean.

**Eli Pinedo, Nely Carla, Patricia Elorza, Andrea Barno eta Jorge Dueñas.**

Hego Korearen aurka 27-31 galdutuz ekin zieten jokoei, eta Hego Korearen aurka 29-31 irabazita kolporatu zuten brontzezko domina. Dueñasek bikain asmatu du taldeari oreka ematen, eta Pinedo eta Carla goi mailan aritu dira. Minutu gutxiago izan dituzte Elorzak eta Barnok, baina arrakasta handia lortu dute denek.

**Eduardo Gurbindo, Mikel Agirrezabalaga eta Julen Aginagalde.**

Lehiaketa gorabeheratsua egin ondoren, AcCambrayk azken segunduan sartutako golaren eraginez geratu ziren finalerdietatik kanpo, Frantziaren aurka 22-23 galduta. Diploma, gutxienez, baina diploma garrantza. Jokoa hasierako zazpiko onenean sartu zuten Julen Aginagalde.

**Iker Muniain, Javi Martinez, Cesar Azpilikueta, Ander Herrera, Iñigo Martinez.**

Japonia eta Hondurasen aurka 0-1 galdututa eta Marokoren aurka 0-0 berdindututa ondoren, azken postua eta etxera. Urrea buruan zuten Espainiako selekzioak, eta kolpe handia hartuta itzuli zuten etxera. Golik sartu gabe, eta oso kaskar arituta.

zorian egon zen oriotarra, baina urrezko borrokan etsi egin behar izan zuen. Pena, gauza handiren bat egin zezakeelako.

**Kiyoshi Uematsu.** Onena eta txarrena egiteko gai da, eta lehenengo borrokan geratu zen jokoetatik kanpo, Mansur Isaev errusiarraren aurka galduta —urrea irabazi zuen gero Isaev— Koska hori igarota, askoz samurragoa zeukan bidea, baina urrezko borrokan galdu zuen. Zaila izango du beste joko batzuetan parte hartzea.

**Sugoi Uriarte.** Kolpe latza hartu zuen gasteiztarrek domina hain gertu eduki eta, epaileen erabakiak tarteko, bosgarren postuarekin etsita. Baina, hotzean, oso emaitza ona da arabarrarena. Goiz zoragarri baten ostean, penalizazio eztabaidagarri baten eraginez galdu zuen brontzezko domina Jun-Ho Cho hego korearraren aurka.

**Jonathan Castroviejo.** Azken unean deitu zioten, Samuel Sanchez ordezkatzeko, eta maila harrigarria eman zuen bizkaita-

rrak bi diziplinetan. Errepideko proban ihes eginda ibili zen egun guztian, eskatu zioten lana ederki eginda, eta erlojupekoan bedertzigaren amaitu zuen azkenean; hortaz, diploma eskuratzeko postu bakarra falta izan zitzaion. Goraitatzeko.

**Leire Olaberria.** Hasi eta bukatu, bere mailatik oso behera ibili zen ikaztegiatarra. Postu ona lortu zuen abiadako irteeran —seigarrena—, baina lehertu egin zen puntuazioan, itzulia irabazteko zorian zegoela. Hortik aurrera, ez zuen bururik altxatu. Erabat triste, amore emanda, bere jardun apalari arrazoirik aurkitu ezinik joan zen etxera.

**Juan Peralta.** Lehen Olinpiar Jokoak, eta hamargarren postua. Emaizta ona. Bigarren aukeran lortu zuen finalerdietara pasatzea, oso multzo zailean, eta seiko finalean sartzeko zorian egon zen gero. B finalean, azkenean, lehen bi postuekin diploma eskuratzen saiatu zen arren, laugarren azkenean. Etorkizunerako irakasgai polita nafarrantzat.

**Hodei Mazkiaran.** Keirina zen haren proba, eta abiaduran aritu behar izan zuen. Probari ekin, eta eserlekua hautsi zitzaion. Azkenaurreko postuan egin zuen aurrera, eta Shane Perkins australiarrak kanporatu zuen gero. Final-hamaseirenetako bigarren aukera zailean ere ezin aurrera egin azkenean. Triste samar amaitu zuen.

**Mikel Odriozola.** Lasterketa azkarra izango zela jakitun, ohi baino biziago ekin zion probari, eta eutsi egin zion aurrekoen erritmoari lehen zazpi-zortzi kilometroetan. Baina hustu egin zen 15. kilometrotik aurrera, eta izugarri sufritu zuen. 3.45 orduko marka egin nahi zuen, eta 4.02.48 egin zuen azkenean. Erabat jota amaitu zuen, 42. postuan.

**Ophelie Aspord.** Azken unean sailkatu zen Olinpiar Jokoaerako, eta maila bikaina eman zuen. Atzetik aurrerako lasterketa egin zuen Aviron Baionako igerilariak, 19. postuan ziholakoa lehen. Etorkizunerako irakasgai lortu zuen azkenean diploma,



### Michael Phelps

**IGERIKETA** Olinpiar Jokoek inoiz izan duten kirolaririk laudatuenaren agurrekoak izan dira Londresko Jokoak. Marka egin du markak apurtuz: 22 domina lau jokotan. 18 urrezkoak, bi zilarezkoak eta bi brontzezkoak. Kostako da beste inor haren parera iristea. **HANNIBAL / EFE**



### Evgenia Kanaeva

**GIMNASTIKA** Bi Olinpiar Jokotan jarraian buruz burukoan urrea irabazi duen lehen gimnasta da. Hori nahikoa ez, eta bi horietan jarraian taldekakoan ere urrea irabazi du. Gimnastika erritmiakoaren mundua ados jartzea lortu du errusiarrak aspaldiko partez: ez du parekorik egun. **SERGEI ILLNISTSKI / EFE**



### Mo Farah


**ATLETISMOA** Etxeko jokoetan eta etxekoan epelean aritu da, eta berak bueltatu die etxekoari aspaldian atletismoan galdua zuten loria. Urrea 5.000 metrokoan eta urrea 10.000koan. Bikain. **ALBERTO ESTEVEZ / EFE**





**Usain Bolt**

**ATLETISMOA** Ize-nondo guztiak ahitu ditu Londresen. 100 eta 200 metrokoak bi Olinpiar Jokotan jarraian irabazi dituen lehen atleta. 4x100ekoan Jamaikarekin urrea eta munduko marka eginda esan zien agur jokoei. Eta hobetzeko tarteak dauka. **CHRISTIAN CHARISIUS / EFE**



**Kohei Uchimura**

**GINNASTIKA** Ederki gainditu du erronka. Urrezko olinpiar domina zen garai-pen zerrenda osatzeko falta zitzaion bakarra, eta ez zuen hutsik egin azken urteotako gimnastarik onenak. **ROLF VENNENBERND / EFE**



**AEBetako taldea**

**SASKIBALOIA** Guztiek iragarritakoa egin du AEBetako taldeak, baina ez, agian, guztiek iragarritako moduan. Nagusitasunez egin zuen finalerako bidea, baina uste baino estuago hartu zuen Espainiako selekzioak finalean. Koska bat gorago dagoela agerikoa da, dena dela. **JOHN G. MABLANGO / EFE**



**Serena Williams**

**TENISA** Indar erakustaldia eman zuen Wimbledongo bere zelai kutunean. Espezialista da estatubatuarra belar gainean, eta espezialista ordu garrantzitsuenetan bere mailarik onena ematen. Txikitu egin zuen Xarapova finalean, eta urrea irabazi zuen gero Venus ahizparekin. **KAI FOERSTERLING / EFE**





# Izar ezagunak



Bradley Wiggins britainiarrak erakustaldia eman zuen erlojupekoan. IAN LANGSDON / EFE



Missy Franklin igerilari estatubatuarra, Londresen irabazi dituen bost dominetako bat ospatzen. HANNIBAL / EFE

**Londresko Olinpiar Jokoek mito bilakatu dituzte duela lau urte ezagun egin ziren izen handiak. Kirolari gazteenen lorpena haien itzalean gelditu dira.**

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemalle berezia



## Michael Phelps

Izarra zena mito bilakatu da. Londrestik aurrera olinpiar historiko liburuetako azaletan Michael Phelps aurpegia agertuko da. Inoizko olinpiar kirolari loriatuenak hemezortzi urrezko dominaren bilduma osatu du, eta guztira 22 lortu. Eta badao. Erretiroa hartuko du, eta harro joan daiteke, urrezko lau domina irabazi baititu Zaza Hadidek diseinaturiko igerileku dotorean. Gutxi dirudi Pekingo uztarekin alderatuz gero —urrezko zortzi domina—, baina duelu pertsonala irabazi dio Ryan Lochte herrikide eta lagunari.

## Usain Bolt

Urrezko hiru domina eta munduko marka bat 4x100 metrokoan. Jokoetako benetako ikurra eta luzera motzeko probek inoiz izan duten korrikalari onena dela berretsi du Usain Boltek. Pekingo dominak berritu ditu, inork aurretik lortu gabekoa. Haren alboan herrialde bat: Jamaika. 200 metroko podiumean, uharte txikiko hiru atleta sartu ziren, eta 100 metrokoan, bi. Eta orainzer? Biaukeratu: lorturikoa hirugarrenen jokoetan saiatzea, edo luzera jautzia edo 400 metroekin ausartzea.

## Britainia Handiko taldea

Jokoak ondo irten dira, eta egunak pasatu ahala, Britainia Handiko zaleen eszeptizismoa ilusio bilakatu da. Inkosten arabera, etxeko kirolarien arrakastak mesede izugarria egin dio jokoan bilakaera normalari. Etxeko taldeak inoizko emaitzarik onenak lortu ditu, urrezko 29 domina, eta Errusia pasatu du dominen sailkapenean. Izen propioak? Askok: Mo Farah, Bradley Wiggins, Jessica Ennis...

## Missy Franklin eta Ye Shiwen

Igerilari belaunaldi berri bat azaleratu da Londresen, bete-betean XXI. mendeko prestaketa teknifikatu, zehatz eta ia genetikokoaren fruitu. Missy Franklin estatubatuarrek urrezko lau domina irabazi ditu 17 urterekin; Ye Shiwen txinatarrak, bi eta munduko marka bat hobetu 16 urterekin. Rita Meilutyte lituaniarra ere gehi daiteke taldera, 15 urterekin urrezko domina irabazi baitzuen.

## Evgenia Kanaeva

Pekinen lorturiko urreari eutsi



dio Eugenia Kanaeva errusiarrak gimnastika erritmikoko banakako proban, eta urrea irabazi du taldekakoan ere. Historian aurreneko gertatu da, eta ez da ezustekoa izan, olinpiar zikloan errusiarrak lau aldiz izan baitzen munduko txapeladun. Zintarekin bi huts txiki egin ondoren, beste lau probetan bera izan zen onena. Rio de Janeiro n 26 urte izango ditu. Ikusketok dago legenda luzatuko duen.

### Allyson Felix

Usain Boltek adina lortu du Allyson Felixek: urrezko hiru domina hiru distantzian. Baina haren lorpenek ez dute hainbesteko oihartzunik jaso. 200 metroetan ez zuen parekorik izan, eta 4x400 metrokoan bere itzulian hautsi zuen lasterketa. Harrigarriena, baina, 4x100 metrokoa izan zen. AEBetako laukoteko kide gisa duela 28 urte Alemaniako Errepublikako Demokratikoko makinak ezarritako marka hautsi zuen.

### AEBetako saskibaloit aldea

AEBetako emakumezko taldeak bosgarren aldiz jarrirak irabazi du urrea, eta gizezkoenak, bigarrenez. NBAko izarren parte hartzea eta jarrera da nabarmenak, eta partida batzuetan euren benetako maila une gutxitan eman duten arren, aski izan dute. Gainera, baliteke horrelako taldeak jokoetan ikusten diren azken aldia izatea, FIBAk saskibaloia futbola bezalakoa izatea nahi baitu, 23 urtez azpiko jokalariek. Nazioarteko Federazioari ez zaio gustatzen txapelketa garrantzitsua bere esku ez egoeta.

### Dayron Robles eta Xiang Liu

Gizezkoen 110 metro hesidunetako finala Londresko lasterketarik erakargarriena izan behar zela zirudien, munduko marka hobeturiko hiru atleta elkar zitezkeelako. Baina ez: hirurek kale egin dute. David Oliver estatubatuarra ez zen sailkatu, eta Londresen Xiang Liu eta Dayron Roblesek min hartu dute. Txinatarrak, lehen kanporaketan, eta kubatarrak, finalean.

### Kenenisa Bekele

Pekinen urrezko domina irabazi zuen 5.000 eta 10.000 metroetan. Stratfordetik, ordea, burumakur itzuli da, eta esku-hutsik. Arazo fisikoaren erruz, zalantza askoren iritsi zen eta ez du bere maila eman. 5.000 metrokoan ez zen sailkatu, eta 10.000 metrokoan saiatu zen Atenas eta Pekingo urreei eusten, baina laugarren izan zen. 30 urteko etiopiarrek maratoian probatuko du orain.

### Tom Daley

Britainia Handiak izan duen bizkarrekorik handiena da Tom Daleyrena. Pekinen, 14 urterekin parte hartu zuen hamar metroko trapolin jauzian, eta azken lau

## Eta mundua aurkitu nuen



### 'Betweenland' Imanol Magro

Hesi batek agurtu ninduen duela hiru aste Stratforden. Sentipen bortitza. Dena kanpotik ikusi beharko nuela banekien, baina zerutik kalera-tu zuten paria bat banintz bezala ikusten nuen neure burua. Gogorra izan zen bigarren eguna: hesira begira, barruan pasatzen zena desiratzen, umetatik kirol kazetari izateko bo-kazioaren mina borborra. Buelta eman nuen arte: hesia desagertu eta mundua aurkitu nuen; Londres eta hango istorioak. Kreditatiodunak ziren euren burua Varsoviako ghettoan sartzen ari zirenak, eta nik Stratfordeko jendea eta Brixton eta Bricklane auzoak ezagutu nituen. Ni naiz eroa, baina eurak daude giltzapetuta.

Txartel batzuk eskuratu eta kirol gosea ase nuen: saskibaloia, boxeoa... Eta

esperientzia profesional eta pertsonal izugarria bibrildu. Bidaia oro da irakaspenna, eta ni joan nintzen baino hobeto itzuliko naiz. Indartsuago, aberatsago eta kazetariago. Sentimendu kontrajarriak ageri dira orain, dena bukatu baita, eta eskerren garaia iritsi. Eskerrak pisukide bikainari, erredakzioan gure zain egon direnei, gidatu gaituen aitaxori, kausaren alde itzulirikoa betetera, «kazetaritza halakua den» entzuten dutenei, gure testuak artelan bihurtu dituztenei, Berria telebistakoei... Eta modu berezi batean telefonoaren beste aldetik egunero neke leundu eta poza handitu dutenei: etxekoei, noski; eta zuri, zuk dakizun horri.

Baren huestea ez dut bukatu nahi honaino irakurtzen iritsi denari esker ona adierazi gabe. Irakurle gabe ezker ez du zentzurik, eta kirola euskaraz zabaldu eta Olinpiar Jokoetan gure txokoa izan badugu, zuregatik, zuretzat eta zuri esker da. Muxu handi bat, hobe bi. *Next station*, Rio de Janeiro.


urteetan Londresko jokoen inguruko merkadotekniaren ikurretako bat izan da. Gaztea, hiztun ona... baina ez du bere maila eman. Banaka, brontzea irabazi zuen, eta binaka, laugarren izan zen. Sorturiko ikusminarekin alderatuta, motz.

### Espainiako eta Brasilgo futbol selekzioak

Bi selekzioek gogor egin zuten apustu jokoen alde. Espainiak Eurokopa irabazi berri zuten zenbait jokalaritza deitu zituen, eta Brasilek 23 urte gorako jokalaritza onekin indartu zuen taldea. Espainia lehen fasean joan zen etxera, Maroko, Honduras eta Japoniari irabazi ezinik. Brasilek, berriz, urrezko dominarik gabe jarraitzen du, hirugarrenez finala galdu baitzuen, Mexikoren aurka.

### Jelena Isinbaeva

Erretiroa olinpiar txapeladun izanda hartu nahi zuela aurreratu zuen Jelena Isinbaeva, baina 30 urte dituela, agian, Rio de Janeiro urrun samar dauka. Atenasen eta Pekinen urrea lortu ondoren, brontzearekin konformatu behar izan du. 4,70 metroko jauzia egin zuen finalean, bere marka onenetik urrun. Arrakastatzat jo du parte hartzea, baina historia egiteko aukerak ihes egin dio.



Jelena Isinbaeva, burumakur, pertikako finalean. KERIM OKTEN / EFE



Xiang Liu, lurrean, 110 metro hesidunetan erori eta gero. ALBERTO ESTEVEZ / EFE



Neymar, etsita, finalean Mexikoren aurka galdu ondoren. ANDY RAIN / EFE

**B**adago esaera bat Londresi buruz, honela dioena: «Londres ez aspertu bazara, bizitzaz aspertu zara». Alegia, hainbeste gauza daude egiteko, ia ezinezkoa dela aspertzea. Igande gaueko Olinpiar Jokoen amaiera zeremonian hori zegoen agertokiko zoruan idatzita. Britainia Handiak azken sei hamarkadetan eman dituen kultura, musika eta arteen ikonoen erakustaldia horren isla izan zen. Musika gailentzen zen desfile hartan ez zen inor falta izan, pop eta rock izarrak, artistak, historiako pertsonaia ezagun anitzekiko erreferentziak. Modu kaotiko batean azaldu ziren bata bestearen atzetik, baina ikusle denentzat zegoen gustuko zerbait, entreenigarria izan zen eszenifikazio sutsu hura. Winston Churchillen imitatzaile

## 'Goodbye'



### 'London calling'

Garazi Goia

batek purua erre eta Shakespeare erreztatuz hasi zuen ekitaldia. Pet Shop Boysen agerraldi eklektikoa etorri zen ondoren, Monty Pythoneko Eric Idleren eszena surrealista, estadio guztia zutik jarri zuen Freddy Mercury eta John Lennonnen maniki elektronikoak. Imagine.

Zoragarria. The Who ere ausartu zen berriro, denak kantuan jarri. Eta, tartean, Kate Moss modeloa, Alexander McQueen diseinatzailea gogoratuz. Festa euforikoa. Emanaldi nahasketa psikodelikoa.

Sanba erritmoek atera gintuzten iraganeko oroitzapenen erreparotik. Pele maisuaren agerraldi motzaren ostean, Rio de Janeiroi pasatu zitzaion ofizialki erreleboa. Zer egingo dute Rion ezberdin? Zer berritasun erakutsiko dituzte? Baina, galdera horiekin batera, oraindik galdera gehiago uzten ditu Londresen. Ea hurrengo lau urteetan zer gertatzen den, ea zer gertatzen den Stratforden utzitako herentziarekin. Joko Paralinpikoak amaitzerako ez al dira behintzat denak egindako guztiaz ahaztuko.

## ↓ Dominak

Herraldea	Urr.	Zil.	Bro.	G.
1. AEB	46	29	29	104
2. Txina	38	27	23	88
3. Britainia Handia	29	17	19	65
4. Errusia	24	26	32	82
5. Hego Korea	13	8	7	28
6. Alemania	11	19	14	44
7. Frantzia	11	11	12	34
8. Italia	8	9	11	28
9. Hungaria	8	4	5	17
10. Australia	7	16	12	35
11. Japonia	7	14	17	38
12. Kazakhstan	7	1	5	13
13. Herbehereak	6	6	8	20
14. Ukraina	6	5	9	20
15. Zeelanda Berria	6	2	5	13
16. Kuba	5	3	6	14
17. Iran	4	5	3	12
18. Jamaika	4	4	4	12
19. Txekiar Errepublika	4	3	3	10
20. Ipar Korea	4	0	2	6
21. Espainia	3	10	4	17
22. Brasil	3	5	9	17
23. Hegoafrika	3	2	1	6
24. Etiopia	3	1	3	7
25. Kroazia	3	1	2	6
26. Bielorrusia	2	5	5	12
27. Errumania	2	5	2	9
28. Kenya	2	4	5	11
29. Danimarka	2	4	3	9
30. Azerbaijan	2	2	6	10
30. Polonia	2	2	6	10
32. Turkia	2	2	1	5
33. Suitza	2	2	0	4
34. Lituania	2	1	2	5
35. Norvegia	2	1	1	4
36. Kanada	1	5	12	18
37. Suedia	1	4	3	8
38. Kolonbia	1	3	4	8
39. Georgia	1	3	3	7
39. Mexiko	1	3	3	7
41. Irlanda	1	1	3	5
42. Argentina	1	1	2	4
42. Eslovenia	1	1	2	4
42. Serbia	1	1	2	4
45. Tunisia	1	1	1	3
46. Dominikar Errep.	1	1	0	2
47. Trinidad eta Tobago	1	0	3	4
47. Uzbekistan	1	0	3	4
49. Letonia	1	0	1	2
50. Algeria	1	0	0	1
50. Bahamak	1	0	0	1
50. Grenada	1	0	0	1
50. Uganda	1	0	0	1
50. Venezuelak	1	0	0	1
55. India	0	2	4	6
56. Mongolia	0	2	3	5
57. Tailandia	0	2	1	3
58. Egipto	0	2	0	2
59. Eslovakia	0	1	3	4
60. Armenia	0	1	2	3
60. Belgika	0	1	2	3
60. Finlandia	0	1	2	3
63. Bulgaria	0	1	1	2
63. Estonia	0	1	1	2
63. Indonesia	0	1	1	2
63. Mailaisia	0	1	1	2
63. Puerto Rico	0	1	1	2
63. Taipei	0	1	1	2
69. Botswana	0	1	0	1
69. Zipre	0	1	0	1
69. Gabon	0	1	0	1
69. Guatemala	0	1	0	1
69. Montenegro	0	1	0	1
69. Portugal	0	1	0	1
75. Grezia	0	0	2	2
75. Moldavia	0	0	2	2
75. Qatar	0	0	2	2
75. Singapur	0	0	2	2
79. Afganistan	0	0	1	1
79. Bahrain	0	0	1	1
79. Hong Kong	0	0	1	1
79. Saudi Arabia	0	0	1	1
79. Kuwait	0	0	1	1
79. Marocco	0	0	1	1
79. Tayikistan	0	0	1	1



berria

2012ko abuztuaren 14a

## Azkena →



**Harrera beroa Loion.** Atzo iritsi ziren Euskal Herrira Londresko jokoetan parte hartu duten azken kirolariak. Harrera beroa egin zieten guztiei Loion. Argazkian, Eli Pinedo, Maider Unda eta Patricia Elorza. Hirurek brontzezko dominak lortu dituzte. Pinedok eta Elorzak, eskubaloian, eta Undak, borrokan. EFE

**L**eitonstonen jaiotzen, Londres ekialdeko auzo jendetsu batean. Harakinak zituen gurasoak, eta bi anai-arreba bera baino zaharragoak (William eta Eileen). Hezkuntza katoliko zorrotza jaso zuten etxean, mutiko gizena eta uzkurra izan zen txikitari, lotsatia eta bere buruarengan batere konfiantzarik gabekoa. Londresko Saint Ignatius College-ra bidali zuten, baina garaiz utzi zituen hango ikasketak, eta telegrafista moduan hasi behar izan zuen lanean. Garai hartan zaletu zen Charles Dickens eta Edgar Allan Poeren obretara.

## Hotzikara ekoizleak



'Citius, Altius, Fortius' Enekoitz Telleria

Zinema zuen, ordea, pasio. Gerokoak dira muntatzaile eta gidoilari gisa egindako lehen lanak, zuzendari alboko gisa egindakoak, zuzendari gisa egindako lehen filmak, zuzendari bikain gisa egindako maisulanak, Hollywooderako jautzia, eta entziklopedia bat idazteko adina ematen duten jarduna eta pasarteak.

Hari, Alfred Hitchcock zenari, alegia, egin zioten galdera behin etxera bueltan zetorrela, Londresko aireportuan. Ekoiz-

lea zela jartzen zuen haren pasaportearen nonbait, eta harritu egin zen aduanako zainatzailea. «Ekoizlea zarela? Eta zer ekoizten duzu zuk ba?», galdetu zion lortzagabe tonuan, burlati. «Nik zer ekoizten dudan? Hotzikarak», erantzun zion Hitchcockek.

Ez da oraingo pasaporteetan norberaren ofizioari buruzko daturik agertzen, baina bihurtik aurrera Londresen ariko diren kirolariak haiei begira egoteko zer ekoizten ote duten galdetuta, ez zait erantzun egokiagorik bururatzen, hotzikarak hotzikara.

02

03

04

06

10

**Euskal kirolariak** → 31 euskal kirolari ariko dira lehen Londresen, Pekingo Jokoetan baino sei gehiago.

**Egoitzak** → Laukoiztu egin da aurrekontua.

**Izarrak** → Bolt-Blake eta Phelps-Lochte aurrez aurrekoek sortu dute ikusmin gehien.



**berria**  
2012ko uztailaren 26a

# Azken ukituak

Dena prest dago Londresen Olinpiar Jokoetarako. Bihar hasiko dira, eta segurtasunari eta garraioari buruzkoak dira kezkarik handienak → 05



Kirolari bat jauzi egitear eta behargin bat tranpolina garbitzen, atzo, Londresko igeriketa gunean. BARBARA WALTON / EFE



Milder Unda, eskuinean, Natalia Palamartxuk azerbaijandarrarekin lehian, joan zen martxoan, Belgraden, Europako Txapelketan. KOCA SULEJMANOVIC / EFE

## Askoren ahotan dago urrea

**31 euskal kirolari ariko dira lehian jokoetan, 2008an Pekinen baino sei gehiago. Kopuruak ez ezik, dominaren bat lortzeko aukerak ere gora egingo dute Londresen.**

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Etorkizunaren zain egon beharko du, beste behin ere, Euskal Herriari. Etorkizunean Olinpiar Jokoetan nor izango dela sinetsita. Orain lau urte, zortzi, hamabi, hamasei... bezala, aurtun ere izango da euskal kirolaririk Olinpiar Jokoetan, baina ez Euskal Herriaren izenean. 31ko multzo dotorea osatu da azkenean; 30 dira kirolariak, eta bat entrenatzailea: Jorge Dueñas bilbotarra, emakumezkoen Espainiako eskubaloia selekzio-ko hautatzailea. Espainiako selekzioaren izenean ariko dira 30 kirolari, eta Frantziako selekzioaren izenean beste bat, Ophélie Asford Baionako igerilaria. Atzera begiratzeko tentazioa izaten da analisiak egiten hasitaikoa, eta, alderaketa horretan, kopuruak gora egin du. 25 euskal kirolari ariko ziren Pekinen, 2008an, eta 31 ariko dira aurtun, Londresen.

Baina gora ez du kopuruak bakarrik egin, kalitatez ere aurtun-

go ordezkariak koska bat gorago dagoelako. Begiratu batera bai, behintzat. 21ek izango dute hasiberriren ilusioa eta ezjakintasuna, eta hamar ariko dira esperientziaren izenean: Mikel Odriozola (3), Kiyoshi Uematsu (3), Ainhoa Murua (3), Iker Martínez (3), Xabi Fernandez (3), Maialen Chourraut (2), Ander Eloseg (2), Juanjo Aranburu (2), Milder Unda (2) eta Leire Olaberria (2). Hamar horien artean dago dominaren bat kolkoratzeko aukera gehien. Iker Martínez eta Xabi Fernandez kasua da argiena. Urrezko domina kolkoratu zuten orain zortzi urte, Atenasen, 49er mailan, eta zilarrezkoa orain lau urte, Pekinen. Volvo Ocean Race amaitu berrikan, nekea pilatuta, prestaketa zehatzik gabe, baina dominei begira ekingo diote lehian.

Olaberriak ere nabarmen egin du gora azken lau urteotan. Omniuma bihurtu du bere diziplina, eta «lehen bost sailkatuen artean» sartu du bere burua. Pixka bat asmatuta, ez da urrutiti ibiliko. Bi piraguitak, Chourraut eta

### Datuak.

■ **Probintziak.** Londresen lehian ariko diren 31 kirolariek Euskal Herriko bost probintzia ordezkatu dituzte: Gipuzkoa (12), Nafarroa (7), Bizkaia (7), Araba (4) eta Lapurdi (1). Behe Nafarroa eta Zuberoa soilik daude ordezkariak gabe.

■ **Euskal dominak.** 1920an Amberesen hasi eta 2008an Pekinera iritsi bitartean, 21 domina kolkoratu dituzte jada euskal kirolariek Olinpiar Jokoetan, Espainiako eta Frantziako selekzioekin.

Eloseg, emaitzak indartuta iritsi dira Londresera. Munduko Kopako bi proba irabazi berri ditu Chourrautek, eta hiru finaletan sartu da Eloseg. Irundarrak eskura izan zuen domina Pekinen, laugarren postuarekin. Unda ere erabat baikor dago, finalerdiak eskura dauzkala barneratuta. Odriozolak, Aranburuk eta Kiyoshi Uematsuk, berriz, ezeri uko egin gabe, baina diplomen borrokan sartzea izango dute helburu Londresen.

### Talde kiroletan, indartsu

Baina jokoetan lehen aldiz ariko diren artean ere badago dominaren bat lortzeko aukerarik. Talde kirolak dira azpimarratu beharrekoak. Espainiako futbol selekzioa da horietako bat, dominen borrokan biderik samurrena daukana, ziurrenik. Prestaketa lana ez da oso ikusgarria izan, baina Brasil eta Britainia Handiarekin batera, faboritoen zerrendan ageri da. Javi eta Iñigo Martínez, Iker Muniain, Ander Herrera eta Cesar Azpilikueta daude tartean.

Eta Espainiako eskubaloiko bi selekzioak ere oso kontuan hartzeak dira. Munduko Txapelketan brontzea eskuratu zuten bi selekzioek. Zazpi euskal herritar ariko dira bi selekzio horietan: Eli Pinedo, Nely Carla, Patricia Elor-

za, Andrea Barno, Eduardo Gurbindo, Mikel Agirrezabalaga eta Julen Aginagalde. Judokan, berriz, oso kontuan hartzeak dira Sugi Uriarte eta Oiana Blanco ere.

Borroka librea, bela, triatlota, olinpiar tiroa, piraguismoa, judo, pistako txirrindularitza, errepidekoa—azken unean sartu da Jonathan Castroviejo—, atletismoa, igeriketa, eskubaloia eta futbola; 26 kirol—eta 39 diziplina— izango dira Londresen, eta horietatik 11tan ariko dira lehian euskal kirolariak. Orain lau urteko datuekin alderatuta, behera egin du kopuruak, Pekinen hamalau kiroletan arituzirelako euskal kirolariak—baita orain zortzi urte Atenasen ere—. 2008an, badmintonean (Yoana Martínez), belar hockeyan (Barbara Malda, Rocio Ibarra eta Maria Lopez Egilaz), gimnastika erritmikoan (Almudena Cid, Barbara Gonzalez eta Lara Gonzalez), eta taekwondoan (Jon Garcia) ere lehiatu ziren euskal kirolariak, eta futboleko ez zuten ordezkariak izan.

Kantitatea eta kalitatea uztartuta, lehiaketak jarriko du gero bakoitza bere lekuan. Euskal kirolariak hiruna dominarekin itzuli ziren etxera Atenastik (2004) eta Pekindik (2008); ez du ematen Londresko uzta askoz txikiagoa izango denik.



# Londresen ariko diren 31 kirolariak

**Mainer Unda**

Borroka librea

**Jaioterria:** Gasteiz.  
**Jaioteguna:** 1977-07-02.  
**Proba:** 72 kiloz azpikoa.  
**Eguna:** Abuztuak 9.

**Ainhoa Murua**

Triatloia

**Jaioterria:** Zarautz (Gipuzkoa).  
**Jaioteguna:** 1978-07-18.  
**Proba:** Triatloia.  
**Eguna:** Abuztuak 4.

**Xabi Fernandez**

Bela

**Jaioterria:** Ibarra (Gipuzkoa).  
**Jaioteguna:** 1976-10-19.  
**Proba:** 49er klasea.  
**Egunak:** Uzt. 30-abu. 8.

**Zuriñe Rodriguez**

Triatloia

**Jaioterria:** Barakaldo (Bizkaia).  
**Jaioteguna:** 1982-05-21.  
**Proba:** Triatloia.  
**Eguna:** Abuztuak 4.

**Iker Martinez**

Bela

**Jaioterria:** Donostia.  
**Jaioteguna:** 1977-06-16.  
**Proba:** 49er klasea.  
**Egunak:** Uzt. 30-abu. 8.

**Juanjo Aranburu**

Olinpiar tiroa

**Jaioterria:** Irun (Gipuzkoa).  
**Jaioteguna:** 1981-10-13.  
**Proba:** Skeet modalitatea.  
**Egunak:** Uztailak 30-31.

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia


Biharko inaugurazio ekitaldiaren aurretik jada lehian hasita egongo dira kirolariek batzuk; bost euskal herritar tartean. Izan ere, atzo jokatu zituzten emakumezkoek lehen futbol partidak, eta gaur hasiko dira gizonezkoak. Japoniaren aurka jokatuko du Espainiak, eta bertan izango dira Javi eta Iñigo Martinez, Iker Muniain, Ander Herrera eta Cesar Azpilikueta.

Beranduen, berriz, gizonezkoen eskubaloia selekzioa hiru euskal kirolariek amaituko dute, Espainia, gutxienez, finalerdietara iritsiz gero. Abuztuaren 12an jokatuko dira 3. eta 4. posturako lehiak, eta finala, igandean. Berperan dauka proba Mikel Odriozola atletak, eta, finalera iritsiz gero, baita futbolariak ere. Espainiako emakumezkoen eskubaloia selekzioa ere egun horretan ariko da lehian, gutxienez finalerdietara iritsiz gero.

**Pablo Carrera**

Olinpiar tiroa

**Jaioterria:** Bilbo.  
**Jaioteguna:** 1986-08-2.  
**Proba:** 10 eta 50 metro pistola.  
**Egunak:** Uzt. 28 eta abu. 5.

**Kiyoshi Uematsu**

Judoa

**Jaioterria:** Portugalete (Bizkaia).  
**Jaioteguna:** 1978-07-10.  
**Proba:** 73 kiloz azpikoa.  
**Eguna:** Uztailak 30.

**Ander Elozegi**

Piraguismoa

**Jaioterria:** Irun (Gipuzkoa).  
**Jaioteguna:** 1987-11-14.  
**Proba:** Ur bizietako C1 maila.  
**Egunak:** Uzt. 29 eta 31.

**Sugo Uriarte**

Judoa

**Jaioterria:** Gasteiz.  
**Jaioteguna:** 1984-05-14.  
**Proba:** 66 kiloz azpikoa.  
**Eguna:** Uztailak 29.

**Maialen Chourraut**

Piraguismoa

**Jaioterria:** Lasarte (Gipuzkoa).  
**Jaioteguna:** 1983-03-08.  
**Proba:** Ur bizietako K1 maila.  
**Egunak:** Uzt. 30 eta abu. 2.

**Leire Olaberria**

Txirrindularitza

**Jaioterria:** Ikaztegieta (Gipuzkoa).  
**Jaioteguna:** 1983-03-08.  
**Proba:** Omniuma, pistana.  
**Egunak:** Abuztuak 6-7.

**Oiana Blanco**

Judoa

**Jaioterria:** Orio (Gipuzkoa).  
**Jaioteguna:** 1983-05-13.  
**Proba:** 48 kiloz azpikoa.  
**Eguna:** Uztailak 28.

**Juan Peralta**

Txirrindularitza

**Jaioterria:** Zarakastelu (Nafarroa).  
**Jaioteguna:** 1990-05-17.  
**Proba:** Abiadura, pista.  
**Egunak:** Abuztuak 4-5-6.

## Euskal kirolarien egutegia →

(\*) Saikatzuz gero

**Uztailak 26, osteguna****Futbola.** Espainia-Japonia. 15:45.**Uztailak 28, larunbata****Oiana Blanco.** Judoa (-48 kilo). 10:30-17:00.**Eskubaloia (emakumezkoak).**

Espainia-Hego Korea. 12:15.

**Pablo Carrera.** Olinpiar tiroa (10 metro pistolarekin). 13:00-16:30.**Uztailak 29, igandea****Sugo Uriarte.** Judoa (-66 kilo). 10:30-17:10.**Ander Elozegi.** Piraguismoa (C1 eslaloma). Saikatzekoa. 14:30.**Eskubaloia (gizonezkoak).** Espainia-Serbia. 17:15.**Futbola.** Espainia-Honduras. 20:45.**Uztailak 30, astelehena****Juanjo Aranburu.** Olinpiar tiroa, lehen txanda (Skeet-a). 10:00.**Kiyoshi Uematsu.** Judoa

(-73 kilo). 10:30-17:10.

**Xabi Fernandez eta Iker Martinez.**

Bela (49er klasea). 1. eta 2.

lasterketak. 13:00.

**Maialen Chourraut.** Piraguismoa

(K1 eslaloma). 15:12.

**Eskubaloia (emakumezkoak).**

Frantzia-Espainia. 17:15.

**Uztailak 31, asteartea****Juanjo Aranburu.** Olinpiar tiroa,

bigarren txanda eta finala

(Skeet-a). 10:00-15:00.

**Xabi Fernandez eta Iker Martinez.**

Bela (49er klasea). 3. eta 4.

lasterketak. 13:00.

**Ander Elozegi**(\*). Piraguismoa

(C1 eslaloma). Finalerdiak eta finala. 14:30-16:06.

**Eskubaloia (gizonezkoak).**

Danimarka-Espainia. 20:30.

**Abuztuak 1, asteazkena****Xabi Fernandez eta Iker****Martinez.** Bela (49er klasea).

5. eta 6. lasterketak. 13:00.

**Futbola.** Espainia-Maroko. 18:00.**Eskubaloia (emakumezkoak).**

Espainia-Danimarka. 20:30.

**Abuztuak 2, osteguna****Eskubaloia (gizonezkoak).**

Espainia-Hego Korea. 10:30.

**Xabi Fernandez eta Iker****Martinez.** Bela (49er klasea).

7. eta 8. lasterketak. 13:00.

**Maialen Chourraut**(\*).

Piraguismoa (K1 eslaloma).

Finalerdiak eta finala. 15:12-16:57.

**Abuztuak 3, ostirala****Xabi Fernandez eta Iker****Martinez.** Bela (49er klasea).

9., 10. eta 11. lasterketak. 13:00.

**Eskubaloia (emakumezkoak).**

Espainia-Suedia. 20:30.

**Abuztuak 4, larunbata****Ainhoa Murua eta Zuriñe****Rodriguez.** Triatloia. 10:00.**Hodei Mazkarian.** Txirrindularitza,

pista (esprinta). Saikatzekoa,

final-zortzirenak eta 9-12

postuetarako lehiak. 11:00-19:20.

**Hodei Mazkieran**

Txirrindularitza

**Jaioterria:** Altsasu (Nafarroa).  
**Jaioteguna:** 1988-12-16.  
**Proba:** Keirina, pista.  
**Eguna:** Abuztuak 7.

**Eli Pinedo**

Eskubaloia

**Jaioterria:** Amurrio (Araba).  
**Jaioteguna:** 1981-05-13.  
**Proba:** Taldekakoa.  
**Egunak:** Uzt. 28-abu. 11.

**Jorge Dueñas**

Eskubaloia

**Jaioterria:** Bilbo.  
**Jaioteguna:** 1962-10-16.  
**Proba:** Taldekakoa (emakumezkoen entrenatzailea).  
**Egunak:** Uzt. 26-abu. 11.

**Eduardo Gurbindo**

Eskubaloia

**Jaioterria:** Iruñea.  
**Jaioteguna:** 1988-11-08.  
**Proba:** Taldekakoa.  
**Egunak:** Uzt. 29-abu. 12.

**Javi Martínez**

Futbola

**Jaioterria:** Aiegí (Nafarroa).  
**Jaioteguna:** 1988-09-02.  
**Proba:** Taldekakoa.  
**Egunak:** Uzt. 26-abu. 11.

**Jonathan Castroviejo**

Txirrindularitza

**Jaioterria:** Getxo (Bizkaia).  
**Jaioteguna:** 1987-04-27.  
**Proba:** Errepidekoa eta erlojopu.  
**Egunak:** Uzt. 28-abu. 1.

**Nely Carla**

Eskubaloia

**Jaioterria:** Donostia.  
**Jaioteguna:** 1983-07-2.  
**Proba:** Taldekakoa.  
**Egunak:** Uzt. 28-abu. 11.

**Datuak.**

■ **Desorekatuta.** Azken bi Olinpiar Jokotan ez bezala, Londresen emakumezkoak baino gizonen gehiago izango dira euskal kirolarien artean. 19 gizonen eta 11 emakumezko daude zerrandan. 2008an, 11 gizonen eta 14 emakumezko lehian ziren Pekinen; eta 2004an, 17na gizonen eta emakumezko Atenasen. ■ **Hirugarren jarraian.** Hiru euskal kirolari ariko dira hirugarren jarraian jokoetan: Iker Martínez eta Xabi Fernandez belan, eta Ainhoa Murua triatlota. Kiyoshi Uematsu eta Mikel Odriozola ere hirugarren jarraian dira: judoka Sydney eta Atenasen lehiatzen, eta ibiltaria Sydney eta Pekinen.

**Mikel Agirrezabalaga**

Eskubaloia

**Jaioterria:** Zarautz (Gipuzkoa).  
**Jaioteguna:** 1988-11-24.  
**Proba:** Taldekakoa.  
**Egunak:** Uzt. 29-abu. 12.

**Cesar Azpilikueta**

Futbola

**Jaioterria:** Iruñea.  
**Jaioteguna:** 1989-08-28.  
**Proba:** Taldekakoa.  
**Egunak:** Uzt. 26-abu. 11.

**Mikel Odriozola**

Atletismoa

**Jaioterria:** Errenteria (Gipuzkoa).  
**Jaioteguna:** 1973-05-25.  
**Proba:** 50 km ibilketa.  
**Eguna:** Abuztuak 11.

**Patricia Elorza**

Eskubaloia

**Jaioterria:** Gasteiz.  
**Jaioteguna:** 1984-04-8.  
**Proba:** Taldekakoa.  
**Egunak:** Uzt. 28-abu. 11.

**Julen Aginagalde**

Eskubaloia

**Jaioterria:** Irun (Gipuzkoa).  
**Jaioteguna:** 1988-12-08.  
**Proba:** Taldekakoa.  
**Egunak:** Uzt. 29-abu. 12.

**Ander Herrera**

Futbola

**Jaioterria:** Bilbo.  
**Jaioteguna:** 1989-11-11.  
**Proba:** Taldekakoa.  
**Egunak:** Uzt. 26-abu. 11.

**Ophelie Aspard**

Igeriketa

**Jaioterria:** Baiona.  
**Jaioteguna:** 1991-05-21.  
**Proba:** Ur irekiak 10 km.  
**Eguna:** Abuztuak 9.

**Andrea Barno**

Eskubaloia

**Jaioterria:** Lizarra (Nafarroa).  
**Jaioteguna:** 1980-01-04.  
**Proba:** Taldekakoa.  
**Egunak:** Uzt. 28-abu. 11.

**Iker Muniain**

Futbola

**Jaioterria:** Iruñea.  
**Jaioteguna:** 1992-12-19.  
**Proba:** Taldekakoa.  
**Egunak:** Uzt. 26-abu. 11.

**Iñigo Martínez**

Futbola

**Jaioterria:** Ondarroa (Bizkaia).  
**Jaioteguna:** 1991-05-17.  
**Proba:** Taldekakoa.  
**Egunak:** Uzt. 26-abu. 11.

**Euskal kirolarien egutegia →**

**Futbola**(\*), Final-laurdenak. 13:00 (edo 15:30, 18:00, 20:30).

**Eskubaloia (gizonen)**(\*). Hungaria-Espainia. 22:15.

**Abuztuak 5, igandea**

**Pablo Carrera.** Olinpiar tiroa (50 metro pistolarekin). 10:00-13:30.

**Xabi Fernandez eta Iker Martínez.** Bela (49er klasea). 12. eta 13. lasterketak. 13:00.

**Hodei Mazkieran**(\*). Txirrindularitza, pista (esprinta). Final-laurdenak eta 5-8 postuetarako lehiak. 17:34-19:47.

**Eskubaloia (emakumezkoak).** Norvegia-Espainia. 20:30.

**Abuztuak 6, astelehena**  
**Xabi Fernandez eta Iker**

**Martinez.** Bela (49er klasea). 14. eta 15. lasterketak. 13:00.

**Hodei Mazkieran**(\*).

Txirrindularitza, pista (esprinta). Finalerdiak eta finala. 17:00-18:43.

**Leire Olaberria.** Txirrindularitza, pista (omniuma).

Lehen hiru probak. 17:08, 18:06 eta 19:18.

**Eskubaloia (gizonen)**(\*). Espainia-Kroazia. 20:30.

**Abuztuak 7, asteartea**

**Juan Peralta.** Txirrindularitza, pista (keirina). Lehen bi txandak eta finalak. 11:00-18:50.

**Eskubaloia (emakumezkoak)**(\*). Final-laurdenak. 11:00 (edo 14:30, 18:00, 21:30).

**Leire Olaberria.** Txirrindularitza, pista (omniuma). Azken hiru probak. 11:19, 17:07 eta 17:53.

**Futbola**(\*). Finalerdiak.

18:00 (edo 20:45).

**Abuztuak 8, asteazkena**

**Eskubaloia (gizonen)**(\*). 12:00 (15:30, 19:00 edo 22:30).

**Xabi Fernandez eta Iker Martínez**(\*). Bela (49er klasea).

Dominen borrokarako lasterketa. 14:00.

**Abuztuak 9, osteguna**

**Ophelie Aspard.** Igeriketa. Ur irekiak 10 kilometroko proba. 13:00.

**Maidar Unda.** Borroka (72 kiloz azpiok). 14:00-19:15.

**Eskubaloia (emakumezkoak)**(\*). Finalerdiak. 18:00 (edo 21:30).

**Abuztuak 10, ostirala**

**Eskubaloia (gizonen)**(\*). Finalerdiak. 18:00 (edo 21:30).

**Futbola**(\*). 3. eta 4. posturako partida. 20:45.

**Abuztuak 11, larunbata**

**Mikel Odriozola.** Atletismoa (50 km ibilketa). 10:00.

**Futbola**(\*). Finala. 16:00.

**Eskubaloia (emakumezkoak)**(\*).

3. eta 4. postuak. 18:00.

Eta finala. 21:30.

**Abuztuak 12, igandea**

**Eskubaloia (gizonen)**(\*).

3. eta 4. postuak. 12:00. Eta finala. 15:30.





# Eguzkia ekialdetik irtengo da

**Olinpiar Jokoek hasiera batean kalkulaturiko aurrekontua laukoiztu izana, garraio arazoak, eta azken egunetan segurtasuna, izan dira antolatzaileen buruhaustekak.**

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

**E**zkontza handi baten ondorengo festaren antza dute Londresko Olinpiar Jokoek. Dirua ez da arazo, dena da zilegi, hasiera batean zehazturiko 2.800 milioi euroko aurrekontua laukoiztu bada ere, ia 14.000koa izateraino. Jokoen inbertsioa, urte luze alboraturiko hiriaren ekialdeko azukoak —East End— berpizteko prozesuaren lehen pausoa direla argudiatuta justifikatu dute. Hiriak antolatuko dituen hirugarren Olinpiar Jokoak dira (1908 eta 1948koen ondoren), eta, ondo bidean, munduko beste edozein tokik baino hobeto jakin beharko zukeen kalkulua egiten. Azken egunetan, hala ere, segurtasuna da buruhauste nagusia. 18.200 arte igo dute jokoen zaintzara zuzenduriko soldadu kopurua. Guztira, 700 milioi euro baino gehiago gastatuko dira segurtasunean.

Londresen bidea 2005ean hasi zen. Hasiera batean, Parisek eta Madrilek Londresek baino puntu gehiago lortu bazituzten ere, azkenean Londresek irabazi zuen. Hautaketaraen osteko egunean, uztailaren 7an, atentatua egon zen Londresko metroan. Lau ekintzailek soinean zeramatza-ten bonbak leherrarazi, eta 52 pertsona hil zituzten. Hortik dator

segurtasunarekin dagoen obsesioa. Guztira, 50.200 pertsona arduratuko dira segurtasunaz; horietatik 18.200, militarrek. Hori gutxi ez balitz bezala, Olinpiar gune inguruko 800 bizilagunei euren teitatueta misil bateria txikiak jar ditzaketela jakinarazi diete. Guztira, bi milioi bisitari espero dira jokoen eraginez, urtero Londresera joaten diren 5,5 milioi turistei gehitu beharrekoak.

Ingalaterrako biztanleen artean eginiko azken inkestean arabera, egun %40 da Olinpiar Jokoak hartzearen aurka ageri da. Arrazoi ekonomikoek aldarazi dute hasiera bateko baikortasuna, eta ahots kritikoez gero eta indar gehiago dute. Gobernuari eta Londreseko Udalarari gastuen kontrola galdu duten ustea zabaldu da. 2005ean, garai hartan Tony Blair buru zuen Gobernuak, 2.800 milioi euroko aurrekontua aurkeztu zuen. Sebastian Coe olinpiar txapelidun ohia buru duen Antolaketa Batzordeak, halere, bi aldiz handitzeko eskatu behar izan zuen gero, 11.400 milioi euro arte lehenbizi, eta 14.000 milioi arte azkenean.

Olinpiar gunea da inbertsioaren bihotza. Lea ibai kutsatuaren alboa eraikia, erlauntza itxura-ko etxebizitza dorreak ordezkatu ditu. Milaka familia desjabetu eta auzoz aldarazi dituzte jokoen izenean. Etorkinak nagusi ziren hiriaren zonaldean, Europako



Erresuma Batuko bi polizia, Olinpiar Hiriko inguruak zaintzen. MICHAEL KAPPELER / EFE

## Motzean

- **3.** Londresek hartu dituen jokoak: 1908, 1948 eta 2012koak.
- **10.500.** Londresen ariko diren kirolariak. Lehen aldiz emakumezkoak dira gehienak.
- **34.** Kirol guneak.
- **302.** Proba ezberdin.
- **1.220.** Inaugurazio ekitaldia ikusteko salgai jarritako sarrerarik merkeena.
- **5.000.** Dopin kontrol.
- **50.200.** Segurtasunaz arduratuko diren pertsonak; horietatik 18.200, soldaduak.

ekialdekoak, bereziki, turistak daude gaur egun. Londresko gidetan, normalean, ekialdeko eremua goratzen da, han baitaude interesgune turistiko nagusiak. Orain, baina, ekialdea «ekonomikoki suspertzea» da asmoa. Han, betseak beste, Olinpiar Gunearen alboan Europako merkataritza gunerik handiena eraiki dute, 300 dendatik gora dituen.

Garraioak ere zeresan handia eman du. Londresen, berez, kaotikoa bada, jokoak proba izango dira garraio publikoaren sistemarako. Olinpiar Guneak tren geltoki erraldoia du, eta *Xabalina* tren zerbitzu propioa St. Pancraseko geltokiarekin lotzen duena. Txartelak 7,45 euro balio du, eta ez da metroko abontuen artean sartzen. Garraio sarea arintze aldera, Erresuma Batuko Gobernuak jendaurrean eskatu die Londreseko enpresei langileei oporrak emateko egun hauetan. Metroko langileek duela urtebete egin zuten jokoetarako greba deialdia, eta, hilabeteetan negoziatzen ibili ondoren, 615 eta 1.107 euro soldata

estrak lortu dituzte. Azkenaldian, autobus gidariak hasi dira protestan. Udalak soldata estra eskaini die Olinpiar eremuetako zerbitzua egingo dutenei, baina gidariak guztientzat nahi dute. Ekainaren 22an greba egin zuten.

Londres berez da garestia, baina jokoak direla eta prezioak itxuragabe handitu dira, aurrekontu-kuloa ahalik eta bizkorren estali nahiiko balute bezala. Olinpiar guneko hoteletan prezioak bikoiztu egin zituzten hasieran, baina azken egunetan murriztu egin behar izan dituzte. Bisitari bakoitzak gau bakoitzarako 200 euro inguruko gastua egingo duela kalkulatu du Olinpiar Batzordeak.

Sarrerei dagokienez, ia dena salduta dago, duela bi hilabete 1,8 milioi salgai jarriagatik; horietatik 1,2, futbol ikusteko. Merkeek jendaurrean eskatu die Londreseko enpresei langileei oporrak emateko egun hauetan. Metroko langileek duela urtebete egin zuten jokoetarako greba deialdia, eta, hilabeteetan negoziatzen ibili ondoren, 615 eta 1.107 euro soldata

Antolatzaileek Olinpiar Hiriko logotipoa hornitzeko jarritako lehen oinaka 1,73 metro luze ziren bakarrak; txikiagak, Usain Boltentzat, adibidez (1,96 m), eta ia saskibaloi jokalaririk guztientzat.

**1,73**




**Aupa Mikel eta Ainhoa!**



ZARAUZKO UDALA  
**euskal kirolariek bat**



### Londrestik kanpo




### Londres ingurua



# Egoitza

### Olinpiar Gunea

ikusleak eta kostua (milioi eurotan)





# Urrearen prezioa



Ander Herrera baloiarekin, uztailaren 13an Senegalen aurka jokatutako partidaren. QUIQUE CURBELO / EFE

**Europako txapelaldun izan berri diren hiru jokalaritarteant direla, gora begira dago Espainiako futbol selekzioa. Gaur ekingo dio lehiari, Glasgow, Japoniaren aurka, bost euskal jokalarirekin.**

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Brasilekin, Britainia Handiarekin eta Uruguaiarekin batera, Espainiako selekzioa da faborito argia futboleko urrezko domina lortzeko. Bost euskal herritar ariko dira hor: Ander Herrera, Iker Muniain, Javi Martínez, Cesar Azpilikueta eta Iñigo Martínez. *Tiki-taka* famatuak min ere egin dezake batzuetan. Azken bizpahiru urteotan, Europan eta munduan hain nabarmena izaten ari da Espai-

niako selekzioaren nagusitasuna, gainerako mailetan ere presioa areagotu egin baitzaie jokalariei. Urrearen prezioa da hori. Europako txapelaldun izan berri diren hiru jokalaritarteant direla—Javi Martínez nafarra, Juan Mata eta Jordi Alba—, urrea kolportatzeko faboritoen artean dago Espainia.

Bost euskal herritar horiez gain, beste bi ere Londresera joateko zorian egon dira: Mikel San Jose eta Asier Illarramendi. Baina, barizelarekin, etxera bidalita zuten Athleticen atzelaria; eta, Thiago Alcantararen lekua bete-

tzera joanda, azken uanean zerrendatik kanpo geratu zen Realeko erdilaria. Gainerako bost euskal herritarrek tartean direla, Espainiak gaur ekingo dio lehiari, Glasgowko Hampden Park futbol zelaietan, Japoniaren aurka—Euskal Herrian 15:45 direnean—; abuztuaren 11n, larunbatean jokatuko luke finala, Londresen, Wembley estadioan (16:00).

Prestaketa lana oso ona ere ez da izan Espainiako selekzioarentzat—Senegalen aurka 0-2 galdu zuten, eta Mexikoren aurka 1-0 irabazi—. «Baina jokoetan lehiatze-

ko aukerak ikaragarriko ilusioa sortu digu, bizitzan behin egoten delako horrelako aukera bat. Casillasek eta Iniestak, adibidez, ez zuten izan aukerarik. Betiko gordeta geldituko da».

Abiada bizian doa Herreren kirol ibilbidea. Jaiotza eta lau hilabetera, Vigora joan zen, aitarenekin—Celtako idazkari teknikoa zen Pedro Herrera—; lau urte beteta, Zaragozara joan zen familia; eta



Erronka zaila da, baina Europako txapelaldun izan ginen, eta aukera handia du taldeak»

«Urrezko domina irabazten saiatuko gara, Mikel San Joseri eskaini ahal izateko»

**ANDER HERRERA**  
Espainiako selekzioaren jokalaria

futbolari gisa han hazi ondoren, 2009ko uztailaren iritsi zen Athleticera. «Oso azkar ari zaizkit gertatzen gauzak, baina halakoa da futbolariaren bizimodua. Orain, izugarri ari naiz gozatzen Athleticen, eta egoera bakoitzera egokitzen asmatu beharra dago».

## Buruan, Japonia bakarrik

«Oinarrian 21 urtez azpiko Europako Txapelketako lana» dagoela argitu arren, «erronka zaila» izango dela azpimarratu du bilbotarrak. «Europako txapelaldun izan ginen, eta aukera handia du taldeak, Javi Martínez, Mata eta Jordi Alba ere tartean direlako». Erdilariaren hausnarketan nahi gabe bezala agertu da *domina* hitza. «Baina Japoniaren aurkako lehen partida bakarrik eduki behar dugu buruan. Ezin gara hasi pentsatzen dominetan edo finalean. Gogorak dira multzoko hiru taldeak (Japonia, Honduras eta Maroko), eta partidaz partida joan behar dugu».

Athleticeko erdilariren ustez, «huts larria» litzateke urrutira begirako helburuak jartzea. «Selekzio indartsu asko daude, eta komunikabideentzat Brasil, Espainia eta Britainia Handia diren arren faboritoak, Japonia besterik ez daukagu buruan». «Espainiako selekzio nagusiaren jokamoldeari eusteko gai izanda» itzuliko da Herrera gustura etxera. «Hortik aurrera, luxua litzateke dominen borrokan sartzea. Baina estiloari garrantzi handia ematen diot nik».

«Pena handiarekin» bizi izan zuen Mikel San Joseri gertatutakoa. «Eta berehala bidali nion mezu bat, esateko urrezko domina irabazten saiatuko ginela, hari eskaini ahal izateko. Hari, eta Thiagori». «Ezeri uko egin gabe», baina buruan hurrengo partida soilik dutela egin nahi dute finaleko bidea Javi eta Iñigo Martiñez, Muniain, Herrera eta Azpilikueta.

## Beste lau euskal herritarrek, Ander Herreren hitzetan:

### ■ Javi Martínez:

«Gure liderra da, kapitaina. Erasoko eta defentsako lanean oreka ematen dio taldeari, eta indar handia dauka aldagelatan»

### ■ Iker Muniain:

«Jokalaritza gisa, lotsagabea, erraz jokatzen duena. Zelaian, konplexurik gabekoa, une oro jokaldia buruan daukana. Nortasun handikoa eta ardura hartzeko beldurrik ez daukana».

### ■ Cesar Azpilikueta:

«Izugarri hazi da Frantziako Ligan, eta buruz burukoan garaiezina da. Indartsu joaten da erasora. Fisikoki, oso indartsua, eta oso atzelari ona».

### ■ Iñigo Martínez:

«Erdiko atzelaria izanda ere baloia jokatuz ateratzeko kalitate harrigarria daukana. Anoetan sufritu genuen moduan, jaurtiketa bikaina dauka; oldarkorra da, eta oso indartsua».

**Ricoh Arena** → Coventry

Erakusketarako tokia, hotel bat, aisiarako klub bat eta kasino bat daude 6.000 metro koadroko gunehorretan. 2015eko Munduko Errugbi Kopako partidak ere jokatu dituzte han. The Miller Partnership arkitektoak diseinutakoa da, eta 113.000.000 libako kostua eduki zuen orain dela zazpi urte: 144 milioi euro inguru.

■ **Inaugurazioa:** 2005eko abuztuaren 20a. ■ **Etxeko taldea:** Coventry City. ■ **Ikusle kopurua:** 32.609. ■ **Neurriak:** 105x68 metro.

**Hampden Park** → Glasgow

Eskoziako selekzioaren estadio ofiziala. Eskoziako Ligako kopako finala eta Eskoziako Kopako finala gain, hainbat kirol ekitaldi eta kontzertu ere izaten dira. 70 milioi libako berritze lanen ondoren (89 milioi euro inguru), bost izar ditu UEFaren mailaketan. 1950ean Maracana eraiki arte, munduko estadiorik handiena zen.

■ **Inaugurazioa:** 1903ko urriaren 31. ■ **Etxeko taldea:** Queen's Park. ■ **Ikusle kopurua:** 52.500. ■ **Neurriak:** 105x68 metro.

**Millennium** → Cardiff

Galesko errugbi eta futbol selekzioen estadio ofiziala. 126 milioi libako kostua eduki zuen hura eraikitzeak orain dela hamahiru urte, 160 milioi euro pasatxokoa. Errugbiko Sei Nazioetako partidak jokatu dituzte han, eta 2015eko Munduko Errugbi Kopako partidak ere egingo dituzte. HOK Sport arkitekto taldearena da diseinua. Lau izar dauzka UEFaren mailaketan.

■ **Inaugurazioa:** 1999ko ekainaren 26a. ■ **Etxeko taldea:** Galesko selekzioa. ■ **Ikusle kopurua:** 74.500. ■ **Neurriak:** 105x68 metro.

**A multzoa**

Britainia Handia  
Senegal  
Arabiar E. Batuak  
Uruguai

■ **Analisisa.** Giggs eta Bellamy mitoak tartean direla, apustu sendoa egin du Britainia Handiko selekzio bateratuak. Multzo gaitztoa da, ordea, selekzio sendoak direlako Senegal eta Uruguai ere.

**B multzoa**

Mexiko  
Hego Korea  
Gabon  
Suitza

■ **Analisisa.** Mexiko. Besterik ezin aipa daiteke multzoburu izateko. Hutsune handia utzi dute Chicharito, Vela eta Dos Santosek, baina faborito argiak dira. Kontuz Gabonen indar fisikoarekin.

**C multzoa**

Brasil  
Egipto  
Bulgaria  
Zeelanda Berria

■ **Analisisa.** Falta zaion garaikurra lortu arteko onik ez dauka Brasilek. Neymar buru dutela, izarrez josi dute taldea. Faborito argia da. Egiptok eta Bulgariak bigarren postua izango dute jokoan.

**D multzoa**

Espainia  
Japonia  
Honduras  
Maroko

■ **Analisisa.** Prestaketan larri antzean ibili da Espainia, baina beste hiru selekzioak baino indartsuagoa da. Atariko emaitzak kontuan hartuta, oso selekzio arriskutsua izan daiteke Honduras.

\* Multzo bakoitzeko lehen biak sailkatuko dira final-laurdenetarako.

**Old Trafford** → Manchester

Ametsen antzokia izenez ezaguna, Europako futbol zelairik sonatuenetakoa. Archibald Leitch arkitektoak diseinutakoa. 2015eko Munduko Errugbi Kopako partidak ere jokatu dituzte bertan. 90.000 libako kostua eduki zuen bere garaian, 115.000 euro inguru. UEFaren mailaketan, bost izarretik lau dauzka.

■ **Inaugurazioa:** 1910eko otsailaren 19a. ■ **Etxeko taldea:** Manchester United. ■ **Ikusle kopurua:** 76.098. ■ **Neurriak:** 105x68 m.

**St James' Park** → Newcastle Upon Tyne

Inglaterra ipar-ekialdeko estadiorik zaharrena; dena den, 1992tik dezentetan berritu dute —25 milioi libako kostua izan zuten urte hartako berritze lanek: 32 milioi euro inguru—. Trevor Skempton arkitektoak diseinutakoa da, eta lau izar ditu UEFaren mailaketan. 2015eko Munduko Errugbi Kopako guneetako bat izango da.

■ **Inaugurazioa:** 1880ko urriaren 16a. ■ **Etxeko taldea:** Newcastle. ■ **Ikusle kopurua:** 52.387. ■ **Neurriak:** 105x69 metro.

**Wembley** → Londres

Wembley estadio zaharra zegoen leku berean dago Wembley berria, Norman Foster arkitektoaren esanetara eraikia. 798 milioi libako kostua izan zuen, 1.100 milioi euro ingurukoa. Selektzioaren partidez gain, FA Cup, Community Shield eta Carling Cupeko finalak egiten dituzte han, eta iazko Txapeladunen Ligako finala ere hantxe jokatu zuten Bartzelonak eta Manchester Unitedek.

■ **Inaugurazioa:** 2007ko martxoaren 24a. ■ **Etxeko taldea:** Inglaterrako selekzioa. ■ **Ikusle kopurua:** 90.000. ■ **Neurriak:** 105x68 m.

Jokoetan hango ekosistemari ahalik eta kaltetik txikiena egiteko, 2.000 arribio edo salamandra tokiz aldatuko dituzte Olinpiar Guneetik Londres inguruko erreserba natural batera.



## Saskibaloia

### Hamaikagarren desafioa

### AEBetako selekzioarentzat

Hogei urte luze igaro dira *Dream Team* ametsetako talde hark zaleei gozatu handia eman zienekoa. Bartzelonako Olinpiar Jokoetan izan zen, 1992an, eta AEBetako selekzioak urrea lortu zuen aise. NBAko jokalariek profesionalek Olinpiar Jokoetan parte hartzen zuten lehen aldian zen. Garaiezinak zirenaren mitoa berretsi zuten orduan, baina orduz geroztik ez dira ez bat, ez bi, hartu dituzten muturrekoak. Egun, NBAko jokalariek %20 atzerritarak dira, eta horrek nazioarteko beste selekzio

batzuk AEBetako selekzio indartsua beldurtu dute. Hainbestera, non serio hartu izan behar baitute euren lana urrea irabazteko. Ez da gutxi, izar gehienek domina ia ia izerdirik bota gabe leporatuko zutela pentsatzen baitzuten. Londresen ere faborito da AEBetako selekzioa, baina badira urrea lapurtzeko asmoa duten selekzio pare bat. Espainiakoa, horietako bat, NBAko jokalariz josita. Hego Amerikatik beste bi mehatxu izango dituzte AEBek: Argentina eta Brasil. Horien artean banatu beharko lirarteke dominak.



Kobe Bryant, LeBron James, Deron Williams eta Kevin Durant. BERRIA

**Londresko Olinpiar Jokoetan proba guztietan egongo da lehia bizia, baina batzuk itzalean geratuko dira, beste batzuen distiraren aldamenean.**

## Tenisa

### Federer eta Serena Williamsek 'etxean' irabazi nahi dute



Titulu bakarra falta zaio Roger Federerri irabazteko: olinpiar urrea. Pekinen binakakoan irabazi zuen, baina banakakoan ez zituen gainditu final-laurdenak. Lau urte geroago, aukera bikaina du arantza ateratzeko, Wimbledonon jokatu baina tenisa lehiaketa, eta Wimbledon eta Federer elkarrekin doaz bi hitz baitira. Suitzarrak zazpi aldiz irabazi du Londresko belar gainean, azkena orain hiru aste eskas, finalean Andy Murray eskoziarra mendean hartuta. 31 urte betetzear, eta onenak emanda ziruenean suspertu da Federer. ATPko lehen zerrendaburua da, eta marka ezarri berri du: 288 aste lehen postuan. Haren atzetik ditu orain dela gutxi arte haren gainetik zeuden Novak Djokovic eta Rafa Nadal. Hain zuzen, serbiarra eta Murray izango dira suitzarraren aurkari nagusiak, Nadal ez delako ariko, sasoiko ez dagoelako. Emakumezkoetan, berriz, Serena Williams da faboritua. Estatu Batuarrek bost aldiz irabazi du Wimbledon, azkena orain hiru aste eskas. Maria Xarapova errusiarra izango da bere arerio zuzenena.

Roger Federer, aurten Wimbledonon jokatu eta irabazitako finalean. JONATHAN BRADY / EFE

# Ez galdu hauek bistatik

## Gimnastika

### Kanaevak historia egin nahi du

Gimnastikak, eta zehazki gimnastika erritmikoak erregina du aspaldidanik: Eugenia Kanaeva. 22 urteko gimnasta errusiarrak dena irabazi du azkeneko lau urteetan: olinpiar urrea Pekinen eta urrea ordutik hona jokatu diren Munduko hiru txapelketetan eta Europako lau txapelketetan. Garaipe bolada hori Londresera luzatzen badu, historia egingo du, ez baita egon gimnastikari bi Olinpiar Jokoetan jarraian banakako lehiaketan urrea irabazi duenik. Ezta Alina Kabaeva mitikoak ere —brontzea irabazi zuen Sydney eta urrea Atenasen—. Erronka zaila da, baina inork lor badezake,

hori Kanaeva da. Are gehiago, ezusteko galanta litzateke hark ez irabaztea. Banakako garaipe-nari, gainera, taldekakoa gehi dakioke, Errusia baita faboritua, Italia eta Bielorrusiaren baimenarekin.

Gimnastika erritmikoan ez bezala, gimnastika artistikoan ez dago inor guztien gainetik, eta emakumezkoetan zein gizonezkoetan lehia gogorra espero da. Pekinen etxeko taldea nagusitu zen bi mailetan, baina Londresen kostako zaio hori errepikatzea. Emakumezkoetan AEBek eta Errusiak estu hartuko dute Txina, eta gizonezkoetan, bi herrialde horiek eta Japoniak.



Eugenia Kanaeva gimnasta errusiarra. VINCENT DAMOURETTE / EFE

### Julen Etxeberria

Berrehun eta lau herrialdeetako 10.500 kirolari baino gehiago ariko dira Londresen. Horietatik asko eta asko itzalean geratuko dira, argazki eta telebista kameraren objektiboetatik kanpo. Beste batzuk, aldiz, une oro egongo dira objektibo guztien jomugan: Usain Bolt, Yohan Blake, Jelena Isinbaeva, Michael Phelps, Ryan Lochte, Melissa Franklin, Roger Federer, Serena Williams, Eugenia Kanaeva, AEBetako saskibaloitza. Londresko Jokoetako izar distiratsuenak dira. Haiek bereganatuko dute arreta.



Ryan Lochte, garaipea ospatzen, Michael Phelpsen ondoan, iaz, Shanghain, Munduko Txapelketan. KIM LUDBROOK / EFE



## Atletismoa

### Bolt eta Blakeren arteko lehiak bereganatuko du arreta

**B**eti izan da horrela, eta Londres ez da izango salbuespena. Abiadura probek bereganatuko dute arreta atletismoko lehiaketan. Zehazki, Usain Bolt eta Yohan Blake jamaikarrek 100 eta 200 metrokoan izango duten lehiak bereganatuko du arreta. Boltek zur eta lur utzi zuen mundua orain lau urte, Pekinen, 100 eta 200 metrokoan eta 4x100 metro txandakakoan urea irabazita. Garaipen horiek, gainera, proba bakoitzean munduko marka hobetuta apaindu zuten.

Lau urte geroago, balentria errepikatu nahi du. Badirudi, ordea, Pekinen baino izerdi gehiago bota beharko duela helburua lortu nahi badu, etxean arerio arriskutsua atera baitzaio: Blake. 22 urteko atleta gaztea da munduko txapelduna 100 metrokoan. Orain bi urte, Daegun (Hego Korea), lehenago korrika egiten hasteagatik epaileek Bolt deskalifikatu izana baliatu zuen Blakek. Baina Blakerena ez da

egun bateko kontua, zorte kontua. Aurten inork ez du hark baino azkarrago korrika egin 100 eta 200 metrokoak (9,75 eta 19,80). Ezta Boltek ere (9,76 eta 19,83). Londresen aritzeko Jamaikako sailkatze probetan ere Bolten aurretik izan zen Blake abiadurako bi proba nagusietan. Abuztuaren 5ean eta 9an jokatu dira 100 eta 200 metroko finalak. Orduan ikusiko da nor den azkarrena: Bolt edo Blake.

Eta horrez gain, zer? Bada, beste abiadura probetan, Jamaikaren eta AEBen arteko lehia estua espero da. Iraupen probetan, berriz, kenyarrak eta etiopiarrek nabarmenduko dira berriz ere. Jaurtiketetan, estatubatuarrek eta europarrak izango dira aurrez aurre. Jauzietan, Jelena Isinbaievak bereganatuko du berrito arreta, indartsu itzuli baita erretirofik. Azken txapelketa garrantzietan huts egin ostean, goia jo nahi du berriz eta ahal izanez gero, Pekinen egin bezala, munduko marka lortuta, bere 29.a.



Yohan Blake eta Usain Bolt atleta jamaikarrak. DIEGO AZUBEL / EFE

#### Kirol nagusien egitaraua

- **Igeriketa.** Uztailearen 28tik abuztuaren 4ra.
- **Gimnastika.** Uztailearen 28tik abuztuaren 12ra.
- **Atletismoa.** Abuztuaren 3tik 12ra.
- **Saskibaloia.** Uztailearen 28tik abuztuaren 12ra.
- **Tenis.** Uztailearen 28tik abuztuaren 5era.



## Igeriketa

### Phelps edo Lochte. Nor izango da nagusia?

**A**EBak nagusi izan ziren Pekinen igeriketako lehiaketan. 34 probetatik hamabitan irabazi zuen igerilari estatubatuar batek urea. Hamabi urte horietatik zortzi Michael Phelpsen kolkora joan ziren, nahikoa Mark Spitz herrikideak 1972ko Municheko Olinpiar Jokoetan lortutako uzta urte bategatik hobe zezan.

Lau urte geroago, AEBek orduko urte kopurua hobetu nahi dute. Hiru igerilarik izango dute erantzukizuna uzta biltze horretan, dominen sailkapenean Txinari tartea jateko erabakigarria izan daitekeena: Phelps, Ryan Lochte eta Melissa Franklinek izango dute ardua. Hiru igerilariok ezarri zaien helburua betetzen badute, AEBek gutxienez hamasei urrezko domina izango lituzkete ziurtatuak. Phelps eta Lochteren artean bederatzi urte eskura ditzakete. Gehiago irabaz zitzaizketen, baina bi igerilariok estiloetako bi probetan lehiatuko dira elkarren aurka. Faboritorik ez

dago. Iaz Shanghain (Txina) jokatu zen Munduko Txapelketan bakoitzak proba bat irabazi zuen, eta beste horrenbeste gertatu da duela gutxi, AEBetako sailkatze probetan. Phelpsek gehienez zazpi urte irabaz ditzake bere azken jokoetan. Pekinen baino bat gutxiago. Hori bai, hiru irabaziz gero, domina gehien irabazi duen kirolaria litzateke (19). Lochte, berriz, bospasei irabaz ditzake, parte hartuko duen txandakako proben arabera.

Franklin da AEBen beste esperantza. 17 urteko gazteak zazpi urte irabazi nahi ditu. Iaz, Shanghain, erakutsi zuen berea dela etorkizuna —bost domina irabazi zituen, tartean urrezko hiru—, eta Londresen hori berretsi nahi du. Txinak eta Errusiak ere domina dezente lortuko dituzte. Jauzilari txinatarrek eskuratuko dituztenei Sun Yang igerilariarena gehi dakieke—lehen urea litzateke Txinako igerilari batentzat—Errusia, berriz, igeriketa sinkronizatuan nabarmenduko da.

Milioi bat kirol tresna erabiliko dituzte Londresko Olinpiar Jokoen tartean. 26.400 tenis pilotak, arku tiroko 6.000 diana, 2.700 futbolarri, boxeoko 376 eskularru eta judoan eta borroka librean entrenatzeko 99 panplina.

1.000.000

**B**ihartik aurrera, Londres izango da Olinpiar Jokoak hiru aldiz antolatutako munduko hiri bakarra. 1908. urtean egin zituen antolatzaile lanak lehenengo aldiz; Erroman egin behar ziren berez, baina Vesuvio sumendiaren erupzioak Italia utzi zuen egoera ekonomiko zaila zela eta, Italiako agintariek ordezko bat bilatzeko eskatu zuten, eta Londres aukeratu zuten. II. Mundu Gerraren ostean, 1948an izan zen bigarren aldia.

1908ko Olinpiar Jokoetako estadioa zegoen lekuan daude orain BBCren bulegoak White City auzoan, eta turistek jarria nabari da azken asteetan. Orduan

## 104 urteren ostean



'London calling'  
Garazi Goia

maratoia bukatu zen lekua markatuz, zorian marra bat dago, domina zerrenda paretan tatuaturik duen eraikinaren ondoan. Albumetako lehen orriak beteko dituzten argazkiak atezaz dabilta turistak. Agidanez, 60.000 libra kostatu zen orduko estadioa eraikitzea; Londres ekialdean dagoen bilioi erdi libratik gorako estadioaren ondoan barregarri gelditzen da orain zerbaki hori.

Bihar, goizeko zortziak eta hamabi minututan, *All the bells* (kanpai guztiak) deitzen den proiektuan, Britainia Handiko milioika lagunengatik parte hartzea espero da jokoei hasiera emateko: hiru minutuan, mota guztietako kanpai eta txirri-

nak ozen joko dituzte —ehunka herritako elizetako kanpaiak, bizikleta eta etxe sarreretako txirrinak, behien kanpaiak, eskoletako txirrinak...—. Martin Creed artistaren *Work No. 119* ekimena da, herri osoa jokoetan lehenengo egunetik murgil dadin sustatzeko.

Orain arte eguraldiak hartu du protagonismoa. Estatistikak existitzen diren egin duen hilabeterik euritsu eta hotzena izan omen da ekaina, eta kezkatuta zebilen jendea, euririk festa zapuztuko ote zuten zalantzan. Baina eguzkia aterata azkenean, eta prest dago Londres. Edo hori esaten dute batzuek. Bihar horri buruz gehiago.



berria  
2012ko uztailearen 26a

# Azkena →



↑ **Zain, patxada ederrean.** Astebete luze falta da oraindik pistako probak hasi arte, eta argazkiko pertsonak itxaronaldia lasai hartzea erabaki duela dirudi. Ondo prestatuta, hori bai. Etzanda, burko eta galtzerdi eta guzti, eguzki galdatan. 30 graduko tenperatura dute egunotan Londresen, ezohikoa erabat paraje haietan, eta giro atsegin horrek ere atsedean unea luzeagoa izatea eragin du. **FELIPE TRUEBA / EFE**

## → Laburrak



ROGER PARKER / EFE



### Hasi da lehia

**FUTBOLA** Bihar gauean piztuko dute olinpiar sua, baina hasia da lehia. Atzo, emakumezkoen futboleko lehen partidak izan ziren. Estreinaoan, etxekoek 1-0 irabazi zioten Zeelanda Berriari.

### Papajristu kanporatu dute, iruzkin arrazista batengatik

**ATLETISMOA** Londresen aritu behar zuen Vula Papajristu jauzi hirukoitzeko Greziako txapeldunak, baina Greziako Olinpiar Batzordeak jokoetatik kanpo utzi du, Twitterren iruzkin arrazista bat egiteagatik. Papajristuk esan zuen «Greziaren dabilta horrenbeste afrikarrakin gutxienez Mendebaldeko Niloko euliek [birus bat kutxatzen duten euliak dira] etxeko bazkaria» izango dutela. Papajristuk barkamena eskatu zuen gero, baina haren herrialdeko olinpiar batzordeak ez zuen izan errukirik harekin.

### IAAFek baieztatu egin du Selsouliren positiboa

**ATLETISMOA** Mariem Selsouli atleta marokoarra ez da lehiatuko Londresen, Nazioarteko Atletismo Federazioak (IAAF) atzo baieztatu baitzuen Selsouli positiboa eman zuela *furose-mida* izeneko diuretiko batekin, hilaren 6an Parisen egindako Diamantezko Ligako proban. Sasoi honetan 1.500 metrokoan marka onenaren jabe denak bizi guztiko zigorra jasoko du ziurrenik. Izan ere, 2009an ere positiboa eman zuen, eta bi urteko zigorra ezarri zioten. Selsouli zen Londresen urrea lortzeko faboritoetakoa bat.

### Londresera joateko debekua Lukaxenkori

**BIELORRUSIA** Erresuma Batuko Gobernuak ez dio baimena eman Aleksandr Lukaxenko Bielorrusiako presidenteari Londresera joateko. «Europako Batasuneko herrialdeetan sartzeko debekua duten pertsonen zerrendan dago Lukaxenko, eta debeku horrek bere horretan jarraitzen du Olinpiar Jokoei irauten duten bitartean». Aleksandr Zhukov Errusiako Olinpiar Batzordeko buruak erabakia salatu du. «Eskoletako gazteek ere badakite antzinako Greziaren su-etena zegoela jokoei irauten zuten bitartean».

1972ko Municheko Olinpiar Jokoetan hildako 11 atleta israeliarretako biren alargunek 105.000 sinadura bildu dituzte, inaugurazio ekitaldian minuru bateko isilunean egin dadin.

105.000



**L**aguna zuen Henri Didon anaia domingotarra, eta gustatu egin zitzaion hark bere garaian Parisko Alberto Magno kolegioaren aurrealdean jartzeko aukeratutako goiburua: «*Citius, Altius, Fortius*» (Azkarrago, Gorago, Indartsuago). Bat zetoren bere pentsamoldearekin, kirola eta bizitza bera ikusteko eta sentitzeko zuen filosofia aurrerakoi harekin, eta hiru hitz horiek hautatu zituen 1896ko Olinpiar Jokoen goiburua gisa, Atenasen, Aro Modernoko lehen Olinpiar Joko haien hasierako ekitaldian eman zuen hitzaldirako.

## Azkarragotik azkarrenera



'*Citius, altius, fortius*'  
Enekoitz Telleria

Pierre de Coubertin baroiaren meritua da dena, beraz. Kristautasun muskularraren jarraitzaile sutsua zen hura; izpirituaren perfekzioa kirolaren eta higienaren bidez lortzen dela sinesten zuen sutsuki, eta 40 urtean mundu erdia zeharkatu zuen pentsaera horren abantailak goratu eta gobernuak konbentzitu nahian kirol ekitaldi erraldoi batean izena eman zezaten. Kirola batasunaren eta sendetasunaren sinbolo gisa. Ethelbert Talbot Pensil-

vaniako apezpikuaren esaldia bere eginda: «Garrantzitsuena parte hartzea da, ez irabaztea».

Historia liburu guztietan agertzen diren datuak dira. Olinpiar izpirituaren berri ematen dute bertan. Coubertingo baroiaren lorpenaz eta jokoak berriro abian jartzeak izan zuen merituz ari dira. Baina ez dut inon topatu non apurtu zen ka-tebegia eta non hartu zuen saihezbidea: *azkarrago* izan beharrean *azkarrena*, *altuago* izan beharrean *altuena* eta *indartsuago* izan beharrean *indartsuena* goratzen dituen hori.

02  
03  
04  
05  
06  
07

**Judoa** → Kolpea emateko prest dira Oiana Blanco,

Sugoi Uriarte eta Kiyoshi Uematsu judokak

**Olinpiar tiroa** → Juanjo Aranburu eta Pablo Carrera


tiratzaileek jomugan dute domina

**Igeriketa** → Michael Phelpsék beste zazpi urre

nahi ditu, eta 21era arte handitu bere uzta



london



berria  
2012ko uztaillaren 27a

# Suak piztuko ditu

Gaur gauean olinpiar estadioan egingo den inaugurazio ekitaldi distiratsu baten bidez hasiko dituzte Londresko Olinpiar Jokoak. → 08



Txandakari bat olinpiar zuziarekin, St. Paul's katedralaren aurrean, atzo. JAVIER LIZON / EFE



JON URBE / ARGAZKI PRESS



# Oiana Blanco

Judoka

**Bihar ekingo die Oiana Blanco oriotarrak lehen Jokoei. Ez du hasiera samurra izango, munduko lehena izango baitu aurkari: Tomoko Fukumi japoniarra. Hala ere, uste du «dominen borrokatik gertu» ibil daitekeela.**

## «Nire kirol ibilbideko unerik gorenean nago»

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

«Irabazi edo galdu, pertsona bera izaten jarraituko dut». Ez da aurkezpen txartel txarra. «Baina domina bat lortzea da helburua». Gora begiratzea baita kontua. Oriotarra da jaiotzez, Ergobian bizi izan da urte luzez, eta egun Usurbilen bizi eta entrenatzen da. Horixe da Oiana Blanco. Lehen aldiz ariko da Olinpiar Jokoean, eta gozatu egin nahi du esperientziarekin. Lau urte igaro ditu biharko egunaren zain. 10:30ean ekingo dio lehiari, Tomoko Fukumi munduko lehenaren aurka.

**Ahaztu jokoak, txapelketak eta emaitzak. Nolatan zion judoari hainbesteko maitasuna Orio eta Usurbil artean zebilen neskato hark?**

Ergobian bizi nintzen, eta Martutenara joaten nintzen eskolara. Kirol guztietan ematen nuen izena. Nire ahizpak judoa egiten zuen garai hartan, bazkalondoren, eta ate ertzetik begira egoten nintzen beti. Egun batean, gelakide bat etorri zen esanez berak judoa egingo zuela, eta orduan eman nuen izena nik ere. Kirol guztietan aritu izan naiz betidanik, nire altuerarekin baita saskibaloian ere, eta, pixkanaka, aukeratzat joan nintzen. Atzera

### Nortasun agiria

- **Adina.** 29 urte.
- **Jaioterria.** Orio (Gipuzkoa).
- **Pisua.** 48 kilo.
- **Altuera.** 1,54 m.
- **Lorpenik garrantzitsuenak.** Munduko Kopan, Munduko Kopan, zilarra (2009); Europako Txapelketan, brontzea (2010); eta Munduko Kopan, lau garaipen (2011-2012). Lehen aldiz ariko da jokoetan.

egiteko aukera edukiko banu, berdin aukeratuko nuke.

**29 urterekin, lehen jokoak izango dira zuretzat. Heldutasunera iristen ari zarela esan daiteke, oreka aurkitu duzula?**

Pertsonalki oraintxe nago ondoren, bai fisikoki, bai buruz. Esperientziak asko balio du judoan; osotasuna lortu dut, eta nire kirol ibilbideko unerik gorenean nago.

**Teknika, fisikoa, indarra, burua... Zenbat dauka judoak bakoitzetik?**

Burua denerako da garrantzitsua; bai kirolerako, bai egunerokorako. Baina judoan, teknika, taktika, fisikoa, azkartasuna... gauza asko behar dira. Azkartasuna eta mugikortasuna dira nire indarguneak, eta, agian, horixe lantzen dut gehiago. Tata miaren gainean oso dinamikoa da nire jokoa. Baina osotasun bat behar da judoan.

**11. postuan sailkatu zinen jokoetarako, eta azken urtebetean Munduko Kopako lau proba irabazita zaude. Itxaropena izateko moduko datuak dira.**

Oso ona izan da azken urtea. 2009ko Munduko Txapelketan eman genuen saltoa, bigarren postua lortuta. Hurrengo urtean, Europako Txapelketan, hirugarren sailkatu ginen, eta goraka jarraitu genuen. Aurten, berriz, urte guztian lortu dugu maila onean aritzea. Europako eta Munduko Txapelketan ez dugu asmatu, baina hor gaude, eta erakutsi dugu zer bait egiteko aukera badaukagula.

**Judoa aipatu, eta japoniarrei buruz hizketan hasten dira denak. Hain**

**favorito dira japoniarrak Londresen ere?**

Nire pisuan, japoniarrak dira sailkapeneko lehen biak, eta herrialde horretan bosgarren dagoena lehiara aterata ere, gai da domina eskuratzeko. Emakumezkoetan, bereziki, koska bat gorago daude japoniarrak. Baina judoan oso zaila da apustuak egitea, gerta litekeelako arrazoi jakin batengatik ezuste handiak izatea. Datuak argigarriak dira, ordea: Munduko Txapelketan, herrialde bakoitzeko bi kirolari joateko aukera dago, eta japoniarrek final asko jokatu izan dituzte elkarren aurka. Goian daude, baina egun jakin batean erantzun behar da.

**Horregatik erabaki zenuten Londresera iritsi aurretik Japoniara joatea entrenatzera?**

Hala da, bai. Bagenekien Japonian ez ginela elkartuko Londresen lehiari ariko direnekin, haiek euren prestaketa egin dutelako. Unibertsitateka entrenatzen dira han, eta horietako batean egon ginen gu. Teknikoki oso onak dira; handik dator judoa, eta horren bila joan ginen.

**Batzuetan iritsi zaren arren, zer falta zaio Oiana Blancori japoniar horien parera iristeko?**

Tatami gainean heldutasun eta lasaitasun handia daukate. Hain argi daukate irabazi egingo dutela... Oso lasai joaten dira lehiatzerara, eta oso zaila da japoniar bati markaketa egitea. Fisikoki oso gorputz berezia daukate: gerria oso baxu, hanka indartsuak... Txiki-txikitatik aritzen dira judoan, eta haur txikiak ere gu baino hobek dira ia-ia.

«Nor ikusi nahi duduan Londresen? J. K. Rowling idazlea!»

→ Kobe Bryant • SASKIBALOI JOKALARIA





**Jokoetarako txartela lortu eta bi hilabetera jokatu zen Europako Txapelketa, Errusian, eta lehen borrokan galdu zuen Ana Hormigo portugaldarraren aurka. Zenbateko garrantzia dauka porrot horrek?**

Varsoviatik itzulita, jokoak prestatzeari ekin genion. Urtarriletik abendura arte irauten dute txapelketek, eta oso zaila da prestakuntza egokia egitea. Urte guztian egon beharra dago puntan, eta horregatik erabaki genuen sei hilabete lehenago jokoei begira jartzea, nahiz eta bagenekien tartean Europako Txapelketa

**«Azkartasuna eta mugikortasuna dira nire indarguneak, baina osotasuna behar da»**

**«Domina baten bila noa. Ez nintzateke ni izango joate hutsarekin gustura banengo»**

zegoela. Egia esan, oso gaizki sentitu nintzen Errusian. Bidaia bera gogorra izan zen, eta ez nuen sentitu nire gorputza han zegoenik. Ez nintzen gai gorputza kontrolatzeko. Amorrua eman zidan, baina...

**Buruak lan handia egingo du horrelakoetan, noski. Lantzen al duzue arlo hori?**

Nik lantzen dut, bai. Judoan hasi nintzenetik, hobekuntza handia nabaritu dut. Buruari esker lortu dugu, ziurrenik, 2009tik aurrera izan dugun hobekuntza. Gaitasuna bageneukan, hor geunden, baina zerbait falta zitzaigun. Konfiantza handia hartu nuen eguneroko lanketa horri esker.

**Hiru urte igaro dira munduko txapel-dunorde izan zinenetik. Zertan aldatu zara azken hiru urte gogor haue-tan?**

Hainbeste txapelketarekin, urte onak eta ez hain onak egon dira tartean, eta garai zail horietan ikasten da, agian, aurrera egiten. Heldutasuna lortu dut txapelketetan; huts bakoitzarekin ikasten asmatu dut. Fisikoki, teknikoki, taktikoki... Arlo horietan ere eguneroko hobetu beharra. Baina tatami gaineko heldutasuna aipatuko nuke nik.

**Bihotzari eta buruari kasu eginda, zein dira Londresko Jokoetarako helburuak?**

Urte honetako bilakaera aztertuta, eta kontuan hartuta Munduko Txapelketan gerora hirugarren amaitu zuen brasildarraren aurka azken segunduan galdu genuela, domina baten bila noa Londresera. Hori bai: huts txiki-baitan egongo da arrakastarako bidea. Zaila da helburua, baina ezin da besterik markatu. Ez nintzateke ni izango jokoetara joate hutsarekin gustura banengo. Egin nezakeen guztia egin dudane sentipenarekin itzuli nahiko nuke etxera, jokoekin gozatu-ta. Ederra litzateke lasaitasun hori edukitzea.



## Sugoi Uriarte

### Estratega

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

**L**ehen Olinpiar Jokoak ditu, eta Sugoi Uriarteren kasuan ezin da zehaztu eskarmentu falta ona edo txarra den. «Munduko zirkuituko nire lehen Sari Nagusia irabazi egin nuen; Munduko Txapelketan parte hartu nuen lehen aldian, 2009an, txapel-dunorde izan nintzen; Europako lehenbizikoan,

#### Nortasun agiria

- **Adina.** 28 urte.
- **Jaioterria.** Gasteiz.
- **Pisua.** 66 kilo.
- **Altuera.** 1,69 m.
- **Lorpenik garrantzitsuenak.** Munduko txapel-dunorde 2009an (Herbehereak); Europako txapel-dunorde 2010ean (Austria).



#### Nortasun agiria

- **Adina.** 33 urte.
- **Jaioterria.** Portugaleta (Bizkaia).
- **Pisua.** 73 kilo.
- **Altuera.** 1,73 m.
- **Lorpenik garrantzitsuenak.** Europako txapel-dunorde (2004) eta bi aldiz txapel-dunorde (2003 eta 2008). Hirugarren postua Munduko Txapelketan (2005). Bi aldiz lehiatu da Olinpiar Jokoetan: 2000an eta 2004an.

2010ean, txapeldun, eta ea bolada Londresen luzatzen dudana. Hala balitz, ez lidake inportako Rio de Janeiro podiumez ez zapaltzea». Londresen 66 kiloz azpiko lehiaria ariko da, igandean, egun osoz, eta zerrendaburu gisa ekingo dio. Hori zen sailkatze urteetako helburua, eta orain gora begira dezake. «Domina lortzeko aukerarik ez banu, ez nintzateke joango. Dena den, nire helburua txapelketa ona egitea da».

Lau anaia-arreba judoan jardundakoak dira, eta hiru maila oso onean ari dira. Maier arreba Espainiako txapel-dunorde izandakoa da, eta Gar anaia gaztea, txapel-dunorde. «Zein ona den ikusten duenean gora egingo du. Lehen, irabazten nionean, ez zen haserretzen. Orain, aldez, bai, eta hori ona

da». Sugoi 18 urterekin joan zen Valentziara (Herrialde Katalanak), «hobetzeko», eta ez da inoiz damutu. «Aukerarik onena zen. Kritikak entzun nituen, ez pentsa. Baina han daude Espainiako lehiakiderik onenak».

Iaztik zegoen sailkatuta, eta 2012an gutxiago lehiatu da, nahita. «Zerrendaburu izatea ziurtatuta, ezkutuan egotea nahiago nuen. Ez zitzaidan komeni torneo-etara joatea». Ahul zaudenean indartsu ageri, eta ahul zaudenean indartsu. Sun Tzu-ren *Gerraren artea* irakurria duela onartzen duen ingeniari industrial bat da Uriarte: estrategia bat. Koaderno batean aurkari guztien oharrak ditu. «Metodikoa naiz. Aurkariak ezagutzeko oso garrantzitsua da: oharrak, bideoak... Lan taktikoa garrantzitsua da. Estratega bat? Bai, gutxi gorabehera». Ezagutza horretan oinarritzen ditu bere nahiak, eta lehiakide mongoliarra sailhestu nahi du.

Uste du bere pisuan domina irabazteko aukera duten hamar judoka daudela, eta hor ikusten du bere burua. Lasai dago, baina jokoak zer diren galdetu die ezagutzen dituzten beste kide batzuei; besteak beste, Kiyoshi Uematsu logelakideari. «Ez itsutzeko esaten didate. Aurkariak berdinak direla. Hemengo edozein txapelketera noan bezala joango naiz». Horrela egingo dio aurre lehen aurkariari, Francesco Faraldo italiarrari —munduko 24.ari—.

## Kiyoshi Uematsu

### ‘Messi’ lasai dago

**I.M.** Londres → Berriemaile berezia

**D**efinizioa Sugoi Uriarte Olinpiar Jokoetako kide eta lagunarena da: «Kiyoshi Messi bezalakoa da. Pozik badago eta egun ona badu, mago bat da. Haren defentsa eraso da; judo japoniarra da, teknikoa. Haren pisuko azken sailkatu gisa sartu da jokoetan, baina, hala ere, ustekabea eman dezake». Judoa deskribatzeko, ez dago judoka baten hitzak baino hoberik. Uematsuk astelehenean egingo du borroka, 72 kiloz azpikoan, Mansur Ishaev errusiarraren aurka (munduko laugarrena).

Sydneyn lehiatu zen (Australia), Atenasen ere bai, eta, Pekinen huts egin ondoren, olinpiar senu hirugarrenez ikusiko du 33 urterekin. Bere buruari esaten dio txapelketa bat gehiago dela, baina ez du ahaztu Atenasko azken esperientzia gogorra. «Jokoetan tamamira igotzen zarenean, ez da gauza bera. Ondo gogoan dut lehen jokoetako tentsio hura; ez zen gauza bera. Aurreko hilabetean garaitutako aurkaria zen, baina

ezzen berdina». Atenasko oroitzapena, halere, gogorragoa da. «Aurrekoan pasatutakoa sailhestu nuen, baina presioa handiagoa zen, Europako txapel-dunorde nintzelako. Oso estu hartu ninduten, eta tatamian nabaritu nuen; ez galitzeko presioa zen».

Londreserako bidea lasaia egin nahi du. Sailkatzea kosta zitzaion, eta ez da faboritoen artean ageri. Belauneko lesioa izan zuen 2010ean. Hiru borroka baino ez zituen jokatu, eta «bere kasa» sendatu ondoren, 2011n hasi zuen jokoetarako esprinta. Badaki beterranoen multzokoa dela, baina ez dio adinari begiratu nahi. «Adina ez da arazo. Neure burua 25 urte nituenean bezain indartsu ikusiko ez banu, utzi egingo nuke».

Ustea ez da harena bakarrik. Familiak Portugaletan (Bizkaia) duen gimnasioa tatamian ikasi zuen ibiltzen, eta judoa da haren bizia. Gurasoak entrenatzaileak ditu, eta Kenji anaia jokoetan lehiaturikoa da. Kiyoshi sasoiko dago. Aurkariak «ondo» ezagutzen dute, baina ez du arduratzen. «Askok nire aurka galtzen jarraitzen dute. Horregatik nago hor».



# Mundua bukatuko ez delako

**Pekingo diploma hobetu dezakeela uste du. Munduko 'skeet' txapelkun izandakoak, Juanjo Aranburuk, urrezko domina du begiz joa: «Zergatik ez? Nire aurkariak platerak dira; hori bai, ziztu bizian doaz».**

LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS



**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

**B**adaki zer diren Olinpiar Jokoak; ezerk ez du ustekabeen harrapatuko. «Badakit ez dudala itsutu behar. Ezin naiz hiru egun lehenago proban bakarrik pentsatzen aritu. Gozatzera eta irabaztera joan behar dut». Juanjo Aranburuk (Irun, Gipuzkoa, 1981) etxeko egongelan du Pekinen lorturiko diploma, eta, han eskegi zuenetik, ez du behin ere eskuetan hartu. «Zertarako? Nik badakit urrezko domina irabaz dezakedala; munduko txapelkun izan banaiz, zergatik ez? Baina badakit finaletik kanpo gelditu naitekeela ere, munduko 30 onenak daudelako. Eta hori gertatzen bada, ez da ezer pasatzen; mundua ez da bukatuko».

Azken urteak ez dira erosoak izan Aranbururentzat. «Europako edo Munduko Txapelketako finalean sartu izan ez banintz, akabo, eskopeta bildu eta etxera; bakarrik gabe ezingo nuke jarraitu. Mentalki gogorragoa da orain, baina. Buruan dena argiago ageri zaio. «Pekinen presiorik ez nuela esaten zidaten, berria nintzelako. Orain, ni Londresera banoa, irabazteko noa». Bere burua du zaindu beharreko bakarra, eta sei mila eurotik gora balio duen eskopeta. «Nire aurkariak disko larajak dira, eta ziztu bizian doaz. Nik nire marka egiten badut [munduko marka berdindurikoa da], besteek hartu beharko naute ni kontuan».

Londresera ondo iritsi da, urtean hautsiriko 14.000 plateren laisaitasunarekin. Dena den, dioenez, badago 50.000 hausten due-

nik. «Aurkari asko polizia edo militarrik dira. Horientzat errazago da entrenatzea». Irabazi egin zuen Olinpiar Jokoen aurretik jokatutako azken txapelketa, Frantzia, eta konfiantzaz dago. Dena den, kontrola ez dezakeen aldagai bati garrantzi handia eman dio: astelehenean izango duen gorputzalari. «Ezin da azaldu. Nola esnatzen zaren da kontua; kantxan jarri, eta egun batzuetan platerak aspirinaren dirudite, eta hurrengoan azpilak».



**Ezin da azaldu, baina egun batzuetan platerak aspirinaren dirudite, eta hurrengoan azpilak»**

**JUANJO ARANBURU**  
Skeet tiratzailea

Londresko tiro gunea ezagutzen du, eta gustuko du. Eguraldi aldaketek zeresana eman dute tiratzaileen artean, baina hark umorez eman du iritzia. «Hemen Euskal Herrian ere ordu erdian alda daiteke; gu zailduta gaude». San Martzial mendian du entrenamendu gordelekua, Txingudirako badiara begira, eta han eguraldi aldaketak are bortitzagoak dira. Londresko tiro gunea ospitale batetik gertu egoteak eragozpenak sortu dizkie tiratzaile askori, baina Aranburuk ez du kezarik izan. Are gehiago, gune «ona» dela dio, betiere eguzkia badago. «Atzean oihal berde handi bat dago, eta argiarekiko kontrastea bikaina da. Ilun badago, marka baxuak egongo dira, 121 eta hala-koak». Lau plater kale egiteri marka baxua deitzea berez da argigarria oreka ilustratzeko.

## Olinpiar tiroa

Euskal tiratzaileek parte hartuko duten modalitateak.

**Pablo Carrera**

### Aire konprimituko pistola

Distantzia **10 m** Kalibrea **4,5 mm** Munduko errekorra **594** puntu Bere errekorra **586** puntu

Dianaren erdigunea **11,5 mm** 60 tiro egiten dira 105 minutuko tarte batean. Puntu gehien lortzen duten zortzi tiratzaileak finalera igarotzen dira, beste hamar tiro egiteko.

### Pistola librea

Distantzia **50 m** Kalibrea **22 LR** Munduko errekorra **581** puntu Bere errekorra **571** puntu

Dianaren erdigunea **50 mm** 60 tiro egiten dira 120 minutuko tarte batean. Emaitzak hamar tiroko sei txandatan ematen dira.

### Eskopeta

Bi kartuxorekin karga daiteke bakarrik, eta tiratzaileak behin bakarrik egin diezaioke tiro plater bakoitzari.

### Platerak



11 zentimetroko diametroa dute, eta larriak dira. Orduko 105 kilometroko abiadura har dezakete.

### Kartuxoak



12 kalibrekoak, asko jota, 70 milimetro luze dira, eta 24 gramokoak. Munizioak pistoi bat du, eta perdigoi betetako estalkia.


**Juanjo Aranburu**

### Skeet

30 parte hartzaile daude, eta sei onenak igarotzen dira finalera. 25 platerako bost txanda egiten ditu parte hartzaile bakoitzak, bi egunetan banatuta. Finalen beste 25 dira. Ohikoa da 120 plateretik gora haustea.

### Skeet zelaia

Platerak altuera desberdinetan dauden bi etxetatik iristen dira.



Txanda bakoitzean tiratzaileak zortzi kokapenetatik egiten du tiro.

Biharhasiko da emakumezkoen saskibaloi lehiaketa. Gizonezkoetan bezala, AEBetako selekzioa da urrea irabazteko faktore nagusia. Lortuko balu, bosgarren urrea luke jarraitlan.





LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS



## Pablo Carrera

Pistola tiratzailea

Lehen Olinpiar Jokoak ditu. Hala ere, lasai dirudi lehia hasi bezperan. Berezkoa du patxada, baina kontzentrazio ariketekin ere landu du.

# «Lasai nago, azken finean gauza bera hirurogei aldiz egitea da»

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaille berezia

Ilusioz iritsi da Pablo Carrera (Bilbo, 1986) bere lehen Olinpiar Jokoa etara. Emaitzak lagun ditu, Europako txapeldun izan baita aurten aire konprimatuko 10 metrokoan, bihar jokatu duen proban. Umoreko dago: «Herrietako jailetako barraketan nire argazkia jarria dute; ez didate botatzen uzten!». Lasai mintzo da, astiro eta

zentzuz. Diploma lor dezakeela uste du.

**Urtebete baino gehiago egin duzu sailkatuta; zer moduz itxaronaldia?**  
Nire mailari eutsi behar izan diot, puntuazio onak lortuz. Nik postu hori lortu nuen selekzioarentzat, baina gero niretzat izatea lortu behar nuen, eta duela gutxira arte ez zidaten ziurtatu ni izango nintzenik.  
**Zerbaitek arduratzen zaitu bereziki?**  
Egia esan, ez. Dena kontrolpean dago. Helburua egun egiten ari

### Bi proba

■ **Bihar, 10 metro-tan.** Hamar metro aire konprimatuko pistolarekin. Royal Artillery Barracksen lehiatuko da. Goizez hasi, eta arratsaldean izango da finala.  
■ **5ean, 50 metro.** Abuztuaren 5ean berriz ere lehiatuko da. 50 metro, edo pistola librean.

naizen markak egitea zen. Gero, txapelketetan erregulari sartu naiz finaletan, eta sentsazio onak izan ditut. Jokoetan, historikoki, markak txarragoak dira oro har, presioaren eraginez, eta horrek niri mesede egin diezadake arduratxikiagoarekin noialako.

**Beraz, diploma eskura ikusten duzu?**  
Lor daitekeen helburu bat da. Hori bai, postuak ezin dira ziurtatu. Nik ezin dut esan beti 580 puntu egingo ditudala. Izan ere, puntu bat edo bi gutxiago lortzea hamar postu jaiste da. 580 puntu 60 tiroetatik 40tan hamarrekoa lortzea da, eta hori ez dago gaizki. Munduko errekorra 594 da, eta nire marka 586. Marka horrekin urrea irabaziko nuen Pekinen.

**Europako txapeldun, bederatzigarren munduko sailkapenean... Konfiantza izateko modukoa da.**

Bai, baina errealistak izan behar dugu. Ni hasiberria naiz, eta hor lau jokotan egondako jendea dago: munduko txapelduna, Europakoa, korearra munduko markaren jabe da, japoniarra bitan izan da munduko txapeldun...

**A dibide bat: azken txapelketan japoniarra ez zen finalean sartu. Txarra al da horregatik? Ez, ez zuen egun ona izan, eta kito. Hemen hori oso garrantzitsua da.**

**Perfektzioaren bilaketa da.**

Bai, hori da muina. Tiro txar batek sei, zortzi edo hamar postu jaiste esan nahi du.

**Jokoak ikusiz hasi zinen tiro egiten.**

Bai, hala da. Duela zortzi urte izan zen; telebistaz ikusi nuen Atenasko lehia. Nik, ordurako, herrian, karabinarekin tiratzen nuen, eta, probatu nahi nuen, gurasoek eraman ninduten Artxandara.

**Taldeki de beterranoei aholkurik eskatu al diezu?**

Beste txapelketa bat balitz bezala joan behar dut. Nire marka da nire aurkaria, eta dena da berdina. Tira, ikusmina aldatzen da. Kideek ez itsutzeko esan didate.

**10 metrotan 50ekoan baino emaitza hobekak dituzu; nahiago duzu?**

Erregularago naiz 10 metrotan. Puntu bat irabaztea oso zaila da, baina errazagoa da marka jakin batzuetan mantentzea. Ni urte osoan 580 eta 586 puntu artean egon naiz. Librean (50 metrokoan), berriz, ondo egiten badut askoz puntu gehiago igo naitekeen modalitate bat da, baina askoz zailagoa da erregularra izatea...

50 metro dira. Dena den, gehiago gozaten dut 50 metrokoan.

**Pentatlo modernoan laserra erabiltzen ari dira...**

[Galdera moztu du] Ez nuke nahi gurerira iristerik. Absurdo iruditzen zait; jaurtigaiari hegaldiaren esentzia kentzea ez litzaidake gustatuko, bestela hobekien ehitzen duena izango da txapeldun. Jaurtigaiaren hegaldia kontrolatzea garrantzitsua da, pistola ondo prestatzea... Laserrarekin botoi bat sakatzea baino ez da izango.

**Zer duzu hobetzeko?**

Sekreturik ez dago, lana baino ez. Lehiaketa bakoitza esperientzia da, eta nik hori baloratzen dut asko. Kirol honetan ibilbidea oso luzea da. Olinpiar historiako kirolari zaharrena 77 urteko tiratzaile bat izan zen. Animoa ere garrantzitsua da.

**Asko entrenatzen zara. Obsesiona al zaitzake?**

Bai. Atsedean hartzea oso garrantzitsua da, erotu zaitzake bestela. Nik garai batzuetan hiru egun hartu behar izaten ditut tiroa zer den ahazteko. Eta saturazio hori emaitzetan ikusten da, behera egiten dutelako.

**Kontzentrazioa landu daiteke?**

Landu daiteke, adibidez, puntu batera finko begiratuz denbora eginez... Pertsona bakoitzaren kontzentrazio ahalmena ere garrantzitsua da, eta nik, zorionez, indargunea dut hori. Nik, adibidez, mania bat dut: asko gustatzen zait bakarrik eta kontzentratzen ari naizela sentiarazten didaten gauzak egitea: sudokuak, hitz gurutzatuak...

**Maniarik ba al duzu?**

Ez, oso ordenatua naiz. Ordu bete lehenago joaten naiz, berotzeko. Eta lehia hasteko ordu erdi falta denean, kontzentrazio fasea hasten dut, nolabait beroketa mentala. Itxaron, hasi, egin beharrekoaren inguruan hausnartu... Lasai nago. Azken finean, oso monotonoa da; gauza bera 60 aldiz egin behar duzu: besoa altxatu, apuntatu, erabakia hartu eta puntu batekin asmatu. Tiro bakoitzaren ostean kargatzen dugu.

**Eta bista entrenatzen al da?**

Bai, nire kasuan bista ia perfektua daukat; ez dut inolako arazorik. Baina badaude bista landu behar duten kirolariak; giharrak dira. Nire kasuan, aski dut lan teknikoko ariketekin.

«Oraindik ez dut ulertu zer gertatu den. Gehiegizkoa da zigorra»

→ Paraskivi Papachristu ■ ATLETA GREZIARRA. JOKO ETATIK KANPORATU DUITE, IRUZKIN ARRAZISTA BAT EGITEAGATIK

**ealdia**

## Gure kirolariek bat

Vital

kutxa

bbk =

k  
kutzabank



# Urpetik ur gainera

**Phelpsen eta Lochteren artekoa da Jokoetako lehiarik ikusgarrienetakoa. Zazpi domina nahi ditubatak, haren nagusitasuna kolokan jarri bestea**

## Enekoitz Telleria

**Z**ortzi probatan hartu zuen parte, eta zortzirik irabazi zituen. Urrezko zortzi domina lortu nahi zituen, eta zortzirik lortu zituen. «Orain arte ikusi ez duen zerbait erakutsi nahi diot munduari», esan zuen Pekinen hasi aurretik. Esan, eta egin. Guztiak harritzeko moduko jarduna eta markak. 23 urterekin urrezko 14 domina Olinpiar Jokoetan. Sei Atenasen eta zortzi Londresen. «Ez dut bigarren Mark Spitz izan nahi, lehenengo Michael Phelps izan nahi dut». Esan, eta egin. Lehenengo Michael Phelps eta Michael Phelps bakarra (Baltimore, AEB, 1985). Horren denbora gutxian horrenbeste adjektibo eta miresmen pilatutakoak, gutxi. «Historikoak», «mitoak»... Pilatu beharrenez pilatu beharrez, betekada ere ez zuen urrutu izan, eta lau urteko *etena* egin du Londresen historia-rantz eta mitorantz beste urrats bat egiteko. Sei urrats egin zituen urrezkoak Atenasen, zortzi Pekinen, eta zazpi *bakarrik* ditu jomugan Londresen.

Onerako edo txarrerako, baina Londresko jokoetako izen propio-etako bat da Michael Phelps. Berririo balentria egiten badu, balentria egin duelako, eta egiten ez badu, egiten ez duelako. Hori du Olinpoko jainko izaera izateak. Eta horregatik da horren erakar-garria haren alboan eta haren kontra, ura eraisteko helburuz, aritzearen erronka. Apur batzuek baino ez dute horretarako aukera, eta apur horien artean dago Ryan Lochte (New York, 1984). Phelpsen alboan ez ezik, haren selekzio berean ariko da. Buruz buruko bi probatan ariko dira elkarren kontra: estiloetako 200 eta 400 metrokoetan. Baina jokoa dagoena bi proba horietan lor daitezkeen urrezko dominak baino zerbait gehiago da.

Lochte ez da edonor. Pekinen urrezko hiru domina irabazi zituen, zilarrezko bat eta brontzezko bi. Haren patua, ordea, inoizko igerilaririk onenaren itzalean aritu beharra izan da orain arte. Egia da 2011ko Munduko Txapelketan aurrea hartu ziola lehen aldiz kirolari gizagaindiko horri. Urrezko bost domina irabazi zituen Lochtek Shanghain, eta

brontzezko bat. Bi probatan aritu ziren elkarren kontra: estiloetako 200 metrokoan Lochtek ongi hartu zuen mendean Phelps —munduko marka berria ezarrita—, eta are aiseago irabazi zion bizkar estiloko 200 metrokoan. «Nire garaia heldu delakoan nago. Gogor lan egin dut, eta badakit egin dezakedala», esan du Lochtek berak Londresera joan aurretik.

## Urpeko teknika

Michael Phelpsen gorputza igeriketarako egina dago. Jardunaren jardunaz, horretara moldatu delako bai, baina berezotik asko duelako ere bai. Haren hanka, oin, beso eta eskuen neurriak, grabitate zentroa, aerodinamika... behin eta berriz aztertu eta goratu izan diren ezaugarriak ditu Phelpsek, eta horien kontra ere borrokatu behar izan dute hura mendean hartzen saiatu direnek. Tartean, noski, Ryan Lochte. Besoak guztiz zabaldua esku punta batekik bestera bi metroko tartea du Phelpsek. 1,87 metrokoa Lochtek. Indarra egiteko ia 20 zentimetro gutxiago dauzka, beraz, eta hutsune hori bete behar izan du. Nola? Gerriz gora muskulazioan lan eskerga eginda batetik, besakaden eraginkortasuna eta maiztasuna areagotzeko; eta ur azpiko igeriketa hobetzeko lan eskerga eginda, bestetik, ur azpian ahalik eta denbora gehien eta azkarren aurrera egiteko. Bi urte egin ditu ur azpian 50 metroko serieak eginez, gerriz gorakoa indartuz pisuak eta traktoeren pneumatikoak jasoz, 20 kiloko sokak soinean jarri eta tximelata estiloko mugimenduetan behin eta berriz eginez... Agur mugimenduen soiltasun eta graziari. Indarra, indarra eta indarra.

Prestatu da igerileku barrurako eta prestatu da handik kanporako ere. Egia da Pekinen Phelpsekin egin zuela topo, baina izan

zuen beste deskalabru bat ere: lehiaketan parte hartu aurretik indigestio latza izan zuen hanburger gehiegi jan zituelako. «Gauza berri asko egiten ditut orain entrenamenduetan, baina guztietan garrantzitsua, bat: sano jaten dut orain». Horiek dira haren arma berriak. Eta ari da zeresana ematen. Bizkar estiloan da ikusgarria: ur azpian erabat luze jarrita, eskuak beste puntako hormara begira dituela, mokorra erabiliz ematen ditu kolpeak, gerriz goiko alde zartailu bat balitz bezala erabiliz, hankak erabat batuta daukala, izurde baten isatsa imitatuz. Ur azpiko teknika hori baliatzen duten gehienek bost kolpe edo ostikada ematen dituzte ur gainera irten aurretik. Lochte gai da lehen 50 metroetan hamar ostikada emateko, 100 metroetan beste hamar eta horrela azkena egin beharreko biran beste hamar eman arte. Sekulako indarra eskatzen du teknika horrek, eta atera dute kalkulua: itzuli bakoitzean kontrario askori metro erdia jateko gai da horrela.

## AEBen nagusitasuna

Igeriketako Olinpiar Jokoetan emango duena bi horien jardunaren itzalean geldituko da, baina sortuko dira izar berriak, egingo dute distira ohikoek eta itzalduko dira beste hainbat. Dena dela, argi dago AEBek beste zakukada bat domina lortuko dutela. Olinpiar Jokoen historian lortu dituzte jada 489, eta Londrestik 500 dominaren muga gaindituta joango direla ziurtzat ematen da. Harrobi agorrezina da haiena.

## Latininaren errekorra eskura du Phelpsek

### E. Telleria

Apurto beharreko guztiak apurtu ditu. Olinpiar Joko batzuetan urrezko domina gehien berak lortu du (8), orotara urrezko domina gehien duena ere bera da (14), baina Olinpiar Jokoen historian do-

### Errekorra

■ **18 domina.** Larisa Latininak 18 domina dauzka lortuta hiru Olinpiar Jokotan: urrezko bederatz, zilarrezko bost eta brontzezko lau.

mina gehien irabazi duena ere izan nahi du, eta Londresen du errekor hori eskura Phelpsek.

Larisa Latinina da errekor ikusgarri horren jabea. Melbournen (1956), Erroman (1960) eta Tokion (1964) irabazi zituen guztiak bilduta, 18 domina ditu guztira, gimnastika erritmikoan lortutakoak guztiak (urrezkoak bederatz, zilarrezkoak bost eta brontzezkoak lau). Sekulakoa da haren balentria. Ukrainarra da jaiotzez (1934), nazien inbasioan


umezurtz gelditu, eta 11 urterekin Bolxoi antzokiko balletean sartzekotan egon zen. Gimnastikaz, ordea, haren pasioa. 19 urterekin aukeratu zuten SESBeko selekzioarako. Hiru urteko semea zuen ordurako, eta ezkongabe zen garaiko abizenarekin hasi zen lehiatzen (Larisa Dirii). Izar bilakatu zen Melbournen (lau urte, zilarra eta brontzea). Erromako Jokoen 25 urte zituen, eta hiru seme. Hala ere, urrezko hiru domina, zilarrezko bi eta brontzez-

ko bat lortu zituen. Tokion egin zuen behera. Vera Caslavskia txekiarrak egin zuen orduan eztanda, baina urrezko beste bi domina, zilarrezko bi eta brontzezko beste bi lortuta hartu zuen erretiroa.

Michael Phelpsek 16 domina dauzka, urrezko 14 horiez gain, badituelako brontzezko beste bi, Atenasen lortutakoak. Handi samarren bat gertatu ezean, Latininaren marka berdindu eta gaindituko du.

**Missy Franklin****Zazpi domina?**

**E**z du erronka makala hartu bere gain. 17 urte besterik ez dauka, eta AEBetako harrobiko azken harribitxia da. Zazpi probatan hartuko du parte, eta zazpi domina lortzeko helburua du. Bizkar estiloko 100 eta 200 metrokoan ez du parekorik, eta oso litekeena da estiloetako 4x100ekoan eta 4x200ekoan ere domina lortzea. Estilo libreko 100 eta 200 metrokoan, ordea, kontrario gogorrak ditu. Gaia badauka, eta indarra ere bai. Londresen ez bada erabat lehortzen Rion lehortuko dela diote.

**Laure Manaudou****Itzuli egin da**


**E**zusteko handirik ezean, ez da dominen lehian sartuko, baina igeriketan eman duen zeresan guztia kontuan hartuta, asko izango dira hari begira Londresen. Atenasko Olinpiar Jokoetan bihurtu zen izar frantziarra (hiru domina 17 urterekin), eta jaun eta jabe izan zen handik aurrera, Pekinen pott egin zuen arte. Uretatik kanpora bihurtu zen ezagunago. Haren mutil-lagun ohiak Interneten jarritako argazkiak, erretiroa, zinema, amatasuna... 26 urterekin bueltatu da.

**Beste izen propioak****Yang Sun****Denean ongi**

**B**i metro da luze, eta estilo libreko 1.500 metroko munduko txapelkun berria da gizonen igeriketan ondu gabe zegoen errekorrik zaharrena onduta. Kontua da, ordea, oso igerilari berezia dela. Grant Hackett austrialarraren errekorra ondu zuen Shanghain, eta haren entrenatzaile ohia du entrenatzaile. Iraupen luzekoan bikain moldatzen da, baina estilo libreko 200 eta 400 metrokoan ere bai, harrigarria dirudien arren. Hiru modalitate horietan domina lortzeko hautagaia da.

**James Magnussen****Esprinterra**

**G**utxik jartzen du zalantzaren haren urrezko domina estilo libreko 100 metrokoan. Zalantza bakarra da urrezko domina munduko errekor berria ezarrita irabaziko duen edo ez. Thorpe eta Hacketten distantzia ertain eta luzeko nagusitasuna aspaldi galdu zuen Australiak, eta Magnussenekin berreskuratu nahi du 100 metrokoan Mexikotik (1968) izan ez duena. Igerilari askori egin zien kalte bainujantzien aferak debekatu zituztenean, baina Magnusseni ez, haiek gabe aritu delako beti.

**Sailkapena**

- |                                       |           |
|---------------------------------------|-----------|
| 1. Larisa Latinina (SES, gimnastika)  | 18 domina |
| 2. Michael Phelps (AEB, igeriketa)    | 16 domina |
| 3. Nikolai Adrianov (SES, gimnastika) | 15 domina |
| 4. Boris Xaklin (SES, gimnastika)     | 13 domina |
| 5. Edoardo Mangiarotti (ITA, esgrima) | 13 domina |
| 6. Takashi Ono (JPN, gimnastika)      | 13 domina |
| 7. Sawao Kato (JPN, gimnastika)       | 12 domina |
| 8. Paavo Nurmi (FIN, atletismoa)      | 12 domina |
| 9. Alexei Nemov (ERRUS, gimnastika)   | 12 domina |
| 10. Birgit Fischer (ALE, piraguismoa) | 12 domina |
| 11. Jenny Thompson (AEB, igeriketa)   | 12 domina |

# Inoizko ikusgarriena... beste behin



Kazetari eta behargin batzuk olinpiar estadiotik irteten. Han egingo dute gaur gauean inaugurazio ekitaldia. KAI FOERSTERLING / EFE

## Danny Boyle inaugurazio ekitaldiko zuzendari artistikoak oraingoa ere ez du lortu gaur gaueko ekitaldiaren xehetasunak ez zabaltzea.

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Internet sareak jantzi du Londresko Olinpiar Jokoe-tako urrezko lehen domina. Danny Boyle inaugurazio ekitaldiko zuzendari artistikoak ere onartu du garaipena —besteak beste, *Trainspotting* eta *Slumdog Millionaire* filmetako zuzendaria da—. «Sare sozialaren eta sakelako telefonoen garaioan, ezinezkoa da ekitaldi guztia sekretupean izatea». Gaur iluntzean hasiko dira jokoak, Euskal Herrian 22:00ak direnean, inaugurazio ekitaldi distiratsua batekin. Lau urtetik behin izaten den ohiturari jarraituz, «inoizko ikusgarriena» izango da. Sekretuak gutxi dauka sekretutik. Joan den astelehenean sortu zen zalaparta, entsegue-tako batean. Sare sozialak sutan hasi ziren berehala, nahiz eta Boylek berak behin eta berriz eskatu zuen mesedez ekitaldiaren inguruko azalpenik ez emateko.

Ondorengo entseguek ezinegona areagotu baino ez dute egin.

Diskrezioa eskatzea nahikoa izan zen guztiz kontrakoa gertatzeko. 27 milioi libera (34,5 milioi euro inguru) xahutu ondoren, ez dira gai izan azken egunera arte sekretuari eusteko. 80.000 ikusle olinpiar estadiotan bertan eta milioika eta milioika zale telebistari begira daudela, 60ko urteetako musikak girota gorputzuko da ekitaldi guztia. Erresuma Batua izan zen musikaren habia garai hartan, eta jokoak hirugarrenez Londresen izango direla baliatuta, ordutik gaur egunera arteko musika lotura irudikatuko dute. Beatles, Rolling Stones, Led Zepelin, Pink Floyd, Eric Clapton, Sex Pistols, Clash, Mike Oldfield, Duran Duran, Radiohead, Coldplay eta beste hainbat jiran osatu du Boylek ikuskizuna. Hori bai, William Shakespeare handiari keinuka ariko dira une oro, haren kontakizun bat duelako oinarri *Isles of Wonder* ekitaldiaren bihotza osatuko duen partiturak.

### Datuak

- 210. Minutu iraungo du inaugurazio ekitaldiak.
- 12. Zaldi egongo dira ekitaldian.
- 3. Behi.
- 2. Ahuntz.
- 10. Oilo.
- 10. Ahate.
- 9. Antzara.
- 70. Ardi.
- 3. Artzain txakur.

Irudikatu, berriz, Erresuma Batuko landazabal idilikoa irudikatuko dute lehen zatian: landak, errekek, baserriarrak, benetako animaliak... Tamesis ibaiak landaren eta hiriaren arteko lotura lana egingo du, industria garai oparoari ere keinu batzuk eginda. Boyleren hitzetan, «nazioaren irudia» islatu nahi du. «Nondik gatozen eta non egon nahi dugun». Peter Pan, Mary Poppins, Harry Potter eta beste hainbatek ere izango dute euren lekua, eta, ezusterik ezean, Paul McCartneyren esku egongo da amaierako ikuskizuna, estadio guztia Beattlesen *Hey Jude* abestuz jartzea izango delako haren zeregina.

Isabel II.a Ingalaterrako erregina Buckingham Jauregitik hizketan, Daniel Craigen gorpuztean James Bond paraxutean jaisten, mila perkusionista baino gehiago, 10.000 antzezele inguru, bost olinpiar uztaiak sutan, kirolariaren desfilea... Lau urtetik behin ospatzen den kirol ekitaldi erraldoiaren lehen minutuak besterik ez dira izango horiek, Boyleren eskara zorrotzei segika, besteak beste, BBCri eskatu dio zuzeneko komentariarik ez egiteko. 01:30 alde-ria amaituko da ekitaldia, euriak baimentzen badu. Euria egiteko probabilitate txiki bat badago.

## Espainia belaunikatu du Japoniak

Japonia 0-1 nagusitu da, baina gol asko sartzeko aukera izan du; Iñigo Martinez kanporatu du epaileak

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Urrezko domina jokatu gabe jarri nahi duenak hartzen ditu muturrekorik handienak. Espainiak, adibidez. Brasilekin batera olinpiar txapeladuna izateko hautagai bakarrak zirela esan eta esan aritu dira Espainiako komunikabideak, aspertzeraino, eta txapelketa hasi eta berehala oso aldatas gora jarri zaie txapelketa. 0-1 galdu zuten lehen partiduan, Japoniaren aurka, eta orain lehen fasean falta zaizkion bi norgehiagokak irabazi beharko ditu, final-laurdenak jokatu nahi baditu: Honduraren aurka igandean, eta Marokoren kontra datorren astean.

Luis Milla Espainiako hautatzaileak bi euskal herritar jarri zituen hasierako hamaikakoan: Javi Martinez Athleticcekoa eta Iñigo Martinez Realekoa. Eskas aritu ziren biak, batez ere Realeko jokalaria, Mark Geiger epaileak txartel gorria erakutsi baitzuten partidako 41. minutuan. Ordurako, 0-1 aurretik zen Japonia, eta bigarren zatian ere ez zuen askorik sufritu garaipena ziurtatzeko.

Besteak beste, Espainia nahi eta ezin aritu zelako Japoniako erdilarien presioa gainditzeko. Ohikoa duen joko polita eta eraginkorra egiteko aukerarik ez zuen izan Espainiak, eta Japoniak hiruzpau lau gol gehiago lortzeko aukera bikainak izan zituen kontraerasoan. Batzuetan, De Gea ezatainak eragotzi zuen gola, eta bestetan, Japoniako aurrelariaren punteria kaskarrak, batez ere Nagairen.

Iñigo Martinezek partida bateko zigorra jaso eta ez du igandean jokatu. Espainiak partida hori irabazten ez badu, azkena izan liteke atzokoa bizkaitarrentzat.

Libera bakoitzeko 50. jasoko dituzte gaur inaugurazio ekitaldian Isabel II.a Ingalaterrako erregina kapela zurri-gorri-urdin batekin azalduko dela apustu egin dutenek.

50-1



Bilbon kirol guztietarako lekua dago

en Bilbao hay sitio para todos los deportes

**Bilbao Kirolak**  
www.bilbaokirolak.com





# Herensugea eta arranoa



Liu Xiang 110 metroko hesidunetako atleta txinatarra, bere herrialdearen banderarekin. BERRIA

**Txinak eta AEBek lehia gogorra izango dute dominen sailkapena irabazteko. Pekinen etxekoen aurrean makurtu ostean, estatubatuarrak mendeku gosez dira.**

## Julen Etxeberria

**T**xinak muturreko latza eman zien AEBei orain dela lau urte. Min handiena egiten dien tokianjo zituen: harrotasunean, alegia. Izan ere, etxeko ordezkari nagusitu zen dominen sailkapenean, AEBen aurretik. Estatubatuarrak irabazi zuten domina gehien—110, Txinak baino hamar gehiago—, baina txinatarrak eskuratu zuten urrezko domina gehien: 51, AEBek baino hamabi gehiago. Horrek eman zien garaipena, eta horrek eten zuen hamabi urte lehenago estatubatuarrak indarrean jarri zuten diktadura.

Lau urte joan dira Txinak AEBak makurrarazi zituenetik. Ezer gutxi aldatu da. Indartsuenak dira oraindik ere, eta Londresen ere haiek bereganatuko dituzte domina gehienak. Hori bai: probabilitateagatik, behintzat,

domina gutxiago irabazi beharko lituzkete. Izan ere, bai Txinak, bai AEBek ordezkari gutxiago bidali dituzte: 396 kirolarik ordezkatuko dute Txina, Pekinen baino 243 gutxiagok (639). Azalpen sinplea du beheakada nabarmen horrek. Orain dela lau urte, antolatzailerak izanik, proba guztietan zuen ordezkariaren bat. Londresen, ordea, ez du izango horrelako pribilegiarik. Olinpiar egitarauko 26 kiroleratik hirutan bakarrik ez dute izango ordezkariak: futboleko, zaldiketako eta eskubaloian. AEBek ere Pekinera baino kirolari gutxiago bidali dituzte, baina aldaketa ez da hain nabarmena: 66 gutxiago ditu (596 Pekinen eta 530 Londresen). Eskubaloian izan ezik, beste 25 kiroleratik izango dute ordezkariak. Bitxikeria gisa, emakumeak dira nagusi Txinako zuten AEBetako ordezkarietan.

Herrialde bakoitzak oso argi du non jo behar duen aurkaria eta non eutsi behar dien kontrarioa-



Michael Phelps igerilari estatubatuarra. J.J. / EFE

## Datua

### ■ Kirolari gutxiago.

Txinak eta AEBek Pekinera baino kirolari gutxiago bidali dituzte Londresera. Txinatarrak 396 ordezkari izango dituzte, duela lau urte baino 243 gutxiago. Estatubatuarrak, berriz, 530, Pekinen baino 66 gutxiago.

ren kolpeei. Txinak, adibidez, bere kirol kutunenetan eman nahi die kolpea AEBei: mahai tenisean, judoan, badmintonen, tranpolin jauzietan, tiroan, gimnastikan eta halterofilian. Hain zuzen, Pekinen irabazi zituen 51 urreetatik 41 zazpi kirol horietan eskuratu zituen.

Baina Txina ez da konformatzen soilik bere kiroleretan nagusitzarekin. Sona handiagoko kiroleretan ere igo nahi du podiumeko

koskarik gorenera. Bi kirolarik izango dute erantzukizun hori: Sun Yang igerilariak eta Liu Xiang atletak. Sun Yangek aurreneko urrea eman nahi dio Txinari igeriketan. Eskura du, aurtentzen inork ez baitu hark baino azkarrago igeri egin 400, 800 eta 1.500 metroko probetan. Liu Xiangek, berriz, ahaztu egin nahi du Pekinago amesgaiztoa—min hartu zuen sailkapenean—, eta zortzi urte lehenago Atenasen egindakoa errepikatu: urrea irabazi zuen.

Txinak ordezkariak eraberritua eraman du. Pekinen aritutako askok erretiroa hartu dute, eta Londresko ordezkariak belandak berri baten lekuko izango da. Kalitate handikoa, bai, baina baita eskarmentu handirik gabekoa ere. Horrek, hala ere, ez du jaitzi Txinako agintarien esijentzia. «Txinako kirolariek prest egon behar dute erronkei aurre egiteko. Urre bakoitzagatik borrokatu behar gara», esan du Liu Peng Txinako Kirol ministroak.

Batek enbidoa, besteak hordagoa. «Ezin dut esan zenbat domina irabaziko ditugun, baina ziurta dezaket lehenak izango garela dominen sailkapenean». Horra Alan Ashley AEBetako Olinpiar Batzordeko kidearen erantzuna. Zalantzarik ez dago lehia kirolaz haratagokoa ere badela. Bi herrialde horien harrotasuna dago jokoan, eta hori asko da.

AEBek ere badakite non jo dezaket gogor Txina: igeriketan eta atletismoan. Pekinen hemeretzi urte irabazi zituzten bi kirol horietan—hamabi igeriketan eta zazpi atletismoan—, lortutako enbidea baino gehiago. Horietatik ia erdiak kirolari batek irabazi zituen: Michael Phelpsek. Igerilariak zortzi lortu zituen, eta marka berri bat ezarri. Londresen gehien zazpi irabaziko ditu, baina hori lortzeko bidean oztopo bat izango du: Ryan Lochte herrikidea. Atletismoan, berriz, estatubatuarrak itxaropena dute Justin Gatlin eta Tyson Gayrengan, baina haiek oztopo handiagok izango dituzte bidean: Usain Bolt eta Yohan Blake jamaikarrak. Sanya Richards-Rossek eta Allyson Felixek ere jamaikarrak izango dituzte aurkari abiadurako probetan. Galdera sinplea da: Txinak edo AEBek, herensugeak edo arranoak, nork egingo du gorago hegan?

@LScioak (Luis Scioa saskibaloi jokalaria argentinarra)

Goizeko zazpiak. Kolpeak bata bestearen atzetik atean. Ezusteko dopin kontrola. Ez nuen ezer ulertzen. Nire lehen erreakzioa: Errudun naitzela esaten badut utziko didate gehiago lo egiten?

**Scioak**



**Aupa Mikel eta Ainhoa!**



**euskal kirolariek bat**

**E**z dago Stratfordetik urrun. Hackney da, London Fieldsen inguruan. Urteak egin ditu Londresen banatzen zituzten mapa turistikoetan agertu gabe, beste hainbeste auzo gisa. Stanstedeko aireportuan baldar lapurtu nuen hartan ere ez zen ageri. Tira, olinpiar eremua ere ez zen agertzen; nonbait *copyright*-a Londresko itun zaharrekoa zen, alegia, Olinpiar Jokoak baino lehenagokoa.

Jokoak ez dira hasi oraindik, baina alkatearen hitzetan «munduko hiriburua» den hiri honetako zoko bazter askotan gaur ere hasiko ez diren sentipena dut.

## Hackneyn ez dago jokorik



'Betweenland'  
Imanol Magro

Ez gaur, ez inoiz. Hori sentitzen dut Hackneyra, zer demontre, etxera itzultzen naizen bakoitzean, hemen okupatu baitut hurrengo asteetarako gordelekua. Hogei minutu ditut treanean Stratfordeko eromenetik, zazpi geltoki, eta Olinpiar Jokoak beste kontinente batean direla dirudi.

Jokoak ez dira Hackneyn, eta bizilagunen artean ez dago boluntario txapel eta elastiko moredunik. Bai, bakarra, eta txapela oker zuela hip hopa ezin ozengo entzun zitekeen sartu zenean. Tipojatorra zirudien. Hiria bizkarra eman dio

auzo honi, erlauntza itxurako bere etxe babestu, jende txiro eta konspiratzaileekin. Eta, orain, Olinpiar Jokoen eraginez alokairuak igotzen ari diren honetan, eta apurka *trendy*-a, alegia, modakoa bilakatzen ari denean, jendeak ez ditu jokopak bizi nahi. Maskoten panpinak supermerkatuko apaletan pilatuta daude, olinpiar suzia aspaldi joan zen herendik, eta paso egitea erabaki dugu. Nahita, gainera, Hackneyko auzotarrak izateak bereizten gaituen harrotasun ezkuturiko frustrazio eta dotorezia nahasketa horrekin.

10

Seigarren uztaila



berria  
2012ko uztailaren 27a

JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS



## Peio Astigarraga

Londresko Euskal Etxeko presidentea

Gertutik bizi izan du Londresko ekialdeak jokoekin izandako eraldaketa, eta ez bakarrik arkitektonikoa, aldaketa demografikoa ere sumatu dituelako.

# «Eszeptizismoa dago, baina inork ez du nahi jokoak gaizki irteterik»

Imanol Magro Londres  
→ Berriemaita berezia

200 bazkide ditu Londresko Euskal Etxeak, eta posta elektronikoa 600dik gora helbide. Bertako presidentea da Peio Astigarraga, eta, dienez, azken urteetan handitu egin da euskal komunitatea hirian. Duela hemeretzi urte utzi

zuen Eibar, eta, olinpiar gunetik urrun ez denez bizi, gertutik ikusi du inguruaren eraldaketa. Euskal Herrian dago egunotan.

### Zer moduz dago Londres?

Jokoak iritsi direla maila askotan nabaritzen da, azken astean bereziki. Ni nahiko gertu bizi naiz olinpiar gunetik, eta, nire auzoan, esaterako, asko zaildu da aparkatzea. Gero, hiria erdi al-

deko errepideetan bide eskusibok egokitu dituzte olinpiar garaioarentzat, eta lehen egunetan arazo asko sortu zituen.

### Londresko biztanleek ze iritzi dute?

Eszeptizismo handia sumatu dut. Bat baino gehiago hasi aurretik nekatuta zegoen. Seguritasunari buruz asko hitz egiten da, eta arlo hori nahiko erdipurdi antolatuta dagoela dirudi. Ni egun horietan kanpoan egongo naiz, eta jende asko irtengo dela uste dut, ahal dena behintzat.

### Zuere ihesean?

Apur bat nahita antolatu dut itzulera egun hauetarako.

### Asko aldatu al da hiria?

Bai, ekialdeko inguruan bereziki. Gune osoa ekonomikoki ahulatu zen. Garai batean hortik irteten ziren ia merkantzia guztiak, portua oso gertu zegoelako. 1980ko hamarkadan, baina, portua itxi zuten, eta beherakada egon zen inguruko auzoetan. Jendeak ez zuen ekialdera bizitzera joan nahi; ez zegoen jendea erakartzetik. Eta gaur egun, aldiz, modan dago: artista estudioak daude, jateak, hotelak... gora egin du.

### Jokoen aldekoa zara?

Eszeptikoa naiz ni ere. Alde batek, onak dira, hau Londresko alderik txiroena delako, ekialdea, eta azpiegitura aldetik egondako hobekuntzak onak izan dira. Dirua sartu da. Nire auzoak azken hiru edo lau urteetan gorakada izan du: jende berria etorri da... Maila ekonomikoak gora egin du. Aldi berean, baina, gizarte arazok ere gora egin dute, hemen bizi zen jendea jada ezin delako hemen bizi, alokairuetako errentak asko igo direlako. Jende askok alde egin du horregatik.

### Hainbeste igo dira alokairuak?

Bai, eta asko igo omen da gizarte zerbitzuetara joan den auzo haue-

tako jende kopurua. Igarri egin dute etxerik gabeko jende gehiago dela jokoen ondorioz. Zergatik? Kanpotik etorritakoek etxea alokatu nahi izan dute, eta etxeetako jabeek horiei eman diete lehentasuna, prezioa igoz. Horretarako, aurretik etxean zegoen jendea kale gorrian utzi dute. Agian hilabete barru berriz hartuko dute.

### Zein da buruhauste nagusia?

Garraioak beldurra sortzen du, zirkulazioan bereziki. Seguritasuna asko zaindu dute. Prezioek gora egin dute, baita kontsumo arruntean ere, eta azken asteetako eguraldi euritsuak ere arduratu ditu antolatzaileak.

### Negozio kutsua dute.

Errentagarria izango diren zantza dago. Jendea ez dago pozik babesleekin, dena Coca-Cola eta halakoei eman dietelako. Ingalaterran borroka handia egon da umeek eskoletan garbi jan dezaten, eta justu Coca-Cola, McDonalds eta halakoen dirua hartu dute. Babesle horiek, aldi berean, baldintza zorrotzak jarri dituzte: eremuan ezin duzu janaririk sartu, eta jatekotan eurena jan behar duzu. *Mickey Mouse* erraldoi bat da. Halere, inork ez du nahi jokopak gaizki irteterik, baina eszeptizismo handia dago, justu eremu txiroenean sartu direlako, eta agian dirutza hori beste modu batera gastatu izan balute...

### Ikusi al duzu olinpiar eremua?

Ez, baina txukuna dirudi. Etorkizunean polita izango da.

### Euskal komunitateak zein iritzi du?

Interes gehiago du Reala edo Athleticekin, jokoekin baino. Tira, kirolzaileek jarraituko dituzte, baina hori interes pertsonala da.

### Ez duzue ezer berezirik antolatuko?

Udan egitaraua murriztu egiten da. Bazkari pare bat egingo ditugu, bat olinpiar giroan antolatua.

«Bolt» Dream Team' bat da osorik»

Zinedine Zidane ■ FUTBOL JOKALARI OHIA

**e**saldia

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Kultur, Gazteria eta Kirol Departamentua

Gipuzkoa BEERRIA

“Gipuzkoa gure kirolariekin”

**G**ood luckesan, eta aurrera, gerrera banindoa bezala. Kidea zuzen doala ziurtatzeko, buruari azken jiratxoa, eskua altxatu, eta 'eutsi goiari' esatera, *Stop!* Kontrola. Lasai, Unai. Eskua altxatearen hizkuntza denentzat da eza-guna. Gelditzeko esan du. Ondorio hori atera dut ulertu diodan hitz bakarretik. Beste bi ere esan ditu atzetik, ondoko polizia begira. Baxuegi, aukeran. Interneteko teknikariek egiten duten moduan, nik ere azkar egin dut diagnostia: bolumena izan da arazoa, ulertuko nion bestela! Motxila, gerrikoa, sakelakoa...

## 'Pi-pi-pi' soinurik ez



'Off the record'  
Unai Zubeldia

dena kendu, eta aurrera. *Pi-pi-pi* soinurik ez. Eskerrak! Horrela hasi dira Olinpiar Jokoak.

Hiru egun eskas igaro dira Londresera iritsi ginenetik, baina hasi naiz jabetzen kreditazioak daukan indarrak. Militarrek ere *Hil* eta *Bye, bye* esaka erdi galduta dabilen euskaldun bati. Kreditazioan ageri den BERRIA izena ere erdi barrez ahoskatzen dute. *Are you Spanish?* Segi aurrera, Unai. Istanbulen *Manolo*, *español*o nintzen orain gutxi. Londresen *Spanish* hotz-hotzean. Ez daukagu erre-mediork.

Hamar minuturako berdea berriz ere. Eskuak zabaltzeko. Hankak ere bai. Motxila, gerrikoa, sakelakoa... *Pi, pi, pi* soinurik ez berriz ere. Hain gaiztoak ere ez gara, nonbait! Dena den, itxuraz haratagoko ezere ez dut uste denik segurtasun kontua. Adibidea, argia: ordurako estu samar nengoela, militar batek besteari ez dio ba esan pantaila zerbaitetarako dagoela, eta hara begiratzeko ondo motxila kontrol guneetik igarotzen denean. Barrez lehertzen hasi da, zeukan estutasunaren seinale. Itxura kontua ez ote den dena...

berria  
2012ko uztailearen 27a



Kronika →

11

# Brontzezko bat, mesedez



Kazetariak lanean, eurentzat propio sortutako eraikinean. UNAI ZUBELDIA

**Lau pisuko eraikina, 393 telebista, 612 kilometro fibra optiko, bankuak... Luxua da kazetarien gune nagusia, baina baita Internet sarearen prezioa bera ere; pakete merkeena, 138 euro.**

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

**A**ldamenetik barrez hasi da. Laguntzen ari den itxura egin du, baina ez duela gehiegi lagundu nahi erakutsi du. «Itzali, eta piztu berriz; ea horrela...». Kazetari ingelesak ondo zekien, bai, horrela ere ezinezkoa izango zela. Nahi baino gehixeago kostata, baina BERRIA kazetaria ere ohartu da Olinpiar Jokoen jolasetik gutxi eta jokatik asko daukatela. «Zer nahi duzu, brontzezko domina, zilarrezkoa edo urrezkoa?». Ezer irabazi gabe ere, dominak *opari*. Diru truk. Denak dauka prezioa jokoetan. Baita Internet sareak ere. Olinpiar izpiritua hori ere badelako; dirua, etekina.

«Kazetariak denbora dezente egongo dira hemen, ordu askoan lan egin beharko dute, eta erostasuna eskaini nahi izan diegu. Masaje gela, egongela, ile apaindegia, farmaziak, tabernak... Denetik dago kazetarien gune nagusian». Mandy Keegan gune ho-

retako managerraren hitzak dira. Kreditazioa daukaten 21.000 kazetari eta teknikari elkartzeko dira egunotan Londresen. «Brontzezko dominak 90 libera balio du (115 euro inguru), zilarrezkoak 130 (166 euro), eta urrezkoak 150 (192 euro). Zuk aukeratu. Argazkiri edo bideoiri bidali behar ez baduzu, brontzezkoa nahikoa da, bai». Podiuma ziurtatuta dago.

Kazetarien lanari ere prezioa jarri diote Olinpiar Jokoen. Kreditu txartela esku artean hartuta, ederragoa da jokoa. Internet sarea erabili ahal izateko aukerarik merkeenari, 90 liberako paketeari, tasak gehitu, eta horra lanerako aukera, 108 liberaren truke (138 euro). Merkeenetik jota, eta kalkuluak azkar batean eginganda, 21.000 kazetari 2.268.000 libera ordainduta ari dira lanean (ia hiru milioi euro). Lanean hasierako erabat jota ez geratzeko lan eta edan ere egin behar denez, segi kopuru beldurgarri horri liberak eta euroak gehitzen. Kazetarien gunean diru hotsa entzuten da tekla bakoitza zapal dutakoan. Eta 21.000 kazetari



Kazetarien gunerako sarrera. U. ZUBELDIA

### Aipatzekoa.

■ **Herialdeak.** Kreditazioa daukaten 21.000 kazetarien artean 190-200 herrialde daude ordezkaturak. BBC da Jokoein langile gehien mugitu duen komunikabidea; 765 kazetari dauzka kreditatuta, eta 2.500 ordu inguru eskainiko dituzte zuzenean, kirol ekitaldiekin.

horiez gain, ezin ahaztu kreditazioari gabe iritsitako beste 7.000 kazetarien gastuak ere.

Zirku handi samarra sortzen da beti Olinpiar Jokoen inguruan, baina, egiazki zor, antolaketa on-ona ari da izaten, oraingoz. Stratforden segurtasun kontrola pasatu, autobusa hartu, azken geltokian jaitsi, eta, oinez, hiruzpalau minutura dago kazetarien egoitza nagusia, olinpiar gune nagusien ondo-ondoan. 0 zenbakia oinarri gisa hartuta, lau pisuko eraikin handi eta ikusgarriak egiten die ongietorria kazetari horiei guztiei. Lau solairu, 31.000 metro

koadro, 393 telebista, 612 kilometro fibra optiko, 1.390 Internet portu, 80 bulego pribatu... Prezioak prezio, ikaragarria da gunea.

Behe-beheko solairua da nagusia; lanerako gune nagusia bai, behintzat. Jangela handi-handietako mahaiak balira bezala, hortxe pilatzen dira herrialde guztietako kazetariak, hemengo arduradunen zaintzapean. Erdierdian, berriz, kirol emaitzak jasotzeko gunea dago. Emaitzak iritsi ahal, hor uzten dituzte orriak, nahi duenak hartu eta azter ditzan. Baina kirol emaitzez haratagoko mugimendua da Olinpiar Jokoen, eta kazetarien gunea da horren erakusgarri.

### Batzordeen egoitzak

Gunea bera ez delako mugatzen beheko solairu horretara. Prentsaurrekoak, elkarrizketak, argazkilarientzat egokitutako gela erraldoia, herrialde bakoitzeko batzordeen egoitzak, bankuak, masaje gela, egongelak... Eta baita hemendik lau urtera Rio de Janeiro jokaturako diren Jokoei buruzko informazioa banatzeko tokia ere. Ezer ez zaio falta eraikin bati bost izarreko izateko. Hori xe izaten dute, ordea, txarra izar askoko egoitzek, prezioa zerutik bueltan ibiltzen dela beti. Londresen ere garesti dago lan egitea; hain garesti, lanean hasierako brontzezko domina kolokoratzan dute, lan egiteak daukan merituen seinale, nonbait.

@Du\_Darocha (Duane da Rocha, Espainiako selekziozko igerlaria)  
Nazka-nazka eginda nago Espainiako Federazioa ikitekin, eta ez naiz isilik geldituko. Lehengoak dira beti kreditazioak, ortzen, eta nik nire familiarentzat ez dut alerik ere.

**S**egurtasun neurriek kale egin dute. Olinpiar Jokoak hasteko bi aste falta zirenean, segurtasuna kudeatzeko kontratua lortu zuen G4S enpresaren desengainua argitara eman zen: ezin izango zuten adostutako jende guztia aurkitu. Ondorioz, zerbitzu militarretatik ia 3.000 pertsona ekarri behar izan dituzte azken orduan. Halere, gobernuko bozeramaileak dena prest dagoela justifikatzeko ahalginak egiten ari dira alde guztietan; segurtasuna inoiz baino zeresan handiagoa ematen ari denean, baieztapen horiek guztiek urduritasuna areagotzen dute.

## Prest al dago?



'London calling'  
Garazi Goia

40.000 pertsona ibiliko omen dira segurtasun lanetan, aireportuetan immigrazio neurriak zorrotz dituzte eta hainbeste polemika eragin duten misil tiratzaileak ipini dituzte estadioaren ondoko eraikinetan aire erasoan aurka egin beharrik badago. Baina, 2005eko uztailaren 7an Londresen Al-Qaeda egindako eraso terroristak oraindik denen memorian daude; München 1972an Black September taldeak atleta israeldarren aurkako atentatuak gogoratzeak orbanak ireki ditu. Eta aurreko astean Denverko zinema batean tiroketak egin zi-

tuenaren antzeko psikopatak azaldu daitezkeen posibilitateak oraindik gehiago desegonkortsu du egoera. «Zerbait gertatuko da, inoiz baino heldabide gehiago bilduko dituztelako Olinpiar Jokoek» entzun dut pub batean; «bizikletaz joango naiz lanera egun horietan, metroa ez hartzeko»; «goizeko eta arratsaldeko puntako orduak saihesten badituzu, hobeto». Aipu horiek entzun ditut kalean. Kezka dago, denok dakigulako bere bizitza emateko prest dauden hori segurtasun neurri hertsienek ere akaso ez dutela geldituko.



**berria**  
2012ko uztailaren 27a

# Azkena →



## → Laburrak



ANDY RAIN / EFE

### ↑ Barkamena eskatu dute Cameronek eta Roggek

**FUTBOLA** Bezperako partidaren gertatu zen hutsegite larriagatik barkamena eskatu zuten atzo bai David Cameron Erresuma Batuko lehen ministroak eta bai Jaques Rogge Nazioarteko Olinpiar Batzordeko presidentek. Ipar Koreako eta Kolonbiako emakumezkoen selekzioek jokatutako partida horretan, Hego Koreako bandera ateratu zuten antolatzaileek Ipar Koreakoa ateratu beharrean. «Giza akats bat» izan zela argudiatu dute bi agintariek, eta ez zuela inolako «asmo politikorik» izan gertatu zenak.



### ↑ Israel ke-xuka SEGURTASUNA

Bost egunetz batera segurtasun neurriak ez zuten igerileku batean entrenatu direla eta ke-xu agertu da Israelgo igeriketa selekzioa. «Beldurtuta egotekoa da».

### ↑ Dimitris Chondrokoukis jauzilari greziarra kanporatu dute positibo eman duelako

**ATLETISMOA** Nazioarteko Atletismo Federazioak ez du oraindik baieztatu, baina haren aita eta entrenatzaile Kyriakoskoe bai. Dimitris Chondrokoukis atleta greziarrak ez du parte hartuko Londresko Olinpiar Jokoetan, positibo eman duelako dopinaren aurkako kontrol batean, Estanozolol izeneko anabolizante batekin. Greziako Federazioak atzo bertan jakinarazi zion emaitza, eta «haren bizitzko ametsa» gauzatu gabe geldituko delako ke-xu agertu zen atzo gorako jauzilariaren aita. Atzo jakin zen Zoltan Kovago disko jaurtitzaila hungariarrak ere ez duela jokoetan parte hartuko, dopinaren aurkako kontrol bat egiteari uko egin ziolako.

## berriaTB

**12:00. Aurkezpena.**

→ **Prentsaren errepassoa.**

→ **Londrestik zuzenean.**

Unai Zubeldia eta Imanol Magro.

→ **Eguneko**

**gonbidatua.** Gorka Izagirre eta Jon Izagirre txirrindulariak.

→ **'Thames' atala.** Danel Agirre Berlingik.

→ **Tertulia.**

Julen Etxeberria, Andoni Urbistondo eta Enekoitz Telleria.

→ **Eguneko kantua.**

↑ **Oreka eta indarra.** Ez dute haren izenik bidali, baina zailduak ditu behatzak, zailduak oina eta zangoa. Oreka eta indarra uztarturik oreka mantendu beharreko barran. Gimnastikako entrenamendua North Greenwich Arenan. Lehiaketa bihar bertan hasiko da. **FRISO GENTSCH / EFE**

«Phelpsek orain hainbat modutara igeri egin dezake; ez beti berdin»

→ Bob Bowman ■ MICHAEL PHELPS-EN ENTRENATZAILEA

**O**litz igurtzita eta larrugorritan aritzen ziren gizonezkoak. Kristo aurreko lehen mende horietan ez zegoen emakumezkoentzat tokirik, eta, izatekotan, emakumezko ezkongabeentzat uzten zen zirrikituren bat historialari ausarten batzuek esaten dutenez. Aro Modernoan jokaturako lehenengo jokoetan olio, biluztasuna eta ikusle gisa joateko debekua desagertu ziren, baina parte hartzeko betoa ez.

Parisen (1900) parte hartu zuten emakumezkoek Olinpiar Jokoetan lehen aldiz. Tenisean, kriketean eta golfe-

## Urari kolpeka



'Citius, altius, fortius'  
Enekoitz Telleria

an aritu ziren, eta Charlotte Cooper ingelesea izan zen urrezko domina lortu zuen lehenengoa, tenisean.

Askok aldarrikatzen duten baino eta gehienek nahi luketen baino gutxiago aldatu dira gauzak geroztik. Aurten, lehen aldiz, emakumezkoak izango dira selekzio guztietan, eta historikotzat jo da hori. Badira selekzio batzuk emakumezko gehiago dituztenak gizonezkoak baino, eta herrialde arabiarrek ere urratsa egin dute. Saudi

Arabiak, Qatarrek eta Bruneik emakumezkoak dituzte lehen aldiz euren taldeetan.

Herenegun, igeriketako aldez aurrekoa atontzeko argazki bila nenbilela, saiatu nintzen gizonezkoak eta emakumezkoak jarrera berean agertzen zirenekoak topatzen. Urari kolpeka agertzen ziren gizonezko asko, ospakizunetan, baina ez nuen horrelako alerik topatu emakumezkoetan. Zer pentsatua eman zidan. Urari kolpeka emakumezkoak topatu ez nuelako bai, baina urari kolpeka ari zirenen bila ari nintzelako ere bai.

04

**Piraguismoa** → Maialen Chourrautek

05

eta Ander Elosegik dominen lehian sartu nahi dute

06

**Txirrindularitza** → Mark Cavendish favorito nagusi

07

dela jokaturako da gaur errepideko lasterketa

08


**Erreportaia** → Emakumezkoak jokoetan

11

**Kronika** → Stratfordeko gotorlekua



london



berria

2012ko uztailaren 28a

# Hasi dira

Erresuma Batuko historia, kultura eta tradizioa goratu dituen inaugurazio ekitaldi ikusgarri batekin hasi dira jokoak, Londresen. Gaur dira aurreneko finalak.



Danny Boyle zinemagileak zuzendutako inaugurazio ekitaldiaren une bat, atzo, olinpiar estadiotan. IAN LANGSDON / FE



# Hasieran dute langa

**Zazpi euskal jokalarik hartuko dute parte eskubaloian, emakumezko eta gizonezko Espainiako selekzioetan. Bi taldeek dominen lehian egoteko maila dute, baina zozketan ez zuten zortetik izan, eta multzo zailak egokitu zaizkie.**

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

Eskubaloiak Olinpiar Jokoetan jotzen du gaina. Jokalarien ametsen hierarkian, munduko txapelketen gainetik ageri dira. Londresen zazpi izango dira loriaren bila ariko diren euskal jokalariek, guztiak Espainiako selekzioan. Lau emakumezkoan: Eli Pinedo, Andrea Barno, Patricia Elorza eta Nely Carla; eta hiru gizonezkoan: Julen Aginagalde, Eduardo Gurbindo eta Mikel Agirrezabalaga. Guztientzat lehen jokoak dira, baita Jorge Dueñas emakumezkoen selekzioko hautatzaile bilbotarrarentzat ere.

Espainiako selekzioak dominen lehian egoteko aukerarekin jardungo dira Londresen. Emakumezkoena hirugarren sailkatu izan zen iaz Brasilgo Munduko Txapelketan eta final-laurdenetik aurrera egitea du helburu Londresen. 2010eko Europako Txapelketan, halere, 11. sailkatu zen, eta bi aurpegi dituela erakutsi zuen. Gizonezkoenak brontzea lortu zuen Pekinen, eta selekzio hartan bi euskal herritar zeuden: Jon Belaustegi eta Iker Romero. Valero Rivera historikoak zuzentzen duen selekzioa erregularragoa da: 2011ko Munduko Txapelketan hirugarren izan zen, eta aurtengo Europakoan, laugarren. Euren maila emanez gero, finalerdietan beharko lukete.

Zorteak bizkarra eman zien bi selekzioei lehen multzoaren zozketan, eta hasi bezain laster dute lehen langa. Kontinenteka sailkatuak hamabi selekzio daude lehian, ligaxka bidez erabakitzen diren seinako multzoetan banatuta, eta multzo bakoitzeko lehen lau sailkatuak igaroko dira final-laurdenetara. Lehen faseko partidak bi egunean behin jokatuak dituzte. Kanporaketetan nahastu egiten dira bi multzoak: lehen sailkatuek laugarrenen aurka jokatuz eta bigarrenek hirugarrenen kontra. Finalera arteko beste guztiak kanporaketa bidez dira. Txapeldun izan nahi duen talde-

## Eskubaloia

### Emakumezkoak

■ **Euskal jokalariek.** Eli Pinedo, Andrea Barno, Nely Carla eta Patricia Elorza, eta Jorge Dueñas hautatzailea (bostak Espainiako selekzioarekin).

■ **A multzoa.** Montenegro, Errusia, Kroazia, Britainia Handia, Brasil eta Angola.

■ **B multzoa.** Norvegia, Espainia, Danimarka, Frantzia, Suedia eta Hego Korea.

### Gizonezkoak

■ **Euskal jokalariek.** Julen Aginagalde, Eduardo Gurbindo eta Mikel Arrizabalaga (hirurak Espainiako selekzioarekin).

■ **A multzoa.** Frantzia, Suedia, Islandia, Britainia Handia, Argentina eta Tunisia.

■ **B multzoa.** Espainia, Kroazia, Hungaria, Serbia, Danimarka eta Hego Korea.

### Txapelketa sistema

■ **Finalerako bidea.** Bost partidako lehen ligaxka; final-laurdenak; multzo bakoitzeko lehen lau sailkatuak gurutzatuz; finalerdiak eta finala. Abuztuaren 10ean emakumezkoen finala, eta 11n gizonezkoena.

■ **Pabiloiak.** Coper Box eta Saskibaloia Arena.



Nely Carla alboko donostiarrak ateratzen, Argentinaren aurkako partidaren batean. ARGAZKILARIA

ak zortzi partida jokatu behar ditu. Lehen faseko partidak, Coper Boxean jokatu dira, eta kanporaketetakoak saskibaloiko pabiloian.

Emakumezkoen lehia gaur hasiko da, Hego Korearen aurkako partidaren (12:15). B multzoan azken sei Olinpiar Jokoen aurkari samurragoa izango du ziurrenik. Gizonezkoak, berriz, bihar ha-

eta Suedia—egungo Europako txapeldunorde—, Hego Korea ere ez da samurra, tradizio handia baitu: 1998an eta 1992an olinpiar txapeldun izan zen. A multzoa askoz samurragoa da, Britainia Handiko eta Angolako selekzioekin. Espainiak aurrera egiten badu final-laurdenetan aurkari samurragoa izango du ziurrenik.

Gizonezkoak, berriz, bihar ha-



**Izan genezakeen multzo zailena egokitu zaigu; sei selekzioak gara domina lortzeko hautagai»**

**JORGE DUEÑAS**  
Emakumezkoen Espainiako hautatzailea

siko dira, B multzoko Serbiaren aurkako partidaren (17:15). «Zozketako gauza on bakarra da final-laurdenak erosoagoak izan daitezkeela, hori bai, horretarako sailkatuegin behar dugun», azaldu zuen Joan Canyellas selekzioko kideak zozketaren egunean. Espainia laugarren izan zen Europako azken txapelketan. Bada, bere multzoan ditu aurretik gelditu ziren hiru selekzioak: Danimarka, Serbia eta Kroazia. Multzoko beste biak Hungaria eta Hego Korea dira. Helburua lehen hiruren artean sartzea da, final-laurdenetan Frantzia, ziur asko beste multzoko lehena, saihesteko. A multzoan, Suedia, Islandia, Britainia Handia, Argentina eta Tunisia daude.





## Eli Pinedo

Eskubaloi jokalaria

# «Dena dago gure esku, dominaren bat lortzea ere bai»

I.M. Londres

→ Berriemaile berezia

Prestaketa gogorra eginda iritsi da Londresera Eli Pinedo (Amurrio, Araba, 1981). «Denboraldi-aurre txiki bat izan da», laburbildu du ezker hegalekoak. Ilusioz lepo dago. Bazekien jokoetan aritzeko azken aukera zuela eta ez zuten pasatzen utzi nahi.

### Jokoak dituzu buruan aspalditik?

Azkenaldian, egunero pentsatu dut jokoetan. Joan eta etorri da biltza buruan.

### Jokoetan inoiz ez jokatzearen beldur al zinen?

Tira, ez zen beldurra. Urtez urte jokatzen duzu, eta badakizu hor daudela. Nire kasuan, berriz, duela hogei egun ikusi nuen hor zeudela. Kolpetik iritsi zaizkit.

### Duela lau urte azken unean gelditu zineten kanpoan.

Oso gogorra izan zen, agian eskubaloian ezagutu izan dudan gogorrerena. Jokoetara joan aurreko egonaldian geunden bilduta, atariko prestaketa, eta eskutitz bat iritsi zen esanez Espainia ezin zela jokoetan egon. Kazakhstan eta Korearen artean nonbait emaitzen bat adostu eta jukutriaren bat egin zuten, eta gure ordez Kazakhstan joan zen.

### Arantza ateratu duzu behintzat?

Eskerrak saikatu garel.

### Olinpiar hiriak egiten omen dizu ilusiorik handiena. Hainbestera?

Giro horri buruz hitz egiten entzun dut. Ez dakit nolakoa izango den, baina ziur bikaina dela. Munduko kirolari onenak, denak nahastuta... Hori bai, munduko famatuena pasa daiteke albotik eta nik ez dut ezagutuko.

### Ez duzue handik ibiltzeko denbora askorik izango, lehen bost lehiak behar izango dituzue.



JUANAN RUIZ / ARP

## Laburrean

■ **Azken jokoak.** Bi urte barru erretiroa hartuko du. Besteak beste, elitean jokatuz ama izatea «oso zaila» delako.

### ■ 2008ko mina.

2008an Espainia bulego erabaki baten eruz gelditu zen jokoetatik at, Kazakhstanen mesedetan.

Ez digute irteteko baimenik ere emango, egun osoa logelan sartuta atsedean hartzeko, handik pista-ra... Lotu egingo gaituzte [barrez]. Desfilera ere ez ginen joan, neke handia pilatzen zelako. Baina ez dit pena handirik ematen. Soinekoa ikusi dut, eta oso itsusia da. Beste selekzio batzuk dotore asko doaz, eta gu, Power Rangersen antzera.

### ■ Oso multzo gogorra egokitu zaizue.

Zozketan ez genuen zorterik izan. Oso multzo oso gogorra dugu, bai-

na agian hobea da gogor hastea. Lehen multzoa pasatuz gero, teoriarik, kanporaketa erosoagoa izan daitekeelako.

### ■ Europako txapelketan, hirugarren Munduko Kopan... Espainiako selekzioak belaunaldi ona elkartu duela dirudi.

Orain dela bost urte arte ezer gutxi lortua zuen, eta bai, hor gaudela. Nik nahiko nuke aurrerantzean puntan jarraitzea, baina krisiak gogor astindu du emakumezkoen eliteko eskubaloia, eta nik uste dut Espainiako selekzioan ere sumatuko dela.

### ■ Munduko hirugarren izanda, domina eskura dago?

Bai, baina Europako Txapelketan 11. izan ginen. Gure esku dago. Gauzak ondo egiten baditugu aukerak ditugu. Dena dago gure esku. Baina tira, lehen multzoa pasatu eta final-laurdenetako kanporaketan gaizki jokatzen badugu, dena pikutara joan daiteke.

### Dena den, gu baikorrak gara.

### ■ Zure ibilbidearen ginga da hau?

Bai, eskubaloian goia jotzea da Olinpiar Jokoetan zerbitu lortzea. Urte asko entrenatzen, toki askotan, eta saria da.

### ■ Bi urtez berri duzu kontratua Bera Berarekin. Azken biak izango dira?

Bai, seguru. Gorputzak eskatzen dit. Ama izateko gogoz nago, eta elitean jokatzen ezinezkoa da biak uztertzea. Pena emango dit, baina bizitzako beste etapa da, eta hala hartu behar dut.

## Julen Aginagalde

Eskubaloi jokalaria

# «2008ko arantza hor zegoen, eta orain ateratu dut»

I.M. Londres

→ Berriemaile berezia

Azken unean gelditu zen Pekingo Jokoetatik kanpo, eta Londresen ahaztu ahalko ditu orduko minak. Lau urte geroago, Julen Aginagalde (Irun, Gipuzkoa, 1982) pibota jokalaria garrantzitsua da Espainiako selekzioan.

### Jokoak burutik kendu ezinik?

Hala da, burura datorkizu nahi gabe ere, ilusioa da, ohean sartzean horretan pentsatzen ziduzu.

### Nolakoa izan zen jokoetan arituko zirela ziurtatu zenuen unea?

Ez pentsa, nahiz eta zerrendan nengoela ziurtatu, Londresera inongo arazorik gabe iritsi arte ez nintzen lasaitu.

### Azken unean gelditu zinen Pekingo deialditik kanpo. Nola gogoratzen duzu hura?

Hilabete entrenatzen egin arren banekien kanpoan gelditzeko aukera asko nituela. Halere, gogorra izan zen kideek Txinarrako hegaldia ni gabe nola hartu zuten

ikustea. Baina lau urte pasatu dira, eta jokalarik ezberdina naiz.

### Zertan aldatu zara?

Helduagoa naiz. Duela lau urte muturra sartzen ari nintzen, eta orain pisu handiagoa dut multzoan. Oro har, jokalaria hobea naiz.

### Arantzaxoa zenuen? Eta jokoetan inoiz ez egotearen beldurra?

Eta hona etorri arte hala nengoen! Bai arantza hor zegoen, eta orain ateratu dut.

### Familian Olinpiar Jokoein harreman bitxia duzue, ezta? Zure aita arauzaria zen, eta Moskura joateko aukera izan omen zuen...

Nik ere ez dakit nola den zehazki. Aitak ezetz esaten du, beste batzuek baietz... *Ama Guadalupekoa*-n egiten zuen arraun, eta errometrotan maila ona ematen zuen eta noizbait ibili omen zen banku mugikorrean. Eta ziote-nez, bazuen ahala mugikorrean, eta entzun dut Moskura joateko gutxiengo markak lortu omen zituela-edo. Baina berak treinaruan hobeto ikusten zuen bere burua, eta tostan jarraitzea era-

baki zuen. Gutxiengo markena hala entzun dut nik familian, baina ez dakit nola den zehazki.

### Errieta egin al diozue noizbait ez joateagatik?

Norberak hartzen du erabakia, eta errieta berak egiten dit oraindik. Hamar bat urte egin zituen arraumean, eta ni jaio nintzenezan utzi egin zuen.

### Multzo gogorra egokitu zaizue.

Bi zutabe dira. Hasi aurretik kide-erri esan nien, pentsa hau, hau eta hau egokitzen zaizkigula... Multzo eroso bat deskribatuz, bada gutzit kontrakoa dugu. Baina tira, hala final-laurdenetan aurkari samurragoa izan dezakegu.

### Munduko Txapelketan hirugarren izan zineten. Postu horrek saria du Olinpiar Jokoetan.

Domina. Ametsa hori da. Espainiako selekzioak bilakaera ona izan du azken urteetan. Finalerdietan sartzeko borrokan gaudela txapelketa handietan. Dena den, egia da ere hortik ez gara rela pasatu.

### Baikorrak zarete?



MANUEL LORENZO / EFE

## Laburrean

### ■ Aita olinpiarra?

Aitak, tosta arraunlaria, Moskura joateko aukera izan zuela entzuniko da. Dena den, ez du zehatz-mehatz ezagutzen istorioa.

### ■ Garrantzitsua.

Selekzioan gehien jokatzen duen jokalaritako bat da. Erasoan bera da pibota.

Bai, bai... Jokalariek denbora dezente daranagu elkarrekin, gure maila ezagutzen dugu, eta goian egon gaitzekela badakigu.

### ■ Zeintzuk dira zure favoritoak?

Frantzia eta Danimarka goian daude azkenaldian, Kroaziak neurria hartua die jokoei, eta gu ere sar gaitzek hor.

### ■ Frantziak Munduko Txapelketa kasikarra egin zuen.

Horregatik diot. Arrisku handi-goko taldea da, eta gogo handiagoz arituko da, ziur.



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS



# Maialen Chourraut

Ur bizietako piraguista

Munduko sailkapeneko bigarren postuarekin «erabat harro», bi zenbakiarekin ekingo dio etzi lehiari Maialen Chourrautek. Londreserako aurreikuspen zehatzik ezin dela egin dio, baina faboritoen artean sartu du bere burua.

## «Dominarik gabe ez naiz gustura itzuliko etxera»

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Ez du hitz egiteagatik hitz egiten. Emaitzak daude Maialen Chourrauten hitz jarioaren atzean. «Badakit kirol honetan ez dagoela emaitza ona lortuko duzun bermerik, baina...». Munduko Kopako bi proba irabazita iritsi da Londresko jokoetara, punta-puntan. Etzi ekingo dio lehiari (15:12), dagoeneko ezagun-ezaguna duen

kanalean. «Gogorra da, oso teknikoa; ez da erraza», azaldu du. **Urruti zeuden, baina iritsi dira jokoa? Nahi zenuen bezala iritsi zara?** Oso prestaketa ona egin dut eta oso ondo nago. Neguan egin genuen lanik gogorrena, baina martxotik aurrera ere ez gara gelditu; askotan joan gara Londresera, Espainiako selekzioarekin ere jokoetarako probak eduki genituen apirilean, Munduko Kopako probak ere bai... Lehiari sartuz joan gara pixkanaka.

**Piraguista guztiei egin beharreko galdera: zer da garrantzitsua, aterren bat jota ere jaitziera azkarra egitea, edo hain azkarra izan gabe ere, aterik jo gabe amaitzea?** Kirol hau ez nuke mugatuko bi aukera horietara. Gauzak gaizki egitea ez da atea ukitzea bakarrik. Bakoitzak arraun egiteko bere modua dauka, eta nirea oso segurua da. Ez da arriskatzeko edo ez arriskatzeko kontua. Nahiko piraguista segurua naiz ni, eta segururik jo nahi dugu Londresen

### Nortasun agiria

- **Adina.** 29 urte.
- **Jaioterria.** Lasarte-Oria (Gipuzkoa).
- **Pisua.** 55 kilo.
- **Altuera.** 1,61 m.
- **Lorpen garrantzitsuenak.** Zilarra (2009) eta brontzea (2011) Munduko Txapelketan, eta urrezko dominak Munduko Kopan, Cardiffen eta Pauen (2012). Pekinen finaletik at geratu zen. Bigarren aldiz ariko da jokoetan.

ere, ura ahalik eta gehien baliatuz, eta teknikoki oso fin arraun eginez. Fin jaistea gustatzen zait niri; ateen erdialdetik pasatzea, arraunketa gozoarekin, une oro piraguaren abiadura mantenduz.

«Piraguista segurua naiz. Arraunketa gozoarekin, fin jaistea gustatzen zait»

«Zurruna, orekatua eta arina da piragua berria. Oso sentsazio onak dauzkat; azkarra da»

**Herrialde bakoitzetik piraguista bakarra sailkatu dela kontuan hartuta, zein dira gertutik zaindu beharreko aurkariak?**

Aurkari indartsu asko daude: Corinna Kuhnle austriarra, azken bi Munduko Txapelketak irabazi dituena, adibidez; oso handia eta indartsua da, eta jaitziera azkarra eginez gero, gizonzkoen denboretara iristeko gai da. Jana Dukatova eslovakiarra ere kontuan hartzekoa da, oso fina delako, azken bi Munduko Txapelketetan zilarra kolkoratu duelako, eta munduko rankinean buruan dagoelako; oso altua da, fin-fina, eta ur gainean oso txukuna. Emilie Ferfrantziarra ere ezin da ahaztu, oso indartsu dagoelako. Jessica Fox australiarra, berriz, juniorra da, 18 urte bete gabe dago oraindik, baina aita eta ama munduko txapelidun izandakoak ditu, eta geneetan badauka zerbait; ur gainean naturaltasun harrigarria dauka, beste inork ez daukana. Eta zer esan Lizzie Neave etxeko piraguiari buruz... Primeran ezagutzen du Londresko kanala eta oso indartsua da. Eta, tira, Jasmin Schornberg alemaniarra ere ezin da ahaztu, 2009an munduko txapelidun izan zena.

**Horien artean, Maialen Chourraut ere faboritoen artean dago, noski...**

Hori da. Une honetan bigarren nago rankinean, eta azken aldian urtero lortu izan dut domina txapelketaren batean. Faboritoen artean nago ni: piraguista txikia, indartsua eta arina.

**16. postuan sailkatu zinen Pekinen, finalera bidean akats txiki bat egin ondoren. Zertan da hobe egungo Maialen Chourraut ordukoarekin alderatuta?**

Londresko Olinpiar Jokoetan egingo diren dopinaren aurkako kontrolak dira... Jokoa inauguratu aurretik hasi dira futbol partidak, eta jada dopinaren aurkako 400 kontrol egin dira.

6.250



Bilbon kirol guztietarako lekua dago

en Bilbao hay sitio para todos los deportes

**Bilbao Kirolak**  
www.bilbaokirolak.com





Denean. Orokorrean, piraguista hobeena naiz; teknikoki asko hobetu dut, eta lehiatzen ere ikasi dut. Pekinen sailkapen fasean egin genuen huts, ate batean, eta finaletik kanpo geratu ginen. Orduetik lehiaketa sistema bera ere aldatu egin da, eta oraingoa gehiago gusztatzen zait, erosoago sentitzen naiz, askeago. Lehen, sailkapen faseko bi jaitsierak edukitzen zituzten kontuan, eta orain bi jaitsieretatik onena. Finalerdietan, berriz, jaitsiera bakarria izaten da, eta finalean beste bat, baina, lehen ez bezala, final horretan, orain, ez da kontuan hartzen finalerdietako emaitza.

**Cardiffen eta Pauen, Munduko Kopako lehen bi probak irabazi ondoren, zenbateko garrantzia ematen diozu La Seu d'Urgellen lortutako 13. postuari?**

Porrota izan zen La Seukoa, baina kito. Corinna Kuhnle austriarra, adibidez, ez zen finalean sartu, ez Pauen eta ez La Seu d'Urgellen; Jana Dukatova eslovakiarra ere Pauen kanpoan geratu zen, Cardiffen bigarren sailkatu ondoren... Oso zaila da erregulartasuna mantentzea. La Seuko akatsarekin asko ikasi dut; ate bat ez nuela igaro iruditu zitzaidan, eta handik aurrera ez nuen eman barruan neukan guztia. Ondoren ohartu nintzen ez zidatela jarri 50 segundoko zigorra, eta, azkenean, segundoko eta erdigatik geratu nintzen finaletik kanpo. Aurreantzean badakit gertatzen dena gertatzen dela ere, dena eman beharra dagoela beti.

**Piragua eta pala berriekin lehiatuko zara Londresen. Hainbesteko alde dago materialean?**

Oraingo materialarekin oso gustura nabil, baina piragua arinagoa nahi nuen, nahiz eta gutxienez bederatzi kilo behar dituen. Ez daude bi piragua berdin, eta oso zurruna, oreaktua eta arina da berria. Oso sentazio onak dauzkate, azkarra delako. Ez dugu denborarik neurtu, baina kanpotik begira jada nabaritzen da aurrekoa baino azkarragoa eta orekatuagoa dela.

**Zerekin itzuliko zara lasai eta gustura Londrestik etxera?**

Nirea egitera noa, baina dominarik gabe ez naiz gustura itzuliko etxera. Ondo lehiatzea da helburua, uretan Maialen Chourraut izatea. Hori eginez gero, badakit emaitza ere ona izango dela.

# Ander Elozegi

Ur bizietako piraguista

**Laugarren postua eskuratu zuen orain lau urte, Pekingo Olinpiar Jokoetan, eta badaki hori hobetzeko eskatuko diola inguruak Londresen. Erronka hori gogo onez onartu, eta ez dela urruti ibili aitortu du, konfiantzaz gainezka.**

## «Pekingoa baino askoz kirolari helduagoa naiz»

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Lau argazki ageri dira Santiagotarrak klubak Irunen daukan egoitzaren sarreran, jokoetan aritu diren lau piraguisten argazkiak, eta horietako batean ageri da Ander Elozegi. «Handia da hori, eta oso harro nago». Bigarrenez ariko da jokoetan; finala du begiz jota. Bihar ekingo dio lehiari, 14:30ean. **Ezagutzen duzue Londresko kanala. Zer moduzkoa da zuretzat?**

Kanal bakoitzak ur mugimendu jakin batzuk dauzka, eta oso garrantzitsua izaten da ondo ezagutzea. Horregatik joan gara hainbestetan Londresera. Entrenatzen hasitakoan sentazio onak izatea da kontua, kanalaren ezaguerrietara ondo egokitzea. Pekinen primeran lortu nuen hori, baina Londreseko kanala denontzat izango da nahiko zaila. Lehiakortasuna areagotuko du horrek, eta oso ikusgarria izango da.

**Lau urteko prestaketa 100 segundoren jiran izango duzue jokoan. Nola baneratzeko da hori?**

Zaila da prestakuntza, akats txiki batekin kanpoan geratzeko arriskua dagoelako. Horregatik lehiatzen gara aurretik txapelketa garrantzitsuetan. Munduko Kopako hiru probetara joan gara aurretan, burua prestatzeko. Emaitzak ez dira txarrak izan, pozik nago, hiruretan finalean sartu izanak erregulartasuna lortu dugula erakusten duelako. Egindako lana oso ona izan da, eta jokoetan, gutxienez, finalean egotea espero dut. Eta finalean gauzak ondo egingez gero, ez gara urruti ibiliko.

GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS



### Nortasun agiria

- **Adina.** 24 urte.
- **Jaioterria.** Irun (Gipuzkoa).
- **Pisua.** 80 kilo.
- **Altuera.** 1,85 m.
- **Lorpen garrantzitsuenak.** Brontzetako domina La Seuko Munduko Txapelketan, ur bizietako C-lean, taldeka. 4. postua Pekingo Olinpiar Jokoetan, C-lean. Bigarren aldiz ariko da jokoetan.

**Pekinen laugarren geratu zinen, brontzetik segundoko eta erdira, azkenaurreko ateko huts baten erruz. Zenbat buelta eman diozu horri?**

Pasatakoa pasata dago, nahiz eta askotan pentsatzen dudan zer gertatuko ote zen azkenaurreko ate hartan huts egin izan ez banu. Akats txiki horrek urrunduko ninduen dominaren borrokatik, eta horregatik da hain garrantzitsua lehiaketa gurtian kontzentrazioari eustea. Askotan landu dugu alor hori, eta Pekingoa baino askoz kirolari helduagoa naiz orain; eskarmentu handiagoa daukat.

**Jaitsieretan abiadura lehenesten da edo akatsik ez egitea da garrantzitsuenak, aterik ezukitzea?**

Garbi jaitea da helburua. Penalizazio batekin ere lor daiteke emaitza ona, baina penalizazio batekin asko murrizten dira aukerak. 99-100 segundoren bueltan ibiliko di-

ra onenak, baina bizpahiru segundoren esparruan ibiliko gara denok. Beraz, larri samarra da bi segundoko penalizazioa.

**Aurkariak nahi baino gehiago egongo dira, baina zein dira gogorrenak?**

Michal Martikan eslovakiarra eta Tony Estanguet frantziarra izan dira urteotan nagusi C-lean, baina nagusitasun hori galdu dutela ematen du orain. Bi horiez gain, Sideris Tasiadis alemaniarra eta David Florence britainiarra izango dira beste bi favoritoak. Eta, tira, gu ere hor gaude. Errespetu handia diogu denok elkarri.

**Podiuma zer da, behar bat, aukera bat edo amets bat?**

Oso zaila da dominen borrokan sartzea, baina emaitza ona lortzeko aukera polita daukadala sentitzen dut. Ez da beharra, nahia da. Presio txiki bat badaukatu, baina hori ez da txarra.

«Ez nago batere kezkatuta»  
→ Ander Herrera ■ ESPANIAR FOTBOLARIA



**Aupa Mikel eta Ainhoa!**



**euskal kirolariek bat**



# 'God save the... King'

**Mark Cavendish da ia faborito bakarra, eta Skyko taldekideak, onenak; Sagan, Gilbert, Greipel eta beste Cavendish nekatzen saiatuko dira Box Hill zirkuituan.**

## A. Urbistondo

**E**liseoko Zelaia konkistatu zituzten orain dela astebeite, eta jaioterriko bihotza konkistatu nahi dute orain: Trafalgar Square eta Buckingham Palace txoko ezagunen arteko The Mall etorbidea; han baitago Londresko Olinpiar Jokotako errepideko probako helmuga. Dena da urdina, gorria eta zuria. *Union Jack* bandera han eta hemen. Erresuma Batua. Harro-tasun britainiarra. Leize-zuloetako zulo sakonenean zegoen, baina komunikabide guztietako lehen berria da orain Erresuma Batuko txirrindularitza, eta egun bat dute gorritz markatua: gaurkoa: errepideko proba euren herriko Olinpiar Jokotetan.

### Datua:

#### ■ Distantzia.

250 kilometro luze ditu errepideko probak: 90 kilometro lau hasteko; 130 gero, Box Hill zirkuituan —9 itzuli—, bi kilometroko aldaparekin; eta handik, 30 kilometro helmugara, lauean.

■ **Ordua.** Londresen 10:15 direla hasiko da proba; Euskal Herrian, ordubete geroago. Ondo bidean, proba Euskal Herriko 17:00 aldera bukatuko da.

#### ■ Faboritoak.

Mark Cavendish dago denen ahotan (Erresuma Batua). Beste batzuk: Andre Greipel (Alemania), Matthew Goss, (Australia) Peter Sagan, (Eslovakia), Philippe Gilbert eta Tom Boonen (Belgika).

Bradley Wiggins Tourreko garaileak eman dio azken bultzada sendoa, baina Mark Cavendish esprinterra izan zen iraultzaren sortzailea, duela hiruzpalau urte. Garaipenak pilatzen hasi zen han eta hemen, eta tarte txikian, historiako esprinter onenetakoa bilakatu da. Igandean, Parisen, 21. aldiz jaso zituen besoak garaile, laugarrenez Frantziako hiriburuan. Joan den urtean Danimarkan jokotutako Munduko Txapelketa ere irabazi zuen, eta ortzadar maillota harro erakutsi du han eta hemen azken hilabeteetan. Gaur, bere txirrindulari jantziaren batean olinpiar uztaiak murrasten saiatuko da, urrea irabazita.

Ez dago begirik beste inorentzat. Mark Cavendish gora, Mark Cavendish behera. Olinpiar Jokok Tourra baino oihartzun

mediatiko handiagoa dute, eta lorpen itzela litzateke Cavendish-ek urrea irabaztea. Non, eta bere jaioterrian. *God save the queen* Erresuma Batuko ereserkia abestu zuten ozen Parisen, eta antzera egin nahi dute gaur arratsean Londresen. *God save the queen*, edo *God save the King!* (Jainkoak salba dezala Erregea). Koroa Cavendish erregearen zain dago, eta zeruak eta lurak bat egin beharko dute ia Man uharteko olinpiar txapeldua ez izateko.

Ibilbidea alde du, izan ere. Talde indartsua ere bai. Eta Olinpiar Jokoa norbere jaioterrian irabaztea baina motibazio handiagorik ez dago. Cavendish-ek Box Hill zirkuituko bi kilometroko aldapa du aurkari nagusi. Bederatzi aldiz pasako dute

aldapa hori, guztira 18 kilometro, eta batez besteko pendiza, %6koa. 140 kilometro egingo dituzte zirkuitu horretan. Proba osatzeko falta diren beste 110 kilometroak lauak dira erabat: 90 Box Hill delako zirkuituan sartu aurretik, eta beste 20 zirkuitutik The Mall errepideko helmugaraino. Nahikoa izango al da aldapa hori Cavendish lehertzeko?

## Sky taldeko lau

Talde indartsua osatu du Erresuma Batua Cavendish zirkuituan babesteko. Pentsatzekoa da selekzioz indartsuenak hautagai nagusia itotzen saiatuko direla, proba zirkuituan sartzen den unetik erritmo gogorra jarrita. Bi kilometroko aldapak ez dio kalterik eragingo Cavendishi lehen 160-180 kilometroetan, baina hortik aurrera sufritu egin dezake, eraso zalaparta handia bada. Hor sartzen dira jokoan selekzioz indartsuenak. Ez arrakasta izan dezakeen bakarkako ihesaldi baten bila, azken 20-25 kilometroak lauak izanda ezinezkoa delako hori lortzea, baina bai taldetxo bat sortu, erritmoa bi-



Mark Cavendish esprinterra, Tourreko etapa batean, ortzadar maillotarekin. NICOLAS BOUVY / EFE



tu eta Cavendish jokoz kanpo uzten saiatzeko.

Frantzia, Sylvain Chavanelekin, Espainia, Alejandro Valverderekin, Belgika Philippe Gilbertekin, Italia Vincenzo Nibali eta Luca Paolinirekin, Norvegia Edvald Boasson Hagen, Kazakhstan Aleksandr Vinokourovekin, Suitza Michael Albasinirekin, Eslovakia Peter Saganekin... Horiak mugitu behar dute tropela, nekazari Cavendish, eta nekazari Sky, esprinterra azken zuzengunera eroso iristen bada jai dagoelako. Sasoi onean dagoela erakutsi du Tourrean Cavendishek. Brive la Gaillarde hirian bukatutako etapen suziri baten pare irten zen azken 200 metroetan, aurkari guztiei segundo baten aldea aterata esprintean. Parisen ere lan bikaina egin zuen Bradley Wiggins Tourreko garaileak, eta pentsatzekoa da gaur ere bideratzaile lan ona egingo duela, Geraint Thomasek lagunduta, urrea lortzeko aukera badute.

Sky taldeko kideek dute, hain zuzen ere, giltza. Wiggins, Thomas eta Cavendish gain, albon izango dute Tourreko mendateetan onena izan den txirrindularia: Chris Froome. Denak Cavendishen mesedean aritzeko prest, baina euren hautagaitza indartzeko gertu, esprinterrak onenekin eusten ez badio. Esprint handia jokatzen bada, adi beste hauei ere: Tom Boonen, Andre Greipel, Matthew Goss, Jose Joaquin Rojas...

## Otzandutako txinparta

Tokitan geratu dira zaleen oroitzapenean Mark Cavendishen imintzio eta keinu itsusiak. Gaztea, garaipenak, kirol arrakasta, diru putzua eta esne mamitan, olatuaren aparrean. Mugarik gabeko zirimola bilakatu zen Cavendish, baina tropeleko txirrindulari gorrotatuenetakoa ere bai, nahieran ibiltzen zelako: irabazten zuenean, harro, desafioak bota eta bota. Menderatzen zutenean, errua besteei botatzen lehena izaten zen. Azken bi urteetan, ordea, erabat otzandu da Cavendish. Haur txiki bat izan zuen duela hila-bete batzuk, eta itxuraz, bere barruko sua itzali du horrek. Hainbeste, garaipen gosea ez ezik beste gosea ere kendu baitio. Cavendishek lau kilo galdu ditu sasoi hasi zenetik, dieta berezi bati esker. Ikaragarri sufritu ormen du, baina zentzuzko arazoia eman: «Urrezko domina Olinpiar Jokoen. Sakrifizio oro egin daiteke horren truke».

# Jonathan Castroviejo

Txirrindularia

**Azken orduan deitu zioten Jonathan Castroviejori Londresko Olinpiar Jokoen lehiazteko, Samuel Sanchezen lesioa tarteko. Errepideko proban eta erlojupekoan ariko da.**



BERRIA

## « Bizitzaren oparia da »

### Soslaia

■ **Kirol ibilbidea.** Seguros Bilbao taldean korritu zuen afizionaltuetan eta Orbea taldearekin egin debuta profesionalatzen (2008-2009). 2010-2011ko biurtekoan, Euskaltel-Euskadi taldean korritu zuen, eta aurten Movistar taldean ari da. Bost garaipen lortu ditu; garrantzitsuenak Romandiako Tourreko etapa bat (2011).

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Garrasiak entzun zituenen hasi zen maleta prestatzen. Samuel Sanchez erori zenean altxatu zen Jonathan Castroviejo (Getxo, Bizkaia, 1987). Movistar taldekoa Tourretik at geratu zen, baina Tourrak ireki dio Olinpiar Jokoen aritzeko atea. Prestaketaz justu, baina ilusioz gainezka, «lanera eta, ahal dela, gozatzea» doa bizkaitarra Londresera. Gaur 11:00etan hasiko da errepidekoa, eta asteazkenean ariko da gero, erlojupekoan (15:15). **Noiz eta nola jaso zenuen jokoen ariko zinen albistea?**

Hilaren 19an, gehienek jakin zutenen egun berean. Hasieran ez nuen poz ikaragarririk sentitu, azken batean Samuel Sanchez erori zelako ariko naitzelako jokoen. Egoera hori inorentzat ez da gustagarria, baina, tira, Olinpiar Jokoa dira, eta aukera paregabea da kirolari batentzat. Harrigarria da bizitzan behin, behintzat, parte hartu ahal izatea.

**Aukerarik izan al duzu Samuel Sanchezekin hitz egiteko? Azken txapelaren dortsala hartuta ariko zara lehen. Presioa, tentsioa, ilusioa... Zer sentitzen duzu?**

Oso zaila da olinpiar txapeldu bat ordezkatzeko, baina horrela egokitu da, eta ahalik eta lanik txukunena egiten saiatuko naiz. Errepideko proban taldekideei laguntzea izango da nire eginbeharra, eta ea Alejandrok [Valverde] erre-

matea emateko aukera duen. Ongi etorria izango da hortik aurrera etor litekeen guztia.

**25 urterekin, zer esanahi dauka zuretzat jokoen aritzeak?**

Bizitzak eman didan oparia da. Horrela ulertzen dut nik. Oso-oso pozik nago. Sakrifizio handiko kirola da txirrindularitza; urrutira joan gabe, Sierra Nevada igaro ditut azken egunak, eta gogorra da hori, familia eta lagunak urruti egotea direlako horrelakoetan. Ahalegin guztiaren ordainak jaso ditut jokoen lehiazte.

**Munduko Txapelketan arituko zara, baina jokotara joateko zer da, beste pauso bat ematea?**

Bai... Hiru aldiz izan naiz Munduko Txapelketan errepidekoan, eta behin erlojupekoan. Pixkanaka izena lortzen ari naizela esango nuke. Azken urteotan egin ditut neure gauzatxoak, eta jokotako urrats garrantzitsua da.

**Pentsatzekoa da prestaketa ez zela izango egokiena, Vuelta zeneukalako buruan. Hogeita egun lehiatu gabe igaro ostean iritsiko da jokotako errepideko proba.**

Fisikoki, jokotarako ez dut egin prestaketarik, Vuelta neukalako buruan. Desberdina da bi lehiaketak. Itzuli handiak ez dira prestatzen jokotara bezala, jokotetan indarra landu behar izaten delako gehiago. Ohi baino finago nago orain, Vueltarako prestaketa onarekin nagoelako. Baina, tira, horrela tokatu da, eta azken entrenamendu saioetan saiatu naiz lan zehatzagoa eginen.

**Tourretik iritsiko diren txirindu-**

**lariek puntutxo hori izango dute alde, noski...**

Zalantzarik gabe. Horixe zen egokiena, jokotara zihoazena Tourrera joateko, oso garrantzitsua delako itzuli handietan hartzen den eritmoa. Munduko Txapelketarekin eta Vueltarekin gauza bera gertatzen da. Ezin dut ezer egin.

**Ezagutzen al dituzu bi ibilbideak?**

Zer edo zer begiratu dut azken egunotan. Datu askorik ez daude, baina zailtasun txiki bat edo beste badago tartean. Ia-ia laua da ibilbidea, baina itzuli bakoitzean badago kilometro bateko aldatutako bat. Ondo egokitzen naiz zirkuitu bakoitzera, eta lan egitea izango da nire helburu nagusia. Erlojupekoan, berriz, indar kontua izango da dena.

**Faboritoez hitz egin daiteke?**

Tourra joan den bezala joanda, oso-oso saio onean iritsiko dira britainiarrak. Skyk erakustaldi handia eman du, eta Wiggins, Froome, Cavendish... horiek izango dira faboritoak. Kilometro bakarrekoa da iguera, eta hor zaila izango da Cavendish atzean uztea.

**Zerakin itzuli zinateke gustura etxera?**

Errepideko proban lan ona egingo, erori gabe eta matxurarik izan gabe. Eta erlojupekoan gorpuztea estutzea da helburua. Erlojupeko txarrik egin ez dudana sentipenarekin amaitu nahiko nituzke lanak.

**Zer eskatu dizu hautatzaileak?**

Ez dit eskatu ezer berezirik. Lasterketaren atariko bileren zehaztutako du estrategia, eta errepideko proban laguntzeko baino ez dit eskatu oraingoz. Valverde eta Luis Leon [Sanchez] izango dira bi hautagaiak, eta haiei laguntzea izango da besteon zeregina.

**Espainiako Txapelketan, erlojupekoan, bigarren izan zinen, Luis Leon Sanchezen atzetik. Haren denboretara gerturatzea da helburuetako bat?**

Ez, ez. Ez dut halakorik pentsatzen. Hura oso sasoi onean iritsiko da Tourretik, eta lan ona egingo duela iruditzen zait. Baina neure buruari begiratu dio nik; neure buruarekin gustura geratu nahi dut. **Espainiako Vuelta iritsiko da Olinpiar Jokoen ondoren. Munduko Txapelketa atzetik?**

Ikaragarria litzateke hori, sinetsesina! Ea lehenik Vueltara joateko aukera daukadan, ez delako izango lan samurra. Eta ondoren hautatzaileak Munduko Txapelketara joateko aukera emango balit, ez dakit zer egingo nukeen! Bikaina litzateke. Urte harrigarria.



# Asko ez da aski

Egiptoko bi kirolari, Eton Dorney olimpiar gunean entrenatzen, atzo. Nick BOTHMA

## Historian lehen aldiz, Olinpiar Jokoetan parte hartuko duten 204 herrialdeek emakumeren bat izango dute gutxienez euren selekzioan.

### A. Urbistondo

**E**z luke eztabaidagai izan behar, baina bada. XXI. mendea ondo sartuta dagoela gertatu baita aspaldi gertatu beharreko zerbait: Olinpiar Joko batzuetan parte hartuko duten selekzio guztiek emakume baten ordezkari izango dute. Bat, gutxienez. Orain arteko ekitaldietan egon izan baitira emakumerik eraman ez duten selekzioak, eta, horien artean, ia beti eskualde jakin bateko herrialdeak: arabiarak. Londres mugarrira izango da alor horretan, baina berdintasun horretara iristeko modua eta olimpiar espiritua ez datoz bat, ezta gutxiago ere.

Emakumeei kirola egiteko zailtasunak edo debekua jartzen dizkieten herrialdeak NOB Nazioarteko Olinpiar Batzordeak egindako presioen aurrean belaunikatu ondoren etorri baita egoera nor-

mal hori. Zazpi herrialde arabiar izan dira men egin duten azkenak, eta, horien artean, hiru kasu nabarmen. Saudi Arabia izan da ameto egin duen azkena, eta bi emakume sartu ditu Olinpiar Jokoetako selekzioan: Wodjan Ali Seraj Abdulrahim Shahrkhani judoka eta Sarah Attar atleta. Qatarrek ere amore eman zuen lehena, hamabi kirolariko taldean lau emakume sartuz. Horietako bat, gainera, bere herriko banderara eramango duen Al-Hamad tiratzailea. Bruneik ere atleta bakarra deitu du, NOBen eskortan sartzeko: Maziah Mahusin.

NOBeko kideen presioak berandu lortu du bere helburua, eta, hala izan den neurrian, herrialde askok emakumei debekua jartzen zieten herriei Olinpiar Jokoetan parte hartzeko betoa jartzea eskatu zuten. Hegoafrikako Gobernuak egindako *apartheid*-aren aurka hartutako neurri berak hartzea orain ere. Argudioa,

simplea: *apartheid*-ak beltzak baztertzeko zituen, hainbat arabiar herriek, emakumeak.

Pentsatzen hasi, eta zaila dirudi NOBek jendaurrean esatea beto hori jarriko duela. Askotan bezala, isilpeko lanek etekin hobea eman baitute. Bide batez, logikak esaten du emakumeak olimpiar taldean onartzeko pausoa eman duten herrialde horiek ez dutela atzera egingo, aurrera baizik, eta lau urte barru, Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoetan, ez dela presio-rik egiteko beharrik egongo.

Normaltasun horren izenean, NOBek bere arauen halako interpretazio berezia egin behar izan du. Diskriminazio positiboegia, bi hitzetan. Arabiar herrialdeetako kirolari horiek *wild card* gonbidapen txartelari esker lehiatu ahal izango direlako Londresen. Kirolarien kezkarik ez da entzun inon, baina askok gorriak ikusi dituzte gutxieneko marka lortu eta Olinpiar Jokoetan aritzea lortzeko, eta arabiar herrialdeetakoek, berriz, musu truk lortu dute.

### Prozesu mantsoa

Emakume kirolarien kopuruak bilakaera handia izan du urteetan joan-etorrian, eta bi sexuen arte-

### Datua

#### ■ Kirol diziplinak.

Gero eta kirol diziplina gehiagotan parte hartzen dute emakumeak. Londresen, boxeoa olimpiar diziplina bilakatu da.

■ 60 urte. Maria Gorkhovskaya errusiarrak zazpi domina lortu zituenekoa. Helsinkin izan zen, 1952an, eta inork ez du marka hori hobetu oraindik.

ko kopuru ezberdintasun txikiena Londresen gertatuko da. Ingalaterrako hiriburuan lehiatuko diren kirolarietatik %46 emakumeak izango dira. Pekingo Olinpiar Jokoetan %42 izan ziren emakumeak, eta, orain, lau puntu gehiago. Datu garrantzitsu bat erakusten du Olinpiar Jokoetan parte hartzaile kopuru handiengatik edukiko duen selekzioak, AEBetakoak. 529 kirolari izango dituzte estatubatuarrek, eta 268 emakumeak (261 gizonak).

Historiari begiratu bat eginez gero, datu ikusgarria da, emakumeen parte hartzea oso apala izan zela 1960. urtea arte, Erromako Olinpiar Jokoak arte. 1896. urtean jokatu ziren lehen aldiz jokoak, Atenasen (Grezia), baina emakume bakar batek ez zuen parte hartu. Parisen bai, lau urte geroago. Tenisean, kriketean eta golfean. Stockholmen, Suedian, igeriketa eta trampoline jausiak iritsi ziren. 1912. urtea zen, eta, 16 urte geroago, Amsterdamen (Herbehereak), gimnasia eta atletismoan lehiatzen hasi ziren emakumeak.

Londresen sortu zen lehen olimpiar izarra, 1948an. Fanny Blankers-Koen zuen izena, eta urrezko lau domina irabazi zituen, 100, 200 metrotan, 80 hesietan eta txandakako probetan. 1952an, Helsinkin (Suomi), Errusiako emakumeak lehen aldiz lehiatu ziren, eta Maria Gorkhovskaya gimnastak zazpi domina leporatu zituen: urrezko bi eta zilarrezko zazpi. 1960an, Erroman, emakumeak kirolarien %11 baino ez ziren, eta bi hamarkada geroago, Moskun, %22, Mendebaldeko herrien blokeoa bete-bete zegoela.

Lau urte lehenago, oraindik orain bizirik dirauen fenomeno bat jaiotzen zuten lehen gimnasta izan zen, eta 14 urte bakarrik zituela lortu zuen, ziar aski inoiz erreplikatu ez den balentria handia.

Olinpiar Jokoek mito asko utzi dituzte, baina gehienak gizonenak. Gaur-gaurkoz, oreka urrundago. Arrakasta lortu duten gizonak botatzen hasi, eta sorta aberatsa da: Usain Bolt, Michael Phelps, Ryan Lochte, Yohan Blake, Roger Federer... Emakumeena, aldiz, nekezago esaten da: Ielena Isinbaieva, Eugenia Kanaeva, Vivian Cheruyot... Asko aurreratu da, baina asko ez da aski.

# Gure kirolariek bat



**A**tenasko estadiotan 10.000 pertsonak egin zuten bat. Maratoia zaldiz eta bizikletaz jarraitzen zutenen ahotik jakin zuten greziar bat jarri zela lasterketaren buru. Artzaina zen, kirolari amatourra. Spiridon Louis izena zuen, eta lehen urrea lortu zuen Aro Modernoko lehendabiziko Olinpiar Jokoetan, maratoian. Garaipen horrek benetako izar bilakatu zuen sorterrian. Betirako, 1896ko joko haietan, etxekoan ohorearen salbatzaile bihurtu zen.

Louisek ez zuen lehiaketa gehiagotan parte hartu. Olinpiar Jokoetan irabazita-

## Atzera begira

→ **1896**

## Spiridon Louis

Spiridon Louis greziarrak historia egin zuen, maratoian irabazita eta Olinpiar Jokoetako lehen urrea lortuta. **BERRIA**



ko urrezko dominari esker, hala ere, greziarren arreta bereganatu zuen betirako. Hamaika opari eta eskaintza egin zioten, eta antza denez, guztiei erran zien ezetz. Ia guztiei, hobeki erranda, gurdi bat eta mando onartu baitzituen. Herri-ura eramateko behar omen zituen.

Atenasen irabazi, eta, handik 40 urtera, Nazioarteko Olinpiar Batzordeko ohorezko presidente izendatu zuten. Handik lau urtera, 1940ean, zendu zen. Atenasko 2004ko Olinpiar Jokoetan atletaren izena jarri zioten estadio nagusiari, haren omenez.

berria  
2012ko uztailean 27a



## Olinpiar oroitzapenak → Ibone Belaustegigoitia

09

# Hegoak ez ditu erantziz

**Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen lehen euskal emakumea da Ibone Belaustegigoitia; Londresen izan zen, 1948an. Egun, 82 urterekin, tranpolin jauzietan lehiatzen dabil oraindik.**

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

**H**arrigarria da Ibone Belaustegigoitiaren (Bilbo, 1930) kirol ibilbidea eta, bide batez, bizitza, hitz horrekek laburbiltzen baitu hobekien hura. Bere familiak 36ko gerra hastear zegoela egin zuen ihes Mexikora, eta hango selekzioarekin parte hartu zuen 1948ko Londresko Olinpiar Jokoetan, tranpolin jauzian. Han bizi da egun, eta oraindik ez du erretiroa hartu, 82 urterekin lehiatzen baitabil oraindik ere, Master mailako txapelketetan, besteak beste, bost metroko tranpolinetik. «Zoriontsu egiten nau, kirolak bizitzeko laguntzen dit. Lehia, halere, beti gustatu zait, eta oraindik ere urdurijartzen naiz, eta, irabazten ez badut, amorrua ematen dit».

Bilboko Indautxu auzoan ditu sustraiak. 1920an eta 1924an Anderesen (Belgika) eta Parisen jokatu ziren Jokoetan aritu zuen Jose Maria Belaustegigoitia Athleticeko eta Marseillako Olympiqueko jokalaririk ohiaren alaba da. Sendi kirolzale bateko kide, Eneko anaia ere olinpiar jokalaria izan zen belan (1960an Erroman eta 1964an Tokion), eta Bibiñe ahizpak tenisean jokatu du oraindik. Gerratik ihesi iritsi zuen familia osoa Mexikora eta etxeurreko igerilekuan sartu zitzaion tranpolinaren arra.

Entrenatzeko elkarte batean izena eman, hobetzen hasi eta Olinpiar Jokoetarako hautatu zuten. «Aitak animatu ninduen», gogoratu du oraindik bizi duen

Bizkaiko euskararen. II. Mundu Gerra osteko Londres zen. «Eraikin hutsak ditut gogoan, paretak ziren bakarrik. Jendea triste zegoen, gogorra zen... Sinestezina nola aldatu den». Garai latzak ziren, eta ordezkaritza bakoitzak bere jana eman beharra zuen. Gizonezkoak eta emakumezkoak egoitza desberdinetan zeuden, eta mexikarrek gizonezkoentzat utzi zituzten jakirik onenak. «Ogi mamia eta saltxitxak bagenituen, ez genuen goserik pasatu, baina ez ziren jaki onak... Italiarrek urdaia zuten, eta ez ziguten eman. Estatuatuarrak portatu ziren zintzoen, izozkiak ematen zizkiguten».

Lehian ez zuen zortetik izan. Hiru metroko tranpolinean hartu zuen parte, eta, igerileku sakonagoetan ohiatuta zegoenez, lehen entrenamendu jauzian eskumuturra hautsi zuen. «Hura zen mina uretan sartzean, ez dut ahaztu. Baina benda estu bat jarri zidaten, eta lehiatzen jarraitu nuen». 17.a izan zen, hogeitahi lehiakideren artean. Harmaillak leporaino beteta zeuden. Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen lehen euskal emakumea izan zen, ordura arte gizonezkoak soilik lehiatu zitezkeelako.

1950ean utzi zion maila gorenean lehiatzeari. Idazkaritza ikasketak zituen arren, erlijio bidetari ekin eta Japoniara joan zen, misiolari. «Beste gauza batzuk egin nahi nituen, baina inoiz ez nion jauzi egiteari utzi». 25 urte pasatu ziren German gaztetako lagunarekin berriz ere topo egin eta ezkondu zenerako. 55 urte zituen. «Adineko jendearentzat lehiaketak bazeudela jakin nuenean hasi nintzen berriro».



Ibone Belaustegigoitia, 1948an jokaturiko txapelketa batean, 18 urterekin. I. B.



Ibone Belaustegigoitia, egun, AEBetan jokaturiko txapelketa batean. I. BELAUSTEGIGOITIA

### Laburrean

■ **Zorte txarra.** Londresen eskumuturra hautsi zuen lehen saltoan; hala ere, ez zuen utzi lehiaketa, eta 17. postuan bukatu. 18 urte zituen.

■ **Euskal herritar.** Master mailako azken Europako txapelketan, Errusian, euskal herritar gisa lehiatu zen, Bizkaiko Federazioko fitxa baitu. 1948an Mexikoko selekzioarekin lehiatu zuen.



Oraindik ere urdurijartzen naiz lehiatzean, eta, irabazten ez badut, amorrua ematen dit»

**IBONE BELAUSTEGIGOITIA**  
Tranpolin jauzilaria

Eta jarraitzen du. Egutero 45 minutuko entrenamendua egiten du, jauzika. 300 dominatik gora irabazi ditu nagusientzako txapelketetan. «Bizkaiko Federazioko fitxa dut, eta Europako azken txapelketetan euskal herritar gisa izen eman eta lehiatu nintzen». Eskumuturra, bi saihets eta sudurra bitan hautsi ditu, eta sei hilabetean behin aztertzeko dioten taula markagailua darama. «Medikuak harrিতuta ditut».

Italiatik itzuli berria, hiru eta bost metroko tranpolinetako probetan lehiatu da. Hiru lehiakide ditu: errusiarra, estatuatuarrak eta kanadarra. «Lagunak gara, Internet bitartez harremana dugu, elkarriz laguntzen diogu, baina ez zaigu galtzea gustatzen». Ur kirolerako *Hall of Fame*-a (Arrakastaren aretoa) AEBetan dago, eta han onartu egin dute.

Ciezska (Espainia) Olibondoen Lagunen Elkarteak oliba hezurren jaurtiketen Olinpiar Jokoa antolatuta ditu berriro. Orlangoan, Londresen egingo dira, bihar, Nothing Hill lauzoan. 21,43 metrokoa da marka.

**E**zkor nago, eta kostako zait kontso-lamenduren bat aurkitzea. Mito bat esku artean urtzen ari zait. Hiru egun daramatzat Olinpiar Jokoen alde ilunarekin bizitzen: espekulazioaren eragina, merkantilismoa, Olinpiar Jokoen aurka elkarteen argudio sakonak... Olinpiar izpiritua non demontre sartu den arduratzen nau, ez dut ikusten. Hiztegiaren arabera, izpiritua eta espiritua ez dira gauza bera, baina nire eskema mentaletan antzekoak dira. Umetan *Ouija* taula txatxuak erabiltzen genituen espiritua bilatzeko, eta orain bat behar dut izpiri-

## 'Ouija' taula bat, mesedez



'Betweenland'  
Imanol Magro

tua, olinpiar izpiritua, aurkitzeko. Gainera bizkorra behar du, ADSLa gutxienez, estimulu baikor asko behar baititut.

Ez dakit mitomanoa naizen edo ez, baina Olinpiar Jokoko betidanik gustatu izan zaizkit. Telebistara itsatsita egon izan naiz, eta gustura irakurtzen nituen Abebe Bikila edota Teofilo Stevensonen olinpiar balentriak. Bada, ilusio hori berreskuratzea falta zait. Olinpiar Jokoa negoziarioa direla ikusi dut, bere gordinean. Batek baino gehiagok pentsatuko du ea zer uste nuen nik Londreserako hegazkinera igo nintzenezan... Bai, baina

errealitatea hain modu ankerrean aurkitzeak edozein uzten du jota.

Nire botika lehia izango delakoan nago, eta gaur hasiko da, azkenean. Kirolarien mallo gozo zein gaziak dastatzea, irribarre eta amorru keinuak interpretatzen asmatzea eta, ahal bada, kronika epikoak, edo ia, idaztea. *Ouija* taula baino eraginkorragoa izango da, ziur. Olinpiar Jokoen nire ikuspuntu naifa ez da itzuliko, inoiz ez, baina zirrara, behintzat, ez dadila joan. Ezkor hasitako bidea itxaropen pixka batekin bukatu nahi dut.

10

Seigarren uztaila



berria  
2012ko uztailaren 28a



UNAI ZUBELDIA

### Pentsatzekoa da zuentzat bereziak izango direla joko hauek, ezta?

Zalantzarik gabe. Olinpiar hiriarren aurkezpenetik bertatik hasita, joko hauek oso bereziak izango dira niretzat. Lehen aldiz ariko naiz jokoetan, eta ondo-ondoan egongo dira lagunak eta familia-kideak. Oso berezia da hori niretzat. Eskoziarra naiz jaiotzez, Edinburgon bizi naiz orain, baina harro nago Britainia Handiko selekzioarekin lehiatzeko aukera eman didatelako.

**Inaugurazio ekitaldian ere ez duzue hutsik egingo, noski...** [inaugurazio ekitaldiaren aurretik dago eginda el-karrizketa].

Judoan selekzioko kide batzuek ezingo dute parte hartu inaugurazio ekitaldi horretan, lehen egunean bertan hasten direlako lehia. Baina 81 kiloz azpiko mailan ariko naiz ni, asteartean, eta zalantzarik ez izan, inaugurazio ekitaldian izango naiz ni ere.

**Nolako da olinpiar hiriko egun normal bat?**

Asteartean iritsi ginen hona, eta izugarri ari naiz gozatzen hasieratik. Kitzikagarria da hemen egotea, gainerako kirolarietara hitz egin ahal izatea, azken momentuko entrenamendu saio urduri horiek egitea... Olinpiar Jokoa harrigarria da mugimendurik txikiena ere.

**Zein helburu jarri diozu zeure buruari?**

Urrezko domina irabaztea. Bada-kit lor dezakedala, eta konfiantza gainezka nago. Europako eta Munduko Txapelketan dominak irabazita nago, Grand Slamak ere irabazi ditut, eta dena ematera nator. Aukera badaukat, baina egun ona eduki beharko dut. Judoan hori da arazoa, aurkariak oso gogorrek direla, eta egun bakarrean erantzun beharra dagoe-

la. Borroka guztiak dira finalak, ezinezkoa da indarrak gordetzea. **Zer esanahi daukate Olinpiar Jokoko kirolari baten kirol ibilbidean?** Olinpiar Jokoen gainetik ez dago ezer. Mutikoa nintzenetik une honetan ametsetan ibili naiz, judoko lehen eskola eman nuen egun hartatik. Amets bat gauzatzen ari

«Kitzikagarria da hau; jokoetan harrigarria da mugimendurik txikiena ere»

«Lotsa kentzeko eta konfiantza hartzeko sartu ninduten gurasoek judoan»

dela sentitzen dut. 33 urterekin ari naiz hizketan, zahartzen hasita nago jada, baina niretzat handia da aukera hau.

**Britainia Handiko selekzioko kirolarietara presio handia izango duzue. Arduratzen zaitu horrek?**

Ez, ez. Badakit zenbateko aurreikuspenak egin dituen jendeak, eta horri erantzutea tokatzen zaigu guri. Behar baino urduritasun handiagoa sortzen du etxean aritzeak, baina borroka egitea da orain gure lan bakarra.

**Nolatan judoa? Nola aukeratzen du ume batek bide hori?**

Oso lotsatia nintzen umetan, eta lurrera begira ibiltzen nintzen beti. Uste dut aitak eta amak horregatik sartu nindutela judoko eskoletan, lotsa kentzeko, kolpeak emateko, eta neure buruarekin konfiantza hartzeko. Judoan, borrokan ari zarenean, oso erraza da lagunak egitea, gertuko kirola delako. Irabazi edo galdu, bi aukera daude beti, eta erabakiak hartzen laguntzen du horrek.

## Euan Burton

Britainia Handiko selekzioko judoka

«Nazio baten koloreak defendatzea baino gauza handiagorik ez dago». Horrela azaldu du sentitzen duena Euan Burton judoka eskoziarrak.

# «Egun bakarrean erantzun behar dela, hori da arazoa»

Unai Zubeldia Londres  
→ Berriemaitte berezia

Ibilera ere berezia daukate Britainia Handiko selekzioko kirolarietara. Harroago bezala ibiltzen dira, pausoa ohi baino pixka bat gehiago luzatuz, eta bi aldeetara okertuz. Gorputzaren goialdea mugitzea ere komeni da estilo be-

### Aipatzekoa.

■ **Dominak.** Iragan hurbilean brontzezko dominak kolkoratuta da Euan Burton, bai Europako Txapelketan 2005, 2007 eta 2010ean, eta bai Munduko Txapelketan, 2007an eta 2010ean

rezi hori are gehiago markatzeko. Horrela dabil Euan Burton eskoziarra ere olinpiar hirian (Ascot, Eskozia, 1979). Judoka da Burton, Britainia Handiko selekzioarekin lehiatuko dena, 81 kiloz azpiko mailan. Kiyoshi Uematsu bizkaitarra ezagutzen ote duen galdetuta... «Bai, noski!», bota du barrez. «Baina, pisuz, maila bat beherago dago bera, eta eskerrak!».

«Arrakastatsua izango dira, ziur» Jacques Rogge • NOB-EKO PRESIDENTEA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua

Gipuzkoa BEERRIA

## “Gipuzkoa gure kirolarietara”

Nola azaldu sentitu dudana... Kirol kazetari izanda idoloak edukitzea ez dela komeni erakutsi zidaten bere garaian. Galderak samurtzeko joera eduki daiteke horrelakoetan, kirolariak berak nahi duen bidetik irrist egitekoa. Erakutsi zidaten hori, eta ikasi nuen. Ustez. Baina urte gutxi egongo ziren zirkuaren bertan nirea baino aurpegi mozo-loagoarekin. Zer gertatu den? Idolo izan beharko ez lukeen idolo bat igaro dela paretik. Garrasiak entzun ditut lehenengo, kameraren bat edo beste ondoren, eta txundituta geratu naiz azkenik. Bera

## Idolo kontuak



'Off the record'  
Unai Zubeldia

zen. Une horretan nire izena zein zen galdetu izan balidate, ez dakit zer erantzungo nuen.

Oso txiki sentitu naiz. Baina hain handia ere ez zait iruditu bera. Nik baino lore pixka bat gehiago hartuta zegoen, hori bai. Dauzkan hanka finekin ere harrituta geratu naiz. Ez dakit nondik ateratzen duen pistan hainbesteko indarra. Korrika txikian zihoan, ihesi. «*One question, please!*». Ezta kasurik ere. Niri ez. Baina Serbiako telebista kate bateko aurkezle finari bai. Hari erantzun dio zerbait. Eta ni begira. Zain. Ez dakit zeren

zain... begiratu didan arte. Bai, ziur nago begiratu egin didala. «Zer moduz habil?» esatea bakarrik falta zitzaion ziplorurrera erortzeko.

Samurretik jo zalea naiz elkarrizketetan, samurtasunarekin pertsonaren barrualdea mugitu ahal izango dudala sinetsita. Baina barrua niri mugitu zait oraingoan, Novak Djokovic ondo-ondoan jarritakoan. Ordaindu egingo nuen berekin hizketaldi bat edukitzeagatik, baina, marka da gero, hizketaldi hori zen jokoetan ordaindu ezin zitekeen gauza bakarra.

berria  
2012ko uztailearen 27a



Kronika →

11



# Stratfordeko gotorlekua

Stratfordeko gunea, erabat hesituta, atzo eguerdian. IMANOL MAGRO

**Baimen edo sarrerarik gabe ezer gutxi egiteko dago olinpiar ingurunean. Poliziek eta soldaduek merkataritza gunea ere gertutik zaintzen dute.**

Imanol Magro Londres  
→ Berriemaile berezia

Europako eremurik seguruenak. Hala bataiatu dute Londresko agintariak Stratfordeko gunea. Hara gerturatzeko gunea ez dute zalantzan jarriko, polizia eta soldaduak nonahi ageri baitira. Hori bai, deigarriena hesia da. Hesi metaliko handi batek kirol eremu osoa inguratzen du. Zati batzuetan elektrifikatua dago, eta ehunka kamera daude. Sarrera edo baimeirik gabe, gainera, hurreratzeko ezinezkoa da. Horiek dira olinpiar eremura gerturatutako milaka jendek ikusiko dituzten jokoak.

Hesi elektrifikatutik hirurogei bat metrora hesi arruntez osaturiko eraztuna dago. Tarteka, ehun metroz behin, barneko hesi-

ko atean parean, langile pare batek agiria erakusten dieten pertsonen pasatzeko baimena ematen die. Halere, euren ohiko zeregin dute gerturatzeko diren pertsonen hontik ezin direla pasatu azaltzea. Atsekabe aurpegiak etengabe ikusten dira. Aukera bakarra buelta eman eta merkataritza gunean sartzea da.

Hesiaren atzean, urrun, estadia ikus daiteke. Kilometro bat dago gutxienez, eta alboan, urrunago, Aquatics Centre-a. Hesiaren atzean, kanpadenda txuri handi batzuk daude, asko soldaduak babesteko. Polizia ere ugaria da. Bobby jatorrenek argazkiak ateratzen dituzten turistekin, baina ez dituzte arma automatikoak askatzen. Hirian ez dute horrelako armarik eramanen, eta ez da hain erraza polizia aurkitzea. Eraginkorrak dira;

### Datua

■ 14.000 soldadu.

Guztiar 14.000 soldadu barreiatu dituzte Stratfordeko gunean, Bigarren Mundu Gerra bukatu zenetik Britainia Handiak bere lurretan egin duen mobilizazio militar handiena. Deigarria egiten da kolpetik zortzi edo hamar soldaduko multzoak kafetegia sofistikatuetan gosalitzen ikustea.

edozein liskar txiki sortu edo mozkorren batek iskanbila pixka bat egiten badu, berehala ditu lau polizia alboan. Iragan ekainaren 29an bi gazte multzoren arteko borroka egon zen merkataritza gunean, eta Liam Woodward 18 urteko gaztea labankada batez hil zuten. Noski, ez eskalerik, ez kale abeslaririk; dena den, eremutik irten eta lehen zebraidea gurutzatzea aski da aurrenekoak aurkitzeko. Ingalaterrako hedabideetan segurtasunarekiko iritzi kritikoak gutxi dira; eztabaida ekonomiak sortzen du, baina segurtasunak ez. Jokoez King Crosseko atentatuaren estigma soinean daramate.

### Begiralekuak, dendetan

Hesiak toki askotan oihal txuri handiak ditu alboan. Jokoez bukatutakoan libre izango da handik ibiltzea, baina abuztuaren 12ra arte, eremuaren panoramika on bat lortzeko modu bakarra merkataritza gune goiko solairutara joatea da. Bakoitzak bere begiratoki propioa du, eta jendea pilatu egiten da argazkiak atera-

tzeko. Une ankerrena hesian zintzilikaturiko afixa gorrietan ohar hau irakurtzea da: «*Public viewing is available from John Lewis*» (Begiraketa publikoa John Lewisetik lor daiteke). John Lewis merkataritza guneko dendarik handiena da, eta begiraleku txikia Olinpiar Jokoetako oroigarriekin hornituriko dendan dago. Dendaren sarreran, gainera, ohiko publizitatearekin batera, iragarki bitxi bat ikus daiteke, zerbait *susmagarria* ikusiz gero erabili beharreko telefonoarekin.

Urduritasuna nabaritu daiteke gunean, ordezkaririk iritsi dira eta hainbat naziotako agintariak bueltaxka ematen dute inguruan. Erraz suma daiteke noiz iristen diren, bizkartzain eta politikarien lana da hori. Garraio sarrerak ere zorrotz zaintzen dituzte, asko daude gainera. Metroarena, tren lasterrarena... Azken aukera hori jende gutxi aukeratzen du. Geltoki ponposoa da, eta zazpi minutu aski dira St. Pancrasetik Stratfordera joateko, baina txartela garestia eta ezin da Oyster Card-ik erabili (Garraio txartela).

Mugikortasunak ere buruhausteak sortzen ditu. Eskailera mekaniko asko daude, baita ezinduko fisikoentzako igogailuak ere. Eskailera, baina, egunero matxuratu dira, merkataritza gunea bisitatzen duten milaka pertsonaren eraginez. Aste honen hasieran, segurtasun zaindarien ez zioten jendeari uzten eskailera normaletan esertzen, baina egunak igaro ahala, amore eman behar izan dute. Gunean hainbat supermerkatu daude, eta bazkaria bertan erostea erabakitzen dutenek non eseria behar dute.

Etengabe igarotzen diren helikopteroek jartzen diote musika eremuari, maiz hirusak. Varsoviako ghettoaren antza du batzuetan, ez balitz jendea pozik dagoelako. Londresko hiritarrek hiltz egin, eta «harro» daude. Nabaritzen zaie. Halere, denak ez daude gustura. Olinpiar Jokoen aurka mugimenduak indar handia hartu zuen Stratford inguruko etxeetako jabeek euren teiltuetan misil bateria txikiak jar zitzaketela jakin zutenetik. Mugimendu kritikoa hori Counter Olympic Network mugimenduak batu du, eta gaur eguerdirako deitu dute protesta ekitaldi baketsura.

Londresko Olinpiar Batzordeak Olinpiar Hirian jarritako ohe kopurua da. Hurrez gain, 21.000 burko eta 64.000 izara piko ere jarri dituzte kirolariak ahalik eta erosoan egon daitezen.

16.000

**L**ehenengo aldiz Olinpiar Jokoen historian, *Super Hi Vision* deitzen den formatuan erakutsiko dituzte kirol proba batzuk, bereziki horretarako prestatutako aretoetan. Estreinaldian izan naiz gaur. Bereizmen handiko telebista baino hamasei aldiz hobea da imajinaren kalitatea. Soinua alde guztietatik zetorrela iruditzen zitzaidan, kirolarien oinetakoek lurtean ateratako hotsa, ikusleen harrabotsa, haizearen mugimendua, denak gertu-gertu sentitzen nituen; horiek denak inperfekziorik gabeko imajinaren inguruan.

## Lehenengo aldiz



'London calling'  
Garazi Goia

Lehen aldiz, halaber, jokoetako ekitaldi guztiak zuzenean ikusi ahal izango dira telebistaz. Bi mila eta bostehun ordu guztira. Bi telebista kate nagusiz gainera, aldibereko beste 24 kate berri sortu dituzte bi aste hauetarako. Interneten ere dena ikusgai egongo da, eta lehen aldiz *smartphone* eta tabletetan ere bai, sare sozialekin integratua eta pertsonalizazio aukera guztiekin; eta, bi dimentsiotan nahikoa ez bazen, hirutan ere ikusi ahal izango ditugu ekitaldi batzuk. *Olinpiar Jokoetako une bakar bat ere gal ez dezazun* da leloa. Telebista

kontsumitzeko kontzeptua aldatu da: bakoitzak bere neurria egindako jokoak diseinatu ahaliko ditu, nahi duen orduan ikusteko, nahi duen lekuan, nahi duenarekin, nahi duen pantailan.

Orain arte, kirol bat eskaintzen ziguten aldiko, tokatzen zena, guri aukerarik eman gabe, eta horrela konformatzen ginen; eta, ez bagenuen gustuko, beste zerbaite egiten hasten ginen. Lagun batek esan didana hartu dut gogoan: «Gauri xelebreak bizi ditugu: telebista seinala falta izatea, iturriko ura falta izatea baino larriagoa dela iruditzen zaigu».

berria  
2012ko uztailearen 28a

## Azkena →



↑ **Mugarik ez baitago.** Natalia Partika mahai teniseko jokalaria poloniarra da irudikoa. Eskuin eskua falta du, baina hori ez da arazo kirol horretan nabarmentzeko. 2000an, Sydneyko Paralinpiarretan aritu zen, 11 urte besterik ez zuenean. Hamabi urte geroago, Londresen ariko da. **F. GENTSCH / EFE**

## → Laburrak



### Turkiako epaile bat hilda azaldu da, hotel batean

**BOXEOA** › Garip Erkuymucu 73 urteko boxeoa epaile turkiarra hilda aurkitu zuten herenegun gauean, Londresko hotel batean. Erkuymucuren gorpuari aurki egingo diote autopsia, baina, lehen zantzen arabera, bihotzeko baten ondorioz hil zen. Erkuymucuk epaile laguntzaile lanak egin behar zituen Londresen.



### Lehen marka

**ARKUTIROA** › Im Dong-Hyun hego korearrak munduko marka ezarri zuen atzo arku tiroko 72 geziko probako sailkapenean: 699 puntu. Klinikoki itsua da Dong-Hyun.

### Londresko alkateak Romneyren aurka egin du, hark ezbaian jarri baitu jokoan antolaketa

**IKA-MIKA** › Mitt Romney AEBetako presidentetzarako hautagai errepublikanoak herenegun zalantzan jarri zuen Londresko Olinpiar Jokoen antolaketa. «Ezin da jakin ondo aterako diren edo ez. Gainera, gauza arraroak gertatu dira azkenaldian», esan zuen Romneyk. Haren hitzek azkar izan dute erantzuna. Boris Johnson Londresko alkateak, adibidez, gogor jo du haren aurka. «Entzun dut ba omen dagoela Mitt Romney izeneko tipo bat, jakin nahi duena ea prest gauden edo ez. Bai, prest gaudu», azpimarratu zuen.

## Egitaraua →

### Eguneko finalak

**12:00. Tiroa.** 10 metro erriflea (E).  
**17:10. Judoa.** -60 kilo (G).  
**19:00. Arku tiroa.** Taldekako jarduna (G).  
**20:30. Esgrima.** Florete, banakako jarduna. (E).  
**20:30. Igeriketa.** 400 metro estiloetan (G).  
**20:49. Igeriketa.** 400 metro estilo librean (G).  
**21:09. Igeriketa.** 400 metro estiloetan (E).  
**21:40. Igeriketa.** 4x100 metro txandakakoa (E).

### Euskal herritarrak

**10:44-17:10. Oiana Blanco.**  
Judoa (-48 kilo).



**11:00-17:00. Jonathan Castroviejo.**  
Txirrindularitza (errepidekoa).  
**13:00-16:30. Pablo Carrera.**  
Olinpiar tiroa (10 metro pistolarekin).

### Telebistak

**La1. 09:55.**  
15:00 arte zuzenean, eta gero 15:45etik 21:00 arte. 23:45etik 01:30era, laburpena.  
**Teledeporte. 09:25.**  
01:00 arte, zuzeneko emanaldiak.  
**Eurosport. 01:00.**  
24 orduz, etengabe.  
**France2. 11:50.**  
Zuzenean 13:00 arte, eta gero, 15:00etatik 20:00etara.  
**France3. 09:00.**  
Zuzenean 12:00 arte; gero, 12:50etik 15:00etara, eta azkenik, 19:55etik 01:05era.

## berriaTB

**12:00. Aurkezpena.**  
→ Pentsaren begiratua.  
→ Londrestik zuzenean.  
Unai Zubeldia eta Imanol Magro.  
→ **Eguneko gonbidatua.**  
Peio Astigarraga, Londresko Euskal Etxeko presidentea.  
→ **'Thamez' atala.**  
Danel Agirre Berlindik.  
→ **Tertulia.**  
Julen Etxeberria eta Andoni Urbistondo.  
→ **Eguneko kantua.**



**O**harkabeen gertatu da, nonbait, eta apur batzuk baino ez dira enteratu. Londresen «euskal ordezkariak» dauzkagu. Ez titular, ez azal, ez argazki, aspaldian gure kirolean izan den albiste nagusiari. Ez dakit nolatan egin dugun komunikabideok horren huts larria.

Nazioartean izena ongi txertatzeko, Basque Team jarri diote izena, eta haiek animatzera, EAEko «euskal ordezkariak» sostengua eta babesa adieraztera joanak dira Eusko Jaurlaritzako kirol ardura-dunak, helburuak ongi zehaztuta.

## Gure txandala



**'Citius, altius, fortius'**  
Enekoitz Telleria

Ezustearen harrapatu gaitu albisteak. Halako normaltasunez eman eta airerazten dutenez, une batez sinistu egin dugu. Sinistu dugu Javi Martinez joan zela herenegun Nafarroako bandera hartuta, edo Ainhoa Murua ikurrina hartuta —jarriko dira ados horretan—, ederra zera-metela txandala, Skunk Funk, Loreak Mendian edo Kukuxumusuk diseinatutakoa, eta musuak aritu zirela banatzen batera eta bestera agintarien palkotik Euskal Herriko Lehendakaria zutunik eta harro haiel begira ari zen bitartean.

Baina hara non ikusi ditugun haiek «euskal ordezkari» deitzen dituzten horiek Pau Gasolen Espainiako banderaren atzetik, Espainiako txandal zatar hori jantzita, eta Espainiako kirol agintarien begirada pean. Jaunak, Londresko Olinpiar Jokoetan ez da ari euskal ordezkariak. Euskal kirolariak ari dira. Poztuko gara haien arrakastaz, penatuko gaituzte haien porrotek, baina lortutakoak eta lortu gabekoak jartzeko domina zerrendak Espainia eta Frantziarenak dauzkagu. Oraingo.

02

**Olinpiar tiroa** → Pablo Carrera seigarren izan da, eta olinpiar diploma eskuratu du.

03

**Judoa** → Oiana Blanco gogor borrokatu da, baina ez du gainditu lehen kanporaketa.

05

**Txirindularitza** → Aleksandr Vinokurovek ezustearen irabazi du errepideko proba.




**london**

[www.berria.info/londres12](http://www.berria.info/londres12)

**berria**

2012ko uztailaren 29a



# Esan eta egin

Ryan Lochtek nagusitasunez irabazi du lehen urrezko domina, 400 metro lau estiloetan, eta Michael Phelps ez da podiumera ere igo. → 06



Ryan Lochte, urrezko dominarekin, eskuin eskua bihotzean duela AEBetako ereserkia entzuten. HANNIBAL / EFE



# Azken txanpan okertu da dena

**Pablo Carrerak eskura izan du domina 10 metroko olinpiar tiroan, baina finalean ez da fin ibili, eta seigarren izan da azkenean.**

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

Olinpiar loriak azken tiroetan egin zion ihes Pablo Carrerari. Olinpiar tiroa, beste ezeren gainetik, zehaztasunaren kirola da, eta tiro txar batek dominen lehiatik kanpo utz zaitzake. Eta bilbotarrari hori pasa zitzaion 10 metroko finalean. Saikapena hirugarren amaitu ostean, bigarren ere jarri zen finalean, baina erdipurdiko tiro batek eta tiro txar batek —8,9koa— olinpiar diplomarekin konformatzera behartu zuten. Seigarren izan zen, 683,3 punturekin. Diplomarekin pozik zen, helburua bete zuelako, baina sumatzen zitzaion helburu handiagoa eskura izanaren atsekabea.

Finaleko parte hartzailearik gazteena zen Carrera (25 urte), eta dominak banatzeko unean erantzukizunaren zama sumatu zuen. Marka onenetan laugarrena lortuta sailkatu zen, hirugarrenarekin berdinduta. Final arraroa izan zen, aurreikuspenetan agertzen ez ziren hiru tiratzaile sailkatu zirelako. Ondo ekin zion Carrerak finalari, lehen bi tiroetan 10,6 eta 10,4 lortuta. Tiroan, finalean neurketak are zehatzagoak dira, eta hamarrenekoak ere neurtzen dira. Gauzak ondo zihoazen, sailkapenean bigarren ageri zen, erronka eustea zen.

Baina Olinpiar Jokoak beste gauza bat dira, baita Europako txapelkunarentzat ere bai. Hirugarren tiroan, 9,2koa lortu zuen. Finalean hamarrenek balio dute, eta bi postu galdu zituen. Gero bi hamarren etorri ziren, eta seigarren tiroan amildu zen (8,9). Tiroa, berez, ez da emozio handiko kirola, baina finalek edozein ki-

rolzale erakarriko luke. Azken aurreko tiroan bosgarren jartzea lortu zuen, baina ez zion eutsi postuari. Carrerarena euskal kirolariak Londresen lorturiko lehen diploma izan da. Duela zortzi urte bera zen olinpiar tiratzaileak te- lebiziaz ikusten zituena eta Londresko etxeko lanak eginak ditu honezkerok.

Carrera zazpigarren izan zen finalean, baina aurretik egindako

lan onak postu bat igotzeko modua eman zion. Hirurogei tiroko sailkatze fasean 585 puntu lortu zituen, bere markatik puntu bako- rre batera. Bezperan amesturiko saioa izan zen, baina ez zen aski izan. Txapelketa Jing Jong-oh hego korearra izan zen (688,2), erakustaldi bikaina emanda. Bi- garren Luca Tesconi italiarra izan zen (685,8), eta hirugarren, Andrija Zlatic serbiarra (685,2).

Carrerak, halere, badu oraindik arantza ateratzeko aukera. Bere parte hartzea ez da bukatu oraindik, 50 metroko pistola librean (22 kalibrekoa) ere arituko bai- ta, abuztuaren 5ean. Haren emaitzak ez dira 10 metrokoan bezain onak, baina tiratzaileak nahiago du neurri hori. Mediterraneoko txapelketa izandakoa da 50 metrokoan, eta laugarren izan zen Munde- duko Kopan.

Pablo Carrera, bizkarrez, pistolarekin tiro egiten, atzoko finalean. FELIPE TRUEBA / EFE



## Pablo Carrera

Olinpiar tiratzailea

### «Oso pozik nago %99,9an»

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

Hitzak hausnartzeko aukera izan du Pablo Carrerak (Bilbo, 1986). Hiru ordu behar izan ditu dopin kontrola pasatzeko, eta ondoren erantzun ditu galderak. Lehen Olinpiar Jokoak izateko, helburua ondo bete du, baina ez du ez- kutatu une batez zerbait gehiago lortzeko aukera burutik pasatu zaiola.

**Zer moduz zaude?**

Egia esan, oso pozik egin dudana lanarekin. Lehiaketa oso gogorra izan da. Jendeak asko estutu du. Historian, Olinpiar Jokoetan beste txapelketetan baino marka okerragoak egin izan dira, eta hemen desberdina izan da. Finalera sartzea oso garesti egon da.

**Zer nolako balorazioa egiten duzu zure jardunaz?**

Oso ona, esana dut. Ni oso pozik nago. Tira, %99an nago oso pozik.

Finalera sartzea zen nire helburua, eta lortu egin dut. Ezin da gehiago eskatu.

**Finalean bigarren egon zara une batean. Ez al duzu dominatik hain gertu gelditu izanaren minik?**

Tira, ezin duzu horretan pentsatu. Kirol hau halakoa da. Final batean lehenbiziko joan zaitetzke, eta gero zortzigarren bukatu. Gainera, Olinpiar Joko batzuetan... Oso ondo dago.

**Domina lortu ahal izatea ez zaizu burutik pasa, orduan?**

Burutik pasa bai, ez dizut ukatuko. Ilusioa hori da: domina bat lortzea; baina esperientziak erakutsi dit ez dela komeni halakoak egitea.

**Zer pasa da finalean?**

Pasa, ezer ez. Nik ez dut uste finaleko nire marka txarra izan denik. Kontua da besteek asko asmatu dutela. Maila oso altuko finala izan da, eta nik bi tiro txarrez gain lortu ditudan hamarrenek ez dira altuak izan. Finalean, ha-

marrenak ere kontuan hartu behar dira.

**Laugarren postutik lau hamarrenera gelditu zara. 8,9 horregatik izan ez balitz...**

Nik askotan esan dut: kirol hone- tan, tiro txar batek bi edo hiru postu atzeratzen zaitu. Eta hori gertatu da finalean. Baina tira, tiro on batek hiru edo lauigoaraz- ten zaitu. Ezin da ibili horri buel- tak ematen. Halakoa da kirol hau, onerako zein txarrerako.

**Olinpiar Jokoak izateak eragina izan al du?**

Ez. Ni beste txapelketa bat balitz bezala lehiatu naiz. Oso lasai nengo- en. Harrigarria lehen esandako- a izan da: Olinpiar Jokoetan, normalean jendeak ez du hain- beste estutzen, eta aurtengoa maila altuko lehia izan da. Hor- egon da koska.

**Sailkapena oso ona izan da. Zure markatik puntu eskas batera gelditu zara.**

Eta hala ere, laugarren izan naiz. Lasai nengoan. Gauzak ondo ir- ten dira, eta pozik.

**Emaitza onek konfiantza ematen al dizu 50 metrokorako?**

Ni berdin nago, lasai. Proba des- berdinak dira, baina helburua, bera. Nik uste dut finalean sar- naitekeela, eta diplomaren lehia sartu. Ordura arte lasai egotea da kontua, eta egin beharreko arike- tekin jarraitzea.

## Aranburu bihar hasiko da lehia

Juanjo Aranburu bihar eta etzi arituko da *skeet* lehiaketa, Royal Artillery Barrackseko tirogunean. Pekin- en zortzigarren izan zen, eta ordukoa hobetzea du helburu. Tiratzailea gorputzaldi onean iritsi da Lond- resera, eta azken txapelketetan maila ona eman izanaren lasaitasunarekin.

Txapelketa bi egunetan banatuko da. Bihar, 75 plateri egin beharko die tiro, 25nako hiru txandan. Etzi, berriz, 50i, beste bi txandan. Lehen sei sailkatuek finalera pasatzea lortuko dute, eta beste 25 platerako txanda bat jokatu. Guztira, 36 tiratzaile- lek parte hartuko dute, tartean Nasser Al-Atiya Qa- tarkoa, Dakar rallyan bi aldiz txapelketa izandakoa.



# Ez zuen asko falta, baina...



Oiana Blanco judoka oriotarra Tomoko Fukumi japoniarrarekin lehia, atzo, Londresko Excel kirolgunean, lehen kanporaketan. MARCELO SAYAO / EFE

**Oiana Blanco judoka oriotarra lehen borrokan bertan geratu da Olinpiar Jokoetatik kanpo, Tomoko Fukumi japoniarraren aurka urrezko puntuan galduta.**

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Lasaitu ederra hartu zuen Tomoko Fukumi japoniarrak borroka lurrera eraman eta Oiana Blanco oriotarrari lepotik heldu zionean. Lehen zerrendaburua, 48 kiloz azpiko mailan favorito argi-argia, huts egin ezin zuena... Judoka bat aipatzen zuten guztiek saihestu beharrekoa zena: Fukumi. Eta horixe egokitu zitzaion Blancori zoketan lehen aurkari gisa. Ezinezkoa ez zen, baina galtzeko arrisku handia zegoen lehen borroka horretan. Eta Blancok galduta egin zuen; lehen bost minutuak berdinduta amaitu ondoren, urrezko borrokan. Oso estu. Ira-

## Podiuma

■ **Menezes nagusi.** Sarah Menezes brasildarrak irabazi zuen urrezko domina, Alina Dumitru errumaniarrak zilarrezkoa, eta Eva Csernoviczki hungariarrak eta Charline Van Slick belgikarrak brontzezkoa.

## Domina borrokan sartzeko aukera dauka gaur Sugoi Uriartek

Sugoi Uriarte gasteiztarraren txanda izango da gaur Londresko Excel kirolgunean ikusgarrian (10:30). 66 kiloz azpiko lehia ariko da arabarra, eta, Olinpiar Jokoetan lehen aldiz ariko den arren, itxura batean aukera polita dauka domina borrokan sartzeko. Zerrendan zortzigarren dago Uriarte, eta Francesco Faraldo italiarraren aurka ariko da lehen borrokan. 66 kiloz azpiko mailan, 24. postuan dago Faraldo. Irabaziz gero, Jayme Mata izango luke aurkari, eta, lehen borroka irabazita, dominatarako bidea irekixeko edukiko luke final-laurdenetan, huts egiteko aukera bat baitago hor.

Kiyoshi Uematsu Portugaleteko judoka, berriz, bihar ariko da lehia, 72 kiloz azpiko mailan (10:30). Atzo Oiana Blancori gertatu bezala, bizkaitarrak ere ez du eduki zorte handirik: Mansur Isaev errusiarraren aurka ariko da lehen borrokan — laugarren zerrendaburua—. «Oso borroka parekatua» espero du Uematsuk. «Lehia hori irabazita, askoz samurragoak lirateko gainerako lehia gehienak».

baz zezakeela sinesten hasita zegoen. Baina galduta.

Nazioarteko txapelketetako emaitza onek ematen duten indarrarekin, konfiantzaz gainekza iritsi zen oriotarra Londresera. Berea egin nahi zuen. Eta horixe egin zuen atzo ere. Oso borroka estua izan zen. Blanco ez zen sartu Fukumik nahi zuen buruz buruko lehia, eta epaileek lehen abisua eman zioten euskal judokari. Zigor horrek ez du desorekatzen, ordea, judoko borroka, eta oso serio, kontzentratuta segitu zuen Blancok lehia. Nabari zen japoniarrak ezin zuela, ez zekiela non aurkitu zuloa. Judoka bizia da oriotarra, eta jokamolde horrek ireki dio, orain artean, arrakastarako bidea.

Berdinduta amaitu ziren arauzko bost minutuak, eta urrezko borroka ekin zioten segidan. Atariko abisuarekin adi ibili beharra zeukan Blancok, eta erasora jo zuen. Hortxe aldatu zuen taktika japoniarrak. Lurre-ra eraman zuen borroka, eta, mugimendu azkar batean, lepotik heldu, eta jokaldi horrekin bidali zuen Fukumik Blanco etxera. Amorratuta amaitu zuen borroka Oriokoak, bazekiako eskura eduki zuela hurrengo fasera pasatzea. Baina porrotetik ere ondorio baikorrak ateratzen jakin izan zuen.

Lehiaketatik kanpo geratuta, aurkariak aztertzen jarraitzeko gogo handirik gabe geratu zen Blanco pabiloian. Gertutik ikusi zuen nola, ustekabean, Fukumi dominarik gabe geratzen zen. Zuzenean zihoa podiumeko lehen koskara japoniarra. Bazirudien inork ez zuela etengo haren bidea. Baina ez: Alina Dumitru errumaniarrak irabazi zion finalerdietan, eta Eva Csernoviczki hungariarrak brontzea lortzeko lehia. urrezko domina, berriz, Sarah Menezes brasildarrentzat izan zen, hark Dumitru makurrarazi baitzuen finalean. Brontzezko beste domina Charline Van Snick belgikarrentzat izan zen.

## Oiana Blanco

Judoka

# «Gozatu egin dut tatami gainean»

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Kolpe latza hartuta, Olinpiar Jokoetako ametsa bost minutuan desegin zela barneratuta, baina baikor zegoen atzo Oiana Blanco (Orio, Gipuzkoa, 1983), Tomoko Fukumi japoniarraren aurka borroka galduta berritan —2009an ere haren aurka galduta zuen Munduko Txapelketako finala—. «Oporretan nago jada!». Irribarre txiki bat, aurpegia okertu, eta aurrera. Bitxia bada ere, indarra emango dio atzoko porrotak.

**Nola zaude? Zein balorazio egin dai-teke jokoetatik kanpo geratu eta minutu gutxira?**

Buruan neukan planteamendua gauzatu dut, eta, munduko lehen zerrendaburuaren aurka borroka eginda, ondo nagoela esan nahi du horrek. Baina horrelakoa da kirol hau. Nahiko borroka estua izan da, eta ondo sentitu naiz. Zigorra jarri didate berehala, hark sarrera gehiago egin dituelako. Baina une bakar batean ere ez dut sentitu haren sarrerak benetan arrisksuak zirenik. Oso seguru eta lasai aritu naiz.

**Zoketatik bertatik okertuzen egoera: lehen borroka, japoniarraren aurka. Zer burutazirekin ibili zara egunotan?**

Lasai egon naiz, baina jakinda lehen zerrendaburuaren aurka ariko nintzela borrokan. Hori bai: judoan denak erortzen dira une batean edo bestean; ehuneneko bakar batean gal edo irabaz dezakezu borroka. Banekien nire aurkerak edukiko nituela, ondo nengoela, eta horixe berretsi dit borrokan.

**Lau urteko prestaketa, entrenamendu gogorak, Olinpiar Jokoetara iritsi, bost minutu, eta etxera.**

Bai... Baina horregatik da hain erakargarria kirol hau. Segundo bakoitzean oso adi egon behar duzu. urrezko puntu edo borroka horretan azkarragoa izan da hura. Aurretik zigor bat neukan, eta ezin nuen onartu bigarrena, borroka galduta nuelako. Hasi-ratik nik hartu dut ardura, ondo hasi naiz, baina harapatu egin nau. Goitik ezin zuela irabazi ikusita, lurrean saiatu da borroka desorekatzen; saiatu naiz eusten, baina oso ondo heldu dit lepotik. Ezinezkoa izan da, eta bukatu dira Olinpiar Jokoetan tatami barruko bizipenak, baina saiaturako gara gainerako guztiarekin ere gozatzen.

**Inaugurazio ekitaldian ez zinen izan atzo [herenegun], baina nola arizate bizitzen egunerokoa? Bost minutuko borroka baino zerbait gehiago dira Olinpiar Jokoak...**

Argi dago, bai. Taldekideak animatzen saiatuko naiz orain, uste baitut aukera handia dutela. Helburuak lortuko dituzten edo ez? Auskalo. Baina maila ona emango dute, nik eman dudana moduan. Egin behar nuena egin dut nik, neukan guztia eman dut, gozatu egin dut tatami gainean, eta oso gustura geratu naiz. Lau urteko borrokairekin iritsi gara hau bizi izatera, eta hori ezin da ahaztu. Gaur bakarrik izango da 2012ko uztailaren 28a, eta, emaitza gorabehera, gozatzen jakin behar da. Egun hau ez da itzuliko, eta bihar gauza bera pentsatzen jarraituko dugu. Abuztuaren, opor-rrak, eta irailean hasiko gara berri-ere martxan.

Londresen ariko diren kirolaririk helduenaren eta gazteenaren adinak dira. Hiroshi Hoketsu zaidun japoniarrak da helduena, eta Phathana Inthavong igerilari malawiarrak gazteena.



# Eskarmentuaren bermearekin



Xabi Fernandez eta Iker Martinez, Weymouthen entrenatzen. O. HOSLET / EFE

**Iker Martinezek eta Xabi Fernandezek hirugarren domina nahi dute, baina ez dute behar bezala prestatzeko astirik izan, Volvo Ocean Race lehiaketan aritu baitira duela hiru astera arte.**

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

**E**uskal olimpiar kirolari loriatuena dira, eta, ziur asko, Londresen ariko diren Euskal Herriko partaideen artean domina bat irabazteko aukerarik handiena dutenak. Iker Martinez eta Xabi Fernandez arrakastaren sinonimo dira jokoetan. Atenasko erreari Pekingo zilarrezkoa gehitu zioten, eta, halere, zerbait gehiago lor zitekeela azken estropada polemikoaren ondoren. Orain dute, Londresen, aho zapore ez hain gozo hori aldatzeko aukera. Hori bai, ez dute astirik izan behar bezala prestatzeko; Volvo Ocean Race proban parte hartzeak hiru aste baino ez diz-

kie utzi 49er ontziarekin entrenatzeko, eta biek onartu dute agian ez dela aski izango.

Martinez eta Fernandezek kirol ibilbidea errotik aldatu da azken lau urteetan. «Lehen, estropadalarri ginen. Orain, ordea, marinelak». Fernandezek esaldi borobilak errealitatearen isla da. Bi Volvo Ocean Race eta Bartzelona World Race proban munduari hiru bira eman ondoren, orain bost metroko ontzi txikira itzuli beharko dute Weymouth eta Portlandeko itsas akademiako uretan. Maratoilari bati 400 metroko proban parte hartzeko eskatzea bezala litzateke, baina, euskal marinelen kasuan, eskarmentua dute alde. Bi domina irabazteaz gain, hiru aldiz izan baitira munduko eta Europako txapeldun.

«Argi dago prestatketa ez dela

izan nahiko genukeen modukoa. Baina azken urteotan pertsona gisa asko aberastu gaituzten beste egitasmo batzuetan aritu gara. Londreserako ohiko prestatketa egin dugu, baina estututa. Dena den, ez zaigu ahaztu olimpiar errara lehiatzea», azaldu du Fernandezek. Azken bi asteak Lanzaroten egin dituzte (Espainia), euren ohiko entrenamendu gunean, haize indartsura egokitzen —halako baldintzak espero dituzte Weymouthen—. Volvo Race probaren geldialdi luzeak ere entrenatzeko baliatu zituzten.

Fernandez bikarreko min txikiekin iritsi da, eta hor datza euren zalantzetako bat, 49er mailako lehiaketak luzea eta gogorra baita. Gaurtik hasi eta hurrengo sei egunetan, bina estropada motz jokatuko dituzte, eta abuztuaren 8an, dominak lortzeko estropadak. Azken bi horiek balio bikoizta dute. Arazoak, arazo, anbizioirik ez zaiela falta nabarmendu du Martinezek. «Hirugarren jokoean aritzea pribilegio bat da, eta gure helburua urrea da. Kirolariak gara, eta beti gora begiratu behar dugu. Seigarren, zazpigarren edo zortzigarren bagara, ez gara pozik geldituko».

Astebete baino gehiago darabate Weymouthen entrenatzen. Prestatketa motzak azken egunera arte saiatzera behartzen ditu sasoi finitzeko. Dena den, estropada eremuak ez du sekreturik. «Gustuko dugu eremua, ezagutzen dugu, behin baino gehiagotan lehiatu gara bertan, eta emaitza onekin, gainera. Iaz, esaterako, bertan jokatu genuen jokoetako atarikoak, eta dena ondo joan zen. Eguraldia asko aldatzen den leku bat da, eta uste dut egun batzuetan haizea bizi ibiliko dela eta beste batzuetan ia batere ez. Haize handia, baina, maiz ibiliko da». Azken egunetako iragarpenen arabera, ez dute faltan izango.

Aurkarien artean, Martinezek Australiako bikotea nabarmendu du. «Olimpiar eremuan eginiko ia estropada guztiak irabazi dituzte. Aurkari nagusiak dira. Koska bat beharago dago Zeelanda Berriko bikotea, eta bat beharago Britania Handikoa». Eskarmentuak bala du eraginik ilusioan? Fernandezengan behintzat, ez. «Aurrenekoek sekulako ilusioa egin zигuten. Jokoak beste gauza bat dira; oso politak».

## Nortasun agiriak

### Iker Martinez

1977ko ekainaren 16an, Donostian.  
 ■ **Altuera:** 1,73 m  
 ■ **Pisua:** 70 kilo.  
 ■ **Olimpiar Jokoak:** Bi, Atenas 2004 eta Pekin 2008.  
 ■ **Lorpen garrantzistuenak:** Olimpiar txapeldun (2004), Olimpiar txapeldunorde (2008); Munduko txapeldun (2001, 2002 eta 2010).

### Xabier Fernandez

1976ko urriaren 19a, Ibarra (Gipuzkoa).  
 ■ **Altuera:** 1,81 m.  
 ■ **Pisua:** 81 kilo.  
 ■ **Olimpiar Jokoak:** Bi, Atenas 2004 eta Pekin 2008.  
 ■ **Lorpen garrantzistuenak:** Olimpiar txapeldun (2004), Olimpiar txapeldunorde (2008); Munduko txapeldun (2001, 2002 eta 2010).

## Espainiak kale egin du eskubaloian

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Gaizki hasi da Jorge Dueñas bilbotarrak entrenatzen duen Espainiako eskubaloi selekzioa. Estreinako partidaren, 27-31 galdu du Hego Korearen aurka, eta zaildu egin zaio final-laurdenetara sailkatzea. Izan ere, multzo bakoitzetik bi geratzen dira bidean, eta Espainiak aurkari indartsuren aurka jokatuko du hurrengo hurren: Frantzia, Danimarka, Suedia eta Norvegia. Asko hobetu beharko du, gainera, atzo, ezinean aritu baitzen, tartean Barno, Nely Carla, Eli Pinedo eta Elorza euskal jokalariek. Bihar dute bigarren lehia, Frantziaren aurka (17:15). Gaur, berriz, Julen Aginagalde, Eduardo Gurbindo eta Mikel Agirrezabalaga ariko dira Espainiarekin, Serbiaren aurka (17:15).

## Euskal futbolariak bigarren lehia

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

Euskal futbolariak gaur jokatuko dute bigarren partida, Honduraren aurka (20:45). Espainiak selekzioak suspertu beharra du, estreinako partidaren ezustean galdu baitzuen Japoniaren aurka (0-1). Hondurasko selekzio apala da, eta ustez, Espainiak aise irabazi beharko lioke. Hala ere, Japonia ere samurra zirudien, eta egundoko astindua eman zien espainiarrei. Horregatik, gaurko partidarako, Luis Milla hautatzaileak aldatetarik egingo ditu, bat, derrigorrezkoa, Iñigo Martinezek partida bateko zigorra bete behar baitu. Oso litekeena da beste lau euskal jokalariek hasieratik aritzea: Azpilikueta, Javi Martinez, Herrera eta Muniaín.

Gaur hasiko da gizonezkoen saskibaloia. AEBak urrea irabazteko faktore nagusia direla. Hamazazpietaldietatik hamahirutan nagusitu dira. Errusiak bitan, Yugoslaviak eta Argentinak ere urrea irabazi dute.



# Gure kirolariek bat





# Zaharrak egarri!

**Aleksandr Vinokurovek erremate ezin hobia eman dio bere ibilbide distiratsuari, eta urrea lortu, Uran eta Kristoffen aurretik; Castroviejok ihesean aritu da ia proba osoan, eta oso lan txukuna egin du.**

## A. Urbistondo

Kondaira zahar batek dioenez, gazte batek aitona bati esan zion behin: «Zer berri?». Aitonaren erantzuna: «Zaharrak larri». Gaztea konforme ez, eta hau erantzun omen zion: «Eta gazteak egarri». Gazteak eta zaharrak. Galde diezaiotela, bestela, Aleksandr Vinokurov handiari, 38 urterekin (irailaren 16an egingo ditu 39) erremate ezin hobia eman baitio lorten distiratsuz jositako garaipezerrendari: olinpiar txapeladuna. Erretiroa hartuko duela iragartzen eta iragartzen ari da Kazakhstangoa, baina badirudi patuak ez diola uzten. Olinpiar txapeladuna den heinean, maillot hori erakutsi beharko du aurreantzean, eta ez du bizikleta sotoan uzteko aukerarik izango, oraingoz.

Zaleon zorionerako. Vinokurov kasta handiko txirrindularia delako. Ausarta, borrokalaria, nekez belauikatzen dena, bere gaitasun fisikora egokitzen asmatu duena, urteetan gora egitearekin bat. Vinokuroven garaipen gehienak politikak izan dira, hanka zuztarretako eta buruko azkartasunean oinarritutakoak. Halakoa izan zen Londresko urrea ere. Behar zen unean tropeletik hanka egin, eta lasterketa hausteko asmoa zuten oilarrekin egin zuen bat. Haiengana iritsi ostean, indarrak gordetzeari ekin zion, hainbat selekziok ordezkari ziren handiagoa zutelako, eta, inork ez ez ziola leporatuko jakitun eta helmugatitortzi kilometrora, Rigoberto Uran kolonbiarraren erasotari erantzun zion aise, azken zuzengunean lasterketa maisuki irabazteko.

Vinokurovek 66 garaipen lortu ditu 15 urteko kirol ibilbide luzean. 1998. urtean egin zuen debuta, eta azken urteetan bere herrialdeko erakusleho izan da, soinean Astana taldearen maillota eramanen. Dopin aferetan nahastuta ibilitakoa, joan den urteko Tourrean jausi egin zen Pas de Peyrol mendatean jaisten, eta izterrezurra hautsi zuen. Normalean, urte bateko osatze prozesua behar du halako lesio larri batek, eta era-

bat osatzeko bermerik gabe, baina Vinokurov ondo osatu zen, eta errepidera bueltatu erori eta hiru hilabetera, urrian. 39 urte betetzerako, olinpiar txapeladunaren maillota eskuetan izango du, eta 40. urtebetetzea ere errepidean ospatuko du. Herrialde gaztea da Kazakhstan, eta Vinokurov, hango ikurra. Ez diote erretiroa nolana hartzten utziko.

## Erresuma Batua ezinean

Errepideko probak inor gutxik espero zuen bilakaera izan zuen. Erresuma Batua nahiko ondo kontrolatu zuen lasterketa lehen 180 kilometroetan, Cavendish joko kanpo utzi nahi zutenen erasoak zorrotz zainduta, eta talde handiei ihes egiteko baimenik eman gabe. Box Hill zirkuituko azken bi igoeretan, ordea, zalaparta handia egon zen tropelean. Proba hasieran sortutako ihesaldiko 9 lagunek zubi lana egin zu-



Agindu didaten lana egin dut, ihesaldian sartuta; ingeles eta alemaniarrek nekatzea zen helburua»

**JONATHAN CASTROVIEJO**  
Espainiako selekzioko txirrindularia

ten tropeleko oilar batzuztat, eta Nibalik, Gilbertek, Gesinkek, O'Gradyk edo Brajkovick lasterketa buruarekin bat egin zuten. 20 bat lagun elkartu ziren aurrena, baina zirkuitua bukatzerako 32. Atzetik aurrera izen handiko txirrindulariak etorri ziren: Cancellara, Sylvain Chavanel, Fulgencio, Kreuziger, Lars Boom, Albasini, Luis Leon Sanchez, Valverde...

Dominak irabazteko hautagai asko, eta haiek helmugaraino eramateko langile zintzo asko ere bai. Jonathan Castroviejo bezalako txirrindulariak. Getxokoak proba hasi eta berehala lortu zuen eguneko ihesaldian sartzea, eta proba osoa ihesaldian osatu zuen, lan bikaina eginez. Tropela atzeratzeko, aurrena, eta Luis Leon Sanchez eta Alejandro Valverde selekzio kideak laguntzen ondoren. Samuel Sanchezen or-



Aleksandre Vinokurov, besoak gora, eta bere atzean Rigoberto Uran. CHRISTOPHE KARABA / EFE

## Marianne Vosek olinpiar urrea bakarrik falta du

Atzo, gizonen errepideko proba, eta, gaur, emakumeena. 140 kilometro eta eskema bera, baina Box Hill-eko zirkuituan bi itzuli baino ez. Marianne Vos da favorito nagusia. Herbehereetakoak irabaz daitekeen gutzia irabazi du, olinpiar txapelketa izan ezik, eta urrea ez den beste ezerekin ez omen da konformatuko. Izango ditu aukerak, dena den, eta ez gutxi. Honatx hautagai indartsuenen sorta: Ina-Yoko teutenberg, Judith Arndt, Giorgia Bronzini, Nicole Cooke, Elizabeth Armitstead, Emma Johansson eta Kristin Armstrong.

## Sailkapena:

1. **A. Vinokurov** (Kazakhstan)
2. **Rigoberto Uran** (Kolonbia)
3. **Alexander Kristoff** (Norvegia)
4. **Taylor Phinney** (AEB)
5. **Sergei Lagutin** (Uzbekistan)
6. **Stuart O'Grady** (Australia)
7. **Jurgen Roelandts** (Belgika)
8. **Gregory Rast** (Suitza)
9. **Luca Paolini** (Italia)
10. **Jack Bauer** (Zeelanda Berria)
26. **J. Castroviejo** (Espainia)

dezko gisa joan zen Castroviejo Londresera, eta errepidekoan oso neurri ona eman du.

32 lagun horietatik dozena erdi lanean hasi zen beltz, atzetik zeterren otsoa. Erresuma Batua, hurbil ez zedin. Lasterketak, ordea, ihes egin zien etxeko, inoiz baimendu behar ez zutena baimendu zutelako: hainbeste txirrindularik minutu inguruko errenta lortzea. Lokomotorak lanean hasi ziren serio, baina ez zuten inoren laguntzarik jaso, eta amone eman behar izan zuten.

Beti 50 segundo eta minutuaren bueltan, Froome erre zen aurrena, eta Wiggins ahaltsua gero. Garaipena aurrean zegoen, eta favorito nagusietako batek, Fabian

Cancellarak, bihurtu batean irrist egin eta muturrez aurrera etorri zen, dominaren bat irabazteko aukera oro galduta. Garbi zegoen 32 laguneko tropeltxoa hautsi egingo zela, ez zela esprint handirik egongo, eta Uranen eraso izan zen eraso ona. Vinokurovek aise erantzun zion, eta atzekoak, bata besteari begira, jazarpen lana norik hasi. Suitzak uko egin zion, Cancellara erori egin zelako, eta Espainian ere, lanerako bat eta garaipenerako bi. Lanerako zegoena, Castroviejo, porru eginda, jota. 300 metroren faltan halako despistea izan zuen Rigoberto Uranek, eta erritmoa bizitu zuen Vinokurovek. Helmugaraino.

Kazakhstango selekzioko lortu duen urrezko dominak. Bosgarrenez ari dira parte hartzen Olinpiar Jokoen, eta 40. doimina lortu dituzte: urrezko 10, zilarrezko 16 eta brontzezko 14.



# Lehiak bi behar ditu

Ryan Lochtek aise irabazi du urrea 400 metro lau estiloetan, baina txapeldunak adina oihartzun eragin du Michael Phelps podiumetik kanpo geratu izanak; 4. postuan helmugaratu da Phelps handia

## A. Urbistondo

Ryan Lochtek aise irabazi du urrea 400 metro lau estiloetan, baina txapeldunak adina oihartzun eragin du Michael Phelps podiumetik kanpo geratu izana; 4. Postuan helmugaratu da Phelps handia

Eguneko hitzordu garrantzitsuena zen. Bi handi parez pare. Bi marrazo bere beso eta hankak dantzan jartzen. Gorputzeko gihar guztiak mugitzen, igeriketako diziplina zailenetakoan: 400 metro estiloak. Ryan Lochte eta Michael Phelps estatubatuarren arteko dema estua espero zen. Erregea erregetza hori nahi duen printzearentzat. Saillkapen probak ez dira aintzat hartzen normalean, baina goizeko probak zale eta adituen erreakzioa eragin zuen: Phelpskek ozta-ozta lortu zuen finalean lehiazeko txartela, zortzigarren denbora onena lortuta. Sasoi puntu txarra, edo gehiegizko lasaitasuna?

Finala hasi eta berehala argitu zen zalantza. Lochte zulotxo ire-

## Datua:

■ **3 domina.** Michael Phelpsgeratzen zaizkionak olinpiar historiako kirolari onenaren marka gainditzeko. Larisa Latininak 18 domina lortu zituen hiru Olinpiar Jokotan. 16 daramatza Phelps estatubatuarra, eta Londresekoak bere azken Jokoak izan direla aitortu du. Atzo 17. domina lortzeko aukera ona galdu zuen, eta gaur du lehena lortzeko beste aukera bat: 100 metro tximeleta.

Ryan Lochte, 400 metro lau estiloetako proban, atzo.

PATRICK B. KRAEMER / EFE

kitzen hasiz tximeleta estiloan. 33 ehuneneko Phelpskekiko. Tarte hori baino deigarriagoa, Phelps pare edo aurretik zebiltzala Kosuke Hagino japoniarra eta Thiago Pereira brasildarra. Bizkar estiloan hautsi zuen proba Lochtek. Ondoen moldatzen den diziplina da, eta bi segundo atera zizkion herrikide eta lagun mina denari. Bular eta estilo librea geratzen ziren, baina finala bukatua zegoen. Arrandegira berandu iristen dena bezala, arrain gutzia salduta dagoela, ba antzera.

Tarteak handitu baino ez zituen egin Lochtek, eta finala bukatzerako ia lau segundoraino handitu zen bi izarren arteko alde. Alde handia. Hainbestekoa, Pereira eta Hagino Phelps handia baino lehenago helmugaratu zirela, Baltimore hiriko domina-rik gabe uzteko. Nabarmentzekoa da Hagino japoniarraren brontzezko domina, 17 urte bakarrik dituelako. Phelps baino marka hobek egiten ari da adin berarekin, eta gertutik jarraitu behar-ko da gazte horren jarduna.

## Txinaren erakustaldia

Bi estatubatuarren arteko demak erakarri zuen arreta handiena, baina hitz politekin kontaktu behar da Txinak lehen jardunaldian lortutakoa. Urrezko bi domina, eta etorkizuna euren dela dioen sentsazio argia. 400 metro estilo librekoan Yang Sun faboritoak aurreikuspenak bete eta urrezko domina zintzilikatu zuen lepoan. Sunek estatutasun bat pasa zuen Park korearraren lehen 200 metroekin, baina bular estiloa iritsi zenean, txikitu egin zuen korearra. 90 ehuneneko kendu zizkion 50 metroetan, eta segundo eta erdi pasa 100 metroetan. Azken estiloan, librean, eroso eutsi zion lidergoari. Txinak gizezkoetan bere olinpiar historian lortzen duen lehen urrezko domina da.

Sun bikain, eta Shiwon Yehobeto. Olinpiar Jokoetako balentrietako bat gauzatu zuen Txinako emakume gazte horrek, munduko errekorra ondu baitzuen 400 metro lau estiloen proban. Elizabeth Beisel estatubatuarra zen faborito argia, eta hala izan zen bizkar eta bular estiloan jardun zuten bitartean. Estilo librean jokatuta ziren azken 100 metroak, eta Yek marka bikaina egin zuen: 58.68. Ryan Lochtek baino hiru milaren gehiago. Beisel aise utzi zuenatzean txinatarrak, eta munduko marka berria jarri: 4.28.43. Hori, 16 urterekin. Fenomeno bat jaio dela esatea gutxi esatea da.

Eguneko azken finalean, Australiak lortu zuen urrea emakumezkoen 100 metroko txandakakoan. Gaur lau final jokatuko dira: tximeleta 100 metro eta 400 metro emakumezkoetan, eta 4 x 100 libreak eta 100 bular estiloan gizezkoetan.



Michael Phelps, keinu serioarekin, proba bukatu ostean. BARBARA WALTON / EFE



## ‘Missy misila’

Missy Franklin, kopetan botila bat duela entrenatzen. BARBARA WALTON / EFE

**Missy Franklin da AEBetako harrobiko azken harribitxia. Emakumezkoen igeriketari falta zaion izarra bihurtu nahi dute. Zama handiegia da agian, eta garaizegi jarria: 17 urte besterik ez dauzka.**

### Enekoitz Telleria

**M**ichael Phelps da orain, Ian Thorpe izan zen lehenago, Alexander Popov, Matt Biondi eta Mark Spitz aurretik. Zenbait bider izen berdinak, titulu berberak, goratze eta loratze errepikakorrak. Haien itzalean egin behar izan du bidea emakumezkoen igeriketari luze. Emakumezkoen izateak berak dakarren harlauza pisutsu eta betiereko horrez gain, erabat eta denbora luze nabarmenduko den izarrik topatu ezinda dabil aspaldian. Michael Phelpsek Olinpiar Jokoa amaitutakoan hartuko du erretiroa, eta Ryan Lochte 26 urte dauzka. AEBek jarri dute euren izargintzarako makina abian, eta Missy Franklin topatu dute.

*Missy misila* deitu izan dio beti aitak eta izen horrekin gelditu da. 17 urte besterik ez dauzka, zapi probatan ariko da, eta zazpi domina irabazteko hautagaien artean jarri dute. Horren gaztea izateko oso heldua dela diote hari buruz, talentua duela, bizi-bizia dela, gorputz bikaina duela (1,86 metro), eta gehien baliu duena: igerilari aparta dela. Bizkar estiloan da espezialista peto-petoa, baina guztietan moldatzen da bikain. Phelpsen antza hartu diote horretan AEBetako teknikari eta komunikabideek. Bizkar estiloko 100 eta 200 metrokoetan urrea irabaziko duelakoan daude, txanda-

kakoetan munduko beste igerilari onenen laguntza izango du, eta estilo libreko 100 eta 200 metrokoetan izango ditu zailtasun gehien.

Pasadenakoa da Franklin jaiotzez (Kalifornia, AEB), baina Kanadakoak ditu gurasoak. Izan zuten hasiera hartan zalantza bat — Kanadako selekzioan sartzea errazago izango zuelako —, baina AEBekin aritu izan da beti. Pekingo Olinpiar Jokotarako sailkatze probak jokatu zirenean 13 urte besterik ez zituen eta ez zen bakar baterako ere sailkatu. Garaizegi zen lehertzeko, eta joan den urtean lehertu zen Shangaiko Munduko Txapelketetan: urrezko hiru domina irabazi zituen, zilarrezko bat eta brontzezko beste bat. Eta Londresko Jokotara sailkatzeokotan zazpi probatarako sailkatu zen hurrena.

AEBetako selekzioan gustura daude oso haren freskotasunarekin eta etorriarekin, haren baikortasun eta xalotasunarekin. «Dena ez da lehia Olinpiar Jokotetan. Dibertitu ere egin behar dugu. Jende asko ezagutuko dut hemen», zioen duela egun gutxi. Eta jende asko du atzetik aspaldian. Unibertsitatean joan aurreko azken urtea du hau, eta egin dizkiote jada hainbat eskaintza. Ikasketak albo batera utzi eta igerilari profesional izateko gomendatu diote askok. Berak eta gurasoek —energia berriztagarrien kontsultore bat aita eta medikua ama— ezetz esan dute. «Sekulakoa da nire gurasoek eskaini dieten diruzari uko egitea. Nire azken urtean gozatzeko nahi dute eta hori egingo dut», esan du Missy.

Gaur bertan ekingo dio lehiaketari Franklinek, baina ez da bere espezialitatean ariko. Lehen aukera du, beraz, jarri eta hartu duen zama hori gehiegizkoa ote den edo ez erakusteko. Izan dira lehen ere horren bizi hasi eta bidean gelditu direnak. Berari dagokio neurria hartzea.

### Erreferente nagusiak

Ez dute gizonzkoek kirol berean izan duten sonarik eta lorarik izan, baina izan dira emakumezkoen igeriketan erreferente bihurtu diren zenbait izar.



#### Shane Gould

(Munich, 1972)

Bakarkako jardunean urrezko hiru domina irabazi zituen lehen igerilaria izan zen australiarra. Munichen, 15 urterekin, munduko errekorrak apurtu zituen bata bestearen atzetik, baina Mark Spitz balentriaren itzalean gelditu zen. Urte horretan, estilo libreko 100 eta 800 metro arteko distantzia guztietan bereak izan ziren munduko markarik onenak. 17 urterekin hartu zuen erretiroa.



#### Kornelia Ender

(Montreal, 1976)

Inoizko igerilari onenen artean dago haren izena. Orotara, Munich eta Montrealgo Jokoa kontuan hartuta, zortzi domina irabazi zituen (urrezkoak lau eta zilarrezko bat Montrealen, eta hiru zilarrezko Munichen), eta munduko 27 errekor apurtu zituen. Alemaniako Errepublikako Demokratikoaren izenean lehiatu zen, eta 18 urte bete gabe zituela hartu zuen erretiroa.



#### Kristin Otto

(Seul, 1988)


Olinpiar Jokoen historian sartu zen igerilari alemaniarra Seulen, sei probatan parte hartu eta urrezko sei domina irabazita. 22 urte zituen. Irabazi beharreko guztia irabazita zeukan, baina Los Angelesko Jokotetan ez zuen parte hartzerik izan haren herrialdeari egindako boikoto medio, eta Seulen atera zuen arantza. Gerokoak dira garai hartako kirolari alemaniarren inguruan sortutako dopin zurrumurruak.



#### Jenny Thompson

(1992, 1996, 2000, 2004)


Olinpiar Jokotetan igeriketan domina gehien irabazi duen kirolaria da, Dana Torres herrikidearekin batera: hamabi. Kasu berezia da harena, lau olinpiar jokotan aritu baita eta bakarka bi domina baino ez baitzuten lortu: Bartzelonan (1992), estilo librean, zilarrezkoa; Sidneyn (2000), estilo berean, brontzezkoa. Gainontzekoak, urrezko zortzi eta zilarrezko bi, txandakakoetan lortutakoak dira.



#### Dara Torres

(1984, 1988, 1992, 2000 eta 2008)

Bost olinpiar jokotan parte hartu duen igerilari estatubatuar bakarra da. Los Angelesen hasi zen, eta Seulen, Bartzelonan, Sidneyn eta Pekinen jarraitu. Hamabi domina irabazitakoa da: urrezkoak lau, zilarrezkoak lau eta brontzezkoak beste lau. Domina horietatik guztietatik bost Sidneyn Jokotetan irabazitakoak dira, 33 urterekin, taldeko igerilari beteranoena zela. Marka, dena dela, Pekinen ezarri zuen: 41 urterekin hartu zuen parte, eta zilarrezko hiru domina irabazi zituen. 45 ditu egun, aurkeztu da Londresko Jokotetan parte hartu ahal izateko sailkatze probetara (50 metrokoan), baina ez du sailkatzea lortu eta erretiroa hartu du.



#### Natalie Coughlin

(Pekin, 2008)

Hura da Missy Franklinen erreferente hurbilenekoa. Elkarrekin ariko dira Londresen, lau estiloetako 4x100ekoan. Olinpiar Jokotetan hamaika domina irabazitakoa da: bost lortu zituen Atenasen (2004), eta sei Pekinen (2008). Horietatik guztietatik urrezkoak dira hiru, zilarrezkoak lau eta brontzezkoak beste lau. Azken urteotako igerilari onenetakoa izan da.

**G**ustuko dut Londresko metroa. Hiraren zainetan barrena altzairuz-ko odola barreiatzen du. Nire garraio txartelari kea dario, eta ni gustura noa zuloan barrena zitzu bizian. Txiki eta itogarria da, eta ez du aire giroturik. Metro bide zaharrenekin alderatuta, Bilbokoak kirofano bat dirudi, garbi eta aseptiko. Halere, ezin dut uka iPhone, iPad, iPod eta bakartzeko beste hainbat gailuk xarma pixka bat kendu diotela, baina, tira, arrimatuz gero, alboan eserita eta zutik doana entzuten ari den musikarekin goza dezakezu.

## Diogenesen sindromea



'Betweenland'  
Imanol Magro

Jokoen harira, egur asko jasotzen ari da metro gaixoa. Ni ere gelditu nintzen bost minutuz geldirik bi geltokiren alboan, baina halako onei probetxua ateratzen jakin behar da. Harrigarria nola zen posible bagoi batean ehun pertsona inguru egotea, eta inork ez elkarri begietara begiratzea. Bat gora begira, beste bat beheara, beste bat pixka bat okertuta... Geometria mirari bat. Metroaren onena jendea delako, eta jendea nekatuta edota pentsamendurik sakonenetan murgilduta dagoenean zelatatu dezaitezulako. Herenegun, Uma Thurman

zelatatu nuen, esate baterako. Ziur nago bera zela; bai, behintzat, 1,50 metro luze bada. Beste ezagun batzuk ere ikusi ditut, baina horiekin ez dut hain garbi erak ziren edo ez.

Halako kontutxoengatik dut gustuko, eta niretzat ere atsedeneku bilakatu delako. Bertan gustura mugituko nintzateke eguneru, zuloan sartuta mundua zelatatu eta doako prentsa horia irakurtzen. Nire gaitzak badu izen ofiziala, badakit. Gero eta garbiago dut Diogenesen ez zela pitxar batean bizi, Londresko sotoan baizik.

08

Seigarren uztaila



berria  
2012ko uztailaren 29a



## Julian Cheyne

Olinpiar Jokoen aurkako ekintzailea

**Duela bost urte etxetik bota zuten olinpiar gunea eraikitzeo, eta orduan hasitako protesta bideak jokoen aurkako mugimenduko bozeramaile bilakatu du.**

# «Agintariei bost axola die etxetik bota duten jendea»

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

Ezagunagoa da nazioarteko hedabideetan Britainia Handikoetan baino. *New York Times*-en iritzi artikuluak idatzitakoak da. 2007an babes sozialeko bere etxetik bota zuten —Olinpiar Hiria dagoen lur sailetik gertu—, eta ez

### Aipatzekoa.

■ **Etxean, mutu.**

«Hedabide britainiarrek ez gaituzte aipatzen. Harreman gehiago dut nazioarteko kazetariekin. Hemengo biztanleek ez dute jokoekiko ahots kiritikorik entzuten».

zioten aurretik hitzarturiko kalte-ordaina eman. «beste 450 auzokideei bezala». Jokoen aurkako pentsamendu kritikoaren bozeramaile ofiziala da. Besteak beste, *Gamesmonitor.com* webgunetik. **Hasi dira jokoak. Nola sentitzen zara?** Atsekabetuta. Iragan igandean, justu bost urte bete ziren nire etxea behartuta utzi behar izan nuenetik. Horregatik, triste nago,

hasi berri den ekitaldi honek nire komunitatea eta nire sustraiaik utzera behartu ninduelako. Baina hori ez da nire atsekabe bakarra; jokoen aitzakian gauza txar gehiago egin dira onak baino.

### Jokoek «arrasto ona» utziko dutela nabarmendu dute agintariak.

Ez da ona izango, eta okerrena da jarduera txarrak ez direla orain amaituko. Asko hitz egiten dute kirol arrasto onaz, baina hori ere ez da egia. Azpiegitura horiek jende jakin batek bakarrik erabili ahal izan dituelako, eta ez txiroenek. Halaber, badiote Ekialdeko Londresi jokoek mesede egingo diotela, baina hori ere gezurra da. Alderdi horrek bilakaera propioa zuen, eta, jokoekin, bertako jendea paretik kentzea lortu dute. 5.000 lagunetik gora etxetik kanporatu dituzte, eta jende horrek ez du aski izan konpentsazioekin etxe berrietan jarraitzeko. Negozio bat dira: eraikuntza samaldakakoa, telebista eskubideak, Jokoak saldu egin dituzte, markak... Jokoak ez dira giza ekitaldi bat.

**Aldaketa demografiko handia da.** Prozesuaren zati bat da. Etxeak enpresek erosi dituzte, eta errentan bizi zirenak kalera joan dira. Jokoak Stratfordeko alderdia aldatzeko izan ziren; baina, orain, Carpenters Road-en beste 150 familia kaleratu behar dituzte. Zer etorriko den asmatzea ez da zaila, eta gure borrokak hor jarraitzen du. Agian, hamar urte barru izango da, baina aldaketa samaldakako horrek jarraitu egingo du. Orain, jokoen alde polita ikusten ari gara: kirolariak... baina gero etorriko dira burukominak. Agintariei bost axola die zer gertatuko den bere etxetik botatuko jendearekin. Prozesuak eskuetatik ihes egin die, eta, orain, agintariak

eraikuntza interesak dituzten enpresen atzetik doaz.

### Olinpiar gunera joan al zara?

Toki hori ez da inoiz nire etxea izango. Ni handik bost kilometro-ra bizi naiz orain. Oraingo horrekin nik ez dut harremanik. Halere, aurreko batean elkarriketa baterako joan nintzen hara, eta

«Jokoak ez dira giza ekitaldi bat, negozio handi bat baizik»

«Agintariak eraikuntza interesak dituzten enpresen atzetik doaz»

garai batean joaten nintzen dena txikitako batera joan nintzen, eta dendariak esan zidan negozioa ixteko zorian zegoela. Etxe berrietako jendeak ez du auzoko bizitza egiten, dena olinpiar gunean erosten dute. Jokoak mesedegarriak balira, bertako jendeak ez luke ihes egin beharko.

### «Ihes» egin diozu?

Bai. Oraingo, krisiak ez die laguntzen espekulatzaileei, baina apurka bertako jendea kanporantz bidaltzen ari dira. Presioa handia da, agintariak olinpiar gunea gero eta gehiago zabaltzen nahi dituelako. Eraikuntza sektorean interes handiak daude. Londres, New York, Paris eta Berlin hiri handiekin lehian dago, eta jende hori erakartzeko tokia behar du. Jokoak enpresa handien negozioa dira; begira, bestela, Mc Donaldek inbertitzen obesitatearen aurka kanpainetan, eta, gero, kolpetik, halako enpresa baten dirua onartu dute.

«Blake Bolt irabaziko dio, ziur»

→ Maurice Greene ■ ATLETA OHIA

**e**saldia

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua

Gipuzkoa BEERRIA

**“Gipuzkoa gure kirolariekin”**



**M**alkoak ere ez dauzkat urruti». Ordurako malko pare bat galtzetan galduta zeudela, horrela aitortu nion lankideari. Ez nion entzuten telefonoz; ez nekien oso ondo zer esaten ari nintzen. Baina sentimenduek uste dut asmatu zutela Londrestik Euskal Herrira arteko bidea egiten. «Segi horrela gozaten eta gozarazten. Musu handi bat!». Arrebaren mezua, segidan. Barrua mugitua, berriz ere. Eta olinpiar estadioa, dantzan. Ez nuen uste pertsona bakar baten barruan hainbeste sentimendu egon zitezkeenik pilatuta. Bozgorailue-

## Betiko gordeta



'Off the record'  
Unai Zubeldia

tatik *The Basque Country* noiz entzungo zain pasatu nuen iluntze guztia. Baina ametsen txokoa baztertu nuen une hori. Kosta zitzaidan errealitatea eta fikzioa bereizten. Pentsa, ondoan neuzkan kazetari estatubatuarrekin ere lotsarik gabe azalera nituen barruan nituen sentimenduetan. Hitz askorik egin gabe, elkarri ulertu geniola uste dut. Ezer izatekotan, horixe izango da Olinpiar izpiritu.

Eta zer esan Olinpiar Jokoetako hasiera ekitaldiaren aurretik Iban Sanz iruindarrekin igaro nituen uneez... Eskerrik

asko, Iban, ate guztiak irekitzeagatik. Estadioaren barrunbeetaraino eraman ninduen, lanean hasi baino bizpahiru ordu lehenago. Gonbita ere egin zidan gero, parranda giroan haiekin joateko. Oiana Blancoren atzo goizeko borroka gogoan, asmatu nuen ezetz esaten. Eta eskerrak.

Begiak irekita lo egin nuen ostiral iluntzean, irribarrea ahotik kendu ezinik. Txoko txiki batean, hortxe gordeta egongo da betiko Londresko Olinpiar Jokoen hasiera ekitaldiko sentimenduen pilaketa hori.

berria  
2012ko uztailearen 29a



Kronika

09



## «Surrealista da hau»

Iban Sanz, danborrarekin, herenegun, Londresko Olinpiar Jokoetako inaugurazio ekitaldian. IBAN SANZ

## Hasiera ekitaldiak izan zuen euskal ukitu txiki bat, Iban Sanz iruindarrak parte hartu zuelako, musikari gisa. Muhammad Alirekin geratu zen txundituta.

Unai Zubeldia Londres  
→ Berriemaile berezia

**B**este kontzertu baten parekoa da hau niretzat». Horrela hasi du kontaketa. «Harrigarria; txundituta nago. Horrelakorik ez nuen bizi izan inoiz. Ezin dut sinetsi». Olinpiar Jokoen hasiera ekitaldia amaitu berritan egindako adierazpenak dira horiek. Bospasei ordu daude bien artean. Iban Sanz iruindarrarenak dira hitzak. «Sanduzelaikoa naiz ni, ez ahaztu hori zehaztea». 1975ean jaioa da, eta due-

la zortzi urte iritsi zen Londresera, 2004an. Ingeniaritza ikasketak amaituta zegoen ordurako. «Eta lanean ere igaro nituen urte batzuk». Baina musikarekin gozatu nahi zuen. «Iruñean eta Donostian ezin nuen egin musika modernoko goi mailako ikasketarik, eta horregatik etorri nintzen Londresera. Musikaren heziketarako beste ikasketak batzuk ere egin nituen gero, irakasle izateko; eta, orain, bateria jotzeaz gain, 16-18 urte arteko gazte batzuen musika irakaslea ere banaiz».

Jauzi handi samarra dago Iruñeko Sanduzelai auzotik Londre-

### Aipatzekoa.

■ 2004ko bidaia. Euskal Herrian musikaren bidetik etorkituan handirik ez zeukala hartu zuen Iban Sanzek Londreserako bidea. Musikako irakasle lanetan dabil orain, eta gehien ordaintzen dionaren bateria gisa ere bai. «Onartu beharra daukat: mertzenarioa naiz ni».

sera musikari segika joatetik joakoetako hasiera ekitaldian parte hartzera. Baina erraz lotu ditu istorioaren bi puntak. «Lewis Turner gitarra jotzaile handiarentzat jo izan dut bateria; disko bat ere kaleratu genuen duela bi urte, eta haren baxu jotzailearen bidez iritsi zitzaidan aukera beste hainbat kontzertutan parte hartzeko». Ikasketen amaierako ekitaldian ezagutu omen zuten elkar. «Hark ezagutzen zuen Lewis Turner; biok elkartu beharra geneukala esan zion, eta haren bidez iritsi zitzaidan gero musika eskolara mezu elektronikoa, hasiera ekitaldian aritzeko gonbidapenarekin». Bi proba egin zizkioten aurretik. «Eta balekoa nintzela erabaki zuten».

Azalpen lasai horien ondoren, ordea, ezinegon handiarekin zegoen Sanz inaugurazio ekitaldia

amaitu berritan. «Baina ikusi duzu Muhammad Ali? Gertu-gertu eduki dut; zuhaitzaren ondoan nengoen ni, eta ia-ia ukitzeko aukera ere izan dut. Eta musika? Eta su ikuskizuna? Eta argia? Eta jendea?». Inaugurazio ekitaldian izan ziren gehien moduan, bere onetik aterata zegoen iruindarra. Une bat azpimarratzeko eskatuta... «Aliren ondoan egon naizenekoa, zalantzarik gabe. Harrigarria izan da». Ekitaldia barrutik nola bizi izan duen galdetu, eta hitzak falta zitzaizkion Sanzi. «Surrealista da hau. Telebistan ikusi izan ditut horrelako ekitaldiak, eta, bat-batean, guztiaren erdi-erdian ni». Barrez lehertzen hasi zen nafarra.

### Euskal Herrira bisitan

«Egunez, irakaslea; eta gaeuz, heavya». Horrela definitu du Sanzek bere burua. «Izan ere, musikatik bizi daiteke, baina bateriatik, ez». Londresko pubetan kontzertu asko emandakoa da. «Baina orain dezente zaila dago egoera, bai Euskal Herrian, bai hemen, Londresen. Egunez dago jan beharra, ordea». Etxea ez dauka ahaztuta. «Gabonetan beti joaten naiz hara, familiar bisita egitera». Irakasle lanetan ari denez, eskuragarriagoa da orain bidaia. «Lehen, kontzertuz beteta edukitzen nuen uda eta Gabon inguru guztia».

Olinpiar estadioan sartuta, gutxi batzuen esku dagoen pribilegioa izanda... Nahitaezkoa da ondorioa: kirola gustuko izango duzu, noski! «Kirola asko gustatzen zait, pilota bereziki, pala, baina olinpiar kirolak ez zaizkit hainbeste gustatzen». Estadioarekin maiteminduta geratu zen, ordea. «Ohiko beste kontzertu bat» ematera joan, eta txora-txora eginda joan zen etxera.

Herenegun gauean Eresuma Batuan telebista aurrean zeuden ikusle-  
en %82k ikusi zuten inaugurazio ekitaldia; 22,4 milioi lagun inguru,  
hain zuten. Eresuma Batuko biztanleen %43k ikusi zuten ekitaldia.



Aupa Mikel eta Ainhoa!





**Finalak**

- 12:45. Tiroa.** 10 metro airezko pistolarekin (E).
- 13:00. Txirrindularitza.** Errepidekoa (E).
- 15:00. Tiroa.** Skeet-a (E).
- 16:00. Jauziak.** Hiru metrokoa. Binakakoa (E).
- 17:00. Judoa.** -52 kilo (E).
- 19:00. Arku tiroa.** Taldekakoa (E).
- 20:10. Esgrima.** Sablea. Banakakoa (G).
- 20:30. Igeriketa.** 100 metro tximelata estiloan (E).
- 21:11. Igeriketa.** 100 metro bular estiloan (G).

- 21:18. Igeriketa.** 400 metrokoa (E).
- 22:00. Igeriketa.** 4x100 metro txandaka, estilo librean (G).
- 16:00 (bihar). Jauziak.** Hamar metrokoa. Binakakoa (G).
- 17:30 (bihar). Gimnastika artistikoa.** Taldekakoa (G).
- 20:40 (bihar). Esgrima.** Ezpata. Banakakoa (E).
- 20:43 (bihar). Igeriketa.** 200 metrokoa (G).
- 20:51 (bihar). Igeriketa.** 100 metro bizkar estiloan (E).
- 20:58 (bihar). Igeriketa.** 100 metro bizkar estiloan (G).
- 21:15 (bihar). Igeriketa.** 100 metro bular estiloan (E).

**Euskal herritarrak**

- 10:30-17:10. Judoa.** Sugoï Uriarte (-66 kilo).
- 14:30. Piraguismoa.** Ander Elozegi (C1 eslaloma). Saiklatzekoa.
- 17:15. Eskubaloia.** Espainia-Serbia (gizonezkoak).
- 20:45. Futbola.** Espainia-Honduras (gizonezkoak).
- 10:00 (bihar). Tiroa.** Juanjo Aranburu (Skeet-a). Lehen txanda.
- 10:30-17:10 (bihar). Judoa.** Kiyoshi Uematsu (-73 kilo).
- 13:00 (bihar). Bela.** Iker Martinez eta Xabi Fernandez (49er). Lehen bi estropadak.

- 15:12 (bihar). Piraguismoa.** Maialen Chourraut (K1 eslaloma).
- 17:15 (bihar). Eskubaloia.** Frantzia-Espainia (emakumezkoak).

**Telebistak**

- La1. 10:00.** 15:00 arte zuzenean, eta gero 16:15etik 21:30era.
- Teledporte. 09:30.** 00:15 arte zuzenean.
- France2. 11:45.** 13:00 arte zuzenean. Gero, 17:30etik 20:00etara, eta 20:35etik 01:00etara.
- France3. 09:00.** 12:00 arte zuzenean. Gero, 12:55etik 17:35era, eta 19:55etik 20:35era.

**Igeriketa**

■ 400 METRO ESTILOAK (G)

→ Finala

1. Ryan Lochte (AEB) 4.05,18
2. Thiago Pereira (Brasil) 3,68ra
3. Kosuke Hagino (Japon.) 3,76ra

■ 400 METRO ESTILOAK (E)

→ Finala

1. Ye Shiwen (Txina) 4.28,43
2. Elisabeth Beisel (AEB) 2,84ra
3. Li Xuanxu 4,48ra

■ 400 METROAK (G)

→ Finala

1. Sun Yang (Txina) 3.40,14
2. Taehwan Park (H. Korea) 1,92ra
3. P. Vanderkaay (AEB) 4,55era

■ 4X100 LIBREAK (E)

→ Finala

1. Australia 3.33,15
2. Herbehereak 0,64ra
3. AEB 1,09ra

**Olinpiar tiroa**

■ 10 METRO KARABINA (E)

→ Finala

1. Yi Siling (Txina) 502,9 puntu
2. Silvia Bogacka (Pol.) 502,2
3. Yu Dan (Txina) 501,5

**Judoa**

■ 60 KILOZ AZPIKOAK (G)

→ Podiuma

1. Arsen Galstian (Errusia)
2. Hiroaki Hiraoka (Japonia)
3. Felipe Kitadai (Brasil)
3. Rixod Sobirov (Uzbekistan)

**Laburrak**

■ **Tenisa.** Roger Feder suiztarrak hiru set behar izan zituen, lehen kanporaketan Alejandro Falla kolonbiarrari irabazteko: 6-3, 5-7 eta 6-3. Serena Williams estatubatuarrek, berriz, aise hartu zuen mendean Jelena Jankovic serbiarra: 6-3 eta 6-1.

■ **Jauziak.** Gaur hasiko da jauzien lehia, eta, berriz ere, Txinako jauzilariek dira faborito domina ia guztiak irabazteko. Pekinen, zazpi irabazi zituzten; guztiak, bat ez beste.

■ **Gimnastika artistikoa.** Bihar eta etzi jokatuko dira gimnastika artistikoko taldekako finalak, gizonezkoetan zein emakumezkoetan (17:30).

**Arku tiroa**

■ TALDEKAKOA (G)

→ Podiuma

1. Italia
2. AEB
3. Hego Korea

**Esgrima**

■ FLORETEA, BANAKA (E)

→ Podiuma

1. Elisa Di Francisca (Italia)
2. Arianna Errigo (Italia)
3. Valentina Vezzali (Italia)

**Halterofilia**

■ 48 KILOZ AZPIKOAK (E)

→ Podiuma

1. Mingjuan Wang (Txina) 205 k.
2. Hiromi Miyake (Japonia) 197 k.
3. C.-H. Ryang (I. Korea) 192 k.

↓ Yi Siling tiro-jaurtitzaille txinatarrak izan du ohorea Londresko Olinpiar Jokoetako lehen urrezko domina kolporatzeko. Yi 10 metroko airezko karabinan nagusitu zen. Argazkian, Yi, negarrez, podiumean. **DENNIS M. SABANGAN / EFE**



**← Dominak**

Herrialdea	Urr.	Zil.	Bro.	G.	Herrialdea	Urr.	Zil.	Bro.	G.
1. Txina	4	0	2	6	10. Herbehereak	0	1	0	1
2. Italia	2	2	1	5	10. Polonia	0	1	0	1
3. AEB	1	2	2	5	10. Errumania	0	1	0	1
4. Brasil	1	1	1	3	14. Belgika	0	0	1	1
4. Hego Korea	1	1	1	3	14. Hungaria	0	0	1	1
6. Australia	1	0	0	1	14. Norvegia	0	0	1	1
6. Kazakhstan	1	0	0	1	14. Ipar Korea	0	0	1	1
6. Errusia	1	0	0	1	14. Serbia	0	0	1	1
9. Japonia	0	2	0	2	14. Uzbekistan	0	0	1	1
10. Kolonbia	0	1	0	1					

**@DikerNole** (Novak Djokovic-Serbiako selektoko tenislaria) Sekula ez dut ahaztuko ostiralgauan ikusituen ikusizuna. Emozioa, adrenalina, atmosfera. Dena izan zen perfektua.



**F**inlandiar hegalaria. Goitzen horrekin ezaguna zen Paavo Nurmi (Turku, Finlandia, 1897- Helsinki, 1973). Zortzi urtean, urrezko bederatzia domina lortu zituen atleta horrek Olinpiar Jokoetan, eta sari horiek eman zizkioten Nurmiri hegala. Zilarrezko berteze hiru ere irabazi zituen. 1924. urteko Parisko Olinpiar Jokoetan bakarrik, urrezko bost domina eskuratu zituen, eta garaipen horien eskutik, betirako mito bilakatu zen kirolaria.

Sorterriko negu gorriek eman zioten Nurmiri gero pistan erakutsi zuen inda-

## Atzera begira

# → 1924

## Paavo Nurmi

Urrezko bederatzia domina eta zilarrezko berteze bi irabazi zituen Paavo Nurmi atleta finlandiarra. **BERRIA**



rra. Haren familiak basoan zuen etxean hazi zen. Parisen, 3.000, 1.500 eta 5.000 metroko lasterketetan nagusitu zen, bertezak berte. Azken bien artean ordubete baino ez zuen izan atsedean hartzeko.

1920ko hamarkadan, kirolariak ez zituzten egungo ballabideak, eta lasterketan denbora beren alde erabili ahal izateko, kronometroa eramaten zuen beti ezkerreko eskuan, indarrak neurtu eta beren erritmoa ezarri ahal izateko aurkarien aurrean. 1952an, bere herriko jokoe-tan, zuzia estadiora sartu zuen Nurmik.

berria  
2012ko uztailaren 29a



## Olinpiar oroitzapenak → Josemi Espinosa

11



Josemi Espinosa, Leipzigen eginiko Europako Txapelketan. JOSEMI ESPINOSA

Tokiora iristeko, egun osoa baino gehiago behar izan zuten, eta oraindik gai da sei eskala izan zituena bidaia buruz errezeitatzeko: «Madril, Teheran, Calcutta, Karachi, Bangkok, Saigon eta Tokio. Hegazkinean 52 kirolari eta 55 ordezkari gindoazen. Ordezkaritza asko beharrezkoak ziren, egia da, baina denak... Pentsa, militar bat, nonbait inoiz loriaturiko militarrik gazteena omen zen, desfilea antolatzeko eraman zuten». Desfilean egon zen bilbotar gaztea. «Soldaduska egin duzuenak barnealdean jarri, kamerak hor daude eta», agindu zigun. Alferrik; gero ez zen inolako fundameturik egon [barrez].

### Lehen egunean, errieta

Tokiora iritsi berritan, Espinosak «parrandaxoa» egin zuen taldekide batekin, eta entrenatzailea logelan zain zuten itzuli zirenean. «Zera esan zidan, eta jota utzi ninduen: 'Ez dut gustuko errieta egiterik, eta are gutxiago merezi izandako zerbaitegatik errieta egitea'. Oraindik ere gogorarazten dit. Baina tira, astebete falta zitzaizun lehiatzen hasteko». Metroaz oroitzuten da, eta maparen zati batzuk ditu oraindik buruan: «Hiri erraldoia da. Ginsa erdi-aldea zen; Sakusa, parranda lekua; eta Shibuia, olinpiar gunea».

Tokiora buruz hitz egitean, baina, kaleak baino gehiago, jendea du gogoan. «Oso adeitsuak ziren. Gogoratzen naiz igerilekuroko sarreraren jendetza gure zain egoten zela, argazki bat ateratzeko. Zer jakingo zuten gu nor demontre ginen! Ezta txandalean zer jartzen zuten ere. Gero, bi edo hiru egunera, argazkiarekin itzultzen ziren guri eman eta euren etxera gonbidatzeko». Hiru aste egin zituen Tokion, eta Japoniako kultura pixka bat ezagutzeko baliatu zuen. «Orain oroitzuten dut, arreta handiagoa jarriko nuke, baina orduan 19 urte baino ez nintzen».

Igerilariak 1968an utzi zion lehiatzeari, Mexikoko Olinpiar Jokoetatik «merezita» kanpo gelditu ondoren. «Ez nintzen behar adina entrenatzen», aitortu du. Gero, waterpolo epaile izan zen, eta egun, Euskal Igeriketa Federazioko kide da; «baina laster utziko dut», iragarri du. Erretiroa hartuta dago, Michael Phelps-ek txunditzen du, urteak daramatza «buru-belarri» euskara ikasten, eta solaskide oso atsegina da.

# Tokioko argazkiak

**Josemi Espinosak 1964ko Olinpiar Jokoetan igeri egin zuen, eta markarekin gustura gelditu ez arren, ez ditu ahaztu egun haiek, ezta eginiko lagunak ere. «Pribilegiatu bat naizela uste dut. Kirolari orok joan beharko luke bizitzan behin jokoetara».**

Imanol Magro Londres  
→ Berriemalle berezia

**H**emeretzi urte zituen mundua hegazkinez gurutzatzeko aukeratu zutenean; 100 metroko Espainiako errekorra bi aldiz hobetu zuen urtean. «Olinpiar Jokoak egon daitekeen gauzarik handiena dira. Kirolari orok joan beharko luke bizitzan behin jokoetara», azaldu du Josemi Espinosak, miresmenez (Bilbo, 1945). Han lorturiko markekin ez zen gustura gelditu; harrigarria zenbakietarako duen memoria, baina bizitzako esperientzia hura eta ezaguturiko jendea ez ditu ahaztu. «Niri kirolak eman didan gauzarik balio-



Madril, Teheran, Calcutta, Karachi, Bangkok, Saigon eta Tokio. Horra gure joanekoa hegazkinez»

JOSEMI ESPINOSA  
Atletia ohia

### Gogoratzekoak

■ **Hegaldia.** Egun bat baino gehiago behar izan zuen Japoniara iristeko, eta sei eskala egin: Madril, Teheran, Calcutta, Karachi, Bangkok, Saigon eta Tokio.

■ **Marka txarra.** 44. izan zen 100 metroko proban, 57,4ko markarekin. Bere markarik onena egin izan balu (55,8), hiru finalerdietako batean sartu izango zen.

tsuena lagunak dira. Eta Tokion, olinpiar elkarteak, kirolariak elkartzen ginen lekuan zegoen lagunarte giroa ahaztezina da».

Lagun horien artean ageri da Gary Iler, Tokion bi urrezko domina irabazi zituen igerilariak. «Nire txandan igeri egin aurretik ezagutu nuen; igerilari bikaina. Laugarren izan zen azkenean. Oraindik ere, Facebook bidez tratua dut harekin». Halere, miretsi, Don Shollander handia miretsi zuen, lau urrezko domina irabazi zituen estatubatuarra. Bere lana- ren inguruan, berriz, ezin oroitzapen ona izan. «Ni ez nintzen gustura gelditu nire lanarekin: 57,4 egin nuen, eta nire markarik onena 55,8 zen. Nire markarik onena berdindu izan banu, finalerdietan sartuko nintzen». Kronometratze elektronikoa izan zuen lehen txapelketa izan zen, eta Espinosa 44. izan zen 100 metroko proban parte hartu zuten 66 igerilarien artean. Astebete geroago, 4x100 estiloetako proban parte hartu zuen, eta lan txukunagoa agin arren, Espainiako laukoteak ez zuen lehen galbahea pasatu.

© SoyElChapu (Andres Nocioni Argentinako saskibaloitokiolaria) Argentinako ordezkariak besto nondo dauka, baina besto nondo oia. Olinpiar Jokoein mozkortu ginen herenegun, eta berandujanginen atsedean hartzera. Zorte on kirolariel!

**El xioak**

**O**linpiar Jokoek ekonomian eta batez ere Londres ekialdea garatzeko planetan eta etxebizitzaren prezioetan zer efektu izango duten oraindik ikusteko dago, baita egindako inbertsioa bertako jendearentzat lagungarria izango ote den ere.

Olinpiar ingurunea dagoen auzoa, Stratford, eta orokorrean E15 postakode ingurua Londresko auzo txiroenetakoa bat da: *council-estate* edo udalaren laguntzarekin eraikitako etxebizitza asko daude, bloke handiak, immigrazio handia egon zenean eraikitakoak asko, Londres mendebaldeko

## Gero, zer?



'London calling'  
Garazi Goia

Victoriar garaiko etxe dotoreekin alderatuz aski ezberdinak. Olinpiar Jokoen helburuetako bat Londresko inguru hori birmoldatu eta erakargarriagoa egitea bazen ere, oraindik ere Stratford inguruan etxebizitzaren salneurriak Londresko batez bestekoa baino %30 baxuagoak dira.

Olinpiar inguruko auzoetako etxeen balioa igotzen hasi bada ere, oraingoz igoera oso apala izan omen da. Higiezin agentzia askotan esan didate jokoa bukatu arte jendea etxeak saldu gabe zain dagoela orduan prezioak igo ahal izango dituztela pentsatuz; bitar-

tean, turisten poltsikoak husten ari dira, alokairu garestiak kobratuz.

Adibidez, 3.000 etxe inguru eraiki dituzte atletentzat. Olinpiar Jokoak bukatu ondoren, etxeen erdiak prezio zentzudun eta gehiengoak erosi ditza-keen salneurrietan salduko dituztela esan dute. Beste erdiak, aldiz, arabiar estatu burujabeetako eraikuntza-entresa batera joan omen dira.

Ea mamu-herri batekin ez duten bukatzen, aberatsen edo aberats izan nahi dutenen kodizia eta herriaren interesa ez doaz bat eta. Ez zen lehenengo aldia izango.



berria  
2012ko uztailaren 29a

## Azkena →

## → Laburrak



### ↑ Pulaku albaniarra kanporatu dute, dopinagatik

**HALTEROFILIA** Nazioarteko Olinpiar Batzordeak (NOB) Londresko Jokoen kanpo utzi du Hysen Pulaku pisu-altxatzaile albaniarra, joan zen uztailaren 23an egin zioten dopin kontrol batean estanozolekin positibo eman baitzuen. Orain, Nazioarteko Halterofilia Federazioaren zigorra jasoko du.



### ↑ Jokoen aurkako manifestazioa

**PROTESTAK** 500 lagunek parte hartu zuten atzo Londresen egin zen manifestazioa. Olinpiar Jokoen «merkantilismoa eta hiprokesia» salatu zuten.

### ↑ Txinak indartsu ekin dio lehiari, eta lehena da sailkapenean, lau urre irabazita

**DOMINAK** Orain dela lau urte Pekinen bezala, Londresen ere dominen sailkapena irabazteko hautagaririk sendoena dela erakutsi du Txinako selekzioak lehen lehian egunean. Txinatarrek sei domina irabazi dituzte jada; horietatik lau, urrezkoak. Beste bi dominak brontzezkoak dira. AEBetako selekzioak, haien aurkari nagusiak, bost domina lortu ditu, baina bakarra urrezkoa.

### ↑ Italiak hiru domina irabazi ditu floreteko emakumezkoen banakakoan

**ESGRIMA** Italiako esgrima selekzioak emaitza historikoa lortu zuen atzo floreteko emakumezkoen banakakoan, herrialde horretako kirolariek eskuratu baitzituzten urrezko, zilarrezko eta brontzezko dominak: Elisa di Francisca, Arianna Errigok eta Valentina Vezzalik. Vezzalik podiumeko hirugarren koskarekin konformatu behar izan zuen, azken hiru Olinpiar Jokoen koska gorenera igo ondoren.

### ↑ Eta nik zer egitea nahi duk? Horixe dirudi ari zaiola esaten

Beatriz Piron pisu-jasotzaile dominikarra harmailetan dagoen haren entrenatzaileari. Pironen bederatzigarren postuarekin konformatu behar izan zuen 48 kiloz azpiko mailan. **KERIM OKTEN / EFE**

Hamalau milioi bakarrak zerbitzatuko dira olinpiar hirian: 330 tonatik gora fruitu, 232 tona patata, 100 tona haragi eta 75000 litro esne.

14.000.000

**U**rte gutxi gelditzen direla iragarri dute biomedikuek, biomekanikariek eta fisiologoek. Mugara iristear dau dela kirolariak. Apurtu beharreko markak eta egin beharreko berriak apurtuak eta eginak egongo direla 7,44 eta 10,55 urte barru. 1896an, Aro Modernoko lehen Olinpiar Jokoetan, aztertu dituzten diziplinetan, gizakiak eman zezakeenaren %75 zuen emanda. Egun, Londresko Olinpiar Jokoak hasi aurretik, %99 zuen emanda. Mugan dago, eta iritsiko da eguna gehiago eman ezinda geldituko dena. Goia jota. Sabaiaren kontra.

## Mugaren mugetan



'Citius, altius, fortius'  
Enekoitz Telleria

Kirolaren Biomedikuntza eta Epidemiologiaren Frantziako Ikerketa Zentroak egindako lanaren emaitza da, baina arlo horretako ikerlari gehienak bat datoz diagnosi horretan. Dopinik gabe eta aurrerapen teknologikorik gabe, muga hurbil dago. Horregatik aipatzen dira orain askotan genetikoki aukeratutako atletak, denbora eta distantzia milisegundo eta milimetrotan neurtzen hasi beharra, zoru berriak, NASAk diseinutako oinetakoak...

Ye Shiwen txinatarrak 16 urte ditu. 1,70 metro da luzean, eta ez du alboan di-

tuen kontrario horien gorpuzkera sendorik eta muskulurik. Esku eta hanka handiak zituelako aukeratu zuten Txinako Gobernuako hautatzaileek igeriketarako. Urrezko domina irabazi du lau estioetako 400 metrokoan, eta gaindiezina zirudien muga apurtu: azken luzea Ryan Lochtek baino azkarrago osatu zuen —modalitate berean urrezko domina irabazi zuen gizonezkoa da hura—. «Uste dut asko dudala hobetzeko eta ikasteko oraindik», esan du Yek umil eta xalo. Mugari diogun beldurra baita bat, eta beldurraren muga, bestea.

02

**Piraguismoa** → Denborarik onena eginda sailkatu da Chorraut finalerdietarako.

03

**Tiroa** → Aranburuk oso zail du finalean eta diplomen lehian sartzea.

06

**Gimnastika** → Txinak irabazi du berriz

07


ere urrea gizonezkoen taldekakoan.



london

[www.berria.info/londres12](http://www.berria.info/londres12)

berria  
2012ko uztailaren 31



## Bitik bi

Ez Lochte eta ez Phels, Agnel da, oraingoz, igeriketako izarra.

Bi final jokatu ditu, eta biak irabazi. Azkenekoa, atzo,

200 metro libreetan. Lochtek ez zuen dominarik lortu → 05



Maialen Chourraut, ahalegin betean, atzo, K-1 mailako sailkapenean. ORESTIS PANAGIOTU / EFE

## Ilusioa sortu du

**Maialen Chourrautek denborarik onena eginda lortu du etziko finalerdietarako txartela, K-1 mailan. Domina lortzeko erronka indartu du emaitzak.**

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

«Entrenamenduetan egiten duen jaitziera horietakoa egiten badu, finalean egongo da». Jokoetara abiatu aurretik argi hitz egin zion BERRIARI Xabier Etxaniz Espainiako piraguismo selekzioko hautatzaileak. «Eta erabat jaitziera ona egin ez badu ere, konfiantza handia emango dio emaitzak». Atzo iluntzekoa da hausnarketa hori. Maialen Chourraut lasartearrak denborarik onenarekin lortu zuen K-1eko finalerdietarako txartela. Rankineko bigarren postuan egoteak ematen duen segurtasunarekin, lehen jaitziera ona egin zuen lasartearrak, eta berehala eskuratu zuen etziko finalerdietara pasatzea. «Akats batzuk egin ditu, baina garrantzitsua zen jokoetako presioarekin eta inguruko zaratarekin lehen jaitziera ona egitea, ondo hastea». Esan eta egin.

21 piraguitak ekin zioten lehia-ri, eta, bezperan gizonen C-1

mailan gertatu bezala, bi jaitziera egin ahal izan zituen bakoitzak. Hamabost denborarik onenak, aurrera; sei kaskarrenak, etxera. Akatsik ez egitea zen helburua, eta laugarren atea ukitu bazuen ere (bi segundoko zigorra), oso jaitziera azkarra egin zuen lasartearrak. 96,75 segundo. Urrezko domina ez luke urruti izango etzi denbora horrekin. Bi segundoko zigorra gehituta, 98,75. Ordura arteko denborarik onena zen Chourrautena, eta Jana Dukatova eslovakiarraren marka; rankineko lehen zerrendaburua da eslovakiarra.

### Ospatzeko, «ezer ez»

Lehen jaitziera denborak kontuan hartuta, bazegoen ezusteren bat edo beste. Corinna Kuhnle austriarrak, rankineko hirugarrenak, denborarik onenen artean 16.a zuen; eta Jessica Fox australiarrak, bosgarren zerrendaburuak, 18.a. Baina bigarren jaitziera jarri zuen bakoitza bere lekuan, eta faborito guztiek egin zuten aurrera. Chourrauten kasuan, bigarren jaitziera hori ez zen oso ona izan (107,91). «Ospatzeko ezer ez dago oraindik; hasiera besterik ez da hau». Hausnarketa zentzuduna egin zion Etxanizek BERRIARI. Baina maila bikaina ematen ari da gipuzkoarra, eta ilusio ikaragarria sortu du. «Finalerdietan seguru jokatu du, eta finalean emango du dena».

### Sailkapena

<b>1. M. Chourraut</b> (Espainia)	98,75
<b>2. Lizzie Neave</b> (B. Handia)	0,17ra
<b>3. M. C. Gial Pron</b> (Italia)	0,91ra
<b>4. Jessica Fox</b> (Australia)	1,58ra
<b>5. Stepanka Hilgertova</b> (Txekia)	2,00ra
<b>6. Jana Dukatova</b> (Eslovakia)	2,62ra
<b>7. Corinna Kuhnle</b> (Austria)	3,02ra
<b>8. Jasmin Schornberg</b> (Alemania)	3,39ra

## «Dominen borrokatik gertu egon naiteke»

**Sailkapenean seigarren izan ondoren, finalean sartzen eta kolpea ematen saiatuko da gaur Ander Elozegi C-1ean (13:30)**

**U.Z.** Londres  
→ Berriemaile berezia

«Badakit finalerdietan jaitziera garbia egiten badut, penalizaziorik jasotzen ez badut, finalean egongo naizela». Konfiantzaz gainekza iritsi zen Ander Elozegi irundarra Londresera, eta are indar handiagoa eman dio herenegun sailkapen fasean egindako lan onak. «Lehen jaitziera lortu nahi nuen finalerdietarako txartela, bigarren lasaixeago egin nizan». Eta hala egin zuen. 93,24 segundo. Penalizaziorik gabe. Nahikoa eta sobera. «Gustura geratu naiz lehen jaitziera horrekin, eta, nahita ere, tentsioa ez da berbera behin helburua lortuta dagoenean». 96,60 bigarrenaren. Bi jaitzietan onena aukeratu behar zenez (93,24), posturik onenetan seigarrenarekin sartu zen irundarra finalerdietan, rankinean daukan postu berberarekin, hain justu.

Christos Tsakmakis greziarra, hamargarren zerrendaburua, finalerdietatik kanpo geratu zela eta, haren lekuan, Kynan Maley australiarra sailkatu zela, horixe izan zen, agian, ezuste txiki bakarra. «Baina espero zirenak daude finalerdietan; ez da ezusterik

izan». Hori bai, faboritoetako bi larri samar ibili ziren lehen jaitziera. 17 piraguitetatik 12 sailkatzen ziren finalerdietarako, eta Michal Martikan eslovakiarrak denborarik onenetan 16.a lortu zuen, ate bat igaro gabe utzita. 50 segundoko penalizazioa esan nahi du horrek. David Florence etxeko piraguita ere larri samar ibili zen denborarik onenetan 13. arekin, finalerdietatik kanpo zegoelako lehen jaitziera ondoren. «Baina erakutsi dute behar den momentuan behar dena egiteko nolako gaitasuna daukaten». Bigarren txandari esker, denborarik onena lortu zuen Martikanek (90,56), eta bosgarrena Florencek (93,04).

### Zortzi onenak, finalera

Elozegi atsedean hartzeko baliatu zuen atzoko eguna, eta egurren ariko da gaur. «Finalerdietan oso kontzentratuta aritu beharra daukat, eta, ondoren, finalerako, finalerdietan egindako akats txiki horiek zuzendu beharko genituzke. Hala eginez gero, dominen borrokatik gertu egon naiteke». Euskal Herrian 14:30 direnean hasiko dira finalerdiak, eta, sailkatuz gero, 16.06an finala. Hamabi piraguita ariko dira finalerdietan, eta zortzi onenak sailkatuko dira finalerako.

Rankineko postuei begiratuta, sei piraguita dira irundarra baino apalagoak, eta lau utzi behar ditu atzean. Gaur dago erantzun beharra, ordea, eta, sailkatzekoan ez bezala, jaitziera bakarra izango da gaur, bai finalerdietan eta bai finalean. Pekinen laugarren amaitu ondoren, hazita iritsi da Elozegi Londresera, eta ez du urruti izango domina.



Ander Elozegi, herenegun, C-1-eko sailkapenean. O. PANAGIOTU / EFE

89 zentimetroren aldeko da go. Londresko Olimpiar Jokoetako kirolari garrantzitsuenen eta txikiaren artean. Zhaoxu Zhang saskibaloi jokalaritxinetara da garailea (2,21 metro), eta Nercely Soto atletia venezuelarra txikiena (1,32).



webgune berezia  
**www.berria.info/londres12**

edizio  
jarraitua

→ **Laburrak**

JORGE ZAPATA / EFE

**Martinez eta Fernandez hamargarren postuan dira**

**BELA** Espero baino patalago hasi dute Iker Martinezek eta Xabi Fernandezek 49er mailako lehiaketa. Lehen estropadan oso atzean helmugaratu ziren, hamabosgarren postuan. Bigarren goan, berriz, hobeto aritu ziren, baina ez ziren gai izan aurrekoekin nor baino nor lehiatzeko. Seigarren amaitu zuten azkenean estropada. Hala, bi emaitzak kontuan hartuta, hamargarren dira. Gaur jokatu-koro dira 3. eta 4. estropadak.



JAVIER LIZÓN / EFE

**Espainiari azken unean ihes egin dio garaipenak**

**ESKUBALOA** Jorge Dueñas bilbotarrak entrenatzen duen Espainiako selekzioak 18na berdindu zuen atzo Frantziarekin, bigarren partidari. Espainia beti joan zen aurretik, eta minutu eta hamar segundoren faltan bi gol zen aurretik (16-18). Frantziak, baina, bi gol sartu zituen azken txanpan, eta berdinketa lortu. Nely Carlak hiru gol sartu zituen, Eli Pinedok bi eta Barnok bat. Elorzak ez zuen jokatu.

**Espainiak agur futbol dominari**

Hondurasen aurka 0-1 galdu ondoren, final-laurdenetarako sailkatzeko aukerarik gabe gelditu da

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

Espainiako futbol selekzioak agur esan die Olinpiar Jokoei. Lehen faseko aurreneko bi partidak Japoniaren (0-1) eta Hondurasen (0-1) aurka galdu ondoren, final-laurdenetarako sailkatzeko aukerarik gabe gelditu da. Bihar, azken partida jokatu du, Marokoren aurka (18:00), baina ez du ezer jokoan. Lehia hori bukatuta itzuliko dira etxera Espainiako selekzioak bost euskal futbolariak: Cesar Azpilikueta, Javi Martinez, Iñigo Martinez, Ander Herrera eta Iker Muniain.

«Izorratuta gaude; 24 jaurtiketa egin genituen atera, eta ez genuen golik sartu. Halakorik ikusi gabea nintzen». Javi Martinez selekzioak kapitainarena da hausnarketa. Ez zaio arrazoirik falta, herenegun Espainia Honduras baino gehiago izan zelako eta epaileak ere eragina izan zuelako, baina hori guztia ezin da aitzakia izan. Iker Muniainek ere jokatu zuen, eta baloi bat zutoinera bidali. Aurrelaria minduta zegoen epailearekin. «Bizkarreko handia izan da, baina bi penalti argi egon dira gure alde, eta ez ditu adierazi izan nahi».

Ander Herrera ere amorratuta azaldu zuen. «Oso izorratuta gaude. Honduraskoei Ama Birgina azaldu zaie». Athleticoko jokalaria ez zen hasieratik aritu, pubisean arazoak baititu oraindik. Bigarren zatia jokatu zuen, «sasoi betean egon gabe», aitortu zuenez. Bilbora itzultzen denean aztertuko dute Athleticoko medikuek. Azkenik, Iñigo Martinezek, zigortuta, eta Cesar Azpilikuetak, entrenatzailearen erabakiz, ez zuten jokatu. Litekeena da biak Marokoren aurka aritzea.



Juanjo Aranburu, tiro egiten, atzo, skeet probako lehen txandan. IAN LANGSDON / EFE

**Aspirinak izan ziren**

**Juanjo Aranburuk 20. postuan bukatu du 'skeet'-eko lehen eguna. Gaur, azken bi txandak jokatu ditu, eta oso zail du finalean eta diplomen lehian sartzea.**

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

«Platerak batzuetan azpilak dirudite, eta beste batzuetan aspirinak». Esaldi grafiko hori Juanjo Aranbururena da, Londreseko hegazkina hartu aurretik botariko. Bada, atzo, banaka eta kaxa berde batean baletoz bezala ikusi zituen. Egunik okerrean aspirinak izan ziren, eta Irungo tiratzaileak 20. postuan bukatu zituen lehen hiru txandak. 69 plater apurtu zituen, eta finalean sartzeko —lehen seiak sailkatzen dira— zein diploma postuetatik bira gelditu zen. Vincent Hancock estatubatuarra, lehen sailkatuak, 74 apurtu zituen. Gaur, beste 50 plateri egingo die tiro, berriro Royal Artillery Barracksetan, baina ia ezinezkoa dirudi Pekingo diploma berriro lortzea.

Aranburuk ez zuen bere eguna izan. 36 parte hartzaileen artean azkenetarikoa hasi zen, eta itxarondialdiak ez zion mesederik egin.

Lehen 25 plateretatik 23 apurtu zituen, eta hasi eta berehala ikusi zuen bere burua sailkapenaren erdi aldean.

Erdipurdi hasi arren, dena ez zegoen galduta. Fin ibiliz gero, zuzen zitekeen. Baina ez, bigarren txanda are okerragoa izan zen, hiru kale egin baitzituen. Txandarik onena azkenetako utzi zuen, eta bakarra huts egin zuen. Orduan bakarrik erakutsi zuen irundarrak bere benetako maila. Miraririk ezean, bere postua hobetzea izango du gaur helburu bakarra, zaila izango baita aurretik dituen aurkari askok kale egitea.

**Faborittoa, ondo**

Erakustaldia eman zuena Hancock izan zen. Munduko txapel-dun gaztearentzat platerak azpilak izan ziren, eta bi diskoko tartea ireki zuen Steffan Nilsson suediararekiko, Anders Goding danimarkarekiko eta Nasser Al-Attiya qatartarrarekiko. Hancock tiraltzaile bikaina da; gune militar batean bizi da, eta 50.000 plateretik gora apurtzen ditu urtero. Ondo bidean, gaur urrezko domina eskegiko du lepotik. Bixia da laugarren sailkatuaren kasua ere. Al-Attiya olinpiar txapel-duna izan zen orain lau urte Pekinen, eta iaz Dakar Rallya irabazi zuen autoen mailan. Munduko Rally Txapelketan parte harturikoa ere bada.

**Sailkapena**

1. Vincent Hancock (AEB)	74
2. Steffan Nilsson (Suedia)	72
3. Anders Goding (Danimarka)	72
4. Nasser Al-Attiya (Qatar)	72
5. Jan Sitxra (Txekia)	71
6. Abdullah Alraxidi (A. Emirerri B.)	71
7. Valeri Xomin (Errusia)	71
20. Juanjo Aranburu (Espainia)	69

@michaelrobinson (Michael Robinson kirol esataria)  
Espainiako olinpiar futbol selekzioan penaltzen, hona Paul Browen esan bat: «Irabazten duzuean ez esanezer, eta galtzen duzuean, are gurbilago».

**Gure kirolariekkin bat**



# Amorrazioaren malkoak

Sugoi Uriarte, negarrez, herenegun, brontzezko domina lortzeko borroka amaituta. MARCELO SAYAO / EFE

**Sugoi Uriartek eskura izan zuen herenegun brontzezko domina, 66 kiloz azpiko mailan, baina epaileen erabaki eztabaidagarri batek utzi zuen dominarik gabe.**

**Unai Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

**K**azetari guztiei kasu egin ondoren iritsi zen besarkada. Anai-arrebena. Sufirimendua ondoen ulertzen duten horiena. Malkotan urtu ziren hirurak. Lehen Olinpiar Jokotan bosgarren postua. «Baina ez da bidezkoa izan, berea zen garaipena», aitortu zuen haserre arreba, Maier Uriartek. Gar anaiak ez zekien nola azaldu sentitzen zuena: «Harrigarria izan da. Harmailetan argi entzuten zen *blue, blue, blue* [urdira, jantzi urdinarekin ari zelako Uriarte]. Baina *white* erabaki dute, txurria». Hiru anai-arrebak malkotan igeri ari zirenean, artean ondoko gelaren batean galduta zebilen Laura Gomez, Sugoiren neska-laguna. «Ezin dut ikusi, oso urduri nago». Finalerdietako borroka hasi baino hogeita bat minutu lehenago BERRIARI aitortutakoa da hori.

Arrakasta handia izan behar zuena amorrazio handiarekin amaitu zen azkenean, herenegun, Londresko Excel pabiloian. Hasi, izugarri ondo hasi zen. Harrigarri aritu zen gasteiztarra borroka guztietan, baina... «Ezin da halakorik egin, ezin da». Final-laurdenetan Masashi Ebinuma japoniarren eta Jun-Ho Cho korearraren artean gertatutakoari buruz ari da hizketan Gar. Berdinduta

amaitu zen lehia, eta epaileek korearrari eman zioten garaipena hasieran; zaleen protesta artean, ordea, atzera egin, eta japoniarra sartu zuten finalerdietan, korearraren harridurarako.

«Kolore bateko bandera altxatu eta gero besteari eman garaipena? Ezin da halakorik egin!». Bere onetik aterata dago Gar. «Lapurreta izan da». Uriartek korearraren aurka jokatu zuen brontzezko domina eskuratzeko lehia erabakigarria, eta, berdinketaren ondoren, epaileek Jun-Ho Chori eman zioten garaipena. «Aurrekoak eragina izan du, ez daukat zalantzarik», bota zuen anaiak. «Politika kontua izan da dena, oparia», ondorioztatu zuen arreba.

## Hasiera, oso samurra

Zozketa aldekoa izan zuen, eta arazo handirik gabe menderatu zituen Francesco Faraldo italiarra eta Jayme Mata Arubakoa. 1.46 minutu lehenengoan; 1.11 bigarren. Ippon bana, eta final-zortzirenetara. Eta gozatu egin zuen borroka horretan ere. Daniel Garcia Gonzalez Andorrakoa zeukan parean, eta berehala lortu zituen Waza-Ari bat eta hiru Yuko. Bi Yukorekin kanporatu zuen final-laurdenetan Tarlan Karimov Azerbaijanga, eta eskura izan zuen finalerako txartela. Baina Yuko bat Miklos Ungvari hungariarrentzat, eta Jun-Ho Cho korearraren aurka azken lehia.

Epaileek hitz egin zuten borroka horretan. Oldarkor aritu zen gasteiztarra, tarteka gehiago zela erakutsiz, baina ezin punturik pilatu. Hutsean amaitu ziren arauko bost minutuak, hutsean urrezko borrokako hiru minutuak ere, eta epaileek egin zuten hortik aurrerakoa. Uriarte anai-arreben amorraziorako.

## Sugoi Uriarte

Judoka

**«Podiumeko loreak eramango nizkiola hitz eman nion ama zenari»**

**U. Zubeldia** Londres  
→ Berriemaile berezia

«Japoniarrez *harrigarria* esan nahi du *sugoi* hitzak». Epaileek brontzerik gabe utzi berritan, hala azaldu zuen Sugoi Uriartek kazetarien aurrean. Horregatik izan zen, agian, borrokaren amaiera hain *sugoi*. Iaz hil zitzaion ama, eta harekin gogoratu zen lehiaketa amaituta, erabat hunkituta.

### Esanguratsua da oso zure aurpegia.

Goizeko borroka guztiak prime-rakoak izan dira, eta pena da finalerdietan galdu dudana bezala galtzea, oso zalantzarria izan delako hungariarri eman dioten puntua; Yukoa nirea zela uste nuen, baina... Azken borrokan, berriz, ziur nengoen epaileek niri emango zidatela garaipena, baina, itxuraz, eurek ez dute ikusi nik ikusi dudana borroka berbera. Ez nago ados erabakiarekin, baina dena eman dudana sentipenarekin noa etxera.

### Epaileen lana zalantzan jarri duzu, eta zale asko ere ez zeuden ados erabakiarekin.

Epaileek ikusi dutena epaitu dute, horretan ez daukat zalantzarik. Zale askori irudituko zaie nik merezi nuela irabaztea, baina erabakia epaileen esku uztea da, agian, kirol honen akatsa.

### Hotzean pentsatuta: lehen olinpiar jokoak, lan bikaina, eta bosgarren postua, diploma.

Denborarekin, agian, asmatuko dut emaitza honi balioa ematen, baina nire kirol ibilbideko momenturik tristeenetakoa da gaurkoa. Pertsona hotza naiz, kalkulatazaila, eta ondo ari nintzela ikusten nuen. Dena ez zegoen nire esku, ordea.

### Eskaitezak egiten dira garaipenentan, eta bosgarren postua ere lortzen handia denez, egin beharko da eskaintzaren bat edo beste...

Eskaitezarik ezin dut egin, dominarik ez dudalako irabazi. Baina, tira, mundu guztiari eskaintzen diot bosgarren postu hau; familiarri, Miguel Romero lagunari, Valentziako judo elkarteari... eta, bereziki, nire ama zenari. Podiumeko loreak eramango nizkiola hitz eman nion, baina ezinezkoa izan da. Beste batean izan beharko du.

## Uematsu, hasterako kalera

Segundo gutxi falta zirela Yuko bat lortu du bizkaitarrak, baina epaileek baliorik gabe utzi diote azkenean

**U.Z.** Londres  
→ Berriemaile berezia

Beldurra ez, baina errespetu handia zion Kiyoshi Uematsuk lehen borrokari. «Mansur Isaev errusiarrari irabaziko banio, askoz samurragoa litzateke ondorengo bidea». Hala adierazi zion BERRIARI lehiatu bezperan. Baina lehen koska igo ezinik geratu zen atzo Portugalteko judoka, 73 kiloz azpiko mailan. Oso estua izan zen lehia, eta urrezko borrokara iritsi behar izan zuten lehia desorekatzeko. Aurretik, ordea, Yukoa egin, Uematsuk berak egin zuen, amaitzeko segundo gutxi falta zirela. Epailen nagusiak eman zion Yukoa bere alde. Eskura zeukan garaipena. Baina beste bi epaileek baliorik gabe utzi zuten bizkaitararren puntua. Berdinketa berriz ere, eta hiru minutu gehiago.

Fisikoki oso indartsua da Isaev, ondorengo borroketan ere erakutsi zuen moduan, eta hasieran kostatzen zuten zitaioan Uematsuri neurria hartzea. Hori bai, zigor banarekin, oso orekatuak izan ziren lehen bost minutuak. Elkar ondo aztertuz, ezin izan zuten zuloarik aurkitu. Horrela amaitu ziren arauko bost minutuak, eta urrezko borrokak ere berdina jarraitu zuen.

## Epaileekin haserre

Aurkariak bigarren zigorra jasota, Yuko lor zezakeen judoka baikoitzak, eta Uematsuk izan zuen zorte txar hori, erabakiak arrarotik izan zuelako pixka bat. «Zorrotz samarrak irudituko zaizkit bi erabakiak, niri kendu didaten Yuko batez ere. Ez dugu zortetik izan epaileekin. Oraindik ez dut ikusi bideorik, baina puntua balekoa zela uste dut».

Egindako borrokarekin eta taktikarekin «gustura» zegoen, hala ere, Portugaltekoa. «Eta antzera jokatu nuke berriz ere». Lehen borroka irabaztea finalerdietaraino iristearren parekoa zen ia-ia, errusiarrak ondoren erakutsi zuen moduan—urrezko domina irabazi zuen—. Baina hasterako geratu zen aukerarik gabe bizkaitarra. 2000n Sydneyen eta 2004an Atenasen lehiatu ondoren, hirugarren aritu da Uematsu Olinpiar Jokotan. 34 urte beteta dauzka jada, eta zail izango du lau urte barru Rio de Janeiro iristea. «Hori bai, oraindik ez daukat asmorik erretiroa hartzeko».





# Lochte? Ez; Sun? Ez; Agnel

Yannick Agnel igerilari frantziarra, 200 metroko proban abiatzen, atzo. PATRICK B. KRAEMER / EFE

**Frantziarrak erakustaldia eman du 200 metro libreetan, eta Lochte dominarik gabe utzi; zilarra Sun eta Parkentzat, denbora berarekin; Meilutytek, urrea 15 urterekin**

## A. Urbistondo

Ezusteak ezustekoa. Berri toloak eman eta eman ari da igeriketako diziplina, eta 200 metrokoan ere orain arteko handienetakoa: Yannick Agnel frantziarrak urrea lapurtu zien Ryan Lochte estatubatuarri eta Sun Yang txinatarrari. Bi horien arteko dema estua espero zen, baina egotekotan, zilarra eta brontzea lortzeko dema izan zen. Azken 50 metroetan, gainera, Lochte atzean geratu zen, eta laugarren postuan helmugaratu, dominarik gabe geratzeko. Taehwan Park eta Sun Yang denbora berarekin helmugaratu ziren, bigarren postuan, eta zilarrezko domina bana jaso zuten.

Agnelek abisua eman zuen herenegun. 4 x 100 libreetan berak egin zuen azken erreleboa, eta Lochte bera gainditu zuen. 200 metrokoan, egurrean hasi zen, 100 metroko distantzian bera baino igerilari azkarragorik ez dagoela jakitun. Neurria hartzea da zaila horrelakoetan. Noraino eman, noraino gorde, azken 100 metroko luzeegiak ez egin, eta nekeak jota, dominen borrokatik at ez geratzeko. Agnelek helburu argia zeukan: Sun txinatarrak nahi baino azkarrago joan zedin behartzea, bigarren ehun metroe-

## Datua:

■ **Missy Franklin.** Estatubatuarrek urrezko domina lortu zuen 100 metroko bizkar estiloan. Baldintza zailetan egin ere, finala hasi baino 10-12 minutu lehenago 200 metro libreetako finalerdian parte hartu behar izan zuelako, postu baten bila. Franklin zortzigarren postuan sailkatu zen sailkapen proba horretan, eta finalerako sailkatu, justu-justu. Agerikoa da, dena den, burua finalean zekala. 200 metrokoetan ia ezinezkoa izango du dominen borrokan sartzea, izan dituen zailtasunak gogoan, baina urrezko domina bat irabazi du, behintzat.



Ruta Meilutyte lituaniarra, urrea ospatzen, atzo. HANNIBAL / EFE

tan bere beso eta hanka luzeek aurrea har ez ziezaioten. Lortu zuen, eta bikain, gainera. 0.17 ehunen alde zeukan 50 metroetan, 0.55 100 metroetan, eta 0.63 azken itzulia hasi aurretik. Helmugan diferentzia handia izan zen: 1.79 Park eta Sun-i. Urrezko bi domina lortzen dituen Londresko lehen igerilaria izateko lorpena ere gauzatu du Agnel frantziarrak.

Eguneko beste hiru finaletan, Missy Franklinek aurreikuspenak bete eta urrea lortu zuen 100 metroko bizkar estiloan. Franklin lasai abiatu ohi da, eta bigarren luzean estutu, eta halaxe egin zuen atzo, bere aurkariak gainditzeko. Meritua dauka Franklinen lorpenak, finala baino 10-12 minutu lehenago 200 metro li-

breetako finalerdian parte hartu baitzuen, finalerako txartelaren bila. Zortzigarren sailkatu zen, justu-justu, baina bistan da burua geroxeago hasi zen finalean zeukala. Zhao Jing txinatarrak izan zen azkarrena lehen itzulian, baina atzean geratu zen bigarren. Emily Seebohm australiarrek eta Aya Terakawa japoniarrek lagundu zioten podiumean 17 urteko igerilari estatubatuarri. AEB selekzioaren lehen urrea izan zen, baina bigarrena ere lortu zuten, Matthew Greversen bitartez 100 metroko bizkar estiloan. Zilarra Nick Thoman herrikidearentzat izan zen, eta Ryosuke Irie japoniarrentzat, brontzea.

Nabarmenezko modukoa, era berean, Ruta Meilutyte lituania-

rraren lorpena, urrezko domina lortu baitzuen 100 metro bular estiloan. Meilutytek bi abisu eman zizkien aurkariei herenegun, bi sailkapen probatan onena izan zelako, eta oso denbora txukunak eginez. Finalerdietako kanporaketan 1.05.21 denbora egin zuen, Leisel Jones australiarren olimpiar errekorretik lau ehunenekora baino ez. Finalean ez zuen hain denbora ona egin, baina nagusi izan zen hasieratik bukaerara. 0.29 ehuneneko errenta zeukan lan erditan Breja Larson estatubatuarrekiko, eta itzulikoan asko gerturatu zitzaion Rebecca Soni herrikidea. Besakada pare bat, 15 metro, eta urrea, zortzi ehunenekogatik.

## Phelpsen aukera

Lau final jokatu dira gaur, eta horietako bitan Michael Phelps Baltimore-eko marrazoa ariko da. 200 metro tximeleta estiloan, aurrera, eta 4 x 200 metro txandakoan, eguneko azken proba. Bi horietan domina pare bat lortzen baditu, historia osoko olimpiar kirol onena izango da Phelps. Probak jokatu aurretik, domina bakarra falta zaio Larisa Latinina errusiarraren 18 dominako marka berdintzeko, eta bi, hura gainditzeko. Bat nahiko ziurtzat jo daiteke, 200 metro txandakoa, baina tximeletan ere oso litekeena da lehen hiruren artean bukatzea.

Beste bi finaletan ere egongo da zerikusia. 200 metrokoan Camille Muffatt frantziarra 400 metrokoetan lortu zuen urrea errepikatzen saiatuko da, eta 200 metro estiloak proban, begi guztiak Ye Shiwentxinatarrari begira egongo dira.

urte eta 243 egunekin lortu du Ryan Giggs-ek gol bat Erresuma Batuko selekzioarekin. Halakorik lortzen duen jokalaririk zaharrena da Giggs, eta markak egiten jarraitzen du.



# Garaiezinaren kondaira

**Uchimura japoniarra da izarra gimnastikan. Taldekakoan urrea nahi zuen, eta zilarra lortu du, larri-larri. Buruz burukoan, 2009tik ez du galdu lehiaketarik.**

## Enekoitz Telleria

Zaildu gabe zegoen artean. 19 urte zituen. Ez zen faboritoen zerrendan sartu ere egiten, baina zilarrezko bi domina irabazi zituen, hala ere. Buruz burukoan bat, eta taldekakoan bestea. Pekingo Olinpiar Jokoean, izena, izana eta gorputza falta zitzaizkion Kohey Uchimura japoniarrrari, baina eman zituen zeterrenaren lehen zantzuak: indarra, teknika eta oreka modu dotorean emana, okerrik gabeko zuzentasunez erakutsia.

Eta geroztik etorri dena sekulakoa izan da: 23 urte ditu, eta hirutan izan da Munduko Txapeldun gimnastika artistikoa. Svetlana Khorkhina handiaren marka berdindu eta hobetu du. Errusiarrak, izan ere, hirutan lortu zuen Munduko Txapelketa, baina ez Uchimurak bezala, hirutan jarraian. Superman deitzen diote; gimnastika horren modu errazean lantzeagatik, eta une jakin eta garrantzitsu bakoitzean hutsik ez egiteko duen abilezia berezi horregatik. Garaiezinaren kondaira moduko bat sortu da haren inguruan.

Horregatik izan zen horren harriarria haren larunbateko jarduna. Saillatzeko probetan, birritan erori zen ahalguztiduna lurrera. Sekula horrelakorik... Barran erori zen lehenengo, baina 15 puntukoa lortu zuen, hala ere; egia baita lurrera joan zela, baina egia baita, halaber, hark osatzen duen ariketa ezin duela beste inork osatu eta haren jauziak eta jarrerak perfektuak direla gainontzean. Atera kontuak: lurrera jauzi, eta 15 puntu, hala ere. Lehen eroriko hori baino harriarriagoa izan zen, hala ere, bigarrena, zaldi uztaidunean. «Oraindik ulertu ezinda nabil nolatan egin ditudan huts horiek», zioen gimnastak berak.

2009. urtetik, jokatu dituen lehiaketa guztiak irabazi ditu Uchimurak. Izarra da Japonian. Buruz burukoan, urrea espero dute denek harentzat, baina hark behin eta berriz esan du buruz bu-

rukoari baino garrantzi handiago ematen diola taldekakoari. Atenasen urrea irabazi zuen Japoniak, Pekinen galdu zuen Txinaren mesedetan, eta lehen postua berreskuratzea besterik ez zuten buruan japoniarrek.

## Txina nagusi taldeka

Baina beste batean izan beharko du, Txinak irabazi baitzuen atzo ere taldekako finala. Irabazi zuen Sydneyen (2000), egin zuen *kale* Atenasen (2004), irabazi zuen Pekinen (2008), eta irabazi zuen atzo. Orekari eta erregularitasunari esker irabazi. Kalerik ez. Une erabakigarrietan, hotz. Ikustekoa eta gozatzekoa da haien jarduna. Chen Yibingena, Zou Kaiena —Pekinen irabazi zuen taldeko partaide ere bazen—, Feng Zherena, Zhang Chenglongena eta Guo Weiyangena. Uztaietan, 15,800 Che-nek; paraletoetan, 15,950 Fengek. Hasterako

eta inor ohartzeko jarri ziren aurretik. Hutsik egin gabe ari ziren haiek aurreraka, eta asmatu ezinda eta kale eginez AEBak —saillatzekoan lehenengoak—, eta Japonia, atzeraka. Tartean, indartsu, Britainia Handia eta Ukraina, lehian. Etxeko taldea ondo; oso ondo. Orain arte, izarren bat edo beste izan du tarteka buruz burukoan, baina maila oneko taldea osatzeko gai izan da oraingoan. Estokolmoko Jokoean lortu zuten azkenekoz domina bat taldeka (1912), eta atzo lortu zuten bigarrena.

Eta Uchimuraren lana? Saillakertzerakoan egindakoa baino askoz

hobea, inondik ere, baina ez, hala ere, txundigarri horietakoa. Uztaietan erakutsi zuen beste aldar-te batekin aritzeko modua, nahiz eta Tanaka eta Yamamuro taldekideek nota hobea lortu. Hura da taldeko izarra, baina Tanaka aritu zen atzo taldeari tiraka. Batez ere, Yamaurok jauzian min hartu eta taldearen antolaketa aldatu behar izan zutenean.

Guztiak amaitzerako zuen Txinak urrezko domina lortuta. Azken saioan, Uchimura japoniarra uztaidun zaldian aritu zen; ona egin zuen saioa, baina kaskarra irteera. Epailen notak dominarik gabe utzi zituen japoniarrek. Britainia Handiarentzat zen zilarrezkoa, eta Ukrainarentzat brontzezkoa. Helegitea etorri zen gero, eta aldaketa hurrena.

Ez du Uchimurak nahi zuen urrerik lortu atzo, eta guztiek espero dutena lortzeko aukera izango du etzi.



**Jordan Iovtchev**

(Bulgaria)

39 urte ditu, eta dominen lehiari sartzeko adina sasoi. Sei garren aldiz ariko da joko batzuetan. Munduko txapeldun eta txapeldunorde izandakoa da uztailetan. Garbi esan du berak Londresa iritsi berriari ez dela egunero entrentatzen, gorputz osoak min ematen diolako bestela.

**Danell Leyva**

(AEB)

AEBetako txapelduna eta Olinpiar Jokoetara sailkatukoetan onena. Selektzio burua da, eta talde horretan domina irabazteko hautagai nagusia. Jatorri kubatarra du, eta 20 urte. Munduko txapeldun izan zen iaz paraleloetan, eta brontzea lortu zuen taldekoan.

**Beste izen propioak****Philipp Boy**

(Alemania)

Uchimuraren kontrario betierekoa da. Japoniara hirutan izan da munduko txapeldun, eta, urte horietan, alemaniarra birritan txapeldunorde (2010 eta 2011). Europako txapeldun izan zen iaz. Barran egiten duen ariketa harrigarri horietako da, baina atzo taldekoan gaizki aritu zen.

**Zhang Chenglong**

(Txina)

Erregularitasuna eta oreka dira, beste behin, Txinako taldearen dohainak. Ez da erraza, horregatik, bat besteen gainetik jartzea, baina inor jartzeko ezan, Zhang, 23 urte ditu, munduko txapeldun izana da birritan (2010 eta 2011), eta aparailu guztietan moldatzen da ongi. Oso ongi.

# Taldekideek kaleratua

**Wieber munduko txapelduna buruz burukora sailkatu gabe gelditu da, bi herrikidek gainditu dutelako. Gaur, horiekin batera ariko da taldekako finalean.**

**E. Telleria**

**S**einale ona dela esan dute. AEBek duten indarraren eta sasoiaren seinale. Baina Jordyn Wieberrentzat kontsolamendu eskasa da hori. Selektzio bakoitzetik ezin dira buruz buruko finalera bi ordezkari baino gehiago sailkatu, eta Wieber kanpora gelditu da bi taldekide hark baino lan hobea egin dutelako. Munduko txapelduna buruz buruko dominarik irabazteko batera aukerarik gabe gelditu da, urrezkoa irabazteko hautagai nagusia zen arren.

«Taldekako finalerako berreskuratu behar dugu», esan du Martha Karoly AEBetako hautatzaileak. Wieber, izan ere, jota gelditu zen igandean. Izotzaren parekoa dela esan dute haren jarduna deskribatu dutenek. Hotza dela diote, akrobaziarako dohaina berez emana duela, eta indarra, sekulakoa. Eta ez zela igandean batera gaizki aritu. Egin zuela huts txikiren bat barran, eta arrastotik irten zela une batez zorian. Hortik aurrera, ongi. 60,032 puntu batu zituen orotara.

**Berritasuna**

■ **5-4-3.** Londresko Olinpiar Jokoetako berritasuna da gimnastika, eta atzo ikusi zen lehen aldiz, gizonetako lehiaketan. Selektzio bakoitzeko bost gimnastak parte hartzen dute, aparailu bakoitzeko lau espezialistak onenak iritertzen dira, eta epaileek emandako hiru notarik onenak hartzen dira aintzat sailkapenera begira.

Baina AEBetako taldean des-kuidu txikia behar da. Olinpiar Jokoetara sailkatzeko euren herrialdean jokatzeko diren *trial*-ak edozein Munduko Txapelketa edo Olinpiar Joko baino gogorragoak izaten dira askotan. Nastia Liukin azken olinpiar txapelduna, esaterako, ez zen sailkatu.

Gabby Douglasek eta Aly Raismanek utzi dute Wieber aukerarik gabe. 16 urte ditu batak, eta hazi eta hazi ari da. 18 urteko *beteranoa* da bestea, eta hark eman du ezustekoa, Wieber baino hobeto arituta. Taldekideengatik pozten dela eta haietaz harro dagoela esanez atara zuen haren izenean oharra AEBetako selektzioak igandean, eta izan ditu bi egun atsekabea goxatzeko. Gaurkoaz gain beste final batean aritzea esperoko zuen Wieberrek, baina gaurkoa du Londrestik domina batekin joateko azken aukera, eta aukera bakarra.

Eta ezusteko handia litzateke AEBetako selektzioa urrezko dominarik gabe gelditzea taldekoan. Sailkatzeko proban haiena izan zen notarik onena (181,863), eta Errusia izan zuen hurbilen (180,429). Txina da azken olinpiar txapelduna; ez zuen sailkatzekoan espero zen mailarik eman, baina oso gimnasta arriskutsuak dira guztiak finaletan. Horiekin lehiari aritzeko moduko taldea duen bestea Errumania da, Europako egungo txapelduna. Aukeratu den taldea izendatuta dago, sailkapenaren ordena zehaztea baino ez da falta.



Jordyn Wieber estatubatuarra, igandean, sailkatzeko saioan. EFE

**B**egiratu hemen eskuinera agertzen den morroi hori, justu alboan, elastiko urdin eta ile harroduna. Imaginatu ezazue judo pabiloiko kanpoaldean, eurritako urdin batekin eta motxila batekin. Susmagarria al dirudi? Baiezkoan egonez gero, ez jarraitu irakurtzen, pasadizoak ez baitu graziazirik.

Ezezkoan daudenentzat. Aurrekoan, polizia batek miatu egin ninduen, eta kodernoak eta motxila arakatu zizkidan, sarrera birsaltzaile horietako bat nintzelakoan. Egja da orduak neramatzalaha, errepotaje on baten ehizan. Nik

## Susmagarria naiz



'Betweenland' Imanol Magro

ezetz, kazetaria nintzela eta birsaltzaile asko egon, bazeudela, baina ni ez nintzela. Esan nion goizean hiruk sarrerak eskaini zizkidatela, eta polizia deskribatzeko eskatu. Joanak zirela esan nion; gezurra. Falta zena: ni haren lana egiten ibiltzea; eta esan nion uniformeaz jantzita ez zituela harrapatuko. *Magnum* telesailaren bi atal ikusi dituen edozeinek hark baino polizia sen zorrotzagoa izango zukeen.

Izan ere, goizean ezagutu nituen birsaltzaileak ez ziren ezkututzen, eta nirekin eta albaniar batzuekin —batek ban-

dera zeraman lepoan lotuta— tratuan ari zirenean lau *Bobby* barrezka ari ziren handik bost metro eskasera. Albania-rrak teniseko sarrerak erosi zituzten, eta Wimbledonera joan ziren arratsaldean. Poliziak txartelak soinean neramatzan begiratu zuen, baina ez zekien birsaltzaileek ez daramatzatela soinean. Tratua egin, gelditu, eta tratuko beste kide batek ekartzen ditu. Harrapatzen badituzte, 40.000 libera arteko isuna jaso dezakete (51.000 euro inguru), baina *Bobby* jakin batzuekin lasai ibil daitezke, kazetari-ekin entretentzen baitira.



IMANOL MAGRO



## Yadinys Amaris Rocha

Judoka kolonbiarra (57 kiloz azpikoa)

Lehen Olinpiar Jokoak ilusioz bizi ditu kolonbiarrak, eta bere entrenamenduan adina fede du erlijioak ematen dion indar eta konfiantzan.

### «Aukera baliatuko dudala erakutsi nahi diot Jaungoikoari»

Imanol Magro Londres  
→ Berriemaile berezia

«Judoari emaniko segundo bakoitzak merezi izan du». Pasioz mintzo da bere kirolaz Yadinys Amaris Rocha (Aguachicas de Sal, Kolonbia, 1984), eta ilusioz lepo joan da Londresera. Oiana Blanco ezagutzen du: «Borrokalari oso gogo-

#### Aipatzekoa.

■ **Bielorrusiak oroitzapenak.** Munduko Kopako proba bat irabazitakoa da, iaz, Minsken. Bi aldiz izan da hirugarren Hego Amerikako Jokoetan. Haren pisuko 17.a da munduko sailkapenean.

rra da». Jator mintzatu da kazetariaren aterkipezik, euria eten bitartean.

#### Noiztik zabilta judoan?

Duela hamalau urte hasi nintzen, eta hauek nire lehen jokoak dira. Pekinen sailkatzeko zorian egon nintzen, eta, Jaungoikoari esker, nire ibilbideko garai honetan lortu dut; Jaungoikoak eman didan aukera ahalik eta hobekien bali-

tu nahi dut. Horregatik, tatarian, lehiatzeko garaian denean, nire onena eman nahi dut eta, ahal bada, emaitza ona lortu.

#### Nola bizi duzu olinpiar esperientzia?

Gozatzen ari naiz, eta bai, hegazkinetik jaisten zaren unetik dena da desberdina. Hau ikaragarria da, nire kirol ibilbidean izan duen esperientziarik izugarriena. Lehiaketaren bezperan, oso hunkituta nago; Jaungoikoari egunero eskatzen diot tatamira urduri ez igotzea eta nire onena eman ahal izatea. Gauza bakoitza oso polita da niretzat: kreditazioa hartu, zure izena zozketan ikusi...

#### Nabari da fededuna zarela.

Bai, noski. Ni katolikoa naiz. Jaungoikoa da gauzarik handiena nire bizitzan, eta hari esker lortu ditut nire emaitzak. Nire bizitza osoa eman dit, eta ez bakarrik kirol ibilbidean, baita arlo pertsonalean ere: asko zor diot. Beraz, une oro erakutsi nahi diot handia dela, eta hark emandako aukera horiek baliatzen ditudala hura goratzeko. Gauza handia da oraindik beti laguntzen gaituen norbait hor egotea.

#### Zergatik aukeratu zenuen judoa?

Nire jaioterrian judoa da kirol nagusia. Aguachicas de Salekoa naiz. Oso herri txikia da, eta handik judoka asko irten dira. Lurraldeko kirolaririk onenak judokak dira ia urtero, domina asko irabazten dituztelako. Gerora, Santanderrera (Kolonbia) joan nintzen bizitzera, unibertsitatea han dagoelako, eta han jarraitu dut nire ibilbidea.

#### Kolonbian afizio handia al dago?

Asko ere ez, baina nire herrian, bai. Olinpiar Jokoetan bi gaude, biak emakumezkoak, eta Paralinpiar Jokoetan ere beste bat ariko da.

#### Zein helburu jarri diozu zure buruari?

Nire helburua, kirolari guztiena bezala, urrezko domina irabaztea da. Ni asmo handikoa naiz. Uste dut domina lor dezakedala, baina horretarako dena oso ondo egin beharko dut. Azken egunetan ustekabeko asko egon dira, eta uste dut nik ere eman dezakedala. Judoan ezer ez dago idatzia, eta zergatik ez dut nik irabaziko?

«Olinpiar Jokoetan dena da desberdina, hegazkinetik jaisten zaren unetik»

«Ezusteko asko izaten ari dira judoan, eta uste dut nik ere eman dezakedala»

#### Noregokitu zaizu?

Telma Monteiro portugaldarra edo Marti Malloy estatubatuarra. **Zaila dirudi.**

Portugaldarra bigarrena da nire pisuan munduko sailkapenean; AEBetako, hamargarrena; eta ni, hamazazpigarrena. Ez dut esan nahi zorte txarra izan dudarik; gainera, biak aurkari oso indartsuak dira, eta ziur estu hartuko dutela elkar; eta apur bat nekatuago iritsiko dira. Baina tira, aurkaria edozein izanda ere, nire prestaketa irabazteko egin dut, eta biak ondo ezagutzen ditut, prestaketa saioetan haiekin entrenatu nintzelako.

#### Egun hauetan hiria ezagutzeko aukerarik izan al duzu?

Oraindik ez, lehiaketaren zain nagoelako, baina bukatzean hobeto ezagutu nahi nuke. Kolonbiako enbaxadan harrera ofiziala egin ziguten, eta pixka bat ikusteko aukera izan nuen. Ederra da, eta batez ere, oso handia.

«Baikor naiz erlojupekoari begira»  
→ Fabian Cancellara • SUITZAKO SELEKZIOKO ZIKLISTA



Bilbon kirol guztietarako lekua dago

en Bilbao hay sitio para todos los deportes

Bilbao Kirolak  
www.bilbaokirolak.com

Urutirik hasi da keinuka. Eta txistua jotzen hastea izan da nire erreazioa, gora begira. Bikaina disimuluan ibiltzeko nire gaitasuna. Ez nintzen aktore izateko jaio. Bigarren keinua ere egin dit segidan. Txistuari lekuri estuenetik pasatzen utzi, eta aurrera. Laser handi bat gerturatu du gero. *Tik* txiki hori gabe ezin baita aurrera egin. Soinu horretan dago kazetarien nortasuna. Ez gara ezer. Kolorea azaldu da pantailan. Horia eta gorria. «Japonia eta Hondurasen aurka galdu egin zenuten, e!»». «Zenuten». Hori da mina, hori. Futbolaz ari da, noski;

## Kolorearen arrastoa



'Off the record'  
Unai Zubeldia

Espainiak jokatu tako bi partidez. Ederrekin hasi da zirikan!

20-22 urte izango ditu gehienez, eta azalpen eske hasi da militarra. Ezin du ulertu Espainia ahalguztidunak Japonia eta Honduras arerio ustez samurren aurka amore ematea. Merez al du hargarren aldiz «*between* ez dakit zer» esanez hastea? «Eurokopako talde berberekin ezinean?». Zerbait gehiago beharko du ni berotzeko. Olinpiar Jokotan, selekzio bakoitzean, 23 urtez gorago hiru jokalaririk soilik egon daitezkeela argitu, eta eraso berriz ere. «Mata edo

Villa, zein da hobe?» Segi egurrean, gaztea!

*Tik* horren koloreak salatu nau, eta kontrolean zain zeuden kazetarien kexa oihuek salbatu. Barre txiki bat, arnasa hartu, eta aurrera... norbait kexaka entzun dudana arte. Oinetakoak kenduta daukate iskinan, eta motxila matzen ari dira goitik behera. Koloreak salatu du hura ere. Juanma Castaño Espainiako Cuatro telebista kateko eta Espainiako Cope irrati kateko kirol esataria da. Horri egin balizkiote niri egindako galderak...

berria  
2012ko uztailearen 31



Kronika

09



# Bai? Zer? Barkatu? Nola?

Judoan, emakumezkoen 52 kiloz azpikoan domina irabazi zuten lau judokak, itzultzaileekin; ezkerrean, aurkezlea. U. ZUBELDIA

**Dominak irabazi osteko prentsaurrekoetara ere iristen da jokoan handitasuna. Itzultzaile guztiak ondoan jarrita, eromen handi samarra sortzen da.**

Unai Zubeldia Londres  
→ Berriemaile berezia

**B**arkatu, errepikatuko didazu galdera, mesedez?; «Zer? Ez dizut ulertu?»; «Oso pozik eta harro dagoela dio»; «Bai, bestek ere erantzun dezatela, mesedez, guztientzat zen galdera». «Galdetu du ea zer garrantzi daukan domina honek Georgiarentzat»... Dominak erotu egingen dira kirolarien kolkoan zintzilik jarri eta kazetarien aurrera azaldutakoan. Mutu geratzen dira. Brontzezko dominarekin ha-

rra, poza ezin ezkutatuta, irribarre ederrarekin eseri da Prisilla Gneto frantziarra kazetarien aurrean, baina galdera ulertu ezinik dabil. Ulertu gabe, ezin ezer erantzun. «Itzultzailea behar duzu zuk ere?». Aurkezlearen galdera hori ere ezin du ulertu judoan, emakumezkoen 52 kiloz azpiko mailan, podiumera igo den frantziarrak. Keinuekin zerbait esan nahian ari da, baina ezin du hitzik aurkitu. Ez da momentu gozoa bizitzen ari ostiralean 21 urte beteko dituen judoka.

«Prest nago ni itzultzaile lanak egiteko». Frantziako kazetari ba-

### Aipatzekoa.

■ **Zortzi herrialde.** Gizezkoen 66 kiloz azpiko maila eta emakumezkoen 52 kiloz azpiko kon-tuan hartuta, zortzi herrialde eta zazpi hizkuntza elkartu ziren prentsaurrekoan. Itzultzaileekin denak, aurkezleari ulertzeko larri zebiltzalako. Zortzi dominaren atzean hemezortzi lagun denera.

ten proposamena. Hark galdera egin lehenengo frantsesez, hark itzuli ingelesean, erantzun Gnetok frantsesez, eta kazetariak itzuli ingelesean. Eromena. Eta tartean hitz eta sentimendu asko ihesean. Prentsaurreko erdia pasatzerako, jarri diote itzultzailea frantziarrari, baina, hizkuntzaren mugarekin, motelduta dago ordurako dominak emandako indarra.

Hizkuntzen saltsa handia pilatzen da podiumaren osteko prentsaurreko bakoitzean. Laxa Shavdatuaxvili Georgiakoa, Miklos Ungvari Hungariakoa, Masashi Ebinuma Japoniakoa eta Jun-Ho Cho Hego Koreakoa. Itzultzaile bana dauka bakoitzak ondoan; aurkezlearekin, bederatzi dira mahai txiki samar batean. Georgiarrari egin diote lehen galdera, ingelesez. Isilik eta zain geratu da

### Bozgorailuen sua

Hainbesteko saltsan, barrearri eutsi ezinik dabilta Yanet Bermoy kubatarra (bigarren sailkatua) eta Gneto eta Rosalba Forciniti italiarra (hirugarren sailkatua). Eta are zalaparta handiagoa sortzeko, lau judoken itzultzaileetako bat ingelesez hizketan hasten denean, gainerako itzultzaileak hura zer esaten ari den itzultzen hasten dira judokei, mikrofonoak piztuta daudela, noski. Bozgorailuak sutan daude, iparkorearraren itzultzailearen ingelesezko esan nagusiari kubatarra, italiarra eta frantsesa ere gehitu zaizkiolako. Artista handi samarra izan beharra dago esaten ari direna ulertzeko.

Aberastasan handia pilatzen da jokoetako podium bakoitzean, baina traba ere bihurtzen da gehienetan.

Egun bakar bat iraun dio osorik brontzezko dominak Felipe Kitada judoka brasildarrari. Kitada dominarekin sarri zen duaxara atzo taldelekin txanba bat egiten, eta hautsi egin zitzaion. NOB ez dago derrigorituta beste bat ematera, baina ziurrenik beste bat emango dio.



**Aupa Mikel eta Ainhoa!**


ZARAUZKO UDALA

**euskal kirolariek bat**



**Finalak**

**11:30. Zaldiketa.** Jauziak. Taldeakoa.  
**15:30. Zaldiketa.** Jauziak. Banakakoa.  
**16:00. Jauziak.** 10 metroko plataforma. Binakakoa (E).



**16:30. Halterofilia.** 63 kilokoa (E).  
**17:00. Judoa.** 63 kiloz azpikoa (E).  
**17:10. Judoa.** 81 kiloz azpikoa (G).  
**17:30. Gimnastika artistikoa.** Taldeakoa (E).  
**20:30. Halterofilia.** 69 kilokoa (G).  
**20:40. Esgrima.** Floreteak. Banakakoa (G).  
**20:41. Igeriketa.** 200 metrokoa (E).  
**20:49. Igeriketa.** 200 metro tximeleta estiloa (G).  
**21:43. Igeriketa.** 200 metro estiloak (E).  
**21:51. Igeriketa.** 4x200 metro txandakakoa (G).

**Euskal herritarak**

**10:30-15:00. Tiroa.** Juanjo Aranburu. Bigarren txanda eta finala (Skeet-a).



**13:00. Bela.** Iker Martinez eta Xabi Fernandez. 49er mailako hirugarren eta laugarren estropadak.  
**14:30-16:06. Piraguismoa.** Ander Elozegi. C-1 eslalomeko finalerdia eta finala.

**20:30. Eskubaloia (gizonezkoak).** Danimarka-Espainia.

**Telebistak**

**La1. 09:30.** 15:00 arte zuzenean, eta gero 16:30etik 22:00etara. 23:45ean eguneko laburpena.  
**Teledorte. 09:30.** 01:30 arte zuzenean. Ondoren, eguneko laburpena.  
**France2. 11:45.** 13:00 arte zuzenean. Gero, 14:45etik 20:00etara, eta 20:40etik 01:00etara.  
**France3. 09:00.** 12:00 arte zuzenean. Gero, 12:55etik 14:45era, eta 19:55etik 20:35era.

**← Emaitzak**

**Igeriketa**

■ **200 METROKOA (G)**

→ **Dominak**

1. Yannick Agnel (Frantzia) 1.43,14
2. Taehwan Park (H. Korea) 1,79ra
2. Yang Sun (Txina) 1,79ra

■ **100 MBIZKAR ESTILOAN (E)**

→ **Dominak**

1. Missy Franklin (AEB) 58,33
2. Emily Seebohm (Aus.) 0,35era
3. Aya Terakawa (Japo.) 0,50era

■ **100 MBIZKAR ESTILOAN (G)**

→ **Dominak**

1. Matthew Greivers (AEB) 52,16
2. Nick Thoman (AEB) 0,76ra
3. Ryosuke Irie (Japonia) 0,81era

■ **100 MBULAR ESTILOAN (E)**

→ **Dominak**

1. Ruta Meilutyte (Litua.) 1.05,47
2. Rebecca Soni (AEB) 0,08ra
3. Satomi Suzuki (Japon.) 0,99ra

**Gimnastika artis.**

■ **TALDEKAKOA (G)**

→ **Dominak**

1. Txina 275,997
2. Japonia 271,952
3. Britainia Handia 271,711

**Jauziak**

■ **10 MBINAKAKOA (G)**

→ **Dominak**

1. Cao-Zhang (Txina) 486,78
2. Garcia-Sanchez (Mex) 468,9
3. Boudia-McCrory (AEB) 463,47

**Esgrima**

■ **EZPATA. BANAKOA (E)**

→ **Dominak**

1. Jana Xemiakina (Ukraina)
2. Britta Heidemann (Alemania)
3. Sun Yujie (Txina)

**Halterofilia**

■ **62 KILOZ AZPIKOA (G)**

→ **Dominak**

1. Un Guk Kim (Ipar Korea) 327k.
2. Oscar A. Figueroa (Kol.) 317k.
3. Irawan Eko Yuli (Indon.) 317k.

■ **58 KILOZ AZPIKOA (E)**

→ **Dominak**

1. Li Xueying (Txina) 246k.
2. Pimsiri Sirikaew (Thaila.) 236k.
3. Julia Kalina (Ukraina) 235k.

**Judoa**

■ **73 KILOZ AZPIKOA (G)**

→ **Dominak**

1. Mansur Isaev (Errusia)
2. Riki Nakaya (Japonia)
3. Nyan-O. Sainjargal (Mongolia)
3. Ugo Legrand (Frantzia)

■ **57 KILOZ AZPIKOA (E)**

→ **Dominak**

1. Kaori Matsumoto (Japonia)
2. Corina Caprioriu (Errumania)
3. Marti Malloy (AEB)
3. Automme Pavia (Frantzia)

**Olinpiar tiroa**

■ **10 METRO ERRIFLEA (G)**

→ **Dominak**

1. Alin Moldoveanu (Errum.) 702,1
2. Niccolo Campriani (Italia) 701,5
3. Gagan Narang (India) 701,1



Lam Shin hego korearra eta Britta Heidemann alemaniarra, aurrez aurre, atzo, esgrimako ezpata probako finalerdietan. Heidemannek zilarrezko domina irabazi zuen finalean Jana Xemiakina ukrainarraren aurka galdu ondoren. SERGEI IILNITSKI / EFE



**← Dominak**

Herrialdea	Urr.	Zil.	Bro.	G.	Herrialdea	Urr.	Zil.	Bro.	G.
1. Txina	8	4	3	15	19. Alemania	0	1	0	1
2. AEB	3	3	3	13	19. Kolonia	0	1	0	1
3. Italia	2	4	2	10	19. Kuba	0	1	0	1
4. Frantzia	2	1	3	6	19. Mexiko	0	1	0	1
5. Hego Korea	2	1	2	5	19. Polonia	0	1	0	1
6. Errusia	2	0	3	5	19. Thailandia	0	1	0	1
7. Ipar Korea	2	0	1	3	19. Taipei	0	1	0	1
8. Kazakhstan	2	0	0	2	26. Azerbaijan	0	0	1	1
9. Japonia	1	3	3	7	26. Belgika	0	0	1	1
10. Errumania	1	2	0	3	26. Kanada	0	0	1	1
11. Australia	1	1	1	3	26. India	0	0	1	1
11. Brasil	1	1	1	3	26. Moldavia	0	0	1	1
11. Hungaria	1	1	1	3	26. Mongolia	0	0	1	1
14. Herbehereak	1	1	0	2	26. Norvegia	0	0	1	1
15. Ukraina	1	0	2	3	26. Serbia	0	0	1	1
16. Georgia	1	0	0	1	26. Eslovakia	0	0	1	1
16. Hegoafrika	1	0	0	1	26. Uzbekistan	0	0	1	1
18. Britainia Handia	0	1	1	2					

@SoyElchapu (Andres Nocioni Argentinako saskibaloi selektiboko jokalaria)  
 Argentinako egunkari baten azatia irakurri zen... «Zaharrik» deitzen gaituzte. Belau-  
 naldi honetako kideok nahiago dugu «adintsuak» deigarizatu. Milesker, kar-kari!



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua

Gipuzkoa BEERRA

“Gipuzkoa gure kirolariekin”

**K** irolaz haragoko ikur bilakatu zen James Cleveland Owens *Jesse* 1936ko Berlingo Olinpiar Jokoei esker (Oakville, AEB, 1913-Tucson, AEB, 1980). Esklabo baten biloba zenak urrezko lau domina irabazi zituen Hitler diktadorearen Alemanian.

Owensek beti erran zuen atletismorako bere grina eta kirol horretan izan zuen arrakasta institutu garaiko entrenatzaileari zor ziola, Charles Rileyri alegia. Unibertsitatean gogor lan egiten jarraitu zuen. Hamaika eskaintza jaso, baina Ohikora joatea erabaki zuen, harentza-

## Atzera begira

→ 1936

### Jesse Owens

Urrezko lau domina irabazi zituen Jesse Owensek Berlingo Olinpiar Jokoei, 1936. urtean. **BERRIA**



ko eta aitarentzako lanpostu banaren truke. 1935ean, munduko lau marka ondu zituen. Hurrengo urtean, Berlingo Olinpiar Jokoei izar bilakatu zen.

Etzera itzuli zenean, Waldorf-Astoria hoteleko lanpostua zuen zain. Hango mandatarari aritzen zen. «Sorterrira itzuli nintzenez, autobusaren aurreko aldean bidaiatzeko eskubiderik gabe jarraitzen nuen; ezin nuen nahi nuen tokian bizirik; Hitlerrek ez zidan bostekoa eman nahi izan, baina Etxe Zuritik ere ez ninduten deitu presidenteari bostekoa ematera joateko», idatzi zuen.

berria  
2012ko uztailaren 31



Olinpiar oroitzapenak → Luis Felipe Areta

11

# Errautsen gainean hegan

**Luis Felipe Areta seigarren izan zen luzerako jauzian Tokioko 1964ko Jokoei egun euritsu batean. Hiru jokoei parte hartu zuen, eta, behin erretiroa hartuta, apaiz bidea hartu.**

**Imanol Magro** Londres  
→ Berriemaile berezia

**E**rrauts pistetan lehiatzen hasi eta tartanean hartu zuen erretiroa. Luis Felipe Areta *Pipe*-ren (Donostia, 1942) kirol ibilbidea atletismoaren teknifikazioaren lehen pausoen lekukotasuna da. Hiru olinpiar jokoei parte hartu zuen, Erroman, Tokion eta Mexikon, eta lesio bategatik ez balitz, Munchen (Alemania) ere egongo zen. Euskal atletismoko jauzilari loriatuena da. Ordenagailu bat du bere memorian. Halere, jokoei buruz hitz egitean kideez oroitzen da bereziki. «Lagun giro bikaina genuen, bai Madrilgo Blume zentroan, bai lehiakideen artean. Urteekin, markei baino gehiago, adiskide multzoari ematen diozu garrantzia».

1960ko Erromako Olinpiar Jokoei erabat txunditu zuten Areta. 18 urte zituen, eta finaletik kanpo gelditu zen arren, oroitzapen atsegina du. «Hiri bikaina da, orduan ezagutu nuen. Gero, kirol mailan, gogoratzen naiz iritsi eta lehen entrenamendu egunetan AEBetako eta Sobietar Batasuneko kirolariek aritu ginela. Han Ralph Boston zegoen, 8,21 metroko marka egin berri zuena, Jesse Owens munduko errekorra hobetuz. Oso gizon atsegina da, gerora Tokion eta Mexikon ere elkartu ginen, eta ez da asko gorain-

tziak bidali zizkidala. Lagunarte bikaina genuen».

Lau urte geroago, 28 orduko hegaldi baten ondoren iritsi zen Tokiokora. Kirol asmoak handiagoak ziren, eta «presio» puntu bat sumatzen zuten. Jauzi hirukoitzean, bere proban, finaletik kanpo gelditu zen, eta arantza luzerako jauzian atera zuen. «Oso eguraldi txarra egiten zuten: euria, haizea... eta pentsa, errautsgainean, a zer-nolako putzuak!». Finalean bigarren aukeran sartu zen, eta gero seigarren gelditu zen. «Ni lehena nintzen jauzi egiten, eta azken txandan beste guztiak nola jauzi egiten zuten ikusi behar izan nuen urduri. Azkenean, seigarren nintzela ikusita, lasaitu handia hartu nuen. Eta zigarrata bat atera eta erre egin nuen! Ovanesia sobietarrak adarra jotzen zidan, hori bai, gero tabakoa eskatu zidan. Amerikarra erretzen nuen, badakizu...».

Mexikon, 1968an, zorigaitzak jo zuen Areta. Beroketan orkatilan min hartu zuen, eta ez zen lehiakor aritu. «Marka bikainak egin ziren Mexikon. Tartan pista zen, eta, altueran airearen dentsitatea txikiagoa zenez, errazagoa zen hegan egitea. Han zeuden denak, metro erdi gehiago jauzi eginez eta ni, begira. Etsigarria izan zen...». Han ikusi zuen ere Bob Beamon 8,90 metroko marka egiten. «Harrigarria izan zen. Jauzi perfektua egin zuen. Neurtzaileen metroa ere txiki geratu zen».



Luis Felipe Areta Anoetan jauzi egiten, Donostiako Atletikoko aritzen zen garaietan. **BERRIA**

## Laburrean

■ **Beamon gogoan.** Aretak Bob Beamon 8,90ko jauzia ikusi zuen 1968an. «Neurtzaileen metroa ez zen haraino iristen. Harrigarria».

■ **Lesioa.** Munchen egon zen, 1972an, baina ez zuen parte hartu. Tibiako zurda bat ebaki zuen, eta lesio hark eragotzi zion laugarren jokoei aritzea.



Harrigarria izan zen Beamonen jauzia. Neurtzaileen metroa ere txiki geratu zen»

**LUIS FELIPE ARETA**  
Atleta ohia

Munchen parte hartzeko aukera izan zuen, baina Kroazian egindako egonaldi batean istripu bat eduki eta tibiako zurda moztu zuen. Markak ez ziren berdinak izan, eta 1973an hartu zuen erretiroa. Gerora apaiz bidea hartu zuen. Opus Dei eta Bilboko eskola batean irakasle izan ondoren, egun meza ematen jarraitzen du. «Kirol zaletasunak gazteengana gerturatzen lagundu izan dit, hori ere eskertzen diot». Aldakako ebakuntza egin berri diote, eta indartzen denean, asteen behin Pagasarri igotzeko duen ohitura berreskuratu nahi du.

**I**ngelesak zinikoak ginela eta Olinpiar Jokoak ezkortasunez hartu genituela esaten zuten askok. Gaur goizeko ordu txikitian, errepideko lasterketa ikusteko lekua hartzen ari zen jendea, kale zaratsuetan etxeetako leihoak irekita zeuden, pozik zegoen jendea, etengabe animatuz. Hau da Londresen erantzuna», lagun batzuek esan zidaten. Txirrindulariak iristeko zain geundela, nire alboan hamar bat pertsona zeuden Bradley Wigginsen belarrondoko ilearen antzekoak aurpegian marraztuak zituztela; tabernan beste bi ikusi ditut. Tourra ira-

## Wiggins efektua



'London calling'  
Garazi Goia

bazi duenetik denen idolo bihurtu da Wiggins. Londres hiri erdi-erdian hezitako batek txirrindularitzako lorpenik handienera irits daitekeela frogatu du, eta behingoan txirrindularitza beste maila batera eramateko ordua iritsi dela esaten hasi dira hemen. Inoiz baino bizikleta gehiago ikusi ditut parkean, ezkutuan entrenatzen ari ziren guztiak bat-batean kanpora atera izan balira bezala. Ederra dago Londres. Eta egia da nire lagunek diotena, ilusioa arnasten da giroan, positibotasuna. Efektu hedoniko bat. Duela urte batzuk, 5-a-day ekimena

bultzatzen hasi zen Osasun zerbitzua; osasuntsu egoteko egunero bost fruta pieza jan behar zirela aldarrikatzen zuten, chef ezagun bat enbaxadore zutela. Jokoe kin nazioaren osasuna oraindik gehiago hobetuko dela esan dute antolatzaile batzuek. Wigginsen modukoan ahotik badator mezua, oraindik eraginkorra izango da ziurrenik. Baina, aldi berean, Coca Cola, McDonalds eta Cadbury txokolate etxea dira babesle nagusiak. Olinpiar estadiorekin inguruan ezin da McDonaldsenak ez diren beste hamburgerrik saldu. Mmm, antitesia.

**berria**  
2012ko uztailearen 31

# Azkena →



**↑ Geldi, arren, geld!** Horixe ari zaio esaten ziurrenik Mary King zaldun britainiarra *Imperier Cavalier* bere zaldiari. Zelaiko probako zailtasun nagusia zen aldapa hori, eta zaldi gehienek ederki sufritu zuten hura lasai antzean gainditzeko. **FRANK ROBICHON / EFE**

## → Laburrak



### Bruneiko emakumezko bakarra, «harro»

**ATLETISMOA** Maziah Mahusin Bruneirekin Olinpiar Joko batzuetan aritzen den lehen emakumezkoa «harro» azaldu da bere parte hartzearekin. «Ohore bat da. Bruneiko emakumezko askok esaten didate eredu naizela haien zain, ni bezalakoak izan nahi dutela», aitortu zuen atzo 400 metroko atletak.



### Williamstarren nagusitasuna

**TENISA** Serena eta Venus Williams dira urrea irabazteko faboritoak, bai banakoan, bai binakakoan. Atzo bi mailatan irabazi zuten bi estatubatuarrek.

### Cameron: «Ergela da esatea inaugurazioa ezkertiarra eta multikulturala izan zela»

**INAUGURAZIO EKITALDIA** David Cameron Erresuma Batuko lehen ministroak gogor erantzun dio Aidan Burrell Alderdi Kontsebadoreko parlamentariari, hark Olinpiar Jokoen inaugurazio ekitaldia «ezkertiarra eta multikulturala» izan zela esan ondoren. «Ergela da hori esatea. Inaugurazio ekitaldia bikaina izan zen, eta han ikusi zenak ez du zerikusirik politikarekin. Gure iragana, etorkizuna eta gure herrialdearen distira batzeko ahalegin berezia egin zuten antolatzaileek, eta, horregatik, zori ondu beharra dauzkat».

### Suitzako futbolari bat kanporatu dute jokoetatik, iruzkin arrazista bat egiteagatik

**ZIGORRA** Michael Morgarella Suitzako futbol selekzio jokalaria kanporatu dute Londresko Olinpiar Jokoetatik, Twitterren iruzkin arrazista bat idazteagatik. Joan zen astean ere Voula Papachristou jauzi hirukoitzeko atleta greziarra kanporatu zuten jokoetatik, arrazoi beragatik.

## berriaTB

**12:00. Aurkezpena.**  
→ Prentsaren errepaso.  
→ Londrestik zuzenean.

Unai Zubeldia eta Imanol Magro.  
→ 'Thamez' atala.  
Danel Agirre Berlingik.  
→ Tertulia.  
Julen Etxeberria eta Enekoitz Telleria.  
→ Eguneko kantua.